

**Pierre Choderlos de Laclos**

# **Harreman arriskutsuak**

**euskaratzailea: Jon Muñoz**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Jon Muñoz.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1997

Jatorrizkoaren data: 1782

Pierre Choderlos de Laclos euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=72>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1568>

# HITZAURREA

## CHODERLOS DE LACLOS

Pierre-Ambroise Choderlos de Laclos 1741eko urriaren 18an jaio zen Amiens-en. Aita erregearen administrazioko idazkaria zuen. 1759an militar ikasketak hasi zituen La Fère-ko artilleria eskolan. 1762an teniente izendatu zuten. 1763an Zazpi Urteko gerraren bukaera ekarri zuen bake hitzarmena sinatu zuen Frantziak, Laclosek gerran aintza lortzeko zituen ametsak ustel gertatu ziren, beraz. 1763tik 1779ra Toul, Estrasburgo, Grenoble, Besançon eta Valenceko gotorlekuetara bidali zuten; hango bizimodu lasai, geldi eta aspergarria urrun zegoen gerrako ekintza, oldarra eta suharretik. 1777an kapitain izendatu zuten. 1778an Frantziak hitzarmen bat sinatu zuen Ameriketako matxinoekin Ingalaterraren aurka borrokatzeko. Beraz, Frantziak atlantikoko uharteak eta kostaldea gotortu behar izan zituen ingelesen balizko erasoari aurre egin ahal izateko. Montalembert markesa izendatu zuten lan horren arduradun, eta honek

Laclos deitu zuen 1779an Aix uharteko gotorlekuko buruzagia izan zedin. Baina itsasoan ingeles ontzirik ageri ez, Laclos gogotik aspertu bide zen eta idazten eman zituen hango ordu luzeak; han izan zuten beraz sorrera «Harreman arriskutsuak» liburuko lehenengo gutunek. Geroztik, bi oporraldi hartu zituen (bata 1780ko urtarriletik ekainera eta bestea 1781ko bukaeratik 1782ko maiatzera), Parisen finkatu zen eta han bukatu zuen Aix uhartean idazten hasitako izkribua. «Harreman arriskutsuak» 1782ko martxoan argitaratu zen, lau liburukitan, Durand Neveu argitaletxean. Liburuak arrakasta handia izan zuen eta eskandalu are handiagoa sortu zuen. Egilea eta liburua gaitzetsiak izan ziren, agintari militarrek zigortu egin zuten Laclos eta Britainiara bidali berehala, baina apirila bukaeran kolean zen jadanik liburuaren bigarren argitaraldia. Urte hartan bertan, Laclosek beste eskandalu bat jasan behar izan zuen: Marie-Soulange Duperré ezagutu eta harekin hasi zen harremanetan, handik bi urtera seme bat izan zuten, artean ezkondu gabe; baina 1786an ezkondu egin ziren azkenik eta Laclosek semetzat ezagutu eta aitor-

tu zuen aldeaz aurretik izan zuten haurra; geroztik beste bi seme-alaba izan zituzten.

1788an Laclosen bizitzak aldaketa nabarmen bat izan zuen, gudarostea aldi baterako utzi eta politikari lotu baitzitzaion. Orleanseko dukearen zerbitzura hasi zen lanean idazkari gisa. Orleanseko dukea Luis XVI.a Frantziako erregearen lehengusua zen, eta Frantziako gizonik aberatsetako bat halaber. Haren gerizan parte hartu zuen Laclosek Frantziako Iraultzan. 1789an Londresen erbesteratu behar izan zuen Orleanseko dukearekin eta 1790ean, Parisa itzulirik, Jakobinoen klubean sartu zen, eta «Journal des Amis de la Constitution» («Konstituzioaren Adiskideen Kazeta») jakobinoen aldizkariaren zuzendari izan zen. 1792an gudarostean sartu zen berriz, Gerra Ministeritzako komisario izendatu zuten eta Châlons-sur-Marnera bidali, han gudaroste iraultzailearen aurka borrokatu zen Valmy-ko guduan; gero Pirinioetako gudarosteko gudalburu izendatu zuten.

1792an Orleanseko dukea diputatu hautatu zuten, Luis XVI.aren heriotzaren aldeko botoa eman zuen, eta urte hartan bertan baztertu

zituen noble izateak ematen zizkion eskubide bereziak, hori zela eta «Philippe Égalite» ezizena jarri zioten; baina monarkia berriro aginpidean jarri eta bera errege izateko asmotan zebilela egotzirik hil zuten 1793ko azaroan. Laclos ere arriskuan egon zen, 1793an bi aldiz atxilotu zuten, apirilean l'Abbaye presondegian eta azaroan Picpus-en, Orleanseko dukearen alde azpijokoan ari izan zelakoan; heriotza zigorraren beldur izan zen hura ere, baina 1794an askatu egin zuten. Gudarostean berriz sartzea eskatu zuen, baina uko egin zioten; Hipoteken Idazkari Nagusi izendatu zuten eta lanpostu horretan ihardun zuen gudarostean berriz onartu zuten arte. 1800ean, Bonapartek artilleriako jeneral izendatu zuen eta Rhin-eko gudarostera bidali. Gero Italian borrokatu zen, eta 1803ko urtarrilean Napoliko gudalburu izendatu zuten. 1803ko irailaren 5ean hil zen Tarenton, Napoli inguruan, disenteriak eta malariak jota.

Esan liteke Laclos nobela bakarreko autore dela. Izan ere, porrot egindako olerki saio batzuez bestalde, artikuluak, txostenak eta saia-

kera bat dira hark argitara eman zituen idazlanak. Hona lan aipagarrienak:

— «Les Souvenirs» (Oroitzapenak), 1773an «L'Almanach» aldizkarian argitaratua.

— «Ernestine» opera komikoa (1777), ikusleek gogor gaitzetsitako libretoa.

— «Quels seraient les meilleurs moyens de perfectionner l'éducation des femmes?» («Zeintzuk lirateke emakumeen heziketa hobetzeko baliabiderik onenak?»); Châlons-sur-Marne-ko akademiak egindako galderari Laclosek egin zion erantzuna, 1904an argitaratua.

— 1784an artikulua bat argitaratu zuen «Le Mercure de France» aldizkarian, «Cecilia» ingeles idazlanaz.

— «De l'éducation des femmes» («Emakumeen heziketaz») (1785), lehiaketa akademiko batean aurkeztutako liburua, emakumeen zapalkuntza gaitzesten zuena eta «Harreman arriskuak» liburuan ageri diren ideia batzuk lantzen zituena.

— «Lettre à MM. de l'Académie française sur l'éloge du Maréchal de Vauban» («Frantziako Akademiako jaunei egindako gutuna, Vaubango

Mariskalaren goraipamenaz») (1786). Obra horretan gogor kritikatu zuen ordu arte oso aintzat hartua izan zen liburu bat eta horrek Gerrako Ministeritzaren gaitzespena ekarri zion.

— «De la Guerre et de la Paix» («Gerraz eta Bakeaz») (1795).

## **HARREMAN ARRISKUTSUAK**

Lehen esan dugun bezala, Laclos 1779an hasi zen «Harreman arriskutsuak» idazten, Aix uhartean egon zen bitartean, eta 1781ean bukatu zuen, agintari militarrek eman zioten sei hila-beteko oporraldia bitartean, liburu horrek eman-go ziolakoan gerrak ukatzen zion aintza. Tillyko kondeak bere Oroitzapen Liburuan ematen digu Laclosen asmoen eta iritzien berri, Laclosek berak esan zizkion hitzen bidez: «...inork entzungo ez zituen hil eresi batzuk ondu eta irakurleen eta neronen onerako sekula inprimatuko ez diren neurtitzak idatzi ondoren, eta ez aitzina-mendu handirik ez omen handirik ekarriko zidan lanbide bat ikasi ondoren, ohiko bidetik aterako zen liburu bat idaztea erabaki nuen, zarata handia egingo zuen liburu bat, ni hil ondoren haren



oihartzunak lurraren gainean iraun zezan.» «Harreman arriskutsuak» beraz militar etsi eta gogaitu baten obra handinahia da, 1782an argitaratua, Durand argitaratzailearen etxean, lau liburukitan. Lehenengo argitaraldia 2.000 alekoa izan zen eta berehala agortu zen. Handik gutxira, Durand jaunak beste argitaraldi bat egin zuen. 1782ko urte hartan bertan, jatorrizko argitaraldiaz eta bigarren argitaraldi zuzenduaz bestalde, liburuak beste zazpi argitaraldi izan zituen. 1784tik 1796ra, Laclos bizi zelarik alegia, beste hamabi argitaraldi egin ziren, baina Laclosek arestian aipatutako lehenengo biak baizik ez zituen onartu, eta beste guztiak gaitzetsi. Berehala nobela horrek sekulako arrakasta izan zuen eta eskandalo handia sortu; haren oihartzunak zeharo gainditu zuen Laclosen itzaropena. Eta agintariek haren aurka hartu zituzten neurriek areagotu baizik ez zuten egin liburuaren ospea.

«Harreman arriskutsuak» nobela psikologikoen obra aitzindaria da, gutun bidezko nobelen eta literatura libertinoaren ekarria biltzen dituen besteak beste, eta, intriga eta azpijokoa ardatz harturik, XVIII. mendeko emakumeen

egoera salatzen duen eta gizon-emakumeen arteko aginpidezko harremanetan sakondu duen maisu lan bikain eta zehatz idatzia.

XVIII. mendean gutun bidezko nobelak urrezko aroa izan zuen Frantzian, batez ere 1760 eta 1780 bitartean. Goraldi hori mende hartako gizartearen ispilu izan zen, izan ere, gutunak idazteko ohitura oso errotua zen gizarte hartako agintari, dirudun eta nobleziako jendeagan. Gizaldi hartan gizarte harremanek garrantzi handia zuten eta solaskideak elkarrengandik urrunduak ziren orduko, gutunak ordezkatzeko zuten solasaldia. Gaurdaino gorde diren garai hartako benetako gutunek aski lekukotasun garbia ematen dute gutun haien literatur kalitateaz. Gizarte harremanetarako kode estu eta zehatzak zituen gizatalde baten ispilu dira gutunak; maiz gutunak ez zuten hartzailerik bakarrik izaten, lagunartean irakurtzeko xedez egina izaten zen, eta horretarako zekarren kalitate artistiko handia erakutsi nahia. Eta hala ere, lagunartearen begiradak norbera zelatan zuten gizarte hartan, gutuna mamitasunaren, isilmandatuaren eta sekretuaren eremua izan zitekeen. Esan dezagun gai-

nera gutun bidezko harremana idazlan literario-rik egitea bururatu ere egiten ez zitzaien gizatal-deei zegokiela: aristokratei eta emakumeei. Aristokraten ustean, literaturgintzak ez zuen beren mailari zegokion duintasunik. Emakume askorentzat, berriz, gutuna zen adierazpide bakarra, eta gutun idazle gehienak emakumeak izan ziren, liburu honetan aipatua den Sévigné andrea gidari.

Gizarte ohitura horri jarraiki, XVIII. mendean gutun bidezko nobelak bilakaera luzea ezagutu zuen Frantzian; ahots bakarreko gutunetatik, ahots anitzeko gutunetara. Laclos izan zen hain zuzen genero horren baliabide guztiak maisu baten gisa erabiliz eta muturreraino eramanez maisu lan bat egitera iritsi zena.

Mende hartako lehen erdialdean gutun exotikoek arraskata handia izan zuten. Aipa ditzagun, besteak beste: «Lettres persanes» (Montesquieu, 1721); «Lettres d'une Turque», «Lettres moscovites», «Lettres chinoises»... 1730az geroztik gutun bidezko nobelak joera psikologikoa edo sentimenduzkoa agertuko du, Richardson ingeles idazlearen «Pamela» (1741) nobela-

ren eraginez. Ahots bakarra dute aipatu ditugun nobelek ezaugarri, eta bakarrizketarako joera hori, lehen esan dugun bezala, emakumeek landu zuten gehien. 1750. urteaz geroztik ahots anitzeko gutun nobelak agertuko dira, gutun bidezko elkarrizketak: «Lettres du commandeur de\*\*\* à Mlle de\*\*\* avec les réponses du chevalier Mouhy» (1753). Baina «La Nouvelle Héloïse» (1761) da gutun bidezko nobelek eredutzat izan zuten nobela. Liburu horretan Rousseauk bikain erabili zituen genero horren baliabide anitzak ahots aniztasunaren mesedetan: maitaleen ahotza, isilmandatariena, jakitunarena eta ezjakinarena, zuhurrarena eta maltzurrena... Ahots, pertsonaia, doinu, estilo aniztasun hori ikasgai gertatu zitzaion Laclosi; Rousseauaren itzala sumatzen da harreman arriskutsu hauetan, eta Laclosek behin baino gehiagotan egin zuen bere liburuan «La Nouvelle Héloïse»ren aipamen zuzena (Ikus CX. gutuna).

Gutun bidezko literaturaren gailurra izateaz gainera, Laclosen liburuak badu beste aurrekari bat, bestea bezala genero haren bilakaerarako baliabide ezinago hobeak eskaintzen zituen

XVIII. mende hartan gailendua: nobela libertinoa. Alderdi batzuetan antzematen zen zilegitasunaren eta aldi berean Antzinako Aroaren moralarekin eta erlijioarekin etenik egin ez zuen gizarte hark oso kontutan hartzen zituen debekuen arteko tirabira ongarri emankorra izan zen literatura libertinoarentzat. Genero horrek debekuak behar baititu; aisiarako denbora eta dirua baduen eta lan egiteko beharrik ez duen jendea behar du; eta behar ditu orobat elkarri gaizki esaka eta elkarren zelatan ibiltzea zeregin nagusi zuten eta XVIII. mendeko goi mailako gizarteak hain maite zituen lagunarte eta bilkura haiek. Halaber, genero horrek pertsonaien tipologia jakin bat, gertakizun multzo bat eta estilo zehatz bat du ezaugarri. Italiako Commedia dell'arte-n bezala, literatura libertinoan pertsonaia nagusiak eredu eta molde jakin baten araberakoak dira: gizon zitak, emakume gaiztoak, emakume xaloak eta errugabeak... Genero libertinoaren estilo baliabideak (ahalik gehiena iradokiz ahalik gutxiena esatea, esan gabe ulertutakoak, hitz jokoak, esanahi bikuneko perpau-sak, antitesiak) Laclosek beste estilo desberdi-

nekin nahasten ditu, errejistro eta doinu aniztasuna emanaz bere obrari.

«Harreman arriskutsuak» zorretan dago orobat XVIII. mendearen bigarren erdian arrakasta handia izan zuen genero batekin: sentimenduari eta grinaren nobelarekin. Rousseauren «La Nouvelle Héloïse» eta Richardsonen «Clarisse» dira berriz ere genero horren aitzindariak. Erromantizismo aurreko liburu horiek gai berriak dakarzkiete XVIII. mendeko nobelari: grinaren goraipamena, izadiaren zentzua, misterioaren eta zehaztasunik ez duenaren garrantzia. Liburu honetako heroiak sentikorrak dira, eta nobela osoa malkoz josia dago; baina pertsonaia sentikorrak lotsagarri gelditzeraino dira batzuetan sentikorrak, eta ez dira halaber aipatzeke geldituko sentikortasunaren ondorio makurrak.

XVIII. mende bukaeran, arrakasta handia izan zuten baita ere beldurra, izua eta tragedia oinarri zuten nobelek. Liburu honetako izua eta drama ordean pertsonaien baitakoa da, eta ilunbeak etsipenak sortutako barne ilunbeak dira.

Gaizkiaren eta azpijokoaren gaia ere maiz agertzen da XVIII. mendeko nobelagintzan, eta

Valmonteko bizkondearen eta Merteuileko markesaren pertsonaiak horren adierazgarri garbiak dira; haien kidetasun misteriotsuak elkarrekin egindako txikizioak ditu oinarri, ez dira txikizio fisikoak, psikologikoak ordea, baina hargatik maiz eragiten dute biktimen etsipena, lur jotzea eta heriotza. Emakumearen bortxaketa ere sail horretan sar genezake, eta nobela honetan nabarmen agertzen ez bada ere, aise soma daiteke Valmontek Tourvel andrea seduzitzen duen unea bortxaketa bat dela (CXXV. gutuna). XVIII. mendeak, Argien eta Arrazoiaren mendeak, oso kontutan hartua zuen eromenaren arazoa, eta interes horren lekukotasuna idazlan askotan ageri da, baita nobela honetan ere, Laclosek zehatz aipatzen baitu Tourvel andreak bere agonian bizi duen eromena (XLVII gutuna). Aipa dezagun baita ere estrategia militarren eragina, Valmontek eta Merteuilek bere azpijokorako baliatua, eta Tourvel andrearen sedukzioaren kontaketa Merteuil andreari egiten dion gutunean Valmontek bereziki aipatua (CXXV. gutuna), ez alferrik Laclos militarra baitzen, ia bere

karrera osoan gerran ibili gabeko militarra hain zuzen.

Nobela honetan nabarmena da erlijioaren, erlijio katolikoko sakramentu batzuen, eta batez ere erlijiozko mintzairaren aipamena eta eragina. Ez bakarrik erlijioari atxikiak ageri diren pertsonaietan, hala nola, Volanges andrea, Tourvel lehendakariaren emaztea eta Cécile (komentuko heziketaren eta bere amaren eraginez). Baita libertinoengan ere, eta askoz harrigarriagoa eta eragingarriagoa da libertinoek erlijiozko mintzairaz egiten duten erabilera, deboziozko mintzairaren imitazioa, beren asmoen arabera trebeki erabiltzeko. Nobelaren izenburuak berak ere deboziozko mintzairaren aipua dakar. Politikaren erretorika oraindik nagusitu ez zen garai hartan, galderak, errepikazioak eta sermoien erretorikak berezko dituen gisa horretako baliabideak Laclosek ezin hobeki erabili zituen.

Kontutan hartzekoak dira baita ere aitortza-  
ren eta oliadurako sakramentuaren aipamen  
garbiak (CLXV. eta CLXIII. gutunak). Aitortzak  
eragina du gertakarien bilakaeran, eta pertso-  
naia batzuek berariaz erabiltzen dute beren pro-



betxurako (LXXXI. eta LXXXI. gutuna); eta amaiera aldera, aita Anselme aitorlea Valmonten eta Tourvel andrearen artean bitarteko gisa erabilia izango da. Nobela honen oinarria den gutun bidezko harremana bera ere etengabeko aitor-tza baten gisara uler liteke.

Erlijioari dagokionez, esan dezagun halaber nobela honek kritika zorrotza egiten diola erlijioa ardatz zuten garai hartako ohiturei eta batez ere emakumeen heziketari. Komentutik atera berria den Cécileren ezjakintasuna nabarmena da eta ez dio inongo babesik ematen Valmonten eta Merteuilen erasoaren aurrean. Tourvel andreak ezingo du amodioaren indarra garaitu, erlijioak ematen dion segurantzari oso atxikia egon arren. Erlijioaren ergelkeria eta aurrejudizioak gorpuzten dituen Volanges andreak zorigaitza ekarriko dio bere alabari eta bere adiskide Tourvel andreari. Ironiaz eta erlijiozko mintzaira bere gisara erabiliz eta irauliz, Laclosek gogor kritika-tu zuen erlijioaren itzala gailendua zitzaion eta, Frantziako Iraultzaren bezperan, gainbeheran zegoen gizarte hura, nahiz batzuetan errepara-

tua zion eta men egin zion mintzaira horren edertasunari.

Teatroa garrantzi handiko topaleku eta ikus-kizuna izan zen XVIII. mendeko goi mailako gizartearentzat, eta orobat du garrantzia liburu honetan, gizarte harremanen metafora gisa. Bere izebaren gazteluan, Valmontek antzerki lan bat bailiran prestatzen eta betetzen ditu bere asmoak (XCIX. gutuna). Gertaldi patetikoak ere maiz samar agertzen dira (XXI. eta CV. gutunak).

Opera da idazlan honetako gertakizun askoren gertalekua eta haren oihartzuna eta aipua sarri agertzen dira. Parisen ia gauero egiten ziren opera emanaldiak, eta goi mailako jendeak opera zuen gizarte harremanetarako leku egokiena eta erabiliena. Operaren aurrealdea du gertaleku Tourvel andreak Valmont eta Émilie zalgurdi berean ikusi dituen gertaldi ikaragarriak (CXXXV. gutuna). Operari dagokio orobat Valmont bere izebaren etxera iristen den unearen deskribapenak (LXXVI. gutuna), eta liburuaren bukaerak berak ere opera lan baten amaiera iradoki dezake.

Idazketa bera da nobela honetako pertsonaia definitu eta gorpuzten dituen. Gutun bidezko nobela bat denez, pertsonaiek idatzi egiten dute, eta norberaren idazkeraren eta beste idazkeraren arteko tirabirak, estiloak alegia, definituko du pertsonaia bakoitza, idazketaren bidez kontatzen diren gertakariak, gogoetek eta asmoak bezainbat. Idazketarik ezak, egileak batzuetan ohartarazten duenez halako eta halako gutuna errepikazioaren beldurrez edo interesgarria ez delakoan ez argitaratu izanak, nahiz gutun hori existitzen den eta pertsonaiek aintzat hartua duten, irakurlearen jakinmina akuilatzen du eta zehatz adierazita ez dauden gertaerak eta irtenbideak iradokitzen dizkio. Idazketaren garrantziaz ari garela, azpimarra dezagun nobela honetan gutuna bera gertakizun bat dela eta hondamena dakarrela behin baino gehiagotan. Gutuna berez da arriskutsua, norbaiti adierazi nahi zaion baina beste norbaiti ezkutatu nahi zaion zerbaiten froga. Dancenyren eta Cécileren arteko gutunen berri Volanges andreak jakin izanak sekulako ondorioak ekarriko ditu eta nobelaren ardatzetako bat izango da. Era berean, Dan-

cenyk Merteuil andrearen gutunak jendaurrean erakutsi izanak ekarriko du haren hondamena, nahiz ez idaztea eta haren jokabidearen frogarik idatziz ez uztea izan haren oinarritzko araurik nagusia; arau hori Valmontengana ez bete izana larrutik ordaindu beharko du.

Gutuna hilgarria da gainera. Merteuil andreak idatzi eta Valmontek bere izenean Tourvel andreaki bidaliko dion gutunak haren heriotza ekarriko du. Gutun hori, gainera, diktatua izan da, eta ez da bakarra; nobela honetan gutun diktatu asko dago eta horrek baliabideak ematen dizkio idazleari; gutuna irakur lezake gutuna bidalia izan ez zaion beste norbaitek ere, eta gutunaren sinatzailea ez da beti izaten gutuna idatzi duen pertsona bera.

Pertsonaia arketipoak sortu bainoago, Laclosek idazketa arketipoak sortzen ditu: xalotasun moldakaitzaren idazkera (Cécile, Danceny), maitasun grinarena (Tourvel andrea), libertinoen idazkera maltzur, landuago eta intelektualagoa (Valmont eta Merteuil andrea). Eta, jakina, idaztanka horien arteko nahasketa egiten du. Horretan, bi libertinoek, Valmontek eta Merteuil

andreak, iristen dute goimaila, bere asmoen eta premien arabera aukeratzen eta baliatzen baitute unean uneko estiloa. Eta haiek dira orobat, bi pertsonaia xalo eta eskarmenturik gabeei, Cécileri eta Dancenyri, nola idatzi behar duten irakasten dietenak. (CXXI. eta CV. gutunak). Estiloen arteko kontrasteak edo errepikazioak efektu bereziak sortzen ditu, eta horretarako Laclosek bikain erabili zuen gutunen hurrenkera edo ordenamendua. Bestalde, Laclosek berak aitzinsolasan garbi adierazten du estiloari ematen dion garrantzia: gutunen estilo akatsak aipatzen ditu gaitzesgarriro, baina gutunon estilo aniztasunari merezimendu irizten dio.

Nobela honetako denbora nahiko bizia da, ez du amodiozko eta heziketazko nobelen gelditasuna, gainbehera baten bizkortasuna sumatzen zaio. Libertinoen denbora berez da bizkorra: bizkon ekin, bizkor garaitu eta azkenik harremana berehala hautsi eta beste bati lotu. Amodioaren denbora, berriz, iraunkortasunaren, jarraikitasunaren, gelditasunaren denbora da. Idazlan honen hasieran maitasunaren denbora da nagusi (Danceny-Cécile eta Tourvel-Valmont; nahiz

Valmontek maiteminduta dagoela aitortu ez, Merteuil andreak behin baino gehiagotan egotziko dio maiteminduta egotea eta horrek dakarren gelditasuna, eta hain zuzen ere horixe izango da amaiera iragarriko duen seinalea eta, beraz, gelditasuna bizkortasun bilakaraziko duena). Gutunen datek ere oso zehaztu eta mugatzen dute nobelaren denbora.

Lehen esana dugu «Harreman arriskutsuak» gizarte baten ispilu direla, amaitzear zegoen Errejimen Zaharraren ispilu, alegia. Pertsonaiak arketipo jakin batzuetan oinarrituta daude; nobleziako kideak dira, ez denak ordea maila bereko nobleak. Ezin uka, nolanahi ere, diruak gizarte hartan eta nobela honetan duen garrantzia, eta zenbateraino tankeratzen eta baldintzatzen dituen pertsonaiak eta gertakariak. Dirua da Volanges andreak alabaren senarra hautatzekoan duen irizpide nagusia, Gercourt Danceny baino askoz aberatsagoa baita. Baztangak eta eskandaluak bainoago, auzia galtzeak eta beraz dirurik gabe gelditzeak ekarriko dio hondamena Merteuileko markesari.

Pertsonaien sexuari eta adinari erreparatzen badiogu, sailkapen bat egin liteke. Bost pertsonaia nagusien artean, Cécile, Tourvel andrea, Merteuil andrea, Danceny eta Valmont, hiru emakumeak dira eta bi gizonak. Baina badira garrantzi handiko beste pertsonaia batzuk ere: Volanges andrea, Rosemonde andrea, Préván eta, maila apalago batean, urrundarik mintzo den Gercourt. Pertsonaia banaketa horretan emakumeak nagusi beraz. Baina bi libertinoen sexu rola anitzak dira; Valmont Tourvel andrearen eta Cécileren maitalea da, eta Merteuil andrearen maitale izana; Merteuil andrea, berriz, Dancenyren maitale izango da eta Valmonten maitale ohia da; horrez gainera, une jakin batean Prévánen maitale ere izango da, eta beste zenbaitetan Cécilekin duen harremanaren nolakotasuna anbigua gertatuko da (XX. eta LXIII. gutunak). Sexu banaketa horretan, Merteuileko markesa guztiz pertsonaia arauz kanpoko da; nobela osoan zehar hura da beti gertakizunen eragile eta sortzaile, eta Valmonti zein Préváni nagusitzen zaio; jokaera hori ezohikoa da eta ez dator inondik ere bat XVIII. mendeko

gizarteak emakumeari ematen zion rola erekin (puntu honi dagokionez argigarria da Merteuileko markesak LXXXI. gutunean bere bizitzaz, bere pentsaeraz eta bere arauz egiten duen kontaketa).

Pertsonaien adinak pertsonaiaren rola bera baldintzatzen du: Danceny eta Cécile pertsonaia gazte, xalo eta maltzurkeriarik gabeak dira hasieran, eta nobelaren bilakaerak berak egingo ditu maltzurrago eta, nolabait esateko, libertinoago. Zer esan nahi zuen Laclosek, adinean aurrera egin ahala xaloak libertino bilakatzen direla? Bestalde, pertsonaiek adinez duten aldea oso urte gutxikoa da eta ez du zerikusirik gure gaurko ikuspegiarekin. Garai hartako gizartean jendea gazte samar hiltzen zen eta nobeletako heroiak oso gazteak izaten ziren orobat. Gutune-tan aipatua da Cécilek hamabost urte dituela, Dancenyk ere hortxe nonbait seguru asko; haien maisu eta gidari diren Valmont eta Merteuilek hogeita urte gutxi izango dituzte, eta Volanges andre ohituraren arabera oso gazte ezkonduak hogeita hamar bat urte inguru izan litzake. Rose-



monde andrea da gure ikuspegiaren arabera ere adin handikoa den pertsonaia bakarra.

Nobela honetan paralelismo eta kontraste asko ageri dira, batzuk oso esanguratsuak. Aipa ditzagun horietako zenbait. Valmont-Cécile harremana eta Valmont-Tourvel harremana aldi berean eramanak daude hasieran. Tourvel andreak, maiteminduta egon arren, Valmonti gogor aurre egin izanak etengo du paralelismo hori. Alde ederra dago baita ere literatura liberti-noak oso berezkoa duen gertakizun batean: emakumearen gelan gauez eta ezkutuan sartzen den gizona. Valmont zuzen eta bizkor sartu da Cécileren gelan, eta neskak berehala emango du amore; Prévan Merteuil andrearen gelan sartu izana ordea emakume horrek aldezturik pentsatu, antolatu eta kalkulaturakoaren arabera izango da. Adinez eta pentsaeraz ikusle eta kontalari rola betetzen duten bi pertsonaien arteko aldea ere ez da makala: Rosemonde andrearen zintzotasuna eta adimen bizia eta Volanges andrearen ergelkeria eta berekoikeria. Bestalde, paralelismorik garrantzitsuena gertakizunen ardatza bera izan liteke: bikoteen harremanak.

Batetik libertinoak, Valmont eta Merteuil, eta bestetik pertsonaia xalo eta maltzurkeriarik gabeak, Cécile eta Danceny. Valmontek Cécile hezi eta seduzitzen du; Merteuilek Danceny hezi eta seduzitzen du; horrez gainera, bi bikoteak elkarrez maiteminduta daude; bikotekide aldaketa bat izango da beraz, Valmont-Merteuil eta Danceny-Cécile maiteminduak hasieran, Valmont-Cécile eta Merteuil-Danceny seduzituak gero. Parekotasun horiek sortzen duten oreka eta egonkortasuna Tourvel andrearen eta Valmonten arteko eta, neurri batean, Merteuilen eta Valmonten arteko maitasun grinak suntsituko du eta grina horrek berak sortuko du drama eta gertakarien bukaera.

Aipagarria da Valmonten eta Merteuilen arteko aginpidezko harremana. Liburuaren hasieran esaten zaigunez aspaldiko kidetasun batek lotzen ditu pertsonaiok, baina bukaera aldera jakingo dugu paper arriskutsu batzuk direla harreman horren lotura (CLXIX. gutuna). Nola-nahi ere, harrokeria eta nork bere buruaz duen libertino erabateko eta beteginaren irudiari atxiki nahia dira elkarren arteko lehiaren ardatza,

eta harrokeria horrek berak eginaraziko die elkarri erronka eta ekarriko du azkenik bien arteko gerra. Gerra horrek sortuko du hondamena: Valmonten heriotza eta Merteuilen porrota eta ihesa.

Nobelan adierazten denez, balirudike bertutea eta morala izan direla garaile, baina Michel Delon-ek aipatu duen bezala (Delon, Michel, *Les liaisons dangereuses* «Etudes littéraires», P. U. F., 1986) garaipena azken batean nobelagilearena da, Laclosena, zeren Rosemonde andreak bere eta Volanges andrearen izenean gertakizunak isiltasunean eta ahanzturan gordeak izan daitezzen nahi eta eskatzen baldin badu ere, nobelagileak argitaratu egin ditu azkenik.

Nobela hau itzultzeko argitarapen hau erabili dut: «*Les liaisons dangereuses*, Pierre Choderlos de Laclos. Édition présentée, commentée et annotée par Béatrice Didier. Le livre de poche, 354». Hitzaurre honetan aipatutako datu eta argibide gehienak ere Béatrice Didier-ek edizio horretan bertan adieraziak dira.

Itzulpen honetako bizpahiru gutun Juan Garziak egindako itzulpenean oinarrituak dira. Eske-

rrak eman nahi dizkiet baita ere Joxean Muñoz, Antton Olano, Juan Mari Arzallus, Jose Luis Agote eta batez ere Josu Zabaletari itzulpen hau irakurtzeagatik eta egin dizkidaten oharrengatik. Orobat Ibaizabal argitaletxeko Joxe Antonio Sarasolari.

**HARREMAN ARRISKUTSUAK**  
**edo**  
***Gutunak***  
***gizarte batean bilduak***  
***eta bertze batzuen jakinbide argitara***  
***emanak***

«Ikusi ditut neure garaiko ohiturak  
eta gutun hauek eman ditut argitara.»

J.J. ROUSSEAU,  
*La Nouvelle Héloïse*-ko aitzinsolasa

# ARGITARATZAILEAREN OHARRA

Izkribu honen izenburua eta idazleak bere aitzinsolasean izkribu honez erraten duena gora-behera, irakurleei behar diegu geure ustez gatzigatu ezen ez dugula bilduma honen egiazkotasuna bermatzen, eta badugula orobat garrantzizko arrazoirik nobela bat baizik ez dela uste izateko.

Iruditzen zaigu halaber ezen egileak berak suntsitu diola egiantza, iduriz haatik haren bila ibili dela, bai aski baldarki suntsitu ere, argitara eman dituen gertakariak ezarri dituen garaiaगतिक. Alabaina, agerrarazten dituen anitz pertsonaia hain dira ohitura gaiztokoak, ezen ezin uste baitaiteke gure mendean bizi izan direnik; filoso-fiaren mende honetan hain zuzen, non argiek, orotarik barreiatuak, bihurtu baitituzte gizon guztiak arras prestuak eta emakume guztiak arras apalak eta begiratuak, batbederak dakien bezala.

Beraz gure iritzian, baldin idazlan honetan aipatuak diren gertakariak egiaren kutsurik

badute, ez zitezkeen bertze lekutan edo bertze denboratan baizik gertatu; eta arrunt gaitzesten dugu egilea, zeina, hurbilagotuz bere mendeari eta bere herrialdeari, ausartu baita, interesa areago ernarazteko esperantzaren liluraz non-bait, biziki arrotzak zaizkigun ohiturak gure bez-tiduraz eta gure ohiturez agerraraztera.

Irakurle sobera sineskorra sujet honek sor lie-zaiokeen ezein ezustetarik begiratzeko bederen, gure eskuan dagokeen bezainbat, geure iritzia bortiztuko dugu fidantziaz proposatzen diogun arrazoi batez, zeina baita gure ustez garailea eta ihardets ezina; erran nahi baita, kausa berek dudarik gabe ondorio berak beharko lituzketela nahitaez sortu, eta ez dugu hala ere egungo egunean ikusten hiruretan hogeit mila errenta duen andereñorik erlijioan sartzen, ez eta lehen-dakariaren emazte gazte eta ederrik xangrinez hiltzen.

# IDAZLEAREN AITZINSOLASA

Idazlan honek, edo hobeki bilduma honek, nahiz irakurleek beharbada sobera lodi kausituko duten oraino, ez du halere jatorrizko gutun bilduma osoaren gutun multzo ttipiena baizik biltzen. Bilduma hori beretua zuten presunek gutunok ordenatzeko eginkizuna nire gain eman dutenean, eta jakinik argitaratzeko xedean zirela, ez dut eskatu, neure arduren sari gisa, alferrikakoa irudituko zitzaidan guztia edekitzeko baimena baizik; eta saiatu naiz alabaina beharrezkoak iruditua zaizkidan gutunak baizik ez gordetzen, dela gertakariak ulertzeko, dela izaeren bilakaerarentzat. Baldin lan arin horri gehitzen badiogu iraunarazi ditudan gutunak berriz ordenatzeko lana, eta ordenamendu hori daten arabera egin dut ia beti, eta ohar labur eta bakan batzuk azkenik, zein eta, gehienek, ez baitute bertze xederik, ez bada aipamen batzuen iturburua jakinaraztea, edo argitzea berebat zergatik iruditua zaidan zilegi gutun batzuk kentzea, jakin



ahalko da idazlan honetan izan dudan parte guttia. Nire eginbidea ez zen urrunago hedatzen.

Aldaketa handiagoak proposatu nituen, eta ia denak ebakeraren edo estiloaren garbitasunari zegozkionak, zeinaren kontra irakurleak hainbat hutsegite kaunituko baitu. Nahi nukeen halaber gutun sobera luze batzuk mozteko baimena izan, haietariko anitzetan elkarri guztiz ere arrotz zaizkion sujetak aipatzen baitira, bereizirik, eta ia iragaitzarik gabe. Lan hori ez zidaten onartu, eta dudarik gabe ez zatekeen nahikoa idazlanari merezimendurik emateko, baina edekiko zizkiokeen bederen akats parrasta bat.

Ohartarazi didate gutunak berak nahi zirela ezagutarazi, eta ez soilik idazlan bat gutun horien gainean eginikoa; eta orobat zatekeela egiantzaren nahiz egiaren aurkakoa gutun horietan esku hartu duten zortzi edo hamar presunek izkiriatsu izana guztiek berdin garbi. Eta argudiatu diedanean ezen, aitzitik, bilduma horretan ez zela ezein gutunik huts larririk gabarik, eta kritikarik salbu legokeenik, erantzun didate ezen irakurle zentzudun orok hain segur igurikiko zukeela partikular batzuen gutun bilduma batean

hutsegiterik kausitzea, zeren itzal handiko autore anitzek, baita zenbait akademikok ere, orain arte argitara eman dituzten gutun bilduma orotan, ezeinik ere ez baita kausitu erantzuki horren gerizan egon litekeenik. Arrazoi horiek ez didate etsiarazi, eta iruditu zaizkit, oraino iruditzen zaizkidan bezala, errazagoak ematen, ezen ez onartzen; ez nintzen ni ordean nagusia, eta men egin diot. Atxiki dut soilik neure ezadostasuna adierazteko eta nire iritzia bertzelakoa zela jakinarazteko eskubidea; eta hori dagit une honetan.

Idazlan honek izan dezakeen merezimenduaz den bezanbatean, nire egitekoa ez da ausaz argibiderik ematea, nire iritzia ez baitu eraginik izan behar eta ez baitezake eraginik izan neho-renarenean. Haatik, irakurtzen hasi baino lehen, gauzak zertan diren hein batean jakitea laket dutenek; horiek, diot, segitzen ahal dute: bertzeek hobe dute bertatik idazlanera berera iragatea; bai baitakite aski eta sobera.

Hasteko, erran dezaket ezen nire iritzia izan baldin bada, eta hala izan dela aitortzen dut, gutun hauek argitara ematea, ez dudala haatik

arrakasta izanen dutenik neholaz ere uste: eta nire egiaz mintzatze hau ez bedi har egile baten umiltasun aizunaren gisa; zeren eta egiaz berdin mintzaturik deklaritzen baitut ezen bilduma hau iruditu ez balitzait irakurleei eskainia izateko duina, ez nuela zeregin hori neure gain hartuko. Saia gaitezen itxurazko kontraerran hori adosten.

Idazlan baten merezimendua baliagarritasunak edota atsegintasunak osatzen dute, baita biek ere, horretarako gai denean: arrakasta ordea ez da beti izaten merezimenduaren frogagarri, eta sarri zaio atxikiagoa hautatu den gaiari, gaiaren egikerari baino, aurkezten dituen objektu multzoei, taxutuak izan diren erari baino. Beraz, izenburuak berak iragarri bezala, gizarte oso baten gutunak biltzen dituen bilduma honek anitz interes dira nagusi irakurlearena ahultzen dutenak. Bertzenaz, hor adierazten diren ia sentimendu guztiak aizunak edo itxuratuak direnez, ez dezakete kitzika jakinminezko interesa baizik, zeina baita betiere sentimenduzko interesa baino hagitz maila apalagokoa, eta, oroz gain, ez baita bihozberatasunera bertzea bezain

emana, eta are nabarmenago uzten baititu xehetasunetan ageri diren akatsak, hanbatenaz xehetasunak etengabe aihertzen baitzaizkio ase nahi den desira bakarrari.

Huts horiek kitatuak dirateke agian idazlana-ren izateari berari dagokion dohain batez: erran nahi baita, estilo aniztasunaz, egile batek nekez erdiesten duen merezimendua, hemen ordea berez ageri zena, eta berdinkeria-aren asperretik bederen salbatzen duena. Anitz presunek aintzat ere har lezaketek ohar kopuru aski handi bat, zein berriak, zein ez oso ezagunak, gutun hauen baitan sakabanatuak. Hori da, nire iduriko, gutunok eman dezaketen atsegin guztia, denik eta oniritzik handienaz ere jujaturik.

Idazlan honen baliagarritasuna, are ukatua-goia izanen dena agian, uste dut haatik aiseago frogatzen ahal dela. Ohitura gaiztoak dituztenek ohitura onak dituztenak galbidean jartzeko baliatzen dituzten bideak erakustea ohituren zerbitzuan aritzea dela iruditzen zait bederen, eta, nire iritzian, gutun hauek eragintza handiz lagun dezakete xede hori erdiesten. Zein bakan baliatzen diren ikusirik, ezezaguntzat jo litezkeen bi

egia garrantzitsuren froga eta etsenplua ere kausituko da gutunotan: bata, ohiturarik gabeko gizona lagunartean hartzera makurtzen den emakume orok ez duela azkenik kaltea baizik hartuko harengandik; bertzea, alabaren fidantzia bera ez den bertze norbaiten esku uzten duen ama oro zuhurtziarik gabea dela gutxienez. Sexu bateko zein bertzeko gazteek ikas lezakete orobat ezen ohitura gaiztoko presunek horren erraz eskaintzen bide dieten adiskidantza ez dela beti segada arriskutsu bat baizik izaten, eta hagitx galgarria nola haien zorionarentzat hala haien bertutearentzat. Guztiarekin ere, uste dut soberakeriari, nahiz ontasuna hurbil duen beti, beldur izan behar zaiola halakoetan; eta, gazteriarri idazlan hau irakurtzea kontseilatzetik urrun, oso garrantzitsua iruditzen zait gazteek urrun izan ditzaten gisa horretakoak oro. Idazlan hau arriskutsua izatetik baratu eta baliagarri bilaka daitekeen garaia iruditzen zait biziki ontsa hauteman duela, nahiz den emakume, ama on, zentzuzko ez ezik, zentzu oneko batek. «Iduriko zait», erra-ten zidan, gutun hauen eskuizkribua irakurri ondoren, «zinez eginen diodala neure alabari

zerbitzu, liburu hau esposatuko den egunean emanik.» Baldin etxekoandre guztiak iritzi berekoak badira, bozkarioak eginen ditut betiko liburua argitaratu izanaz.

Ordea, idazlan honen aldeko uste on hori abiapuntu harturik ere, iruditzen zait bilduma hau jende gutxiri laketuko zaiola betiere. Gizon eta emakume galduak interesa dukete kalte egin diezaiekeen idazlan bat gaitzesteko; eta ez baitute trebetasunaren eskasik, trebe izanen dira agian oinarrizko arau zorrotzak dituzten jendeak haien alde eta fabore jartzeko, beldurrik ere gabe aurkezten dugun ohitura gaiztoen ikuskari horrez asaldatuak.

Zentzuz ustez bortitzak direnek ez dute bate-re interesik izanen emakume debot batengan, eta horregatik beretik emaztetto baten gisa behatuko diote; debotak aldiz haserretuko dira bertuteak lur jo duela ikusirik, bai arranguratuko ere erlijioa agertu izanaz ahalez hain eskas.

Bertzenaz, gustu fina dutenak higuindurik dirateke gutun hauetariko askoren estilo sobera bakun eta sobera akastunaz; irakurle arruntak aldiz, inprimatua den oro lanaren emaitza dela-

ko usteak liluraturik, egile baten molde bortxatua ikusi usteko du bertze zenbait gutunetan, mintzarazi duen pertsonaiaren gibelean ageri.

Azken finean, norbaitek erranen du, oro har agian, ezen gauza bakoitzak bere lekuan baizik ez duela balio; eta ezen egileen estilo sobera landuak eskuarki grazia kentzen baldin badie alabaina gizarte gutunei, gutun hauen laxotasunak zinez hutsegite bihurtuak direla, eta pairagaitzak gertatzen direla, inprimarazten direlarik.

Zinez dut aitor ezen gaitzespen horiek guztiak egiaztatuak izan daitezkeela: uste dut halaber gaitzespen horiei ihardets ahal niezaiekeela, eta aitzinsolas baten luzera gainditu ere gabe. Baina onartu beharrean gara ezen orori behar izan banio ihardetsi, orduan ez zuela idazlan honek deusik ihardesten ahal; eta hala iritzi izan banio, batera edekiko nituzkeela orobat aitzinsolasa eta liburua.

# LEHENENGO PARTEA

## LEHENENGO GUTUNA

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

*...ko Ursulinetan*

Ikusten duzu, adiskide maitea, hitza betetzen dizudala, eta txanoek eta girgilek ez dutela nire denbora guztia betetzen; izanen dut betiere zuretzat astirik. Egun bakar honetan nolanahi ere elkarrekin eman ditugun lau urteetan baino soineko gehiago ikusi dut; eta uste dut Tanville harro horrek atsekabe gehiago izanen duela nire lehendabiziko ikustaldian, non haren galdea egiteko xedea baitut, gu ikustera *in fiocchi* jin den guztietan hark eman uste diguna baino. Amak orori buruz eskatu dit aholku; lehen baino askoz gutxiago tratatzen nau egoiliar baten gisara. Badut gelari bat neure zerbitzuko; badut gela bat eta kabinet bat nik erabiltzeko, eta idazmahai arras polit baten gainean izkiriartzen dizut, non laket zaidan guztia gorde baitezaket, giltza



eman baitidate. Amak erran dit egunoro ikusiko dudala iratzarria den orduko; aski dudala orobat bazkalordurako orrazturik egotea, beti bakarrik egonen baikara, eta egunoro erranen didala beraz arrastirian zer ordutan behar naizen harekin bildu. Gainerakoan astia neure gogara balia dezaket, eta hemen ditut neure harpa, marrazki eta liburuak, komentuan bezala; salbu eta Ama Betierekoa ez dela hor niri liskar egiteko, eta neure esku baizik ez nukeela orobat betiere deusik egin gabe egotea: baina nola nire Sophie ez baita hemen solastatzeko eta irri egiteko, nahia-go dut zerbaitetan aritu.

Ez dute bortz orenak jo oraino; amaren bila ez dut zazpi orenak arte joan behar: horra aski denbora, baldin zerbait banu zuri errateko! Oraino ez didate ordea deus ere erran; eta baldin ikusiko ez banitu prestaerak egiten, eta hainbat neskame jinen ez balitzaizkit oro neuretzat, usteko nuen amak ez duela ni esposatzeko asmorik, eta Joséphine on horren bertze zaharmin bat dela. Hala ere, amak hain sarri erran baitit andereño batek komentuan gelditu behar

lukeela esposatu arte, ezen jalgiarazi nauelarik, Joséphineek arrazoi izanen baitu.

Zaldi orga bat baratu berri da atarian, eta amak mezutu dit joateko berehala bere gelara. Jauna balitz? Ez nago jantzirik, dardaraka dut eskua eta taupadaka bihotza. Galdetu diot gelariari ea bazekien nor zegoen amaren gelan: «Hain segur ere», erran dit, «C\*\*\* jauna da.» Eta irri egin du. Hura dela uste dut. Itzuliko naiz segurki gertatu dena zuri kontatzera! Horra bederen haren izena. Ez dezadan inor zain eduki. Adio, berehala etorriko naiz.

Irri eginen diozu bai Cécile gaixoari! O! Hau lotsa! Baina zu ere ustekabeen harrapatuko zintuen ni bezala. Amaren gelan sartu eta ikusi dut gizon bat beltzez jantzia, haren ondoan zutik. Ahal bezain ongi agurtu dut, eta neure lekutik higi ezinik gelditu naiz. Egizu kontu zer nolako irrikaz aztertu dudan! «Andrea», erran dio amari, ni agurturik, «horra hor andereño xarmangarri bat, eta inoiz baino hobeki sumatzen dut haren gan zure ontasunen balioa.» Horren perpaus goresgarria entzunik, halako dardarak hartu nau, non ez nezakeen zutik iraun; kausitu dut besaul-

ki bat, eta han eseri naiz, arras ahalke gorritan eta asaldu bizian. Eseri naizen orduko, horra non gizon hori belauniko jarri zaidan. Orduan zure Cécile gaixoak burua du galdu; ikara bizia nintzen, amak erran duen bezala. Auhena min bat eginez altxa naiz; ...hara, ekaitz gau hartan bezalaxe. Ama barrez lehertu da, ziotalarik: «Hots bada! Zer duzu? Eseri eta luzatu oina gizon honi.» Izan ere, adiskide maitea, gizon hura zapatari bat zen. Ezin adieraz diezazuket zenbatez ere nintzen ahalketua: beharrik hana ez zen ama baizik. Uste dut ezen, esposatzen naizenean, sekula ez naizela zapatari horrez baliatuko.

Aitor dezagun txit jakintsuak garela! Adio. Sei orenak inguru dira, eta gelariak jantzi egin behar dudala dio. Adio, Sophie maitea; oraino komentuan banintz bezala zaitut maite.

*P.S.*— Ez dakit nire gutuna noren bidez igorri: beraz Joséphine etorri arte igurikiko dut.

*Parisen, 17\*\*ko abuztuaren 3an.*

## II. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI  
*...ko gazteluan*

Itzul zaitez, bizkonde maitea, itzul zaitez: zer ari zara, zer egin ahal duzu bere ondasun guztiak betiko emanak dizkizun izeba xahar baten etxean? Abia zaitez berehala; zure beharretan naiz. Ideia bikain bat bururatu zait, eta zure esku nahi dut utzi haren obratzea. Hitz apur hauekin aski behar zenuke; eta, nire aukeraz ohoratuegirik, behar zenuke jin, laster eta fite, nire manuak belauniko entzutera: nire ontasunak neurritz gain atxikiak dituzu ordea, nahiz jadanik baliatzen ez dituzun; eta herra eternalaren edo bihozberatasun soberazkoaren artean hautatu beharraren karietara, bozkaria zaitez, zeren nire ontasuna baita gailendu. Neure asmoak nahi dizkizut bada jakinarazi: baina zin egidazu, zaldun leiala zarenez gero, uko eginen diozula zeinahi abenturari honako hau fini dezazun arte. Heroi baten hainbatekoa da: amodioa eta mendekua dituzu zerbitzatuko; zure oroitliburuan ezarri beharreko bertze amarrukeria bat gehiago izanen da azken

buruan: bai, zure oroitliburuan, zeren eta egunen batean argitaratuak izatea nahi baitut, eta hartu baitut izkiriatzeko ardura. Baina utz dezagun hori, eta lot gakizkion esku artean dudanari.

Volanges andreak bere alaba esposatzen du: sekretua da oraino; baina atzo jakinarazi zidan. Eta nor uste duzu hautatu duela suhitzat? Gercourteko kondea. Nork erran behar zidan Gercourten lehengusina bilakatuko nintzenik? Herra bizian naiz!... Hots bada! Oraino ez duzu asma-tu? O! Adimenaren astuna! Barkatu diozu beraz intendentaren emaztearekiko abentura? Eta nik, ez duta arranguratzeko arrazoi gehiagorik, mustroa halakoa? Baina ari naiz baketzen, eta mendeku hartzeko esperantzak arima dit sosegatzen.

Biga-bostetan gogaitu zaitu, niri bezala, izanen duen emazteari Gercourtek ematen dion garrantziak, eta ezin itzurizko asturuari itzuriko zaiola sinetsarazten dion uste ergelak. Ezagutzen duzu murru arteko hezibidean duen uste irrigarria, eta emakume bilo-horien neurritasunaren fabore duen aieruzko uste are irrigarriagoa. Alabaina, eginen nuke ezen, Volanges gaz-

tearen hiruretan hogei mila liberako errenta gorabehera, ez zituzkeela eztei horiek sekula eginen, neska izan balitz beltzarana, edota ez balitz egon komentuan. Froga diezaiogun beraz ez dela ergel bat baizik: egunen batean hala izanen baita dudarik gabe; horretan ez dut kezkaibiderik: baina horrela hasiko balitz, hori bai irrigarria. Biharamunean aise libertituko ginатеke bere burua goratzen zuela entzunik! Zeren goratuko baitu; eta horrez gainera, zuk neskatila hori prestaturik duzun orduko, malura handia litzateke Gercourt hori, bertze zeinahi bezala, Paris guztiaren irrigarri egina ez gelditzea.

Bertzenaz, nobela berri honetako heroiak zure begirune osoa merezi du: zinez da ederra; soil-soilik ditu hamabortz urte, huraxe bai arrosaren kapulua; moldakaitza, egia erran, ezinago moldakaitza, eta itxurez arras ezaxolatua: baina, zuek gizonak, ez zarete itxuren beldur; bertalde, badu halako begirada goibel bat zinez eskaintza handikoa: horrez gainera nik gomen-datzen dizut; ez duzu beraz niri eskerrak ematea eta obeditzea baizik.

Gutun hau bihar goizean hartuko duzu. Bihar arratseko zazpi orenetan nire etxean egon zaitez-zen fermuki dizut galdatzen. Zortzi orenak arte ez dut nehor hartuko, ezta zaldun erregetua bera ere: ez du behar adina buru hain eginkizun handirako. Ikusten duzu maitasunak ez nauela itsutzen. Zortzi orenetan libertatea dizut itzuliko, eta berriz jinen zara hamar orenetan izaki eder horrekin afaltzera; zeren amak eta alabak nire etxean afalduko baitute. Adio, eguerdiak jo du: aurki ez naiz zutaz gehiago arduratuko.

*Parisen, 17\*\*ko abuztuaren 4an.*

### **III. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Oraino ez dakit deus ere, adiskide maitea. Amak asko jende zuen atzo afaritan. Afaldarrak, gizonak bereziki, aztertzeke nuen arretagatik, asper-asper eginda nengoen. Gizonak eta emakumeak, asko behatu zidaten, eta gero ahapetik mintzo zitzaizkion elkarri; ongi nekusan nitaz mintzo zirela: ahalke gorritan jartzen ninduen

horrek; ezin nuen erremediatu. Nahi bai nik, ohartu bainintzen bertze emakumeei behatzen zietenean, ez zirela ahalke gorritzen; edo agian aurpegian jarria duten gorri koloreak ez du uzten estuasunak sortzen dien gorritasun huraxe ikusten; zeren ez gorritzeak hagitz nekeza izan behar baitu gizon bat begiz begi so duzunean.

Nitaz zer pentsatzen ote zuten ez jakitea zen gehien kezkatzen ninduena. Bizpahirutan hala ere *polit* hitza entzun uste izan nuen: baina *mol-dakaitz* hitza ere argi eta garbi entzun nuen; eta hala beharko du izan, zeren eta horrela mintzo zen emakumea nire amaren ahaidea eta adiskidea baita; iduri ere zuen berehala adiskidetu zela nirekin. Hura da afalondoko bilkura hartan ele doi bat eman zidan presuna bakarra. Bihar haren etxean afalduko dugu.

Afalondoan, hain segur nitaz mintzo zen gizon bati entzun nion bertze bati erraten: «Umotzen utz dezagun hau, aurtengo neguan ikusiko dugu.» Gizon hori izanen da agian esposatuko nauena; baina orduan ez da lau hilabete barru arte izanen! Auzi hau zertan den jakin grinak nago.



Horra Joséphine, eta presaka dabilela erraten dit. Neure bertze *moldakaizkeria* bat dizut hala ere kontatu nahi. O! Andre horrek arrazoi duela-koan nago!

Afal ondoren jokoan hasi ziren. Ni amaren ondoan jarri nintzen; ez dakit nola gertatu zen, baina ia bertatik lokartu nintzen. Sekulako barre algarak iratzarri ninduen. Ez dakit niri egiten ote zidaten irri, baina baietz uste dut. Amak lotaratzeko baimena eman zidan, eta atseginez bete ninduen. Kontu egizu hamaika orenak paseak zirela. Adio, Sophie maitea; asko maite ezazu beti zeure Cécile. Egiatan diotsut mundua ez dela guk uste bezain atsegingarria.

*Parisen, 17\*\*ko abuztuaren 4an.*

## **IV. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

*Parisen*

Zure manuak xarmangarriak dira; zure manatzeko manera are da atseginagoa; despotismoa maitaraziko zenuke zuk. Ez da lehenengo

aldia, dakikezun bezala, jadanik zure esklabo ez izatea deitoratzen dudana; eta horren *mustroa* naizela diozun arren, ez dut sekula plazerrik gabe oroitzen izen eztiagoekin ohoratzen ninduzun garaia. Izenok berriro merezi izateko gogoia ere badut sarri, eta baita, zurekin batera, munduari tinko irautearen etsenplu ematekoa ere. Baina zeregin handiagoak dauzkagu deika; menderatzailearena da gure asturua; behar zaio jarraitu: ausaz bide osoa egin ondoren berriz aurkituko dugu elkar; zeren eta, zu haserretu gabe derradan, markesa txit ederra, gutxienez urrats berdinez jarraitzen baitidazu; eta, munduaren zorionerako elkarrengandik banaturik, nork bere aldetik fedearen prediku egiten dugunez geroztik, uste dut amodiozko zeregin honetan, nik baino jarraitzaile gehiago izan dituzula. Ezagutzen dut zure eginahala, zure sugar gorria; eta harako Jainko hark geure egitateengatik jutatuko bagintu, egunen batean hiri handi bateko santu begirale izanen zinateke, zure adiskidea gehienez herriska bateko santu xume bat litzatekeen bitartean. Mintzaira horrek harritzen zaitu, ez dea egia? Baina zortzi egun baditu, ez dudala

bertzerik entzuten, ez mintzatzen; eta horretan trebatzeagatik nago hain zuzen ere zuri ez obeditzera behartua.

Ez haserretu eta entzun. Nire bihotzeko sekretu guztien gordailu baitzara, sekula eratu dudan asmorik handienaren berri emanen dizut. Zer proposatzen didazu? Deus ikusi ez duen, deus ez dakien neskabila gazte bat seduzitzea; zeina emanen baitidate, nolabait errateko, bate-re babesik gabe; zeina aitzineko gorazarrearekin hutsik egin gabe liluratuko baita, eta agian jakin-minak erakarriko baitu amodioak baino fiteago. Nik bezala bertze hogeik erdiets dezake. Ez da horrelakoa bururatu zaidan egitekoa; erdiesteak loria bezainbat plazer ziurtatzen dit. Nire koroa prestatzen ari den amodioa bera ere zalantzan dago mitrearen eta erramuaren artean, edo, gehiago dena, biak elkartuko ditu nire garaipena ohoratzeko. Zuhaur, adiskide ederra, errespetu santu batek hartuko zaitu, eta erranen duzu gogo berroz: «Horra nire bihotzaren araberako gizona.»

Ezagutzen duzu Tourvel lehendakariaren emaztea, haren jaidura, haren ezkon maitasuna,

haren oinarritzko arau zorrotzak. Horra nire era-  
soaren xedea; horra nire dinako etsaia; horra  
erdietsi nahi dudan jomuga:

*Eta erdiesteak ez badakar saririk,  
Gutxienez saiatu izanaren ohorea  
izanen dut nik.*

Neurtitz txarrak aipa daitezke, poeta handi bate-  
nak direnean.

Jakinen duzu bada lehendakaria Borgonian  
dela, auzi handi bat dela kausa (auzi garrantzi-  
tsuago bat galaraziko ahal diot!). Haren erdi kon-  
tsolaezinak hemen behar du pasa bere alargun-  
tza atsekabetuaren denbora guztia. Meza bat  
egunoro, ikustaldi zenbait eskualdeko behar-  
tsuei, goizeko eta arratseko otoitzak, irtenaldi  
bakartiak, deboziozko elkarrizketak nire izeba  
xaharrarekin, eta zenbaitetan wisk triste bat,  
horiek behar dute izan haren entretenigarri  
bakarrak. Eragintza handiagokoak prestatuko  
dizkiot. Aingeru begiraleak ekarri nau hona,  
haren eta nire zorionerako. Zentzugabea! Damu  
nuen azturazko begiramenei eskaintzen nizkien

hogeita lau orenez. Zer zigor handia niretzat Parisa itzultzera behartuko banindute! Beharrik lau behar diren wiskean jokatzeko; eta hemen nola bertako erretora baizik ez baitago, neure izeba hilezkorra erreguka ari izan zait egun batzuk eskain diezazkiodan. Onartu dudala igerriko zenion. Jakin bazeneza nola lausengatzen nauen orduz gero, oroz gain nolako onbidea ematen diodan haren otoitzetan eta haren mezan ikusten nauelarik sarri. Ez dio susmorik hartzen nik han gurtzen dudan Jainkoari.

Horra bada non, duela lau egun, grina handi batek hartua nagoen. Badakizu zein den bizia nire irritsa, badakizu nola gainditzen ditudan oztopoak: ez dakizu ordea bakardadeak nola gehitzen duen desiraren karra. Ideia bat baizik ez dut; hartan dut egunez pentsatzen, eta gauez amets egiten. Emakume hori edukitzeko premia bizia dut, haren amoros izatearen lotsatik salba nadin: nora ez ote garamatza desira zapuztu batek? O, atseginaren zoragarria! Nire zorionagatik eta batez ere nire atsedenagatik zaitut otoizten. Zoriontsuak gu emakumeak hain gaizki defendatzen direlako! Haien ondoan ez ginateke

esklabo herabetiak baizik. Badut une honetan emakume errazengana esker oneko sentimendu bat, zure oinetara berez naramana. Zure oinetan ahuspezten naiz barkazioa eskuratzeko, eta finitzen dut gutun sobera luze hau. Adio, adiskide ederra: herrarik gabe.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko abuztuaren 5ean.*

## V. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Badakizua, bizkonde, zure gutuna bakana dela bere ausardian, eta karia horretara ez hase-  
rretzea niri baizik ez legokidakeela? Argi frogatu dit ordea burua galdu duzula, eta soilik horrek salbatu zaitu nire erresuminetik. Adiskide esku-  
zabala eta sentikorra naizenez, laido hori ahan-  
ten dut zure arriskuan baizik ez pentsatzeko, eta arrisku horretan gogoeta egitea hain delarik ere gogaikarria, amore ematen diot une honetan duzun premiari.

Tourvel lehendakariaren emaztea eduki zuk!  
Hori gutizia irrigarria hori! Aise antzematen dut

hor ezin erdietsi uste duena baizik desiratzen ez dakien zure buru gaiztoa. Zer da bada emakume hori? Begitartea neurrizkoa, nahi baduzu, neongo bizitasunik gabea ordea: gorpuzkeraz hala-halakoa, baina xarmarik gabea: beti irrigarri jarria! Zapi pila lepo gainean, eta gerruntzea kokotseraino igoa! Adiskide gisa mintzo natzazu, horrelako bi emakume aski zenituzke, zeure izen ona erabat galtzeko. Oroit ezazu bada Saint-Rochen eskean ari zen egun hura, eta ikuskari haren berri eman izana biziki eskertu zenidanekoa. Ikusi uste dut oraino, gizon mehar handi txima-luze hari eskua emanik, urrats bakoitzean estropezuka, lau kanako saskia betiere norbaiten buru gainean, eta gur egiten zuen bakoitzean ahalke gorritua. Nork erranen zizun orduan: emakume hori desiratuko duzua? Hots, bizkonde, ahalke gorritu zaitez zuhaur, eta zatoz zeure onera. Sekretua agintzen dizut.

Eta bertzalde, egiezu so zain dauzkazun nahi-gabeei! Zein duzu lehiatu beharreko aurkaria? Senar bat! Ele hori entzutetik beretik ez zarea ahalketua sentitzen? A zer lotsa huts egiten baduzu! Eta zein loria eskasa garaipena erdietsiz

gero! Gehiago diot; ez ezazu batere plazerrik igurika. Plazerrik ba ote da ahalketiekin? On ustekoez ari naiz: plazerraren muinean berean sotilak, ez dizute erdi atseginik baizik eskaintzen. Nor bere buruaren erabateko utzialdi hori, irritsaren eldarnio hori non plazerra bere gehiegitasunaz araztua den, amodioaren ontasun horiek, emakume horiek ezjakinak dira horretan. Horra nire iragarpena; irudipenik zoriontsuenean ere, lehendakariaren emazte horrek zugatik dena egin duela uste izanen du senartzat hartzen zaituelakoan, eta ezkontideen buruz burukorik xamurrenean, bi dira beti ageri. Honako honetan are okerragoa da; zure ahalketi hori debota da, haurtzaro eternalera kondenatu ohi duen emakume onaren deboziokoa. Oztopo hori gaindituko duzu agian, ez zaitez ordea suntsituko duzulakoan hantustetu: Jainkoaren amodioa garaituko duzu, ez ordea deabruaren beldurra; eta, zure maitea besoetan harturik, haren bihotza taupadaka sentituko duzularik, izuz ariko zaio taupadaka eta ez amodioz. Beharbada, emakume hori lehenago ezagutu izan bazenu, egin zenezakeen harekin zer edo zer; baina



hogeita bi urte ditu horrek, eta bi urte inguru baditu esposatu zela. Sinets nazazu, bizkonde, emakume bat hein horretaraino sartu delarik *oskolean*, bere asturuaren mende behar da utzi; sekula ez baita *huskeria* bat baizik izanen.

Beraz, izaki eder horrengatik ez didazu obeditu nahi, lurperatzen duzu zeure burua zeure izebaren hilobian, eta uko egiten diozu abenturarik zoragarrienari eta zeure ohorerako denik eta aproposenari. Zer nolako asturuz ote da Ger-court zure aitzin ibiltzea beti? Hara, ez natzaizu beltzurika mintzo: baina, une honetan, zeure izen ona merezi ez duzula uste izateko tentatua naiz; zuri dizudan fidantziari uko egiteko tentatua batez ere. Sekula ez naiz ohituko neure sekretuak Tourvel andrearen maitaleari erratera.

Jakizu, dena dela, Volanges ttipiak dagoeneko buruan laino eman diola norbaiti. Danceny gaztea dauka burua galdurik. Harekin kantatu izan du; eta izan ere egoiliar batek ohi duen baino askoz hobeki aritzen da kantuan. Bikoteka usu errepikatu behar izaten dute, eta gogoak ematen dit neskak gogara eginen zukeela aho

batezkoa: baina Danceny hori haur bat da, gorte egiten galduko du bere denbora, eta ez du deus ere finituko. Neskatxa ttipi hori berriz aski mukerra da; eta, zer gerta ere, hau ez da nehondik ere zuk egin ahal zenukeen bezain atsegina izanen: haserre nago beraz, eta zalduna heltzen denean hain segur liskar egingen diot. Ezti izatea kontseilatzen diot; zeren eta, une honetan, aise egingen bainuke harekikoaz. Ziur naiz ezen baldin hura abandonatzeko burutazio ona baneuka, etsia hartuko lukeela; eta deus ez zait horren atsegin-garria, nola zaidan amodiozko etsipena. Zital deituko ninduke, eta zital ele hori beti izan dut laket; krudel hitzaren ondoren hura da eztieta emakume baten belarrietan, eta bertzea baino aiseago merezitzen ahal da. Serioski, arta hartuko dut etendura horretaz. Hala bada zeren kausa zaren! Beraz zure kontzientzia baitan ezartzen dut. Adio. Gomenda nazazu lehendakariaren emazte horren otoitzei.

*Parisen, 17\*\*ko abuztuaren 7an.*

## VI. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Ez baita emakumerik atxikitzen jakin duen nagusigoaz neurriz gain baliatzen ez denik! Eta zuhaur ere, usu adiskide bihozbera deitu izan zaitudana, baratu zara azkenik nire adiskide izatetik, eta beldurrik gabe erasotzen didazu begi begiko dudan xedean! Tourvel andrea zer nola-ko moldez irudikatzera ausartzen zaren!... Zein gizonek ez zukeen bere biziaz ordainduko ausardia ozar hori? Zuri ez bertze zein emakumeri ez lekarkioke horrek belzkeria bat bederen? Otoi, horren gaitzaldi bortitzak ez niri gehiago pairarazi; ezin segurta baitezaket jasanen ditudanik. Adiskidantzaren izenean, zaude emakume hori neuretu dezadan arte, baldin hura gaitzerran nahi bazeneza. Ez dakizu soilik irritsak duela amodioaren lotura urratzeko eskubidea?

Zer diot ordea? Tourvel andreak ba ote du liluraren beharrik? Ez; xarmangarria izateko aski du den bezalakoa izatea. Gaizki beztitzen dela egozten diozu; bai noski: apaindura oro kaltegarri du; estalgarri oro itsusgarri: soilik laxotasuna-

ri emana denean dago zinez zoragarri. Jasaten ari garen bero kiskalgarriari esker, soineko soil eta arin batek haren gerri biribil eta zaulia ikusteko parada eman dit. Bularraldea muselin soil batez du estalia; eta nire begiraldi gordekako bezain barrenkorrek hauteman dute jadanik haren gorpuzkera xarmangarria. Haren begitar-teak ez omen du, zure iritzian, batere bizitasunik. Eta haren bihotzak mintzorik aditzen ez denean zer adieraziko du bada? Ez, dudarik gabe, emakume horrek ez du, gure emakume pinpirinen gisara, behako gezurtirik, batzuetan seduzitzaile eta betiere engainatzailerik. Ez daki per-paus baten hutsalkeria aldezturitik prestaturiko irri batez ezkututzen; eta izanagatik munduko hortzik ederrenak, libertitzen denean baizik ez du irri egiten. Ikustekoa da ordea nola, jolas alaietan, alegantzia laño eta egiazko baten irudia eskaintzen duen! Nola, berehalatik artatuko duen behartsu baten ondoan, haren behakoak pozaren poza eta ontasun urrikaltsua iragartzen duen! Ikustekoa da nola, laudoriozko edo bala-kuzko denik eta ele ttipienaz batez ere, aizuna ezin izan litekeen xalotasunezko halako asaldura

hunkigarri bat agertzen den haren aurpegi zeru-  
tiarrean!... Ahalketia eta debota da, eta beraz  
hotza eta iharra dela diozu? Nire iritzia arras ber-  
tzelakoa da. Zer nolako sentikortasun harrigarria  
ez ote duen izan behar senarraganaino heda  
ahal izateko, eta beti kanpoan den norbait beti  
maitatzeko? Zer froga sobera handirik desira  
zenezake? Jakin dut hala ere bertze froga bat  
erdiesten.

Gidatu ditut haren urratsak hala lubaki bat  
gainditu behar izan genezan; eta, nahiz oso  
arina den, emakume hori are da lotsatiagoa:  
jakinen duzu ahalketiak beldur izaten direla  
lubakitik aitzina jotzeko. Nire gomendioan behar  
izan du jarri. Neure besoetan eduki dut emaku-  
me apal hori. Gure prestakizunek eta nire izeba  
xaharraren ibilerek karkaraka irri eragin zioten  
debot jostari horri: baina, moldakaitz antzean  
trebeki, harez jabetua nintzen orduko, gure  
besoak elkarri lotu zitzaizkion. Haren bularra  
neureaz hertsatzen nuen; eta, bitarte labur har-  
tan, sentitu nuen haren bihotza lasterrago ari  
zela taupadaka. Ahalke gorritasun atsegin batek  
aurpegia gorritu zion, eta haren asaldura apalak

aski jakinarazi zidan *bihotza amodioz ari zitzaio-  
la taupadaka eta ez izuz...* Nire izeba haatik zu  
bezalaxe tronpatu zen, eta erran zuen: «haurra  
izutu da»; *haurraren* xalotasun xarmangarriak ez  
zion ordea gezurrik erraten utzi, eta lañoki eran-  
tzun zuen: «O ez, baina...» Ele bakar horrek argi-  
tu nau. Harrezkeroztik, esperantza eztiak orde-  
katu du kezka krudela. Emakume hori edukiko  
dut; laidoztatzen duen senarrari kenduko diot:  
gurtzen duen Jainkoari berari edekitzera ausar-  
tuko naiz. Zer zoragarria haren kontzientziaren  
ausikien aldizka kausa eta aldizka garaile izatea!  
Urrun nigandik goganbeharturik daukaten aie-  
ruzko usteak suntsitzeko asmoa! Nire zoriona  
eta nire loria emendatuko dute. Sinets beza ber-  
tutea baitan, eskain biezat ordea; egon bedi  
bere hutsegiteen izuan geldiezinik; eta mila bel-  
dur ikarek aztoratua, ez bitza ahantz, ez bitza  
garait nire besoetan ez bada. Orduan onartuko  
dut hark erran diezadan: «biziki maite zaitut»;  
soilik hura, emakume ororen artean, izanen da  
hitz hori errateko duin. Egiazki izanen naiz hark  
nahiago izan duen Jainkoa.

Onez onean mintza gaitezen; gure abeniko hain hotz nola errazetan, bozkarioa deitzen dioguna doi izaten da plazer. Erranen dizuta! Biho-tza ustez zimel nuen, eta ez bainuen neure bai-tan irritsa baizik kausitzen, zahartzaro goiztiarraz arranguratzan nintzen. Tourvel andreak gaztaroaren ilusio xarmantak itzuli dizkit. Haren ondoan, ez dut gozatzeko premiarik zoriontsu izateko. Zeregin horretan emanen dudan astia da izutzen nauen gauza bakarra; zeren ez bai-naiz ausartzen asturura deus uztera. Zorioneko neure ausardiez oroitzen naizelarik ere, ezin ausart ninteke horiek baliatzera. Zinez zoriontsu izan nadin, emakume horrek behar dit bere burua eman; eta hori ez da egiteko xumea.

Ziur naiz miretsirik zinatekeela nire zuhurtziaz. Ez dut oraino amodio hitza erran; baina fidantzia eta interesa elkarri jadanik adierazi dizkiogu. Emakume hori ahalik eta gutxiena tronparazteko, eta batez ere belarrietaratzen ahal zaizkion erranen ondoriotik begiratzeko, nihaurk dizkiot kontatu, eta iduriz neure burua akusatzen nuela, neure balentriarik ezagunenak. Irri egingen zenuke ikusirik nolako xalotasunaz predikatzen

didan. Konbertitu nahi omen nau. Ez du oraino susmatzen eginbide horretan entseiatzea zenbat gostako zaion. Ez du urrundarik ere uste ezen *nik galdu ditudan dohakabeen alde eginez*, hark bezala mintzatzearren, aitzinetik dela beraren alde eta fabore mintzo. Ideia hori atzo bururatu zitzaidan haren predikurik baten erdian, eta neure buruari ez nion errefusatu ahal izan haren solasa eteteko plazerra, profeta baten gisa mintzo zela hari seguratzeko. Adio, adiskide ederra. Ikusten duzu ez naizela ezinbertzez galdua.

*P.S.*— Izan ere, zaldun gaixo horrek etsipenez bere burua hil du? Egia erran, ni baino ehun aldiz presuna gaiztoagoa zara, eta umiliaturik nengo-ke baldin neure burua ederretsiko banu.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko abuztuaren 9an.*

## **VII. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Ez badizut neure ezteiez deus erran, da aitzineko egunean baino gehiago ez dakidalako. Ohitu naiz horretan gehiago ez pentsatzera eta



neure bizimodu hau aski gostukoa dut. Asko ari naiz ikasten kantua eta harpa; iruditzen zait askoz laketago ditudala maisurik ez dudanez geroztik, edo, aitzitik, maisu hobe bat badudanez geroztik. Danceny jaun zalduna, aipatu nizun gizon hura, Merteuil andrearen etxean kantuan lagun izan nuena, atsegintasun handiz egunoro jiten da hona, eta nirekin du orenez oren kantatzen. Ezinago adeitsua da. Aingeru baten gisa kantatzen du, eta doinu txit ederrak sortzen ditu, eta halaber hitzak doinuen lagun-garri. Maltako Zalduna da ondikotz! Iruditzen zait ezen esposatuko balitz, haren emaztea arras zoriontsua litzatekeela. Haren eztimasuna xarmangarria da. Ez du sekula konplimendurik egiteko itxurarik, eta haatik erraten duen guztia lausengarria da. Etengabe egiten dit liskar, nola musikaz hala bertze gauzez: bere kritikak ordea hain interes eta alaitasun handiz egiten ditu, non ezinezkoa baita hari esker ona ez erakustea. Behatzen dizunetik bertatik, iduri du zerbait goxoa erraten dizula. Hori guztiaz gainera atsegina da oso. Konparazione, atzo, kontzertu handi batera gonbidaturik zen; nahiago izan zuen

arrats osoan gure amaren etxean gelditu. Hori arras laketu zait; zeren eta hura hemen ez denean, nehork ez baitit hitz egiten, eta asper-tzen bainaiz: hura hemen denean, aldiz, elkarre-kin kantatzen eta solastatzen dugu. Niretzat badu beti elerik. Hura eta Merteuil andrea dira atseginak iruditzen zaizkidan bi presuna baka-rak. Baina adio, adiskide maitea: hitz emana dut egungo ikasia nukeela arieta bat hagitz lagunga-rra zailekoa, eta ez dut hitza jan nahi. Ikasteari ekinen diot berriz hura heldu artean.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 7an.*

## **VIII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VOLANGES ANDREARI

Ezin nehor izan daiteke ni naizen baino senti-korrago, andrea, erakusten didazun fidantziari buruz, ez eta nik baino interes handiagorik izan Volanges andereñoaren etorkizunaren alde. Bihotz bihotzetik opa diot zoriona, ez baitut egi-ten dudarik merezi ez duenik, eta hartarako guz-

tiz ere nagokio zure zuhurtziari. Ez dut Gercourteko jaun kondea ezagutzen; baina, zeure hautuaz ohoratu baituzu, ez dezaket harengana arras uste onuratsua baizik izan. Ezin neure aldetik, andrea, bertzerik opa ezkontza horri, ez bada izan dadin hain zoriontsua nola baita nirea, zeina baita berebat zuk obratua, eta zeinaren kariaz egunean egunean bizikiago eskertzen baitizut. Zure alaba andereñoaren zoriona izan bedi zuk niri eman didazunaren saria; eta ailedi adiskiderik minena amarik zoriontsuena ere izan!

Zinez doluturik naiz ez baitiezazuket asmo oneko aitormen egiazko hau bozez eskaintzen ahal, ez eta Volanges andereñoaren ezagutzak egiten ahal ere, nik nahi nukeen bezain sarri. Zure ontasun benaz ama baten gisakoak gozatu ondoren, badut harengandik ahizpa baten adiskidantza amoltsua igurikiteko eskubidea. Otoi arren, andrea, galdegiozu nire partez adiskidantza hori, merezi ahal izateko zain nagoen bitartean.

Tourvel jauna kanpoan izanen den denbora guztia landan emateko asmotan naiz. Hartu baitut Rosemonde andre agurgarriaren lagunarteaz

gozatzeko eta profitatzeko beta. Xarmanta da oraino andre hori: ez du deusen eskasik, nahiz den adin handikoa; osoki atxikiak ditu oroimena eta arraitasuna. Soilik haren gorputzak ditu laurretan hogeita lau urte; haren gogoak ez ditu hogei baizik.

Gure bazterraldia Valmonteko bizkonde haren ilobak du alegeratzen, nork ere begirunez nahi izan baitizkigu egun batzuk eskaini. Omenez baizik ez nuen ezagutzen, eta karia horretara deus guti desira nezakeen areago ezagutzea: iruditzen zait ordea gehiago balio duela gizonak omenak baino. Hemen, nola munduaren zurrumbiloak ez baitio gaitz egiten, zuhurra eta harrigarriro erraza du mintzoa, eta egin dituen makurrak bakan baizik agertzen ez den xalotasunaz aitortzen ditu. Fidantzia handiz mintzo zait, eta nik indar handiz egiten diot prediku. Zuk nola ezagutzen baituzu, nirekin akort izanen zara obratu beharreko konbertsio eder bat litzatekeela: baina ez dut egiten duda ezen, zernahi hitz emanik ere, Parisen eginik zortzi egun ahantziko lituzkeela nire predikuak oro. Hemen eginen duen egonaldia bitartean bederen haren jokaera

hainbat ere gutxiago izanen da ohi duenaren gisarakoa: eta, nire ustez, haren bizimoduaren karietara, deus ere ez egitea duke eginkizunik onena. Badaki izkiriatzen ari natzaizula, eta bere goraintzi begirunezkoak eman diezazkizudan manatu dit. Har itzazu nireak ere ager ohi duzun ontasunaz, eta ez ezazu sekula dudarik egin ohorez opa dizkizudan neure sentimendu egiazkoez, etab.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko abuztuaren 9an.*

## **IX. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Sekula ez dut dudarik egin, adiskide gazte eta ederra, ez niri didazun adiskidantzaz, ez niri dagokidan orori buruz agertzen duzun interes zinezkoaz ere. Ez diot puntu hori argitzeko, zeina baitut orain eta sekulako gure artean adostua izatea igurikitzen, erantzun zure *erantzunari*: ordea ez dut uste egon nintekeenik Valmont bizkondearen sujetaz zurekin solastatu gabe.

Ez nuen igurikitzen, aitor dizut, izen hori zure gutunetan sekula kausitzerik. Alabaina, zer izan dezakezue zuk eta hark komunik? Zuk ez duzu gizon hori ezagutzen; nondik jakin zenezakeen libertin baten arimaren berririk? Hark darakusan *bakan baizik agertzen ez den xalotasunaz* hitz egiten didazu: O! Bai; Valmonten xalotasunak zinez behar du arras bakana izan. Nola baita faltsu eta arriskutsu atsegin eta seduzitzaile den bezainbat, ez du nehoiz, gazte-gaztea zenetik, urratsik egin edo elerik erran asmo bat izan gabe, eta ez du nehoiz izan asmorik gaiztoa edo kriminala ez zenik. Adiskidea, zuk ezagutzen nauzu; zuk badakizu, saiatzen naizelarik ere bertuteak neureganatzen, bihozberatasuna ez dela horietarik gehien maite dudana. Hargatik, baldin Valmont grina suharrek hartua gertatuko balitz; baldin, bertze mila bezala, adinak dakartzan hutsegiteek liluraturik balego, haren jokabidea gaitzetsirik, presuna urrikiko nuke, eta zain egonen nintzateke, isilean, zorioneko aldaketa batek jende prestuen estimua itzul liezaion. Baina Valmont ez da halakoa: haren jokabidea haren oinarrizko arauen ondorioa da. Badaki kalkulatz

gizon batek egin ahal dituen izugarrikeriak oro bere burua arriskuan jarri gabe; eta arriskurik gabe izateko krudel eta gaizto, emakumeak ditu kaltiartzat hautatu. Ez naiz seduzitu dituenak kontatzen baratuko: zenbat ez ote ditu ordea galdu?

Nola baitaramazu bizimolde zuhur eta landarra bazterreratua, eskandaluzko abentura horiek ez dira zuganaino heltzen. Haren abentura batzuk kontatzen ahal nizkizuke hotzikaratan jar zintzaketenak; baina zure behakoak, zure arima bezain garbiak, zikinduak lirateke halako ikuskariak: ziur naiz Valmont ez dela sekula arriskutsua izanen zuretzat, horrelako armen beharrik ez duzu zeure burua begiratzeko. Errateko dizudan gauza bakarra da ezen, hark artarik eman dien emakume orotarik, arrakasta izan edo ez, bat bakarra ere ez dela harez auhendatu behar izan ez duenik. Soilik Merteuileko markesa da arau orokor horretarik salbuetsirik; soilik hark jakin du buru egiten eta kateak ezartzen haren gaiztakeriari. Aitortzen dut haren bizitzako xehetasun horrek duela nire begien aitzinean gehien ohoratzen: orobat aski izan baitu bere alargunaldiaren

hastapenean egozten ahal zitzaizkion oker zen-  
bait ororen begien aitzinean arras justifikatzeko.

Nolanahi ere den, adiskide ederra, nire adina,  
nire esperientzia eta batez ere nire adiskidantza-  
gatik, zilegi izan bekit zuri gaztigatzea ezen  
hasiak direla munduan Valmonten ausentziaz  
ohartzen; eta jakin baledi aldi batez dela hiruga-  
rren gisa bere izebaren eta zure artean gelditu,  
zure omena bere eskuetan luke; zeina baita  
emakume bati gerta dakioken malurarik han-  
diena. Kontseilatzen dizut bada haren izebagan-  
dik erdiets dezazun Valmont ez dezala gehiago  
bere ondoan atxiki; eta han gelditzen setatzen  
bada, uste dut zalantzarik gabe zeure lekua hari  
behar diozula utzi. Baina zergatik gelditu behar  
luke? Zer ari da bada landa horretan? Baldin  
haren joan-jinak barrandaraz bazenitza, ziur naiz  
konturako zinatekeela ezen geriza erosoago bat  
baizik ez duela hartu, inguruan obratzeko asmo-  
tan den bilaukeriaren bat egiteko. Baina, gaitza  
sendatu ezinean, konforma gaitezen guhaur gal-  
bidetik begiratzeaz.

Adio, adiskide ederra; horra nire alabaren  
ezteiak amini bat gibelaturik. Gercourteko kon-



deak, nahiz egun batetik bertzera jinen zelakoan geunden, mezutu dit ezen bere errejimenta Korsikan dela; eta nola oraino baden han gerla hotsa, ezin izanen duela negua baino lehen handik lekutu. Gaitzitzen zait; baina horren karietara igurikitzen dut izanen dugula ezteietan zu ikusteko plazerra, samurturik bainintzen zu gabe egin zitezen. Adio; arras zuri nago, konplimendurik gabe nola salbuespenik gabe.

*P.S.*— Goraintziak eman nire partetik Rosemonde andreari, merezi duen hainbat maite baitut beti eta beti.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 11n*

## **X. GUTUNA**

### **MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI**

Nirekin beltzuritu zarea, bizkonde? Ala hilik zarea? Ala, horren pareko litzatekeena, lehendakariaren emazte horrentzat baizik ez zarea bizi? *Gaztaroko ilusioak* itzuli dizkizun emakume horrek, sarri dizkizu aieruzko uste irrigarriak ere

itzuliko. Jadanik horra non herabeti eta esklabo  
zaren; berdin zenuke amoros izatea. Uko egiten  
diezu *zorioneko zeure ausardiei*. Horra bada non  
oinarrizko araurik gabe jokatzeko duzun, eta oro  
fidaturik asturuari, edo, gehiago dena, gutiziari.  
Ez duzua jadanik oroitzen amodioa, medikuntza-  
ren gisa, *soilik izadia laguntzeko artea dela?*  
Ikusten duzu zeure armez garaitzen zaitudala: ez  
naiz ordea karia horretara harrotuko; lur jo duen  
gizona garaitzea baita. *Emakume horrek behar  
dizu bere burua eman*, erraten didazu: E! Duda-  
rik gabe, hala behar baitu; emanen ere baitizu  
bere burua bertzeek bezala, bereizkuntza hone-  
taz, zeina den gogo txarrez baitizula emanen.  
Baina, bere burua behingoz eman diezazun,  
hura hartzetik hastea da egiazko bidea. Zeinen  
amodioaren benazko zentzugabekeria baita  
bereizkuntza irrigarri hori! Amodioa diot; zeren  
amoros baitzara. Bertzela mintzatzea, litzateke  
zu traditzea; litzateke zure eritasuna ezkutatzea.  
Erraidazu bada, amoros hitsa, eduki dituzun  
emakume horiek, uste duzu bortxaz eduki ditu-  
zula? Baina, zenbatenaz ere den handia nork  
bere burua emateko duen nahia, zenbatenaz ere

batbederak horretarako presa handia izan, han-batenaz behar baita oraino estakuru bat; eta badea guretzat estakuru sobera erosorik bortxaz amore ematen dugula iduri duen hura baino? Niretzat, aitor dezadan, gehien laket zaidan gauzetariko bat da eraso bizi eta ontsa egina, non oro gertatzen baita ordenamenduz nahiz lastertasunez; zeinaren karira sekula ez baikara izanen moldakaizkeria bat guhaurk konpondu beharreko tenore penagarrian, aldiz behar bailitzaigukeelarik baliatu; zeinak bai baitaki hala borondate onez ematen ditugun gauzetan ere bortxaren itxurari atxikitzen, eta trebeki lausengatzen gure bi gutizia maiteenak, defendatzearen loria eta fin gaitz egitearen plazerra. Onartzen dut uste baino bakanagoa den dohain hori beti izan dudala laket, nahiz sekula ez nauen hala ere liluratu, eta batzuetan gertatu ere izan zaidala, soil-soilik sari gisa. Hala non gure norgehiagoka zaharretan, edertasuna baitzen ausardiaren eta trebeziaren saria.

Zuk ordea, jadanik zuhaur ez zaren horrek, garaitzeko beldur bazina bezala jokatzeko duzu. E! Noizdanik bidaiatzen duzu aldi laburka eta

zeharbidetik? Adiskidea, nahi delarik hel, posta-ko zaldia eta errepidea! Ordea utz dezagun sujet hori, zenbatenaz ere muzindurik bainauka, hanbatenaz zu ikustearen plazerraz gabetzen bainau. Izkiria iezadazu bederen orain arte baino sarriago, eta eman zure aitzinapenen berri. Badakizua abentura irrigarri horretan badituzula hamabortz egun baino gehiago emanak, eta jende oroz ezaxolatua zabiltzala?

Ezaxolatzea dudalarik aipatu, iduri duzu adiskide erien berri jakitera aldizka norbait igorriagatik, alabaina erantzuna jakiteko deus egiten ez duten jende horien moldekoa. Finitzen duzu zeure azken gutuna zalduna hil ote denentz galdetuz. Ez dut ihardesten, eta ez zaitu horrek sobera kezkatzen. Ez dakizua nire amorantea adiskide mina duzula? Haatik zaude lasai, ez da hila; eta hila balitz, bozkariozko soberaniak zukeen hila. Gaixoa zalduna, zein den amoltsu! Zein den amodiorako egina! Zein den biziki sentitzen jakitun! Burua galdurik nauka. Serioski, ni haren amoros izatean kaustitzen duen bozkario erabatekoak egiaz eta benaz nau hari atxikitzen.

Egun hartan berean, non izkiriatu bainizun ekin behar niola gure harremanak hausteari, zeinen zoriontsu nuen bilakarazi! Haatik ari nintzelarik hura zinez etsiarazteko bideez arduratzen, horra non haren etorrera iragarri zidaten. Gutiziaz ala arrazoiz, sekula ez zitzaidan hain ontsa iruditu. Muzindurik hartu nuen hargatik. Igurikitzen zuen nirekin bi oren iragatea, jende orori atea zabalduko nion orena baino lehen. Jalgi behar nuela erran nion: nora nindoan egin zidan galde; ez nion deus jakinarazi. Errateko eta errateko hark: *zu izanen ez zaren lekura*, ihardetsi nion lazki. Beharrik harentzat, ihardespen horrek harri eginik utzi zuen; zeren eta, elerik erran balu, ezinbertzez zetorkeen aharra bat nik buruan neukan haustura ekarriko zukeena. Haren isiltasunaz harriturik, egin nion so nolako keinua egiten zuen ikusteko, zin dagizut, bertze xederik gabe. Berriro kausitu nuen begitarte xarmagarri hartan, tristura aldi berean sakon eta samur hura, zeinari buru egitea zein gaitza den zuhaurk ere aitortzen baituzu. Kausa berak ondorio bera zuen ekarri; bigarren aldiz garaitua izan nintzen. Ordudanik, nigan okerrik kausi ahal

ez zezan saihesteko bideez baizik ez nintzen arduratu. «Egiteko bat obratzera noa», erran nion ahaire eztixeago batez, «eta egiteko hori halaber dagokizu; baina ez galdetu deus. Etxean afalduko dut; itzul zaitez, eta jakinaraziko dizut». Orduan hitza berriz ahoratu zitzaion; ez nion ordea hitzaz baliatzen utzi. «Presaka nabil», erran nuen gero. «Utz nazazu; arratsa arte.» Eskuan muin egin zidan eta jalgi zen.

Gero, zaputz haren ordaina eman nahirik hari, edo eman nahirik ausaz neure buruari, deliberatzen dut susmotan hartzen ez zuen neure etxe ttipia erakutsi behar niola. Neure *Victoire* fidela deitzen dut. Ohi dudanez min dut buruan; oheratzen naiz neure zerbitzari guztientzat; eta, azkenean *egiazko*arekin bakarrik gelditurik, hura morroiz mozorrotzen den bitartean, nik gelari soineko bat janzten dut! Victoirek ekarrarazten du berehala zaldi orga bat nire lorategiko atera, eta horra hor partituak. Heldurik amodioaren tenplu honetara, hautatzen dut azpiko jantzirik dotoreena. Honako hau zoragarria da; nik asma-tua da: ez du deus ikustera uzten, eta oro du haatik igerrarazten. Agintzen dizut gisa horreta-

ko soineko bat lehendakariaren emazte horrentzat, janzteko duin bilaka dezazunean.

Prestakizun horien ondoren, Victoire bertze xehetasunetan ari den bitartean, irakurtzen dut *Sopha*-ren atal bat, *Héloïse*-ko gutun bat eta La Fontaine-ren bi ipuin, hartu nahi nituen eredu anitzak oroitzeko. Bizkitartean, neure zalduna atera heldu zait, beti ohi duen presaz. Nire atezainak ez dio sartzera uzten, eta eri naizela jakinarazten dio: aitzineko gertaldi larria. Tenore berean ematen dio nire txartel bat, ez ordea nik izkiriatura, nire arau zuhurrari jarraiki. Irekitzen du, eta kaustitzen du han Victoireren eskutik: «Bederatzi bederatzietan, bulebarrean, kafetegien aitzinean.» Joan da hara; eta han, ezagutzen ez duen morroi ttipi batek, ezagutu uste ez duen batek bederen, zeina baitzen Victoire bera, iragartzen dio zaldi orga behar duela igorrazazi eta berari behar zaiola jarraitu. Nobela gisako ibilera horrek guztiak burua berotzenago zion, eta buru beroak ez du deus kalterik egiten. Heldu da azkenik, eta ustekabeak eta amodioak benazko lilura sortu dute harengan. Bere baitaratzeko astia izan dezan, promenatzen gara une

batez basoxkan zehar; gero etxeari buruz daramat. Hastapenean ikusten ditu bi mahai tresna jarriarik; gero ohea egina. Sartzen gara kabineteraino, oro apaindurik ageri. Han, erdi gogoetaz, erdi sentimenduz, neure besoez inguratzen dut eta haren belaunetara erortzen naiz. «O adiskidea!» erraten diot, «ustekabeko une hau zuretzat prestatu nahi izateagatik, damu dut beltzuriaren itxuraz zu oinazetu izana; nire bihotza instant batez zure behakoetarik ezkutatu izana. Barkatu nire hutsegiteak; amodioaren amodioz nahi ditut zuzendu.» Jabetuko zara sentimenduzko hitzaldi horren ondorioaz. Zaldun zoriontsu hark altxarazi ninduen, eta nire barkazioa izan zen zigilatua zuk eta biok bozkarioaren bozkarioz eta era berberean geure haustura eternala zigilatu genuen aulki otomanoaren beraren gainean.

Bai baikenituen sei oren elkarrekin iragateko, eta deliberatua bainuen denbora hori guztia berdin izan zedin harentzat zoragarria, haren irri-tsaldiak ematu nituen, eta pinpirintasun atsegina agertu zen eztitasunaren ordeaz. Ez dut uste nehoiz horrenbertze arduratu izan naizenik atsegingarri gertatzen, ez eta neure buruaz sekula



horren pozik egon naizenik ere. Afalondoan, aldi batez haur eta aldi batez arrazoitsu, aldi batez jostari eta aldi batez sentikor, batzuetan baita libertin ere, plazer nuen irudikaturik zalduna bere haren-aren erdian dagerien sultan baten gisa, non aldizka aldizka ni bainintzen haren begietako sultanaren emazte bakoitza. Alabaina, haren eskaintza behin eta berriz errepikatuak, betiere emakume berak hartu izanagatik, amorante berri batek hartzen zituen beti.

Argi azkorrian elkarrengandik bereizi behar izan ginen azkenik; eta, zer ere erraten baitzuen, zer ere egiten ere baitzuen niri kontrakoa frogatzeko, bereizteko premia handia zuen gogo gutxi bezainbat. Jalgi ginen unean berean eta azken adio gisa, hartzen dut zorioneko egonleku hartako giltza, eta haren eskuetan ezarriz: «Zuretzat baizik ez dut izan», erraten diot; «zuzen da zu izan zaitezen nagusi: sakrifikatzaileari baitagokio tenpluaz baliatzea.» Maltzurkeria horrekin aldezturik naiz begiratu etxe ttipi guztiz susmagarri baten jabetzak sorraraz liezazkiokeen burutazioetarik. Sobera ezagutzen baitut, segur naiz ez duela niretzat baizik baliatuko; eta hartu-

ko banindu hura gabe hara joateko gutiziak, badut naski bertze giltza bat. Hara berriro itzultzeko egun bat nahi zuen gosta ahala gosta ezarri; baina oraino sobera maite dut hura hain azkar erabili nahi izateko. Ez baitzaie soberakeriei amore eman behar, ez bada berehala utzi nahi diren gizonekin. Hark ez daki hori; baina, haren zorionerako, nik badakit biontzat.

Ohartzen naiz goizaldeko hiru orenak direla, eta liburuki bat izkiriatu dudala, ele bat bakarra izkiriatzeko asmoa izanik. Halakoa baita fidantziatzeko adiskidantzaren xarma: horren kariazu zaitut betiere gehien maite, baina, egiazki, zalduna zait gehiago laket.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 12an.*

## **XI. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VOLANGES ANDREARI

Zure gutun zorrotzak izituko nindukeen, andrea, baldin, zorionez, ez banu hemen segur

izateko arrazoi gehiago kausitu zuk gaztigatu bezala beldur izateko baino. Valmont jaun beldurgarri horrek, ustez arras izuturik baitauzka emakume guztiak, iduri du bazter utzi dituela bere arma hilgarriak, gaztelu honetan sar aitzin. Ez du urrundarik ere egin asmorik, ez hain gutxi ekarri nahikunderik; eta bere etsaiek ere aitor-tzen dioten gizon maitagarriaren dohaina, kasik desagertua du hemen, bihotz oneko gizonaren dohainen fabore. Landako giroak egin bide du mirari hori. Segurta diezazuket hala ere ezen, nirekin delarik une oroz, iduriz gogobeterik, ez zaiola itzuri maitasunaren kutsurik dukeen ezein elerik, ez eta gizon guztiei zilegi omen zaien horietako ezein perpausik ere, nahiz ez duten, hark bezala, jokabide hori justifikatzeko behar hainbat arrazoi. Sekula ez zaitu zuhur ibiltzera behartzen, nahiz begirunez jokatu nahi duen emakume orok egun halabeharrez zuhurtziari behar duen atxikia egon, inguruan dabilzkion gizonei aurre eginen badie. Badaki sorrarazten duen arraitasunaz neurriz gain ez baliatzen. Amini bat balakari gerta liteke agian; baina hain da fina balakuan non lausengura ohituko bailuke

xalotasuna bera. Erran nahi baita, anaiarik baldin banu, ailedi Valmont jauna hemen agertzen den bezalakoa! Hainbat emakumek galaitasun nabarmenago bat nahi luke harengandik; eta aitor dut eskerdun baino eskerdunago natzaiola zeren jakitate handiz hain ontsa jujatu bainau, non ez bainau haiekin nahasi.

Potret hori zuk egin didazunaren oso bertzelakoa da dudarik gabe; eta, hargatik, biak antzekoak dirateke bakoitzaren aldia finkatuz gero. Aitor du berak anitz oker egin dituela, eta bertzeek ere egotziko zioten bertze hainbat. Gizon gutxi kausitu dut ordea emakume prestuez hura baino errespetu gehiagoz mintzo zedinik, kasik gogo beroz erranen nuke. Jakinarazten didazu xede horretan bederen ez duela engainatzen. Horra Merteuil andrearekin duen jokabidea nire hitzen frogagarri. Sarritan du solasgai; eta betiere halako laudorioz eta halako atxikimendu benazkoaz, non zure gutuna hartu arte, uste izan baitut hark bien arteko adiskidantza gisa aipatzen zuena ez zela maitasuna baizik. Iritzi ausart horren errua aitortzen dut, eta nire hutsa are handiagoa da, zeren eta Valmontek sarri hartu

baitu Merteuil andrea justifikatzeko arta. Aitor dizut ez niola amarru gisa baizik behatzen haren partetik egia zintzoa zenari. Ez dakit; baina iruditzen zait horren emakume goresgarri batek horren atxikia duen adiskidantzarako nor den gizona, ez dela ezin zentzatuzko libertin bat. Ez dakit bertzalde hemen daraman jokabide zuhurra inguruotan obratu nahi dituen zenbait egitekori zor zaionentz, zuk uste duzun bezala. Ingu-ruan bada naski emakume maitagarririk; gutxi jalgitzen da ordea, goizean ez bada, eta ehizara joaten omen da. Egia da ez duela oso bakan bai-  
zik ekartzen ehizakirik; baina moldakaitza omen da zeregin horretan. Bertzenaz, kanpoan egin dezakeenak deus gutxi kezkatzen nau; eta bal-  
din jakin nahi baneza, ni zure iritzira hurbiltzeko edo zu nirera erakartzeko bertze arrazoi bat iza-  
teko baizik ez litzateke.

Valmont jaunak hemen egitekoa duen ego-  
naldia laburtzera saiatzeko egiten didazun pro-  
posamenaren karietara, oso zaila iruditzen zait  
haren izebari bere iloba etxean har ez dezan gal-  
degitera ausartzea, hainbat nola baitu anitz  
maite. Hitz ematen dizut hargatik, begirune

hutsagatik ordea eta ez premiagatik, baliatuko dudala galdegitza hori egiteko okasioa, dela izebari, dela ilobari berari. Nitaz den bezanbatean, Tourvel jaunak badaki hura itzuli arte hemen gelditzeko asmotan naizela, eta harrituko luke, arrazoi osoz, nik arinkeriaz asmoz mudatu izanak.

Horra, andrea, argibide arras luzeak: baina iruditu zait Valmont jaunaren aldeko testigantza zor niola egiari, bai baitakit egiaren premia handian dela zure aldera. Sentikor natzaio orobat zure kontseiluak iradoki dituen adiskidantzari. Berebat hari zor baitizkiot Volanges andereñoa zure alabaren ezteiak gibelatu izanaren okasiaz erraten dizkidazun begirunezko eleak ere. Biziki eskertzen dizkizut: ordea, zein ere den handia neure buruari hitz emana diodan atsegina une horiek zurekin iraganez, bihotz-bihotzez sakrifikatuko nioke Volanges andereñoa hainbat lasterrena uros izanen dela jakiteko desirari, baldin halarik ere nehoiz baledi urosago bere bihozberatasun eta errespetu guztia osoki merezia duen ama baten ondoan baino. Harekin bat dagit zuri

atxikitzen nauten bi sentimenduotan, eta ontasunez har ezazu, otoi, berauen segurtamena.

Ohorez bainaiz, etab.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 13an.*

## **XII. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK MERTEUILEKO MARKESARI

Ama ondoezik da, andrea; ez da jalgiko, eta haren ondoan gelditu beharrean naiz: beraz ez duket zurekin operara joateko ohorea. Zinez diotsut ikuskaria bera baino dolutzenago zaidala zurekin ez egotea. Otoi arren, zaude horretaz ziur. Hain zaitut maite! Erranen zenioke Danceny jaun zaldunari aipatu didan bilduma ez dudala, eta baldin bihar ekartzen ahal badit, plazer handia egingen didala. Gaur jiten bada, etxean ez gaudela erranen diote; zeren amak ez baitu nehor hartu nahi. Bihar hobeki izanen ahal da!

Ohorez bainaiz, etab.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 13an.*

### XIII. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK CÉCILE VOLANGESI

Biziki samurtua naiz, polit hori, bai zu ikusteko plazerraz gabetu nauzulako, bai eta gabetze horren kausaz ere. Okasio hori berriz agertuko delakoan nago. Konplituko dut zuk Danceny zaldunarentzat duzun mandatua, nor ere segur baita hagitz beltzurituko ama eri duzula jakinik. Baldin bihar nahi banau hartu, lagun egitera joanen natzaio. Hark eta biok kartetan erasoko diogu Belleruche zaldunari; eta, haren dirua irabazteaz gainera, zu eta zure maisu atsegina kantari entzuteko plazerraren emendioa ere izanen dugu, proposamen hori eginen baitiot. Baldin zure amari eta zuri komeni bazaizue, ni naukazu nihauren eta neure bi zaldunen erantzule. Adio, polit hori; nire konplimenduak egin Volanges andre maiteari. Besarkatzen zaitut ezti-eztia.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 13an.*



## XIV. GUTUNA

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Atzo ez nizun izkiriatu, Sophie maitea: ez ordea plazerra zela kausa; zinez derraizut. Ama eri zen, eta haren ondoan eman nuen egun osoa. Arratsean, gelaratu nintzelarik, arrunt eroria nuen bihotza; eta laster eta fite oheratu nintzen, eguna finitua zela seguratzeko: sekula ez baitut horrenbertze luzetsi egunik. Ez hain zuzen ama asko maite ez dudalako; ez dakit ordea zer zen. Operara joatekoa nintzen Merteuil andrearekin; Danceny zaldunak ere han behar zuen. Ontsa dakizu horiek ditudala bi presuna maiteenak. Ni ere operan egon behar nintzen orena heldu zenean, bihotza nahi gabe hertsatu zitzaidan. Dena higuingarria zitzaidan, eta negar egin nuen, negar, malkoak ezin atxiki. Beharrik ama ohean zen, eta ezin ikus nintzakeen. Segur naiz Danceny zalduna ere atsekabetan zela; baina gozaldituko zen ikuskariaz eta hango jende guztiez: hagitz desberdina da.

Beharrik, egun ama hobeki da, eta Merteuil andrea jinen da bertze presuna batekin eta Dan-

ceny zaldunarekin: beti aski berandu heltzen da hala ere Merteuil andrea; eta oso aspergarria izaten da denbora luzean bakar-bakarrik egon beharra. Hamaika orenak bertzerik ez dira. Harpa jo behar dut hain segur; eta gainera hainbat denbora emanen dut garbitzen eta apaintzen, zeren eta egun ontsa orrazturik nahi baitut egon. Uste dut Ama Betierekoak arrazoi duela, eta mundutartuz geroztik batbedera pinpirin bihurtzen dela. Polit agertzeko ez dut sekula izan duela zenbait egunetik hona bezain gogo handirik, eta uste bezain polita ez naizela iruditzen zait; horrez gainera, begitarte gorritz apaindua duten emakumeen ondoan, askoz gutxiago naiz. Merteuil andrea, konparazione, ohartua naiz gizon guztiek ni baino ederrestenago dutela: ez naiz horregatik kasik haserretzen, zeren anitz maite binau; eta erraten du orobat Danceny zaldunak ni ederrestenago nauela bera baino. Hain du zintzo jokatu niri hori erranik! Iduri ere zuen gogobeterik zela. Konparazione, ez dut hori ulertzen ahal. Asko maite nau eta! Eta Danceny!... O! Poz handia eman dit! Halaber, hari so egitea aski dela iruditzen zait batbedera edertua

izateko. So egonen nintzaioke beti, baldin haren begiak kausitu beldur ez banintz: zeren, hori gertatzen zaidan guztietan, harriturik gelditzen bainaiz, eta nahigabe gisako zerbait sortzen baitit; baina ez dio axolarik.

Adio, adiskide maitea; garbitzen hastera noa. Ohi bezala maite zaitut betiere.

*Parisen, 17\*\*ko abuztuaren 14an.*

## **XV. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Jokabide zinez zintzoa ageri duzu nire mentura tristan ni ez abandonaturik. Hemen daramadan biziera akigarria da guztiz, pausuan gehiegia eta berdintasunean motela baita. Zure gutuna eta zure egun xarmant hartako xehetasunak irakurririk, hogeitaz tentatua izan naiz eginkizun baten estakurua eman eta zure oinetara lasterka joateko, eta zuri eskatzeko ezen izan zakizkion, nire alde, zeure zaldunari desleial, zeren, ororen buruan, ez baitu bere zoriona merezi. Badakizua hari buruz jeloskortu nauzula? Zer diozu bada

haustura eternalaz? Uko egiten diot zin horri, eldarnioan egina baita: ez ginatekeen zin hori egiteko duin, baldin zina bete behar izan bage-nu. Ah! Egunen batean mendeka ahal neza zure besoetan, zaldunaren zorionak nahi gabe sortu didan hisia! Suharturik naiz, aitor dut, ikusirik gizon horrek, gogoetarik gabe, nekerik ttipiena ere hartu gabe, bere bihotzeko senari ergelki jarraikiz, nik ezin iritsi dudan zoriona aurkitu duela. O! Galaraziko diot... Hitz emaidazu galara-ziko diodala. Zuhaur ez zarea umiliaturik orobat? Lehiatzen zara hura engainatzera, eta zu baino zoriontsuagoa da haatik. Estekan eduki uste duzu zeure kateetan! Zuhaur zauzka ordea bereetan. Lasai egiten du lo, zuk plazerrak zain-tzen dizkiozun bitartean. Zer gehiago eginen luke haren esklaboak?

Hara, adiskide ederra, anitzen artean parti-tzen duzularik zeure burua, ez dut jelosia poxirik: ez baititut zure amoranteengan Alexandreren oinordekoak baizik ikusten, denen artean ezin atxikirik ni errege bakarra nindukan erresuma hura. Baina haietarik bati zeure burua guztiz eman diezaiozun! Bertze gizonen bat izatea

ordea ni bezain zoriontsua! Hori ez dut jasanen; ez uste jasanen dudarik. Edo hartzen nauzu berriz, edo hartzen duzu bederen bertzeren bat; eta ez traditu, gutizia baztertzaile batez, elkarri zin eginik diogun adiskidantza ezin hautsizkoa.

Badut, dudarik gabe, amodioaz zer arrangu-raturik aski eta sobera. Dakusazunez, aintzat hartzen ditut zure ideiak, eta aitortzen neure okerrak. Alabaina, baldin desiratzen dena eduki gabe ezin bizitzea, baldin desira horri nork bere denbora, plazerrak, bizia eskaintzea amorostea bada, egiaz eta benaz naiz amoro. Bide horretan ez naiz sobera aitzinatu. Sujet horren kariatara deus berririk ezin erran ere nizuke, arrunt gogoetagarria zaidan gertakari bat agitu ez balitz, ikarabide ala esperantzabide ote den oraino ez dakidana.

Ezagutzen duzu nire sehia, azpijokoetan maisua, eta irri eragile zinezkoa: igerriko zenion nire manuz gelariaz behar zuela amorostu, eta morroiak behar zituela horditu. Listafin hori ni baino zoriontsuagoa da; erdietsi du dagoeneko. Berriki jakin duenez, Tourvel andreak bere morroi bati manatu omen dio har dezala nire

jokabidearen berri, bai eta jarraik dakidala ere goizeko neure irtenaldietan, ahal lukeen bezainbat, nire oharkabean. Zer nahi du emakume horrek? Hala non emakume lañoetan lañoena ausartzen ere baita guhauri benturatzea zilegi ez litzaizkigukeen gauzak benturatzera! Zin dagizut ezen... Ordea, emakumezko jukutria horrez mendekatzeko xedea hartu aitzin, saia gaitezen hura geure fabore ekartzen. Susmagarriak zaizkion ibilera horiek ez zuten oraindaino batere xederik; behar zaie bat eman. Horrek nire arreta guztia merezi du, eta horretan gogoetatzeko uzten zaitut. Adio, adiskide ederra.

*Betiere ...ko gaztelutik, 17\*\*ko abuztuaren  
15ean.*

## **XVI. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Ah! Sophie, hona anitz berri! Ausaz ez nizkizuke erran behar: baina norbaiti behar dizkiot kontatu; nik baino indar gehiago baitute. Danceny zaldun hori... Hain asaldaturik naiz non ezin

baitut izkiriatu: ez dakit nondik hasi. Amaren etxean harekin eta Merteuil andrearekin iragan nuen afalondo eder hura kontatu nizunez geroztik, ez dizut gehiagotan aipatu: ez bainuen neho-ri mintzatu gogo; hala eta guztiz ere nik hura beti gogoan. Geroztik, arrunt tristetu zen, guztiz tristetu, hainbat ere tristetu, non ni ere atseka-betu bainintzen; eta nik zergatik galdegin, eta hark ezetz erraten zidan: nik ordea banekusan baietz. Azkenean, atzo ohi baino sobera triste-tuago zen. Ez zuen haatik ohi duen bezala gogo onez nirekin kantatzeko eragozpenik izan; baina, behatzen zidan aldi guztietan, bihotza hunkitzen zidan. Kantuan bukatu ondoren, joan zen nire harpa zorroan gordetzera; eta, giltza ekarriz, erran zidan otoi arren berriz jo nezala arratsean ere, bakarrik nengokeen orduko. Ez nuen deusen susmorik; jotzeko gogorik ere ez nuen: baina arren eta arren eskatu baitzidan, baietz erran nion. Bazuen arrazoirik. Izan ere, gelaratu nintzelarik eta nire gelaria jalgi zen orduko, harpa-ren bila joan nintzen. Harien artean gutun bat kausitu nuen, plegatua soil-soilik, eta zigilatu gabea, eta hark igorria. Ah! Hor mezutzen didan

guztia bazeneki! Haren gutuna irakurri dudanez geroztik, hain zoriontsua naiz, non ezin baitut bertze ezertan pentsatu. Lau aldiz irakurri dut segidan, eta gero neure idazmahaian gorde. Buruz nekien; eta, oheratu naizenean, horrenbertze errepikatu dut non ezin lokar nintekeen. Begiak hermetik beretik, han ikusi nuen, Danceny bera irakurri berria nuen guztia ari zitzaidan erraten. Ez naiz gau berandua arte lokartu; eta iratzarri naizenetik bertatik (oraino oso goiz zen), joan naiz haren gutuna berriz hartzera neure gogara berrirakurtzeko. Ohera ekarri dut, eta gero musu eman diot nola balitz... Agian ez dago ongi gutun bat gisa horretan musukatzea, baina ezin begira nintekeen hori egitetik.

Orain, adiskide maitea, biziki kontent izanagatik, biziki asaldaturik naiz orobat; zeren ez baitiot segurki gutun horri erantzun behar. Ontsa dakit ez dela halakorik egin behar, eta haatik Danceny galdezka ari zait; eta, ez badiot erantzuten, segur naiz nahigabetan jarraituko duela. Harentzat hain baita haatik etsipengarria! Zer kontseilatzen didazu? Baina zuk ez dakizu nik baino gehiago. Merteuil andreari mintzatzeko



irrika bizian naiz, anitz maite bainau. Danceny kontsolatu nahi nuke; baina ezein okerrik ez nuke egin nahi. Maiz gomendatzen digute izan gaitezen bihotz onekoak! Eta debekatzen digute gero bihotzak iradoki diguna egitea, gizon baten-tzat denean! Hori ez da bidezkoa. Ez direa gizonak gure hurkoak nola baitira emakumeak, bai eta are gehiago ere? Zeren eta azken finean ez ote dugu aitarik zein amarik, anaiarik zein ahizparik? Eta horrez gainera senarrik. Halere, ontsa ez den zerbait egitera banoake, ausaz Danceny jaunak berak ez luke jadanik uste onik nitaz! O! Hori ez, konparazione, nahiago dut triste segi dezan. Eta bertzalde, azken finean, betiere garaiz nenbilke. Atzo izkiriatu baitu, ez nago gaur izkiriatzera beharturik: halaber arratsean ikusiko dut Merteuil andrea, eta baldin ausartzen banaiz, dena kontatuko diot. Baldin ez badut hark erranen didana baizik egiten, ez duket neure buruari zer liskarturik. Eta erranen dit bertzalde doi bat erantzun diezaiokedala agian, horren triste egon ez dadin! O! Hau nahigabe handia.

Adio, adiskide maitea. Erraidazu betiere zer uste duzun.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 19an.*

## **XVII. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK CÉCILE VOLANGESI

Zuri izkiriatzeko plazerrari edo erranen nuke premiari amore eman baino lehen, andrea, lehenik otoi arren entzun iezadazu. Badakit neure sentimenduak zuri deklaratzera ausartzeko, bihozberatasunaren beharretan naizela; baldin sentimenduok justifikatu baizik ez banitu nahi, alferrik nuke bihozberatasuna. Orogen buruan zer egin behar dut ez bada neure obra zuri erakutsi? Eta zer dut zuri errateko, nire behakoek, nire asaldurak, nire jokabideak bai eta nire isiltasunak berak ere nik baino lehen erran ez dizutenik? E! Zergatik haserretuko zinateke zuk sorrazazi duzun sentimendu batez? Zugandik nola baita jalgia, dudarik gabe da zuri eskainia izateko duina; baldin kiskalgarria bada nola baita nire arima, garbia da nola den zurea. Makurkeria ote

zure begitarte xarmangarria, zure dohain lilura-tzaileak, zure grazia xarmangarriak eta horren nolakotasun preziatuei neurtu ezin ahalako balioa emendatzen dien xalotasun hunkigarri hori ederresten jakin izana? Ez, dudarik gabe: baina, izan ahal da maluros, izan gabe errudun; eta horra zain daukadan asturua, baldin nire goresmenezko eskaintza errefusatzen baduzu. Nire bihotzak eskaini duen lehena da. Zugatik ez balitz, oraino nintzateke, ez alegera, bai ordea lasai. Ikusi zaitut; soseguak ihes egin du nigan-dik urrun, eta dudazkoa dut zoriona. Nire tristu-rak harriturik zauzka haatik; haren zergatikoaz galdegiten didazu: batzuetan ere dolutzen zintuela ikusi uste izan dut. Ah! Erran ele bat, eta nire zoriona zuk sortua dukezu. Baina, elerik erran baino lehen, gogoan har ezazu ele batek halaber mukuru dezakeela nire malura. Izan zait-tez bada nire asturuaren erabakitzaile. Zugatik izanen naiz betiko uros edo maluros. Esku mai-teagoetan jar nezake interes handiagorik?

Hasi naizen bezala bukatuko dut, zure bihoz-beratasunari otoiztuz. Entzuteko eskatu dizut; areago ausartuko naiz, otoi arren erantzun ieza-

dazu. Uko egitea, litzateke laidotua zarela niri aditzera ematea, eta neure bihotzaren bermeaz diotsut nire errespetua nire amodioaren heinekoa dela.

*P.S.*— Balia zaitezke, niri erantzuteko, gutun hau zugana helarazteko baliatu naizen bide berberaz; segura eta orobat eroso iruditzen baitzait.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 18an.*

## **XVIII. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Zer! Sophie, alde zure aurretik gaitzesten didazu egiteko asmotan naizena! Banuen haatik aski kezka; horra non areagotzen dizkidazu. Argi dago, diozu, ez dudala erantzun behar. Arrazoi zure gogara mintzo zara; eta bertzenaz, ez dakizu zehatz-mehatz auzia zertan den: ez baitzaude hemen ikusteko. Segur naiz nire lekuan bazina, nik bezala jokatu zenukeela. Hain segur, oro har, ez da zilegi erantzutea; eta atzo izkiriatu nizun gutunean ontsa ikusi duzu nik ere

ez niola erantzun nahi: ez dut uste ordea nehor kausitu izan denik nehoiz ni nagoen egoeran.

Eta hala ere bakar-bakarrik erabaki behar! Merteuil andrea, nahiz atzo arratsean ikustea igurikitzen nuen, ez zen jin. Oro nire kontra biltzen da: hura baita nik Danceny ezagutu izanaren kausa. Ia beti harekin ikusi dut, harekin mintzatu natzaio. Ez diot gaitzik opa: baina bakarrik uzten nau durduzaldiaren unean berean. O! Nire errukarria!

Egizu kontu Danceny ohi bezala jin zela atzo. Nire asaldua hain zen handia non hari behatzera ere ez bainintzen ausartzen. Ezin zitzaidan mintzatu, ama han baitzen. Banuen susmo beltzuri-tuko ote zen, izkiriatu ez niola ikusirik. Ez nekien nola jokatu. Geroxeago galdegin zidan ea nire harparen bila joan zedin nahi nuen. Bihotza hain bortizki ari zitzaidan taupadaka, non hari baietza eman, ezin izan bainuen bertzerik egin. Itzuli zelarik, are okerragoa zen. Ez nion une batez baizik so egin. Hark ez zidan behatzen; baina halakoa zuen itxura non eri zela erran zitekeen. Horrek atsekabe handia ematen zidan. Ekin zion nire harpa akordatzeari, eta gero, ekarri zidan,

eta erran zidan: «Ah! Andereño!...» Ez zizkidan ele bi horiek baizik erran; baina erran zizkidan zeharo irauli ninduen doinu batez. Harpaz preludeak jotzen ari nintzen, zertan ari nintzen jakin gabe. Amak galdegin zuen ea ez ote genuen kantatuko. Danceny desenkusatu zen, alditxartuxe zela erranez; eta nik, ez bainuen estakururik, kantatu behar izan nuen. Nahikatu nuen sekula ez izatea bozik! Espreski hautatu nuen ezagutzen ez nuen ahaire bat; zeren segur bainekien ezeinik ezinen nukeela kantatu, eta zerbaiti ohartuko litzaizkiokeela. Zorionez, ikusliar bat jin zitzaigun; eta, zaldi orga bat sartzen ari zela entzutetik beretik, baratu nintzen, eta Dancenyri eskatu nion otoi harpa berriz eraman zezala. Beldur nintzen hura ere ez ote zen aldi berean joanen; itzuli zen ordea.

Ama eta ikustera etorri zitzaion andre hura elkarrekin solasean ari ziren bitartean, Dancenyri nahi izan nion une batez oraino behatu. Haren begiak kausitu nituen, eta neureak ezin gibela nitzakeen. Geroxeago malkoak zerizkiola ikusi nuen, eta nehork ikus ez zezan behar izan zuen jiratu. Bet-betan, ezin izan nion eutsi; nik ere

negar egin behar nuela sentitu nuen. Jalgi nintzen, eta izkiriatu nuen berehala arkatz batez paper puska baten gainean: «Ez zaitez bada horrenbertze atsekabetu, otoi; hitz ematen dizut erantzunen dizudala.» Hain segur, ez dezakezu erran makurrik badenik horretan; eta bertzalde ni baino bortitzagoa zen. Neure papera harparen hari artean ezarri nuen, haren gutuna ezarria zen gisara, eta egongelara itzuli nintzen. Askoz lasaiago nintzen. Arras berantesten nuen andre hura joan zedin. Zorionez, ikustaldian zen; berehala joan zen. Hura jalgi bezain sarri, harpa berriz jo nahi nuela erran nuen, eta bila joateko eskatu nion Dancenyri. Ontsa ikusi nuen, haren itxuragatik, ez zuela deusen susmorik. Itzuli zelarik ordea, o! Hura bozkarioa! Harpa niri buruz ezarriz, amak ezin ikus zezakeen eran jarri zen, eta eskua hartu zidan eta tinkatu zuen... nola tinkatu ere!... Instant bat baizik ez zen izan: baina ezin jakinen nizuke erraten zer nolako plazerra eragin zidan. Eskua gibelatu nuen haatik; hala ez diot neure buruari zer liskarturik.

Orain, adiskide maitea, ikusten duzu ezin naitzela hari izkiriatzetik begiratu, zeren hitz eman

baitiot; eta bertzalde, ez diot berriz atsekaberik sortuko; zeren hark baino gehiago sofritzen baitut. Baldin hori gaizki egina balego, zaude ziur ez nukeela eginen. Izkiriatzeta gaizki egon liteke ordea, batez ere nehor triste egotea eragotzi nahi izanik? Durduzaturik nauka gutun hori ontsa izkiriitzen ez jakiteak: ohartuko da, ordea, ez dela nire hutsa; eta bertzalde segur naiz nirea izateagatik beretik, laketuko zaiola betiere.

Adio, adiskide maitea. Oker ari naizela iruditzen bazaizu, erraidazu; baina ez dut uste. Dancenyri izkiriatzeko unea hurbiltzen ari den heinean, bihotza taupadaka ari zait ezin sinetsizko eran. Haatik behar dut egin, zeren hitz eman baitiot. Adio.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 20an.*

## **XIX. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK DANCENY ZALDUNARI

Hain zinen tristerik, atzo, jauna, eta ni horrenbertze atsekabetzen ninduen horrek, non



makurtu bainaiz izkiriatu zenidan gutunari erantzunen niola zuri hitz ematera. Egungo egunean orobat uste dut ez dizudala erantzun behar: haatik, nola hitz eman baitizut, ez dut hitza jan nahi, eta horrek behar dizu frogatu zuri dizudan adiskidantza handia. Orain badakizunez, igurikitzen dut ez didazula hartzara zuri berriz izkiriatzeari galdeginen. Igurikitzen dut halaber nehoi ez diozula erranen izkiriatu dizudanik; zeren gaitzesiko bainindukete segurki, eta horrek xangrina handia sor bailiezdake. Igurikitzen dut oroz gaitetik zuhaurk izan ez dezazun nitaz uste makurrik, zeren horrek bertze edozerk baino gehiago atsekabetuko baininduke. Segur erran diezazuket ezen ez niokeela halako begirunerik agertuko zu ez bertze nehoi. Estimua handitan nuke orain zauden bezala gehiago tristeturik ez egoteko begirunea zuk halaber agertuko bazenit; zeren bertzela zu ikusteak ematen didan plazer guztiaz gabetuko bainauzu. Ikusten duzu, jauna, zinez eta egiaz mintzo natzaizula. Ez dut gehiagorik galdatzen, non ez den gure adiskidantzak iraun dezan sekula betiko; ordea, arren otoi, ez gehiago izkiria.

Ohorez bainaiz,

CÉCILE VOLANGES

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 20an.*

## **XX. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Ah! Zital horrek, balakatzen nauzu, zutaz trufa eginen ote dudan beldur! Hots, ontarte hori eginen dizut: horrenbertze erokeria izkiriatzen dizkidazu, non lehendakariaren emazte horrek murgildua zauzkan zintzotasuna behar baitizut barkatu. Ez dut uste nire zalduna ni bezain bihozbera litzatekeenik; gizon horrek ez luke gure hitzarmena luzatzea onetsiko, eta ez luke deus plazerrik kausituko zure asmo eroan. Nik haatik gogotik egin dut irri, eta biziki haserrarazi nau bakar-bakarrik irri egin beharrak. Zu hemen izan bazina, ez dakit alaitasun horrek nora eramanen ninduen: gogoetatzeko astia izan dut ordea eta zorrotz jokatu dut. Ez uste nire ukoa sekulako denik; gerorako uzten dut ordea, eta arrazoi dut. Harrokeriaz ariko nintzateke agian,

eta, behin jokoaren kilikak hartuz gero, ez da jakiten ahal non bara. Berriz izanen naiz estekatuko zaituen emakumea, lehendakariaren emazte hori ahanztera behartuko zaituena; eta nik, doilor honek, bertutetik gibelaraziko bazintuzket, zer eskandalua! Peril horretarik begira zaitezzen, horra nire baldintzak.

Zeure debot eder hori eduki dezazun orduko, froga bat ekar ahal diezadakezun orduko, zatoz, eta zurea izanen naiz. Ordea jakin badakizu ezen, garrantzizko egitekoetan, frogak idatziz baizik ez direla hartzen. Abeniko horrez, batetik, sari bilakatuko naiz kontsolamendu izan orde; eta ideia hori are laketago zait: bertzetik, zure erdiesteak zirrara handiagoa duke, desleialtasunari emanen baitio bide. Zatoz bada, zatoz ahalik lasterrena zure garaikundearen froga niri ekartzera: beren garaipenaren fruitu distirantak beren damaren oinetan ezartzera zetozen gure zaldun bihoztoien gisara. Seriouski, jakinminak nago ahalketi batek zer izkiria dezakeen horrelako une baten ondoren, eta zer oihalek ezartzen duen bere hitzen gainean, bere gorputza oihalez biluzia utzi ondoren. Zuk beharko duzu ikusi pre-

zio garestiegia jartzen ote diodan neure buruari; baina aldez aurretik gaztigatzen dizut ez dudala deus ere behehituko. Ordu arte, bizkonde mai-tea, on iritziko diozu neure zaldunari fidel jarrai nakion, eta liberti nadin hura zoriontsu egiten, nahiz horrek nahigabe doi bat eragin zuri.

Ez banintz haatik hain ohitura oneko emaku-me, uste dut nire zaldun horrek balukeela, une honetan, aurkari arriskutsu bat; Volanges ttipiaz ari naiz. Haur horrek bihotza galdurik nauka: zinez grina handi bat da. Tronpatzen ez banaiz, haur hori arras gailenduko da modan dauden gure emakumeen artean. Haren bihotz ttipia bilakaeran dakusat, eta ikuskizun hori zoragarria da. Bortizki maite du jadanik bere Danceny; baina oraino ez daki deus horretaz. Mutilak ere, nahiz neska biziki maite duen, bere adinekoen herabetasuna du oraino, eta ez da sobera ausar-tzen neskari deus erratera. Bi-biak maitasunez zoraturik dauzkat niri buruz. Neska ttipiak batez ere gogo bizia du bere sekretua niri errateko; baditu bereziki egun batzuk zinez estutua ikus-ten dudala eta zerbitzu handia egingen niokeen doi bat lagundu izan banio: baina ez dut ahanz-

ten haur bat dela, eta ezdut arriskatu nahi. Danceny zertxobait argiago mintzatu zait; baina, harez den bezanbatean, egina dut hautua, ez diot aditu nahi. Neska ttipi horrez den bezanbatean, neure ikasletzat hartzeko tentatua naiz sarri; Gercourti zerbitzu hori egiteko irrikan nago. Nahikoa asti utzi dit, urria arte Korsikan izanen baita. Hartua dut asti horrez baliatzeko xedea, bai orobat, egoiliar laño horren orde, emakume guztiz gertutu bat hari ematekoa. Zer segurantz mutiria du bada gizon horrek, ausartzen baita lasai lo egitera, badelarik emakume bat oraino mendekatzeke, harez zer arranguraturik badukeena. Hara, neska ttipi hori une honetan hemen balego, ez dakit zer ez niokeen erranen.

Adio, bizkonde; gabon eta garaikunde on: baina, Jainkoarren, aitzina zaitez bada. Egizu kontu ezen emakume hori edukitzen ez baduzu, bertzeak lotsatuko direla zu eduki izanaz.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 20an.*

## XXI. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Azkenean, adiskide ederra, urrats bat aitzina egin dut, urrats bat zinez handia, zeinak jomugaraino eramanez ez banau ere, jakinarazi baitit bederen bide onean naizela, eta aienatu baitit berebat desbideratzeko nuen beldurra. Neure maitasuna aitortu dut azkenik; eta nahiz emakume horrek denik eta isiltasun setatsuen gorde duen, erdietsi dut harengandik erantzunik agian nahasmen gutxiena duena eta balakariena berebat: baina ez gakizkien gertakariei aitzindu, eta itzul gaitezen hasierara.

Oroituko zara nire ibiliak barrandatuak zirela. Hots bada! Nahikatu dut eskandaluzko bide hori guztien onbiderako izan zedin, eta horra zer egin dudan. Manatu diot neure isilmandatariari bila ziezadan, inguruotan, laguntza behar zezakeen dohakaberen bat. Mandatu hori ez zen zaila betetzeko. Atzo arratsaldean, isilmandatari horrek jakinarazi zidan ezen gaur goizean zerga ezin ordain zezakeen familia oso baten altzariak bahitu behar zituztela. Segurtatu nintzen etxe

horretan ez zedin izan adinagatik edo gorpuzke-  
ragatik nire ekintza susmagarria bihur zezakeen  
ezein neskabila edo emakumerik; eta, argibide  
guztiak izan nituenean, afalorduan erran nuen  
biharamunean ehizara joateko asmoa nuela.  
Izan nadin hemen zuzen eta bidezko lehendaka-  
riaren emaztearekin: dudarik gabe bazuen hark  
bihotz zimikorik eman zituen manuengatik; eta,  
ez baitzuen bere jakinmina garaitzeko indarrik,  
izan zuen bederen nire nahiari kontra egiteko  
aski indar. Bero gehiegi eginen omen zuen; eri  
gertatzeko arriskutan nengokeen; ez nuen deus  
hilko eta alferretan nintzen akituko; eta, solas  
hori bitartean, haren begiek, ausaz hark nahi  
baino hobeki mintzo baitziren, aski adierazten  
zidaten nahi zuela arrazoi makur horiek nik  
ontzat har nitzan. Ez nuen men egiteko ezein  
asmorik, igerriko zenionez, eta gisa berean  
aihertu nintzaion ehizaren eta ehiztarien kontra-  
ko marmarraldi ttipi bati, eta, begitarte zerutiar  
hura, afalondo osoan, ilundu zuen beltzuri laino  
ttipi bati. Beldur izan nintzen une batez bere  
manuak ez ote zituen atzera botako, eta haren  
adeitasunak ez ote zidan kalte eginen. Ez nuen

kalkulatzen emakume baten jakinmina; hein hartaraino nintzen tronpatua. Neure sehiak gau hartan berean lasaitu ninduen, eta gogobete oheratu nintzen.

Goizean goizik iratzarri naiz eta abiatu. Gaztelutik berrogeita hamar bat urratsera, neure barrendari hura atzeman dut niri jarraika. Hasi naiz ehizan eta landan barrena abiatu naiz heldu nahi nuen herrira buruz; ez harturik bidean bertze plazerrik jarraika ari zitzaidan arlote hari korrika ibilaraztea izan ezik, eta nola ez baitzen bidetik saihestera ausartzen, maiz egiten zuen, lasterka bizian, nik baino hiru bider tarte luzeagoa. Hura neurtzearen bortxaz, nihaur ere arras berotu naiz, eta zuhaitz baten azpian eseri naiz. Lotsagabe hori ez zait bada nigandik hogeitaurratsera ere ez zegoen sastraka baten gibelean gerizatu, eta han eseri hura ere? Hari fusilaz tiro egiteko tentatua izan naiz une batez, halatan, perdigoi hutsez kargatua baitzen, aski jabetuko baitzen jakinminak dakartzan arriskuez: beharrik harentzat, gogoratu zait baliagarria ez ezik, beharrezkoa ere banuela neure asmoetarako; gogoeta horrek salbatu du.



Bitartean herrira heldu naiz; abarrotsa daku-  
sat; aitzinatu naiz: egin dut galde; gertatu dena  
kontatu didate. Zergabiltzailea etorraziti dut;  
eta, nire gupida eskuzabalari amore emanik,  
berrogeita hamasei libera ditut prestuki ordain-  
du, diru kopuru hori zela kausa amilduak baitzi-  
ren bortz presuna hondamendira eta etsipenera.  
Egintza hain xume horren ondoren, ez dezakezu  
pentsa ikusliarrek zer nolako bedeinkazio hotsak  
atera dituzten nire inguruan! Zer nolako esker-  
tza malkoak isurtzen ziren familia hartako aitzin-  
dari zaharraren begietarik, eta nola edertzen zio-  
ten aitalehen aurpegi hura, etsipenaren zantzu  
krudelak instant bat lehenago arras higuigarri  
bihurtua. Ikuskizun hari miraz so nengoen, eta  
horra non bertze laborari gazteago batek, ema-  
kume bat eta bi haur eskutik heldurik zekartzala,  
urrats bizkorrez nigana hurbildurik, erran dien:  
«Eror gaitezen guztiok Jainkoaren irudi honen  
oinetara»; eta une horretan berean, familia hori  
nire inguruan bildua zen, ahuspez nire belaune-  
tan. Neure ahulezia dut aitortuko; begiak malkoz  
zaizkit busti, eta sentitu dut neure baitan bultza-  
da bat, gogoz bertzerakoa, baina zoragarria.

Harriturik nintzen ongia egiteak ematen duen plazerraz; eta badut susmoa guk jende bertute-tsutzat dauzkagun horiek ez ote duten bere buruaren atseginez erran ohi diguten bezainbat merezimendurik. Nolanahi ere den, bidezkoa iruditut zait jende errukarri haiei eman berri zidaten plazerra ordaintzea. Hamar luis neramatzan aldean; eman egin dizkiet. Horra non eskertzak berriz hasi diren, baina ez ziren jadanik arestian bezain bihotz-erdiragarriak: premiak ondorio benetakoa sortu zuen, ondorio handia; gainerakoa ez zen esker oneko eta harridurazko adierazpen soil bat baizik, balio urriko dohainen truk.

Bizkitartean, familia horren bedeinkazio elektarien erdian, iduri nuen ez gutxi drama bateko heroi bat, bururatze agerraldian. Sumatuko zenuen jende saldo horren artean nire barrendari leial hura zegoela. Nire xedea betea zen: han utzi ditut guztiak oro, eta gaztelura itzuli naiz. Oro kalkulaturik, bozkarioak egiten ditut neure asmakizunaz. Emakume horrek merezi du dudarik gabe ni horrenbertze arduratzea; ardura horiek dirateke egunen batean hari erakutsiko dizkiodan agiriak; eta, aldez aurretik ordaindu

baitiot, nolabait, baduket harez neure gogara baliatzeko eskubidea, neure buruari batere erantzukirik egin behar izan gabe.

Ahantzi zait erratea ezen, oroz baliatzeko, eskatu diedala jende on horiei egin diezaioten Jainkoari otoitz nire xedeen alde. Ikusiko duzu ea haien otoitzak alde berderen jadanik adituak izan ote diren... Erraten didate ordea afaria prest dela, eta beranduegi litzateke gutun hau bidaltzeko, baldin gutuna hertsia eta afaltzera joanen ez banintz. Beraz, *gainerakoa hurrengoan postaz*. Samurturik naiz, gainerakoa baita hoberena. Adio, adiskide ederra. Ebasten didazu une batez hura ikusteko plazerra.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 20an*

## **XXII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VOLANGES ANDREARI

Dudarik gabe on idurituko zaizu, andrea, Valmont jaunaren ezaugarri bat ezagutzea, alde handia baitu, nire ustez, zuri irudikatu dizkizuten

horiekin. Hain baita dolugarria nornahi begitan hartzea, hain gogaikarria bizioak baizik ez kausitzea bertutea maitarazteko behar diren dohain guztiak dauzkaketenen baitan! Orogen buruan zuri horren laket zaizu bihozberatasunez aritzea, non iritzi zorrotzegi bat aldatzeko arrazoiak zuri emanik plazer handia har baitezakezu. Valmont jaunak ontarte hori, erranen ere nuke kasik bidezkotasun hori, igurikatzeko eskubidea badukeela iruditzen zait; eta horra zergatik dudan hori uste.

Egina du, gaur goizean, inguruotan asmo gaiztoren bat baduela pentsatzeko bidea eman zezakeen horietako txango bat, hala nola zuri bururatu baitzitzaizun; eta burutazio hori damudut halaber azkarregi neurenagatu izana. Beharrik harentzat, eta batez ere beharrik guretzat, zeren bidegabeak izatetik salbatzen baikaitu, nire sehi batek haren bide beretik joan behar zuen; eta era horretan ase dut neure jakinmin gaitzesgarria, baina zorionekoa. Sehi horrek mezutu digunez, Valmont jaunak kausiturik ...ko herrian asturugaitzeko familia bat, zergak ezin ordaindu ahal izateagatik altzariak saldu behar

zizkiotena, ez soilik lehiatu da dohakabe jende horien zorra kitatzera, orobat eman die munta handiko diru kopuru bat. Nire zerbitzaria egintza bertutetsu horren lekuko izan da; eta mezutu dit orobat nola herritarrek, haien artean eta nire sehiarekin solasean, erran zioten sehi batek, zeina izendatu baitute, eta nire sehiak uste baitu Valmont jaunarena zela, argibideak eskatu zituela atzo laguntzarik behar zezaketen herri hartako biztanleez. Baldin hori horrela bada, ez da soilik erruki iragankor bat, egokierak baldintzatua: da ongia egiteko asmo gogoetatua; da onginahiaren karra; da arimarik ederrenaren bertuterik ederrena: baina, izan asturu edo izan asmo finko, betiere da egintza onest eta laudagarri bat, aditzetik beretik malkoak isurtzeraino hunkitu nauena. Erranen dut orobat, eta betiere bidez-kotasunez, ezen egintza hartaz mintzatu natzaiolarik, hark ez baitu aipatu ere egin, egintza hura ukatzetik hasi dela, eta azkenik aitortu duelarik iduri zuen hain balio gutxi ematen ziola, non haren apaltasunak merezimendua bikoizten baitzion.

Orain, erraidazu, adiskide agurgarria, Valmont jauna ezin zentzatuzko libertin bat ote da? Baldin hala bada eta horrela jokutzen badu, jende prestuei zer geldituko zaie? Zer! Gaiztoek zintzoekin banatuko lukete ongia egiteak dakarren plazer sakratua? Jainkoak utziko luke familia bertutetsu batek gaiztagin baten eskutik har zitzan Jainkoaren beraren probidentziari eskertuko lizkiokeen laguntzak? Eta atseginez entzunen lituzke aho garbiek gizon makur bat bedeinkazioz betetzen? Ez. Nahiago dut sinetsi ezen hutsegiteak izanagatik luzeak ez direla eterna-lak; eta ez dezaket pentsa ongia egiten duena bertutearen etsai denik. Valmont jauna ez da agian harremanen arriskuaren bertze etsenplu bat baizik. Laket zaidan ideia horretan baratzen naiz. Baldin, batetik, balio baleza Valmont jauna zure gogoan justifikatzeko, hainbat baliosagoa egiten du, bertzetik, zuri sekula betiko atxikia naukan adiskidantza amoltsua.

Ohorez bainaiz, etab.

*P.S.*— Orain berean Rosemonde andrea eta biok familia zintzo eta dohakabe hori ikustera goaz, eta gure laguntza berantiarra Valmont jau-

narenari eranstera. Jende on horiei emanen diegu bederen beren ongilea berriz ikusteko plazerra: hori baita, nire iduriko, Valmont jaunak utzi digun egiteko guztia.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 20an.*

## **XXIII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Gaztelura heldu nintzenean geldituak ginen: berriz ekinen diot kontakizunari.

Garbiketa labur bat egiteko astia hartu baizik ez, eta egongelara joan nintzen, non nire eder hura tapiz bat egiten ari zen, hango apaizak nire izeba xaharrari kazeta irakurtzen zion bitartean. Ehundegiaren ondora joan nintzen esertzera. Behakoek, ohi baino eztiagoak baitziren, eta kasik ferekuzkoak, berehala asmarazi zidaten sehiak kontu emana zuela jadanik bere eginkizunaz. Alabaina, nire emakume atsegin eta zelatarri hark ezin izan zuen gehiagoz gorde ebatsia zidan sekretua; eta, artzain agurgarri baten hitz-jario haatik prediku bat zirudiena eteteko beldu-

rik gabe: «Badut nik ere berririk kontatzeko», erran zuen; eta berehala nire abentura kontatu zuen, kontalari zuhur hari zegokion zehaztasunaz. Pentsa dezakezu neure apaltasun guztia baliatu nuela: baina nork geldiaraz lezake bere maitearen laudorioa, ezbairik ere gabe, egiten ari den emakumea? Egiten uzteko xedea hartu nuen beraz. Erran zitekeen santu baten goresmena ari zela egiten. Bitartean, so nengoen, ez esperantzarik gabe, haren behako biziek, haren egonkera libroago bihurtuak, eta oroz gain ahots doinu hark, dardarizo jadanik sumagarriaz haren arimaren zirrara salatzen baitzuen, amodioari eskaintzen zioten guztiari. Solasa bukatu zuen orduko: «Zatoz, iloba», erran zidan Rosemonde andreak; «zatoz, besarka zaitzadan.» Berehala ohartu nintzen predikari eder hura ezin begiratuko zela orobat besarkatua izatetik. Ihes egin nahi izan zuen hala ere; laster zen ordea nire besoe-tan; eta, aihertzeko indarra izatetik urrun, doi-doia gelditzen zitzaion zutik egoteko bezainbat indar. Zenbatenaz emakume horri so egon, han-batenaz dut hura desiratzenago. Bizkor itzuli zen bere egitekora, eta, tapizari berriz ekina zelako



itxura zuen mundu guztiarentzat; ni ohartu nintzen ordea bere esku dardaratiak ez ziola lanean jarraitzen uzten.

Bazkalondoan, emakumeek joan nahi izan zuten nik hain debozio handiz artatu nituen dohakabe haiek ikustera; ni eraman ninduten lagun. Esker on eta laudoriozko bigarren gertaldi horren asperretik begiratuko zaitut. Nire bihotzak, oroitzapen zoragarri batek hertsatua, berantetsia du gaztelura heltzeko unea. Bidean, lehendakariaren emazte eder hark, ametsari ohi baino emanago, ez zuen deusik erran. Egun hartako gertakariak eragin zuen ondorioa neure alde baliatzeko bideak aurkitu nahiak osoki hartua nindukanez, ni ere isilik nengoen. Soilik Rosemonde andrea ari zen hizketan eta ez zuen gugandik erantzun bakan eta laburrik baizik hartzen. Asperturik behar zuen gurekin: hori zen nire asmoa, eta betea zen. Beraz, zalgurditik jaitsirik, bere gelara joan zen, eta nire eder hura eta biok buruz buru utzi gintuen, gela argiz eskastu batean; ilunbe ezia, amodio herabearen bihotz-berotzailea.

Ez nuen solasa nik nahi nuen xedera bideratu beharrik izan. Predikari amoltsu haren karra neure trebezia baino hobeki baliatu zitzaidan. «Ongia egiteko guztiz ere nor izaki», erran zidan, haren behako ezta nigan pausaturik: «zergatik gaizkiari emana bizi?» — «Ez dut merezi», erantzun nion, «ez laudorio hori, ezta gaitzespen hori ere; eta ez dezaket uler nola, adimenez hain ernea zarenez, ez nauzun oraino igerri. Zuri fidaturik kaltetua gerta banendi ere, nire fidantzia sobera merezi duzu, ezin beraz uka diezazuket. Nire jokabidearen gakoa izaera ondikotz errazegi batean kausituko duzu. Ohitura gaiztoko jendeak nituen inguruan, eta haien bizioak imitatu nituen; lehiatu nintzen hantustez agian jende haiek gainditzera. Bertuteen etsenpluak gisa berean hemen bainau liluratu, entseiatu naiz bederen zuri jarraitzera, zure parera heltzea iguriki gabe. E! Gaur laudatzen didazun egintzak ausaz bere balio guztia galduko luke zuretzat, baldin egintza horren benetako arrazoia jakin bazeneza! (Ikusten duzu, adiskide eder horrek, egiatik zenbatez ere nintzen hurbil.) Neure laguntza», erran nuen gero, «ez didate dohaka-

be horiek niri zor. Zuk egintza laudagarri bat ikusi uste duzun lekuan, nik ez nuen laketa izateko bide bat baizik bilatzen. Ez nintzen, hala behar baita erran, goستن dudan Jainkoaren eskumakil ahula baizik. (Orduan solasa eten nahi izan zidan; baina ez nion astirik utzi.) Une honetan berean», gaineratu nuen, «neure sekretua ez zait ahuleziagatik baizik itzurtzen. Isilean gordeko nizula hitz emana nion neure buruari; bozkariotan nintzen egin izanaz, nola zure bertuteari, hala zure xarmari, eskaintza garbi bat zuk nehoiz ezagutuko ez zenuena; baina, ez bainaiz engainatzeko gauza, begien aitzinean dudalarik xalotasunaren etsenplua, neure buruari ez diot erantzukirik jadanik eginen zurekin ezkutukerian ibiltzeagatik. Ez uste esperantza gaizto batez iraintzen zaitudanik. Maluros izanen naiz, badaikit; baina neure sofrimenduak maiteko ditut; neure amodioaren soberania frogatuko didate; neure atsekabeak zure oinetan, zure altzoan, ditut ezarriko. Handik ditut aterako berriz sofritzeko indarrak; han dut kausituko ontasun errukarria, eta kontsolaturik naizela usteko dut, zeren deitoratuko bainazu. O, nire maite horrek!

Adi nazazu, deitora nazazu, eman zeure laguntza!» Bizkitartean belauniko nintzen haren aurrean, eta haren eskuak neuretan tinkatzen nituen: hark ordea, eskuak bet-betan gibelatuz, eta etsipenaren itxuran begien aurrean eskuak gurutzatuz, oihukatu zuen: «Ah! Nire dohaka-bea!»; gero malkotan lehertu zen. Beharrik, neure baitatik hain nintzen bertzeratua, non ni ere negarrez ari bainintzen; eta, haren eskuak berriz atxikirik, malkoz bustitzen nituen. Izari hori behar-beharrezkoa zen; zeren Tourvel andrea hain zen bere oinazeari emana, non ez baitzen nireaz ohartuko, baldin ez banu hari gatzigatzeko bide hura aurkitu. Horrez gainera, neure gogara aztertzen ahal nuen halatan begitarte xarmant hura, malkoen lilura ahaltsuaz are ederragotua. Burua berotzen ari zitzaidan, eta neure buruaren nagusigoa hain nuen galdua, non une hura baliatzeko tentatua izan bainintzen.

Zein da bada gure ahulkeria? Zein da zernolakoan nagusigoa, baldin nihaur, neure asmoak ahantzirik, arriskatu banaiz, garaipen goiztiar bat erdieste aldera, gudaldi luzeen xarma eta

hondamen deitoragarri baten zertzeladak gal-  
tzera; baldin, mutil gazte baten desiraz liluratua,  
bururatu bazait Tourvel andrearen garailea arris-  
kuan jartzea eta bertze emakume bat gehiago  
eduki izanaren abantaila geza bertzerik ez erdia-  
rastea, bere lanen emaitza gisa! Ah! Errenda  
dadi, baina borroka dadi; garaitzeko indarrik  
ezean, izan beza aihertzeko indarra; bere goga-  
ra goza beza bere ahulkeriaren sentipena, eta  
izan bedi bere hondamena aitortzera behartua.  
Utz dezagun ezkutuko basa ehiztaria usteka-  
bean harrapatu duen oreina hiltzen; benetako  
ehiztariak ordea oreina heriotzera behar du era-  
karri. Asmo hori ezinago gorena da, ez dea hala?  
Baina orain asmo horri ez jarraitu izanaz damu-  
rik egon nintekeen agian, zoria gertatu ez balitz  
nire zuhurtziaren laguntzaile.

Zarata entzun genuen. Egongelatik zetorren.  
Tourvel andrea, izuturik, itsumustuan altxa zen,  
hartu zuen suziri bat, eta irten zen. Joaten utzi  
behar izan nion. Zerbitzari bat baizik ez zen. Ber-  
tzerik ez zela ziurtatu nuen orduko, Tourvel  
andrearen atzetik joan nintzen. Ez nituen urrats  
batzuk baizik egin, eta horra non, dela nitaz

ohartua zelako, dela halako izu sentimendu lauso bat izan zuelako, entzun nion nola ibilera azkartu, eta bere gelan sartu baino gehiago barnera oldartu eta atea hersten zuen. Hara joan nintzen; baina giltza barnetik jarria zuen. Ondo begiratu nintzen atea jotzetik; sobera erraz ihar-dukitzeko parada ematea zatekeen eta. Beharrik ideia sinple bat bururatu zitzaidan: sarraila zulo-tik behatzen saiatzea; eta han ikusi nuen emakume maitagarri hura belauniko, malkoz bustia, eta kartsuki otoitzean. Zein Jainkori deitzera ausartu zen? Amodioaren aurka badea aski Jainko ahaltsurik? Alferretan ari da orain arrotz laguntza eske: haren asturua nihaurk dut erabakiko.

Egun baterako aski eta sobera egina nuela iritzirik, gelaratu nintzen ni ere eta zuri izkiriatzen hasi. Igurikitzen nuen emakume hura afa-lorduan berriz ikustea; baina ondoezik zela eta oheratua zela erranarazi zuen. Rosemonde andreak haren gelara nahi izan zuen igan, baina eri maltzur hark jarri zuen nehor ikustea galarazten zion buruko min baten estakurua. Pentsa dezakezunez, afalondoko bilkura laburra izan

zen, eta ni ere buruko minez nintzen orobat. Neure gelara erretiraturik, gutun luze bat izkiriatu nuen zorroztasun hura deitoratuz, eta oheratu nintzen, gutuna gaur goizean igortzeko asmoz. Gaizki lo egin dut, gutun honen data ikusiz igerriko zenionez. Iratzarri naiz, eta berrirakurri dut karta. Ohartu natzaio ez naizela aski neurritsua izan, suharra gehiago nerakusala amodioa baino, eta haserrea gehiago tristura baino. Berridatzi beharko dut; baina lasaiago behar nuke egon.

Argi azkorria sumatzen dut, berarekin dakarren freskurak lokarraraziko ahal nau! Ohera noa berriz; eta, zein ere den emakume horren nagusigoa, hitz ematen dizut ez naizela harez hainbertze arduratuko, non ez baitzaidan zugan asko pentsatzeko astirik geldituko. Adio, adiskide ederra.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 21ean, goizaldeko 4 orenetan.*

## XXIV. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Ah! Erruki, andrea, jabal ezazu, otoi, nire ari-maren asaldura; erraidazu, otoi, zer behar dudan iguriki edo zerk behar nauen izutu. Bozkariozko soberaniaren eta zorigaitzezkoaren artean, zalantza oinaze krudela da. Zergatik mintzatu natzaizu? Ezin aurre egin niezaiokeen neure pentsamenduak zure helmenean utzarazten zizkidan halabeharrezko lilurari? Zu isilean biziki maitatzeari askietsirik, neure amodioaz gozatzen nuen bederen; eta sentimendu garbi hori, zure oinazearen irudiak oraino asaldatu gabea, aski zitzaion nire zorionari: bozkario iturri hori etsipen iturri bilakatu da ordea, malkoak isurtzen ikusi zaitudanez geroztik; *Ah! Nire dohakabea!* krudel hori entzun dizudanez geroztik. Andrea, bi hitz horien oihartzunak luzaroan iraunen du nire bihotzean. Zer nolako asturugaitzaz, sentimendurik eztienak ez diezazuke beldurra baizik sor? Zein da bada beldur hori? Ah! Ez hain zuzen sentimendu hori zeureganatzeko beldurra: zure



bihotza, nik ondo ezagutzen ez dudana, ez da amodiorako egina; nirea, zuk etengabe gaitzes-ten duzuna, soilik hura da sentikorra; zurea errukigabea da. Hori hala ez balitz, ez zeniokeen hitz kontsolagarri bat ukatuko bere sofrimenduak kontatzen ari zitzaizun dohakabeari; ez zintzaizkiekeen haren behakoei itzuriko, zu ikusteko plazerra baizik ez duelarik; ez zinatekeen haren kezkaz krudelki jolastuko, eri zinela hari iragarri-rik zure osasunaz argibideak hartzera joatera utzi gabe; eta sentituko zenukeen gau hura bera, zuretzat ez baitzen hamabi oreneko atse- dena baizik, dolorezko gizaldi bat izanen zela harentzat.

Zergatik, erraidazu, merezi izan dut zorrozta- sun suntsitzaile hori? Ez naiz zu jujetzat hartu beldur: zer egin dut bada? ez bada amore eman edertasunak sortu eta bertuteak justifikatzen duen sentimendu gogoz kontrako bati; errespe- tutz neurritsua betiere, eta fidantziaren eta ez esperantzaren ondorioz tolesik gabe aitortua izan zena: iduriz zuk eman bide didazun eta nik neurririk gabe men egin diodan fidantzia hori tradituko zenuke? Ez, ez dezaket sinets; litzate-

ke hobenik baduzula uste izatea, eta zugan ezei-  
nik kausi dezakedala pentsatzetik beretik biho-  
tza zait iraulkatzen: neure liskarrak gezurtatzen  
ditut; izkiriitzen ahal nituen, ez ordea pentsa-  
tzen. Ah! Utz nazazu betegina zarela uste izaten,  
hori baita gelditzen zaidan plazer bakarra. Bete-  
gina zarela froga iezadazu zure laguntza eskuza-  
bala niri emanik. Dohakaberik lagundu ote duzu,  
zure laguntza nik bezainbat behar zezakeenik?  
Ez nazazu utz murgilarazi nauzun eldarnioan:  
maileguz emaidazu zeure arrazoia, bortxaz  
kendu baitidazu neurea; zentzatuko nauzun  
orduko, argi nazazu zeure lana bururatzeko.

Ez zaitut engainatu nahi, ez zara sekula nire  
amodioa garaitzera helduko; amodio hori arau-  
tzen erakutsiko didazu ordea: nire urratsak gida-  
tuz, nire hitzak diktatuz, salbatuko nauzu bede-  
ren zuri laket ez izateko zorigaitz lazgarritik.  
Aiena ezazu batez ere beldur etsipengarri hori;  
erraidazu barkatzen didazula, urrikaldu zatzaiz-  
kidala; emaidazu zeure bihozberatasunaren  
segurantzaz. Sekula ez dukezu nik nahi nukeen  
guztia; arrenka galdatzen dizut ordea behar  
dudan urria: ukatuko didazu?

Adio, andrea, har ezazu ontasunez nire sentimenduen eskaintza; ez dio deus kalterik egiten nire errespetuaren eskaintzari.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 20an.*

## **XXV. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Hona atzoko berri.

Hamaika orenetan Rosemonde andrearen gelan sartu nintzen; eta, haren gerizpean, sarra-razi ninduten ustez eri zenaren gelan, oraino ohean baitzen. Betondoak arrunt ubelduak zituen; nik bezain gaizki lo egingen ahal zuen hark ere! Baliatu nuen Rosemonde andrea urrundua zen une bat eriarri neure gutuna emateko: ez zuen hartu nahi izan; ohe gainean utzi nuen ordea, eta zintzo bada zintzo joan nintzen neure izeba xaharrari besaulkia hurbiltzera, *bere haur maitearen* ondoan nahi baitzuen egon: emakume hark gutuna gorde behar izan zuen eskandalurik sor ez zedin. Eriak moldakaizkiro erran zuen ustez sukar pixka bat bazuela. Rosemonde

andreak eriarri pultsua hartzera behartu ninduen, nire medikuntza ezagutzak arras goraturik. Besoa nire esku utzi beharrak eta bere gezur ttipi hura sumatua izanen zela jakiteak nahigabe bikuna sortu zion beraz nire eder hari. Alabaina, eskua hartu nion eta tinkatu nuen neure esku batez, bertzeaz beso fresko eta guri hura azter-tzen nion bitartean; andre maltzur hark ez zuen deusik erantzun, halatan non harengandik gibelaturik erranarazi bai-tzidan: «Ez zaio zirrara fitsikumatzen.» Zorrotz susmoa hartu nien haren behakoei, eta, zigor izan zekion, ez nituen bilatu: handik berehala, jaiki nahi zuela erran zuen, eta bakarrik utzi genuen. Bazkaltzera agertu zen, baina bazkaria tristea izan zen; iragarri zigun ez zela promenatzera joanen, horrek erran nahi baitzuen ez nukeela harekin mintzatzeko egokierarik. Iruditu zitzaidan hasperen bat behar nuela egin eta behako oinazezko bat behar nuela une hartan agertu: dudarik gabe igurikitzen zituen, egun osoan hura izan baitzen haren begiak aurrez aurre ikusteko izan nuen aukera bakarra. Hainbat nola baita zintzoa, badi-tu hala ere bere jukutria ttipiak bertze edozein

emakumek bezala. *Nire asturuaz argitasunik emateko ontartea egin ote zidan* hari galdegiteko una kausitu nuen, eta harritu samar entzun nion erantzuten: *Bai, jauna, izkiriatu dizut*. Gutun hori hartzeko irrika bizian nintzen; baina dela oraino jukutiaz, edo dela moldakaizkeriaz, edo herabetasunez, ez zidan gutuna arratsa arte eman, gelara joan zen una arte. Gutun hori igortzen dizut neure gutunaren zirriborroarekin batera; irakurri eta juja: ikus nolako faltsukeria nabarmenaz erraten didan ez dela amorosturik, alderantziz dela ziur naizen arren; eta arranguran datorke halaber baldin gero engainatzen badut, nahiz ez duen ni alde z aurretik engainatzeko beldurrik! Adiskide ederra, gizonik trebeena aski lan badu oraino emakumerik zintzoenaren heinera heltzeko. Ergelkeria horiek guztiak sinesten ditudalako itxurak beharko ditut bada egin, eta etsipenez beharko naiz akitu, andre horrek zorrotz antzean ibiltzea laket duelako! Nola ez naiz mendekatuko makurkeria horiez... Ah! Pazientzia har dezadan... baina adio. Oraino asko izkiriatu beharrean naiz.

Izan ere, bihotz-gogor horren gutuna itzuliko didazu; gerta liteke hark aurrerago miseria horiek balioetsi nahi izatea, eta arauz eta legez behar da jokatu.

Ez dizut Volanges ttipia aipatzen; bertze egunen batean mintzatuko gara neska horrez.

*Gaztelutik, 17\*\*ko abuztuaren 22an*

## **XXVI. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VALMONTEKO BIZKONDEARI

Hain segur ere, jauna, ez zenuke nigandik ezein gutunik hartuko, baldin atzo arratseko neure jokabide ergelak ez banindu behartuko gaur zuri argibideak ematera. Bai, negar egin nuen, aitor dizut: baliteke halaber zuk hagitz artoski aipatzen dizkidazun bi eleok niri itzuriak izatea; malkoak eta eleak, oro hauteman dituzu; oro behar zaizu bada argitu.

Sentimendu zintzoak baizik ez sorraraztera ohitua bainaiz, ahalke gorritu gabe entzun ahal ditudan hitzak baizik ez aditzera, merezimendu

osoz erdietsi uste dudan segurantzaz gozatzeraz; sentitzen ditudan zirraraz ez dakizkit ez disimulatzen, ez gudukatzen. Zure jokabideak sortu didan harridura eta ezinegona; halako nik dakita zer beldur, niri sekula gertatu behar ez zitzaidan egoera haren eraginez; ausaz zuk erdeinatzen dituzun emakumeekin nahasiko eta haiek bezain arinki tratatuko ote ninduzun ideia ezin jasanezkoa; kausa horiek guztiek bildurik malkoak sorraz ahal izan dizkidate eta erranarazi, neure ustez arrazoiz, dohakabea nintzela. Hitz hori, nahiz zuri sobera bortitza iruditu zaizun, ahulegia litzateke haatik, baldin nire malkoek eta nire hitzek bertze kausarik balute; baldin laidoztatu behar nauten sentimenduak gaitzetsi beharrean, sentimenduok neuretzeko beldurrez egon ahal banendi.

Ez, jauna, ez naiz horren beldur; baldin beldurrez banengo, ihesi nindoake zugandik ehun lekoara; basamortu batean gerizatuko nintzateke zu ezagutu izanaren malura negarretan deitoratzera. Ausaz ere, zu sekula ez maitatzeko segurantza osoa dudan arren, ausaz hobe nuke

neure adiskideen kontseiluei jarraitzea; zu nigan hurbiltzen ez uztea.

Uste nuen, eta hori izan da nire hoben bakarra, uste nuen emakume onest bat errespetatuko zenuela, ez baitzuen galdatzen zu ere onest izatea eta zurekin egoki eta zuzen jokatzeari bai-  
zik; jadanik defendatzen baitzintuen, zuk zeure desira gaiztoez laidoztatzen zenuen bitartean. Zuk ez nauzu ezagutzen; ez, jauna, zuk ez nauzu ezagutzen. Bertzenaz, ez zenukeen usteko hobe-  
nak eskubide bilaka zenitzakeenik: aditu behar ez nituen eleak erran dizkidazulako, ez zenukeen usteko irakurri behar ez nuen gutun bat niri izki-  
riatzeko baimena zenukeenik; eta *zure urratsak gida ditzadan, zure hitzak dikta diezazkizudan* galdatzen didazu! Hots bada, jauna, isiltasuna eta ahanztura, horra niri ematea komeni zaizki-  
dan kontseiluak, nola zuri zaizkizun jarraitzea komeni; orduan, izanen duzu, alabaina, nire bihozberatasunaren eskubidea: zeure esku bai-  
zik ez zenuke nire esker onaren eskubidea ere erdiestea. Ez ordea, ez diot galderik eginen errespetatu ez nauenari; ez diot fidantziatzeko fro-  
garik emanen nire segurantzaren neurriz gain balia-



tu duenari. Behartzen nauzu zuri beldur izatera, zu hastiatzera menturaz: nik ez nuen hori nahi; zugar ez nuen neure adiskiderik agurgarriena-ren iloba baizik ikusi nahi; adiskidantzaren bozaz oldartu nintzaion gogor akusatzen zintuen boz publikoari. Oro suntsitu duzu; eta, alde z aurretik dakusat, ez duzu deusik ere konpondu nahiko.

Nahi dizut beraz, jauna, jakinarazi ezen zure sentimenduek laidoztatzen nautela, ezen senti-mendu horien aitormenak iraintzen nauela, eta batez ere, sentimendu hori neuretzetik urrun, behartuko nindukezula zu sekula gehiago ez ikustera, baldin solasgai hori ez baduzu estal-tzen nire ustez zugandik igurikitze ko, bai orobat zuri fermuki galdatzeko eskubidea badudan isil-tasunaz. Gutun honekin batera doakizu zuk izki-riatu didazuna, eta zuk honako hau gisa berean itzultzeko ontartea eginen didazulakoan nago; zinez penaturik nintzateke existitu ere behar ez zen gertakari baten ezein aztarnarik geldituko balitz. Ohorez bainaiz, etab.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 21ean*

## XXVII. GUTUNA

CÉCILE VOLANGESEK MERTEUILEKO MARKESARI

Jainko jauna, zeinen ona zaren, andrea! Zeinen ontsa sumatu baituzu aiseago mintzatuko nintzaizula izkribuz, ezen ez bozez! Zeren eta erran behar dizudana oso zaila baita; baina adiskide zaitut, ez dea egia? O! Bai, adiskide txit mina! Saiatuko naiz ez beldur izaten; eta bertzenaz, hain nago zuhauren eta zure kontseiluen beharretan! Nahigabe handia dut, iruditzen zait mundu guztiak nire pentsamendua asmatzen duela; eta Danceny aurrean dudalarik batez ere, behatzen didan orduko ahalke gorritzen naiz. Atzo, negarrez ikusi ninduzunean, zuri mintzatu nahiagatik zen, eta bertzalde, nik dakita zerk mintzoa debekatzen zidan; eta zuk zer gertatzen zitzaidan galdegin zenidanean, malkoak gogoz kontra zitzaizkidan begietaratu. Ez nezakeen hitzik erran. Zu gabe, ama ohartuko zitzaiokeen, eta zer bilakatuko nintzen? Horra, haatik, nola-koa den nire bizimoldea, batez ere duela azken lau egunez geroztik!

Egun hartan berean, andrea, bai, erran eginen dizut, egun hartan berean Danceny jaun zaldunak izkiriatu zidan: O! Kausitu nuelarik haren gutuna, segur derraizut ez nekiela zer zen; baina, gezurretan ari ez nadin, ez dezaket erran plazer handirik hartu ez nuenik gutuna irakurtzen; ikusten duzu, nahiago nuke bizitza osoan atsekabetan eman, Dancenyk gutun hura izkiria ziezadan baino. Banekien ordea ez niola deusik erran behar, eta segur erran diezazuket berebat ezen haserre nintzela erran diodala Dancenyri: baina bera baino bortitzagoa dela erraten du, eta ni ados nago; zeren Dancenyri ez erantzutea deliberatu bainuen, eta ezin haatik gibelatu naiz hari izkiriatzetik. O! Behin baizik ez diot izkiriatu, bai izkiriatu ere, aldez, niri gehiago ez izkiriatzeko hari errateko: baina guztiarekin ere, behin eta berriz izkiriutzen dit; eta nola nik ez baitiot erantzuten, tristerik dela ikusten dut, eta orduan areago atsekabetzen naiz: hala non ez dakidan zer egin, ez nitaz zer izanen den, eta arras dohakabea naiz.

Erraidazu, arren otoi, andrea, gaizki egina legoke Dancenyri noizean behin erantzutea? Soi-

lik niri ez izkiriatzeko erantzukizuna har ahal dezan arte, eta lehen ginen bezala egon ahal gaitezen arte: zeren, nik behintzat, horrela jarraituz gero, ez baitakit zer bilakatuko naizen. Hots, haren azken gutuna irakurriz, ezin bukatuzko negarrak egin nituen; eta ziur baino ziurrago nago ezen ez baldin badiot erantzuten, biziki garela penatuko.

Haren gutuna ere igorriko dizut, edo kopia bat bertzela, eta zuhaurk jukatuko duzu; ontsa ikusiko duzu ez duela deus gaiztorik galdatzen. Nolanahi ere, baldin uste baduzu ez dela zilegi, hitz ematen dizut hari izkiriatzetik begiratuko naizela; uste dut ordea akort izanen zarela nirekin, ezen ez dagoela horretan kalterik.

Solasbide horri heldu baitiot, andrea, utz nazazu bertze galdera bat egiten: errana didate norbaiten amoros izatea gaizki dagoela; baina zergatik da hori? Egiten dizut galdera hori, zeren, Danceny jaun zaldunak dioenez, horrek ez baitu neholaz ere makurrik, eta ia mundu guztia amoros omen baita; hori hala balitz, ez dut ikusten zergatik behar naizen ni izan horretarik begiratzen den bakarra; edota andereñoentzat

baizik ez ote dago gaizki? Zeren amari berari entzuna baitiot erraten D... andrea M... jaunaz amorosturik zela, eta ez zuen aipatzen gaizki egina legokeen zerbait bailitzan; eta ziur naiz haatik ama nirekin samurtuko zela, Danceny jaunari diodan adiskidantzari hartuko balio susmorik. Gure amak ume baten gisa tratatzen nau betiere; eta ez dit fitsik erraten. Uste nuen, komentutik jalgiarazi ninduelarik, esposatzeko izanen zela; baina orain ezezkoan nago: ez uste horrek kezkatzen nauenik, zinez diotsut; zuk ordea, haren adiskide mina baitzara, zuk badakizu menturaz auzia zertan den, eta baldin badakizu, erranen didazulakoan nago.

Horra arras gutun luzea, andrea, baina zuri izkiriatzeko baimena eman baitidazu, baimen hori profitatu dut oro zuri kontatzeko, eta zure adiskidantzari nagokio.

Ohorez bainaiz, etab.

*Parisen, 17\*\*ko abuztuaren 23an.*

## XXVIII. GUTUNA

DANCENY ZALDUNAK CÉCILE VOLANGESI

E! Zer, andereño, niri erantzuteko ukoan setatua zara oraino! Deusek ez zaitzake amore ematera makur; eta egun bakoitzak berarekin darama ekarria zuen esperantza! Zer da bada zuk gure artean iraun dezan onartzen duzun adiskidantza hori, baldin nire atsekabeaz zu sentikortzeko bezain ahaltsua ere ez bada; baldin hotz eta lasai bazauzka, ni aldiz ezin itzal dezakedan su baten doloretan hilduratua naizelarik; baldin hari ez fida izateaz gainera, ez bada halaber aski zu urrikitan sarrarazteko? Zer! Adiskidea oinazetan duzu eta ez duzu deus egiten hari laguntzeko! Ez dizu ele bat baizik galdatzen, eta zuk ukatzen diozu! Eta nahi duzu sentimendu sobera ahul hori askiets dezan, nahiz zu sentimendu hori hari berriz ziurtatzeko beldur zaren oraino!

Atzo erran zenuen ez zenukeela eskergabea izan nahi: ah! Sinets nazazu, andereño, amodioa adiskidantzaz ordaindu nahi izatea, ez da eskergabekeriaren beldurrez egotea, da eskergabea-

ren itxura izateari berari zaion ikara. Ez naiz haatik gehiago ausartzen interesgarria ez baitzaizu zamatsua baizik gerta ez dakizukeen sentimendu batez zure denbora alferrik galaraztera; neure baitan beharko dut bederen sentimendu hori atxiki, hura menderatzen ikasi bitartean. Badakit egiteko hori zeinen gogorra izanen den; ez diot neure buruari ezkutatzen neure indar guztiak beharko ditudala; baliakizun guztiak baliatuko ditut: haien artean bada bat nire bihotzari gehien gostako zaiona, erran nahi baita zurea sentikaitza dela neure buruari maiz errepi-katu behar izatea. Zu gutxiago ikusten ere saiatuko naiz, eta ari naiz jadanik horretarako estakuru egoki baten bila.

Zer! Galduko dut zu egunoro ikusteko ohitura ezia! Ah! Damukizun duket bederen sekula betiko. Zorigaitz eternala duket amodiorik amoltsuenaren sari; eta zure nahia izanen da, eta zuk sortua izanen da! Ez dut sekula, jakinaren gainean diot, gaur galtzen dudan zoriona berriz aurkituko; zu baizik ez zinen nire bihotzarentzat egina; zer nolako plazerraz eginen nukeen zuretzat baizik ez bizitzeko zina. Baina zuk ez duzu

zin hori hartu nahi; zure isiltasunak garbi jakinarazten dit zeure bihotzak ez diotsula deusik nire alde; horra zure ezaxolatasunaren frogarik ziu-rena, eta aldi berean hori niri iragartzeko manerarik krudelena. Adio, andereño.

Ez naiz erantzunik igurikatzera ausartzen; amodioak lehiaz izkiriaturuko zukeen, adiskidantzak plazerrez, eta urrikiak berak ere agradamenduz: baina urrikia, adiskidantza eta amodioa berdin dira arrotz zure bihotzarentzat.

*Parisen, 17\*\*ko abuztuaren 23an*

## **XXIX. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Baniotsun, Sophie, izkiriaturzea zilegi dela kasu batzuetan; eta zinez diotsut zure iritziari jarraitu izana hagitz dolutzen zaidala, hainbat nola atsekabetu baikaitu Danceny zalduna eta biok. Arrazoi nuela frogatzeko, horra Merteuil andrea, zeina baita hori ontsa dakien andrea, azkenik nik bezala pentsatzera lerratua. Dena aitortu diot. Hasieran zu bezala mintzatu zait: baina dena



azaldu diodan ondoren, deliberatu du oso gauza desberdina zela; soil-soilik eskatzen du neure gutunak oro eta Danceny zaldunarenak oro erakuts diezazkiodan, ziur egon nahi baitu ez dudala erran behar dudana baizik erranen; orain lasai nago beraz. Jainko Jauna, zenbat maite dudan Merteuil andrea! Hain da ona! Eta arras emakume agurgarria da. Beraz, ez dago zer erranik.

Nolako presaz izkiriatzera noakion Danceny jaunari, eta hura nola bozkariatuko den! Uste baino gehiago bozkariatuko da; zeren orain arte neure adiskidantzaz baizik ez nion hitz egiten, eta hark betiere nahi zuen neure amodioaz hitz egin niezaion; gauza bera zen nire ustez; baina azken finean, ez nintzen ausartzen eta Danceny horretan setaturik zen. Merteuil andreari erran diot hori guztia; arrazoi nuela erran dit, eta erran dit berebat ez dela batbederaren amodioa aitortu behar, aitortzetik gehiago ezin begiratu arte: alta bada, ziur naiz ez naizela neure amodioa aitortzetik luzaroan begiratzen ahalko; gauza bera da ororen buruan, eta honako hau areago laketuko zaio.

Merteuil andreak orobat erran dit horrez guztiaz mintzo diren liburuak utziko dizkidala, behar bezala jokatzeko, eta halaber orain arte baino hobeki izkiriartzen irakatsiko didatenak: zeren, ikusten duzunez, neure hutsegite guztiak erraten baitizkit, horra biziki maite naudelako frogatzen; gomendio bakarra eman dit, ez diezazkiodan liburu horiek amari aipa, zeren nire heziketaz sobera ezaxolatu dela irudiko bailuke, eta karia horretara haserre bailiteke. O! Ez diot fitsik erranen.

Bai harrigarria alabaina ahaide ttipia baizik ez dudan emakume bat nire ama baino gehiago arduratzea nitaz! Bozkarioak egiten ditut hura ezagutu izanaz!

Galdetu dio halaber amari ea etzi operara eramanez nazakeen, haren palkora; han bakar bakarrik egonen garela erran dit, eta solasean ariko garela denbora guztian, nehork entzuteko beldurrik gabe: solasa nahiago nik opera bera baino. Nire ezteiez mintzatuko gara orobat: zeren zinez esposatzera noala erran baitit; baina horretaz ezin mintzatu ahal izan gara gehiago.

Konparazione, ez dea bada txit harrigarria amak niri fitsik ez erran izana horretaz?

Adio, Sophie, Danceny zaldunari izkiriatzera noa. O! Pozaren pozez nago.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 24an.*

## **XXX. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK DANCENY ZALDUNARI

Azkenean, jauna, makurtu naiz zuri izkiriatzera, neure adiskidantza, neure *amodioa* zuri segurtatzera, bertzela maluros baitzinateke. Bihotz onik ez dudala diozu; segur baino segurago derraizut oker zaudela, eta orain zalantza gehiagorik izanen ez duzulakoan nago. Izkiriatzen ez nizulako baldin bazaude atsekabetan, uste duzu ni ere ez nintzela orobat penetan? Baina ez nuke, neholaz ere, gaizki egina litzatekeen zerbait egin nahi; eta ez nuke orobat neure amodioa aitortuko, baldin aitortzetik begiratu ahal izan banintz: zure tristurak sobera penatzen ninduen. Orain ez ahal zara gehiago penatuko, eta izanen ahal gara arras zoriontsuak!

Igurikitzen dut gaur arratsean zu ikusteko plazerra izatea, goizik jinen ahal zara! Sekula ez ordea nik nahi bezain goizik. Amak etxean afalduko du, eta hemen gera zaitezen proposatuko dizula uste dut: ez ahal duzu bertze eginkizunik izanen herenegun bezala! Atsegina izan zen joatekoa zinen afari hura? Zeren goiz-goizik alde egin baitzenuen. Ez gaitezen ordea horretaz mintza: orain bai baitakizu maite zaitudala, ahal bezainbat geldituko ahal zara nire ondoan! Zeren zure ondoan baizik ez baitut bozkariarik, eta nahi nuke zu ere bozkariatsu izan zintez.

Damu dut zu oraino triste egona, baina ez da nire errua. Jinen zaren orduko galdatuko dut harpa jo nahi dudala, nire gutuna ahalik lasterre-na izan dezazun. Ez dezaket gehiagorik egin.

Adio, jauna. Oso maite zaitut, bihotz bihotzez; zenbatenaz erraten baitizut, hanbatenaz alegerago naiz; egonen ahal zara zu ere alegera!

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 24an.*

# XXXI. GUTUNA

DANCENY ZALDUNAK CÉCILE VOLANGESI

Bai, dudarik gabe, zoriontsuak izanen gara. Nire zoriona arras ziurra da, zeren maite bainauzu; zurea sekula ez da finituko, baldin iraunen badu zuk sorrarazi didazun amodioa bezainbat. Zer! Maite nauzu, ez zara jadanik zeure *amodioa* niri seguratzeko beldurrez! *Zenbatenaz erraten baitidazu, hanbatenaz zara alegerago!* Irakurri ondoren *maite zaitut* xarmangarri hura, zure eskuz idatzia, aditu dut zure aho ederra aitor-men hori errepikatzen. Ikusi ditut begi xarmangarri horiek nigan finkatuak, amoltsutasunaren eiteak ederragotuak. Hartu ditut niretzat sekulako bizitzeko zure zinak. Ah! Har ezazu zuk ere neure bizitza osoa zure zorionari eskainiko diodalako nire zina; har ezazu, eta zaude ziur ez dudala tradituko.

Zer egun zoriontsua iragan genuen atzo! Ah! Merteuil andreak zergatik ez ote du beti sekreturik zure amari kontatzeko? Zain dugun estualdiaren ideia zergatik datorkit gogoan darabiltzadan oroitzapen zoragarriekin nahastera? Zergatik ez

dezaket *maite zaitut* izkiriatu didan esku polit hori neure eskuetan etengabe atxiki, musuz estal, eta mendeka halatan ontarte handiago bat nik zuri galdaturik zuk egin didazun ukoaz!

Erraidazu, Cécile, zure ama itzuli zelarrik; haren presentziak behartu gintuelarik elkarri behako ezaxolatuak baizik ez igortzera; zure amodioa niri ziurtaturik, ezin jadanik kontsola nintzakezularik amodio horren frogak niri eman nahi ez izanaz, ez duzu bada ezein damurik sentitu? Ez duzu zeure baitan erran: musu batez zoriontsuagoa izan zitekeen, eta zorion hori nik diot ebatsi? Hitz emaidazu, adiskide maitagarri horrek, lehen okasioan ez zarela horren zorrotza izanen. Promes horren laguntzaz, hartuko dut kuraia halabeharrak prestatu dizkigun makurbi-deak pairatzeko; eta zu ere sekretuaren jakinaren gainean zaudelako segurantzak eztituko ditu bederen gabezia krudel horiek.

Adio, Cécile xarmanta: hona zure etxera abiatzeko orena. Ezinen zintuzket utz, zu berriz ikustera joateko ez balitz. Adio, nire maite lazta-na! Beti eta beti are maiteko zaitudana!

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 25ean*

## XXXII. GUTUNA

VOLANGES ANDREAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Nahi duzu bada, andrea, Valmont jaunaren bertutean sinets dezadan? Aitortzen dizut ezin naizela hori sinestera makurtu, eta hanbatenaz gostako litzaidakeela, zuk kontatu didazun egin-tza bakar horren arabera, Valmont jauna zintzo-tzat hartzea, gizon omenez eta izatez prestu baten hoben bat jakin eta hura biziotsutzat har-tzea baino. Gizona ezein alorretan ez da betegi-na, ez ongian, ez gaizkian ere. Gaiztaginak badu bertute, nola gizon prestuak ahuldade. Egia hori iruditzen zait hanbatenaz sinetsi beharragoa, non hortik baitator bihozbera izan beharra nola gaiztoekin hala zintzoekin; eta begiratzen baititu berebat harrokeriatik hauek, eta salbatzen etsi-penetik haiek. Irudituko zaizu, dudarik gabe, une honetan hagitz gaizki segitzen dudala predika-tzen ari naizen bihozberatasun hori; gizon bizio-tsua zein prestua berdin tratatzera garamatzan

bihozberatasun horretan, ordea, ez dut ahulkeria arriskutsu bat baizik ikusten.

Zilegi izan bekit Valmont jaunaren egintzaren arrazoiak ez aztertzea; egintza bezainbat laudagarriak direla nahi dut sinetsi: baina Valmont jaunak ez du haatik bizitza osoa eman familien baitan asaldura, desohorea eta eskandalua sortzen? Entzun, nahi baduzu, haren laguntza hartu zuen dohakabearen boza; baina ez hargatik entzungor egin sakailatu dituen ehundaka kalte-tuen oihuei. Baldin Valmont jauna ez balitz, zuk diozun bezala, harremanen arriskuaren etsenplu bat baizik, bera ez litzateke orobat harreman arriskutsu bat? Zorionez zentzatzeko gai izan daitekeela uste duzu? Jo dezagun urrunago; demagun mirari hori gertatua dela. Ororen ustea ez litzaioke aihertuko, eta uste hori ez zenuke zuk aski zeure jokabidea gidatzeko? Jainkoak baizik ez dezake damu orenean barka; bihotzetan irakurtzen du: baina gizonek ezin pentsamenduak juja ditzakete, egintzez ez bada; eta ezeinek ere ez du, bertzeen estimua galdu ondoren, galera hori ezin konponduzkoa bihurtzen duen halabeharrezko mesfidantzaz deitoratzeko



eskubiderik. Oroz gain egiozu kontu, adiskide gaztea, batzuetan aski dela, estimu hori galtzeko, hura aintzat behar bezainbat hartu ez izanaren iduria egin izana; eta zorroztasun hori ez har bidegabekeriatzat; zeren eta pentsa liteke ondusun preziatu hori merezi izateko eskubidea duenak ez diola ukorik egiten, eta horrez gainera, gaizkitik hurbilago dago alabaina galga ahaltsu horrek bararazi ez duena. Itxura horretan agerraraziko zintuzke beraz Valmont jaunarekiko harreman estu batek, izanagatik arras hobenik gabea.

Hari egiten diozun defentsa suharraz izutua, lehiatzera noa aldez aurretik ikusten ditudan eragozpenei aurre hartzera. Merteuil andrea aipatuko didazu, harreman hori barkatua baitzaio; galdeginen didazu zergatik hartzen dudan Valmont neure etxean; erranen didazu ezen jende prestuen gaitzespena jasotzetik urrun, onartua dela, bilatua orobat lagunarte ona erraten zaion horretan. Horri guztiorri diot, ustez, ihardesten ahalko.

Lehenik, Merteuil andre hain zuzen ere guztiz estimagarriak ez du ausaz bertze akatsik, bere

indarrei sobera fidatu izana baizik; gidari trebea da, orga haitz eta amildegietan barna gidatzea laket zaiona, eta soilik erdietsi izanak justifikatzen duena: zuzen da hura laudatzea, ozarra litzateke hari jarraitzea; hark ere aitortzen du hori eta karia horretara bere burua akusatzen. Gehiago ikusi duen heinean, zorrotzagoak ditu oinarrizko arauak; eta beldurrik gabe diotsut hark nik bezala pentsatuko lukeela.

Nitaz den bezanbatean, ez dut neure burua bertzeena baino gehiago justifikatuko. Dudarik gabe, Valmont jauna neure etxean hartzen dut, eta nonahi hartzen dute; gizartea gobernatzen duten bertze milari emendatu beharreko segida eza bat gehiago da. Badakizu, nik bezala, bizitza osoa ematen dugula segida eza horiek ohartarazten, deitoratzen eta usatzen. Valmont jauna, omen ederrez, dirutza handiz, anitz ezaugarri atseginez, garaiz ohartu zaio ezen gizartean nagusi izateko aski zela laudorioa eta auzolotsa ber trebeziaz erabiltzea. Nehor ez da jeinu bikoitz horren hura bezain jabe: liluratzen du bataz, eta ikara sortzen bertzeaz. Ez dute estimatzen; lausengatzen dute ordea. Halakoa du

biziera hura gudukatu baino ezitan hartzea nahiago duten jende zuhur ezen ez kementsuen erdian.

Baina ez Merteuil andrea bera, ez bertze edozein emakume ausartuko litzateke dudarik gabe horrelako gizon batekin kasik buruz buru landan bazterrera. Emakumerik zintzoenari, xumeenari egokitu bide zaio segida eza horren etsenplu ematea; ele hori barka iezadazu, adiskidantzari itzuri zaio. Adiskide ederra, zeure onestasunak berak traditzen zaitu, segurantza ematen baitizu. Egizu kontu jujetzat izanen dituzula, batetik, beren baitan etsenplurik ez kausiturik bertutea baitan sinetsiko ez duten jende pikabuztanak; eta bertzetik, bertutetsua izan zarela zigortzeko, ez sinetsiarena eginen duten jende gaiztoak. Gogoan har ezen, une honetan, ari zarela gizon batzuek arriskatzera ausartuko ez liratekeen zerbait egiten. Alabaina, ikusten ditut, Valmont jauna soberazko orakulu bilakatu duen gazte jendearen artean, nola zintzoenak hari estuegi atxikiak agertzeaz beldur diren; eta horrek ez zaitu zu beldurtzen! Ah! Itzul zaitetz, itzul, arrenka diotsut... Baldin nire arrazoiak

ez badira aski zu nire iritzira biltzeko, men egio-  
zu nire adiskidantzari; hark errepikarazten bai-  
tizkit neure eskariak, hari baitagokio eskari  
horiek justifikatzea. Nire adiskidantza zorrotza  
iduritzen zaizu, eta alferrikakoa izan dadin nahi  
dut nik; nahiago dut ordea deitora dezazun  
haren arta, ezen ez haren axolagabekeria.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 24an.*

## **XXXIII. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Erdiesteko beldur zarenez geroztik, bizkonde  
maitea, zeure buruaren aurka armak hornitzeko  
asmotan zabiltzanez geroztik, borroka nahiago  
duzunez geroztik garaipena baino, ez dut jada  
zer erranik. Zure jokabidea zuhurtziazko maisu  
lan bat da. Demagun zure xedeak bertzelakoak  
liratekeela, orduan ergelkeriazkoa zatekeen; eta  
zinez behar banatzaizu mintzatu, beldur naiz ez  
ote zaren irudipenari sobera emana.

Ez dizut unea ez baliatzeagatik egiten liska-  
rrik. Batetik, ez dut argi ikusten unea heldua

zenik: bertzetik, ontsa dakit, horri buruz zernahi diotela ere, huts egindako okasioa berragertzen dela, eta itsumustuan egin den urratsak aldiz sekula ez duela itzulerarik.

Baina zinezko eskolumezeria egin duzu izkiriartzera makurturik. Orain erronka jotzen dizut ezetz asma horrek nora eraman zaitzakeen. Menturaz, igurikitzen duzu emakume horri frogatzea bere burua behar dizula eman? Iduritzen zait hori ez dela sentimenduzko egia bat baizik, eta ez frogabidezkoa; eta egia hori orobat, bihota hunkituz behar dela sinetsarazi eta ez arrazoiak baliatuz; baina zertarako balia zaizuke gutun bidez hunkitzea, zu ez baitzinateke han probetxurik hartzeko? Zure perpaus ederrek amodiozko horditasuna sor lezatenean, harroharro uste duzu horditasuna hain luzea izanen dela non gogoetak ez dukeen maitasun aitormena eragozteko astirik? Egizu kontu zenbat denbora behar izaten den gutun bat izkiriartzeko, zenbat denbora iragaten den gutun hori igorri baino lehen; eta ikus, batez ere, ea oinarrizko arau zorrotzak dituen emakume batek, nola baita zure debot hori, horren luzaz desira deza-

keen sekula ez desiratzera entseiatua dena. Urrats hori baliagarria izan liteke haurrekin, zeren izkiriartzen dutelarik «maite zaitut», ez baitakite ari direla «neure burua ematen dut» erraten. Baina iruditzen zait Tourvel andrearen bertute ihardukitzaileak biziki ontsa ezagutzen duela eleen balioa. Beraz, nahiz zuen arteko elkarrizketan zuk abantaila hartu zenion, bere gutunean hark zaitu garaitu. Eta bertzalde, badakizu usu zer gertatzen den? Liskarka aritzeagatik beretik, ez dela amore eman nahi izaten. Arrazoi onak bilatzearen kariaz, aurkitzen dira; erraten dira; eta gero tinko atxikitzen dira, ez hainbertze onak direlako, nork bere burua ez gezurtatzeko baizik.

Bertzenaz, bada oharpen bat zuk sumatu ez izanak harriturik naukana, erran nahi baita, maitasunean deus zailagorik ez dela sentitzen ez dena izkiriartzea baino. Nahi dut erran egiantzaz izkiriartzea: ez hain zuzen ele berdina erabiltzen ez direlako; ez dira ordea berdin antolatzen, edo, gehiago dena, antolatzen dira, eta hori nahikoa izaten da. Berrirakur zeure gutuna: bada hor per-paus bakoitzean salatzen zaituen halako ordena-

mendu bat. Nahi dut sinetsi lehendakariaren emazte hori ez dagoela horretaz ohartzeko bezain trebatua: zer axola dio ordea? Ondorioak ez duke hala eta guztiz ere eraginik. Nobelek akats hori izaten dute; autoreak lehia bizian ari izaten da bere burua berotzeko ahaleginetan, eta irakurlea hotz gelditzen da. *Heloïse* da salbuets daitekeen bakarra; eta autorearen dohaina gorabehera, oharpen horrek beti sinetsarazi dit liburu horrek muina benetakoa zuela. Mintzoa arras bertzelakoa izaten da. Ihardunaren ohiturak sentikortasuna ematen dio mintzoari; malkoen isuri errazak areagotzen dio mintzoari sentikortasuna: desiraren eitea amoltsutasunaren eitearekin nahasten da begietan; denik eta segida gutxieneko mintzaldiak aiseago dakar azken finean asalduzko eta desordenuzko itxura hori, zeina baita amodioaren egiazko ele ederra; eta maitearen presentziak oroz gaineratik du gogoeta eragozten eta garaituak izatea desirarazten.

Sinets nazazu, bizkonde: gehiago ez izkiriatzea galdatu dizute: balia zaitez galde horretaz zeure hutsa konpontzeko eta zaude mintzatzeko okasioaren zain. Badakizua emakume horrek nik

uste baino indar gehiago duela? Defentsa ona du; eta haren gutunaren luzea gabe, eta konplimentuzko perpausean gaiari berriz heltzeko ematen dizun estakurua gabe, bere burua ez luke neholaz ere traditua.

Bada hala ere zerbait nire ustez erdiesteaz den bezanbatean sosegua harrarazi behar dizuna, eta da sobera indar baliatzen dituela batera; aldez aurretik dakusat indarrak ahituko dituela elea babesten, eta ez zaiola deusik geldituko zera hori babesteko.

Zeure bi gutunak berriz igortzen dizkizut, eta baldin zuhurra bazara, horiek izanen dituzu azkenak une zoriontsua iragan arte. Hain berandu ez balitz, Volanges ttipia aipatuko nizuke, aski bizkor ari baita aitzinatzen eta bozkario handitan bainauka. Zu baino lehenago finituko dudala uste dut, eta oso pozik egon behar zenuke beraz. Gaurkoz adio.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 24an.*



## XXXIV. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Ezinago bikain mintzo zara, adiskide ederra: baina zergatik horrenbertze nekatu mundu guztiak badakiena frogatzeko? Amodioan azkar ibiltzeko, hobe mintzatzea izkiriatzea baino; horra, nire ustean, zure gutun osoa. Zer orde! Seduzitzeko artearen osagairik sinpleenak dira horiek. Soil-soilik ohartaraziko dizut ezen hatsapen horri ez diozula salbuespen bat baizik egiten, eta baditu bi. Bide horri herabetasunagatik jarraitzen dioten eta beren burua ezjakinean ematen duten haurrei, jakitate handiko emakumeak behar zaizkie erantsi, beren buruei dieten maitasunari men eginik bide horretara lerratzen baitira, eta handinahiez segadara abiatzen. Konparazione, segur naiz B...ko kondesak, zeinak eragozpenik gabe ihardetsi baitzion nire lehen gutunari, ez ninduela artean maite nik hura maite nuen baino gehiago; eta ez zuela beraz ohoragarria iruditzen zitzaion norbait tratatzeko okasioa baizik ikusi.

Zernahi ere dela, abokatu batek erranen lizuke hatsapen hori ez dagokiola auziari. Alabaina, uste duzu izkribuzkoaren eta mintzoaren arteko hautua egiten ahal dudala, eta hori ez da horrela. 19ko aferaz geroztik, nire andre bihozgabe horrek, bere burua tinko defendatzeari emana baita, halako trebeziaz oztopatu ditu gure elkar ikusteak, non nire trebezia baitu arras nahasi. Hainbertzeraino non, horrela segituz gero, behartuko bainau berriz ere abantaila hartzeko baliakizunez serioski gogoeta egitera; zeren ez baitut hain segur ere ezein alderditan garait nazan nahi. Nire gutunek berek gerla ttipi bat biztu dute: ez ihardestea askietsi gabe, uko egiten dio gutunok hartzeari. Jukutria berri bat behar dut asmatu batbederarentzat, eta ez dut beti erdiesten.

Oroituko zara zein bide sinplez igorri nion lehena; bigarrenak ez zuen eragozpen gehiagorik. Bere gutuna itzul niezaion eskatu zidan: neurea eman nion harenaren ordeztu, hark fitsik susma zezan gabe. Baina dela engainatua izanaren hisiagatik, dela gutziagatik, edo dela azken finean bertuteagatik, zeren bertutean sinetsara-

ziko ere baitit, setati ukatu zidan hirugarrena. Uko horren ondorioz jasan uste zuen durduzak haatik etorkizunean zentzatuko duela uste dut.

Ez nintzen asko harritu nik soil-soilki eskaintzen nion gutun hura hark hartu nahi ez izanaz; zerbait ematea zatekeen jadanik, eta nik defentsa luzeago bat igurikitzen dut. Entseiu horren ondoren, ez baitzen bidenabar eginiko ahalegin bat baizik izan, jarri nion neure gutunari estalki bat; eta garbiketarako uneaz baliatuz, Rosemonde andrea eta gelaria haren ondoan baitziren, igorri nion neure sehiaren bidez, eskatua zidan papera zela Tourvel andreari errateko manuz. Ontsa asmatu nuen Tourvel andreak beldur izanzen ziola ukoarekin batera eman beharko zuen eskandaluzko argibideari: gutuna hartu zuen alabaina; eta nire mezulariak, Tourvel andrearen begitarteari so egoteko manua betez, eta aski behatzaile ona baita, gorritasun doi bat eta sumina baino durduza gehiago baizik ez zion hauteman.

Pozarren nintzen beraz, jakina, zeren edo gutun hura gordetzen zuen, edo nahi baldin bazidan itzuli, nirekin bakarka beharko zuen egon;

eta orduan banuke hari mintzatzeko okasio bat. Oren bat ingururen buruan, sartu da haren mirabe bat nire gelan, eta eman dit, bere etxekoandrearen partetik, paket bat neurearen molde desberdinekoa, kartazalean idazmolde txit desiratu hura hauteman niona. Itsumustuan ireki dut... Nire gutun bera zen, ireki gabe eta soilik bitan plegatua. Badut susmoa eskandalua saihesteko hura bezain zuhur jokatu ez nuelako beldurak ez ote zion deabruzko jukutria hura baliarazi.

Ezagutzen nauzu; ez dizut neure sumina irudikatu beharrik. Alabaina odol hotzera etorri behar izan nuen berriz, eta bide berriak bilatu. Hona kausitu nuen bakarra.

Etxe honetatik joaten dira, goizoro, posta etxera gutunen bila, hiru bat laurden lekoako bidea eginez: baliatzen dute xede horretarako atabaka baten gisara estaliriko kutxa bat, zeinaren giltza bat postako nagusiak baitu eta Rosemonde andreak bertzea. Nork bere gutunak hor sartzen ditu egunean zehar, on iduri zaionean; eramaten dituzte arratsean posta etxera, eta joaten dira goizean heldu direnen bila. Mirabeek

oro, kanpotar nahiz etxeko, berdin dagite zerbitzu hori. Ez zen nire sehiaren txanda; baina posta etxera joateko ardura hartu zuen, bazter hartan eginkizunik bazuelako estakuruan.

Bizkitartean neure gutuna izkiriatu nuen. Helbidea ezartzeko neure idazmoldea aldatu nuen, eta aski ontsa imitatu nuen, azalaren gainean, *Dijon*-eko zigilua. Hiri hori hautatu nuen, jostagarragoa iruditzen zitzaidalako, senarraren eskubide berberak galdatzen nituenez gero, nik ere leku beretik izkiriatzea, bai halaber nire emakume eder hark Dijonetik gutunik hartu gogo zela egun osoan aipatua zuelako. Zuzen eta bidezko iruditu zitzaidan Tourvel andreari plazer hura ematea.

Zuhurtziazko neurri horiek hartu ondoren, erraza zen gutun hura bertzeekin batera jartzea. Jokabide horren bidez halaber izanen nintzen gutun hartzearen lekuko: zeren hemengo ohitura baita gosaltzeko bildu eta elkarrengandik bereizi baino lehen gutunak noiz helduko igurikatzea. Heldu ziren azkenik.

Rosemonde andreak kutxa ireki zuen. «Dijonetik», erran zuen, gutuna Tourvel andreari

emanik. «Ez da nire senarraren idazmoldea», erantzun zuen hark bozean kezka ageri, zigilua berehala hautsiz: lehen begi ukaldiak jakinaren gainean jarri zuen; eta begitartea halako moldez irauli zitzaion non Rosemonde andrea ohartu baitzitzaion, eta erran zion: «Zer duzu?» Ni ere hurbildu nintzaion, erranez: «Gutun hori horren izugarria dea bada?» Debot herabeti hura ez zen begiak jasotzera ausartzen, ez zuen hitzik erraten, eta bere asaldura ezkutatzeko, egin zuen letra hura lerro pasan irakurtze irudi bat, ez egon arren irakurtzeko egoeran. Plazerra hartu nuen haren asalduez; eta ez ninduen beltzuritzen emakume hura doi bat estutzeak: «Iduri baitu lasaiago zaudela», erran nuen, «pentsa liteke gutun horrek areago harritu zaituela hilduratu zaituen baino.» Kolera izan zuen orduan zuhurtzia baino iradokitzaile hobe. «Hor bilduak dira», ihardetsi zuen, «laidotzen nauten gauzak, eta harriturik nauka nehor horiek izkiriatzera ausartu izanak.» — «Eta nork bada?» eten zion Rosemonde andreak. «Ez du sinadurarik», ihardetsi zion emakume eder hark suminez: «baina berdin ditut erdeinatzen gutuna eta egilea. Bizi-

ki eskertuko nizueke gutun hau sekula gehiago ez aipatzea.» Hitz horiek erranik, hautsi zuen eskutitz ausart hura, bildu zituen puskak sake-lan, zutitu zen, eta jalgi.

Sumin hura gorabehera, nire gutuna eskueta-ratu zitzaion haatik; eta haren jakinminari guztiz nagokio, gutuna oso-osorik artoski irakurriko zuela uste izateko.

Egun hartako xehetasunek urrunegi nindera-mateke. Kontakizun honekin batera dihoakizu nire bi gutunen zirriborroa: nik bezainbat jakinen duzu. Baldin nire gutunen nondik norakoak jakin nahi bazenitu, nire jatorrizko izkribuak irakurtze-ra ohitu beharko zara: zeren ezinen bainuke irentsi gutunok berriro kopiatzeko asperra. Adio, adiskide ederra.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 25ean.*

# XXXV. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Behar zaizu obeditu, andrea, behar zaizu frogatu ezen zuk niri egozteak plazer duzun hutsegi-teen erdian, badudala oraino begirune aski zilegi nukeen liskarrik zuri ez egiteko, eta kuraia aski orobat neure burua sakrifiziorik mingarrienak egitera behartzeko. Isiltasuna eta ahanztura manatzen dizkidazu! Hots bada! Isiltzera behartuko dut neure amodioa; eta ahantziko dut, ahal izanez gero, zuk egin diozun begitarte krudela. Zuri laketa izan nahiak, dudarik gabe, ez zidan begitarte onez hartua izateko eskubiderik ematen, eta aitortzen dut halaber ezen zure bihozberatasunaren premian egotea ez zela eskubide hori erdiesteko agiri bat: nire amodioa laidotzat daukazu ordea; ahanzten zaizu ezen baldin amodio hori hobena baledi, zu zinatekeela aldi berean hoben horren kausa eta estakurua. Ahanzten duzu berebat ezen neure arima zuri irekitzera ohitua nintzenez, nahiz fidantzia horrek berak kalte egin ziezadakeen, ez nitza-



keela barneratuak zitzaizkidan sentimenduak zure aurrean jadanik gorde; eta nik fede onez eginari, behatzen diozu ausarkeriaren fruituari bezala. Amodiorik amoltsuenaren, errespetuz beteenaren, egiazkoenaren sari, aienatzen nauzu zugandik urrun. Zeure herra aipatzen didazu azkenik... Nork ez luke deitoratuko gisa horretan tratatua izana? Soilik ni natzaizu makurtzen; oro sofritzen dut eta ez dut marmarririk egiten; zuk jo eta nik jauretsi. Nigan duzun ezin sinetsizko nagusigoaz nire sentimenduek zu zauzkate jaun eta jabe; eta soil-soilik nire amodioa zaizu aihertzen, eta ez dezakezu suntsi, zeren zure obra baita eta ez nirea.

Ez dut galdatzen sekula harro eduki ez nauen elkarrekikotasunik. Ez dut orobat igurikatzen noizik behin agertu izan didazun interesak igurikaraz ziezadakeen errukia. Uste dut ordea, hala dut aitor, justizia eskatzen ahal dizudala.

Jakinarazten didazunez, andrea, norbait ibili omen zaizu nire omena zeure gogoan gaitzes-ten. Baldin zeure adiskideen kontseiluak sinetsi izan bazenitu, ez nindukezun zugana hurbiltzera ere utziko: horiek zure hitzak dira. Zeintzuk dira

bada adiskide saiatu horiek? Dudarik gabe jende guztiz zorrotz eta bertute guztiz bortitzeko horiei on iduri bide zaie beren izenak ezagutuak izan daitezen; dudarik gabe ez lukete gerizatu nahiko gaizkierrale zitalekin nahasiko lituzkeen ilunbean; eta ezin egon ninteke haien izenak zein haien erasiak jakin gabe. Egizu kontu, andrea, bata zein bertzea jakiteko eskubidea dudala, horiek baitira zure juzkuaren izariak. Ez da kulpadunik kondenatzen egin duen gaizkia hari erran gabe, akusatzaileak hari izendatu gabe. Ez dut bertze ontarterik eskatzen, eta alde zure aurretik hitz ematen dizut neure burua dudala zuritu-ko, gezurtatzera ditudala behartuko.

Baldin sobera erdeinatu baditut, menturaz, kasu gehiegirik egin ez diedan halako jendeen alferrikako aldarriak, ez dut halakorik egin zure estimuarekin; neure bizia eskaintzen baitut estimu hori merezitzeko, ez dut utziko zigorrik eman gabe bortxaz ken diezadaten. Hanbatenaz baliosagoa da niretzat, non dudarik gabe zorko baitiot egiteko beldur zaren eskari hori, zeinak emanen bailidake, zuk diozunez, zure bihozberatasunaren eskubidea. Ah! Fermuki galdatu ez ezik,

zorko nizula usteko nuke, baldin eskainiko baze-  
nit zuri atsegina gertatzeko okasioa. Has zaitez  
bada nirekin bidezkiago jokatzeko, ez ni utzirik  
nigandik zer nahi duzun jakin gabe. Asma ahal  
baneza, erran beharraren gaitzetik begiratuko  
zintuzket. Zu ikusteko plazerrari erants iezaiozu  
zu zerbitzatzeko zoriona, eta bozkariotan nago-  
ke zure bihozberatasunaz. Nork bara zaitzake  
bada? Ez ahal zaitu uko baten beldurrak baratu-  
ko? Biziki sumatzen dut beldur hori ez nizula bar-  
katzen ahalko. Zeure gutuna zuri ez bihurtu  
izana ez da uko. Zuk bainoago nahi dut gutun  
hori sekula izan ez dakidan beharrezkoa: baina  
arima guztiz eztia zarela uste izatera ohitua,  
gutun horretan baizik ezin zaitut kausi zuk ageri  
nahi duzun gisa. Hartu dudalarik zu sentikor  
bihurtzeko xedea, gutun horrek jakinarazten dit  
ezen, xede hori onartu baino lehen, ihesi zindo-  
azkeela nigandik ehun lekoara; zukan duzun  
guztiak nire amodioa berretzen eta justifikatzen  
duelarik, gutun hori bera da nire amodioak laido-  
tzen zaituela errepikatzen didana; eta zu ikuste-  
tik beretik, amodio hori ontasunik gorena irudi-  
tzen zaidalarik, zure hitzak irakurri beharrean

naiz jakiteko nire amodioa ez dela zuretzat oina-  
ze izugarri bat baizik. Orain ulertuko duzu ezen  
zorigaiztoko gutun hori zuri eman ahal izanik,  
handia litzatekeela nire zoriona: gutun hori niri  
berriz eskatzea litzateke han izkiriaturik dena  
sekula gehiago ez sinesteko baimena niri ema-  
tea; ez ahal duzu dudarik eginen gutun hori zuri  
itzultzeko dudan lehiaz!

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 21ean.*

## **XXXVI. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

*(Dijonen zigilatua)*

Zure zorrozatasuna egunez egun ari da handi-  
tzen, andrea, eta erratea zilegi bazait, iduri du  
beldur gutxiago diozula bidegabea izateari  
bihozbera izateari baino. Aditu ere gabe konde-  
natu nauzunez geroztik, aise sumatu behar izan  
duzu, alabaina, errazagoa litzatekeela zuretzat  
nire arrazoiak ez irakurtzea, haiei erantzutea  
baino. Neure gutunak temaz dizkidazu ukatzen;

mesprezuz neurri berriz igortzen. Jukutriaz baliatzaera behartzen nauzu azkenik, nire fede onean zu sinestera behartzera bertze xederik ez dudan unean berean. Zuk ni neure burua defendatzeko premian jarri izana aski izanen da dudarik gabe baliabideok barkatzeko. Neure sentimenduen zintzotasunean hain dut bertzalde uste osoa, non sentimenduok zuri justifikatzeko aski baitut haiek zuri ontsa ezagutaraztea, eta uste izan dut beraz itzulinguru arin hori baliatzea zilegi nuela. Zilegi izan bekik halaber uste izatea ezen barkatuko didazula itzulinguru hori; ezen ez zaituela sobera harrituko amodioa izatea are maltzurragoa nonahi agertzen, axolakabekeria amodioa baztertzen baino.

Utzi bada, andrea, nire bihotzari zure aurrean estalkirik gabe agertzen. Zu zaitu jabe, zuzen da ezagut dezazun.

Urrun bai urrun nintzen, Rosemonde andrea-ren etxera heldurik, han zain nuen asturua alde zurretik iragartzetik. Ez nekien zu han zinenik; eta erranen dut orobat, ohi dudan bezain zintzoki, ezen jakin izan banu, nire segurantzaz ez litza-tekeela asaldaturik: ez hain zuzen zure edertasu-

nari zuzenki eta bidezki ezin uka zaion mira erakusten ez niolako; baina ohitua nintzenez desirak baizik ez sentitzera, esperantzak adoretzen zituen desira haietara baizik ez makurtzera, ez nituen amodioaren hildurak ezagutzen.

Zu izan zinen lekuko nola Rosemonde andreak arren eta arren eskatu zidan finka nendin hemen bolada batez. Egun oso bat egina nuen zure ondoan: haatik soil-soilik men egin nion, edo men egin uste izan nion bederen, ahai-de agurgarri bati neure begikotasuna agertzeko plazer arras natural eta arras zilegiari. Hemengo biziera dudarik gabe ni ohitua nintzenaren oso bertzelakoa zen; ez zitzaidan deus gostatu bizierra hartara moldatzea; eta, nigan gertatzen ari zen aldaketaren kausan barneratzera entseiatu gabe, aldaketa hura egozten nion soil-soilik neure izate on ustez jadanik aipatua dizudanari.

Ondikotz (eta zergatik behar du izan ondiko?), zu hobeki ezaguturik, berehala ohartu nintzen begitarte zoragarri hura, ordu arte hura izan baitzen hunkitu ninduen gauza bakarra, ez zela zure dohainik den mendrena baizik; zure arima zerutiarrak nirea harritu eta liluratu zuen. Eder-

tasuna miresten nuen, bertutea jauresten. Zu erdiesteko asmorik gabe, zu merezi izaten ahal-egindua nintzen. Nire iraganarentzat zuri bihoz-beratasuna galdaturik, zure onespena irrikatzen nuen etorkizunerako. Onespen hura zure hitze-tan bilatzen nuen, zure behakoetan barranda-tzen; zenbatenaz nahigabe isuria eta mesfidan-tzarik gabe hartua baitzen, hanbatenaz arrisku-tsuagoa zen pozoï baten iturburu ziren behako haietan.

Amodioa orduan ezagutu nuen. Amodioa dei-toratzetik hain nintzen ordea urrun! Isiltasun eternal batean hura hobiratzera deliberatua, bel-durrik gabe nola begiramenik gabe emana nin-tzaion sentimendu zoragarri hari. Egunetik egu-nera haren nagusigoa gehituz zihoan nigan. Zu ikusteko plazerra aurki bihurtu zen zu ikusteko premia. Aldentzen zinela une batez? Tristurak bihotza hertsatzen zidan; itzuli zinela iragartzen zidan hotsa aditzearekin, bihotza bozkarioz tau-padaka ari zitzaidan. Jadanik zugatik eta zure-tzat baizik ez nintzen existitzen. Haatik, zuhaur deitzen zaitut lekuko: jolas jostarien alaitasu-nean, edo solas serioz interesgarri batean,

nehoiz itzuri zaita elerik nire bihotzeko sekretua tradi zezakeenik?

Heldu zen azkenik nire zorigaitza ekarri behar zuen eguna; eta ezin sinetsizko asturugaitzaz, egintza onest bat egokitu zitzaion zorigaitzari seinale. Bai, andrea, artatu nituen dohakabeen erdian eman zenuen burutara, edertasuna bera edertzen duen eta bertuteari are balio gehiago ematen dion sentikortasun eder horri men eginez, amodioaren soberaz jadanik horditua zen bihotz haren nahasmendua. Oroituko duzu, agian, zer nolako kezka hartua nindukan etxera bidean! Ondikotz! Ahalegin bizian ari nintzen borrokan nagusitzen ari zitzaidala sumatzen hasia nintzen jaiduraren kontra.

Nire indarrak borroka gaitz hartan ahitu ondoren, alde z aurretik ezin ikus nezakeen hala-beharraz horra non zurekin bakarka nintzen egokituko. Orduan, fin gaitz egin nuela zinez dizut aitor. Nire bihotz mukuru beteak ez hitzik ez malakorik atxiki zezakeen. Hori bilaukeria ote? Eta baldin bilaukeria bada, ez ote da jasaten ari naizen sofrimendu ikaragarriez aski zigortua?



Esperantzarik gabeko amodioak suntsitua, zure urrikiari otoizka ez dut kausitzen herra baikik: zu ikusteko bozkario hutsari ederretsirik, nire begiak bila dituzu nire gogoaz haraindi, zure behakoen hurbiltasunaz ikaraz dardaraturik. Zure eraginez eroria naizen egoera krudel honetan, neure penak ezkututzen ematen ditut egunak eta penaren penaz atsekabeturik gauak; zuk aldiz, lasai eta baratxe, ez dituzu oinaze horiek ezagutzen, ez bada sorrarazteko eta gogobetarik begiesteko. Hala eta guztiz ere, zu deitorez, eta ni barkamen eske.

Horra beraz, andrea, horra zuk nire hobentzat dauzkazun eta ausaz, bidezkiago izatera, nire malurak deitu behar zeniekeen horien kontakizun fidela. Amodio garbi eta egiazkoa, sekula gezurtatua izan ez den begirunea, guztizko mendetasuna; horiek dira eragin dizkidazun sentimenduak. Ez nukeen sentimenduon eskaintza begirunezkoa Jainkoari berari egiteko beldurrik. O zu, Jainkoaren obrarik ederrena zaren horrek, izan zakizkio jarraitzaile bere bihozberatasunean! Aintzat har itzazu nire pena krudelak; aintzat har ezazu oroz gain ezen, etsipenaren eta

zorionik gorenaren artera ekarri nauzunez, erranen duzun lehen eleak sekula betiko erabakiko duela nire asturua.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 23an.*

## **XXXVII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VOLANGES ANDREARI

Men egiten diet, andrea, zure adiskidantzak ematen dizkidan kontseiluei. Beti zure iritzira erortzeko ohituraz, ohitu naiz orobat iritziok betiere arrazoian bermatuak direla uste izatera. Aitortuko dut halaber ezen Valmont jauna guztiz arriskutsua behar dela izan, alabaina, baldin ager ahal badadi hemen ageri den itxuran, eta izan badadi aldi berean zuk irudikatzen duzun bezalakoa. Nolanahi ere den, fermuki galdatzen baitidazu, nigandik dut aldenduko; neure ahala eginen dut bederen: zeren sarri gauzak, nahiz funtsean sinpleenak izan behar luketen, trabagarri gertatzen baitira formaren aldetik.

Haren izebari galde hori egitea ezinkizun iruditzen zait betiere; berdin litzateke adeitasun gutxi erakustea, hala izebari, nola ilobari. Nihaur urruntzeko xedea ere ez nuke halako higuinik gabe hartuko: zeren Tourvel jaunari dagozkion arrazoi dagoeneko jakinaraziak dizkizudan horiez gainera, baldin nire partitzea gaitzituko balitzaio Valmont jaunari, balitekeena, ez ote ninduke Parisa aiseki segituko? Eta hura itzuli izana, nigana biltzeko edo nigana bildu uste izateko xedez, ez litzateke landan, hark ahaide eta nik adiskide dudala jende orok badakiten presuna baten etxean, elkarrekin egote bat baino bitxiagoa?

Ez zait bertze irtenbiderik gelditzen, non ez baita harengandik erdiesteoa otoi arren urrundakidan. Badakit proposamen hori zaila dela egiten; nola iruditzen baitzait setatua dela haatik bertzek uste baino onestagoa dela niri frogatzen, hori erdiesteaz ez dut beraz etsi. Entseiatzeak berak ere ez nau samurtuko; ez eta egokierarik izateak ere jujatzeko ea, hark ardura dioen bezala, emakume zinez onestek sekula izan ote duten, sekula izan ote dezaketen haren jokabi-

dea deitoratzeko arrazoirik. Baldin partitzen bada, nik nahi dudan bezala, partituko da alabaina niri didan begiruneagatik: zeren ez baitezaket duda larrazkenaren zati handi bat hemen egiteko xedea duela. Baldin nire galdeari uko egiten badio eta tematzen bada hemen geratzen, baduket betiere partitzeko astirik, eta hala egingen dudala hitz ematen dizut.

Horra, nire iduriko, andrea, zure adiskidantzak nigandik galdatzen zuen guztia: ahalegintzen naiz zure adiskidantza gogobetetzen, bai orobat zuri frogatzen ezen Valmont jauna biziki *suhar* defendatu izanagatik, prest naizela hargatik neure adiskideen kontseiluak aditzera ez ezik, jarraitzera ere.

Ohorez bainaiz, etab.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 25ean.*

## **XXXVIII. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Berriki heldu zait zure paket handia, bizkonde maitea. Data zuzen baldin badu, hogeita lau

oren lehenago behar nukeen hartu; zer nahi ere den, baldin irakurtzeko astia hartuko banu, ihardesteko astirik ez nuke. Nahiago dut bada gutuna hartu dudala zuri jakinarazi, eta bertze zerbaitez mintzatu. Ez uste gero deusik badudanik zuri errateko; larrazkenak ez du Parisen giza itxurako gizonik kasik uzten: hilabete badu, beraz, fin gaitz egiteko bezain zintzo nabilela; eta nire jarraikitasunaren frogak aspaldi unatua zuketen nire zalduna ez bertze edozein. Zertan ariturik ez baitut, Volanges ttiptiarekin ematen dut denbora; eta harez nahi natzaizu mintzatu.

Badakizua zuk uste baino anitz ere gehiago galdu duzula haur hori zeure gomendioan ez harturik? Zinez zoragarria da! Ez du ez nortasunik ez oinarritzko araurik; egizu kontu zein ezia eta aisea datekeen haren lagunartea. Ez dut uste sentimenduan sekula gailenduko denik; baina orok sentimenik bizienak iragartzen ditu haren gan. Zentzurik eta maltzurkeriarik gabea izaki, badu haatik halako faltsutasun berezko bat, baldin horrela mintzatzea zilegi bada, nihaur batzuetan harriturik naukana, eta hanbatenaz arrakasta gehiago dukeena, non haren begitar-

teak xalotasunaren eta lañotasunaren irudia eskaintzen baitu. Arrunt maitekorra da jaiduraz, eta batzuetan biziki libertitzen naiz harekin: bere buru ttipia berotzen zaio sinetsi ezin ahala erraz; eta orduan hanbatenaz irrigarriagoa da, zenbatenaz ez baitaki deus, deusik ere ez, jakiteko irrika bizian den horretaz. Ezinegon guztiz ere bitxiak hartzen dute; irri egiten du, hisiak egoten da, negar egiten du, eta gero irakats diezaiodan erregutzen dit, halako fede on zinez liluragarriaz. Egiazki, ia jeloskor naiz plazer hori beretzat gordea duen presunaz.

Ez dakit gaztigatu dizudan ezen duela lau edo bortz egunez geroztik ohore handiz isilmandatari naukala. Pentsa dezakezunez, hasieran zorrotzarena egin nuen: baina haren arrazoi makurretara bildu uste ninduela konturatu nintzen bezain sarri, egin nuen arrazoiok ontzat hartze iduri bat; eta barne muinetik uste du erdies-te hori bere hitz ederrei zor diela: zuhurtziazko izari hori beharrezkoa zitzaidan arriskutan sartu nahi ez banuen. Eman diot izkiriatzeko eta *maite zaitut* errateko baimena; eta egun hartan berean, hark susmorik ez zuela, prestatu nion

buruz buruko bat bere Dancenyrekin. Egizu kontu ordea Danceny zeinen ergela den halere, ez baitu musu bat ere erdietsi. Mutil horrek arras neurtitz ederrak egiten ditu haatik! Jainko jauna! Jende ikasi horiek zeinen zozoak diren! Mutil hau ni asaldatzeko heineraino da zozoa; zeren azken finean ez baitut gidatzen ahal!

Balio handikoa zinateke orain niretzat. Bera-  
ren isilmandatua hartzeko bezain atxikia zara Dancenyri, eta behin egina dizula, fite gindoaz-  
ke. Aiena beraz lehendakariaren emaztea, zeren azken buruan ez baitut Gercourt salba dadin nahi: bertzenaz, atzo egin nion haren aipua nes-  
katxa ttipi horri, bai senargaia hari hain ontsa irudikatu ere, non hamar urtetan egonagatik harekin esposaturik, ez baitzezakeen gehiago gorrota. Anitz predikatu diot haatik ezkonlegeaz; puntu horren inguruan deusek ez dezake nire zorroztasuna gaindi. Halatan, batetik, finkatzen dut harengan emakume bertutetsua naizelako omena, sobera amore eman ez gero suntsitua zatekeen eta; bertzetik, gehitzen dut haren bai-  
tan haren senarrari opa nahi diodan herra. Eta azkenik, hari sinetsarazirik ezkongabe gelditzen

zaion denbora gutxia bitartean baizik ez dukeela zilegi amodioaz gozatzea, aileza fiteago delibera amodiotik fitsik ez galtzea!

Adio, bizkonde; apaintzen hastera noa, zure liburukia bitarte horretan dut irakurriko.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 27an.*

## **XXXIX. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Triste eta kezkatuik nago, Sophie maitea. Ia gau osoa negarretan eman dut. Ez uste oraingoz oso zoriontsua ez naizenik; baina aldezturik ikusten dut zorion horrek ez duela iraunen.

Atzo operan izan nintzen Merteuil andrearekin; luzaz solastatu ginen nire ezteiez, eta ez dut deus onik jakin. Gercourt jaun kondea beharko dut esposatu, eta urriko hilean izanen da. Aberastsa da, goimailako gizona da, ...ko errejimentuko koronela da. Horraino dena ontsa. Baina, hasteko, zaharra da: egizu kontu badituela gutxienez hogeita hamasei urte! Eta, horrez gainera, Merteuil andreak dio gizon hori tristea eta zorrotza



dela, eta beldur dela berebat harekin ez ote nai-  
zen zoriontsua izanen. Ontsa ikusi dut halaber  
segur zela horretaz, eta ez zidala erran nahi,  
atsekaberik har ez nezan. Bilkura osoan ez zait  
kasik emakumeek senarrarekin dituzten beteki-  
zunez baizik mintzatu: aitortu dit Gercourt jauna  
ez dela batere maitagarria, eta maitatu beharko  
dudala dio haatik. Ez dit erran bada esposatzen  
naizenetik beretik Danceny zalduna ez dudala  
gehiago maitatzen ahalko? Halakorik ezin! O!  
Zinez diotsut beti eta beti maiteko dudala. Hara,  
nahiago nuke ez esposatu. Hor konpon dadila  
Gercourt jaun hori, ez naiz ni joan haren xerka.  
Orain Korsikan da, hemendik oso urrun; ailedi  
hamar urtez han gera! Komentura berriz joateko  
beldur ez banintz, amari erranen nioke ez duda-  
la senar hori nahi; okerrago litzateke ordea.  
Asaldu bizian naiz. Uste dut ez dudala Danceny  
jauna orain bezainbat sekula maitatu; eta nago-  
nean egoteko hilabete baizik ez zaidala geldi-  
tzen pentsatzetik beretik, berehala datozkit mal-  
koak begietara; Merteuil andrearen adiskidan-  
tzan baizik ez dut kontsolamendurik; hain da  
bihotz onekoa! Nihaurk bezala ditu hark nire

xangrinak bere egiten; eta hain atsegina da bertalde, non harekin naizenean ez baitut kasik ezteietan gogoetarik egiten. Oso baliagarria zait orobat; zeren dakidan gutxia, hark irakatsi baitit: eta hain da ona, non pentsatzen dudan guztia erraten baitiot, batere ahalketu gabe. Gaizki egindakorik kausitzen didanean, liskar egiten dit batzuetan; eztiki liskartzen nau ordea, eta gero bihotz-bihotzez besarkatzen dut, harik eta hase-  
rra baretzen zaion arte. Andre hori bederen, nahi hainbat maita dezaket, oker jokatu gabe, eta biziki atsegin dut hori. Elkarri hitz emana diogu haatik ezen ez dudala jendaurrean, eta batez ere amaren aurrean, berari diodan maita-suna argi adieraziko, Danceny zaldunaren suje-taz deusen susmorik nehork har ez dezan. Zinez diotsut ezen orain bizi naizen bezala bizi ahal banendi, uste dut arras zoriontsua nintzatekeela. Gercourt jaun zital hori behar zen tarteko ger-tatu!... Ez dizut ordea gizon hori gehiago aipatu-ko: berriz tristetuko bainaiz. Horren ordezt, banao Danceny zaldunari izkiriatzera; neure amodioaz baizik ez diot hitz eginen eta ez neure xangrinez, ez baitut atsekabetzea nahi.

Adio, adiskide mina. Ikusten duzu ez duzula zer deitoraturik, eta *egiteko asko* ditudan arren, zuk diozun bezala, badut alabaina zu maitatzeko eta zuri izkiriatzeko astirik.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 27an.*

## **XL. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Ez du aski nire emakume bihozgabe horrek nire gutunei ez erantzutea, gutunok hartzeari uko egitea; bera ikusteaz nahi nau gabetu, urrun nadin eskatzen dit. Are gehiago harrituko zaitu hala ere, horrenbertzeko zorroztasunari nik men egin izanak. Gaitzetsiko nauzu. Ez dut haatik uste manu bat hartzeko okasioari uko egin behar nionik: uste osoan bainaiz, batetik, manatzaileak hitza ere ematen duela; eta bertzetik, emakumei hartzera uzten bide diegun aginpide alegiazkoa nekez saihesten duten segada bat dela. Bertzenaz, emakume honek nirekin bakarka ez egoteko erakutsi duen trebetasunak egoera arriskutsu batean jartzen ninduen, eta uste izan

dut egoera horretarik zernahi gostarik ere behar nintzela jalgi: zeren harekin etengabe egonik, eta nire amodioaz ezin mintzaturik, beldur izatekoa baitzen ez ote zen azkenean ohituko ni durduzarik gabe ikustera; eta jarrera hori badakizu zeinen aldagaitza den.

Bertzenaz, sumatuko duzu ez naizela baldintzarik gabe makurtu. Hartu ere dut ezin onartuzko baldintza bat jartzeko ardura; hala izan nadin betiere jaun eta jabe hitza atxikitzeke, edo hitza jateke, nola harekin eztabaidan hasteko, dela bozez, dela izkribuz, neure eder horrek begikoago naukakeenean, edo nik hura begikoago izateko premian datekeen unean: erran gabe doa arras moldakaitza nintzatekeela, baldin aurkitu ez banu funtsik ere ez duen nahikunde horri uko egiteagatik ordainen bat erdiesteko biderik.

Neure arrazoiak aitzinsolas luze honetan zuri adierazi ondoren, hastera noa azken bi egunen nondik norakoa kontatzen. Zuribide gisa gutun honi nire eder horren gutuna eta nire erantzuna erantsiko dizkiot. Ados izanen zara nirekin ezen ez dagoela historialari askorik ni bezain zehatzik.

Oroituko duzu zer nolako ondorioa sortu zuen herenegun goizean *Dijoneko* nire gutunak; geroztik eguna oso ekaitztsua izan zen. Ahalketi eder hura ez zen bazkaltzeko orena arte jin, eta jakinarazi zuen buruko min handia zuela; ez zen estakuru huts bat baizik, emakume batek izan dezakeen suminaldi gaiztoenetako bat estali nahi zuena. Begitartea zinez mudatua zuen; zuk ikusi izan diozun aurpegiera ezia beltzuri bilakatu zuen, bertze edertasun bat emanik. Hitz emana diot neure buruari aurkikuntza hori gero-  
ra ere baliatzea; eta noizean behin ordezkatzeari maitale amoltsua, maitale beltzurituaz.

Aldez aurretik ikusi nuen bazkalondoa tristeia izanen zela; eta asperretik salbatzeko, gutunak idatzi behar nituelako estakuruan gelaratu nintzen. Sei orenen inguruan itzuli nintzen egongelara; Rosemonde andreak promenatzera joatea proposatu zuen, eta guk onartu. Baina organ sartzeko unean, ustez eri zena, infernuko maltzurkeria batez, eta beharbada nire ausentziaz mendekatzeko, estakuruketan hasi zen, oinazeak areagotuak zitzaizkiolakoan, eta urrikirik gabe jasanarazi zidan neure izeba xaharrarekiko

buruz buruzkoa. Ez dakit eme deabru horren kontra egin nituen arneguak entzunak izan ziren, baina etxeratu ginelarik ohean kaustu genuen.

Biharamunean, gosarian, ez zen jadanik emakume bera. Berezko ezintasuna berriz agertu zen, eta barkatua izan nintzela uste izan nuen. Gosaria doi-doia bukatu, horra non emakume ezti hura dolorezko itxuran zutitu zen, eta parkean sartu; jarraiki nintzaion, pentsa dezakezunez. «Nondik sor liteke promenatu nahi hori?» erran nion hari alboratuz. «Luzaz izkiriatu dut gaur goizean», erantzun zidan, «eta burua doi bat akitua dut.» — «Ez ote naiz aski zoriontsua», erran nion, «neure buruari egozteko akidura horren errua?» — «Izkiriatu dizut alabaina», erantzun zidan berriz, «baina zalantzan nago gutuna zuri eman edo ez. Eskari bat du adierazia, eta zuk ez nauzu ohitu nire eskariak bete daitezen igurikatzera.» — «Ah! Zin dagit ezen ahal baneza...» — «Deus ez da errazagorik», eten zidan; «eta beharbada eskari hori bidezko-tasunez bete beharko zenidakeen arren, onartzen dut ontarte gisa erdiestea.» Ele horiek erranik, gutuna luzatu zidan; gutuna hartzerakoan,

hartu nion orobat eskua, gibelatu zuen ordea, baina suminik gabe eta bizitasun baino durduza gehiagoz. «Uste baino bero gehiago egiten du», erran zuen; «gaitezen etxera.» Eta gazteluko bidea hartu zuen berriz. Alferrikako ahaleginak egin nituen andre hura promenatzen jarraitzera limurtzeko, eta norbaitek ikus gintzakeela oroitu behar izan nuen, hitz ederrez baizik ez baliatze-ko. Hitzik erran gabe sartu zen, eta argi ikusi nuen promenaldi itxuratu hark niri gutuna ematea bertze xederik ez zuela izan. Etxean sartu eta bere gelara igo zen, eta ni neurera joan nintzen gutun hura irakurtzera, eta zuk ere irakurri behar zenituzkeela uste dut, bai gutun hori bai nire erantzuna ere, urrunago joan baino lehen...

## **XLI. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VALMONTEKO BIZKONDEARI

Iduri du, jauna, nirekin duzun jokabideagatik, zure kontra nituen kexakizunak, egunez egun, emendatu baizik ez dituzula nahi. Entzun nahi ez

dudan, entzun behar ez dudan sentimendu batez nirekin setatsu, etengabe, solastatu nahia, zure gutunak emateko nire fede onaz, edo nire herabetasunaz, beldurrik gabe neurriz gain baliatu izana; batez ere azkena nigana helarazteko baliatu duzun bide erranen nuke adeitasun gutxikoa, arriskuan jar nintzakeen ezustearen ondorioari beldurrik izan gabe; hori guztiagatik behar nizkizuke egin liskar hain bizi nola zuzen eta egoki mereziak. Hala ere, laido horiek berriz aipatu beharrean, tinko nagokio zuri eskari xalo bezain bidezko bat egiteari; eta baldin zugandik eskari hori erdiets baneza, oro ahantzia izan dadin onartuko nuke.

Zuhaurk erran izan didazu, jauna, ez niola uko bati beldurrik izan behar; eta nahiz, zuk berezkoa duzun segida eza batez, egin zeniezdakeen uko bakarra perpaus horren beraren ondoren jarri duzun, nahi dut sinetsi ez duzula egungo egunean gutxiago beteko duela oso egun gutxi egiaz eta benaz eman zenidan hitza.

Nahi dut beraz nigandik urruntzeko begirunea ager diezadazun; gaztelu honetatik alde egin dezazun, zeren zure egonaldia luzatzeak ez



baininduke lagun hurkoaz gaizki pentsatzera beti prest dauden jendeen juzkuaren are mendeago baizik utziko, jende horiek sobera baizik ez baitituzu ohitu lagunartean onartzen zaituzten emakumeei begi ematera.

Nahiz adiskideek aspaldidanik arrisku horrez egina zidaten gaztigu, haien iritziez ezaxolatu nintzen, buru egin ere nien, nigana izan duzun jokabideak sinetsarazi ahal izan zidan heinean ezen ez ninduzula nahasi nahi izan zutaz kexakizunik izan duten emakume guzti-guzti horiekin. Egungo egunean haien gisara tratatzen nauzunez, horren berri jakin gabe ezin jadanik egon naitekeenez, halabeharrezko xede hori hartzea zor diet jendeei, neure adiskideei, neure buruari. Erran nezake ere ezen nire eskariari uko eginez ez zenukeela deus irabaziko, deliberatua nola bainaiz nihaur partitzera, baldin hemen baratzerat setatuko bazina: ez dut ordea neholaz ere gutxitu nahi ontarte horregatik agertuko nizukeen esker ona; eta nahi dut jakin dezazun ezen nire partitzea derrigorturik nire prestakizunak zapuztuko zenituzkeela. Froga iezadazu bada, jauna, ezen, zuk anitzetan erran didazun bezala,

emakume onestek ez duketela sekula zutaz zer deitoraturik; froga iezadazu, bederen, ezen hutsik egin diezunean, badakizkizula huts horiek konpontzen.

Baldin neure eskaria justifikatu beharrean nintzela usteko banu, aski nuke zuri erratea ezen bizitza osoa eman duzula eskari hori premiazko egiten, eta hargatik niri ez zaidala sekula egokitu eskari hori egitea. Ez dezagun ordea gogora ekar ahanzi nahi dudan gertakaririk, eta zu zorrotz jujatzera behartuko nindukeenik, nire esker on guztia merezi izateko okasioa eskaintzen dizudan unean berean. Adio, jauna; zure jokabideak dit erakutsiko zer nolako sentimenduz behar natzaizun izan, sekula betiko, zure zerbitzaririk apalena, etab.

*...tik, 17\*\* ko abuztuaren 26an.*

# **XLII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Ezartzen dizkidazun baldintzak zein ere diren gogorrak, andrea, uko egin gabe beteko ditut. Badakit ezinezkoa litzaidakeela zure ezein desirari aihertzea. Puntu horretan behin ados egonik, zilegi izan bekit uste izatea ezen utziko didazula niri ere zuri eskari batzuk egiten, zureak baino askoz errazagoak direnak betetzeko, eta haatik erdietsi nahi ez ditudanak, ez bada zure borondateari osoki men eginez.

Bata, zure bidez kotasunari esker erdiestea igurikitzen dudana, da egin diezadazun zure aurrean salatu nautenen izenak niri errateko ontartea; kalte handia egiten didatenez, baduket, nire ustean, nortzuk diren jakiteko eskubidea: bertzea, zure bihozberatasunagandik igurikitzen dudana, da zure errukia nehoiz baino gehiago merezi dukeen amodio baten eskaintza noizean behin zuri berriz egiteko baimena eman diezadazun.

Egizu kontu, andrea, zuri obeditzen ahalegintzen naizela, nahiz ezin dizudan neure zorionaren despit baizik obeditu; are gehiago erranen dut, nahiz uste osoan naizen bidegabeki tratatu duzun gizona ikustetik begiratzeko baizik ez duzula parti nadin nahi, ikuskari hori hagitz dolugarria baita.

Onar ezazu, andrea, beldur gutxiago diezula zu gaitzestera ausartuko ez diren jendeei, soberra ohituak baitira zu errespetatzera, gaitzetsi baino aiseago zigortzen duzun gizon baten presentziak sortzen dizun asalduari baino. Non ere laguntzarik eman nahi ez zaion dohakabetik behakoa ere aldaratzen baita, hala urruntzen nauzu zugandik.

Baina neure ausentziak oinazeak gehituko dizkidan bitartean, neure kexuak nori adieraz diezazkioket zuri ez bada? Premiazkoak bihurtuko zaizkidan kontsolamenduak norengandik iguriki ditzaket, zugandik ez bada? Ukatuko dizkidazu, zu izanik nire penen kausa bakarra?

Dudarik gabe ez zaitu orobat harrituko partitu baino lehen ni gogotik lehiatzea zuk eragin dizkidazun sentimenduak zure aurrean justifika-

tzera; nola ez zaituen berebat harrituko zuk bozez manatu ezean nik urruntzeko kuraiarik ezin hartu ahal izatea.

Arrazoi bikoitz horrek behartzen nau zuri solas labur baten galdea egitera. Alferrik genuke solasa gutunez ordezkatu nahi izatea: liburukiak izkiriatuagatik gaizki esplikatu ohi da oren laurdeneko solasaldian ontsa ulertarazten dena. Aise kaunituko duzu ontarte hori niri egiteko parada: zeren zuri obeditzeko lehiaz egonagatik, badakizu Rosemonde andrea jakinean dela larrazkenaren zati bat haren etxean iragateko dudan xedeaz, eta gutun baten zain behar nuke bederen egon, partitzera behartuko nindukeen afera baten estakurua eman ahal izateko.

Adio, andrea; hitz hori izkiriitzea nehoiz ez zait horrenbertze gostatu, elkarrengandik banatzearen ideiarra naraman une honetan baino. Baldin susma ahal bazeneza ideia horrek zenbat sofriarazten didan, zilegi nuke neure maltsotasuna eskertuko zenidakeela sinestea. Har itzazu, bederen, bihozberatasun gehiagoz, amodiorik

amoltsuenaren eta errespetuzkoenaren segurantzaz eta eskaintza.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 26an.*

## **XL. GUTUNAREN SEGIDA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Orain, arrazoitu dezagun, adiskide ederra. Jakin badakizu nik bezala ezen Tourvel andre onest herebekeriez beteak ez diezadakeela neure lehen eskaria bete, eta bere adiskideen fidantzia tradi, nire akusatzaileen izenak niri erranez; halatan baldintza horren arabera eginik nire promesak oro, ez dut neure hitza zertan beterik. Baina badakizu halaber ezen Tourvel andreak eginen didan uko hori gainerako guztia erdiesteko baliakizun bihurtuko dela; eta, haren-gandik hala urrundurik, irabazten dut gutun bidezko harreman ageriko bat hastea harekin, eta haren borondatez: zeren ez baitut aintzat ere hartzen eskatua diodan elkar ikustea, ez baitu kasik bertze xederik, ez bada ni zinez eskariren baten beharretan egon nintekeenean harengan-

dik ukaziorik ez igurikiteko ohitura aldez aurretik emakume horri harraraztea.

Egiteko bakarra gelditzen zait partitu baino lehen, eta da emakume horren aurrean kalte egiten ari zaizkidanen izenak jakitea. Badut susmoa ez ote den haren senar hantustetsu hori; hala izatea nahi nuke: zeren, ezkon laidoa desiraren akuilu izateaz bertzalde, ziur bainintzateke ezen nire eder hori niri izkiriatzera makurtua den unetik beretik ez dudala senarraz zertan gehiago beldurturik, emaztea jadanik senarra engainatzeko premian bailegoke.

Baina baldin adiskide bat balu, haren isilmandatua hartzeko bezain mina, eta adiskide hori nire kontra balego, behar-beharrezkoa iruditzen zait haiek etsaitzea, eta erdietsiko dudalako segurantz osoa dut: baina lehen buruan jakinaren gainean behar naiz egon.

Atzo jakinen nuela uste nuen; baina emakume horrek ez du deus egiten bertzeak bezala. Haren gelan ginen, afaria prest zegoela iragaritzera etorri zitzaizkigun unean. Garbiketa doi-doia zuen finitua, eta ari zelarik desenkusak lehiaz ematen, ohartu nintzen giltza idazma-

haian jarria utzia zuela; eta badakit ez duela gelakoa kentzeko ohiturarik. Afaria bitartean giltza hura nerabilen gogoan, eta horra non haren gelaria aditzen dudan jaisten: berehala xede bat hartu nuen; egin nuen sudurra odoletan nuelako iduria, eta jalgi nintzen. Ziztu bizian joan nintzen idazmahaira, baina tiradera guztiak zabalik kausitu nituen, eta paper izkiriaturik ez. Sasoi hone-tan ez da haatik paperik erretzeko aukerarik izaten. Zer egiten du hartzen dituen gutunekin? Eta maiz hartzen ditu. Ez nuen deus utzi miatu gabe, dena zabalik zegoen, eta bazter guztietan bilatu nuen: baina ez nuen deus irabazi, gordailu preziatu hori bere sakeletan gordea duelako uste osoa izan ezik.

Nola atera handik? Atzodanik alferretan ari naiz baliabideren baten bila: haatik nahi hori ez dezaket mendera. Damu dut ohoinen trebetasuna ez izana. Antze hori ez litzateke, alabaina, azpijokoetan nahasten den gizonaren hezibidean irakatsi behar? Ez litzateke irrigarria aurkari baten gutuna edo potreta ebastea, edo debot



baten sakeletarik hura salatuko lukeen zerbait ateratzea? Baina gure gurasoek ez dute deuse-tan pentsatzen; eta, ni, orotan pentsatuagatik ere, soil-soilik ohartzen naiz ezen moldakaitza naizela, erremediatu ahal izan gabe.

Nolanahi ere den, mahaira itzuli nintzen, bel-tzuri gogorrean. Neure eder hark haatik doi bat baretu zidan aldarte gaizto hura, nire ondoeza itxuratuak eragin bide zion interesaz; eta ez nin-tzen begiratu hari erratetik ezen, duela zenbait denbora, osasuna nahasten zidaten bortxazko ezinegonek hartua nintzela. Hura sinetsia nola baita ezinegon horiek bera dutela kausa, ez luke bere kontzientziari jarraiki ezinegonok ematen saiatu behar? Baina, izanagatik debota, ez da batere errukiorra; uko egiten dio ezein amoina amodiozkoari, eta uko hori aski dut ebasketa zilegia irudi dakidan. Adio ordea; zurekin sola-sean ari naizelarik ere, ez baitut gutun madari-ku horietan baizik pentsatzen.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 27an.*

## **XLIII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VALMONTEKO BIZKONDEARI

Zergatik saiatzen zara, jauna, nire esker ona gutxitzen? Zergatik ez didazu erdizka baizik obeditu nahi, eta nahi duzu nolabait jokabide zintzo batekin tratuan ibili? Ez duzu bada aski nik jokabide hori balioestea? Ez soilik sobera eskatzen duzu; ezinezko gauzak eskatzen dituzu ordea. Neure adiskideak alabaina zutaz mintzatu izan bazaizkit, ez zitezkeen nire interesaren fabore baizik mintza: tronpatu izan balira ere, asmoa orobat zuten ona; eta erakutsi didaten atxiki-menduzko seinale horren esker onez, haien sekretua zuri erratea proposatzen didazu! Oker egin dut jada zuri deusik aipaturik, eta une hone-tan oker hori gogotik sentiarazten didazu. Bertze edozeinekin xalotasuna baizik ez litzatekeena, hutsegite bilakatzen da zurekin, eta makurkeria bat egitera ninderamake, baldin zure eskariari men eginen banio. Zuhauri nago, zure onestasunari; hori egiteko gauza naizela uste izan duzu? Proposatu behar zenidakeen? Ez, dudarik gabe;

eta ziur naiz hobeki gogoeta dezazunean, ez didazula eskari hori sekula gehiago errepikatu-ko.

Izkiriatzeko egiten didazun eskaria ere ez da onargarriagoa; eta zuzen eta bidezko izan nahi baduzu, ez didazu niri egotziko errurik. Ez zaitut laidotu nahi; baina zeureganatua duzun omenarekin, eta, zuhaurk aitor izan duzunez, aldez bederen merezia baituzu, zein emakumek onarlezake zurekin gutun bidezko harremanik izate-rik? Eta zein emakume zintzok delibera dezake ezkutuan gordetzera beharturik den zerbait egi-tea?

Baldin segurantzaz osoz baneki bederen zure gutunak nik sekula deitoratu behar ez nituzkeen moldekoak ziratekeela, gutun horiek hartu izana neure buruari betiere justifikatzen ahal niola! Beharbada orduan arrazoiak eta ez herrak gida-tzen nauela zuri frogatu nahiak bultzatuko nin-duke arrazoipide ahaltsu horiei kasu ez ematera, eta egin behar nukeena baina askoz gehiago egitera, noizean behin niri izkiriatzeko baimena zuri ematera. Baldin baimen hori erraten dida-zun bezainbat desiratzen baduzu alabaina, gogo

onez men eginen diozu amore emanaraz naza-  
keen baldintza bakarrari; eta une honetan zuga-  
tik egiten ari naizenagatik batere esker onik  
agertzen badidazu, ez duzu zeure partitzea  
gehiago gibelatuko.

Zilegi izan bekit sujet horrez den bezanba-  
tean zuri ohartaraztea ezen gaur goizean gutun  
bat hartu duzula eta ez duzula baliatu Rosemon-  
de andreari partitzera zoazela iragartzeko, zin  
egin zenidan bezala. Ez ahal duzu orain batere  
eragozgarririk izanen zeure hitza betetzeko!  
Batez ere ez ahal zara egonen galdatua didazun  
elkar ikustearen aiduru! Ez bainaiz neholaz ere  
horretara makurtuko; eta askietsiko ahal duzu  
berriz egiten dizudan erregua beharrezkoa omen  
duzun manuairen ordeztu! Adio, jauna.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 27an.*

## **XLIV. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Izan zakizkit neure bozkarioan kide, adiskide  
ederra; maitatua naiz; garaitu dut bihotz mutiri

hori. Alferrik du oraino gordeka ibiltzea; nire zorioneko trebetasunak ustekabeen atzeman du haren sekretua. Nire arta erneei esker, interesatzen zitzaidan guztia jakin dut: atzoko gauaz, atzoko gau zoriontsuaz geroztik, neure giroa berraurkitu dut; neure bizitze osoa berreskuratu; amodiozko eta bidegabekeriazko misterio bikoitz bat dut argitu: gozatuko dut bataz, mendekatuko naiz bertzeaz; plazerrik plazer hegaldatuko naiz. Horretan pentsatzetik beretik halako lilurak hartzen nau, non nekez gogoratzen naizen neure zuhurtziaz; non beharbada nekez ordenatzen ahalko dudan egin behar dizudan kontaketa. Saia nadin haatik.

Atzo bertan, neure gutuna izkiriatu nizun ondoren, debot zerutiar horren gutun bat hartu nuen. Igortzen dizut; hor ikusiko duzu ematen didala, moldakaizkeriari ahal bezala itzuriz, bera-ri izkiriatzeko baimena: partitzera premiatzen nau ordea, eta uste dut partitzetik ezin sobera gibela nintekeela neure buruari kalterik egin gabe.

Nire kontra nork izkiriatu ahal ote zion jakiteko irrikaz oinazetua haatik, duda-mudatan nen-

goen oraino hartu behar nuen xedeaz. Saiatu nintzen gelaria neureganatzen, eta harengandik nahi izan nuen erdietsi bere etxekoandarearen sakela barnekoak eman ziezazkidan, aise beregana baitzitzakeen arratsean, eta bere lekuan hartzara ezar goizean, susmorik ttipiena sorrarazi gabe. Hamar luis eskaini nizekion zerbitzu xume horren truk: baina neska ahalketi bat baik ez nuen kaustu, herabekeriez betea edo ahalketsua, ez neure hitz ederrez ez diruaz arrazoipidera nekarkeena. Arrenka ari nintzaion oraino, afaritarako deiak jo zuenean. Bakean utzi behar izan nuen: sekretua gordeko zuela hitz eman nahi izan zidalako sobera bozkariatua, halakorik, pentsa dezakezunez, ez bainuen neholaz ere igurikatzen.

Sekula ez naiz hain sumindua egon. Sobera arriskatu nintzelako irudipena nuen; eta afalondo osoan liskar egin nion neure buruari, zuhurtziarik gabeko urrats hori egin nuelako.

Neure gelara erretiraturik, ez kezkarik gabe, neure sehiari mintzatu nintzaion, nork ere, maitale zoriontsua zen heinean, entzutea izan behar baitzuen gelariaren aldera. Nahikatzen nuen,

edo neskatila harengandik erdiets zezan nik eskatu niona egitea, edo segura zedin bederen haren isiltasunaz: baina hark, nahiz eskuarki ez duen dudatzen, dudatu bide zuen hautsi-mautsi hark deusik erdietsiko ote zuen, eta sujet horren karietara egin zidan gogoeta bat harritu nindue-na hain zen sakona.

«Berorrek hain segur nik baino hobeki jakinen du», erran zidan, «neska batekin oheratzea, ez dela laket zaiona hari eginaraztea baizik: hortik guri laket zaiguna eginaraztera, bada sarri alde ederrik.»

*Batzuetan Maraud-en zentzu onak ikaraz betetzen nau.*

«Hanbatenaz gutxiago hartzen dut neure gain neska horren erantzukizunik», gehitu zuen, «zenbatenaz bai baitut arrazoirik uste izateko maitale bat baduela eta harekin izan dudan harremana landako aisetasunari baizik ez diodala zor. Beraz, berorri zerbitzatzera lehiatu izan ez banintz, behin baizik ez nukeen neska hori hartuko.» (Zinez altxor preziatu bat da mutil hori!) «Sekretuaz den bezanbatean», erran zuen gero, «zertarako balia dakiguke neska hori hitz emate-

ra behartzea, gu engainaturik ez baitu deus arriskatuko? Afera hari berriz aipatzearekin hobeki jakinaraziko genioke garrantzizkoa dela, eta emanen lioke beraz bere etxekoandrea lausengatzeko gogo gehiago.»

Gogoeta horiek zenbatenaz zuhurragoak ziren, nire asaldura hanbatenaz gehituz zihoan. Beharrik zital hura solasari emana zen; eta haren beharretan bainintzen, egiten utzi nion. Neskati-la harekin zuen harremana kontatzen ari zitzaidan bitartean, jakinarazi zidan bere gelan biltzen zirela gauero, neskaren gela eta haren etxekoandreatena pareta soil batek baizik ez baititu bereizten, eta hots susmagarririk aditzera utz baitezake. Xede bat hartu nuen berehala, erran nion, eta obratu genuen, bai erdietsi ere.

Goizaldeko bi orenak arte igurikatu nuen; eta joan nintzen orduan, hitz hartua genuen bezala, nire sehia eta neska hura elkar ikustekoak ziren gelara, argia eramanik aldean, eta askotan alferrik deitu izanaren estakuruz. Nire isilmandariak, antzezle bikaina baita, harridurazko, etsipenezko eta barkamenezko gertaldi ttipi bat jokatu zuen, baina nik eten nion, eta ura berotzera igo-



rri nuen, horren premian nintzelako itxurak egi-  
nik; bitartean, gelazain herabekeriez bete hura  
hanbatenaz gehiago ahalketu zen, non nire  
asmoak sendotu nahi izan zituen zital hark eza-  
rrarazi baitzion janzkera bat urtaroaren arabera-  
koa, ez ordea zilegizkoa.

Aise sumatzen bainuen neskatila hura nik  
zenbatenaz umiliatu, hanbatenaz aiseago eduki-  
ko nuela neure mende, ez egoeraz ez beztiduraz  
aldatzen utzi nion; eta neure sehiari neure gelan  
iguriki nezala manatu ondoren, haren ondoan  
eseri nintzen ohe arras nahaspilatuaren gainean,  
eta solasari lotu nintzaion. Zernolako hark neska  
haren gain ematen zidan nagusigoa gordetzeko  
 premia nuen: beraz odol hotzean iraun nuen  
Eszipionen neurritasunari zegokiokeen gisa; eta  
hari buruz libertaterik ttipiena ere hartu gabe,  
nahiz bazuen iduriz halakorik igurikatzeko esku-  
bidea haren guritasunaren eta okasioaren karie-  
tara, aferez hitz egin nion prokuradore batekin  
hitz egin nezakeen bezain lasai.

Nire baldintzak izan ziren ezen sekretua leial-  
ki gordeko niola, baldin biharamunean, oren  
beretsuan, bere etxekoandreaken sakela barne-

koak ematen bazizkidan. «Bertzenaz», gaineratu nuen, «atzo hamar luis eskaini nizkizun; gaur halaber dizkizut promesten. Ez dut zure egoeraz neurritz gain baliatu nahi.» Dena onartua izan zen, pentsa dezakezunez; orduan alde egin nuen eta utzi nion bikote zorientsu hari denbora galdua berreskuratzen.

Lotan eman nuen nik neurea; eta iratzarri nintzenean, estakuru bat nahi bainuen neure eder haren gutunari ez ihardesteko, harik eta bere paperak ikustatuak nituen arte, eta hori ez bainezakeen hurrengo gaua arte egin; ehizara joatea deliberatu nuen, eta ehizan ibili nintzen ia egun osoan.

Itzuli nintzenean, aski hotz hartu ninduen. Badut arrazoirik uste izateko ezen doi bat samurtua zela gelditzen zitzaidan denboraz profitatzeko agertzen nuen lehia gutxiaz; hark izkiriaturidant gutun eztiagoaren ondoren batez ere. Uste horretan nago, zeren Rosemonde andreak ausentzia luze haren erantzukizuna egozten zidalarik, nire eder hark mindu samar ihardetsi baitzuen: «Ah! Ez diezaiogun hemen kausi dezakeen plazer bakarrari lotu izanaz erantzukirik

egin Valmont jaunari.» Bidegabekeria hura dei-  
toratu nuen, eta egokiera hartaz baliatu nintzen  
seguratzeko ezen dama horiez hain nintzela  
laketua, non sakrifikatu bainien izkiriatu beha-  
rreko gutun arras interesgarri bat. Erran nien  
orobat ezen, hainbat gautan ezin lokarturik ibilia  
nintzenez, saiatu nahi izan nuela akiduraz lokar-  
tzen; eta nire behakoak aski argigarriak ziren  
hala nire gutunaren sujetaz, nola nire lo ezaren  
kausaz. Afalondo osoan kontu egin nion ezti eta  
malenkoniatsu agertzeari, bai nire ustez aski  
ongi erdietsi ere, eta eztitasun horren azpian  
estali nuen setaz gordea zidaten sekretua jaki-  
narazi behar zidan orena hurbil ikusteak sortzen  
zidan ezinegona. Bereizi ginen azkenik, eta gero-  
xeago, horra gelari fidela nire isiltasunaren truk  
adosturiko saria ekartzera etorria.

Altxor horren jabe izan nintzen orduko, bede-  
raka sailkatzeari lotu nintzaion ezagutzen dida-  
zun zuhurtziaz: garrantzitsua baitzen oro berriz  
bere lekuan uztea. Senarraren bi gutun kaustu  
nituen lehenik, jujamendutako xehetasunen eta  
ezkon maitasunezko hizketen halako nahaspila  
txegosgaitza, pazientzia handiz osorik irakurri

nituenak, baina nirekin zerikusirik zukeen elerik aipatzen ez zutenak. Bere lekuan berrezarri nituen, haserre: baina haserre baretu zitzaidan, Dijonetik bidalitako nire gutun ospetsu haren zatiak esku artean kausiturik, artoski bilduak. Beharrik gutuna gaingiroki irakurtzea bururatu zitzaidan. Egizu kontu nola poztu nintzen neure debot maitagarri haren malkoen hatz arrunt argiak hautemanik han. Aitor dizut mutil gazte baten bihotzaldiari men egin niola, eta musu eman niola gutun hari, nigan dagoeneko sor zitekeenik uste ez nuen gainezkaldiaz. Azterketa zoriontsu hura jarraitu nuen; neure gutun guztiak berraurkitu nituen, hurrenkeran, eta dataren arabera ordenatuak; eta are atsegin gehiagoz harritu nintzen guztietan lehena kausitzean, emakume eskergabe batek niri itzulua uste nuena, haren eskuz hitzez-hitz kopiatua; bai idazkera asaldatu eta dardaratuaz kopiatua ere, haren bihotzak eginkizun horretan sentitu zuen durduza eztiaren lekukotasuna emanaz.

Ordu arte guztiz amodioari nengokion; amodioak berehala haserreari eman zion bide. Nork uste duzu galdu nahi nauela biziki maite dudan

emakume horren aurrean? Zein atso zital uste duzu izan litekeela gisa horretako belzkeria bat asmatzeko bezain gaiztoa? Ezagutzen duzu: zure adiskidea da, zure ahaidea; Volanges andrea da. Ez dezakezu susma zalamandrana deabru horrek zer nolako lazkeria parrasta izkiriatu dion nire bizkar. Hark du, soilik hark, emakume aingerutar horren segurantzaz durduzatu; haren kontseiluengatik, haren iritzi kaltegarriengatik, urrundu beharrean naiz; neure burua hari zaio, azkenaz goiti, eskainia. Ah! Dudarik gabe, behar dut haren alaba seduzitu: baina ez da aski, behar dut galdu; eta emakume madarikatu horren adinak nire ukaldien gerizpean baitauka, behar dut kolpatu haren maitasunaren xedean.

Parisa itzul nadin nahi du bada! Horretara behartzen nau! Hala biz, itzuliko naiz, baina nire itzulera auhendatuko du. Samurturik nauka Danceny izateak abentura honetako heroia, badu zintzo kutsu bat eragozgarri dukeguna: amoros da hala ere, eta sarri ikusten dut; ausaz balia dakiguke. Neure suminaldian galdu naiz, eta ahortzi zait egungo egunean gertatu denaren kontaketa zor dizudala. Lot nakion.

Gaur goizean berriz ikusi dut neure debot sentikor hori. Nehoiz ez zitzaidan hain ederra iruditut. Hala behar zuen: emakumeek izaten dute une bat guztietan ederrena dena, beren amodioaren segurantz badugun arren beren ontarteen eman nahi izaten ez diguten una hain zuzen, eta soil-soilik une horrek sor lezake arimaren horditasuna, zeina baita usu aipatua baina bakan baizik ez sentitua; eta hura zen hain zuzen ere nire kasua bera. Beharbada eder hura ikusteko plazerraz gabetua izan behar nuela pentsatzea lagungarria zen halaber emakume hura ederresteko. Azkenean, gutunak postatik heldu ziren orduko, 27ko zure gutuna eman zidaten; eta gutun hura irakurtzen ari nintzen bitartean, zalantzan nintzen oraino neure hitza bete edo ez: baina topos topos aurkitu nituen neure eder haren begiak, eta ezin deusik uka niezaiokeen.

Beraz partitzera nindoala iragarri dut. Geroxeago, Rosemonde andreak bakarrik utzi gaitu: baina presuna muker horren lau urratsera nengoela oraino, izu itxuran zutiturik, erran dit: «utz nazazu, utz nazazu, jauna»; «Jainkoaren ize-

nean, utz nazazu.» Haren zirrara salatzen zuen erregu kartsu hark nire gogo berotu baizik ez zezakeen egin. Haren ondoan nintzen dagoeneko, eta heldurik neuzkan haren esku, keinu guttiz hunkigarri batez bilduak; orduan, auhen amoltsutan hastera nindoanean, izterbegi deabru batek Rosemonde andrea erakarri du. Debot herabeti horrek, izanik alabaina beldurtzeko arrazoirik, alde egiteko baliatu du egokiera hori.

Nik haatik eskua eskaini diot eta hark onartu egin du; eta aspaldian erakutsi ez zidan eztitasun horri aieru on iritzirik, saiatu naiz, auhenetan berriz hasiz, haren eskua tinkatzen. Gibelarazi nahi izan du hasieran; baina nire eskua hartzera biziroago hertsatu dudalarik, aski gogo onez amore eman du, nahiz ez keinu horri ez nire hitzei ihardetsi dien. Haren gelako atera heldurik, eskuan muin eman nahi izan diot, haren ondotik joan baino lehen. Hasieran gogor defendatu da; baina *egizu kontu banoala*, nik hari emeki-emeki errateak bihurtu du haren defentsa moldakaitza eta ez askia. Doi-doia eman diot eskuan muin, haren eskuak berreskuratu duela ihes egiteko indarra, eta eder hori sartu dela

bere gelan, han baitzuen gelazaina. Hemen bukatzen da nire historia.

Nola bihar ...ko mariskalaren emaztearen etxean egonen zarela uste baitut, eta hain segur ere ez bainatzaizu bila joanen; nola gure lehenengo elkarrizketan afera bat baino gehiago aztertu beharko dugula iruditzen baitzait, eta Volanges ttipiarena bereziki, ez baitut bistatik galtzen, hartu dut gutun hau nire aitzindari bidaltzeko xedea; eta zein ere den luze, ez dut hertsiko postara igortzeko unea arte, zeren orain nagoen heinean, dena okasio baten mende dagoke; eta zu utzirik banoa okasio hori barrandatzera.

*P.S.— Arratseko zortzi orenetan.*

Zaharrak berri; ezein libertate unerik: bai aitzitik libertate une horri itzurtzeko arreta handia. Haatik, onestotasunari zilegi zaion bezainbat tristura, gutxienez. Bada bertze gertakari bat afera honi loturik dagokeena agian, zeina baita ni izendatu nautela landako bere etxera bolada batez etortzeko Rosemonde andreak Volanges andreari dagion gomitaren mezulari.



Adio, adiskide ederra; bihar arte edo beranduenez etzi arte.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 28an.*

## **XLV. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VOLANGES ANDREARI

Valmont jauna gaur goizean partitu da, andrea; iruditu zait partitze hori hain zenuela irritsatzen, non jakinarazi behar nizula uste izan baitut. Rosemonde andrea arras iloba-min da, behar baita aitortu lagunarte atseginekoa dela: goiz osoan ari izan zait ohi duen sentikortasunaz ilobaren aipua egiten; ez zen baratzen hura laudatzetik. Uste izan dut kontrako elerik erran gabe aditzeko begirunea zor niola, hanbatenaz nola behar baita aitortu anitz puntutan arrazoi zuela. Susmatzen nuen bertzalde banuela neure buruari zer liskarturik ni bainintzen bereizte haren kausa, eta ez dut igurikitzen hari eman ahal izaterik edeki diodan plazerraren ordainik. Badakizu izatez ez naizela batere alaia, eta

hemen egitekoa dugun bizimoldea ez da alaitasun hori areagotzeko egina.

Zure iritziaren arabera ari izan ez banintz, beldur nintzateke doi bat arin jokatu izanaz: zeren neure adiskide agurgarriaren oinazeak zinez penatu bainau; horrenbertzeraino hunkitu nau non gogotik nahasiko baintuen neure malakoak harenekin.

Uste osoan gaituzu orain ezen onartuko duzula Valmont jaunak, Rosemonde andrearen partetik, aldi batez haren etxera jiteko eginen dizun gomita. Ez ahal duzu dudatuko zu ikusteak emanen didan plazerraz; eta egia errateko ordain hori zor diguzu. Arras gogobeteko nau Volanges andereñoaren ezagutzak fiteago egiteko okasio hori kausitzeak, bai zure aldera ditudan sentimendu begirunezkoak segur baino segurkiago zuri opa ahal izateak ere, etab.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 29an.*

## **XLVI. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK CÉCILE VOLANGESI

Zer gertatu zaizu bada, Cécile maitagarria? Zerk eragin ahal izan ote du zugan horren aldaketa ustekabeko eta krudela? Zer bilakatu dira sekula ez aldatzeko zure promesak? Atzo oraino, plazerraren plazerraz errepikatzen zenituen! Egungo egunean zin horiek ahantzaraztera zerk bortxa zaitzake? Neure burua aztertuagatik, ez dezaket horren kausarik neure baitan aurki, eta zugan bilatu beharra lazgarria zait. Ah! Dudarik gabe, ez zara buru-arina, ezta engainaria ere; eta etsialdi honetan berean ere, laidozko susmo batek ez du nire arima ximelduko. Haatik, zer asturugaitzez ez ote zara jadanik zuhaur? Ez, krudel hori, ez zara jadanik lehengo bera! Cécile amoltsuak, biziki maite dudan eta zinak egin dizkidan Cécilek, ez zien nire behakoei uko eginen, ez zitzaion haren ondoan ezartzen ninduen halabehar zoriontsuari aihertuko; edo baldin ezin irudika dezakedan arrazoiren batek ni hain zorrozki tratatzera behartu izan balu, ez nindukeen, bederen, ezjakinean arbuioz edukiko.

Ah! Ez dakizu, ez duzu sekula jakinen, nire Cécile, zenbat sofriarazi didazun gaur, oraino une honetan zenbat ari naizen sofritzen. Uste duzu bada bizi nintekeela eta egon nintekeela zure maitasuna gabe? Haatik, nire beldurrak uxatzeko eskatu dizudalarik ele bat, ele bat bakarra, ihardetsi beharrean, adituko ote zintuzten beldur itxurak egin dituzu; eta ordu arte existitzen ez zen eragozpen hori, berehala duzu sorrarazi, lagunartean hautatu duzun lekuaz. Halabeharrez utzi behar izan zaitudanean, galdegin dizudalarik zer orenetan ikus zintzakedan biharamunean, egin dituzu ezjakinaren itxurak, eta Volanges andreak jakinarazi behar izan dit. Hala, zugana hurbildu behar nauen une betiere hain desiratuak, bihar arrangura bertzerik ez du sortuko nigan; eta zu ikusteko plazerra, nire bihotzari ordu arte hain atxikia, zu gogaitzeko beldurrak du ordezkatu.

Dagoeneko, ari naiz sentitzen, beldur horrek baratzen nau, eta ez natzaizu neure amodioaz mintzatzera ausartzen. Entzun nezakeenean nik ere plazerraren plazerrez errepikatzen nuen *maite zaitut* hark, ele hain ezti hark, nire zorio-

nak askietsiak, ez dit jadanik, baldin aldatu bazara, etsipen eternalaren irudia baizik eskaintzen. Ez dezaket hargatik sinets amodiozko kutun horrek bere ahal guztia galdu dukeenik, eta saiatzen naiz oraino kutun horrez baliatzen. Bai, Cécile, *maite zaitut*. Nirekin batera errepika ezazu nire zorionaren adierazpen hori. Egizu kontu perpaus hori aditzeko ohitura harrarazi didazula, eta hura gabe ni uztea, dela ni kondematzea nire amodioaren gisa berean nire biziarekin batera baizik bukatuko ez den hildura batera. *...tik, 17\*\*ko abuztuaren 29an.*

## **XLVII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Gaur ere ez zaitut ikusiko, adiskide ederra, eta hona nire arrazoiak, otoi arren bihozberatasunez har itzazu.

Atzo zuzenean itzuli ordez, \*\*\*ko kondesaren etxean baratu nintzen, haren gaztelua kasik nire bidean baitzen, eta afaltzera gonbida nintzan eskatu nion. Parisa ez nintzen zazpi orenak alde-

ra arte heldu, eta operan jaitsi nintzen, han kausituko zintudalakoan.

Opera bukatu, teatroko atsedean gelara joan nintzen neure adiskideei ikustaldi bat egitera; han kausitu nuen Émilie adiskide mamia, anitz lagunez inguratua, gizon zein emakume, guztiak oro hark P...n afaltzera gonbidatuak. Lagunarte hartan doi-doia sartua nintzela, galdata zidaten aho batez arren otoi afaltzera joan nendin. Berebat galdata zidan Holandako frantses murduskatuz gomita egin zidan gizontxo potolo mozkote batek, bestako zinezko heroitzat ezagutu nuena. Gomit hura onartu nuen.

Bidean jakin nuenez, joatekoak ginen etxea Émiliek gizontxo irrieragingarri hari egin zizkion ontartean truk hitzarturiko saria omen zen, eta afari hura zinez eztei afari bat zen. Gizontxo hura pozez lehertu beharrean zen, gozatzera zihoan bozkarioaren aiduru; hain gogobetea iritzi nion, non hura asaldarazteko gogoia izan bainuen; bai alabaina asaldarazi ere.

Émilie hartaratzea izan nuen zailtasun bakarra, auzapez haren aberastasunak arranguratu xe baitzeukan. Makurtu zitzaion haatik, estaku-

ruketan ibili ondoren, nik proposatu nion asmoa-ri, erran nahi baita, garagardo upel ttipi hura ardoz mukuru bete, eta gau osoko mutur-huts halatan uztea.

Holandar edale bat ezinago bikaina zelako usteak ezagutzen genituen bide guztiak baliarazi zizkigun. Hain ontsa erdietsi genuen, non deserterako ez zuen jada edalontziari eusteko indarrik: baina Émilie errukior hark eta biok leporaino ase genuen, zein baino zein gehiago. Erori zen azkenik mahai azpira, hain hordi, non bederen zortzi egunez iraun behar zion. Parisa igortzea deliberatu genuen orduan; eta ez baitzuen bere zaldi orga gorde, neurean kargarazi nuen, eta haren ordeaz gelditu nintzen. Gero han bildutakoen konplimenduak hartu nituen, eta berehala joan ziren, ni utzirik gerla eremu hartako nagusi. Trufa horrek eta beharbada neure bazterraldi luzeak hain desiragarri agerrarazi zidaten Émilie, non holandar hura berpiz zedin arte bera-ekin geldituko nintzela hitz eman bainion.

Nik hari ager diodan begirunea hark niri agertu didanaren saria da, idazmahai gisa baliatu baitzait nire debot horri izkiriatzeko, iruditu bai-

tzait gauza bitxia debot horri igortzea neska baten ohean eta kasik haren besoetan izkiriaturiko gutun bat, erabateko desleialtasun batek eten duena, eta non nire egoeraren eta nire jokabidearen berri zehatza ematen baitiot. Émiliek, gutuna irakurri baitu, irri eta irri egin du ero baten gisara, zuk ere irri egingen ahal duzu!

Nola nire gutunak Parisen zigilatua izan behar baitu, igortzen dizut; zabalik uzten dut. Otoi arren, irakur, zigila, eta postara igorraz ezazu. Ez ezazu, oroz gain, zeure zigilua balia, ez halaber amodiozko ezein ikur; soin irudi bat baik ez. Adio, adiskide ederra.

*P.S.*— Berriz irekitzen dut gutuna; bildu dut Émilie Italiarretara joan dadin... Astialdi hori zu ikustera joateko baliatuko dut. Sei orenetan beranduenez zure etxean izanen naiz; eta baldin on kausi bazeneza, elkarrekin joanen gara zazpi orenen inguruan Volanges andrearen etxera. Egoki eta bidezko dateke Rosemonde andrearen partetik egin behar diodan gomita ez gibelaraztea; bertzenaz, Volanges ttipia ikusteak gogoia arras beteko dit.



Adio, andre txit eder hori. Zu besarkaturik nahi dut zalduna jeloskortzeko bezain plazer handia hartu.

*P...etik 17\*\*ko abuztuaren 30ean.*

## **XLVIII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

*(Parisen zigilatua)*

Loa arras galarazi didan ekaitz gau baten ondoren; ala kar hondagarri baten asalduran, ala neure arimaren ahalmen guztien erabateko triskantzan etengabe amildua egon ondoren, zuga-na natorkizu, andrea, hain beharrezkoa zaidan eta haatik oraino gozatzerik igurikitzen ez dudan lasaitasunaren bila. Alabaina, izkiriatzten ari natzaizun egoerak nehoiz baino gehiago ezagutarazten dit amodioaren ezin ihardukizko ahalmena; ondo gostarik nagusitzen ahal natzaio neure buruari nire ideiak gutxienez doi bat ordenatu ahal izateko; eta dagoeneko alde z aurretik ikusten dut ez dudala gutun hau bukatuko, izki-

riatzetik baratzera behartua izan gabe. Zer! Ez dezaket bada igurika egunen batean zuk ere zeuregana dezazun une honetan jasaten ari naitzen durduza? Zilegi izan bekit uste izatea haatik ezen durduza hori ontsa ezagut bazeneza, ez zinatekeela haren alde sentikortasunik gabe egonen. Sinets nazazu, andrea, lasaitasun hotza, arimaren logalea, heriotza dirudiena, ez dira zorionbide; soil-soilik grina eragileek gida dezaketete zorionera; eta jasanarazten dizkidazun oinazeak gorabehera, beldurrik gabe seguratu uste dizut ezen, une honetan, zu baino zoriontsuagoa naizela. Alferrik zigortzen nauzu zeure zorroztasun hondagarriez, ezin eragotz baitezaketete neure burua amodioaren gerizan osoki utz dezadan, eta amodioak sortzen dizkidan eldarnioan ahantz dezadan zuk eragin didazun etsipena. Mendeka nadi horrela zuk kondenatu nauzun erbesteaz. Sekula ez dut honenbertze plazerrik hartu zuri izkiriaturik; eginbide horretan sekula ez dut sentitu zirrarara hain ezti eta haatik hain bizirik. Orok bide ditu nire gainezkaldiak berretzen: hatsa hartzean barneratzen zaidan airea irritsaz betea dago; izkiriitzen ari natzaizun

mahaia bera ere, erabilera horri lehen aldiz eskainia, amodioaren aldare sakratu bihurtu da niretzat; zenbatez ere ederretsiko dudan! Haren gainean taxutua duket zu beti maitatzeko zina! Barka, otoi, nire zentzumenen desordena. Zeure egiten ez dituzun gainezkaldiei gutxiago emana behar nuke agian: instant batez behar zaitut utzi bertatik bertara areagotzen ari zaidan horditasuna baretzeko, ni baino indartsuago ari baita bilakatzen...

Zugana natorkizu berriz, andrea, eta ber lehiaz etorri ere dudarik gabe. Halarik ere zorionaren sentimena urrun joan zait ihesi; gabezia krudelezko sentimenei eman die leku. Zertarako balia dakidake neure sentimenduak zuri aipatzea, non alferretan ari bainaiz zu nire iritzira biltzeko bideen bila? Usu errepikaturiko ahalegin anitzen ondoren, fidantzia eta indarra aldi berean itzurtzen zaizkit. Baldin amodioaren plazerrak oraino berriz irudikatzen baditut, biziago sentitzen dut haiez gabetu izanaren dolua. Ez dut kontsolamendurik kaustitzen zure bihozberatasunean ez bada, eta, une honetan, aski eta sobera sentitzen dut zenbatez ere nagoen bihoz-

beratasun horren premian, hura erdiesterik iguriki ahal izan gabe. Haatik, nire amodioa sekula ez zaizu hain errespetuzkoa izan, sekula ez zintuzke gutxiago laidotu behar; halakoa da non, erratea zilegi izan bekit, bertuterik zorrotzenak ere ez bailioke beldurrik izan behar: nihaur beldur naiz ordea jasaten ari naizen oinazea ez ote natzaizun sobera luzaz aipatzen ari. Uste osoan bainaiz oinaze hori sortu didanak ez duela bere baitaratu eta beretu, ez nadin bederen haren ontasunez neurritz gain balia; eta hala-hala ariko nintzateke, baldin denbora gehiagoz ariko banintz dolorezko irudi hori zuri irudikatzen. Ihardets diezadazun eta nire sentimenduen egiazkotasunaz sekula dudarik egin ez dezazun zuri otoizteko astia baizik ez dut hartzen.

*P...n izkiriatura, data Parisen ezarria, 17\*\*ko  
abuztuaren 30ean.*

# **XLIX. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK DANCENY ZALDUNARI

Ez buru-arina ez engainatzailea izan gabe, aski dut neure jokabideaz argitua izatea, jauna, jokabide hori aldatzeko premia sentitzeko; sakrifizio hori eskaini diot Jainkoari, zu erlijioan sartua izanak are gaiztoagoak bihurtzen dituen zure alde ditudan sentimenduena ere eskain ahal diezaiokekan arte. Badakit sakrifizio horrek anitz penatuko nauela, eta ez dizut orobat ezkutuan gordeko ezen herenegunez geroztik negar egin dudala zugar pentsatu dudan bakoitzean. Jainkoak eginen ahal dit ordea zu ahanzteko behar dudan indarra emateko grazia, nola baitiot gau eta egun eskatzen! Halaber igurikitzen dut zure adiskidantzagatik, bai eta zure onestasuagatik ere, ez zarela entseiatuko eragin didaten delibero zuzena asaldatzera, ahalegindua bainaiz hartan tinko irauten. Beraz, galdatzen dizut izan dezazun otoi niri gehiago ez izkiriatzeko begirunea, hanbatenaz alde aurretik gaztigatzen baitizut ez nizukeela erantzunen, eta orobat behartuko nindukezula gertatzen ari den guztiaz amari

ohartaraztera: nahiz halatan zu ikusteko plazeraz guztiz gabetua nintekeen.

Ez dut hargatik gutxiago gordeko hobenik egin gabe zugana izan dezakedan atxikimendu guztia; eta bihotz osoz opa dizut izan litekeen bozkariorik handiena. Badakit aurrerantzean ez nauzula jadanik horrenbertze maitatuko, eta beharbada ni baino neska hobeago bat maitatuko duzula sarri. Baina bertze penitentzia bat gehiago izanen da, neure bihotza zuri emanegiz dudak hobeagatik, ez bainion Jainkoari baizik eman behar, eta neure senarrari halaber, senarrik izanen dudanean. Jainkoaren miseriakordiarik nire ahulkeria urrikalduko ahal zaio, eta ez ahal dit eraginen paira ahal nezakeena baino atsekabe gehiagorik!

Adio, jauna; segurki segurtatzen ahal dizut ezen nehor maitatzea zilegi banu, zu baizik ez zintuzkedala maitatuko. Horra ordean erran diezazukedan guztia, eta beharbada erran behar nizukeena baino gehiago da.

*...tik, 17\*\*ko abuztuaren 31n.*

# L. GUTUNA

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK  
VALMONTEKO BIZKONDEARI

Horrela betetzen dituzu bada, jauna, zure gutunak noizik behin hartzea onartzeko ezarri nizkizun baldintzak? Eta ez ote dut *zer deitoraturik*, nahiz sentimendu bat baizik ez didazun aipatzen, zeinari men egiteak izutuko nindukeen, neure betebeharrak guztiei huts egin gaberik men egiten ahal banio ere.

Bertzenaz, baldin izu osasungarri hori atxikitzeko arrazoi berrien premiarik banu, zure azken gutunean kausi nitzakeela iruditzen zait. Alabaina, amodioaren goresmena egin uste duzun unean berean, zer dagizu aitzitik, ez bada haren ekaitz beldurgarriak niri erakutsi? Nork desira dezake arrazoiaren ordainetan erositako zorionik, eta iraupen gutxiko plazerren ondoren gutunean damurik dakarrenik, non ez duen bihotz zimikorik ekartzen?

Zuhaur, eldarnio arriskutsu horri men egiteko ohiturak beraren ondorioa gutxitu behar dizun arren, ez zaude hala ere sarritan zu baino indar

gehiago duela aitortzera behartua, eta ez zara eldarnio horrek nahigabe sortzen dizun asaldura deitoratzen lehena? Zer sarraski izugarri ez luke bada eginen bihotz berri eta sentikor baten baitan, zeinak haren nagusigoa gehituko bailuke halabeharrez eginen lizkiokeen sakrifizioen hantitasunaz?

Amodioak zorionera daramala uste duzu, jauna, edo uste iduri bat egiten duzu; eta ni, hain nago maluros eginen nindukeelako uste osoan, non ez bainuke haren izena sekula aditu nahi. Aipatzetik beretik estuasuna eta larritasuna dakartzala iruditzen zait; eta nahimenez bezainbat betebeharrez otoizten zaitut puntu horrez den bezanbatean isiltasunari atxiki zakizkion.

Azkenaz goiti, orain aise betetzen ahal didazuke eskari hori. Parisa itzulirik, aski okasio kausatuko duzu hor gisako xedeetan aritzeko duzun azturagatik sortu bide zaizun eta landako aisialdiak bortiztu bide dizun sentimendu hori ahanzteko. Ez zaudea bada guztiz ezaxolaturik behatu zenidan leku berean? Egin dezakezu urratsik, aldatzeko duzun erraztasunaren etsenplurik kausatuko gabe, eta ez zaudea zure konplimenduak



hartzeko eskubide gehiago duten eta oro ni baino atseginagoak diren emakumez inguraturik? Ez dut nire sexuari egozten zaion harrokeriarik; eta are gutxiago urguiluzko amarrua baizik ez den xalotasun aizunik; eta fede on osoz diotsut orain ezen laket izateko oso bide gutxi kausitzen ditudala neure baitan: guztiak oro izanagatik, ez nituzke zu erakartzeko bezainbat askietiko. Eskatzea zuri nirekikoaz sekulako egin dezazun, da soil-soilik behinola jadanik egin zenuena eta hain segur ere, nahiz nik guztiz kontrakoa eskatu, aurki egingen zenukeena egungo egunean egin dezazun zuri otoiztea.

Egia hori, ez baitut bistatik galtzen, aski arrazoi bortitza litzateke zu aditu nahi ez izateko. Bertze mila baditut oraino: baina eztabaida luze horri lotu gabe, berriz ere dizut eskatzen, aldeztu aurretik eskatua dizudan bezala, ez diezadazun gehiago aipa ez entzun ez are gutxiago ihardetsi behar dudan sentimendurik.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 1ean.*

# BIGARREN PARTEA

## LI. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Egiazki, bizkonde, jasangaitza zara. Zure maitalea banintz bezainbat arinkeriaz tratatzen nauzu. Badakizua haserretuko naizela, eta une honetan beltzuri gogorrean naizela? Nola! Dan-ceny bihar goizean behar duzu ikusi; badakizu zeinen garrantzitsua den elkar ikuste hori baino lehen mintza nakizun; eta sobera kezkatu gabe, egun osoan zain eduki nauzu, nik dakita nora korrika abiatzeko? Zure kausaz *desegokiro* berandu heldu naiz Volanges andrearen etxera, eta emakume adintsu guztiei *zoragarri* nintzela iruditu zaie. Egonaldi osoa bitartean balakuak egin behar izan dizkiet sosega zitezen: emakume adintsuei ez baitzaie haserreberik eman behar; haiek dute eta gazteen omena egiten.

Orain goizaldeko oren bata da, eta oheratu beharrean, biziki desiratzen dudana bezala, gutun

luze bat behar dizut izkiriatu, asperraren asperrez arras lokarraraziko nauena. Zorionekoa zu, ez baitut zuri liskar gehiagorik egiteko astirik. Karia horretara ez uste barkatzen dizudanik; presaturik nabil, bertzerik ez. Entzun beraz, fite noakizu.

Trebezia doi bat izanez gero, bihar behar duzu hartu Dancenyren isilmandatua. Une egokia da fidantziarako: atsekabe unea baita. Neska ttipi hori kofesatzera joana da; dena erran du, haur baten gisara; eta harrezkeroztik, deabruaren beldurrak halako heinean atsekabetua du, non harreman oro nahi baitu hautsi Dancenyrekin. Haren herabekeria ttipi guztiak kontatu dizkit, halako bizitasunez non aski erakutsi baitit burua bero-bero zuela. Hausturazko gutuna erakutsi dit, ele zurikeria galanta baita. Oren batez ari izan da nirekin solasean, zentzuzko hitz bat bakarra erran gabe. Baina ez nau hargatik gutxiago hertsatu; zeren, pentsatuko duzu, ez nintekeela arriska nire bihotza gisa horretako buru arrunt gaizto bati irekitzera.

Berritsukeria horien guztien erdian ikusi dut haatik ez duela gutxiago maite bere Danceny;

hauteman ere diot amodioak beti atxiki ohi duen horietako baliakizun bat, zeinaren eraginez neska ttipi hori irrigarriro gertatu baita kalte-dun. Oinazetan baitauka bere maitalean pentsatzeko desirak, eta berebat harengan pentsatuz gero bere burua kondentatzeko beldurrak, bururatu zaio Jainkoari otoiztea lagun diezaiola Danceny ahanzten; eta otoitz hori nola egun osoan unetik unera errepikatzen baitu, kausitu du Danceny etengabe gogoan izateko era.

Danceny baino presuna *ohituago* batekin, gertakari ttipi hori lagungarriagoa gence ausaz kaltegarria baino, haatik gazte hori hain da amoros gogo hutsezkoa, non baldin laguntzen ez badiogu, ez baitigu utziko gure asmoa obratzeko astirik, hainbertze denbora beharko baitu den eta eragozpenik ttipienak garaitzeko.

Arrazoi osoa duzu; ondikoa da, eta zu bezain haserre nago hura izan dadin abentura honetako heroia: zer nahi duzu ordea? Eginak egin; eta zure errua da. Haren erantzuna ikusteko galdea egin dut; urrikalarazi nau. Egiten dizkio hats gabetzeraino arrazoinamenduak, frogatu nahi baitio borondateaz bertzerako sentimendu bat

ez daitekeela izan makurkeria: hura gudukatze-  
tik baratu orduko, borondateaz bertzerakoa iza-  
teari utziko ez balio bezala! Ideia hori hain da  
sinplea, non neska ttipiari berari ere bururatu  
baitzaio. Mutila aski era hunkigarritz kexu da bere  
maluraz: baina haren oinazea hain da ezia eta  
irudi baitu hain bortitza eta egiazkoa, non ezi-  
nezkoa iruditzen baitzait gizon bat hein horreta-  
raino, eta hain arrisku gutxirekin, etsiarazteko  
okasioa kausitu duen emakumea ez izatea guti-  
ziaz gaindi egiteko tentatua. Azaltzen dio azke-  
nik ez dela fraidea, neska ttipi horrek uste zuen  
bezala; eta hori du, ezin uka, egin duen gauzarik  
onena: zeren, monasterioko amodiora makurtze-  
ko baizik ez balitz, Maltako jaun zaldunek ez  
lukete hain segur lehentasunik merezi.

Zernahi dela ere, arriskutan sar nindezaketen  
eta neska hori beharbada nire iritzira ekarriko ez  
zuten arrazoibidetan denbora galdu ordez, one-  
tsi dut harremanak hausteko asmoa: baina erran  
diot ezen onestagoa zela, horrelako kasuetan,  
nork bere arrazoiak bozez erratea, ezen ez izkri-  
buz; ezen ohiturazkoa dela orobat gutunak eta  
jaso bide diren bertze huskeriak ere bihurtzea;

eta iduriz halatan neskatila ttipi horrekin ados nintzela, harrarazi diot Dancenyri elkar ikusteko aukera emateko deliberoa. Beharrezko bitartekoak berehala ditugu erabaki, eta nik hartu dut neure gain ama alaba gabe jalgi dadin deliberrazteko eginkizuna; bihar arratsaldean izanen da une erabakigarri hori. Danceny jakitun dago jadanik; baina, Jainkoarren, okasioa kausi baze-neza, deliberaraz ezazu artzain eder hori hain malenkoniatsu ez izatera; eta irakats iezaiozu, oro behar baitzaio erran, ezen herabekeriak garaitzeko egiazko bidea soil-soilik dela herabekeriak badituztenei haiek galtzen ez uztea.

Bertzenaz, gertakari irrigarri hori berriro errepika ez dadin, ez naiz begiratu neska ttipi horren gogoan kofesoreen zuhurtziaz duda batzuk sortzetik; eta segur derraizut orain ari dela ordaintzen niri eragin didan beldurra, kofesora haren amari dena erratera joanen ote zaion beldurraz. Harekin behin edo birritan hitz egin dezadan ondoren, ez ahal da gehiago joanen bere ergelkeriak edozein jin berri kontatzera!

Adio, bizkonde; nagusi zaitez Danceny, eta gida ezazu. Ahalkegarria litzateke guk bi hurrez

nahi duguna ez egitea. Baldin zeregin horretan uste baino neke gehiago kausitzen badugu hastapenean, dugun pentsa, geure lehia bizkortzeko, zuk, Volanges andrearen alaba dela, eta nik, Gercourten emazte bilakatuko dela. Adio.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 2an.*

## **LII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Debekatzen didazu, andrea, neure amodioaz mintza nakizun; non kausi ordea zuri obeditzeko behar dudan kuraia? Hain ezitia behar lukeen eta zuk hain krudela bihurtzen duzun sentimendua soilik izaki eginkizun; kondenatua nauzun erbesteetan hilduraz; ez biziz gabeziez eta damuez baidzik; zenbatenaz zure ezaxolakeriaren aipua etengabe baitakarkidate, hanbatenaz mingarriagoak zaizkidan oinazeen peko; gelditzen zaidan kontsolamendu bakarra behar ote dut hala ere gal? Baduket bertze kontsolaziorik, ez bada zuk kezkaz eta garraztasunez mukuru betetzen

duzun arima zuri noizik behin zabaltzea? Zeure behakoak apalduko dituzu, isurarazten dituzun malkoak ez ikusteko? Fermuki galdatu dituzun sakrifizioen eskaintzei ere uko egingen diezu? Ez litzateke bada hanbatenaz zuhauren, zure arima zintzo eta eztiaren heineko gizon dohakabe bat urrikaltzea, zugatik baizik ez dena dohakabe, haren penak areago larritu nahi izatea baino, defentsa aldi berean bidegabe eta zorrotz batez?

Egiten dituzu amodioaren beldur zarelako itxurak, eta ez duzu ikusi nahi soil-soilik zu zarelako amodioari egozten dizkiozun kalteen egilea. Ah! Sentimendu hori atsekabezkoa da, dudarik gabe, sorrarazi duenak ez badu beretu; baina zoriona non kausi, elkarrekiko maitasunak ematen ez badu? Adiskidantza amoltsua, fidantzia ezta eta sekreturik ez duen bakarra, penak leunduak, plazerrak areagotuak, esperantza xarmangarria, oroitzapen zoragarriak, horiek guztiak amodiotik at non kausi? Amodioa iraintzen duzu, eskaintzen dizkizun ontasun guztiez goatzeko sekula gehiago ez errefusatzeari aski duzun horrek; eta pairatzen ari naizen atsekabeak ahantzirik, amodioa defendatzeari ekina naiz ni.



Behartzen nauzu orobat neure burua defendatzen; zeren nik bizitza osoa zu biziki maitatzeari eskainiagatik, nigan akatsak bilatzen ematen duzu zuk zeurea: arin eta engainaritzat naukazu jadanik; eta nire kontra neurritz gain baliaturik nihaurek aitortuak dizkizudan zenbait hutsegite, plazer duzu orduan nintzena eta orain naizena nahasirik. Zugandik urrun bizi behararren hildurara ni amilarazi izanari ez askietsirik, horrez gainera trufa egiten diezu, dagoeneko, zure eraginez, deusik sentiarazten ez didatela badakizun sentimenduei. Ez nire promesak ez nire zinak sinesten dituzu: hots bada! Badut oraino berme bat zuri eskaintzeko, susmotan bederen hartuko ez duzuna; zuhaur zara. Soil-soilik eskatzen dizut zeure buruari fede onez galdegin diezaiozun; baldin nire amodioan sinesten ez baduzu, baldin nire arimaren jaun eta jabe bakarra zarela instant batez ere duda egiten baduzu, baldin segur ez bazara irmo atxiki izanaz bihotz hau, alabaina, orain arte sobera aldakorra, men eginen diot hutsegite horren atsekabea neure gain eramateari; auhendatuko dut, baina ez dut goietara joko: baina, aitzitik, gu biokin zuzen eta

bidezko izanez, behartua baldin bazara zeure buruarekin bat aitortzera ezen ez duzula, sekula ez dukezula aurkaririk, ez nazazu gehiago obligatzen, otoi arren, ameskeriak borrokatzera, eta alabaina utz nazazu bederen nire biziarekin baizik finituko ez den, nire biziarekin baizik ezin finit litekeen sentimendu batez sekula gehiago dudarik egiten ez duzula ikusteak emanen didan kontsolamendua. Otoi arren, andrea, zilegi izan bekit nire gutunaren atal honi baietzaz ihardets diezaiozun zuri otoiztea.

Baldin abandonatzen badut haatik neure bizi-tzako aldi hura, iduri baitu zure aurrean krudel gaizto kalte egiten didala, ez uste hura defendatzeko arrazoiak falta zaizkidanik, behar izanez gero.

Zer egin dut, azken finean, ez bada aurtiki ninduten zurrumbiloari ez aihertu? Gazte eta esperientziarik gabe sartua munduan; eskuz esku, nolabait errateko, emakume andana batek ibilarazia, guzti-guztiak errazaren errazez galgarri zuketela sumatu beharrean ziren gogoeta batetik beren buruak begiratzeko ahaleginduak; niri ote zegokidan egiten ez zidaten ihardukiaren

etsenplu ematea? Edo neure burua behar nuen zigortu une bateko hutsegite bategatik, nahiz hutsegite hori maiz sorrarazia zuen dudarik gabe alferrikakoa zen eta irrigarrikeriatzat baizik hartuko ez zuten jarraikitasunak? Hara! Berehalako haustura batek ez bertze zer bidek justifika dezake hautu lotsagarri bat?

Baina, erran dezaket, zentzumenen horditasun hura, handiustearen eldarnio hura bera ere menturaz, ez zaizkit sekula bihotzeraino barneratu. Amodioarentzat jaioa, nire bihotza azpijokoetan libertitzen ahal zen, baina azpijokoak ez zitzaizkion aski gogobetetzeko; izaki seduzitzaile baina erdeinugarritz inguratua, ezein ere ez zitzaidan arimaraino barneratu: plazerrak zizkidaten eskaintzen, nik bertuteak nituen bilatzen; eta neure burua azken finean jarraikitasun gabeakoa neukan, zeren adeitsua eta sentibera bainintzen.

Zu ikusirik nintzen argitu: berehala jakin nuen amodioaren xarma arimaren dohainei zegokiela; soilik dohain horiek eragin zezaketela eta justifika orobat arimaren gehiegia. Sentitu

nuen azkenik zu ez maitatzea eta zu ez bertze nehor maitatzea berdin zirela niretzat ezinkizun.

Horra, andrea, nolakoa den zeure burua hari emateko beldur zaren bihotz hori, bere asturua-  
ren erabakitzaile zu zaituen hori: baina gordea  
dionzun asturua zeinahi ere den, ez dituzu deus  
aldatuko zuri atxikia daukaten sentimenduak;  
mudagaitzak dira nola baitira sorrarazi dituzten  
bertuteak.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 3an.*

## **LIII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Danceny ikusi dut, baina ez dut harengandik  
erdi isilmandatu bat baizik erdietsi; tematu da,  
batez ere, Volanges ttiapiaren izena niri isilpean  
gordetzera, eta harez mintzatu zait soil-soilik  
emakume arras zintzo eta doi bat debot bat bai-  
litzan: hori salbu, aski zintzoki kontatu dit bere  
abentura, eta batez ere azken gertakaria. Ahal  
bezainbat berotu dut, eta gogotik trufatu naiz  
haren adeitasunaz eta haren herabekeriez;

baina mutil horrek bereari atxikia dirudi, eta ez dezaket haren erantzukizunik har: bertzenaz, etzidamu zerbait gehiago erraten ahalko dizut. Bihar Versaillesa eramanen dut, eta bidean hura aztertzeari ekinen diot.

Gaur egitekoa duten elkar ikustean badut orobat esperantzarik: baliteke dena guk nahi bezala gertatzea; eta ausaz orain gure egiteko bakarra da haien aitormena entzun, eta gertatu denaren frogak biltzea. Egiteko hori zuk nik baino aiseago eginen duzu: zeren neskatila ttipi hori bere maitale zuhurra baino askoz fidakorragoa baita, edo, gauza bera dena, berritsuagoa. Guztiarekin ere, nik neure ahala eginen dut.

Adio, adiskide ederra, hagitz presatua naiz; ez zaitut ez gaur gauean ez bihar ikusiko; zuk aldiz zerbait jakin baldin baduzu, hitz bi izkiria itzultzen naizeneko. Segurki Parisa jinen naiz lotarako.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 3an, arratsean.*

## LIV. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

O! Bai! Bada bai Dancenygandik zer jakinik! Baldin hori erran badizu, bere burua laudatu du. Ez dut ezagutzen amodio kontutan hain presuna ergelik, eta gero eta gehiago liskartzen dut neure burua harengana ditugun ontasunengatik. Badakizu harengatik arriskuan egon uste izan naizela? Eta alfer-alferrik izan ere! O! Mendekatuko naiz, hitz ematen dizut.

Volanges andrearen bila heldu nintzelarik atzo, hark ez zuen jalgi nahi izan; ondoezik zen; hitz ederren laguntzaz erdietsi ahal izan nuen azkenik hura kalera jalgiaraztea, eta banekusan Dancený gu partitu baino lehen helduko zen unea; zenbatenaz desegokiagoa zatekeena, hanbatenaz Volanges andreak bezperan erran baitzion ez zela etxean izanen. Haren alaba eta biok zainak airaturik ginen. Jalgi ginen azkenean; eta neska ttipi hark adio erratean eskua hain amoltsuki tinkatu zidan, non harremana hausteko zuen asmoagatik, oraino xede horretan ari

zela fede onez uste baitzuen, bilkura hari miragarrizko gertakizunak iragarri bainizkion.

Nire kezkak ez ziren burutara helduak. Oren erdi baizik ez zuen \*\*\*ko andrearen etxean gine-la, eta horra non Volanges andrea gaizkitu zen alabaina, biziki gaizkitu ere; eta arrazoi den bezala, bere etxera nahi izan zuen itzuli: nik, hanbatenaz gutxiago nahi nuen etxeratu, zenbatenaz beldur bainintzen ezen, baldin gazteak ustekabean atzematen bagenituen, hain segur gerta zitekeena, ez ote zituen susmotan hartuko etxetik jalgitzeko eginak nizkion erreguak. Haren osasunaz izutzeko xedea hartu nuen, ez baita beharrik zaila; eta oren t'erdiz atxiki nuen han, bere etxera eramatera amore eman gabe, zalgurdiaren higidura arriskutsuaz beldur nintzelako itxurak eginik. Ez ginen azkenik hitzartutako orena heldua zen arte etxeratu. Heldu orduko neska ttipiari sumatu nion ahalke itxura ikusirik, aitortzen dizut igurikitzen nuela bederen nire eginahalak alferretan galdu ez izana.

Jakinaren gainean egoteko desirak Volanges andrearen ondoan geldiarazi ninduen; berehala oheratu zen, eta haren ohe ondoan afaldu ondo-

ren, goizik utzi genuen, atsedenaren beharretan zegoelako estakuruan, eta bere alabaren gelara joan ginen. Honek, berriz, egina zuen harengandik igurikitzen nuen guztia; herabekeriak aienatuak, beti eta beti maitatzeko promesak berriz ere eginak, etab..., finean gogo onez ari izana zen: baina Danceny ergel hura urrats bat ere ez zen aitzinatu aldezturik zegoen mugaz haraindi. O! Mutil horrekin aise haserretzen ahal da; harekin onezkoak egiteak ez baitu arriskurik.

Neska ttipi horrek dio haatik mutilak gehiago nahi zuela, baina berak jakin izan duela bere burua defendatzen. Eginen nuke bere burua ari dela laudatzen, edo mutilaren jokabidea desenkusatzeko; kasik segurantz osoa hartu ere dut horretaz. Alabaina, bururatu zait jakitea zer igurika nezakeen haren defendatzeko ahalmenetik; eta nik, emakume xalo honek, eleka-eleka, bertu diot burua halako heineraino non... Finean, sinets nazakezu, nehor ez zaio nehoiz sentikorra goa izan zentzumenen ezusteko bati. Zinez atsegina da neskatxa ttipi maite hori! Bertze maitale bat merezi zuen; izanen du bederen adiskide on bat, zeren zinez atxikiko bainatzaio. Heziko



dudala hitz eman diot eta hitza beteko diodala uste dut. Maiz ohartu izan natzaio isilmandatuka aritzeko emakume baten premiari, eta nahiago nuke neska hori, bertze edozein bainoago; ez dut ordea harekin deus egiten ahal, harik eta ez den izanen... izan behar duen bezalakoa; eta horra Dancenyri aiher izateko bertze arrazoi bat gehiago.

Adio, bizkonde; ez etorri bihar nire etxera, goizean ez bada. Men egin diet etxe ttipian elkarrekin egonaldi bat egiteko zaldunak egin dizkidan erreguei.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 24an.*

## **LV. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Arrazoi zenuen, Sophie maitea; zure iragarpenek zure kontseiluek baino harrera hobea izan dute. Danceny, zuk iragarri bezala, izan da kofesora baino, zu baino, nihaur baino indartsuagoa; eta horra non lehen ginen lekuan gauden berriz. Ah! Ez naiz damutzen; eta baldin liskar egiten

badidazu, Danceny maitatzeak dakarren plazeraren ezjakinean zaudeke. Ondo zeure gogara diozu nola behar den jokatu, ez duzu batere trabarik; ordea baldin sentitu izan bazenu nolako kaltea egiten digun maite den norbaiten xangri-nak, nola haren poza geuretzen dugun, eta zeinen zaila den ezetz erratea, bai erran nahi delarik, orduan ez zinateke deusez harrituko: nihaurk, nahiz sentitu dudan, biziki sentitu ere, ez dut oraino ulertzen. Uste duzu, konparazione, Danceny negarrez ikusten ahal dudala nihaurk ere egin gabe negar? Segur derraizut halakorik ez dezakedala; eta hura pozik denean, ni ere pozik hura bezala. Errazu nahi duzuna; erranak ez du izana mudatzen, eta segur naiz hori horrela dela.

Neure lekuan nahi zintuzket ikusi... Ez, ez dut hori erran nahi, zeren hain segur ez nioke neure lekua nehoi utzi nahi: baina nahi nuke zuk ere norbait maita zenezan; ez soilik hobeki uler nintzazun, eta gutxiago liskar egin zeniezadan; erran nahi baita, zu ere zoriontsuago zinatekeela orduan, edo, hobeki erran, soilik orduan hasiko zinatekeela zoriontsu izaten.

Gure libertimenduak, gure irriak, hori guztia, kontu egizu, ez da haur jolasa baizik; iragan diren ondoren ez dute deus zantzurik uzten. Amodioa ordea, ah! Amodioa!... Ele bat, behako bat, hura han dela soilik jakitea, hots bada! Zer zoriona! Danceny ikusten dudanean, ez dut deusik gehiago nahi izaten; ikusten ez dudanean, ez dut Danceny baizik nahi izaten. Ez dakit hori zergatik den: baina iduri luke laket zaidan guztiak haren antza duela. Nirekin ez denean, hura darabilt gogoan; eta hura gogoan arras barneraturik eduki dezakedanean, batere eragozpenik gabe, bakar-bakarrik nagoenean, konparazione, are naiz zoriontsuago; hersten ditut begiak, eta bertatik Danceny ikusi uste dut; oroitzen ditut haren erranak, eta aditu uste ditut; hasperenka egoten naiz; eta gero sentitzen dut su bat, asaldu bat... Ezinen nuke nagoen lekuan geldirik egon. Oinaze min baten gisakoa da, eta oinaze min horrek sortzen du ezin adierazizko plazerra.

Halaber dut uste ezen amodioa sentitu dene-tik beretik, amodio hori barreiatzen dela adiskidantzaraino. Zuri dizudan adiskidantza alabaina ez da aldatu; betiere da komentuan bezalakoa:

baina erraten dizudana, Merteuil andreagana sentitzen dut. Iruditzen zait areago maite dudala Danceny maite dudan bezala, ezen ez zu maite zaitudan bezala, eta batzuetan nahi nuke Merteuil andrea izan ledin Danceny. Nola ez baita haurtzaroko adiskidantza bat, gurea bezalakoa, beharbada hori da arrazoia; edo, bertzela, izan liteke hain sarri elkarrekin ikusten ditudalako, eta horrek agian tronpaturik naukake. Orogen buruan, egia da behintzat biek oso zoriontsu egiten nautela; eta, azken batean, ez dut uste egiten ari naizena gaizki egina izan litekeenik. Beraz, nagoen bezala gelditzea baizik ez nuke galdatuko; eta neure ezteietan pentsatzea da penatzen nauen gauza bakarra: zeren Gercourt jauna erran didaten gisarakoa baldin bada, eta ez dut horretaz dudarik egiten, ez baitakit zer izanen den nitaz. Adio, Sophie; betiere zaitut amoltsuki maite.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 24an.*

# LVI. GUTUNA

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK  
VALMONTEKO BIZKONDEARI

Zertarako baliatuko litzaizuke, jauna, eskatzen didazun erantzuna? Zure sentimenduetan sinestea, ez litzateke sentimendu horien beldur egoteko bertze arrazoi bat? Eta sentimendu horien egiazkotasuna ez ukatu ez defendatu gabe, ez ote dut nik aski, zuhaurk ez ote zenuke aski, nigandik erantzunik ezin har dezakezula eta ez dizudala berebat erantzunik eman nahi jakitea?

Demagun egiaz maite nauzula (eta iduripen hori soil-soilik onartzen dut sujet hori berriz ez aipatzeko), bereizten gaituzten oztopoak ez lira-teke orobat ezin gaindituzkoak? Eta egin neza-keen bertzerik, ez bada amodio hori ahalik lasterrena garait ahal dezazun zuri opatzea, eta batez ere neure ahal guztiaz zu laguntzea, zuri esperantza oro galarazteko eginahal bizian? Zuhaurk aitortzen duzu *sentimendu hori atsekabezkoa dela, sorrarazi duenak ez badu beretu*. Beraz, ontsa dakizu ezen sentimendu hori ezin neure-

gana dezakedala, ezen zorigaitz hori egokituko balitzait, are urrikgarriagoa nintzatekeela halaber, zu ez zinatekeelarik zoriontsuago. Hori instant batez ere zalantzan ez jartzeko heineraino estimatuko ahal nauzu! Bara zaitez bada, arren otoi, bara zaitez lasaitasunaren premia handitan den bihotz bat asaldarazi nahi izatetik; ez nazu obliga zu ezagutu izanaz damutzeraz.

Nola senarra maite eta errespetatzen baitut, hala maite eta estimatzen bainau hark ere, nire betebeharrak eta nire atseginak xede berean bilduak dira. Zoriontsua naiz, zoriontsua behar naiz izan. Baldin plazer biziagorik balego, ez ditut desiratzen; ez ditut ezagutu nahi. Plazer eztiagorik badea nor bere buruarekin bakean egon, egunak lasaitasunean eman, kezkarik gabe lokartu eta kontzientziaren ausikirik gabe iratzartzea baino? Zuk zoriona deitzen diozuna ez da zentzumenen abarrotsa baizik, grinena ekaitza, ikus-tetik beretik izua dakarrena, behatzen zaiolarik ere hegi batetik. Hara! Erauntsi horiei nola egin buru? Nola ausartu itsasoratzera itsaso, milaka eta milaka presuna hondoraturen aztarnez betean? Eta norekin? Ez, jauna, lehorrean bara-

tzen naiz; maite ditut lehorrera estekatzen nauten loturak. Hausten ahal nituzkeela ere, ez nituzke hautsi nahi; baldin loturok ez banitu, haiek neureganatzen ahaleginduko nintzateke.

Zergatik zauzkat neure urratsei estekan? Zergatik setaz zarraizkit? Zure gutunek bakanak behar lukete, eta hurrenez hurren heltzen dira. Zuhurrak beharko lukete, eta zure amodio eroa baizik ez didate aipatzen. Zeure gogoaz inguratzen nauzu, zuhaurk inguratzen ninduzun baino-ago. Urrundurik zarela molde batez, hartzara jinik zara bertze batez. Ez gehiago errateko gal-  
datuak zaizkizun gauzak, berriz erraten dituzu, soilik bertze molde batez. Plazer duzu amarruzko arrazoibidez ni asaldatzen; itzurtzen zatzaizkie nireei. Ez dizut gehiago ihardetsi nahi, ez dizut gehiago ihardetsiko... Seduzitu dituzun emakumeak nola tratatzen dituzun! Nolako erdeinuz aipatzen dituzun! Sinetsi nahi dut batzuen batzuek merezia dutela: guztiak oro dira ordea hain erdeinagarriak? Ah! Dudarik ez da, zeren traditu baitituzte beren betebeharrak amodio gaizto batera lerratzeke. Harrezkero, oro dute galdu, baita oro sakrifikatu dioten haren

beraren estimua ere. Oinaze gogor horiek bidezkoak dira, baina haiek gogoan hartzeak berak dardara eragiten du. Zer axola zait, ororen buruan? Zergatik arduratu behar naiz ni haiez edo zutaz? Zein eskubidez zatoz nire lasaitasuna durduzatzera? Utz nazazu, ez nazazu gehiago ikus; ez, arren otoi, gehiago izkiria; horra nire eske fermua. Hau da nigandik hartuko duzun azken gutuna.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 5ean.*

## **LVII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Atzo etxera heldu nintzelarik zure gutuna kausitu nuen. Zure haserreak biziki poztu nau. Dancenyren hutsegiteak ez litzaizkizuke gehiago dolutuko, zuri eginak izan balira. Mendekuz duzu dudarik gabe haren maitalea hari desleialtasun ttipiak eginaraztera ohitzen; zu zara zu emakume gaiztoa! Bai, xarmangarria zara, eta ez nau harritzen neskatile hori Dancenyri zuri baino gehiago iharduki izanak.



Azkenean buruz ezagutzen dut nobela heroi eder hori! Ez du jadanik sekreturik niretzat. Hain sarri erran baitiot ezen amodio zintzoa dela ontasunik gorena, ezen sentimendu batek hamar jukutria baino gehiago balio duela orobat, non nihaur ere, une hartan, amoros bainintzen eta herabe; azken finean kausitu du nigan pentsamolde halaber hain berearen arabera non, nire lañotasunaz liluratua, dena erran eta adiskidantza oso-oso zin egin baitit. Geure xedean ez dugu anitz aurreratu.

Lehenik, iruditu zait ezen, haren sistemaren arabera, neskatxa bati begirune gehiago zor zaiola andre bati baino, oro gal lezakeelakoan. Uste du, batez ere, deusek ez duela justifikatzen ahal neska bat ezartzea esposatzeko edo desohorez bizitzeko premian, neska gizona baino askoz ere aberatsagoa denean, nola baita hain zuzen ere haren kasua. Amaren segurantzaz, alabaren zintzotasuna: harentzat dena da larderia eta gelditzea. Haren argudioak, direnak direla, deusezteak ez da oztopo izanen. Trebetasun doi batez eta grina lagun, berehala ziratekeen suntsituak; zenbatenaz irrieragingarriak baitira, eta

geure alde baitukegu ohituraren aginpidea. Baina Danceny geure iritzira ekartzeko badugu traba bat, zeina baita dagoen bezala bozkariotan dela. Alabaina baldin lehen amodioek, oro har, onestagoak, eta erraten dutenez garbiagoak badirudite; baldin urratsak bederen geldiagoak egiten badituzte, ez da, usteak uste, adeitasunagatik edo herabetasunagatik izaten, aitzitik bihotza, sentimendu ezezagun batez harritua, baratu edo egiten da urrats bakoitzean, sentitzen ari den bozkarioaz gozatzeko, eta bozkario hori hain da ahaltsua bihotz berri batean, non hartara lerratua den, bertze ezein plazer ahanzteko heineraino. Hori hain da egia, non libertin amorosak, baldin libertina izan ahal baledi amoros, ez baitu une horrez geroztik horrenbertze presarik gozatzeko; eta azken finean Dancenyk Volanges ttipiarekin duen jokabidearen eta nik Tourvel andre ahalketiarekin dudanaren artean, gehienaren eta gutxienaren arteko aldea baizik ez dago.

Gure gaztea gogoberotuko bada, aurkitu dituenak baino eragozpen gehiago behar lituzke; misterio gehiagoren beharretan da oroz gain,

misterioak ausardia baitakar. Ez naiz hari hain ontsa zerbitzatuz kalte egin diguzula sinestetik urrun; zure jokabidea bikaina zatekeen gizon *ohitu* batekin, ez baitzukeen desirarik baizik: aldezturik ikusten ahal zenuen ordea ezen gazte onest eta amoros batentzat amodioaren froga dela ontarteen saririk handiena; eta, beraz, zenbatenaz maitatua izateaz segurago baita, hanbatenaz ekiteko gogo gutxiago du. Zer egin orain? Ez dakit deus; baina ez dut igurikitzen neska ttipi hori ezteiak baino lehen hartua izanen denik, eta musu-huts garateke beraz; horrek haserre nauka, baina ez diot erremediorik ikusten.

Ni hemen solasean ari naizen bitartean, zu hobeki ari zara zeure zaldunarekin. Horrek pentsarazten dit desleialtasun bat agindu zenidala neure fabore, zure promes hori idatziz dut hartua eta ez dut *la Châtre-ren txartela* bihurtzerik nahi. Aitortzen dizut zorra kitatzeko muga ez dela oraino heldua: baina eskuzabala zinateke epe hori ez gibelaturik; eta nik, aldiz, kontuz atxikiko dizkizut korrituak. Zer diozu, adiskide ederra? Zeure jarraikitasunak ez zaitua akitu?

Zaldun hori hain dea bada zoragarria? O! Utz nazazu egiten; behartu nahi zaitut aitortzera ezen baldin zaldunari meriturik kausitu badiozu, orduan ahortzi nauzula.

Adio, adiskide ederra; zugana dudan desira nolako, nire musuak halako; zaldunaren musu guztiak ezetz izan nireak bezain suharrak.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 5ean.*

## **LVIII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Zergatik merezi izan ditut, andrea, hala egiten dizkidazun liskarrak, nola erakusten didazun sumina? Atxikimendurik biziena eta hargatik errespetuzkoena, zure nahimen denik eta ttipienari guztiz men egin izana; horra bi hitzetan nire sentimenduen eta nire jokabidearen historia. Zorigaitzeko amodio batek abaildua, bertze kontsolamendurik ez nuen zu ikustea baizik: manatu didazu kontsolamendu horrez gabetua egoitea; neure buruari marmariorik zilegitu gabe

obeditu dizut. Sakrifizio horren ordain, eman didazu zuri izkiriatzeko baimena, eta orain plazer bakar hori nahi didazu kendu. Ken diezadaten utziko dut, hura defendatzera entseiatu gabe? Ez, dudarik gabe: Hara! Plazer hori zenbatez ez ote zaion nire bihotzari atxikia? Hura da gelditzen zaidan plazer bakarra, eta zugandik dut hartua.

Nire gutunak, diozunez, usuegiak omen dira! Egizu kontu, otoi, ezen nire erbesteak hamar egun egin dituelarik, une bat bakarra ez dudala eman zutaz oroitu gabe, eta nigandik ez dituzula haatik bi gutun baizik hartu. *Neure amodioa baizik ez dizut aipatzen!* E! Zer erran dezaket, pentsatzen dudana ez bada? Esaera leundu, ez dut bertzerik egin ahal izan; eta ez dizut ikustera utzi, sinets nazakezu, ezin ezkuta nezakeena baizik. Niri gehiago ez erantzuteko mehatxua egiten didazu azkenik. Beraz, ororen gainera zu nahiago zaituen eta maite baino errespetatzena-go zaituen gizona zorrotz tratatzeari gutxietsirik, zorrotasun horri nahi diozu orobat meziprezua juntatu! Eta zergatik mehatxu horiek eta beltzuri hori? Zertarako behar dituzu? Ez zaude zeure

manurik bidegabeenetan ere obeditua izateaz segur? Aiher ahal nintzaioke bada zure ezein desirari, eta ez dizut jadanik hori frogatu? Neurritz gain baliatuko zara ordea nigan duzun nagusigo horrez? Dohakabe egin nauzun ondoren, bidegabe bihurtu zaren ondoren, aise gozatzen ahalko duzu guztiz beharrezkoa omen duzun lasaitasun horrez? Zeure buruari ez diozu nehoiz erranen: hark bere asturuaren jaun eta jabe utzi ni, eta nik zorigaitza ekarri hari? Arrenka ari zitzaidan laguntza galdez, eta nik urrikirik gabe behatu diot? Badakizu nire etsipena noraino hel daitekeen? Ez.

Nire oinazeak kalkulatzeko, behar zenuke jakin zenbateraino maite zaitudan, eta zuk ez duzu nire bihotza ezagutzen.

Zeren izenean sakrifikatzen nauzu? Amets-izuenean. Eta nork sortzen dizkizu? Biziki maite zaituen gizonak; sekula betiko guztizko jaun eta jabe zaituzkeen gizonak. Zeren beldur zara, zer beldur izan zeniezaioke betiere zeure gogara gidatzen ahalko duzun sentimendu bati? Zeure irudimenak mamuak sortu dizkizu ordea, eta mamu horiek eragin dizuten izua, zuk amodioari

egozten diozu. Fida zakizkit doi bat, eta mamu horiek desagertuko zaizkizu.

Jakintsu batek errana du ezen beldurak aienatzeko aski izaten dela ia beti beldur horien kausa sakontzea. Egia hori amodioan da batez ere baliagarria. Maita ezazu, eta izuak desagertuko zaizkizu. Beldurtzen zaituzten gauzen ordeztu, kausituko duzu sentimendu zoragarri bat, maitale amoltsu eta manukor bat; eta zure egun guztietan, oro zorionak markatuetan, egun batzuk ezaxolatasunean galdu izanaren damua baizik ez duzu izaneren. Nihaurk, nire hutsegiteez jabetu ondoren, amodioarentzat baizik existitzen ez naizenez geroztik, dolu dut ustez plazerretan emana nuen aldi hura; eta badakit soil-soilik zeure esku duzula ni zoriontsu egitea. Baina, arren otoi, zuri izkiriatzean kausitzen dudan plazerra ez beza gehiago zuri higuigarri gertatzeko beldurak asaldaraz. Ez dizut desobeditu nahi: baina, zure aurrean belauniko, halatan dizut fermu eskatzen edeki nahi didazun zoriona, utzi didazun bakarra; oihuka diotsut: entzun nire

otoitzak, eta beha nire malkoei; ah! Andrea, aienatuko nauzu?

*...tik, 17\*\*ko irailaren 7an.*

## **LIX. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Jakinaraz iezadazu, baldin badakizu, zer erran nahi duten Dancenyren zozokeria horiek. Zer gertatu da bada, eta zer galdu du? Bere eder hori haserretu zaio, menturaz, bere errespetu eternalagatik? Zuzen eta bidezko izatera, guhaur gutxiagogatik haserretuko ginатеke. Zer erranen diot gaur arratsaldean, hark galdatu eta nik zer gerta ere onartu diodan elkar ikustean? Hain segur ez dut neure denbora haren dolamenak entzuten galduko, baldin inora ez bagaramatza. Amodiozko negar kantuak ez dira errezitaldi derrigortuetan, edo arieta handietan baizik aditu behar. Jakinaraz iezadazu bada zer gertatzen den eta zer behar dudan egin; ihes eginen dut bertzela, alde z aurretik dakusadan asperraldia



saihesteko. Mintza ninteko zurekin gaur goizean? *Baldin zereginik* bazenu, izkiria bederen ele bat, eta emaizkidazu neure rolari dagozkion errepikak.

Atzo non zinen bada? Ezin erdiets dezaket zu ikustea. Egia erran, ez zuen merezi irailean Parisen atxiki nindezaten. Zerbait delibera ezazu beraz, zeren berriki hartu baitut B\*\*\*ko kondesaren gomit arras presatu bat, landaldera hura ikustera joateko; eta, guztiz modu atseginean mezutzen didan bezala, «haren senarrak munduko basorik ederrena omen du, adiskideen plazerretarako artoski zaindua». Beraz, dakikezunez badut zenbait eskubide baso horren gainean; eta baliagarria ez banatzaizu partituko naiz baso hori berriz ikustera. Adio, egizu kontu lau orenen inguruan Danceny nire etxean izanen dela.

**...tik, 17\*\*ko irailaren 8an.**

## LX. GUTUNA

DANCENY ZALDUNAK VALMONTEKO BIZKONDEARI  
(*Aurreko gutunean sartua*)

Ah! Jauna, etsi etsirik nago, oro galdu dut. Ez naiz ausartzen neure atsekabeen sekretua pape-rari fidatzera: baina atsekabe horiek adiskide fidel eta segur baten baitan isurtzeko premian naiz. Zer orenetan ikus zintzaket, eta joan nint-ke zure ondora kontsolamendu eta kontseilu galde? Hain nintzen zoriontsu arima ireki nizun egunean! Orain, alde ederra! Niretzat dena alda-tu da. Nihaur sofritzen ari naizena ez da nire oinaze minen zatirik ttipiena baizik; xede askoz maiteago batek sortzen didan kezka, horra ezin jasan ahal dudana. Ni baino zoriontsuagoa, zuk ikusten ahalko duzu nire Cécile, eta zure adiski-dantzatik igurikitzen dut ez diozula urrats horri uko eginen: zurekin mintzatu behar naiz ordea, neure berri behar dizut eman. Urrikalduko zatzaizkit, artatuko nauzu; zugan baizik ez dut esperantzarik. Sentikorra zara, amodioa ezagu-tzen duzu, eta zu zara fida nintekeen bakarra; ez niri uka zure artak.

Adio, jauna; zu bezalako adiskide bat gelditzen zaidala pentsatzea dut kontsolamendu bakarra neure oinazean. Jakinaraz iezadazu, arren otoi, zer orenetan kausi zaitzakedan. Gaur goizean ez bada, arratsaldean goizik izatea nahi nuke.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 8an.*

## **LXI. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Sophie maitea, urriki zakizkio zeure Cécileri, zeure Cécile gaixoari; zinez dohakabea da! Amak dena daki. Ez dezaket asma nola deusik susmatu ahal izan duen, eta hargatik ororen jakitun dago. Atzo arratsean, ama doi bat beltzurtua zela iruditu zitzaidan; baina ez nion kasu gehiegirik egin; eta jokoan noiz finituko zuten zain, poz-pozik solastatu nintzen Merteuil andrearekin, hemen afaldu baitzuen, eta anitz mintzatu ginen Danceny. Ez dut uste hargatik nehork entzun ahal izan zigunik. Merteuil

andreak alde egin zuen, eta ni neure gelara joan nintzen.

Eranzten ari nintzela, horra non ama nire gelan sartu zen eta nire gelazaina irtenarazi zuen; idazmahaiko giltza eskatu zidan. Halako doinuz eskatu ere, non hain dardara bortitzak jo baininduen ezen doi-doia egon bainintekeen zutik. Giltza aurkitzen ez nuelako itxurak egin nituen, baina obeditu behar izan nion azkenik. Zabaldu zuen lehen tiraderan, hantxe ziren hain zuzen ere Danceny zaldunaren gutunak. Hain nintzen asaldtu bizian, non amak zer ziren galde-tu zidanean, ezin izan bainion ez zirela deus bai-zik ihardetsi; baina lehenik egokitu zitzaion gutu-na irakurtzen hasia zela ikusi nuelarik, doi-doia izan nuen besaulki batera heltzeko parada, eta alditxartu nintzen kordea galtzeraino. Neure onera jin nintzen orduko, amak gelazaina deitu eta joan zen, ohera nendila erranez. Dancenyren gutunak oro eramanez. Dardarak hartzen nau haren aitzinean berriz agertu beharko dudala burura datorkidan bakoitzean. Gau osoan negarra baizik ez dut egin.

Argi azkorrian izkiriatzuten dizut, Joséphine jinen den esperantzaz. Baldin bakarka mintzatzuten ahal banatzaio, otoiztuko diot eraman diezaiola arren ohar ttipi bat Merteuil andreari; bertzela, zure gutunean sartuko dut, eta zuk zurea bailitzan igortzeko ontartea eginen didazu. Harengandik baizik ez nezake kontsolamendu doi bat har. Danceny mintzatuko gara bederen, zeren ez baitut hura gehiago ikustea igurikitzen. Arras dohakabea naiz! Eginen dit menturaz Dancenyri gutun bat eramateko ontarte handia. Ez naiz zeregin hori Joséphineri fidatzera ausartzen, eta are gutxiago neure gelazainari; zeren hura baita agian amari idazmahaian gutunik banuela erran diona.

Ez dizut gehiago izkiriatzeko, izan nahi baitut Merteuil andreari izkiriatzeko astia, eta halaber Dancenyri, nire gutuna prest edukitzeko, baldin atsegin handiz mandatu hori egin baliezat. Horren ondoren, berriz oheratzeko naiz, gelara sartzen direnek ohean kausi nazaten. Eri naizela erranen diet, amaren gelara joan behar izatetik begiratzeko. Ez dut gezur handirik erranen; segur baita sukarra izanik baino gehiago ari nai-

zela sofritzen. Sutan dauzkat begiak negar egi-  
tearen bortxaz; eta arnasa hartzen uzten ez  
didan halako zama bat dut urdailean. Danceny  
gehiago ikusiko ez dudala pentsatzetik beretik,  
hilik egon nahi nuke. Adio, Sophie maitea. Ez die-  
zazuket deusik gehiago erran; malkotan itoa bai-  
naiz.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 7an.*

## **LXII. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK DANCENY ZALDUNARI

Ama baten fidantziaz eta haur baten inozen-  
tziaz neurritz gain baliatu ondoren, jauna, ez  
zaitu harrituko, dudarik gabe, sekula gehiago  
onartua ez bazara adiskidantzarik egiazkoena-  
ren agerbideei zuk adeiak oro ahantzirik baizik  
erantzun ez diezun etxean. Nahiago dut gure  
etxera gehiago jin ez zaitezen zuri otoiztea,  
manu hori bera gure atean zuri ematea baino,  
zeren hori egiteak ber arriskuan ezarriko baikin-  
tuzke guztiok, sehiak nahitaez ohartuko litzaiz-

kiokeenez. Bide horretara behartuko ez nauzula igurikatzeko eskubide osoan naiz. Aldez aurretik gaztigatzen ere dizut ezen etorkizunean egin bazeneza murgildua duzun nahasmendu horri nire alaba atxikitzeiko entseiturik den mendrenik, bazterraldi latz eta eternal batek begiratuko duela nire alaba zure esetsaldirik. Zuri dagokizu, jauna, deliberatzea ea haren desohorea sortzera entseiatzeko izan duzun bezain beldur gutxi izan duzun haren zorigaitza halaber sortzeko. Nitaz den bezanbatean, egina dut hautua, eta jakinarazi diot alabari.

Gutun honekin batera kausituko duzu zeure gutunen paketa. Horren truk neure alabaren gutunak oro itzuliko dizkidazulakoan nago; bai orobat gertakari horren ezein arrastorik ez uztera prest izanen zarelakoan ere, zeren ezin haren oroitzapena gorde baikenenezake, nik sumindurarik gabe, hark ahalkerik gabe, eta zuk bihotz zimikorik gabe. Ohorez bainaiz, etab...

*...tik, 17\*\*ko irailaren 7an.*

## LXIII. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Argituko dizut, bai argitu ere, Dancenyren txartela. Izkiriarazi dion gertakaria nik obratua da, eta huraxe da, nire iduriko, nire maisu lanik handiena. Zure azken gutunaz geroztik ez dut astirik galdu, eta erran dut Atenaseko arkitektoak bezala: «Hark erran duena, nik eginen dut.»

Eragozpenak behar omen ditu beraz nobela heroï eder horrek, bozkarioan lokartua baita! O! Datorrela nigana, emanen diot zereginik; eta baldin oker ez banaiz, haren loak galdua duke jada sosegua. Denboraren prezioa behar zitzaion irakatsi, eta eginen nuke galdu duen hura deitoragarri zaiola orain. Misterio gehiagoren premian zela ere errana duzu; hots bada! Ez du sekula izanen premia horren eskasik. Horixe dut nik on; hutsegiteak ohartarazten dizkidatela, ez dut sosegurik hartzen harik eta dena konpondu dudaino. Jakin ezazu bada zer egin dudan.

Herenegun goizean etxeratu nintzelarik, zure gutuna irakurri nuen; argigarria iruditu zitzaidan. Gaitzaren kausa oso ongi adierazi zenuela irudi-



turik, bertze zereginik ez nuen, sendabidea kau-  
sitzea baizik. Hasteko oheratu nintzen haatik;  
zeren zaldun nekaezin hark ez baitzidan instant  
batez ere lo egiten utzi, eta logale nintzela uste  
bainuen: debaldetan ordea; Danceny baizik ez  
izaki gogoan, hura bere laxokeriatik atera  
nahiak, edo hari zigorra eman nahiak, ez zidan  
lokartzen utzi, eta harik eta neure asmoa ongi  
eratua nuen arte, ez nuen bi oreneko loa egin  
ahal izan.

Arrats hartan berean joan nintzen Volanges  
andrearen etxera, eta, neure asmoari jarraiki,  
fidatu nion segur nengoela ezen haren alabaren  
eta Dancenyren artean bazela harreman arrisku-  
tsu bat. Emakume hori, nahiz zure kontra gogo-  
arne izan duen, itsuturik zen hain segur, halako  
heineraino non hasieran erantzun baitzidan tron-  
patua nintzela, alaba haur bat zela, etab. Ez nion  
erraten ahal horretaz nekien guztia; aipatu niz-  
kion ordea behakoak, eleak, *nire bertutea eta  
nire adiskidantza asaldatzen zutenak*. Mintzatu  
nintzen azken batean kasik debot bat mintzo  
izan zitekeen bezain ontsa, eta, ukaldi erabaki-  
garria jotzeko, erran ere nion haren alaba gutun

bat eman eta hartzen ikusi uste nuela. Oroitzen naiz berebat, gaineratu nuen, nola behin batean bere idazmahaiko tiradera bat nire aitzinean ireki zuen, eta nola han paper anitz ikusi bainituen, dudarik gabe gordeak dituzkeenak. Bada-kizu gutunik maiz igortzen eta hartzen ote duen? Orduan Volanges andreari aurpegia aldatu zitzaion, eta malko bakan batzuk ikusi nizkion begietarik isurtzen. «Adiskide zintzoa, anitz esker», erran zidan, eskua tinkaturik, «argibideak hartuko ditut».

Susmagarria izateko laburregia izana zen elkarrizketa haren ondoren, neska gazteagana hurbildu nintzen. Berehala utzi nuen, alabaren aitzinean sala ez nintzan amari eskatzeko, eta hark zenbatenaz gogotsuago hitz eman zidan ez ninduela salatuko, hanbatenaz ohartu bainion ezen zorion handia litzatekeela ume hura nitaz aski fidaturik egotea, hala bihotza zabal zieza-dan eta egon nendin hari *nire kontseilu zuhurak* emateko helmenean. Ziur dakit hitza beteko didala, zeren ez baitut dudarik egiten bere burua nahiko duela ohoratu alabagan barneratua izanaren kariatara. Banuen, halatan, neska ttipi

harekin adiskidantzaren tankera gordetzeko bai-  
mena, iruditu gabe faltsu Volanges andrearen  
aitzinean; hain zuzen ere saihestu nahi nuena.  
Ondorioz, erdiesten nuen orobat neskaxa gazte  
harekin nik nahi bezain luzaz eta sekretuki ego-  
tea, amak sekula deus susma ziezaion gabe.

Gau hura bera baliatu nuen horretarako; eta  
jokoa bukatu ondoren, neska ttipia hegi batean  
bakartu, eta Dancenyren hizpidera ekarri nuen,  
nahiz beti ahotan duen. Libertitzen nintzen biha-  
ramunean Danceny ikusirik izanen zuen plaze-  
rraz hari burua beroturik; zenbat erokeria ez ote  
nion erranarazi. Esperantzaz behar nion itzuli  
egiaz edekitzen niona; eta horrek guztiak kolpea  
areago minberatuko zion halaber, eta uste osoan  
naiz ezen zenbatenaz sofrituko baitu, hanbate-  
naz lehiatuko dela lehen okasioan bere buruari  
sofrimendu horren ordaina ematera. On da, ber-  
tzalde, abentura handietara bideratu dugun nor-  
bait urrats handietara ohitzea.

Azken buruan, ezin malkoz ordain lezake  
bere Danceny edukitzeko plazerra? Burua gal-  
dua du harentzat! Hots bada, hitz ematen diot  
Danceny edukiko duela, bai ekaitz hori gabe

baino askoz ere lehenago eduki ere. Ameskaitz bat da, iratzartze zoragarri bat dukeena; eta, oro har, esker ona zor didala iruditzen zait: guztiarekin ere, maltzur samar jokatu badut, libertitu beharrez izan da:

*Hona hemen behean ergelak  
gure plazer ttipietarako.*

Gelaratu nintzen azkenik, neure buruaz bozkario handitan. Edo Danceny, erraten nuen neure baitan, eragozpenek suhartua, amodioz sutuko da, eta orduan neure ahal guztiaz diot zerbitzatuko; edo ergel hutsa baizik ez baldin bada, nik batzuetan sinesteko tentazioa dudan bezala, etsirik dateke, eta garaitutzat duke bere burua: beraz, kasu horretan, harez mendekatua ninteke bederen, nire esku zen bezainbat; bide-nabar, amaren estimua, neskaren adiskidantza, eta bi-bion fidantzia neure aldera areagotuak dituzket. Gercourtez den bezanbatean, hura baitut neure eginahalen lehen xedea, arras malurosa edo arras moldakaitza nintzateke, baldin haren emaztearen izpirituaren gidari naizen hei-

nean, hala bainaiz orain eta areago izanen aurretantzean, kausi ez banitza mila bide hura neure nahierara erabiltzeko. Gogoeta ezti horiek lagun oheratu nintzen; lokartu nintzen beraz, eta berandu samar jaiki.

Iratzarri nintzelarik, kausitu nituen bi txartel, amarena bata, eta alabarena bertzea; eta ez nion barre algarari eutsi ahal izan, kausiturik bi txarteletan perpaus hauxe bera hitzez-hitz emana: *Zugandik baizik ez dut igurikitzen kontsolaziorik*. Ez dea irrigarria alabaina alde eta kontra kontsolatzea, eta bi interes erabat kontrakoen eragile bakarra izatea? Horra non Jainkoa iduri nuen; elkarren kontrako nahiak hilezkoritsuengandik harturik, eta nire manu mudaezinak fitsik ez aldaturik. Bazter utzi nuen haatik rol goresgarri hura, aingeru kontsolatzailearena hartzeko; eta joan nintzen neure adiskide atsekabetuei ikustaldi bat arauari jarraiki egitera.

Amagana joan nintzen lehenik; hain zen biziki penatua, non jadanik mendekatua baitzara alde zure debot eder horren bitartez jasanarazi dizkizun atsekabeez. Dena ezin hobeki atera da: bertze kezkarik ez nuen, Volanges andreak une

hori alabaren fidantzia bereganatzeko baliatuko ote zuen baizik; oso erraza zatekeena, ez erabiliz harekin eztitasunaren eta adiskidantzaren mintzaira baizik; eta arrazoiaren kontseiluei emanik, amoltsutasun bihozberaren doinua eta moldea. Beharrik zorroztasunari atxiki zitzaion; hain zuen gaizto jokatu, non hari txalo jo baizik ez nezakeen egin. Egia da gure asmo guztiak deuseztea bururatu zaiola, alaba komentura berriz sarrarazteko xedea harturik: ukaldi hori gibelarazi dut ordea; eta harrarazi diot alabari soilik mehatxua egiteko deliberoa, baldin Dancenyk neskari esesten jarrai baleza: bi-biak behartzen ditut halatan erdietsi ahal izateko nire ustez beharrezkoa den begiramenaz jokatzera.

Alabagana joan nintzen gero. Ezin sinetsiko zenuke oinazeak zenbatez edertua zuen! Doi bat ere baledi pinpirin, zinez diotsut usu egingen duela negar: oraingoan, maleziarik gabe ari zen negarrez... Dohain edergarri berri hark biziki hunkitua, hari gogobeterik so, hasieran ez nizkion kontsolamendu moldakaitzak baizik eman, penak arindu orde, penak handitzen dituzten horietakoak; eta, bide horretatik, zinez itotzeko

heineraino eramán nuen. Ez zen jadanik negarrez ari, eta une batez dardaraldi baten beldurrez egon nintzen. Oheratzea kontseilatu nion, eta hala egin zuen; gelazain gisa baliatu ninduen: artean garbiketa egin gabe zuen, eta berehala adatsak nahasian barreiatu zitzaizkion sorbalda zein lepo biluzietan behera; besarkada bat eman nion; bere burua nire besoen baitan utzia zuen, eta baratxe-baratxe hasi zen berriz negar malkotan. Jainkoa! Zeinen eder zegoen! Ah! Baldin Madalena horrelakoa bazen, arrisku-tsuagoa izan behar zuen penitente gisa bekatari gisa baino.

Eder abaildu hura oheratu zen orduko, onez onean hasi nintzaion kontsolatzen. Lehenik komentuarien beldurretik lasaitu nuen. Danceny ezkutuan ikusteko esperantza sorrarazi nion; eta ohean eseriz, erran nion: «Hura hemen balitz»; gero sujet horren gainean hitz goxoak erranez, eramán nuen, libertimenduz libertimendu, atsekabetan zela arras ahanzteraino. Bozkarioz beterik bereiziko ginатеkeen bata zein bertzea, baldin Dancenyri eman nahi zion gutun bat nire esku utzi nahi izan ez balu; nik ordea behin eta

berriz ukatu nion. Hona arrazoiak, ontzat hartuko baitituzu dudarik gabe.

Hasteko, neure burua Dancenyri buruz arriskutan jartzea zelako; eta hura izanagatik neska ttipi harekin balia nezakeen arrazoi bakarra, zu eta bion artean baziren bertze anitz gehiago. Ez litzateke nire lanen fruitua arriskatzea, gure gazteei beren penak leuntzeko baliabide guztiz erraz hura berehala ematea? Eta ez ninduke halaber samurtuko gure bikote hori abentura horretan zerbitzari batzuk nahastera behartua izatea; zeren azken finean abentura hori ongi bukatzen bada, igurikitzen dudan bezala, ezteiak egin ahala beharko da haren berri eman; eta berri bat zabaltzeko bide gutxi dago hori baino ziurragorik; edo, baldin mirakuluz hitzik erranen ez balute, guhaur mintzatuko ginateke orduan, eta erosoagoa izanen da guretzat zuhurtziagabekeria hori gazteen gain ematea.

Beraz gogoeta hori gaur beharko diozu egin Dancenyri; eta ez bainaiz fidatzen Volanges ttipiaren gelazainaz, eta hura ere ez bide baitzaio fidatzen, aipa iezaiozu nirea, nire Victoire fidela. Ni arduratuko naiz urrats hori ongi hel dadin.



Idea hori hanbatenaz zait laketago, non sekretua guri baizik ez baitzaigu baliatuko, eta ez haiei: zeren ez bainaiz neure kontakizunaren bukaerara heldu.

Neska ttipi horren gutuna neure gain hartzetik begiratzen ari nintzelarik, unetik unera beldur nintzen ez ote zidan postara eramatea proposatuko; horri ezin bainion uko egin. Beharrik, dela durduzaturik zelako, dela ezjakitun zegoelako, edo atxikiagoa zelako erantzunari gutunari bera-ri baino, eta bide horretarik ezin eskura baitzeza-keen, ez zidan deusik aipatu: baina ideia hori burura ez zekion, edo balia ahal ez zezan bederen, xede bat hartu nuen berehala; eta amagana itzulirik, harrarazi nion alaba aldi baterako urruntzeko, landara eramateko deliberoa... Eta nora? Bihotza ez zaizua bozkarioz taupadaka ari?... Zure izebaren etxera, Rosemonde xaharraren etxera. Gaur mezutuko dio: hor duzu beraz zure debotagana berriz biltzeko baimena, zeinak ezin egotziko baitizu berarekin topo- z topo egin izana- ren eskandalurik, eta nire ardurari esker, Volanges andreak berak konponduko du egina dizun makurra.

Entzun ordea, eta ez zure aferak horrenbertze zaindu non honako hau bistatik gal dezazun; egizu kontu interesatzen zaidala. Bi gazteen bitarteko eta kontseilari bihur zaitezten nahi dut. Mezutu bada bidaldi hori Dancenyri, eta eskain zure zerbitzuak. Ez duzu eragozpenik izanen, zure aurkezpen gutuna eder horren eskuetara helarazteko ez bada; eta eragozpen hori berehala suntsi ezazu, neskatila horri nire gelazainaren baliabidea jakinaraziz. Dudarik ez da onartuko duela; eta zeure eginahalen sari, bihotz berri baten isilmandatua izanen duzu, interesgarria izaten baita betiere. Gaixoa neskatila! Nola ahalke gorrituko den bere lehen gutuna zuri emanik! Egia erran, isilmandatariaren egiteko hori, nahiz aieruzko ustez gaitzetsia izaten baita, arras jostaldi polita iruditzen zait, horrez gain zereginik izanez gero; eta hori bera izanen da zure kasua.

Azpijoko horren bilakaera zure arduren esku dago. Zuk erabaki jokalaria noiz bildu. Landak mila bide eskaintzen ditu; eta Danceny segurki prest dagoke zuk mezutu orduko hara biltzeko. Gau bat, mozorro bat, leiho bat... nik dakita? Baina hala ere, baldin neska ttipi hori joan den

bezalaxe itzultzen bada handik, zure gain emanen dut. Baldin antzeman bazeneza nik adore pixka bat ematea behar duela, mezutu niri. Aski ongi irakatsi uste diot gutunak gordetzeak dakarren arriskua, beraz, ez da orain ausartuko muti-lari gutunik izkiriatzera; eta neskatila hori nire ikasle egiteko xedeari atxikia jarraitzen dut halaber.

Ahantzi bide zait zuri erratea ezen bere gutunak traditu izanaren susmoak hasieran gelazainari egotzi zizkiola, eta nik kofesoragana bideratu dizkiodala. Horra harri batez bi kolpe egitea.

Adio, bizkonde; anitz denbora badu izkiriatzten ari natzaizula, eta bazkaria berandutu zait: baina neure buruari diodan maitasunak eta adiskidantzak didate gutun hau diktatu, eta biak berritsuak dira. Bertzenaz, hiru orenen inguruan Danceney zure etxean izanen da, eta hori da jakin behar duzun guztia.

Egizu orain nitaz deitore, baldin ausartzen bazara; eta zoaz, baldin tentaturik bazaude, B\*\*\*ko kondearen basoa hartzara ikustera. Adiskideen plazerrerako gordea omen duela diozu!

Gizon horrek mundu guztia ote du bada adiskide? Adio beraz, gose naiz.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 9an.*

## **LXIV. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK VOLANGES ANDREARI  
*(Bizkondeak markesari izkiriaturiko  
LXVI. gutunari atxikitako zirriborroa.)*

Nire jokabidea justifikatu nahi izan gabe, andrea, eta zurea deitoratu gabe, atsekabetua baizik ez ninteke izan asturu hobe merezi duten hiru presuna nahigabetu dituen gertakariaz. Are sentikorragoa bainaiz nahigabe horren eragile izatearen xangrinari, sortu didan kaltearen xangrinari baino, sarri entseiatu izan naiz, atzodanik, ohorez zuri ihardestera, indarrik orde ezin kausiturik. Haatik horrenbertze gauza erran behar dizkizut, non biziki ahalegindu behar baitut zuri ihardestera; eta baldin gutun honek ordenamendu eta segida gutxi badu, aintzat behar duzu hartu zeinen dolugarria den nire egoera, doi bat bihozbera izan ahal zaitezen nirekin.

Lehenik utz nazazu zeure gutuneko lehen perpausari aihertzen. Ez dut neurritz gain baliatu, erratea zilegi izan bekit, ez zure fidantzia ez Volanges andereñoaren lañotasuna; bata zein bertzea errespetatu ditut neure eginetan. Soilik horiek ziren nire esku; eta gogoz bertzerako sentimendu baten erantzutea eginen bazenit ere, beldurrik gabe erranen dut halaber Volanges andereñoa zure alabak sorrarazi didana halako gisakoa dela, non higuina sor baitiezazuke, baina ez diezazuke laido egin. Adieraz diezazukedana bainoago hunkitzen nauen sujet horren karietara, soilik zu nahi zaitut juje, eta soilik nire gutunak lekuko.

Debekatzen didazu gaurdanik aitzina zure etxean agertzea, eta dudarik gabe men eginen diot sujet horren karietara manatu nahiko didazun orori: baina nire ausentzia bet-betako eta erabateko horrek ez ote die elepide gehiago emanen saihestu nahi dituzun esamesei, zeure etxeko atarian arrazoi horregatik beretik eman nahi izan ez dizkidazun manuek baino? Puntu horrez den bezanbatean hanbatenaz setatsu nahi dizut ohartarazi, zenbatenaz baita garran-

tzitsuagoa Volanges andereñoarentzat niretzat baino. Arren otoi arreta handiz haztaka itzazu beraz gauza guztiak, eta ez utzi zure zorroztasunari zure zuhurtzia aldatzen. Uste osoan bainaiz soil-soilik zeure alaba andereñoagana duzun interesak harraraziko dizkizula zeure deliberoak, zeure manu berrien zain edukiko nauzu.

Nolanahi ere, baldin emanen bazenit zuri noizbehinka diosal egitera joateko baimena, hitz ematen dizut, andrea, (eta nire hitzari egon zaitetzke), ez natzaiola okasio horiez neurritz gain baliaturik Volanges andereñoari bakarka mintzatu, edo hari gutunik ematera entseiatuko. Haren omena arriskutan jarri ahal izateko beldurrak sakrifizio horretara estekatzen nau; eta hura noizean behin ikusi izanaren bozkarioa duket sakrifizio horren ordaina.

Nire gutuneko atal hori da orobat Volanges andereñoarentzat prestatua duzun eta nire jokabidearen arabera deliberatuko bide duzun asturuaz den bezanbatean zuk erraten didazunari eman diezaiokedan erantzun bakarra. Seduzitzaile zital bat ari izaten ahal da egoera nolako xedea halako, eta kalkulatzeko ahal du gertaka-

rien arabera: baina gogoberotzen nauen amodioaren kariatara bi sentimendu baizik ez zaizkit haizu: kuraia eta jarraitasuna.

Nork, nik! Volanges andereñoak ahanzt nagan onartu, nihaue hura ahanzt dezagan onartu? Ez, sekula ez! Leiala izanen natzaio; hartua du zin hori, eta egungo egunean berriz ere dagiot. Barka, andrea, desbideratzen naiz, natorren neure baitara.

Badut oraino bertze puntu bat zurekin solastatzeko, erran nahi baita, eskatzen dizkidazu gutunena. Zinez penatzen nau bertze uko bat erantsi beharrak dagoeneko kaunituak dizkidazu hutsegiteei: baina, arren otoi, entzun nire arrazoiak, eta oroit ezazu, otoi, on iruditu ahal dakizkizun, zure oniritzia gordetzeko esperantza dela zure adiskidantza galdu izanaren atsekabea kontsolatzeko era bakarra.

Volanges andereñoaren gutunak, nireztat betiere arras baliosak, are dira baliosagoak une honetan. Gutun horiek dira gelditzen zaidan ondasun bakarra; soilik haiek irudikatzen didate oraino nire bizitza edertzen duen sentimendua. Haatik, sinets nazakezu, ez nuke instant batez

ere dudatuko sakrifizio hori zuri eskaintzeaz, eta gutun horiez gabetua izanaren doluak amore emanen lioke zuri dizudan begirunezko adeia zuri frogatu nahiari; zernolako ahaltsuek bararazten naute ordea, eta segur naiz zuhaurk ere ez dituzula gaitzetsiko.

Jakina zara, egia da, Volanges andereñoaren sekretua; baina utz nazazu erraten ezen zilegi zaidala sinestea sekretu hori fidantziaren ondorioa izan ordez ustekabearen ondorioa izan dela. Ez dut gaitzetsi nahi ama baten arretari, ausaz, zilegi zaion deliberorik. Zure eskubideak errespetatzen ditut, ez ordea nire betebeharratarik salbuetsia izateko heineraino. Gure baitan jarria den fidantzia sekula ez traditzea da ordea esku-biderik sakratuena. Fidantzia horri huts egitea litzateke zure alabak soilik nire begien aurrean erakutsi nahi izan dituen sekretuak bertze norbaiten behakoen mende uztea. Baldin zure alaba andereñoak sekretuok zuri fidatu nahi balizkizu, mintza bekizu; haren gutunak alferrik dituzu. Baldin bere sekretua, aitzitik, bere baitan hertsiki gorde nahi baleza, ez duzu igurikiko, dudarik gabe, nihaurk jakinaraziko dizudanik.



Gertakari hori misterioan bildua gordetzeko zure desiraz den bezanbatean, zaude lasai, andrea; Volanges andereñoaren onerako izanen den orori dagokionez, erronka jo diezaioket ama baten bihotzari berari. Zugandik kezka oro betiko aiena dezadan, oro dut aldeaz aurretik prestatua. Orain arte izenburua *erretzeko paperak* zuen gordailu arras balios horrek *Volanges andrearen paperak* du orain izenburu. Hartua dudana xede horrek frogatu behar dizu halatan, nire ukoak ez dituela sortu zuk gutun horietan deitoraz zenezakeen ezein sentimendu kaustikoa duzun beldurra.

Horra, andrea, gutun arras luzea. Ez litzateke sobera luzea, baldin duda izpirik utziko balizu nire sentimenduen zintzotasunaz, zu atsekabetu izanaren damu hagitik zinezkoaz, eta zuri dizudan errespetu sakonaz, haiekin bateginik ohorez bainaiz, etab...

*...tik, 17\*\*ko irailaren 9an.*

# LXV. GUTUNA

DANCENY ZALDUNAK CÉCILE VOLANGESI

*(Bizkondearen LXVI. gutunean*

*Merteuileko markesari zabalik igorria).*

O, nire Cécile, zer izanen da gutaz? Zein Jainkok salbatuko gaitu mehatxatzen gaituzten atsekabeetarik? Amodioak demaigula bederen atsekabe horiek paira ahal izateko kuraia! Nola irudika zuri nire harridura, nire etsipena, nire gutunak ikusirik, Volanges andrearen txartela irakurririk? Nork traditu ote gaitu? Noren susmoa duzu? Zuhurtziagabekeriaren bat egin ote duzu? Zer ari zara orain? Zer erran dizute? Oro nahi nuke jakin, eta fitsik ere ez dakit. Zuhaur ez zaude menturaz ni baino jakitunago.

Zeure amaren txartela eta nire erantzunaren kopia igortzen dizkizut. Erran diodana onetsiko duzulakoan nago. Behar-beharrezkoa dut zorigaiztoko gertakari horren ondoren egin ditudan urratsak halaber onets ditzazun, horien guztien xede bakarra da zure berri izatea, nire berri zuri ematea; eta, nork daki? menturaz zu berriz ikus-

teko, eta nehoiz baino libroago ikusteko xedea ere.

Irudika dezakezu, Cécile nirea, zer plazerra gu biok berriz elkarrekin egonik, elkarri amodio eternala berriz zin eginik, eta gure begietan ikusirik, gure arimetan sentiturik zin hori ezin litekeela engainatzailea izan? Hain une eztiak zein pena ez lituzke ahantzazaziko? Hots bada! Uste osoan naiz horiek oro ernaltzen ikusteaz, eta uste hori zor diet arren otoi onets ditzazun eskatzen dizudan urrats horiei berei. Zer diot ordea? Adiskiderik amoltsuenaren arta kontsolagarrirei zor diot; eta nire galde bakarra da utz diezaiozun adiskide horri zure adiskide ere izaten.

Menturaz ez nuke zure fidantzia zure baime-nik gabe eman behar? Zorigaitza eta premia ditut ordea estakuru. Amodioa da gidatu naue-na; amodioa da bihozberatasuna fermuki galdatzen dizuna, behar-beharrezko isilmandatu baten barkamen eske datorkizuna, hura gabe beharbada elkarrengandik urrundurik baikinatenke betiko. Aipatzen dizudan adiskide hori ezagutzen duzu; gehien maite duzun emakumearen adiskidea da. Valmonteko bizkondea da.

Nire lehen xedea, hari mintzaturik, zen hari otoiztea bil zezan Merteuil andrea nik zuri izkiria-turiko gutun bat bere gomendio hartzera. Valmont jaunak ez du uste izan bide hori ondo atera litekeenik; baina etxekoandrearen despit, haren gelazaina jartzen du berme, zorretan omen dauka eta. Hark igorriko dizu gutun hau, eta hari eman ahal izanen diozu erantzuna.

Laguntza hori ez zaigu baliagarria izanen, baldin, Valmont jaunak uste duen bezala, landa-ra partitzen bazara berehala. Baina orduan berak nahi gaitu zerbitzatu. Zu zoazen etxeko emakumea ahaidea du. Estakuru hori baliatuko du zu helduko zaren tenore berean heltzeko; eta haren bitartez iraganen dira gure arteko gutunak oro. Erraten du orobat ezen, baldin gida zaitzan uzten badiozu, hark erdietsaraziko dizkigula elkar ikusteko bideak, zuk batere arriskurik izan dezazun gabe.

Orain, Cécile nirea, baldin maite banauzu, baldin nire malura deitoratzen baduzu, baldin, uste osoan naizen bezala, nire dolua zeure egi-ten baduzu, zeure fidantzia ukatuko diozu geure aingeru begiralea dukegun gizonari? Hura gabe,

etsipenean eroria nintzateke, sortu dizkizudan atsekabeak leundu ahal ez izateko heineraino. Atsekabe horiek finituko dira, ziur naiz: baina, adiskide amoltsua, hitz emaidazu ez dituzula atsekabe horiek sobera aintzat hartuko, ez dizutela berebat lur joaraziko. Zure oinazean pentsatzea jasan ezin ahala dolugarria zait. Bizia emanen nuke zu zoriontsu izan zintezan! Ontsa daki-  
zu. Aileza biziki maitatua izatearen segurantzak zure arima doi bat kontsola! Amodioak sofriarazten dizkizun gaitzak barkatzen dizkiozulako segurantzaren beharretan dut nik neurea.

Adio, Cécile nirea, adio, adiskide amoltsua.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 9an.*

## **LXVI. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Honekin batera doazkizun bi gutunak irakurririk, ikusiko duzu, adiskide eder horrek, ea ontsa bete dudan zure asmoa. Nahiz biak egungo data ezarria duten, biak dira atzo izkiriatuak, nire etxean, eta nire begien aurrean: neska tti-

piari izkiriaturikoak guk nahi genuen guztia erra-  
ten du. Ez ninteke apaldua baizik egon zure so-  
sakonaren aitzinean, baldin zure urratsen arra-  
kastagatik jukatzen badut. Danceny dena suhar-  
da; eta hain segur lehen okasioan, ez diozu liskar  
gehiagorik egin beharko. Baldin haren neskatxa  
eder maleziarik gabea manukor nahi bazaio izan,  
oro finitua dateke landara heldu eta berehala;  
baditut ehun baliakizun prest. Zure ardurei esker  
horra non zinez naizen *Dancenyren adiskidea*,  
*Printze* izatea baizik ez du eskas.

Oso gaztea da oraino Danceny hori! Sinesten  
ahal zenuke ezin izan dudala harengandik erdie-  
tsi eman diezaion amari amodioari uko egin dio-  
lako hitza; non eta hitz emateak trabarik bailu-  
keen, hartua delarik hitza ez betetzeko delibe-  
roa! Engainua litzateke, errepikatzen zidan eten-  
gabe: herabekeria hori ez dea onbidetsua, batez  
ere neska nahirik seduzitu? Horra gizonak! Guz-  
tiak oro gaiztaginak haien xedeetan, xede horiek  
ahuldadez obratu izanari deitzen diote prestuta-  
suna.

Zuri dagokizu gure gazte horrek zilegi iruditu-  
rik bere gutunean egin dituen lerratze ttipiek

Volanges andrea izu dezaten eragozte; libra gaitzazu komentutik; entseia zaitez orobat neska ttipi horren gutunen galdea gibelaraztera. Hasteko, ez dizkio bihurtuko, ez dizkio eman nahi, eta ni iritzi berekoa naiz; amodioa eta arrazoia ados dira hemen. Irakurri ditut gutun horiek, irentsi dut gutunok sortzen duten asperra. Balia-garriak gerta dakizkiguke. Horra zergatik.

Afera honetan zuhur jokatuagatik, eskandalurik gerta liteke; eskandaluak ezteiak eragotz litzake, ez dea egia, eta Gercourtentzat ditugun xedeak oro ustel gertarazi? Baina nola ni, bertalde, amaz behar bainaiz mendekatu, neurentzat atxikitzen dut kasu horretan neska desohoratzea. Gutun sorta horretan ontsa hautatuz gero, eta argitara ez emanik parte bat baizik, iduri luke Volanges ttipiak eginak lituzkeela aitzin urratsak oro eta mutila begiz jo eta hari lasterka oldartua zaiola. Gutun bakan batzuek ama ere jar lezakete arriskuan, eta haren omena barkaezinezko laxokeriaz bederen *belztu*. Bada-  
kit Danceny herabekeriez bete hori irauliko litzatekeela hasieran; baina zuzenean berari erasoko ziotenez, azkenik onartuko lukeela uste dut. Mila

eta bat jokatuko nuke zoria ez zaigula gisa horretan bertzeratuko; oro behar da ordea aldezturirik ikusi.

Adio, adiskide ederra; oso atsegina zinateke bihar \*\*\*ko mariskalaren emaztearen etxera afaltzera jinen bazina; ez nion ukatzen ahal.

Badakit ez dizudala kontseilatu beharrik landara joateko nire xedea ezkutuan gorde diezaiozun Volanges andreari; berehala hartuko bailuke hirian gelditzeko xedea: landara heldu orduko, aldiz, ez da biharamunean itzuliko; eta baldin ematen badizkigu soil-soilik zortzi egun, ni izanen naiz ororen erantzule.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 9an.*

## **LXVII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VALMONTEKO BIZKONDEARI

Ez nizun gehiago ihardetsi nahi, jauna, eta une honetan sentitzen ari naizen asaldua bera dut beharbada alabaina ihardetsi behar ez nizulako froga. Nolanahi ere ez dizut eman nahi nitaz



deitoratzeko ezein arrazoirik; sinetsarazi nahi dizut egin nezakeen guztia egin dudala zugatik.

Niri izkiriatzeko baimena eman nizula diozu? Ados naiz; baina baimen hori oroitarazten dida-zularik, uste duzu ahanzten dudala zein baldin-tzatan eman zitzaizun? Baldin iraun izan banu neure hitzari leial zuk zeureari leial iraun duzun bezain gutxi, hartuko ote zenuke nigandik eran-tzun bat bakarra ere? Hona haatik hirugarrena; eta zu gure arteko gutun harremana haustera ni behartzeko behar den guztia egiten ari zaren bitartean, nihaur ari naiz harreman horri eusteko bideez arduratzen. Bada bide bat, bakarra da ordea; eta baldin bide hori hartzeari uko egiten badiozu, aise frogatuko didazu orduan, zuk zer-nahi erran ere, arrunt apalesten duzula.

Bazter utz ezazu bada aditu nahi ez dudan eta aditzen ahal ez dudan mintzaira hori; egiozu uko laidotzen eta izutzen nauen sentimendu horri, zeinari, menturaz, gutxiago atxikia egon behar zenukeen, pentsaturik hura dela elkarren-gandik aldentzen gaituen behaztopa. Sentimen-du hori ote da bada ezagut dezakezun bakarra, eta amodioari erantsi behar ote diot halaber

adiskidantza baztertu izanaren hutsegitea? Sentimendu amoltsuagoak opa izan dizkiozun presuna hori bera adiskidetzat ez hartzeko hutsegite hori ere egin ote duzu? Ez dut hori sinetsi nahi: ideia umiliagarri horrek irauliko ninduke, zugandik ninduke sekula betiko urrunaraziko.

Nire adiskidantza zuri eskainirik, jauna, ematen dizut neure baitan dudan guztia, balia dezakedan guztia. Zer gehiago desira dezakezu? Sentimendu hain ezti, nire bihotzarentzat hain egoki horri men egiteko, ez dut zure baimena baizik igurikatzen; eta zugandik fermuki galdatzen dudan hitza halaber, erran nahi baita, zure zorionak nire adiskidantza askietsiko duela. Erran ahal izan didaten guztia dut ahantziko; eta nire hautua justifikatzeko ardura zure esku utziko.

Ikusten duzu egiaz mintzo natzaizula, eta fida natzaizula behar dizu horrek frogatu; fidantzia hori areagotzea soil-soilik zuri dagokizu: baina alde zuri aurretik har ezazu gaztigu: amodiozko lehen eleak betiko suntsituko du nire fidantzia, eta berriz sortuko dizkit neure beldurrak oro; oroz gain zuri buruz isiltasun eternala gordetzea seinalea izanen da niretzat.

Baldin, zuk diozun bezala, zeure *hutsegiteak aintzat hartu badituzu*, ez ote duzu nahiago emakume zintzo baten adiskidantzaren xede izatea, emakume errudun baten damuen kausa izatea baino? Adio, jauna; ulertuko duzu ezen horrela mintzatu ondoren ezin erran dizudala gehiagorik zuk ihardets diezadazun arte.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 9an.*

## **LXVIII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Nola ihardetsi, andrea, zure azken gutunari? Nola ausartu egiaz mintzatzera, egiaz mintzatzeari zure aitzinean gal nazakeelarik? Ez dio axolarik, egiaz behar natzaizu mintzatu; hartuko dut kuraia. Neure buruari erraten diot, errepikatzen diot, gehiago balio duela zu merezitzeak, zu neretzeak baino; eta nahiz nik etengabe desiraturiko dudan zoriona zuk beti ukatzen didazun, froga diezazudan bederen nire bihotza zorion hori merezitzeko gai dela.

Zer ondiko handia nik, zuk diozun bezala, *neure hutsegiteak aintzat hartu izana*. Zer nola-ko bozkariozko gainezkaldiaz irakurriko nukeen egungo egunean ihardesteko beldurrez naukan gutun hori bera! *Egiaz mintzo omen zara, fida omen zatzaizkit, zeure adiskidantza* didazu azkenik eskaintzen: zenbat ontasun, andrea, eta ondikotz ezin haiez baliatu! Zergatik ez naiz jada lehen nintzen berbera?

Baldin huraxe berbera banintz alabaina; baldin ez banu zugana jaidura arrunt bat baizik, sedukzioaren eta plazerraren kumea den jaidura arin hori baizik, egun haatik amodioa deitzen zaiona, lehiatuko nintzateke erdiets nezakeen guztiaz probetxu hartzera. Baliabideetan zakar, garaipena ekarriko lidaketen heinean, zure egia-tasuna adoretuko nuke zu igertzeko premia; zure fidantzia desiratuko nuke, hura traditzeko xedez; zure adiskidantza onartuko nuke, hura suntsitzeko esperantzaz... Zer! Andrea, irudi horrek izutzen zaitu?... Hots bada! Nire arabera egina litzateke haatik, baldin soil-soilik zure adis-kide izatea onartzen dudala erranen banizu...

Nork, nik! Zure arimatik isuritako sentimendu bat bertze norbaitekin batera gozatzea onartu nik? Nehoiz hori erraten baldin badizut, ez sine-tsi gero. Une horretatik bertatik zu tronparazten ariko nintzateke; desiratzen ahal zintuzket orai-no, baina hain segur ez zintuzket jadanik maita-tuko.

Ez hain zuzen egitasun atsegina, fidantzia eztia, adiskidantza sentikorra balioesten ez ditu-dalako... Amodioa ordea! Amodio benazkoak, zuk sorrarazi didazunaren gisarakoak, biltzen dituelarik sentimendu horiek guztiak, ematen dielarik indar gehiago, ez lekike makurtzen, horiek bezala, konparazioei bide ematen dien, lehentasunak onartzen ere dituen lasaitasun horretara, arimaren hoztasun horretara. Ez, andrea, ez nauzu adiskide izanen; maiteko zaitut amodiorik amoltsuenaz, bai suharrenaz ere, nahiz hargatik errespetuzkoenaz. Amodio hori etsiaraz zenezake, ez duzu ordea suntsitzen ahalko.

Zein eskubidez nahi duzu izan begirunezko eskaintzak ukatzen dizkiozun bihotz baten jabe? Krudelkeria ezinago handiz, zergatik zaude zu

maitatzeak sortzen didan zorionaren bekaitzez? Zorion hori nirea da, zugandik bereiz dago; jakin-nen dut defendatzen. Baldin neure maluren sor-buru badut, orobat dut haien sendabide.

Ez, berriz ere diot, ez. Seta zaitez zeure uko krudeletan; baina utz iezadazu neure amodioa. Plazer duzu ni malurtzen! Hots bada! Hala biz; entseia zaitez nire kuraia akitzera, bai baitakiket bederen nire asturua erabakitzen zu nola behar-tu; eta menturaz, egunen batean, zuzen eta bidezkoago izanen zara nirekin. Ez uste iguriki-tzen dudarik zu noizbait sentikor bihurtzea: baina nire nahira erori gabe, nire iritzira bildua izanen zara azkenik, erranen duzu zeure baitan: gaizki jujatu nuen.

Hobeki erran, zeure buruarekin zara bidega-be. Zu ezagutu eta ez maitatzea, zu maitatzea eta jarraikia ez izatea, bi-biak dira berebat ezi-nezko gauzak; eta apaingarri jarria duzun xalota-suna gorabehera, errazagoa bide zaizu kexa-tzea, sorrarazten dituzun sentimenduei mira egi-tea baino. Nitaz den bezanbatean, zu ederretsi izana baitut merezimendu bakarra, ez dut mere-zimendu hori galdu nahi; eta jukutriazko zure

eskaintzei men egitetik urrun, zure oinetan  
berriz dagit zu beti maitatzeko zina.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 10ean.*

## **LXIX. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK DANCENY ZALDUNARI

*(Lapitzez izkiriaturiko txartela, eta Dancenyk  
berriz kopiatua.)*

Zertan ari naizen galdegiten didazu; maite zaitut, eta negar dagit. Amak ez dit hitz egiten; papera, lumak eta tinta edeki dizkit; lapitz batez ari naiz baliatzen, beharrik gordea nuen, eta zeure gutunaren puska baten gainean izkiriartzen dizut. Egin duzun guztia zinez behar dut onetsi; sobera maite zaitut zeure berri izateko eta neure berri zuri emateko bide guztiak ez baliatzeko. Ez nuen Valmont jauna maite, eta ez nuen uste hain adiskide mina zenuenik; saiatuko naiz jaun horrekiko harremanera ohitzen, eta maiteko dut zu zaitudala kausa. Ez dakit nork traditu gaituen; nire gelazaina edo nire kofesora baizik ezin dai-  
tezke izan. Arras dohakabea naiz: bihar landal-

dera partituko gara; ez dakit zenbat denboraz. Jainko Jauna! Zu gehiago ez ikustea! Ez dut leku gehiagorik. Adio; entseia zaitez txartel hau irakurtzera. Lapitzez izkiriaturiko ele hauek desagertuko dira agian, ez ordea sekula nire bihotzean finkatu diren sentimenduak.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 10ean.*

## **LXX. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Garrantzi handiko gaztigu bat dut zuri egiteko, adiskide mina.

Atzo, dakikezun bezala, \*\*\*ko mariskalaren emaztearen etxean afaldu nuen, zu izan zintugun elepide, eta karia horretara mintzatu nintzen, ez zugaran dudan uste on guztiaz, zutaz uste ez dudan guztiaz baizik. Oro bide ziren nire iritzi berekoak, eta solasa apaldua zelarik, hurkoarentzat ele onik baizik ez denean beti gertatzen den bezala, horra non zutitu den kontra egile bat: Prévan zen.



«Jainkoak ez dezala nahi», erran zuen zutituri-  
rik, «Merteuil andrearen zintzotasunaz egin  
dezadan dudarik! Baina zilegi izan bekit uste iza-  
tea ezen zintzotasun hori areago zor diola haren  
arinkeriarri haren oinarritzko arauetako baino. Zaila-  
goa da beharbada hari segitzea, hari laket izatea  
baino; eta nola, emakume baten atzetik joaki,  
bidean beti kausitzen baita bertze emakumerik,  
nola, finean, bertze emakume horiek balio baite-  
zakete lehena bezainbat edo are gehiago;  
batzuek jartzen dute arreta jaidura berri batean;  
bertzeak akiduraz baratzen dira; eta hura da  
menturaz Pariseko emakumeen artean bere  
burua gutxien defendatu behar izan duena. Nik,  
aldiz,» erran zuen gero (emakume batzuen irri-  
barreek akuilaturik), «ez nuke Merteuil andrea-  
ren bertutean sinetsiko, harik eta hura gortea-  
tzen sei zaldi leherraraziko ez nituzkeen arte.»

Trufa gaizto hark arrakasta izan zuen, gaitze-  
rranerako joera duten guztiak bezala; eta eragin  
zuen irri-algara bitartean, Prévan berriz eseri  
zen, eta afaldar guztien solasa aldatu egin zen.  
Baina B\*\*\*ko bi kondesak, gure sinesgogor hura  
ondoan baitzuten, harekin batera lotu zitzaizkion

beren solas partikularri, beharrik solas hura entzuteko helmenean nintzen.

Zu sentikor bilakatzeko erronka onartua izan da; oro kontatzeko hitza emana izan da; eta abentura hartan eman ziren hitz guztien artean, hura izanen da segurki zorrozkien atxikia. Gazti-gaturik zaude beraz, eta ezagutzen duzu erran zaharra.

Erran gabe doa ezen Prévan hori, nahiz zuhaurk ez duzun ezagutzen, biziki atsegina dela, eta are antzatsuagoa. Ezen baldin noizbait kontrakorik erraten entzun badidazu, da soilik laket ez zaidalako, haren arrakastak zapuzten plazer hartzen dudalako eta badakidalako zer nolako indarra duen nire iritziak gure hogeita hamar bat emakume moda-modakoenen artean.

Alabaina, denbora luzean eragotzi izan diot, bide horrez, guk teatro handia deitzen diogun horretan agertzea; eta miragarritzko egintzak egiten zituen, omen handirik izan gabe. Baina haren abentura hirukoitzaren eskandaluak, begiak harengan ezarri baititu, eman dio ordu arte eskas zitzaion fidantzia, eta bihurtu du zinez gizon beldurgarri. Azken finean hura da mentu-

raz egungo egunean nire bidean kausitu beldur nintzatekeen gizon bakarra; eta zure interesa gorabehera, zinez eginen didazu zerbitzu, hura bidenabar irrigarri utzirik. Esku onetan uzten dut; itzultzen naizenean, gizon lur joa izanen ahal da!

Hitz ematen dizut, ordainetan, zure ikaslearen abentura xede onera eramatea, eta harez arduratzea nire ahalketi eder horrez bezainbat.

Honek errendatzeko asmo bat dit berriki igorri. Haren gutun osoak tronparazia izateko desira iragartzen du. Ezin eskain bide erosoagorik eta halaber erabiliagorik. Bere *adiskidea* izan nadin nahi du. Baina nik, baliakizun berri eta zailak baitzaizkit laket, ez dut emakume hori bere betebeharratarik halatan kitorik salbuetsia uzteko asmorik; eta hain segur ez nukeen harengatik horrenbertze neke hartuko, sedukzio arrunt batez bukatu behar izateko.

Nire asmoa da, aitzitik, eginen didan sakrifizio bakoitzaren balioa eta hedadura emakume horri sentiaraztea, gogotik sentiaraztea ere; ez gidatzea halaber kontzientziaren ausikiak ezin atzetik jarraik dakizkion bezain azkar; agonia

geldi batez eginaraztea haren bertuteaz fin gaitz; andre hori etengabe finkatzea ikuskari hondagarri horretan; eta ez ematea nihaurre bere besoetan izateko zoriona, harik eta desira sekula gehiago ez disimulatzera beharturik dudarte. Izan ere, deus gutxi balio dut, ez badut galdatua izatea merezi. Gutxiago mendeka ninteko maitementan dela aitortzeaz ahalke gorritzen bide den emakume handios batez?

Uko egin diot beraz adiskidantza balios horri, eta neure maitale izateari atxiki natzaio. Ez bainago jakin gabe hastean hitzezko eztabaida soil bat baizik ez dirudien maitale izate hori oso inportantea dela haatik niretzat, ardura handiz izkiriatu dut neure gutuna, eta saiatu naiz orobat soilik sentimenduak irudika dezakeen desordenu hori han-hemenka barreiatzen. Neure mintzoa dut azkenik ahalik eta gehiena zentzugabetu: zeren zentzugabekeriarik gabe, ez baita amoltsutasunik; eta arrazoi horregatik beragatik zaizkigu, nire ustez, amodiozko gutunetan emakumeak arrunt gailentzen.

Balaku batez bukatu dut neurea, nire gogoe-ta sakonen segida baita hori ere. Emakume

baten bihotza aldi batez ekinean ari izan ondoren, atsedean beharretan izaten da; eta ohartua naiz balaku bat dela emakume guzti-guztiei eskaintzen ahal zaien bururdirik biguinena.

Adio, adiskide ederra. Bihar partituko naiz. Baldin \*\*\*ko kondesarentzat nahi bazenit manurik eman, haren etxean baratuko naiz, afaltzeko bederen. Samurturik naiz zu ikusi gabe partitu beharraz. Helaraz zure arau gorenak, eta lagundu zure kontseilu zuhurrez, une erabakigarri honetan.

Batez ere, begira zaitez Prévangandik; ainiezazuket egunen batean itzul sakrifizio horren ordaina! Adio.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 11n.*

## **LXXI. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Nire sehi txoriburu horrek ez du ba nire paper zorroa Parisen utzi! Nire eder horren gutunak, Dancenik Volanges ttipiari izkiriaturikoak, oro han gelditu dira, eta ororen premian naiz. Parti-

tzear da bere ergelkeria erremediatzera; eta zal-  
dia zelatzen ari den bitartean, bart arratsean  
gertatu zitzaidan historia kontatuko dizut: zeren  
otoi sinets nazazu ez dudala denborarik galtzen.

Abentura, berez, huskeria da; M...ko bizkon-  
desarekiko suharraldi bat baizik ez. Xehetasunen  
karietara interesgarria iruditu zait ordea. Gogo-  
beterik nahi dizut bertzalde erakutsi ezen ema-  
kumeak galtzeko jeinua baldin badut, badudala  
halaber, hala nahi dudalarik, emakumeak salba-  
tzekoa ere. Xederik zailena, edo alaiena, huraxe  
izaten da beti nik hartzen dudana; eta ez diot  
neure buruari egitate on baten erantzute egiten,  
baldin trebatzen banau edo libertitzen.

Bizkondesa hemen kaunitu nuen bada, eta  
haren eskari biziak juntatu zitzaizkionez gaua  
gastelu hartan iragan nezan bertzeek egiten ziz-  
kidaten esetsaldiei, erran nion: «Ongi da! Onar-  
tzen dut», «gaua zurekin pasatzeko baldintzare-  
kin.» — «Hori ezinezkoa dut,» erantzun zidan,  
«Vressac hemen da.» Ordu arte atseginezko ele  
bat erran uste niolakoan nengoen: baina ezinez-  
ko hitza aditzeak, ohi bezala sutu ninduen. Umi-  
liaturik sentitu nintzen Vressaci sakrifikatua iza-

teaz, eta sakrifizio hori ez pairatzea deliberatu nuen: eskaria errepikatu nion beraz.

Zernolakoak ez nituen aldeko. Vressac horrek moldakaizkiro susmotan ezarria du bizkondea; eta bizkondesak ez dezake halatan bere etxean gehiago har: eta kondesa on horren etxera eginiko bidaldi hori bion artean zuten antolatua, gau batzuk gordeka ebastera entseiatzeko xedez. Bizkondea samurturik ageri ere zen hasieran Vressac berriz han ikustez; ehizari emanagoa baita ordea jeloskor den baino, han gelditu zen haatik: eta kondesak, zuk ezagutzen duzun gisara ari izanez betiere, eman zion emazteari korridore handian ostatu, eta ezarri zituen gero senarra alde batean eta maitalea bertzean, eta elkarren artean konpon zitezen utzi zituen. Bien asturugaitzak nahi izan zuen ni parean koka nindezaten.

Egun hartan berean, erran nahi baita atzo, Vressac, pentsa dezakezunez bizkondea lausengatzen ari baita, ehizan zebilen harekin, nahiz ehiza ez duen batere laket, eta senarrak egun osoan eragiten zion asperretik, gauez, emaztearen besoetan, kontsolatu ustean zen: niri, ordea,

atsedena behar zuela iruditu zitzaidan, eta gogoetan hasi nintzen haren maitaleari nola harrarazi Vressaci atsedeen hartzeko astia emateko deliberoa.

Erdietsi nuen, bai halaber liskar egin ziezaion lortu ere, bistan denez berarengatik baizik onartu ez zuen ehizaldi horren karietara. Ezin jar zitekeen estakuru okerragorik: baina ezein emakumek ez du bizkondesak bezain dohain handirik, nahiz guzti-guztiek baduten, arrazoiaren ordeztasuna agerrarazteko, eta hanbatenaz sosega ezinago agertzeko, zenbatenaz ez duen arrazoirik. Bertzenaz, hura ez zen argibideak emateko une egokia; gau bat baizik ez bainuen nahi, on iruditu zitzaidan biharamunean onezkoak egin zitzaten.

Itzuli zen orduko, bizkondesak egin zion bada Vressaci beltzuri. Vressacek beltzuri horren kausa nahi izan zuen galdegin, bizkondesa liskartu zitzaion. Vressac bere burua justifikatzera entseiatu zen; hantxe baitzen senarra, estakuru gisa baliatua izan zen solasa eteteko; Vressac saiatu zen azkenik senarra kanpora joana zen une batez baliatzen bizkondesari arratsean otoi



arren adituko ote zion galdegiteko: orduantxe goiendu zen bizkondesa. Haserre aienatu zuen gizon batzuen ausardia, zeren emakume baten ontasunak dastatu dituztelako uste baitute hura neurriz gain baliatzeko eskubidearen jabe direla, nahiz emakumeak badukeen gizonez kexurik; eta antze horren bidez solasgaia aldaturik, hain zen emekiro eta sentipenez beterik mintzatu, non Vressac mutu eta nahas gelditu baitzen; non nihurtu orobat izan bainintzen bizkondesak arrazoiz zuela sinesteko tentatua: zeren bai baitakikezu, bien adiskide naizen heinean, hirugarren gisa solas horretan tarteko nintzela gertatu.

Azkenean, tinko bada tinko deklaratu zuen ez zizkiola ehizaren nekeei amodioaren nekeak berretuko, eta damu zukeela hain plazer eztiak nehoi eragotzia. Senarra itzuli zen. Vressac dohakabea, erantzuteko libertaterik ez baitzuen jadanik, nirekin hasi zen hizketan; eta arras denbora luzean bere arrazoiak niri kontatzen aritu ondoren, nahiz nik hark bezain ongi ezagutzen nituen, arren otoi eskatu zidan mintza nendila bizkondesarekin, eta mintzatuko nintzaiola hitz eman nion. Mintzatu nintzaion alabaina; hari

eskerrak emateko ordea, bai orobat zer orene-  
tan eta elkar nola ikusiko genuen harekin batera  
adoste-ko ere.

Erran zidan nola bere gela senarraren eta  
maitalearen gelen artean baitzen, zuhurragoa  
iruditu bide zitzaiola Vressacen gelara joatea,  
hura bere gelan hartzea baino; eta, nire gela  
berearen parean zegoenez, seguragoa kaositzen  
bide zuela halaber nire gelara etortzea; gelazai-  
nak alde egin orduko jinen zela; atea erdi zaba-  
lik utzi, eta haren zain egon, bertzerik ez nuela  
egin behar.

Dena adostua genuen bezala egin genuen;  
eta bizkondesa oren batak inguruan heldu zen  
nire gelara

*...lo goxotik bortxaz iratzarri berria  
izan den  
eder baten apaindura hutsean.*

Harrokeriara ez bainaiz emana, ez naiz gaue-  
ko xehetasunetan baratuko: ezagutzen nauzu  
ordea, eta pozik nintzen neure buruaz.

Argi azkorrian, bereizi behar izan genuen. Orain hasten da historia hau interesgarri bihurtzen. Txoriburu hark atea erdi irekia utzia zuela uste zuen, hertsirik kausitu genuen, eta giltza barnean gelditua zen: ez dezakezu irudika zer nolako begitarte etsia zuen bizkondesak betetan erran zidanean: «Ah! Galdua naiz.» Aitor dezadan irrigarria zatekeela emakume hura egoera hartan utzia: onar nezakeen ordea emakume bat nigatik galtzea, nik galdua izan gabe? Eta gizon arrunt baten gisara egin behar ote nion men halabeharrari? Baliabide bat kausitu behar nuen. Zer eginen zenukeen zuk, adiskide eder horrek? Horra nola jokatu nuen, bai erdietsi ere.

Berehala ohartu nintzen delako ate hura aise bota zitekeela, nahiz zalaparta handia eginez behar zen bota. Bizkondesagandik lortu nuen beraz, ez nekerik gabe, deiadar min eta izuzkoak eginen zituela, hala nola, *lapurrak*, *hiltzaileak*, etab. Eta deliberatu genuen lehen deiadarrarekin atea botako nuela, eta hura korrika oheratuko zela. Ez zenuke sinetsiko zenbat denbora eman zuen ezin ausarturik, nahiz deliberatua

zen. Egin behar izan zuen azkenean, eta atea lehen ostikadaz zabaldu zen.

Beharrik bizkondesak ez zuen astirik galdu; zeren instant berean horra non bizkondea eta Vressac korridorean ageri baitziren; eta gelazaina jina zen halaber etxekoandrearen gelara.

Soilik ni nengoen odol hotzean, eta horri esker hartu ahal izan nuen oraino bizturik zen argiontzi bat itzaltzera joan eta lurrera botatzeko parada; zeren egizu kontu zeinen irrigarria gerta baitzitekeen, izu-ikarazko halako itxurak gelan argia izanik egin izana. Lo zerraldo zeudelako liskar egin nien gero senarrari eta maitaleari, presaka etorrarazi ninduten deiadarrak eta atea botatzen egin nituen ahaleginak duela bortz minutu hasiak zirelakoan.

Ausardia ohean berreskuraturik, bizkondesak ondo samar lagundu zidan, eta Jainko guztiengatik egin zuen zin bazuela ohoin bat gelan; egiantza gehiagoz segurantzez zuen segurtatu ezen ez omen zuela sekula horrenbertze beldurrik izan. Bazterrak oro miatu genituen eta ez genuen deus ere kausitu, eta bet-betan argiontzia erakutsi nien lurrean botea, eta erran nien

beraz arratoi batek sortu zituela, dudarik gabe, kalteak eta izua; aho batez onartu zuten nire iritzia, eta arratoin gainean trufa arrunt begien bistako batzuk egin ondoren, bizkondea izan zen bere gelara eta bere ohera joan zen lehena, emazteari otoiztuz arratoi lasaiagoak izan zitzan aurrerantzean.

Vressac, gurekin bakarka gelditua baitzen, bizkondesagana hurbildu zen gertakizun hura amodioaren mendekuari zor zitzaiola amoltsuki erratera; eta hark horra zer ihardetsi zion niri so: «Haserre bizian behar zuen bada, zeren hagitz mendekatu baita, nolanahi ere» erran zuen gero, «leher eginik nago eta lo egin nahi dut.»

Aldi oneko nintzen; beraz, elkarrengandik aldendu baino lehen, Vressacen kausaren alde mintzatu nintzen, eta adiskidetzea ekarri nuen. Bi maitaleek musu eman zioten elkarri, eta niri eman zidaten gero biek musu. Ardurarik ez nuen jadanik bizkondesaren musuez: aitor dut ordea Vressacenak plazer eman zidala. Elkarrekin jalgi ginen; eta haren esker on luzeak hartu ondoren, nor bere ohera joan ginen.

Baldin historia hori irrigarria iruditzen bazai-  
zu, ez dizut sekretua galdatzen. Egun aski liber-  
titu bainaiz, zuzen da jendeek beren txanda izan  
dezaten. Oraingo, ez dut historia baizik aipa-  
tzen, menturaz sarri bertze horrenbertze eginen  
dugu heroi andrearekin?

Adio, badu oren bat neure sehia zain dauka-  
dala; une batez baizik ez naiz gibelatzen zuri  
musu emateko, eta batez ere Prévangandik  
begira zaitezen aholkatzeko.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 13an.*

## **LXXII. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK CÉCILE VOLANGESI

*(14a arte igorri gabea)*

O, nire Cécile! Valmonten asturuaren arras  
bekaitzez nago! Bihar ikusiko zaitu. Hark ema-  
nen dizu gutun hau; eta nik, zugandik urrun hira-  
tua, damuen eta zorigaitzen artean herrestan  
eramanen dut dolorezko bizitza hau. Adiskide  
maitea, adiskide laztana, urrikal zakizkit neure

oinazeengatik; urrikal zakizkit batez ere zeurengatik; haien kontra baitut adorea galtzen.

Zeinen lazgarria zaidan zu malurtzea! Ni gabe, uros eta lasai zinateke. Barkatzen didazu? Erraidazu! Ah! Erraidazu barkatzen didazula; erraidazu halaber maite nauzula, betiko maiteko nauzula. Zugandik behar dut hori berriz aditu! Ez hain zuzen zalantzan nagoelako: baina iruditzen zait, zenbatenaz batbedera horretaz egon ziur, hanbatenaz eztiagoa dela bertzeari erraten aditzea. Maite nauzu, ezta? Bai, bihotz-bihotzez nauzu maite. Ez baitut ahanzten hori dela erraten aditu nizun azken hitza. Nola bildu dudan neure bihotza baitan! Zeinen sakon errotua den han! Eta nireak nolako gainezkaldiaz dion erantzun!

Ondikotz! Bozkariozko une hartan, urrun nintzen zain genuen asturugaitza alde z aurretik ikustetik. Bila ditzagun, Cécile nirea, asturugaitz hori ematzeko bideak. Neure adiskideari sinetsi behar badiot, aski izanen da, hori erdiesteko, merezi duen fidantzia har dezazun hari buruz.

Atsekabetu egin nau, aitor dizut, hari bide diozun gaitzerizkoak. Zure amaren uste okerrak

sumatu ditut hor: uste oker horiei men egiteagatik, badu zenbait denbora ezaxolatua nintzela gizon zinez atsegin, egungo egunean nire alde dena egiten ari den horrez; zure amak bereizi gaituenez geroztik, gu elkartzeko lanean ari baita azken finean. Arren otoi, adiskide maitea, izan Valmont begikoago. Egizu kontu adiskidea dudala, zu adiskide izan nahi zaituela, zu ikusteko zoriona bihur diezadakeela. Baldin arrazoi horiek ez bazaituzte nire nahira erorarazten, Cécile, ez nauzu maite nik maite zaitudan bezainbat, ez nauzu jadanik maite behinola maite izan ninduzun bezainbat. Ah! Baldin nehoiz gutxiago maite behar banauzu... Ez ordea, nire Cécileren bihotza nirea da; bizi guztirako nirea; eta baldin amodio dohakabe baten doloreen beldurrez behar banaiz egon, haren jarraikitasunak salbatuko nau bederen amodio traditu baten oinazeetarik.

Adio, adiskide xarmanta; ez ahanztz sofritzen ari naizela, eta ez ahanztz berebat nire zoriona, nire zorion osoa, zure esku baizik ez dagoela. Entzun nire bihotzaren aitormena, eta har itzazu amodioaren musurik amoltsuenak.



## **LXXIII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK CÉCILE VOLANGESI  
(*Aurrekoari atxikia*)

Zeure zerbitzura duzun adiskideak jakin du izkiriatzeko behar duzun guztiaren eskas zarela, eta hornitu zaitu dagoeneko. Kausituko dituzu ostatu hartua duzun gelako ganbera aurrean, eskuineko armairuan, paper sorta bat, lumak eta tinta, zuk nahi dezazunean berriz ere hornituak izanen zaizkizunak, eta, haren iritzian, leku horretan berean uzten ahal dituzunak baldin hobeagorik kausi ez bazeneza.

Otoizten zaitu halaber ez zaitezen haserre baldin jendartean ustez kasurik egiten ez badizu, eta haur baten gisa baizik behatzen ez badizu. Jokabide hori beharrezkoa iruditzen zaio behar duen segurantzaz sorrarazteko, eta bere adiskidearen eta zure zorionaren fabore hobeki lan egin ahal izateko. Hura zaizu zeurekin mintzatzeko okasioak sorraraztera entseiatuko, zerbai-

ten berri behar dizularik eman edo zerbait helarazi; eta erdietsiko duela uste du, baldin zuk eginahalez laguntzen badiozu.

Kontseilatzen dizu berebat hartu heinean bihur diezazkiozun gutunak, zeure burua hainbat gutxiago arriska dezazun.

Bukatzeko, segur bai segur derraizu ezen fida nahi bazakizkio, artoski lehiatuko dela ama sobera krudel baten kausaz bi presuna jasaten ari diren esetsaldia ematzera, nor ere bata adiskiderik minena baitu jadanik, eta bertzea interesik amoltsuenaren mereziduna dela uste baitu.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko irailaren 14an.*

## **LXXIV. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Hots! Noizdanik, adiskidea, hain erraz izutzen zarea? Prévan hori hain beldurgarria ote? Ikus ordea zein xaloa eta lañoa naizen! Maiz egin izan dut topo garaile bikain horrekin; ez nion kasik behatu! Zure gutuna baizik ez nuen eskas hari kasu eginarazteko. Neure bidegabekeria atzo

zuzendu nuen. Operan zen, ia nire parean, eta beha egon nintzaion. Ederra da bederen, zinez ederra alajaina! Hazpegiak ditu fin eta guri! Hur-biletik behatuz gero are ederragoa behar du. Eta ni eduki nahi nauela diozu! Ohore eta plazer handia eginen dit hain segur. Serioski, harenganako gogoak hartu nau, eta orain aitor dizut lehen urratsak egin ditudala. Ez dakit erdietsiko dudanentz. Horra gertakaria.

Operatik jalgirik, bi urratsera neukan, eta egin nion, oso ozen, \*\*\*ko markesari ortziralean mariskalaren emaztearen etxean elkarrekin afaltzeko deia. Hura baita, nire iduriko, gizon hori berriz kausitzen ahal duan etxe bakarra. Ez dut dudarik egiten aditu zidanik... Eskergabe hori etorriko ez balitz? Baina, erraidazu bada, etorriko dela uste duzu? Badakizu ezen etortzen ez bada, gau osoko beltzurituko naizela? Dakusazunez, ez zaio hain zaila gertatuko *niri segitzea* eta gehiago harrituko zara, zeren zailtasun gutxiago kausituko baitu *niri laket izateko*. Ni gorteatzen sei zaldi nahi omen ditu leherrarazi! O! Bizia salbatuko diet zaldi horiei. Ez nuke sekula horrenbertze denboran zain egoteko pazientziarik.

Badakizu nire oinarritzko arauai arrotz zaiela nehor gogaitzea, behin hartara deliberatua naitenez gero, eta harenganako deliberatua naiz.

O! Onar ezazu bada niri arrazoiz mintzatzeak badakarrela plazerrik! Zure *garrantzi handiko gatziguak* ez dua eragin handia izan? Zer nahi duzu ordea? Hain baitu denbora luzea idor eta mortu nabilela! Sei astetik gora egin ditut neure buruari atseginik eman gabe. Honako hau egokitu zait; neure buruari ukatzen ahal diot? Sujetak ez ote du merezi? Badea atseginagorik, hitz hori zeinahi adieratan hartzen duzularik ere?

Zuhaurk zuzenki eta bidezki aitortu behar izan dizkiozu bere dohainak; goratu baino gehiago egiten duzu, bekaitz diozu. Hots bada! Zuen bien arteko juje izanen naiz: baina hasteko, argibideak behar ditut, eta hain zuzen hori da egite-ra noana. Juje zintzoa izanen naiz, eta biak izanen zarete balantza berean haztatuak. Zutaz den bezanbatean, baditut jadanik zure oroitzapenak, eta zure afera osoki xedatua da. Ez ote da zuzena zure aurkariaz ardura nadin orain. Ea bada, ekin onez onean; eta, hasteko, konta iezadazu, otoi, zein den Prévan heroi gertatu zen

abentura hirukoitz hura. Jakitun banengo bezala hitz egiten didazu horretaz, eta deusen berririk ez dut. Genevan nintzen bitartean gertatua behar du, eta zeure bekaitzak horren berri niri idatziz ematea eragotziko zizun. Ahalik lasterre-na zuzendu hutsegite hori; egizu kontu *hari dagokiokeen ezein gauza ez zaidala arrotz*. Itzuli nintzenean oraino jendearen ahotan zela uste dut: baina bertze zeregin bat banuen, eta horrelako aferetan nekez entzuten dut egunekoa edo bezperakoa ez den berririk.

Eskatzen dizudan horrek doi bat muzintzen bazaitu ere, ez ote didazu horrenbertze zor zure alde egin ditudan ahaleginen ordainetan? Ahalegin horiek ez ote zaituzte lehendakariaren emazteagana hurbildu, zeure ergelkeriek urrundua zintuztelarik? Nihaurk ez ote dizut esku artean halaber jarri Volanges andrearen eginahal garrazaz mendekatu ahal izateko bidea? Hain sarri deitoratu izan duzu abenturen bila galtzen zenuen denbora! Orain eskumenean dituzu. Amodioa, herra, hautatu bertzerik ez duzu, biak dira aterbe beraren pean bilduak; eta, egiten

ahal duzu zeure bizitzea bikoiztu, esku bataz fereka eta bertzeaz jo.

Bizkondesaren abentura ere nihuri didazu zor. Aski gogobete nau: baina, zuk diozun bezala, guztien ahotan behar luke: zeren nahiz okasioaren kariaz deliberatu baituzu, eta hala dela-koan nago, misterioa nahiago izatea eskandalua baino, aitor dezagun haatik emakume horrek ez zuela hain jokabide zintzorik merezi.

Badut bertzenaz emakume horrez zer deitoraturik. Bellerocheko zaldunak nik nahi nukeen baino askoz ederrago dauka; eta, arrazoi askorengatik, txit estimatuko nuke harekikoak egiteko estakuru bat: hots, ez da estakuru erosoagorik, nola baita erran ahal izatea: emakume hori gehiago ikustea ez da haizu.

Adio, bizkonde; egizu kontu ezen, zauden atakan, denbora arras baliosa dela: Prévanen zorionaz arduratzen emanen dut nik neurea.

*Parisen, 17\*\*ko irailaren 15ean.*

## LXXV. GUTUNA

(OHARRA.— Gutun honetan, Cécile Volangesek xehetasun handiz kontu ematen du irakurleak LIX. gutunean eta hurrengoetan ikusi dituen gertakarietan berari dagokion guztiaz. Errepikazio hori edekitzea erabaki dugu. Azkenik Valmonteko bizkondeaz mintzo da, eta honela dio:)

CÉCILE VOLANGESEK SOPHIE CARNAYRI

Zinez diotsut hagitz gizon harrigarria dela. Amak arrunt du gaitzesten; Danceny zaldunak ordea arrunt du onesten, eta, uste dut arrazoia honek duela. Nehoiz ez dut ikusi hain gizon treberik. Dancenyren gutuna eman didalarik, guztiak oro aurrean zituen, eta nehork ez du deus ikusi; egia da ikaratu naizela, zeren ez bainintzen deusez ohartua: baina orain prest-presta edukiko nau. Dagoeneko ontsa konprenitu dut nire erantzuna hari emateko hark zer nahi zuen nik egitea. Harekin konpontzea oso erraza da, zeren bai baitu behako bat hark nahi duen guztia adierazten duena. Ez dakit nola egiten duen: aipatu nizun txartelean erraten zidan egiten zituela amaren aitzinean nitaz ezaxolatuaren itxurak: alabaina erran liteke ez duela nigan

sekula pentsatzen; eta haatik bilatzen ditudala haren begiak, berehala kausitzeaz segur naiz.

Bada hemen amaren adiskide on bat, ezagutzen ez nuena, nork ere ustez ez baitu Valmont jauna batere maite, nahiz dena arta zaion. Badut beldurra Valmont jauna ez ote den hemengo bizimoldeaz sarri gogaituko, eta Parisa itzuliko; hori hastio nuke. Bihotz onekoa behar du bere adiskideari eta niri zerbitzu errendatzera bera-riaz hona jina izateko! Neure esker ona nahi nioke erakutsi, baina ez dakit zer egin hari mintzatzeko; eta okasioa kausi baneza ere, ez neki-ke agian zer erran, ahalkearen ahalkez.

Merteuil andrearekin baizik ez naiz librok mintzatzen, mintzatzen naizelarik neure amodio-az. Zurekin ere beharbada, nahiz oro erraten dizudan, ahalketuko nintzateke bozez erranez gero. Dancenyrekin berarekin ere usu sentitu izan dut, gogoz kontra bezala, halako beldur bat, gogoan nuen guztia hari erraten uzten ez zidana. Orain hagitz dolutzen zait, eta bortz ahalak egi-nen nituzke kausitzeko behin, behin bakarrik, zenbat maite dudan hari errateko okasioa. Valmont jaunak hitz eman dio ezen baldin gida



nazan uzten badiot, eskainiko digula elkar berriz ikusteko okasioa. Hark nahi duen guztia eginen dut; baina ez dezaket uste halakorik gerta litekeenik.

Adio, adiskide ona, ez dut leku gehiagorik.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko irailaren 14an.*

## **LXXVI. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Edo zure gutuna ulertu ez dudan trufa bat da; edo, izkiriartzen ari bitartean, eldarnio guztiz arriskutsu batek hartua zinen. Ontsa ezagutuko ez bazintut, adiskide ederra, zinez izuturik nintzateke; eta zuk zernahi erran ere, ez naiz aise izutzen.

Zure gutuna irakurri eta irakurriagatik, ez naiz sobera aitzinatu; zeren, hartuz gero zure gutuna berez dagerien zentzuan, ezinezkoa baita. Zer erran nahi izan duzu bada?

Soil-soilik alferrik dela horren ahal gutxiko izterbegi baten kontra horrenbertze ardura hartzea? Baina, kasu horretan, oker egon zintezke.

Prévan zinez da atsegina; zuk uste baino anitzez ere gehiago; oroz gaineratik badu nornahi eta noiz-nahi bere amodiora biltzeko jeinu arras baliagarria, trebea baita elepide hori lagunartera ekartzeko, mundu guztiaren aitzinean, aditzen duen lehen solasaz baliaturik. Bakan dira orduan hari ihardesteko segadatik salbatzen diren emakumeak, guztiak baitira antzatsu direlako ustean, ezeinek ere ez du antzatsu izate hori erakusteko okasiorik galdu nahi. Alta, zuk ondo dakizu amodioaz mintzatzera makurtzen den emakumeak azkenean amorosturik bukatzen duela, edo amorostu balitz bezala jokatzeko bederen. Baliabide ezinago bikain taxutu horrez erdiesten du halaber emakumeak berak ekartzea maiz beren hondamenaren lekuko; eta hori diot, zeren ikusi baitut.

Bigarren eskuko baizik ez nuen ezagutzen sekretua; zeren ez baitut nehoiz izan Prévanekin harremanik: baina horra non sei ginen: eta P\*\*\*ko kondesak, guztiz antzatsua delako ustean, eta, jakitun ez zegoen ororentzat solas orokorrari atxikia zelako itxurak eginik hain zuzen, xehetasun handiz kontatu baitzigun nola

Prévani men egin zion, eta bien artean gertatuak oro. Halako segurantzaz ari zen kontari, non asaldatu ere ez baitzen egin seiak aldi berean irri erotan lehertu ginenean; eta beti oroituko naiz ezen gutarik batek, desenkusatzeko, nahi izan zuelarik hark erraten zuena, edo hobeki ustez erraten ari zena, dudatan ezartzen zuelako irudia egin, nola hark seriozki ihardetsi zion ez geundela hain segur ere bera bezain jakitun; eta beldurrik ere gabe deitu zuen Prévan eta galdegin zion ea hitz bat bakarra ere huts egin zuen.

Gizon hori beraz arriskutsua iruditu ahal izan zait mundu guztiarentzat: baina zuretzat, markesa, ez ote zen aski hura *ederra*, *zinez ederra* izan zedin, zuhaurk diozun bezala? Edo egin ziezazun *ongi eginak daudela ez bertze arrazoirik gabe*, *zuk noizean behin atsegin handiz saritu izan dituzun horietako eraso bat*? Edo zeinahi arrazoirengatik hari men egitea zuri atsegingarri iruditu izana? Edo... nik dakita zer? Asma ote nitzake emakume baten burua gobernatzen duten mila gutiziak, zeinen kariatara baizik ez zauden oraino zure sexuari atxikia? Orain perilaz ohartua baitzara, ez dut dudarik egiten aise begiratuko

zarela peril horretarik: baina haatik gaztigua behar zitzaizun egin. Natorren bada izkribura; zer erran nahi izan duzu?

Baldin ez bada Prévani eginiko trufa bat baizik, luzea izateaz gainera, ez da niri buruz balia-garria; munduaren aitzinean behar baita hura irrieragingarri utzi, eta sujet horren karietara berriz egiten dizut egina dizudan erregua.

Ah! Enigmaren gakoa asmatu dudala uste dut! Zure gutuna igermen bat da, ez eginen duzunarena, baizik prestatua diozun erorikoaren unean hark egiteko prest zaudela usteko duenarena. Xede hori ontzat ematen dut; nahiz den arta handiz egin beharrekoa. Nik bezain ontsa dakizu ezen, jendeen iritzian, gizon bat hartzea edo haren begiramenak jasotzea gauza berbera direla, non gizon hori ez den ergela; eta Prévan ez da, hurbiltzeko ere, ergela. Egin ahal baleza soilik irudi bat, bere burua hanpatuko du, eta oro errana date. Ergelek sinetsiko dute, gaiztoek sinesteko itxurak eginen dituzte: zein baliakizun dituzkezu? Hara, beldur naiz. Ez zure trebetasunaz duda egiten dudalako: baina igerikari onak dira itotzen direnak.

Ez daukat neure burua bertze nehorena baino ergelago; emakume bat desohoratzeko bideak, ehun kausitu ditut, mila kausitu ditut: baina ari izan naizelarik hura nola salbatu bilatzen, nehoiz ez dut ikusi salbabiderik. Zuhaur, adiskide ederra, jokatu izanagatik beti maisu baten gisa, ehun aldiz ikusi uste izan zaitut asturu onez garaile, ezen ez ontsa jokaturik.

Baina azken buruan, arrazoirik gabeko zerbaiti arrazoi bila nabil agian. Miretsirik nago, zeren bai baitu oren bat seriocki ari natzaizula zuk, hain segur, txantxetan baizik aipatu ez duzun zerbaitez. Irri eginen didazu gero! Hots bada! Hala biz; baina azkar ibili, eta mintza gaitzen bertze zerbaitez. Bertze zerbaitez! Oker nago, gauza beraz ari baikara beti; eduki ala galdu beharreko emakumeez beti, eta sarri biez.

Badut hemen, zuk ongi ohartarazi didazun bezala, bi alor horietan non trebaturik, ez ordea bietan hain errazki. Aldez aurretik dakusat mendekua fiteago joanen dela amodioa baino. Volanges ttipia errendatua da, haren erantzule naiz; okasioaren mende baizik ez dago, eta nihaurk sorraraziko diot. Tourvel andrearekin ordea ez

da halatsu: emakume hori suntsitzailea da, ez diot antzik ematen; haren amodioaren ehun froga baditut, baina baditut mila haren tinkotasunaren; eta, egia errateko, itzuriko ote zaidan beldur naiz.

Uste handiagoa nuen nire itzulerak sortua zuen lehen ondorioan. Pentsa dezakezunez, nihaurk nahi nuen jujatu; eta lehen higidurak ikusiko nituela ziur egoteko, ez nuen nehor bidali neure aurretik, eta bidea kalkulatu nuen mahaian zeuden bitartean heldu ahal izateko. Alabaina, hodeietarik erori nintzen, ikuskizuna bururatzera datorren operako jainko baten gisa.

Bertzeren behakoak nigana igorrazteko bezainbat zarata eginik sartzerakoan, begi ukaldi berberaz ikusi ahal izan nuen izeba xahararren bozkarioa, Volanges andrearen hisia, eta haren alabaren asalduzko plazerra. Nire eder hura, mahaian zeukan lekuagatik, ateari bizkarrez zegoen. Une horretan zer edo zer ebakitzen ari baitzen, burua ez zuen jiratu ere egin: baina Rosemonde andreari mintzatu nintzaion; eta lehen hitza aditzearekin, ezaguturik nire boza, ezuste eta izu baino amodio gehiago sumatu

uste nion oihu bat itzuri zitzaion debot sentikor hari. Ordurako haren begitartea ikusteko bezainbat aitzinatua nintzen; haren arimaren abarrotsa, haren ideien eta sentimenduen arteko borroka hogeia era desberdinez irudikatu zitzaizkion. Mahaian haren ondoan jarri nintzen; ez zekien xuxen ez zer ari zen ez zer zioen. Bazkaltzen jarraitzera entseiatu zen; ezin ordea: azkenean, oraino oren laurden egin ez zuela, durduzaz eta plazerraz mukuru betea, ez zitzaion bururatu mahaitik jalgitzeko baimena eskatzea baino deus hoberik, eta parkean gerizatu zen, egurasteko premia estakuru. Volanges andreak lagundu nahi izan zion; debot amoltsu hark ez zion utzi: sobera zoriontsua zen, dudarik gabe, kausitu baitzuen estakuru bat bakarrik egoteko, eta bere bihotzeko zirrara eztiari hersturarik gabe amore emateko.

Bazkaria ahal bezainbat laburtu nuen. Doi-doia zerbitzatu zuten deserta, non Volanges deabru hori, niri kalte egiteko premiaz ustez presatua, bere lekutik altxa zen eri xarmantaren bila joateko: baina asmo hori aldeztu aurretik sumatua nuen, eta eragotzi nuen. Egin nuen bada higidu-

ra partikular hori ororen higiduratzat hartze irudi bat; eta aldi berean zutiturik, Volanges ttipiak eta hango apaizak men egin zioten etsenplu bikoitz horri; hala non Rosemonde andrea baka- rrik egokitu zen mahaian T...ko komendadore zaharrarekin batera, eta biak halaber jalgitzea deliberatu zuten. Beraz joan ginen guztiok nire eder harengana biltzera, eta gaztelu ondoko zuhaiztian kausitu genuen; eta nola ez baitzen promenatzeko beharretan, bakardadearenetan baizik, nahiago izan zuen gurekin itzuli, ezen ez gu bere ondoan geldi gintzen.

Volanges andreak hari bakarka mintzatzeko okasiorik ez zukeela segur nintzen orduko, zure manuak betetzeko xedeaz arduratu nintzen, eta zure ikaslearen interesen alde ari izan nintzen. Kafea hartu eta berehala, neure gelara igo nin- tzen, eta bertzeenetan ere sartu nintzen, bazter haiei behako bat emateko; prestakuntzak egin nituen neska ttipi horren gutun bidezko harre- mana ziurtatzeko; eta, lehen egitate on hori egin ondoren, hitz bi izkiriatu nizkion zer egin behar zuen errateko eta hari fidantzia galdatzeko; neure txartela Dancenyren gutunari erantsi nion.



Egongelara itzuli nintzen. Han kausitu nuen neure eder hura kadera luze batean finkatua bere buruaren uzte zoragarrian.

Ikuskari horrek ernatu zizkidalarik desirak, halaber gogoberotu zizkidan behakoak; bihotzak ematen zidan amoltsuak eta presatuak izan behar zutela, eta behakook balia ahal izateko eran kokatu nintzen. Lehen ondorioa debot zerutiar haren begi handi lañoak apalaraztea izan zen. Aldi batez aztertu nuen aingeru begitarte hura; gero, haren gorputz osoan ibilki, libertitu nintzen gorputzaldea eta gorpuzkera jantzi arin baina hargatik eragozgarri baten artetik igeritzen. Burutik oinetaraino jaitsi ondoren, berriz igo nintzen oinetatik burura... Adiskide ederra, behako ezti hura nigan finkatua zuen; berriz apaldu zuen berehala, baina berriz agertzen lagundu nahiz, begiak itzuli nituen. Finkatu zen orduan gure artean elkarri aipatu gabeko abeniko hori, amodio herabetiaren lehen hatsapena dena, zeinak elkar ikusteko elkarren premia asezteko, agerrarazten baititu behakoak hurrenez hurren, noiz batuko diren zain.

Plazer berri horrek nire eder hura osoki hartua zuelako uste osoan, arduratu nintzen gu bion segurantza zaintzeaz: baina solasaldi aski bizi batek lagunartearen oharmentik begiratzen gintuela seguratu nintzen ondoren, entseiatu nintzen haren begiak beren mintzaira egiazkoan mintza zitezen erdiestera. Horretarako, hasieran atzeman nizekion ustekabeen zenbait behako; baina hain begiramen handiz nizekion atzeman, non xalotasuna ezin asalda zitekeen; eta presuna herabeti hura are bere gogarago egon zedin, nihaurre ere hura bezain durduzaturik nirudien. Emeki emeki gure begiak, bat egiten ohituak, luzaroago finkatu ziren elkarrenetan; ez ziren azkenik gehiago bereizi, eta sumatu nuen harenetan harako histura hura, amodioaren eta desiraren zorioneko seinalea dena; baina une batez baizik ez zen izan; eta bere buruari nagusiturik sarri, egonmoldea eta behakoa aldatu zituen, ez ahalke doi bat gabe.

Ez bainuen nahi haren higadura anitzei ohar-tua nintzela dudarik egin ahal izan zezan, bizi- altxa nintzen, izutua iduri, alditxartu ote zen galdezka. Mundu guztia berehala inguratu zitzaion.

Neure aitzinetik iragaten utzi nien denei; eta nola Volanges ttipiak, leiho baten ondoan tapizgintzan ari baitzen, asti pixka bat behar izan zuen bere langintza uzteko, une hura baliatu nuen Dancenyren gutuna hari emateko.

Harengandik urrunxko nintzen; belaunen gainera aurtiki nion eskutitza. Ez zekien zinez zer egin. Barre algara ederrak eginen zenituzkeen haren harridurazko eta asalduzko itxuraz; nik haatik ez nuen irri egin, beldur bainintzen sobe-razko moldakaizkeria hark ez ote gintuen tradituko. Baina bortitz adierazitako begi ukaldi eta keinu banak ulertarazi zioten azkenik paketa sakelan behar zuela sartu.

Gainerantzean egunak ez zuen deus interes-garririk ekarri. Geroztik gertatu denak badakar-ke agian poztuko zaituen gertakaririk, zure ikas-leaz den bezanbatean bederen; hobe da hala ere denbora nork bere asmoak betetzen ematea, asmo kontari baino. Hona bertzenaz izkiriatu dizudan zortzigarren orrialdea, eta akitua naiz; beraz, adio.

Asmatuko zenuen nik deusik ere erran gabe, neska ttipiak ihardetsi diola Dancenyri. Neure

eder horren erantzuna hartu dut nik ere, heldu eta biharamunean izkiriatu bainion. Bi gutunak igortzen dizkizut. Irakurriko dituzu edo ez dituzu irakurriko: zeren jadanik sobera libertitzen ez nauen errepika astun etengabe horrek aski gogaikarria izan behar baitu interesik gabeko presuna ororentzat.

Berriz ere adio. Betiere zaitut biziki maite; baina arren otoi, baldin berriz hitz egiten badidazu Prévanez, hitz egidazu nik ulertzeko eran.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko irailaren 17an.*

## **LXXVII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Nondik datorke, andrea, nigandik itzurtzeko egiten duzun eginahal krudela? Nola ote nik zuri agertu dizudan lehiarik amoltsuenak ez erdies-tea zugandik gizonik gaitzesgarrienagana ere zilegi ez liratekeen jokabideak baizik? Zer! Amodioak zure oinetara narama; eta asturu onak zure ondoan jartzen nauelarik, nahiago duzu

alditxartze irudi bat egin eta zure adiskideak asaldatu, nire ondoan gelditzera makurtu baino! Zenbat aldiz ez zenituen atzo begiak itzuli behako baten ontartea niri kentzeko? Eta baldin une batez zorroztasun gutxiago ikusi ahal izan badut zure begietan, une hori hain izan da laburra non irudi baitu niri plazer eman baino, nahiago izan duzula behako horiek ikusi gabe zer galtzen nuen niri sentiarazi.

Ez da hori, erratea zilegi izan bekit, ez amodioak merezi duen tratamendua, ez adiskidantzari haizu zaiona ere; eta hala ere, bi sentimendu horietarik, badakizu zenbatez gogoberotzen nauen bata, eta zilegi zitzaidan, nire iduriko, bertzeari ukorik egiten ez diozula uste izatea. Adiskidantza guztiz balios hori, merezi nuela uste izan duzuna, zeren eskaini nahi izan baitidazu, zer egin dut bada geroztik galtzeko? Neure fidantziak kalte egin ote dit, egiaz mintzatu izana zigortzen ote didazu? Ez zarea bederen bat az nahiz bertzeaz neurritz gain baliatu beldur? Alabaina, ez ote dut neure adiskidearen altzoan gorde neure bihotzeko sekretua? Ez ote dut, soil-soilik harengatik, neure burua behartua ikusi

aise onartzen ahal nituen baldintzei uko egitera, nahiz baldintza horiek onartuz gero aise bai aise utz nitzakeen bete gabe, eta ausaz neure probetxurako neurriz gain balia? Nahi nindukezu finean, merezi gabeko zorroztasunaz, sinestera behartu ezen zu engainatu hutsarekin bihozberatasun gehiago erdietsiko nuela?

Ez naiz damutzen zuri zor nizun, neure buruari zor nion jokabideaz; baina zein asturugaitzez egintza laudagarri bakoitza bihurtzen zait bertze zorigaitz baten seinale?

Zure adeitasunak nire jokabideari orain arte egin dion laudorio bakarrari bide eman ondoren, orduan behar izan dut, lehen aldiz, zu nahigabetu izanaren malura deitoratu. Zu ikusteko bozkarioari uko eginez, soil-soilik zure begirunea lasaitzeko, neure mendetasun oso-osoa frogatu dizudan ondoren, orduan nahi izan duzu gutun bidezko harreman oro eten nirekin, hertsiki galdatua zenidan sakrifizio baten ordain txiki hura edeki, eta amodioa bera ere kendu, nahiz amodioa den eskubide hori eman ziezazukeen bakarra. Amodio horren interesak berak ezin ahul dezakeen zintzotasunaz mintzatu izan natzaizun ondoren

azkenik, egungo egunean ihes egiten didazu gaiztakeria hautemana zeniokeen seduktore lan-jeros bati bezala.

Sekula ez zara beraz bidegabe izateaz akituko? Erraidazu bederen bertze zein hutsegitek eraman ahal izan zaituen zorrotasun guztiz handi horretara, eta ez uko egin nik betetzea nahi dituzun manuak diktatzeari; beteko ditudala hitz ematen baitizut, zeintzuk diren galdatzea sobera eskatzea ote?

*...tik, 17\*\*ko irailaren 15ean.*

## **LXXVIII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VALMONTEKO BIZKONDEARI

Harriturik dirudizu, jauna, nire jokabideaz, eta gutxi falta ere zaizu niri konturik galdatzeko, nire jokabidea deitoratzeko eskubiderik bazenu bezala. Aitor dizut nire ustean harritzea eta deitoratzea zilegiago nukeela nik zuk baino; baina zure azken erantzunean adierazia datorren ukoa ikusi ondoren, hartu dut oharpenei eta liskarrei

sekula gehiago biderik emanen ez dien ezaxolasun bati atxikitzeke xedea. Haatik, argitasunak eskatzen baitizkidazu, eta, Jainkoari esker, ez baitut neure baitan deusik zuri argitasunik ematea eragotz diezadakeenik, bertze behin nahi dut zurekin argibidetan hasi.

Zure gutunak irakurriko lituzkeenak, bidegabe edo bitxi iritziko lidake. Uste dut merezi dudala nehork nitaz iritzi hori ez izatea; iruditzen zait oroz gain zu bertze nehor baino urrunago zarela halakorik uste ahal izatetik. Dudarik gabe, uste izan duzu neure burua justifikatu beharrez gure artean gertatu den guztia oroitzera behartuko ninduzula. Uste izan bide duzu azterketa horrekin irabazi baizik ez zenuela eginen: nola ez baitut uste azterketa horretan deus gal dezakedanik, zure aitzinean bederen, ez naiz hari ekiteko beldur. Beharbada hura da, alabaina, bertzeaz deitoratzeko eskubidea gu bion artean nork duen jakiteko era bakarra.

Gaztelu honetara heldu zinen egunetik konstatzen hasita, jauna, aitortuko duzu, hala uste dut, zure omenaren kariaz bederen haizu zitzaidala zurekin zuhur samar jokatzeari, eta atxiki



ahal nintzaiola, gehiegizko ahalkeriaren beldurrik izan gabe, soilik adeitasunik hotzenaren adierazpideei. Zuhaurk ere bihozberatasunez tratatuko ninduzun, eta askietsiko zenukeen hain prestakuntza apaleko emakume batek ez izatea zurea estimatzeko bezainbat merezimen-durik. Hori zatekeen hain segur zuhur jokatzeari; eta hanbatenaz gutxiago gostako zitzaidakeen jokabide horri jarraitzea, non ez baitizut isilean gordeko ezen, Rosemonde andrea jin zitzaidanean zure etorreraren berri ematera, hari diodan adiskidantza, eta hark zuri dizuna orobat, gogoa behar izan nituela hartu, berri horrek zenbaitz nahigabetzen ninduen hari ikusten ez uzteko.

Gogotik dut aitor ezen hasieran nik uste baino askoz itxura hobean agertu zinela; baina zuhaurk halaber aitortuko duzu on itxura horrek oso gutxi iraun zuela, eta berehala nekatu zine-la zutaz harrarazi zidan uste onuragarria ordain gisa ustez askietsarazten ez zizun neurritasunaz.

Orduan, nire fede onaz, nire segurantzaz neurritz gain baliaturik, beldurrik gabe hitz egin zenidan hain segur ere laidotu behar ninduela

ezin duda zenezakeen sentimendu batez; eta zu hutsegiteak ugaritu eta larritzen baizik ari ez zinenean, ni berriz hutsegite horiek ahanzteko arrazoi baten bila ari nintzen, hutsegiteok, aldez bederen, konpondu ahal izateko okasioa zuri eskainiz. Nire eskaria hain zen bidezkoa non zuhaurk ere ez baitzenuen uste izan uko egin behar zenionik: baina nire bihozberatasuna eskubidetzat harturik, ontsa baliatu zitzaizun niri eskatzeko baimen bat, nik, dudarik gabe, ezin eman nizuna, eta haatik erdietsi zenuena. Jarriak izan zitzaizkizun baldintzetarik, ezein ere ez duzu bete; eta zure gutunak halako gisakoak izan dira, non haietariko bakoitzak zuri gehiago ez ihardestera behartzen baininduen. Zure seta gaiztoak zu nigandik urrunaraztera behartzen ninduen unean berean, horra non, amore emate agian gaitzesgarri batez, entseiatu nintzen zugana hurbilaraz nintzakeen baliakizun bakarra baliatzera: baina zuretzat zer preziotan da sentimendu bat onesta? Adiskidantza apalesten duzu; eta ero-ero hordikeriari emana, kontutan hartu gabe malurak eta ahalkea, ez duzu plazerrik eta kaltetunik baizik bilatzen.

Bai baitzara urratsetan arina nola liskarretan burugabea, zeure promesak ahanzten dituzu, edo gehiago dena promesak haustea jolas duzu bihurtu, eta nigandik urruntzera amore eman zenuen ondoren, berriz etorri zara hona nehork deitua izan gabe; nire erreguen, nire arrazoen begiramenik gabe, zure etorrera aldeztu aurretik mezutzeko adeitasuna ere izan gabe, beldurrik gabe ezarri nauzu ustekabe baten arriskuaren mendean, zeinaren ondorioa, segurki arrunt hutsala izanagatik, inguruan geneuzkan presunek nire kaltetan interpreta zezaketen. Sorrarazi zenuen asaldurazko une hura bazterreratzera edo iraungitzera ez nahiz batere entseiatu, iduri du eginahal guztiak egin dituzula nire asaldua are gehitzeko. Mahaian, hautatzen duzu zeure lekua hain zuzen ere nirearen ondoan: alditxartze arin batek bertzeak baino lehen irtenarazten nau; eta nire bakardadea errespetatu ordez, etorrarazten duzu mundu guztia bakardade hori durduzatzera. Egongelara itzulirik, baldin egiten badut urrats bat, zu kaustzen zaitut ondoan; baldin erraten badut ele bat, zu zaitut betiere ihardesle. Den eta elerik arruntena hartzen duzu

estakuru aditu nahi ez nukeen eta neure burua arriskuan ere jar lezakeen solasaldi bati lotzeko: zeren azken buruan, jauna, trebe ibiliagatik, nik ulertzen dudana nago ulertzen ahal dutela bertzeek ere.

Gelditasunera eta isiltasunera behartuagatik zuk ni, ez zara hala ere niri esestera gutxiago emana; ez ditzaket begiak jaso zureekin buruz buru egin gabe. Behakoak itzultzera etengabe naiz behartua; eta segida eza arrunt ulergaitz batez, nigana dituzu lagunartearenak erakartzen, neure behakoetarik ere itzuri ahal izan nahiko nuen unean berean.

Eta nire jokabideak deitoratzen dituzu! Eta zugandik ihes egiteko dudan lehiaz harritzen zara! Ah! Apalets nazazu hobeki nire bihozberatasunagatik, harritu zaitez heldu zaren orduko ni ez partitu izanaz! Partitu behar nukeen menturaz, eta behartuko nauzu partitze bortxazko eta haatik premiazko horretara, baldin esetsaldi laidogarriok behingoz uzten ez badituzu. Ez, ez dut ahanzten, ez dut nehoiz ahantziko zer zor diodan neure buruari, zer zor diedan sortu, errespetatu eta maite ditudan loturei; eta otoi arren sinets

ezazu ezen nehoiz gerta banendi lotura horiek sakrifikatzea edo neure burua sakrifikatzea hautatu behar zorigaiztoko horretara mugatua, ez nukeela instant batez ere dudatuko. Adio, jauna.  
...tik, 17\*\*ko irailaren 16an.

## LXXIX. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Gaur goizean ehizara joateko asmoa nuen: baina eguraldi gaitza dago. Nobela berri bat dut irakurgarri bakarra, egoiliar bat ere aspertuko lukeena. Goiz jota bi orenen buruan bazkalduko dugu: beraz atzo gutun luze bat izkiriatu nizun arren, zurekin berriz hitz egitera noa. Ziur naiz ez zarela aspertuko, zeren *Prévan zinez ederraz* hitz egingen baitizut. Nola ez duzu jakin haren abentura ospetsua, *bereiziezinak* bereizi zitue-na? Egingen nuke lehen hitza aditzearekin oroitu-ko zaizula. Horra beraz, hala gutiziatzen baituzu.

Oroituko zara Paris osoa harritua zela ikusirik nola hiru emakume, hirurak ederrak, hirurek dohain berberak izaki, eta nahikunde berberak

izan zitzaketenak, elkarri oraino hain estuki atxikiak iraun zezaketen munduan sartuak ziren uneaz geroztik. Hasieran jendeek atxikitasun horren arrazoia haien ahalke soberazkoan kausitu uste izan zuten: baina sarri gorte jendetsu batez inguratuak, eta gorte horren goresmenak elkarren artean banaturik, eta gizonak lehia biziz erakusten zieten ardurengatik beren buruen balioaz argituak, haien kidegoa ez zen haatik bortitzagoa baizik egin; eta erran zitekeen baten garaipena beti zela bertze biena ere. Igurikatze-koa zen amodioaren tenoreak zerbait etsaigo ekarriko zuela. Gure gizonik atseginenak lehian ari ziren liskarbide izateko ohorea nork erdietsiko; eta nihaur ere lehia hartara bildua nintzatekeen, baldin ...ko kondesak aldi berean iritsi zuen gorengo graziak utzi izan banindu desleial izaten, galdatua nuen onarpena erdietsi baino lehen.

Bitartean gure hiru ederrek, inauteri berean, ados balira bezala beren hautua egin zuten; eta jendeek igurikatzen zituzten ekaitzak altxatzetik urrun, hautu horrek ez zuen interesgarriagoa

baizik egin haien adiskidantza, isilmandatuen xarmaz.

Amorosgai dohakabeen ostea emakume jeloskorren osteari gehitu zitzaion orduan, eta eskandaluzko jarraikitasun hura ororen gaitzespenaren peko ezarria izan zen. Batzuen ustean, *bereizgaitzen* elkarte horrek (hala erraten zioten orduan) ondasunen jabekidetasuna omen zuen funtsezko legea, eta amodioa bera ere haren peko jarria omen zuten; bertze batzuek ziotenez, hiru maitaleek, gizonezko aurkaririk ezean, ez omen zuten emakumezko aurkariren eskasik: erran ere zuten ez zirela begiruneagatik baizik onartuak izan, eta ez zutela beretu eginbiderik gabeko titulu bat baizik.

Esames haiek, egiazkoak izan edo gezurrezkoak, ez zuten jendeek igurikitzen zuten ondorioa ekarri. Hiru bikoteek aitzitik galduak zirela sumatu zuten baldin une hartan bereizten bazi-  
ren; hartu zuten ekaitzari buru egiteko xedea. Jendeak, guztiaz unatzen baitira, berehala unatu ziren probetxurik gabeko satira batez. Berez arinkeriarri emanak baitira, bertze sujet batzuk hartu zituzten ahotan: gero, sujet honi berriro

lotuz ohi duten aldakortasunaz, gaitzerrana bihurtu zuten laudorio. Hemen oro modan nola baita, gogobetetasuna nagusitu zen; eta halako lilura ari zuen sortzen, non Prévanek deliberatu baitzuen miragarri horiek egiaztatzea, eta haiengan finkatzea jendearen behakoa eta berea.

Bilatu zituen bada betegintzarrearen eredu haiek. Haien lagunartean aise onartua izanari on iritzi zion. Jakin bazekien jende zoriontsuak ez direla hain hurbil-errazak izaten. Berehala ikusi zuen, alabaina, zorion arras goretsi hura, erregeenaren gisara, areago zela gutiziatua ezen ez desiragarria. Ohartu zitzaion nola ustez bereiziezinak ziren haiek hasiak zirela kanpoko plazerren bila, nola libertimenduari emanak ere baziren; eta ondorioz deliberatu zuen ezen amodiozko edo adiskidantzazko loturak laxatuak edo hautsiak zirela jadanik, eta soilik beren buruei zieten maitasun loturek eta ohiturazkoek zutela oraino indar poxi bat.

Emakumeek haatik, premiak elkartzen baitzituen, elkarren artean mamitasun berberaren itxura gordea zuten: gizonak ordea, beren urratsetan libroago ibilki, berriz kausitu zuten burutu



beharreko zereginik edo jarraitu beharreko afe-  
rarik; deitoratzen zituzten oraino, ez zituzten  
ordea bazter uzten, eta gau bilkurak bakan ziren  
osoak.

Haien jokabide hura ontsa baliatu zuen Pré-  
van sarritakoak, zeinak naturalki jarriarik eguneko  
abandonatuaren ondoan, kausitu zuen aldizka,  
eta zernolakoan arabera, hiru adiskideei begiru-  
nezko goresmen berbera eskaintzeko bidea. Aise  
sumatu zuen ezen hiruren artean hautu bat egi-  
tea, bere burua galtzea zela; ezen hiruretan  
lehen desleiala izatearen ahalke aizunak hobe-  
tsia izutuko zuela; ezen bertze bien harrokeria  
zaurituak maitale berriaren etsai bihurtuko  
zituela, eta ez zirela berebat gorengo oinarritzko  
arauen zorroztasuna bere kontra aurtikitzetik  
baratuko; ezen azken buruan, jelsiak segurki  
erakarriko zituela oraino beldurgarria izan zite-  
keen aurkari baten ardurak. Dena eragozpen  
bilakatua zen; dena erraza bilakatu zuen haren  
asmo hirukoitzak; emakume bakoitza bihozbera  
zen, horretan interesatua zelako, gizon bakoitza  
orobat, ustez interesatua ez zelako.

Prévan, ez baitzuen orduan emakume bakarra baizik sakrifikatzeko, asturu oneko gertatu zen emakume hark ospea hartu baitzuen. Haren arrotasunak eta printze baten begirunezko goresmenei trebe baino trebeago uko egin izanak gortearen eta hiriaren soa erakarri zuten harengana; haren maitaleak beretua zuen ohore hori, eta bere amorante berrien aitzinean baliatu zuen. Hiru intriga horiek betan eramatea zuen zailtasun bakarra, zeren hiruren urratsa halabeharrez behar baitzen antolatu berrankorrenaren arabera; alabaina, haren isilmandatari bategandik jakina naiz ezen atsekabe handia eman ziola haietako bat baratu beharrak, ernatzeko kasik prest baitzen bertzeak baino hamabortz egun lehenago.

Heldu da azkenik egun handia. Prévanek, hiru aitormenak erdietsi baitzituen, urratsak bere esku zituen jadanik, eta ikusiko duzun bezala antolatu zituen. Hiru senarretarik, bata kanpoan zen, bertzea biharamunean argi azkorrian partitzekoa zen, hirugarrena hirian zen. Adiskide bereiziezinek alargundu beharrean zenaren etxean afaltzekoak ziren; baina nagusi

berriak ez zuen utzi sehi ohiak gonbidatuak izan zitezen. Egun hartako goizean berean, egiten ditu hiru zati bere ederraren gutunak, lehenengoari atxikitzen dio eder harengandik jaso zuen potret bat, bigarrenari maitasunezko hasiera letra bat eder hark pintatua, hirugarrenari haren adatsetako ile ondo bat; bereiziez in bakoitzak sakrifizio osotzat hartu zuen sakrifizioaren heren hura, eta onartu zuen, ordainetan, hausturazko gutun zarta handiko bat maitale lurjoari igortzea.

Bazen anitz; ez zen aski. Senarra hirian zeukanak ez zezakeen eguna baizik balia; adostu zuten alditxartze irudi bat eginez adiskidearen etxera afaltzera joatetik lekatuko zela, eta arrats osoa Prévanentzat izanen zela: senarra kanpoan zeukanari gaua egokitu zitzaion: eta egunsentia, hirugarren senarra partituko zen tenorea, seinatu zioten azkenari amodio oren.

Deusez ezaxolatzen ez den Prévan badoa gero korrika atzerritar ederraren etxera, berarekin dakar eta han du sorrarazten beharrezkoa zitzaion beltzuria, eta ez da handik jalgiko harik eta hogeita lau oreneko libertatea seguratzeko dion liskar bat sortu duen arte. Antolamenduak

gisa horretan egin ondoren, etxeratu da, atsedena pixka bat hartuko duelakoan; badu han bertze zereginik zain.

Hausturazko gutunak argi ukaldi baten gisarakoak izan ziren maitale gaitzetsientzat: haietako bakoitzak ez zezakeen dudarik egin Prévani sakrifikatua izanaz; eta engainatua izanaren hisia abandonatua izateak dakarren umiliazio txikiak ia beti sortzen duen beltzuriari elkarturik, hirurek deliberatu zuten, elkarri deusik erran gabe, baina adostua bailuten, auzi hartan arrazoiaren jabe egotea, eta hartu zuten beraz aurkari zorioneko hari arrazoi galdea egiteko xedea.

Honek etxean aurkitu zituen bada hiru erronka deiak; leial onartu zituen: baina abentura haren plazerrak eta eskandalua ez nahiz galdu, elkar ikusteko deiak biharamun goizeko egin zituen, eta leku berbera eta oren berbera ezarri zuen hirurentzat. Boulogneko basoko ate batean.

Arrats apala heldurik, arrakasta berberaz egin zuen bere lasterketa hirukoitza; geroztik bederen hantustetsu zebilen bere maitale berri bakoitza hiru aldiz hartua omen zelako bere

amodioaren saria eta promesa. Hemen, pentsa dezakezunez, historia honek frogak eskas ditu; historialari alderdi batera makurtu gabeak ez dezake bertzerik egin, ez bada irakurle sinesgo-gorrari ohartaraztea ezen harrokeriak eta irudimen buruberoak miragarriak asma ditzakeela, eta gehiago dena, gau guztiz ere dirdiratsu haren ondotik zetorkeen goizak ustez bere baitan zekarrela etorkizunerako ezein antolamendu egiteko salbuespena. Zer nahi ere den, ondorengo gertakariak ziurragoak dira.

Prévan oren-orenean heldu zen adostua zuen elkar ikustera; han kausitu zituen hiru aurkariak, elkarrekin topo egin izanaren harriduran, eta haietako bakoitza hein batean kontsolatua agian, ikusirik bazuela asturugaitzean kiderik. Maitagarriro eta zaldun adeiaz alboratu zitzaien, eta mintzaldi hau egin zien, hitzez-hitz bihurtu didatena:

«Jaunok», erran zien, «hemen bilduak gertatu zaretelarik, dudarik gabe asmatuko zenuten hirurak deitorekizun berbera duzuela nire kontra. Prest naukazue zor dizuedan arrazoia zuei bihurtzeko. Asturuak delibera beza nor izanen

den, zuen artean, hirurei eskubide berberaz dagokizuen mendekua hartzera entseiatzen lehena. Ez dut hona ekarri ez ordezkorik, ez leku-korik. Ez ditut laidorako baliatu; ez ditut laidoa kitatzeko galdatzen.» Gero bere izaera jostariari men eginez, erantsi zuen: «Badakit bakan baizik ez dela *zazpiko jokoan* irabazten; baina zeinahi ere dela zain dudan asturua, batbedera betiere aski eta sobera bizi izana date, baldin emakumeen amodioa eta gizonen estimua bereganatzeko astia izan badu.»

Aurkari harrituak isilean elkarri so zeuden bitartean, eta adeitasunez kalkulatzeko halaber borroka hirukoitz hark ez zuela agian berdintasunik, Prévan berriz mintzatu zitzaien: «Ez dizuet isilean gordeko», segi zuen beraz, «bartko ekinaldiak lazki unatua naukala. Eskuzabalak zintuzketet baldin indarberritzera utziko baninduzue. Manatu dut izan genezan hemen bazkari bat prestaturik; egidazue bazkari hori onartzeko ohorea. Dugun elkarrekin bazkal, eta batez ere alegera bazkal. Borrokatzen ahal gara gisa horretako huskeriengatik; baina ez digute, nire ustean, aldartea mudarazi behar.»

Bazkaria onartua izan zen. Prévan, diotenez, nehoiz ez zen hain amoltsu agertu. Haren ezein aurkari ez umiliatzeko bezain trebe ari izan zen; hirurek arrakasta berbera aise erdietsiko zuketela sinestarazteko halaber, eta batez ere aitorrarazteko ez zuketela okasio hura berak baino gehiago utziko galtzera. Egintza horiek aitortuak izan ziren orduko, dena berez konpondu zen. Hala, bazkaria artean bukatu gabe zela, eta horra non jadanik hamar aldiz elkarri errepikatuak ziren ezen ez zutela gisa hartako emakumeek jende prestuak haiengatik borroka zitezen merezi. Ideia hark elkarren begikotasuna ekarri zuen, ardoak bortiztu; hala non handik berehala ez zuten askietsi herrari sekulako uko egin izana, adiskidantza osoa zin egin zioten elkarri.

Prévanek, dudarik gabe berdin maite baitzuen bukaera hori zein bertze bat, ez zuen haatik deus ere galdu nahi bere ospetik. Beraz, bere asmoak egokiera hartara trebe moldaturik, hiru laidoztatuei erran zien: «Izan ere», ez duzue nitaz mendekatu behar, zuen maitale desleial horiez baizik. Mendekatzeko okasioa eskaintzen dizuet. Ari naiz jadanik sentitzen, zuhaurek beza-

la, sarri nirea ere izanen den laido bat: zeren baldin zuetarik nehork ez badu emakume bat bakarra atxikitzea erdietsi, igurika ote nezake nik hirurak atxikitzea? Zuen liskarra orobat da orain nirea. Onar ezazue arren gaur gauean nire etxe ttipian afaltzeko gomita, eta igurikitzen dut zuen mendekua luzaz ez gibelatzea.» Argibideak nahi izan zizkioten emanarazi: Prévanek ordea, tenore hartan zilegi zitzaion nagusi doinuaz, ihardetsi zien: «Jaunok, frogatu uste dizuet badakidala nola jokatu; fida zakizkidate.» Hirurek onartu zuten; eta adiskide berria besarkatu ondoren, arratsa arte bereizi ziren, haren promesen ondorioaren aiduru.

Prévan, denborarik galdu gabe, Parisa itzultzen da, eta badoa, ohiturari jarraiki, mendean hartu berri dituen emakumeak ikustera. Erdietsi zuen hirurengandik arrats hartan berean jinen zirela bere etxe ttipian berarekin *buruz buru* afaltzera. Haietariko bik zerbait traba jarri zuten, baina biharamunean ba ote da zer ukaturik? Oren bateko tartez egin zien elkar ikusteko deia, denbora hori behar baitzuen bere asmoak betetzeko. Prestakizun horien ondoren, joan zen,



mezutu zituen hiru kide elkar hartuak, eta laurak bozkariotan joan ziren beren kalteak igurikatzen.

Aditzen dute lehena etortzen. Prévan bakarrik agertzen da, presatua iduri egiten dio begitarte, eramaten du santutegira, non neskak hango jainkosa izan uste baitzuen; gero, estakuru arin batez desagerturik, berehala jinarazten du beraren ordeaz maitale laidoa.

Sumatuko duzu ezen oraino abentura ohi-turik ez duen emakume baten nahasmenduak garaipena aski erraza bihurtzen zuela une hartan: egin ez zen liskar bakoitza ontartetzat hartua izan zen; eta esklabo ihesi joan hark, bere nagusi ohiaren mendean berriz ezarriak, bozkarioak egin zituen lehengo kate berari estekaturik barkazioa igurikatu ahal izanaz. Bake hitzarmena leku bakartuago batean berretsi zuten, eta agertokia, hutsik geratua, aldizka-aldizka bertze jokalariek bete zuten, berdintsu, eta batez ere bukaera berberaz.

Emakume bakoitzak haatik uste zuen batbendera zela jokoan ari zen bakarra. Are gehiago harritu eta asaldatu ziren ordeak hiru bikoteak

afalorduan bildu zirenean; baina nahasmendua mukurutu zitzaien, Prévanek, ororen erdian berriz agerturik, hiru desleial haiei ankerki desenkusak erakutsi zizkienean; eta, haien sekretua agerian utzirik, guztiz jakinarazi zirenean zein heineraino izan ziren engainatuak.

Mahaian jarri ziren haatik, eta emeki emeki neurritasuna gailendu zen: gizonak amore eman zuten, emakumeek men egin. Denek herra zuten bihotzean; baina solasak haatik goxoak ziren: alaitasunak desira zuen biztu, eta desirak, berriz, xarma berriak eman zizkion alaitasunari. Orgia harrigarri hark goizaldera arte iraun zuen; eta bereizi zirelarik, emakumeek barkatuak izan zirela uste izan zuten: baina gizonak, erresumina beren baitan gordea baitzuten, biharamunaz geroztik emazteak sekula betiko zapuztu zituzten; eta beren maitale arinak utzi izana ez askie-tsirik, beren mendekua burutara eman zuten, abentura hura argitara emanez. Harrezkeroztik, haietariko bat komentuan da, eta bertze biak bihotza galdurik beren lurretan erbesteratuak.

Horra Prévanen historia; zuri dagokizu ikus-tea ea haren loria nahi duzun gehitu, eta haren

garaipen orgari nahi zatzaizkion lotu. Zure gutu-  
nak zinez kezkatu nau, eta ezinegonik iguriki-  
tzen dut izkiriatsu dizudan azkenari erantzun  
zuhurrago eta argiago bat emanen diozula.

Adio, adiskide ederra, ez zakizkie fida betiere  
errazegi liluratzen zaituzten ideia atsegingarri  
edo harrigarri. Egizu kontu ezen, zu zabiltzan  
lasterketa horretan, adimena ez dela aski, ezen  
zuhurtziagabekeria bat bakarra konponbiderik  
gabeko gaitz bihurtzen dela. Utziozu azkenik  
adiskidantza zuhurrari noizean behin zure plaze-  
rren gidari izaten.

Adio. Maite zaitut haatik zentzuduna bazina  
bezala.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 18an.*

## **LXXX. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK CÉCILE VOLANGESI

Cécile, nire Cécile laztana, noiz etorriko da  
elkar berriz ikusteko tenorea? Nork irakatsiko dit  
zugandik urrun bizitzen? Nork emanen dit horre-  
tarako indarra eta kuraia? Nehoiz, ez, nehoiz ez

dut zorigaiztoko ausentzia hori jasaten ahalko. Egunetik egunera malura zait areagotzen: eta malura hori noiz finituko den ikusten ez! Valmontek laguntza eta kontsolamenduak agindu zizkidan, Valmont nitaz ezaxolatu da ordea, eta ahortzi nau menturaz. Maite duen emakumearen ondoan da; ez daki jadanik zenbat sofritzen den maiteagandik urrundurik. Zure azken gutuna helaraztean, ez dit deusik izkiriatu. Hura da haatik noiz eta zein bidez ikus zaitzakedan jakinarazi behar didana. Deusik ez du bada niri errateko? Zuhaurk ere ez didazu deusik aipatzen horretaz, nire desira hori bera zuk jadanik ez duzulako ote? Ah! Cécile, Cécile, arras dohaka-bea naiz. Nehoiz baino gehiago maite zaitut: baina maitasun horrek, nire bizitza edertzen badu ere, orobat oinazetzen du.

Ez, ezin ninteke gehiago honela bizi, behar zaitut ikusi, nahitaez, instant batez ez bada ere. Iratzartzen naizelarik, egiten dut neure artean: «Ez dut ikusiko.» Oheratzen naiz erranez: «Ez dut ikusi.» Hain egun luzeek ez dute zorion une bat bakarra ere. Oro da gabezia, oro damu, oro etsimendu; eta gaitz horiek guztiak nire plazer

guztiak igurikatzen nituenarengandik datozkit! Gehi iezaiozu atsekabe hilgarri horiei zureek sortzen didaten kezka, eta sumatuko duzu zein egoeratan naizen. Zugan dut etengabe pentsatzen, eta nehoiz ez durdizarik gabe pentsatzen. Baldin atsekabetan eta maluros ikusten bazaitut, zure xangrin guztiek sofriarazten didate; baldin lasai eta kontsolaturik ikusten bazaitut, nireak orduan gehiagotuak dira. Malura kausitzen dut nonahi.

Ah! Ez zen bada hala, ni bizi nintzen leku berean bizi zinelarik! Orduan oro plazerra izaten zen. Zu ikusteko segurantzak ausentziazko uneak berak ere edertzen zituen; zugandik urrun eman behar izaten nuen denborak bere iragaitan zugana ninduen hurbiltzen. Denbora horren erabilera sekula ez zitzaizun arrotz. Baldin egin-beharrak egiten banituen, zure merezidunago bihurtzen ninduten; baldin dohainen batean trebatzen banintzen, igurikatzen nuen zuri atsegin gehiago ematea. Munduaren distrakzioek zugandik urrun ninderamatelarik ere, ez nintzen haatik zugandik bereiz. Teatroan, entseiatzen nintzen zer laket ote zitzaizukeen asmatzera; kontzertu

batek zure dohainak eta gure zeregin hain eztiak zekarzkidan gogora. Lagunartean bezala prome-naldietan ere, zure antzik den mendrena antze-maten nuen. Ororekin berdinkatzen zintudan; orotan zu zinen abantailatan. Eskaintza berri batek seinalatzen zuen egunaren une bakoitza, eta gauero zure oinetara nekarren saria.

Orain, zer gelditzen zait? Damu mingarriak, gabetze eternalak, eta Valmonten isiltasuna gutxituko den eta zurea kezka bihurtuko den esperantza arin bat. Soilik hamar lekoak bereiz-ten gaituzte, eta bitarte gaindierraz hori soil-soi-lik niretzat da ezin gaindituzko traba bihurtu! Eta, traba hori gainditzeko laguntza arrenka gal-datzen diodanean neure adiskideari, neure mai-taleari, bi-biak hotz eta lasai gelditzen dira! Ni laguntzetik urrun, ez didate erantzunik ere ema-ten.

Zer bilakatu da bada Valmonten adiskidantza ernea? Zer bilakatu dira, batez ere, zure senti-mendu guztiz amoltsuak, eta egunoro elkar ikus-teko bideak bilatzeko trebe jokarazten zintuzte-nak? Batzuetan, ondo gogoan dut, elkar ikusteko desira izatetik baratu gabe, sakrifikatu behar iza-

ten nion desira hori zernolakoei, betebearrei; orduan zer ez zenidan erraten? Zenbat estakuruz ez ote zenituen nire arrazoiak gudukatzen? Eta gogoan izan, Cécile, nire arrazoiek betiere amore ematen zieten zure desirei. Karia horretara ez dut nihauren baitan merezimendurik ikusten! Sakrifizioaren merezimendua ere ez nuen. Zuk zer ere nahi baitzenuen erdietsi, ni zuri emateko irrikan bainintzen. Baina azken buruan badut nik ere galderik: eta zein da galde hori? Une batez zu ikustea, amodio eternalaren zina zuri berriz egin eta zugandik berriz hartzea. Zure zoriona ez ote da bada jadanik nirearen gisakoa? Uko egiten diot uste etsipengarri horri, nire oina-zeak mukurutuko bailituzke. Maite nauzu, beti maiteko nauzu; hala uste dut, ziur naiz horretaz, ez dut nehoiz zalantzan jarri nahi: baina nire egoera izugarria da eta ez nezake luzaz hala iraun. Adio, Cécile.

*Parisen, 17\*\*ko irailaren 18an.*

# LXXXI. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Zure beldurrak zeinen urrikgarriak zaizkidan! Zenbatez frogatzen didaten arras gailendua zaitudala! Eta zuk nahi didazu irakatsi, nahi nauzu gidatu? Ah! nire Valmont gaixoa, zeinen handia den oraino zure eta nire arteko aldea! Ez, zure sexuaren harrotasun guztia ez litzateke aski bereizten gaituen tartea betetzeko. Nire asmoak ez baitzenitzake bete, ezinezkoak direla iruditzen zaizkizu! Izaki harro eta ahul hori, kalkulatu nahi dituzu bada nire baliakizunak eta jujatu nire baliabideak! Egia erran, bizkonde, zure kontseiluek haserrarazi naute, eta haserre hori ez dezaket gorde.

Ezen lehendakariaren emazteari erakutsi diotzun moldakaizkeria sinets ezin ahalakoa ezkutatzearren, garaile ustean nigana harro etortzea, emakume ahalketi eta maite zaituen hori une batez nahasi duzulako, ontzat ematen dizut; ezen harengandik behako bat, behako bat bakkarra erdietsi izanari, irribarrez diot hala biz. Ezen konturatu baitzara, gogoz kontra konturatu ere,



zure jokabidearen balio eskasaz, igurika dezazun jokabide horri ohart ez nakion, ni balakaturik bi ume elkargana hurbiltzeko ahalegin gorenagatik, nahiz biak elkar ikusteko irrika bizian diren, eta, bide batez derradan, niri baizik zor ez didaten desira horren karra; horri ere on deritzot. Azkenaz goiti balentria horiek zilegi harturik, niri maisu doinuz erran diezadazun *hobe duela nork bere denbora asmoak betetzen ematea, asmo kontari baino*, harrokeria horrek ez dakarkit kalterik, eta barkatzen dizut. Baina uste ahal izan zenezan ezen zure zuhurtziaren beharretan nagoela, ezen zure iritziei men egin ezean galdua nengokeela, ezen iritzi horiei behar diedala plazer bat, gutizia bat sakrifikatu: egiazki, bizkonde, adeitasunez agertzen dizudan fidantziaz sobera harrotzea da!

Eta zer egin duzu bada nik mila aldiz gainditu ez dudanik? Anitz emakume dituzu seduzitu, baita galdu ere: baina zer zailtasun garaitu behar izan dituzu? Zer oztopo gainditu? Non da zinez zuri dagokizukeen merezimendua? Gorputz ederra, zoriaren ondorio hutsa; graziak, ohi-turak ia beti ematen dituenak, adimen bizia egia

erran, baina behar izanez gero ele zuriak ordezkatuko lukeena; lotsagabekeria aski laudagarri bat, baina beharbada zure lehen garaipen errazei baizik zor ez zaiona; baldin oker ez banago, horra zure baliakizun guztiak: zeren, erdietsi ahal izan duzun ospeaz den bezanbatean, ez duzu fermuki galdatuko, hala uste dut, balio handitan har dezadan eskandalubide bat sorrarazteko edo baliatzeko antzea.

Zuhurtziaz, maltzurkeriaz den bezanbatean, ez naiz nitaz mintzo: baina zein emakumek ez ote luke zuk baino gehiago? Hara! Lehendakariaren emazte horrek haur baten gisa zaramatza.

Sinets nazazu, bizkonde, bakan eskuratzen dira behar ez diren dohainak. Arriskurik gabe borrokatuz, zuhurtziarik gabe behar duzu ekin. Zuentzat, gizonentzat, gudu galtzeak garaipen apalagoak baizik ez dira. Joko guztiz oreka galdu horretan, ez galtzea da gure zoriona, eta ez irabaztea da zuen malura. Onartuko banu ere badi-tuzuela guk bezainbat dohain, zenbatez oraino ez zintuztegun gailendu beharko, dohain horiek etengabe erabiltzeko premian garenez?

Demagun, ontzat hartzen dizut, zuek hain zaretela trebeak gu garaitzen, nola baikara gu geure burua defendatzen edo amore ematen, aitortuko duzu bederen ezen trebetasuna alferrikakoa zaizuela garaipenaren ondoren. Jaidura berri hori izan ezik ez duzue bertze eginkizunik, hari men egiten diozue beldurrik gabe, neurritasunik gabe: zenbat iraunen duen zuei axolarik ez.

Alabaina, elkarri eman eta harturiko lotura horiek, amodioaren hizkeraz hitz egitearren, soilik zuek, zuen gogara, tinka edo hauts ditzakezue: zorionekoak gu, baldin zuen arinkerian, nahiagoz misterioa eskandalua bainoago, abandonu umiliagarri bat askiesten baduzue, eta ez baduzue bezperako idoloaz biharamuneko kalte-duna egiten.

Baina bere katearen zama lehenik sentitzen duen emakume dohakabe batek, zein arrisku ez ote ditu jasan behar, baldin ahalegintzen bada ihes egiten, baldin soil-soilik ausartzen bada katea altxatzera? Dardara bizian baizik ez da entseiatzen haren bihotzak indarrez gaitzesten duen gizona harengandik urrunaraztera. Gizona

tematzen bazaio gelditzera, emakumeak eskaintzen ziona amodioari, beharko dio eman beldurri:

*Besoak ditu oraino zabalik bihotza hertsia izanik.*

Zuhurtziaz behar ditu trebe laxatu zuek aise hautsiko zenituzketen lotura horiek berak. Etsaiaren peko, ez du baliakizunik, baldin gizonak ez badu eskuzabaltasunik: eta harengandik nola igurika eskuzabaltasunik, baldin noizik behin laudatzen badute eskuzabala izan delako, sekula ez diote haatik eskuzabala izan ez delako egiten liskarrik?

Dударик gabe, ez dituzu ukatuko nabarmenaren nabarmenez arrunkeria bilakatu diren egia horiek. Baldin ikusi izan banauzu haatik, gertakariak eta iritziak neure gogara antolatuz, gizon arras beldurgarri horiek nire apeten edo nire gutizien jostailu bihurtzen; orobat batzuei ebasen borondatea, bertzeei niri kalte egiteko ahalbidea; baldin jakin izan badut, aldizka-aldizka, eta nire gustu aldakorrei jarraikiz, nire gibelean atxikitzen edo nigandik urrun aurtikitzen

*Tronutik egotzitako tirano, nire esklabo bihurtu horiek;*

baldin, iraulketa usu horien erdian, neure omena haatik garbi gorde badut; ez zenukeen ondorioz pentsatu behar, ezen nire sexua mendekatzeko eta zuenari nagusitzeko jaioa izaki, jakin izan dudala orain arte ezezagunak ziren baliabideak sortzen?

Ah! Gorde zure kontseiluak eta zure beldurak eldarnioak jotako emakume horientzat, eta beren burua *sentimenduari emana* daukatenentzat; irudimen bizi-bizikoak baitira, iduri luke beraz izadiak buruan ezarri diela zentzumena; eta sekula gogoetarik egin gabeak izaki, nahasten baitituzte etengabe maitasuna eta maitalea; eta, beren ilusio eroan, uste baitute plazerraren bila lagun izan duten hura dela plazerraren gordailu bakarra; eta zinez baitira sineskeriazale, apaizari diote Jainkoari baizik zor ez zaion errespetua eta fedea.

Zaude oraino beldur zuhurak bainoago ari-nak diren emakume horiengatik, ez baitakite, behar izanez gero, abandonatuak izan direla onartzen.

Egizu batez ere dardara laxokeriari arrunt emanak diren emakume horiengatik; zuek *senti-korrek* deitzen dituzuenak, eta amodioak hain errazki eta hain indartsu mendeen hartzen dituenak; nahiz jadanik ez duten amodioaz gozatzen, amodioari atxikiak egoteko premian daudenak oraino; eta neurritasunik gabe emanak beren usteak hartzitzeari, sorrarazten dituztenak gutun guztiz ezti baina izkiriatzeko guztiz arriskutsuak; eta beldurrik ez dutenak beren ahulkeriaren frogak ahulkeria hori eragin duen presunari fidatzeko: zuhurtziagabeak, zeren ez baitakite orain duten maitaleagan, etorkizuneko etsaia ikusten.

Nik ordea, ba ote dut deus komunik emakume funtsik gabe horiekin? Noiz ikusi nauzu neure buruari manatuak dizkiodan arauetarik urruntzen, eta neure oinarritzko araei huts egiten? Neure oinarritzko arauak erran dut, bai berariaz erran ere: zeren ez baitira bertze emakumeenak bezalakoak, zoriak emanak, aztertu gabe jasoak eta ohituraz jarraikiak, nire gogoeta sakonen emaitza dira; nik ditut sortu, eta erran dezaket neure burua nihauc egina dela.

Sartu nintzelarik munduan, neskato oraino, neure egoeraren karietara isiltasunera eta deus ez egitera behartua nintzen garaian, jakin nuen profitatzen so egon eta gogoeta egiteko. Txoriburua edo arretagaldia nintzela uste zuten bitartean, ahalegin bizian egiten zizkidaten hitzaldiak gutxi aditurik egia erran, artoski biltzen nituen gorde nahi izaten zizkidatenak.

Jakinmin onuragarri hark, irakasbide gisa baliatu zitzaidalarik, orobat irakatsi zidan disimulatzen: begiz joak nituen xedeak inguratzen nindutenen begietarik gordetzera sarri behartua, entseiatzen nintzen neureak nire gogara gidatzera; erdietsi nuen harrezkeroztik zuk maiz laudatu izan didazun behako arretagaldia hori neure nahira baliatzea. Lehen erdieste horrek akuilaturik, saiatu nintzen neure begitarteko keinu anitzak era berean moldatzen. Zerbait atsekabe sentitzen nuela, sosegu itxura, are bozkario itxura ere, irudikatzeari ekiten nion; neure eginahala neure burua nahita oinazetzeko heineraino eramane nuen, bitarte horretan plazerraren aurpegiera bilatzeko. Arta berberaz eta neke handiagoz ekina nintzen ustekabeko alaitasun baten

sintomak zapatzeko. Halatan ikasia nintzen nire hazpegiei nehoiz edo behin zu horrenbertze harritu zaituen ahalmenaz nagusitzen.

Aski gaztea nintzen artean, eta kasik interesik gabea: baina neure pentsamenduaren jabe baizik ez nintzen, eta sumintzen ninduen edeki ahal ziezadaten edo neure gogoz kontra ustekabean antzeman. Lehendabiziko arma horiez horniturik, saiatu nintzen arma horiek baliatzen: bertze nehuri nire baitan barneratzen ez uztea askietsi gabe, libertitzen nintzen neure burua molde desberdinetan agerturik; neure keinuez ziur, neure hitzei so nengoen; batzuk zein bertzeak moldatzen nituen, egoerari jarraiki, edo soil-soilik nire gutiziei jarraiki: harrezkeroztik, nire pentsabidea ez zen niretzat baizik izan, eta ez nuen erakusten agerian jarritz gero baliagarria zitzaidana baizik.

Nihauren baitan egina nuen lan hark begitar-teen eitean eta hazpegien nolakotasunean finkarazi zidan arreta; eta halatan irabazi nuen begi ukaldi sarkor hori, esperientziak haatik hari osoki ez fidatzera irakatsi didana; baina, oro har, oso bakan tronparazi nauena.



Hamabortz urte ez nituen oraino, neuretuak nituen jadanik gure politika gizon gehienek beren omena zor dieten dohainak, eta ez nintzen oraino ikasi nahi nuen zientziaren hastapenetan baizik.

Sumatuko duzu ezen, neska gazte guztien gisara, amodioa eta bere plazerrak igerri nahian nenbilela: baina ez bainintzen sekula komentuan egona, ez bainuen adiskide minik, eta ama erne batek zaintzen baininduen, ideia nahasiak eta nekez finka nitzakeenak baizik ez nituen; izadiak ere, nahiz geroztik laudorio betean eduki nauen segurki, ez zidan oraino ezein aztarnarik ematen. Erran zitekeen isilean ari zela beraren egitate hobekitzen. Soilik burua ari zitzaidan hartzitzen; ez nuen gozatu nahi, jakin egin nahi nuen; jakitun egon nahiak ikasbideak iradoki zizkidan.

Ulertu nuen nire kofesora zela arriskutan sartu gabe sujet horrez mintza nintzaiokeen gizon bakarra. Berehala hartu nuen xedea; neure ahalke ttipiari nagusitu nintzaion; eta egin ez nuen oker batez hanturik, *emakumeek egiten duten guztia* egin izanaz akusatu nuen neure burua. Horiek izan ziren nire hitzak; baina horre-

la mintzaturik ez nekien egiaz zein ideia ari nintzen adierazten. Nire esperantza ez zen ez erabat zapuztua, ez osoki betea izan; neure burua traditzeko beldurak ez zidan uzten argiago mintzatzen: baina apaiz on hark gaizkia hain lazki irudikatu zidan, non ondorioz uste izan bainuen plazerrak ezinago handiagoa izan behar zuela; eta plazerra ezagutu nahiak gozatu nahia ekarri zuen.

Ez dakit nahi horrek nora eramane ote ninduen; eta artean esperientziarik gabea bainintzen, menturaz okasio batek bakarrak galduko ninduen: beharrik amak egun gutxi barru iragarri zidan esposatzera nindoala; jakiteko segurantzak berehala iraungi zidan jakinmina, eta birjina heldu nintzen Merteuil jaunaren besoetara.

Segurtasunez igurikitzen nuen ezagutza eman behar zidan unea, eta gogoeta behar izan nuen egin asaldura eta beldurra erakusteko. Lehen gau horrek, nahiz eskuarki arras anker ala arras ezti iduri baitu, ez zidan aurkezten esperientzia hartzeko okasio bat baizik: oinazeari eta plazerrari, orori nengoen xeheki so, eta zirrara

antiz horietan ez nituen ikusten bildu eta gogoe-  
tatu beharreko egintzak baizik.

Ikaskizun mota hori sarri laketu zitzaidan:  
baina nire oinarrizko arauak leial gorderik, eta  
sentiturik, senez agian, ezeinek ez zuela nire  
fidantziatik urrunago egon behar nire senarrak  
baino, deliberatu nuen, sentibera nintzelako hain  
zuzen ere, sorgor agertzea haren aitzinean.  
Geroztik itxurazko hostasun hura izan zen haren  
fidantzia itsuaren oinarri ezin hautsizkoa: emen-  
datu nion, bigarren aldiz gogoeta eginez, nire  
adinarekin bat zetorren txoriburuaren itxura; eta  
nehoiz ez ninduen umeago ikusi, ausardiarik  
handienaz jokatzeko nion uneetan baino.

Hala ere, aitor dezadan, hasieran men egin  
nion herrestan ninderaman munduaren zurrunbi-  
loari, eta bete betean lotu nintzaie bere distrak-  
zio hutsalei. Zenbait hilabeteren buruan ordea,  
Merteuil jaunak bere landa tristera eramana nin-  
duelarik, asperraren beldurak ikasketarako gos-  
tua etorerrarazi zuen berriz; eta inguruan ez bai-  
nuen niri buruz urruntasunari atxikia behar  
zitzaion jendea baizik, susmo ororen gerizan jar-  
tzen ninduena, probetxatu nintzen neure espe-

rientziei eremu zabalago bat emateko. Orduan nion, batez ere, neure buruari frogatu ezen gure plazerren kausa delakoan goersten diguten amodioa, plazerren estakurua baizik ez dela.

Merteuil jaunaren eritasunak zeregin hain eztiak eten zituen; hirira behar izan nintzaion jarraiki, sokorri galdez zetorren eta. Hil zen, daki-zun bezala, handik gutxira; eta nahiz, oro har, ez nuen harez zer deitoraturik, ez nuen bizitasun gutxiagoz sentitu neure alargunaldiak eman behar zidan libertatearen balioa, eta hartaz baliatzea hitz eman nion neure buruari.

Gure amak komentuan sartuko nintzela, edo berarekin bizitzera joanen nintzela uste zuen. Xede bati nahiz bertzeari uko egin nion; eta zintzotasunari egin nion men bakarra izan zen landa hartara berera itzultzea, bai bainituen han oharpen batzuk oraino egiteke.

Irakurketaren laguntzaz bortiztu nituen: ez pentsa ordea irakurgaiak zuk uste duzun motakoak izan zirenik. Gure ohiturak nobeletan aztertu nituen; gure iritziak filosofoengan; moralistarik zorrotzenen baitan ere ari izan nintzen gugandik zer galdatzen zuten bila, eta halatan

seguratu nintzen zer behar genuen egin, zer behar genuen pentsatu eta zer itxuratan behar genuen agertu. Hiru xede horiek finkatuak izan orduko, azkenekoak baizik ez zituen zailtasun batzuk obratzeko; zailtasun horiek garaitzea igurikitzen nuen eta gogoeta egin nuen hori erdiesteko bideez.

Hasia nintzen larre plazer haiez aspertzen, molde beretsukoak baitziren nire buru ernearentzat; eder agertzeko halako premia bat sentitzen nuen amodioarekin onezkoak eginarazi zizkidana; ez amodioa zinez sentitzeko, bertzeri sorrazteko eta haren itxurak egiteko baizik. Debaldetan errana zidaten eta irakurria nuen ezin egin zitekeela sentimendu horren itxurarik. Ikusten nuen haatik ezen erdiesteko aski zela autore baten dohainari antzezle baten jeinua eranstea. Bi alor horietan trebatu nintzen, eta menturaz arrakasta doi batez: baina teatroaren esku zarta debaldekoak bilatu orde, deliberatu nuen neure zorionerako baliatzea bertze anitzek harrokeriari sakrifikatzen ziotena.

Urte bat eman nuen zeregin anitz horietan. Doluak jendaurrean berriz agertzen uzten baitzi-

dan, hirira itzuli nintzen neure asmo handiekin; ez nuen igurikitzen han kausitu nuen lehen oztopoa.

Bakardade luze hark, bazterraldi latz hark, gure gizonik atseginenak izutuak zeuzkan ahal-keriazko bernizadura bat zuen nigan ezarria; gizon haiek hastanduak ziren, eta gizon gogaikarri oste baten peko utzia ninduten, den-denek niri ezkontzeko galdea egin nahian. Haiei uko egiteak ez ninduen asaldatzen; baina nire familiak hastio zituen horietariko uko anitz, eta barne nahaskeria haietan galtzen nuen neure buruari zeregin anitzez ere xarmangarriagoetan emanen nuela hitz emana nion denbora. Behartua izan nintzen beraz, batzuek erakartzeko eta bertzeak aienatzeko, segida eza batzuk agerian uztera, eta nire omenari kalte egiteko baliatzera hura gordetzeko baliatzekotan nintzen arta guztia. Aise erdietsi nuen, pentsa dezakezun bezala. Baina ezein grinak ez baininduen mendean hartua, beharrezkoa iruditzen zitzaidana baizik ez nuen egin eta zuhur eta izariz baliatu nituen neure burugabekeriak.

Iritsi nahi nuen xedera heldu nintzen orduko, gibelera egin nuen berriz, eta neure oneratzearen begirunezko eskaintza egin nien atsegingarriak gertatu nahiaren ezinean merezimendua-  
ren eta bertutearen nahikundera makurtuak diren horietariko emakume batzuei. Urrats hura uste baino askoz baliagarriagoa izan zitzaidan. Esker oneko emakume adintsu begirale haiek nire apologista gertatu ziren; eta beren obra deitzen zioten horri agertzen zioten lehia itsua halako heinera eraman zuten, non nehork nitaz ele-  
rik den mendrena ere erraten baldin bazuen, deboziokeriaren alderdi osoak eskandalua eta laidoa auhendatzen baitzuen. Bide berberaz erdietsi nuen orobat gure emakume askonahien onespena, zeren, haien lasterketa berean ibiltze-  
ari uko egina niolako uste osoan baitziren, hautatu baininduten beren laudorioen xedetzat, jende oroz gaitzerranka aritzen ez zirela frogatu nahi zuten aldi guztietan.

Haatik alde zurreko nire jokabideak maita-  
leak erakarri zituen; eta haien eta nire babesle leialen artean ibili ahal izateko, agertzen nintzen emakume sentikor baina zail baten gisara, bere

buruaren soberazko begiramenak amodioaren kontra armez hornitua zeukan emakume baten gisara.

Orduan hasi nintzen neure buruari emanak nizkion dohainak teatro handian hedatzen. Ezin garaituzkoa nintzelako omena neureganatzea izan zen nire lehen ardura. Hori erdiesteko, laket ez zitzaizkidan gizonak izan ziren beti begirunezko eskaintzak onartze irudi bat egin nien baka-rak. Onura handiz baliatzen nituen ihardukitzai-learen ohoreak eskuratzeko, bitartean aldiz bel-durrik gabe emana nintzaion maitale hobetsiari. Baina honi, nire ahalke itxuratuak sekula ez zion utzi munduan barna nire atzetik etortzen; eta lagunartearen behakoak, halatan, izan ziren beti maitale dohakabeagan finkatuak.

Badakizu zeinen bizkor deliberatzen dudan: ikusia baitut aldez aurreko artak izaten direla ia beti emakumeen sekretuak agerian jartzen dituztenak. Zernahi ere egin ahal delarik, doinua ez da sekula berbera izaten, erdietsi aurretik edo ondotik. So egile erneari nehoiz ez zaio desber-dintasun hori itzurtzen eta arrisku gutxiagokoa iruditu izan zait gaizki hautatzea, hautatuari



nigan barneratzen uztea baino. Halatan irabazten dut berebat egiantza deusezte, soil-soilik haren arabera jukatzen ahal baikaituzte.

Izari horiek, eta nehoiz ez izkiriatzekoa ere, nire hondamenaren ezein frogarik nehoiz ez ematearena, soberazkoak lirudikete, eta ez ditut sekula askietsi. Nire bihotzean barneraturik, han aztertua naiz bertzeena ere. Han ikusia naiz ezen ez dagoela nehor begien bistan jartzea axola ez zaion sekreturik han gordetzen ez duenik: egia hori antzinateak ustez guk baino hobeki ezagutu zuen, eta baliteke Sansonen historia ez izatea egia horren irudi antzatsu bat baizik. Dalila berri baten gisara, nik ere, hark bezala, neure ahal guztiak egin ditut garrantzi handiko sekretu hori atzemateko. Hots! Gure Sanson modernoetarik zenbaten adatsak ez ote dauzkat guraizeen peko? Eta horiei guztiei jadanik ez diet beldurrik; horiek dira noizik behin berariaz umiliatu izan ditudan bakarrak. Guriago jokaturik bertzeekin, haien iritzian aldakor ez agertzeko haiek antze handiz desleial bilakarazirik, adiskidantzaren itxurak eginez, itxurazko fidantziaz, zenbait egitate eskuzabalez, nire maitale baka-

rra izan delako balakuzko ustea batbederari sinetsarazirik, halatan erdietsi dut haien isiltasuna. Azken buruan, baliabide horiek huts egin didatelarik, jakina naiz, hausturak alde zaurretik ikusiz, gizon arriskutsu horiek lor zezaketen fidantzia irigarrikeriaz edo gezur beltzaz alde zaurretik itotzen.

Hor erraten dizudana, etengabe egiten ikusten nauzu; eta duda egiten duzu nire zuhurtziaz! Hots bada! Gogoan har zeure lehen artak eskaini zenizkidan aldia: ezein begirunezko eskaintzak ez nau sekula horrenbertze lausengatu; ikusi baino lehen desiratzen zintudan. Zure omenaz seduzitua, iruditzen zitzaidan nire loriak zure eskas zuela; irrika bizian nintzen zurekin buruz buru borrokatzeko. Hura da aldi batez nagusitu izan zaidan jaidura bakarra. Haatik, baldin galdu nahi izan baninduzu; zein baliakizun kausituko zenituzkeen? Gibelean ezein aztarnarik uzten ez duten alferrikako solasak, zure omenaren bera- ren laguntzaz susmotan jarriak lirakekeenak, eta egiantzarik gabeko egitate segida bat, zin-zinez kontatuz gero makur onduriko nobela baten eitea zukeena. Egia erran, geroztik neure sekre-

tu guztiak jakinarazi dizkizut: badakizu ordea zein interesek lotzen gaituzten, eta badakizu orobat, gu bion artean, niri egotzi behar ote zaidan zuhurtziagabea izatea.

Kontuak errendatzen ari natzaizunez, zehatz nahi dizkizut errendatu. Hemendik aditzen dizut erraten neure gelariak bederen bere peko naukala; alabaina, nahiz ez duen nire sentimenduen sekretua, badu nire egintzena. Behinola hori bera aipatu zenidalarik, ihardetsi nizun hari arras fidaturik nintzela; eta ihardespen hori zure lasaitasunari aski izan zitzaiolako froga da ezen geroztik fidatu izan diozula, zure kontura, sekretu garrantzitsurik. Baina egungo egunean Préva-  
nen geriza nagusitzen ari baitzaizu, eta burua jiraka ari baitzaizu, duda egiten dut hitzean jarraitzen dudarik oraino uste ote duzun. Behar zaizu bada irakatsi.

Hasteko, neska hori bular ahizpa dut, eta lotura hori guretzat hutsala izanagatik, ez da indarrik gabea gisa horretako jendakiarentzat: bertzenaz, haren sekretuaren jabe naiz, eta hobeki dena, amodiozko eroaldi batek joa, galdua zatekeen nik salbatu ez banu. Haren ahai-

deek, ohorez laztuak, hura giltzapean sartzea baino gutxiagorik ez zuten nahi. Nigana jo zuten. Begi ukaldi batez ikusi nuen haien kolera zenbaitz ere balia nezakeen. Ni ere herratsu agertu nintzen, eta manua galdatu nuen, bai erdietsi ere. Gero bet-betan errukiaren alderdira makurturik ni eta makurrarazirik haren ahaideak, eta ministro zaharragan nuen itzal handia baliaturik, onartarazi nien guztiei utz nintzatela manu haren gordelari, eta manu hura betetzeko edo ez betetzeko jaun eta jabe halaber, neska horren geroztikako jokabidearen merezimenduaz nik jumatuko nuelakoan. Badaki beraz bere asturua nire eskuetan duela, eta, baldin baliakizun ahaltsu horiek geldiaraziko ez balute, ezinezkoa dena, ez dea begien bistakoa ezen haren jokabidea agerian jarri izanak eta zegokion zigorra hari betearazteak berehala kenduko liekeela sinesgarritasun oro haren hitzei?

Nik funtsezko deitzen diedan izari horiei, bertze mila gehiago juntatzen zaizkie, edo leku batekoak edo aldi batekoak, gogoetak eta ohitu-

rak behar izanez gero kausiaraziak; eta xehe-xehea aipatzea gaitz luketenak, baina artoski obratu beharrekoak, eta zehatz aipatu gabe banan-banan ezin izendatuzkoak, baina garrantzitsuak direnez usu baliatu beharrekoak, eta nire jokabide osoa baitan ahaleginez bildu behar zenituzkeenak, baldin ezagutu nahi bazenitza.

Uste izatea ordea ezen horrenbertze ardura hartu ditudala ez biltzeko gero fruiturik; ezen nire lan akigarriei esker bertze emakumeen gai-netik horrenbertze goratua naizen ondoren, nire urratsak haiek bezalatsu herrestan egitea onartuko dudala, noiz zuhurtziarik gabe, noiz herabe; ezen uste izatea batez ere gizon batek beldur nazakeela nire salbazioa ihesean baizik ez ikus-teko heineraino? Ez, bizkonde; sekula ez. Behar da garaitu edo hil. Prévanéz den bezanbatean, nahi dut eduki eta edukiko dut; nahi du erran eta ez du erranen: bi hitzetan, horra gure nobela. Adio.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 20an.*

# LXXXII. GUTUNA

CÉCILE VOLANGESEK DANCENY ZALDUNARI

Jainko jauna, hain zure gutunak nau penatu! Ez nuen bada gutun hori hartzeko biziki ezinego-nik egoteko horrenbertze premiarik! Igurikitzen nuen zure gutunean kontsolamendurik aurkitzea, eta horra non gutuna hartu aurretik baino atsekabetuago nagoen. Negar asko egin dut hura irakurtzen: ez dakarkizut hori liskarbide; anitzetan egin izan baitut zugatik negar, batere penatu gabe. Oraingoan, aldiz, ez da gauza bera.

Zer erran nahi duzu bada, ezen amodioa oinaze bihurtua zaizula, ezen ezin bizi zarela gehiago halatsu, ez egoera horretan luzaz iraun? Ni maitatzetik baratu behar zara, hau ez delako bertzetan bezain atsegina? Iruditzen zait ni ez naizela zu baino urosago, aitzitik; eta hala ere ez zaitut anitzez gehiago baizik maite. Valmont jaunak ez dizula izkiriatu, ez da nire hutsa; ezin izan diot zuri izkiria diezazun otoiztu, zeren ez bainaiz harekin bakarka egon, eta adostua baitugu nehoiz ez garela jendaurrean elkarrekin mintzatu: eta hori ere zugatik da, ahalik lasterrena

egin ahal izan dezan zuk nahi duzuna. Ez dut erraten nik ere ez dudarik nahi, zaude otoi horretaz guztiz ziur: baina zer nahi duzu egitea? Baldin erraza dela uste baduzu, bila ezazu bada nola, ez dut bertzerik galdatzen.

Uste duzu atsegingarria dela niretzat ama egunoro liskarka edukitzea, lehen ordea ez zidalarik deusik erraten, aitzitik baizik? Orain, komentuan banintz baino okerrago nago. Kontsolatzen nintzen haatik zugatik zela pentsaturik; baziren une batzuk non neure gogara egon uste bainuen; baina zu ere haserre zarela ikusten dudanean, nahiz ez dudan nik batere errurik, tristetzen naiz orain arte gertatu zaidan guztia-gatik bainoago.

Zure gutunak hartze hutsa hain da eragozpen handia, non Valmont jauna ez baldin balitz den bezain amoltsua eta trebea, ez bainekike nola egin; eta zuri izkiriatzea, are zailagoa da oraino. Goiz osoan, ez naiz ausartzen, zeren ama oso gertu baita nigandik, eta une oroz gelara baitatorkit. Batzuetan arratsaldean ahal dut; kantuari edo harpa jo beharraren estakuruz; hala ere lerro bakoitzean baratu behar naiz ikas-

ten ari naizela adi dezaten. Zorionez, arrats apal batzuetan gelazaina lokartzen da, eta bakarrik oheratuko naizela erraten diot, joan dadin eta bizturik utz dezan argia. Eta bertzenaz, leiho oihalaren azpian behar naiz jarri, argitasunik ikus ez dezaten, eta hotsik den mendrena aditzetik beretik gauza guztiak ohean gorde ahal izan ditzadan, nehor baletor ere. Nahi nuke hemen egon zintezan, hori ikusteko! Ontsa ikusiko zenuen anitz behar dela maitatu hori egiteko. Finean, egia da ahal dudan guztia ari naizela egiten, eta nahi nukeela gehiago egin ahal!

Hain segur, ez dizut maite zaitudala eta beti maiteko zaitudala zuri erratea ukatzen; nehoiz ez dizut hain bihotz onez erran; eta haserre zaude! Ondo segur erran zenidan haatik, nik maite zaitudala erran baino lehenago, nire maitasunaren aitormena aski zenuela zoriontsu izateko. Ezin uka dezakezu: zure gutunetan da. Nahiz eskuartean ez ditudan jadanik, egunoro irakurtzen nituenean bezain gogoan ditut. Eta bereizirik gaudelako, ez duzu jada berdin pentsatzen! Baina ausentzia horrek ez du betiko



iraunen, menturaz? Jauna, dohakabea ni! Eta zu zarela kausa!

Zure gutunez den bezanbatean, gordeko ahal zenituen amak niri hartu eta zuri igorri zizkizun haiek! Helduko baita orain nagoen bezain durduzaturik ez nagokeen aldia, eta guztiak itzuliko dizkidazu. Zeinen zoriontsua izanen naizen, guztiak oro gordetzen ahalko ditudanean, gutun horietan nehork zerikusirik izan dezan gabe! Orain, Valmont jaunari ematen dizkiot, sobera arrisku legokeelako bertzela: nolanahi ere nehoiz ez dizkiot ematen atsekabe handia orobat hartu gabe.

Adio, adiskide maitea. Bihotz-bihotzetik maite zaitut. Bizitza osoan maiteko zaitut. Orain ez ahal zara jadanik haserre egonen! Eta horretaz ziur banengo, ni ere ez nintzateke jadanik haserre. Izkiria ahalik lasterrena, zeren bai baitakit ordu arte atsekabetan egonen naizela betiere.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko irailaren 21ean.*

# LXXXIII. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Otoi, andrea, berriz lot gakizkion ondikotz etendako solas horri! Ezen froga ahal diezazudan behingoz nitaz egin dizuten potret gorrotagarriaren zeinen bertzelakoa naizen; ezen goza ahal dezadan oraino, batez ere, erakusten hasia zenidan fidantzia maitagarri horrez! Ondo dakizu bertuteari anitz xarma eransten! Zenbatez ere edertzen eta maitarazten dituzun sentimendu onest guztiak! Ah! Hori da zure sedukzioa; hori da guztietan indartsuena; hori da ahaltsua eta, aldi berean, agurgarria den bakarra.

Aski da dudarik gabe zu ikustea, zuri laket gertatzea nahi izateko; aski da zu lagunartean aditzea, nahi hori areagotzeko. Baina bozkarioaren bozkarioz gehiago ezagutzen zaituenak, noizbehinka zure ariman irakur dezakeenak, las-ter egiten dio men gogobero nobleago bati, eta jaidura zein amodioa barneraturik, bertute guztien irudia jauresten du zugar. Bertze edozein baino gehiago izanik, menturaz, bertute horiek

maitatzeko eta jarraikitzeke eginga, zenbait hutsegitek bertute horietarik urrunarazi eta herrestan eramana, zuk nauzu bertute horietara berriz hurbilarazi, zuk didazu haien xarma guztia hartzara sentiarazi: maitasun berri horri hoben iritziko diozu? Zeure obra apaletsiko duzu? Sor diezazukeen interesagatik zeure buruari ere lis-  
kar eginen zenioke? Sentimendu hain garbi batek zer kalteren beldurra sor diezazuke, eta zer eztitasun ez lekarke hura dastatzeak?

Nire amodioak izutzen zaitu, bortxazkoa, gal-  
garik gabea iruditzen zaizu? Amodio eztiago batez ema ezazu; ez egin ukorik eskaintzen dizu-  
dan nagusigoari, zin baitagizut ez natzaiola sekula nagusigo horri itzuriko, eta orobat ez baita, sinestea zilegi izan bekit, bertuterako osoki galdua izanen. Zein sakrifizio irudi lekidake neketsu, zure bihotzak sarituko lidakeela jakinik? Dohakabea behar du izan bada gizonak bere buruari ezarri dizkion ukoez gozatzen ez jakiteko; ematen zaion ele bat, behako bat ez nahiago izateko, atzeman edo ebats litzakeen gozamen guztiak baino? Eta zuk uste izan duzu gizon hori ni nintzela! Eta beldur izan didazu! Ah! Zure

zoriona zergatik ez dut neure esku? Gogotik hartuko nuke zutaz mendeku, zu zoriontsu bihurturik! Nagusigo ezti hori ordea, ez da adiskidantza antzuak sortua; soil-soilik amodioak dakarke.

Ele horrek hertsatzen zaitu! Zergatik bada? Lotura amoltsuago bat, batasun bortitzago bat, pentsamolde bat bakarra, bozkario berbera zein atsekabe berberak, horrek zer du bada arrotzetik zure arimarentzat? Halakoa da haatik amodioa! Halakoa da bederen zuk sortu eta nik sentitzen dudana! Hura da, ororen gainetik, jakin badakiena, interesik gabe kalkulatz, egintzak beren merezimenduagatik eta ez beren balioagatik ederresten; arima sentikorren altxor agortezina, oro bihurtzen da balios, hark egina edo harentzat egina izanik.

Egia hain ulerterraz horiek, obratzeko hain ezti horiek, zertan dira bada izu-ikarazkoak? Zugan zer beldur eragin litzake halaber gizon sentikor batek, amodioak zurea ez den bertze zorionik uzten ez dionik? Hori da egungo egunean nire nahimen bakarra: oro sakrifikatuko dut hura betetzeko, salbu eta sorrarazi duen sentimendua; eta sentimendu hori bera nirekin bate-

ra sentitzea onar ezazu, eta zeure gogara antolatuko duzu. Baina ez dezagun paira bereiz gaitzan, elkartu behar gintuelarik. Baldin eskaini didazun adiskidantza ele hutsa ez bada; baldin, atzo erraten zenidan bezala, zure arimak ezagutzen duen sentimendurik eztena bada; hark delibera beza gure arteko auzia, ez dut haren epaia gaitzetsiko: baina amodioaren juje baita, aditu biezaio bederen; aditzeari uko egin izana bidegabekeria litzateke, eta adiskidantza nehoiz ez da bidegabea.

Bigarren solas batek ez duke lehenengoak baino eragozpen handiagorik: zoriak sor dezake oraino okasiorik; zuhaurk finka zenezake horretarako une egokia. Oker naizela nahi nuke sine-tsi; ez duzu nahiago ni gidatzea, ni gudukatzea baino, eta duda egiten duzu nire maltsotasunaz? Hirugarren desegoki hura jin izan ez balitz gure artean tarteko sartzera, agian zure iritzira zeharo eroria nintzateke; nork daki noraino hel daitekeen zure boterea?

Erranen dizuta? Kalkulatzen ausartu gabe men egina naukan ezin garaituzko ahal hori, nire pentsamenduen nola nire egintzen jaun eta jabe

zu zauzkan xarma ezin ihardukizko hori, batzue-  
tan egokitu zait haiei beldur izatea. Ondikotz!  
Galdatzen dizudan solasaldi horrek, menturaz ni  
behar ninduke beldurtu! Menturaz gero, nire pro-  
mesez kateatua, gertatuko naiz ezin iraungiko  
dela jakin badakidan amodio batez kiskaltzera  
behartua, zuri laguntza eskatzera ere ausartu  
gabe! Ah! Andrea, zure nagusigoaz, arren otoi,  
ez neurritz gain balia! Zer ordea! Baldin horrela  
zoriontsuagoa baldin bazara, baldin horrela zure  
merezidunago naizela iruditzen bazaizu, uste  
kontsolagarri horiek zein atsekabe ez dituzte  
leunduko! Bai, badut susmo; hartzara zuri min-  
tzatzea da nire kontra baliatzeko zu arma borti-  
tzagoz hornitzea, zure borondateari osoki men-  
egitea. Aiseago defendatzen ahal naiz zure gutu-  
netarik; zure hitz berberak dira, baina zu ez  
zaude hor hitz horiei indarra emateko. Haatik,  
zuri aditzeko plazerrak erronka eginarazten dit  
arriskuari: baduket bederen zugatik, nire kontra  
bada ere, oro egin izanaren bozkarioa; eta nire  
sakrifizioak begirunezko eskaintza dira bilakatu-  
ko. Sobera zoriontsua zuri frogatzeaz mila eraz,  
mila moldez sentitzen dudana bezala, ezen, neure

burua salbuetsi gabe, zu zarela, zu izanen zarela betiko, nire bihotzak begikoen duen xedea.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko irailaren 23an.*

## **LXXXIV. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK CÉCILE VOLANGESI

Ikusi duzu nolako eragozpenak izan genituen atzo. Egun osoan ezin izan nizun eman zuretzat nuen gutuna; ez dakit gaur erraztasun gehiago kausituko dudan. Arriskuan jarriko ote zaitudan beldur naiz, zuri gutuna emateko ari izanez kartsuago trebe baino; eta ez nioke neure buruari barkatuko zuretzat arras zorigaiztokoa litzatekeen eta nire adiskideari, zu betiko maluros eginenez gero, etsipena lekarkiokeen zuhurtziagabekeriarik. Ezagutzen ditut haatik amodioaren ezin-negonak; badakit zeinen dolugarria behar zaizun izan, zu zauden egoeran, une honetan dasta dezakezun kontsolazio bakarra doi bat bada ere gibelatu beharra. Behaztopak bazter uzteko bideak bilatzearen kariaz, kausitu dut bat aise

egin litekeena, baldin ardura poxi batez egiten baduzu.

Hauteman uste izan dut ezen zure gela korridore aldera dagoela, eta gelako ateko giltza zure amaren supazter gainean egoten dela beti. Giltza horrekin dena erraza litzateke, aise sumatuko duzun bezala; baina giltza horren despit, emanen dizut bat antzekoa, haren ordeztar dezazun. Aski duket, erdiets ahal izateko, bertzea oren batez edo bi orenez nire esku izatea. Aise behar zenuke giltza hori hartzeko okasioa kaunitu, eta falta dela antzeman ez dezaten, honekin batera igortzen dizut neure giltza bat, antzeko samarra baita, bien arteko aldea ikus ahal ez dezaten, non ez diren giltzaz baliatzera entseiatzen; eta ez dira horretan saiaturko. Soil-soilik behar diozu giltzari artoski xingola bat ezarri, urdina eta higatua, zurean dagoenaren gisarakoa.

Saiatu behar ginateke giltza hori biharko edo etziko geureganatzen, bazkalorduan; orduan errazagoa izanen baitzaizu giltza niri ematea, eta gauerako bere lekuan uzten ahalko dugu, tenore horretan zure amak kasu gehiago egin



baitiezaioke giltzari. Afalorduan bihurtzen ahal nizuke, baldin elkar ongi aditzen badugu.

Badakizu egongelatik jangelara joaten garenean, Rosemonde andrea izaten dela beti azkena. Eskua emanen diot. Ez duzu orduan zeure tapizgintza emeki bada emeki uztea baizik, edo bertzela lurrera zerbait botatzea, gibelean gelditzeko eran: jakinen duzu orduan nik neure atzean artoski atxikia izanen dudana giltza hartzen. Ez zara ezaxolatu behar, giltza hartu orduko, nire izeba xaharragana biltzeaz, eta hari fereku batzuk egiteaz. Menturaz giltza hori eroriko balitzaizu, ez asaldatu gero; ni izan naizelako itxurak eginen ditut, eta nik hartuko dut ororen erantzukizuna.

Zeure amak agertzen dizun fidantzia gutxia eta zurekin dituen jokabide arrunt bortitzek zilegitzen dute bertzenaz jukutria ttipi hori. Hori da orobat Dancenyren gutunak hartzen eta zureak hari helarazten jarraitzeko bide bakarra; bertze ezein bide zinez da arriskutsuagoa, eta biok galzintzakete erremediorik gabe: nire adiskidantza zuhurrak bide hori sobera baliatu izanaren erantzukizuna luke beraz.

Giltzaren jabe gauden orduko, atearen eta sarrailaren zaratatik begiratzeko neurri batzuk hartzea baizik ez zaigu geldituko: errazak dira ordea. Papera utzi nizun armairu beraren azpian olio eta luma bat kausituko dituzu. Batzuetan joaten zara zeure gelara eta bakarrik ematen dituzu han oren batzuk: probetxatu behar zara orduan sarraila eta erroak olioztatzeke. Ardura bakarra izan ezazu, eta da salatuko zintuzketen zikinei kasu ematea. Gautu arte beharko duzu halaber iguriki, zeren eta, baldin eginkizun hori zuri dagokizun adimen erneaz egiten baduzu, biharamunean ez baitute deusik sumatuko.

Baldin haatik ohartuko balitzaizkio, dudarik gabe erraiezu gazteluko zoru-igurtzailea izan dela. Kasu horretan, xehea-xehea beharko diezu adierazi zenbat denboraz egon den, bai eta erran dizkizun hitzak ere: hala nola, konparazio-ne, herdoiletik begiratzeko hartzen duela izari hori, erabiltzen ez diren sarraila guztietan. Zeren ulertuko baituzu ez litzatekeela egiantzekoa zu egiteko horien guztien lekuko gertatu izana arrazoirik galdetu gabe. Xehetasun ttipi horiek dira egiantzaren sorrarazleak, eta egiantzak bihur-

tzen ditu gezurrak ondoriorik gabeak, kentzen baitu haiek egiaztatzeko gogoia.

Gutun hau irakurri ondoren, otoi arren, berri-rakur ezazu eta gogoan har: lehenik, ontsa egin nahi dena ontsa behar delako jakin; gero, ziur jakin dezazun ez dudala deus utzi aipatu gabe. Ez bainaiz maltzurkeria neure probetxurako erabiltzen batere ohitua, ez naiz horretan aski trebatua; Dancenyri diodan adiskidantza handia, eta zuk sorrarazten didazun interesa, ezinbertzez behar izan ditut gogoan atxiki bide horiez, errurik gabeak diren arren, baliatzera delibera-tzeko. Jukutria iduria duen oro hastio dut; hala-koa baita nire izaera. Baina zure malurek hunki-tu naute, haiek ematzearren zernahi egitera prest egoteko heineraino.

Ohartuko zenionez, gisa horretan gure artean komunikatzen ahalko garen orduko, askoz erra-zagoa duket Dancenyk nahi duen elkar ikuste hori harekin buruz buru egin dezazun zuretzat erdiestea. Haatik ez hari aipa oraino honetaz deusik; ez zenioke ezinegona areagotu baizik eginen, eta oraino ez zaio heldu ezinegon hori lasaitzeko tenorea. Lasaitasuna eman behar

zenioke, nire ustez, hura akuilatu ordez. Horretaz den bezanbatean, zure adeitasunari nagokio. Adio, ikasle eder hori: zeren ikasle baitzaitut. Maita ezazu pixka bat zeure irakaslea, eta batez ere, izan zakizkio manukor; on dukezu eta. Zure zorionaz ari naiz arduratzen, eta egon ziur zure zorionaren baitan kausituko dudala nik neurea.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 24an.*

## **LXXXV. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Azkenean sosegaturik egon zaitezke eta batez ere zuzen eta bidezko izanen zara nirekin. Entzun, eta ez nazazu bertze emakumeekin gehiago nahas. Burutara eman dut Prévanekin izan dudana abentura: *burutara eman!* Ulertzen duzu horrek zer erran nahi duen? Orain jumatuko duzu bietarik nork, hark edo nik, bere burua goratzen ahalko duen. Kontaketa ez da egintza bezain atsegina izanen: orobat ez bailitzateke bidezko zuk nik bezainbat plazer hartzea, ez baituzu afera honen gainean ontsa edo gaizki gogo-

eta baizik egin, eta nik berriz neure denbora eta ahala eskaini dizkiot.

Nolanahi ere, baldin ukaldi handiren bat jotzekoa bazara, baldin entseiatu behar bazara aurkari lanjeros hori beldurgarria gerta dakizukeen zereginen bat egitera, ekin. Zabalik utzi dizu bidea, aldi baterako bederen; menturaz ez da nehoiz zuzpertuko eman diodan ukalditik.

Dohatsua zu adiskide nauzulako! Maitagarri ongiegile bat naiz zuretzat. Hiratua zara liluraturik zauzkan emakume eder horrengandik urrun; erraten dut hitz bat, eta horra non berriz haren ondoan zaren. Kalte egiten ari zaizun emakume bati mendeku nahi diozu hartu; erakusten dizut non behar duzun kolpatu eta zeure nahieraren peko uzten dizut. Azkenaz goiti, lehiakide beldurgarri bat gudukatik bazterreraitzeko, ni nauzu oraino deitzen, eta nik gogoia betetzen dizut. Egiazki, baldin ez badidazu zeure bizitza osoan esker ona erakusten, orduan zinez eskergabea zara. Neure abenturara nator berriz eta hasiera-hasieratik heltzen diot.

Operatik irteterakoan oso ozen eginiko elkar ikusteko dei hura aditua izan zen, nik iguriki

bezala. Prévan jina zen; eta mariskalaren emazteak adeitasunez erran zionean poztan zela bere bileretan bi aldiz segidan hura ikusi izanaz, hark ardura handiz ihardetsi zion ezen astearte arratsaz geroztik hamaika prestakizun utzi zituela bazter, afari hartara joan ahal izateko. *Aditzaile onari, hitz gutxi!* Zehatzago jakin nahi nuenez haatik, ni nintzen edo ez lehia lausengarri haren egiazko xedea, nahi izan nuen amorosgai berria nire eta bere jaidura nagusiaren artean hautatzera behartu. Kartetan ez nintzela ariko erran nuen: alabaina kausitu zituen ez jokatzeko mila estakuru; eta neure lehen garaipena lanskenet karta jokoaren gainean erdietsi nuen.

...ko apezpikua hartu nuen solaskide; egun hartako heroiarekin zuen loturagatik hautatu nuen, eman nahi bainion nigana errazago hurbiltzeko erraztasun guztia. Poztu nintzen halaber lekuko agurgarri bat izateaz, zeinak, behar izanez gero, nire jokabidearen eta nire solasen berri eman baitzezakeen. Antolamendu hori ongi heldu zen.

Ohiturazko hitz lausoen ondoren, Prévanek solasaldiaren gidaritza berehala harturik, doinu

erabiltzen zituen hurrenez hurren, zein laketa zekidakeen asmatu nahiz. Uko egin nion sentimenduzko doinuari, sinesten ez nuelakoan; serio-seriosa baratu nion alegerazkoa, hastapean baliatzeko arinegia iruditzen baitzitzaidan; adiskidetasun adeitsuaren doinura bildu zen orduan; eta bandera hutsal haren pean ekin genion elkarrekiko erasoari.

Afalorduan, apezpikua ez zen jaitsi; Prévane eskua eman zidan beraz, eta hala mahaian naturalki nire ondoan eseri zen. Izan nadin zuzen eta bidezko; trebetasun handiz lotu zitzaion gu bion arteko solasari, iduriz ororen solasari baizik ez zela lotua, non ustez arreta osoa bereganatua zuen. Desartean, hurrengo astelehenean Français teatroan ematekoak ziren teatro lan berri bat aipatu zuten. Dolamen batzuk erakutsi nituen palkorik ez nuelako; Prévane berea eskaini zidan, nik hasieran uko egin nion, ohi den bezala: baina orduan hark gogo onez erantzun zidan ezen ez niola ulertu, ezen hain segur ez ziola bere palkoa ezagutzen ez zuen norbaiti sakrifikatuko, baina soil-soilik egiten zidala mariskalaren emazteak baliatuko zuelako gazti-

gua. Mariskalaren emazteak bat egin zuen trufa harekin, eta nik onartu nuen.

Egongelara iganik, Prévanek palko hartan leku bat zuen eskatu, pentsa dezakezun bezala; eta nola mariskalaren emazteak, zeinak ontasun handia agertzen baitio, baietz erran zion *baldin zintzoa bazen*, hartu zuen bi adieratako horietako solasaldi bati ekiteko parada, zuk goraipatu izan didazun dohain berezi horrez. Alabaina, mariskalaren emaztearen aurrean belauniko, haur txintxo baten gisara, hala zioen Prévanek, iritzi galdea eta arrazoi eskea egin behar omen ziolako estakuruz, erran zituen anitz gauza laudagarri eta atsegin samarrak, neure buruari aise egotz niezazkiokeenak. Afalondoan ez baitzen jende askorik jokoari berriz lotu, solasa orokorra goa izan zen eta ez hain interesgarria: gure begiak ordea sarri mintzatu ziren. Gure begiak erran dut: harenak erran behar nuen; zeren nireek ez baitzuten mintzamolde bakarra baizik, ezustearena. Usteko zuen nigan sortua zuen miragarritzko ondorioak harriturik nindukala eta sobera hartua. Nago aski gogobeterik utzi nuela; ni ere hura bezain pozik nintzen.



Hurrengo astelehenean François teatrora joan nintzen, hitzartua genuen bezala. Zure literatur jakinmina gorabehera, ez diezazuket deusik ere erran ikuskariaz, ez bada Prévanek dohain zoragarriak dituela lausengurako, eta teatro lanak erreka jo zuela: horra han jakin dudan guztia. Atsekabez nekusan aisialdi hura finitzen ari zela, nahiz arras gostuko nuen; eta aisialdia luzatzeko, mariskalaren emaztea neure etxera gonbidatu nuen: horrek eman zidan balakari atsegin hari gauza bera proposatzeko estakurua, nork ere ez baitzuen P\*\*\*ko kondesen etxera, desenkusak ematera, lasterka abiatzeko denbora baizik eskatu. Izen horrek neure suhar guztia itzuli zidan; argi ikusi nuen isilmandatuka hastera zihoala: zure kontseilu zuhurrak gogoan hartu eta neure buruari hitz eman nion... abentura hartan segiko nuela; ziur bainintzen berritsukeria hura sendatuko niola.

Arrotza baitzen nire lagunartean, arrats hartan jendez eskastuan, ohiturazko begiramenak zor zizkidan; hala, afaltzera joan ginenean, eskua eskaini zidan. Haren eskua onartzearekin batera, maleziaz eragin nion neureari dardarizo

arin bat, eta, ibiltzen ari nintzen bitartean, begiak apaldu nituen eta arnas hotsa goratu. Neure hondamena aldeztu aurretik ikusia nuelako eta garaitu ninduenaren beldurrez nintzelako irudia egin nuen. Prévanek ezin hobeki hautesman zuen; beraz bada traidore hark berehala aldatu zuen doinuak eta egonmoldez. Galai izana, bihurtu zen amoltsu. Ez hain zuzen hitz bereztuak erraten ez zituelako; egoerak eta aldarreak hala beharturik: baina haren behakoa, dagoeneko motelduxea, ferekatzaileagoa zen; mintza doinua eztiagoa; irribarrea ez zuen jadanik maltzurkeriazkoa, alaitasunezkoa baizik. Azkenik, haren solasari zirtoen sua emeki bada emeki iraungitzen ari baitzitzaion, adimenak bide eman zion atsegintasunari. Horra nire galdea, zuk hobeki egingen zenukeen?

Ni, berriz, ametsari emana nengoen, halako heineraino non bertzeak nahitaez ohartu behar izan zitzaizkidan, eta karia horretara liskartu nindutenean, trebetasunez neure burua moldakaizkiro defendatu, eta igorri nion Prévani behakozalu bat, ahalkeztu eta harriduraz bete ordea, egokia zena hari sinetsarazteko hark nire asal-

duaren arrazoia asmatu ahal izanak sortua zuela nire beldur guztia.

Afalondoan, baliatu nuen mariskalaren emazte horrek beti kontatzen dituen horietako historia bat kontatzen ari zen denbora neure aulki otomanoan esertzeko, amets ezia dakarren halakoxe utzialdian. Ez nintzen haserre Prévanek horrela ikusi izanaz; ohoratu ninduen alabaina nihaurenganako ardura guztiz berezi batez. Pentsa dezakezu nire behako ahalketuak ez zirela ausartzen nire garailearen begiak bilatzera: baina modu apalagoan zuzendurik hari buruz, berehala jakinarazi zidaten sorrarazi nahi nuen ondorioa ari nintzela erdiesten. Sinetsarazi behar nion oraino nigan ere ondorio bera sortua zuela: hala non, mariskalaren emazteak bazihoala iragarri zuenean, oihukatu nuen boz guri eta amoltsuz: Ah, Jainkoa! Hain ederki bainago hemen! Altxa nintzen haatik: baina mariskalaren emazteagandik bereizi baino lehen, zer asmo zituen galdetu nion, nireak errateko eta biharamunagoan neure etxean geldituko nintzela jakinarazteko estakuru gisa. Gero, batbedera bere etxera joan zen.

Orduan gogoetan jarri nintzen. Ez nuen zalantzarik ezen eman berri nion elkar ikusteko dei gisako hura Prévanek baliatuko ez zuenik; ezen ni bakarrik aurkitu ahal izateko bezain goiz jinen ez zenik, eta eraso bizia izanen ez zenik: baina ziur nintzen halaber ezen, nire omenaren karietara, ez ninduela tratatuko, doi bat trebatu-rik egonez gero, abenturetako emakumeekin, edo batere esperientziarik ez dutenekin baizik erabiltzen ez den arintasun horrez; eta arrakasta hurbil nekusan, baldin amodio hitza erraten bazuen, baldin, oroz gain, hitz hori nigandik nahi bazuen erdietsi.

Zeinen eroso den zuen gisako *arau zorrotze-ko jendeekin* harremanetan hastea! Batzuetan harritzen zarete maitemindu nahasi baten ahal-keaz edo asaldatzen zarete haren gainezkaldi suharrez; sukar bat da, bertzeak bezala hotzikar-ak eta karra eragiten dituen, eta batzuetan sintoma desberdinez agertzen dena. Baina zuen urrats antolatua hain da ordea asmatzen erraza! Etorrera, egonmoldea, doinua, hitzak, guztiak oro bezperatik nekizkien. Ez dizut bada gure solasaren berri emanen, aise ordezkaturako baitu-

zu. Ohar zakizkio soil-soilik ezen neure buruaren defentsa itxuratu hartan neure ahal guztiaz laguntzen niola: asaldatzen nintzen, mintzatzeko astia izan zezan; arrazoi txarrak ematen nizekion, iharduk zitzan; beldurra eta mesfidantza agertu nion, hark segurantzak eman ziezazkidan; eta haren lelo etengabeari, *ele bat baizik ez dizut galdatzen*, nire isiltasunak erantzuten zion, iduriz ez ziola uzten elerik igurikatzen, desiratzen zuena areago desirarazteko ez bazen; horren guztiaren erdian, esku bat ehun aldiz hartua, betiere gibelatua eta sekula ez ukatua. Egun osoa eman liteke horretan; oren hilgarri bat eman genuen guk: menturaz zeregin horretan ginatekeen oraino, baldin aditu ez bagenu zaldi orga bat etxe aitzinean sartzen. Zorioneko eragozpen horrek, arrazoi den bezala, eske fermuak biziago eginarazi zizkion; eta nik, ikusirik heldua zela ezein ezusteren gerizpean nengoen unea, hasperen luze batez neure burua prestatu ondoren, ele balios hura erran nion. Gonbidatuen etorrera iragarri zidaten, eta handik gutxira berehala lagunartea aski bete zitzaidan jendez.

Prévanek galdegin zidan ea biharamun goizean jin zitekeen, eta nik onartu: baina neure burua defendatzeko arduraz, gelazainari manatu nion nire logelan egon zedin ikustaldi horren denbora guztian, handik, dakizun bezala, nire apaingelan gertatzen den guztia ikusten baita, eta hantxe hartu nuen Prévan. Solasa libro, eta biok nahi berberak izanik, berehala aditu genuen elkar: baina ikusle desegoki hura aienatu behar genuen; hantxe nindukan zain.

Orduan, nire barne bizitzaren irudia neure gogara hari eginez, aise sinetsarazi nion ezen sekula ez genuela libertate unerik kausituko; eta mirari baten gisara hartu behar genuela atzo gozatu genuen hura, zeinak arrisku handiegien mende utzia baininduen hala ere, une batetik bertzera egongelan norbait sar baitzitekeen. Ez nintzen begiratu hari orobat erratetik ezen ohitura horiek guztiak finkatuak izan zirela, zeren eta egun hura arte ez baitzidaten sekula gogaitik eragin; eta aldi berean setaz ohartarazi nion ohitura horiek ez zitezkeela alda, nire sehien aitzinean neure burua nabarmen utzi gabe. Saiatu zen atsekabetzen, haserretzen, amodio gutxi

nuela erraten; asmatuko duzu horrek guztiak zenbatez hunkitzen ninduen! Baina ukaldi erabakigarria jo nahirik, malkoak deitu nituen neure sokorrian. *Zaire, negarrez ari zara\**, gisa horretan izan zen zehazki. Nigan eduki uste zuen nagusigoa eta bere gogara galduko ninduelako uste osoa baliatu zituen hark Orosmanen amodio guztiaren ordez.

Teatro jokaldi hura iraganik, prestakizunetan hasi ginen berriz. Egunaren despit, gaua izan genuen solasgai: baina nire atezaina ezin gaindituzko eragozpen bilakatua zen, eta ez nion utzi hura eroatera entseiatzen. Lorategiko ate ttipia proposatu zidan: baina aldeaz aurretik sumatua nuen, eta sortu nuen okasiorako zakur bat, iza-nagatik egunez lasaia eta isila, gauez zinezko deabru bat omen zena. Xehetasun horietan guztietan hain erraz sartzen nintzen non aukera ezin hobe ematen bainion suhartzeko; beraz asmorik irrigarriena proposatzera lerratu zen, eta hura izan zen onartu niona.

Hasteko, haren sehia ziurra zen hura bezainbat: horretan ez zuen batere engainatzen, nola-ko nagusi, halako sehi. Afari handi bat eskainiko

nuen neure etxean; Prévan han agertuko zen, astia hartuko zuen bakarrik irteteko. Haren isilmandatari trebeak zaldi orga deituko zuen, atea irekiko zuen; eta bera, Prévan, orgara igo ordeztu, artoski itzuriko zen. Karrozazainak ezin inolaz ere oharre ziezaiokeen; halatan mundu guztiarentzat nire etxetik joana, eta nire etxean haatik gelditua, kontua zen jakitea ea nire gelara iristea erdiets zezakeen. Aitor dut hasieran nire kezka izan zela aurkitzea, asmo haren kontra, arrazoi hain txarrak non iduri ahal izan zezan Prévanek suntsitzen zituela; etsenpluen bidez erantzun zidan. Hari adituz gero, ez zegoen hura baino baliabide arruntagorik; berak usu baliatua zuen; hura zuen berebat erabiliena, arrisku gutxienekoa zelakoan.

Ezin gezurtatuzko aginpide horiez azpiratua, aitortu nuen, xalo bada xalo, banuela zurubi bat gordekakoa, nire kabinetetik oso gertu zeramana; ezen han utz nezakeela giltza, eta hura han ezkutatzen ahalko zela, eta zain egon, arrisku handirik gabe, harik eta nire gelazainak alde eginak ziren arte; eta gero, neure baietzari egiantza gehiagomateko, handik instant batera ez nuen



jadanik nahi, ez nintzen makurtzen amore ematera, baldin guztizko mendetasuna ez bazidan agertzen, baldin erakusten ez bazidan zintzotasuna... Ah! Zer nolako zintzotasuna! Azken buruan, nahi nion neure amodioa frogatu, ez ordea berea ase.

Irteera, ahanzi baitzait zuri aipatzea, lorategiko ate ttipitik behar zuen egin: aski zuen argi azkorriaren zain egotea, atezain zorrotzak ez zuen hitzik erranen. Oren horretan ez dabil ari-marik, eta sehiak loaren sakonean egoten dira. Baldin arrazoi txar andana horrek harritua bazauzka, orduan ahanzten duzu gure egoera. Ba ote genuen arrazoi hobeagoen beharrik? Ez zuen hark galdatzen hura guztia jakin zedin baizik, eta ni, ziur nintzen ez zela sekula jakinen. Eguna biharamunagoko finkatu genuen.

Ohar zakizkio ezen horra afera bat adostua, eta nehork ez duela oraino Prévan nire lagunartean ikusi. Afari batean aurkitzen dut adiskide baten etxean, Prévanek bere palkoa eskaintzen dio teatro lan berri bat ikusteko, eta nik leku bat onartzen dut han. Ikuskaria bitartean eta Prévanen aurrean, emakume hori afaltzera gonbida-

tzen dut; ia ezin naiz begiratu Prévani ere etortzeko gomita egitetik. Onartzen du eta egiten dit, bi egun barru, ikustaldi bat ohituraren arabekoa. Egia erran, biharamun goizean datorkit ikustera: baina goizeko ikustaldiak nabarmenak ez izateaz gainera, niri baizik ez dagokit harako hari sobera ausarta iriztea; eta sartzen dut Prévan alabaina nirekin lotura handirik ez duen jendakiaren baitan, adeitasunezko afari bateko gomita hari idatziz eginez. Ontsa erran dezaket Annettek bezala: *Hori da guztia, alabaina!*

Zorigaiztoko eguna heldurik, bertutea eta omena galdu behar nituen eguna, manuak eman nizkion neure Victoire fidelari, eta hark bete zituen aurki ikusiko duzun bezala.

Arratsa heldua zen haatik. Orduko bazen aintz jende nire etxean, iragarri zidatelarik Prévanen etorrera. Adeitasun nabarmenaz egin nion begitarte, harekin nuen harreman gutxia hala frogaturik; eta mariskalaren emaztearen karta jokora bildu nuen, Prévanen ezagutzak haren bidez egin bainituen. Afalondoak ez zuen eragin txartel oso ttipi bat baizik, amoros zuhur hark niri igortzeko bidea kausitu zuena, eta nik erre

egin nuena neure ohiturari jarraiki. Hari fida nintekeela iragartzen zidan han; eta funtsezko ele hori ele bizkarroi guztiez inguraturik zegoen, amodiozko eleez, zorionekoez, etab. gisa bereko jaietan nehoiz falta izaten ez diren horiez.

Gauerdian, karta jokoak finiturik, Mazedonia labur bat proposatu nuen. Prévanen ihesa errazteko, eta aldi berean hura nabarmen uzteko xede bikoitza nuen; halabeharrez nabarmen behar baitzuen gelditu, haren jokalaria ospearen karietara. Gogobeterik nintzen halaber, behar izanez gero gogora baitzezaketen ez nintzela bakarrik gelditzeko presatua egon.

Jokoak nik uste baino gehiago iraun zuen. Deabrua tentatzen ari zitzaidan, eta amore eman nion preso egonezin hura kontsolatzera joateko nahiari. Galbiderantz abiatua nintzen bada, non eta gogoetatu nuen ezen hari emana nintzen orduko, ez nukeela hura nire xederako beharrezkoa zen jantzi prestu eta egokian edukitzeko nagusigo gehiagorik. Nahi horri gogor egiteko indarra izan nuen. Gibela egin nuen, eta itzuli nintzen, ez haserrerik gabe, joko eternal hartan berriz leku hartzera. Jokoa bukatu zen

haatik, eta nor bere etxera joan zen. Nik berriz gelazainak deitu nituen, laster eta fite erantzi nintzen, eta berehala bidali nituen.

Banakusazu, bizkonde, jantzi arinetan, urrats ahalketi eta neurritsuz ibiltzen, eta nire garaileari segurantzarik gabeko esku batez atea zabal-tzen? Sumatu ninduen, tximista ez da zaluagoa. Zer erran diezazuket? Garaitua izan nintzen, osoki garaitua, Prévan geldiarazteko edo neure burua defendatzeko hitzik erran ahal izan baino lehen. Jarrera erosoago bat eta egoerari hobeki zegokiona hartu nahi izan zuen berehala. Bere jantziak madarikatu zituen, zeren hark zioenez, nigandik aldaratzen omen baitzuten, arma bere-tsuekin nahi omen zen nirekin borrokatu: baina nire ahalke soberazkoak uko egin zion asmo hari, eta nire fereka eztiak ez zioten denborarik utzi. Bertze zeregin bati lotu zitzaion.

Bere eskubideak bikoiztu zituen, eta bere nahikariak berriz agertu ziren; baina erran nion orduan: «Aditu ondo, orain artekoaz aski konta-keta atsegina egin zeniezaieke P\*\*\*ko bi konde-sei, bai eta bertze milari ere: baina jakinminak nago ordea nola kontatuko diezun abenturaren

bukaera.» Horrela mintzaturik, sehiak deitu nituen neure indar guztiaz. Huraxe zen nire txanda, eta nire egintza haren hitza baino bizkorragoa izan zen. Zezelka hasia baizik ez zela, horra non entzun nuen Victoire etortzen, eta bere gelan atxikiak zituen *sehiei* deika, manatua nion bezala. Orduan, erregina baten doinua harturik, eta boza goraturik, segitu nuen: «Alde hemen-dik, jauna, eta ez sekula gehiago nire aitzinean ager.» Ondoren, sehiak saldoan sartu ziren.

Prévan gaixoak burua galdu zuen, eta azken batean txantxa bat baizik ez zen egintza hartan segada ikusi ustean, ezpatari lotu zitzaion. Hobe zukeen lotu ez balitzaio: zeren nire gela sehiak, bulartsu eta indartsu, gorputzetik heldu eta lurrera bota baitzuen. Izugarritzko beldurra izan nuela aitortzen dut. Bara zitezen oihu egin nuen, eta libro joaten utz zezatela manatu, soilik ziurta zezatela alde egina zela nire etxetik. Sehiek obeditu zidaten: baina abarrotsa handia zen haien artean; haserre bizian ziren norbait ausartu izanaz *beren etxekoandre bertutetsuari* makurrik egitera. Zaldun dohakabearen lagun joan ziren denak, zalapartaka eta eskandaluka, nik nahi

nuen bezala. Victoire baizik ez zen nirekin gelditu, eta bitarte hori nire oheko nahaspila konpon-tzen eman genuen.

Sehiak berriro igan ziren betiere zalapartaka; eta nik, *biziki hunkitua oraino*, galdegin nien ea zein asturu onagatik gertatu ote ziren oraino iratzarririk; eta Victoirek kontatu zidan ezen bere bi adiskideri afaltzen eman ziela, ezen iratzarririk gelditu zirela bere gelan, eta elkarrekin adostua genuen guztia azken batean. Eskerrak eman nizkien denei, eta gelaratzeko erran nien, haietariko bati manaturik haatik joan zedila berehala nire medikuaren bila. Iruditu zitzaidan *laztura hilgarri haren* ondorioaren beldur egotea zilegi nuela; eta bide ziurra zen berebat berri hura lau haizetara hedatzeko eta famatzeko.

Medikua jin zen alabaina, asko deitoratu ninduen, eta atsedeen har nezala baizik ez zidan manatu. Nik berebat manatu nion Victoireri joan zedila goizean goiz auzokoekin kalakan aritzera.

Oro hain ontsa heldu da non eguerdia baino lehen, eta geure etxean iratzarri garen orduko, nire auzokide debot hori nire oheburuan baitzen, abentura ikaragarri haren egiaren eta xehetasu-

nen jakinminez. Harekin batera, oren batez, aienatu behar izan dut gizaldi honen ustelkeria. Geroxeago, gutun honekin batera igortzen dizudan txartela jaso dut mariskalaren emazteagandik. Azkenean, bortz orenak baino lehen, horra non ikusi baitut, harriduraren harriduraz, M... nire etxera etortzen. Bere taldeko ofizial batek hein hartaraino niri kalte eragin izanaz desenkusatzera etorria zela erran dit. Ez zuen deus jakin harik eta mariskalaren emaztearen etxean bazkaltzen ari zen arte, eta gartzelara joateko manua berehala igorri zion Prévani. Barka ziezaiola eskatu diot, eta hark ukatu egin dit. Orduan pentsatu dut, gaizkidea nintzenez, nik ere neure burua behar nuela zigortu, eta zorrotz atxilotua behar nuela bederen egon. Atea hertsarazi dut eta ondoezik nintzela erranarazi.

Gutun luze hau nire bakardadeari zor diozu. Bertze bat idatziko diot Volanges andreari, zeinak hain segur jendaurrean irakurriko baitu, eta non ikusiko baituzu historia hau nola behar den kontatu.

Ahantzi zait erratea ezen Beller Roche laidotua dela, eta Prévaneekin nahi dela nola edo hala

borrokatu. Gaixoa mutila! Zorionez baduket haren burua lasaitzeko astia. Bitartean, nireak atsedena behar du, izkiriatzeaz akitua baita. Adio, bizkonde.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko irailaren 25ean, arratsean.*

## **LXXXVI. GUTUNA**

**\*\*\*KO MARISKALAREN EMAZTEAK MERTEUILEKO MARKESARRI**

*(Aurreko gutunari atxikitako txartela.)*

Ene Jainkoa! Zer berri eman didate bada, andre maitea? Nola liteke Prévan ttipi horrek halako izugarrikeriak egin izana? Nori eta zuri! Zer nolako arriskutan ez ote gauden! Nor bere etxean ezin beraz segur egon! Egiazki, gertakizun horiek kontsolamendua dakarkiote zaharra denari. Sekula ez naiz ordea horrelako mustro bat zure etxean hartu izanaren kausa aldeztatzeaz kontsolatuko. Hitz ematen dizut ezen baldin erraten didatena egia bada, Prévan ez dela gehiagonire etxean sartuko; hori da jende pres-



tu guztiek harekin duketen jokabidea, baldin egin behar dutena egiten badute.

Erran didate alditxarturik egon zarela, eta zure osasunak kezkatuak nauka. Emaidazu, otoi arren, zeure berri; edo mezutu bederen zeure neskame baten bitartez, baldin zuhaurk ezin baduzu. Hitz bat baizik ez dizut galdatzen sosega nadin. Gaur goizean zure etxera lasterka jina nintzatekeen, ez balitz medikuak nire bainuak hartu gabe egoten uzten ez didalako; eta gaur arratsaldean Versaillesa joan beharrean naiz, betiere nire ilobaren aferaren karietara.

Adio, andre maitea; har ezazu betiko nire adiskidantza egiazkoa.

*Parisen, 17\*\*ko irailaren 25ean.*

## **LXXXVII. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VOLANGES ANDREARI

Ohetik izkiriartzen dizut, adiskide on eta maitea. Gertakariak higuigarrienak eta alde aurretik ikusgaitzenak eri erorarazi nau harriduraz eta xangrinez. Ez diot hain segur neure

buruari zer liskarturik: baina emakume zintzo eta bere sexuari dagokion zuhurtziari eusten dion batentzat hain da penagarria betiere jendeen arreta beragan finkatzea, non munduan dudan guztia emanen bainuke abentura dohakabe hori saihestu ahal izateko, non berebat ez baitakit oraino ez ote dudan landara joateko xedea hartuko, hori guztia ahantzia izan dadin igurikatzero. Horra beraz zer den.

...ko mariskalaren emaztearen etxean kausitu nuen Prévan delako jaun bat, zuk segurki omenez ezagutuko duzuna, eta nik bertze ezein eraz ezagutzen ez nuena. Baina etxe hartan kausitu nuenez, zilegi zitzaidan, nire iduriko, lagun ontzat hartzea. Gorpuzkeraz aski atsegina da, eta iruditu zitzaidan ez zuela adimen biziaren eskasik. Halabeharraren eta jokoaren asperraren karietara emakume bakarra gertatu nintzen haren eta ...ko apezpikuaren artean, bertze guztiak lanskenet karta jokoan ari ziren bitartean. Solasean ari izan ginen hirurok afalordua arte. Mahaian, norbaitek aipatu zuen teatro lan berri batek mariskalaren emazteari bere palkoa Prévani eskaintzeko okasioa eman zion, eta hark

onartu zuen; eta deliberatu zuten nik ere leku bat izanen nuela han. Iragan astelehenerako zen, Français teatroan. Nola emanaldiaren ondoren mariskalaren emaztea nire etxera baitzetorren afaltzera, harekin etor zedila proposatu nion jaun horri, eta jin zen. Biharamunagoan ikustaldi bat egin zidan, ohiturazko moldearen arabera, nabarmentzekorik deus izan ez zuena. Biharamun goizean ikustera jin zitzaidan, eta ikustaldi hori ausart samarra iruditu zitzaidan: baina iruditu zitzaidan hari begitarte egiteko eraz adierazi ordez, hobe nuela adeitasunez hari ohartarazi ezen ez ginela oraino elkarri hark uste bezain estuki lotuak. Horretarako, igorri nion egun hartan berean, gonbit aski lehor eta aski arranditsu bat, herenegun eskaini nuen afari batera jin zedin. Afalondo osoan ez nion hitza lau aldiz luzatu: eta hura, berriz, bere karta jokoa bukatu orduko joan zen. Ados izanen zara nirekin ezen ordu arte deusek ez duela abentura batera eramateko itxura gutxiagorik: kartetan aritu ondoren, Mazedonia bat egin genuen, goizaldeko bi orenak inguru arte eduki gintuena; eta azkenik oheratu nintzen.

Bazuen bederen oren erdi hilgarri bat neska-meak alde eginak zirela, eta horra non zarata aditu nuen neure gelan. Oso izuturik zabaldu nuen leiho oihala, eta gizon bat ikusi nuen kabinetera daraman atletik sartzen. Oihu min bat egin nuen; eta ezagutu nuen, eskuargiaren argitara, Prévan jaun hura, nork ere, ezin sinetsizko ausardiaz, ez kezkatzeko erran baitzidan; bere jokabidearen misterioa behar zidala argitu, eta ez nezala, arren otoi, zaratarik egin. Horrela mintzaturik, kandela bat biztu zuen; ezin mintzatu ahal izateraino nintzen harritua. Haren itxura eroso eta lasaiak are gehiago nindukan, nik uste, harriduraren harriduraz. Ez zituen ordea bi hitz erran, eta horra non ikusi nuen ustezko misterio hura zer zen; eta nire erantzun bakarra, pentsa dezakezunez, sehiak deitzea izan zen.

Ezin sinetsizko zorionaz, sehi guztiak nire neskame baten gelan bilduak ziren, eta oheratu gabeak oraino. Nire gelaria, nigana zetorrela oso suhar mintzatzen aditu baitzidan, izutu egin zen, eta jende hori guztia deitu zuen. Pentsa dezakezu zer nolako eskandalua izan zen! Sehiak hase-re bizian neuzkan; nire gela sehiak Prévan hil-

tzen zuen una ere ikusi nuen. Aitor dut ezen, une hartan behintzat, oso lasaitu ninduela indarrez babestua nintzela ikusteak: egungo egunean gogoeta eginik, nahiago nukeen nire gelazaina baizik jin izan ez balitz; hura aski zitzaidakeen, eta saihestuko nukeen agian atsekabetan naukan eskandalu hau.

Horren ordeztan, abarrotsak auzokideak iratzarri ditu, sehiak mintzatu dira, eta atzodanik hori da Paris osoko berria. Prévan jauna preso dago bere guda taldeko komandantearen manuz, nork ere izan baitu nire etxera desenkusak eskaintzera, hala erran dit, jiteko prestutasuna. Preso hartze horrek esamesak areagotuko ditu: baina ezin izan dut erdietsi hori bertze era batera izan zedin. Hiria eta gortea ate joka dauzkat, atea ordea hertsia dago ororentzat. Ikusi ditudan presuna bakanek erran didate bidezketasunez ari omen direla nitaz, eta jendearen haserreak mukuru egin omen duela Prévan jaunaren aurka: hain segur ondo merezia duke, baina horrek ez dio abentura horri higuingarritasunik kentzen.

Bertzenaz, gizon horrek badituzke segurki adiskide batzuk, eta adiskide horiek gaiztoak

behar dute: nork daki, nork dakike zer asmatuko duten niri kalte egiteko? Ene Jainkoa, emakume gazte bat zeinen dohakabea den! Ez du oraino deus egin, ezarri ere du bere burua gaitzerranetarik gerizatua, eta gezur beltzari berari behar zaio orduan nagusitu.

Mezutu, otoi arren, zuk nire lekuan zer egingen zenukeen: erran nahi baita, pentsatzen duzun guztia. Zugandik ditut beti kontsolaziorik eztienak eta iritzirik zuhurrenak hartu; zugandik dut halaber horiek hartzea gehien laket.

Adio, adiskide on eta maitea; ezagutzen dituzu zuri sekula betiko atxikia naukaten sentimenduak. Musu bat zure alaba atseginari.

*Parisen, 17\*\*ko irailaren 26an.*

# HIRUGARREN PARTEA

## LXXXVIII. GUTUNA

CÉCILE VOLANGESEK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Danceny jaun zaldunaren gutunak hartzeak, jauna, plazer ezinago handia ematen didan arren, eta nahiz ez dudan hark baino gutxiago nahi berriz elkar ikus ahal dezagun, batere eragozpenik gabe ikusi ere, ez naiz haatik ausartu zuk proposatzen didazuna egitera. Lehenik, oso arriskutsua delako; bertzearen ordezt jartzea nahi duzun giltza hori berdintsua da zinez: baina hala ere badute desberdintasunik, eta ama orori so dago, eta orori ohartzen zaio. Bertzalde, nahiz hemen gaudenez geroztik nehor ez den giltzaz oraino baliatu, zorigaitzen bat gerta liteke; eta baldin norbait ohartuko balitzaio, galdua nintzateke betiko. Horrez gainera, halaber iruditzen zait gaizki egina legokeela; giltza baten kopia gisa horretan egitea: handia da gero! Egia da zu zarela zeregin horrez arduratzeko ontartea egi-

nen zenidakeena; baina hala eta guztiz ere, baldin norbaitek jakinen balu, ez dira gutxiago begiratuko gaitzespena eta hobena nire gain emate-tik, negatik egina baitzenukeen. Finean, bi aldiz entseiatu nahi izan naiz giltza hartzera, eta egiazki erraz har liteke, baldin bertze gauza bat izan balitz: ez dakit zergatik ordea betiere dardaraka hasten naiz, eta ez dut oraino kuraiarik hartzen. Gauden bezala gelditzea hobe dugula uste dut beraz.

Baldin nirekin orain arte bezain adeitsua izateko ontartea eginen bazenit, kausituko duzu betiere niri gutunak helarazteko bidea. Azkena bera ere, ondikotz halako batean bet-betan jiratu ez bazina, aise emanen zenidakeen. Jakin badakit ez dezakezula, nik bezala, horretan bai-zik ez pentsatu; nahiago dut ordea pazientzia gehiago izan eta horrenbertze ez arriskatu. Ziur naiz Danceny jaunak gauza bera erranen lukeela: zeren sobera atsekabetzen ninduen zerbait nahi zuen bakoitzean, onartzen baitzuen azkenik nik deusik ez egitea.

Gutun honekin batera igorriko dizkizut, jauna, zeurea, Danceny jaunarena, eta zeure gil-



tza. Zeure ontasun guztiak ez dizkizut hargatik gutxiago eskertzen eta, aurrerantzean ere, arren otoi, zeure ontarterik ez niri uka. Egia da arras maluros naizela, eta zu gabe are malurosago nintzatekeela: baina, ororen buruan, nire ama da; pazientzia behar dut hartu. Eta baldin Danceny jaunak betiere maite banau, eta zuk ez banauzu orobat abandonatzen, helduko da agian garai zoriontsuagorik.

Ohorez bainaiz, jauna, nire esker on guztiaz, zure zerbitzari txit apal eta txit esanekoa.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 26an.*

## **LXXXIX. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK DANCENY ZALDUNARI

Baldin zure aferak zuk nahi bezain fite aitzinatzen ez badira, adiskidea, ez duzu osoki nire gain eman behar. Badut hemen oztopo bat baino gehiago gainditzeko. Volanges andrearen zaintza eta zorrotasuna ez dira bakarrak; zure adiskide gazteak bertze zenbait oztopo jarri dizkit halaber. Izan hoztasun edo izan ahalke, ez du

beti egiten nik kontseilatzen diodana; eta haatik hark baino hobeki jakin uste dut zer behar den egin.

Kausitua nuen bide soil, eroso eta ziur bat zure gutunak hari emateko, bai eta, segidan, zuk nahi dituzun elkar ikuste horiek errazteko ere: baina zure adiskideari ezin izan diot bide horiez baliatzeko deliberoa harrarazi. Hanbatenaz atsekabetua naiz, non ez baitut bertze biderik ikusten zu harengana hurbilarazteko: eta zuen arteko gutun bidezko harremanaz den bezanbatean ere, beldurrak nago beti ez ote gaituen gu hirurok arriskutan jarriko. Beraz, ulertuko duzu ez dudala arrisku horretan erori nahi, ezta zuek erorarazi ere.

Arras penatuko nintzateke haatik baldin zure adixkidearen fidantzia gutxiak ez banindu zuri baliagarriro zerbitzatzen utziko; on zenuke ausaz karia horretara berari izkiriatzea. Zuk ikusi zer nahi duzun egin, deliberoa soil-soilik zurea da; zeren adiskideak zerbitzatzea ez baita aski, orobat behar baitira beren erara zerbitzatu. Hark zuri dizun atxikimendua ziurtatzeko bertze modu bat izan liteke halaber; zeren bere borondateari

atxikia zaion emakumea ez baita dioen bezain amoros.

Ez uste jarraikitasun eza sumatzen diodanik zure maitaleari: oso gaztea da ordea: beldur handia dio bere amari, zeinak, dakizun bezala, zure kaltea baizik ez baitu nahi; eta arriskutsua litzateke agian zure adiskidea zugar pentsatzera behartu gabe denbora gehiegi egotea. Erran berri dizudan horretaz ez haatik hein handi bate-raino kezkatu gero. Funtsean ez baitut mesfida-tzeko ezein arrazoirik; adiskidantzak dakarren onginahia bertzerik ez da.

Ez naiz gehiago luzatuko, nik ere bai baititut afera batzuk. Ez naiz zu bezainbat aitzinatu: baina zu bezainbat maite dut nik ere, eta horrek kontsolatzen nau; eta nik berriz deusik erdiets ez baneza ere, neure denbora ontsa erabilitzat emanen nuke, baldin baliagarri izan ahal bana-tzaizu. Adio, adiskidea.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko irailaren 26an.*

# XC. GUTUNA

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK  
VALMONTEKO BIZKONDEARI

Biziki desiratzen dut, jauna, gutun honek penarik sorraraz ez diezazun; edo, baldin ezeinik sorrarazi behar badizu, sosega ahal dezala bederen zuri izkiriatzean sentitzen ari naizenak. Orain aski eta sobera ezagutu behar nauzu, zu atseka-betzeko asmorik ez dudala ziur jakiteko; zuk ordea, dudarik gabe, ez nindukezu halaber etsipen eternal batean murgilarazi nahiko. Arren otoi bada, hitz emana dizudan adiskidantza amoltsuaren izenean, bai orobat zuk nigana duzun sentimendu ausaz biziago baina ez hain segur zinezkoagoaren izenean, ez dezagun gehiago elkar ikus; zoaz; eta, ordu arte, utz ditzagun ororen gainetik bazter geure arteko solas partikular eta sobera arriskutsu horiek, non, ezin asmatuzko ahal baten karietara, erran nahi dizudana zuri erratera sekula heldu gabe, aditu behar ez nukeena aditzen ematen baitut denbora.

Atzo oraino, lorategian nigana bildu zinelarik, nire xede bakarra zen gaur izkiriartzen dizudana zuri erratea; eta haatik zer egin dut? Ez bada zure amodioaz kezkatu;... Zure amodioaz, nahiz ez diodan sekula erantzun behar! Ah! Otoi, urrun zakizkit.

Ez beldur izan, nire ausentziak ez baititu zugana ditudan sentimenduak nehoiz aldatuko; nola garait nitzake, ez baitut jadanik sentimenduok gudukatzeko kemenik? Ikusten duzu, dena erraten dizut, beldur gutxiago diot neure ahulkeria aitortzeari, ahulkeria horri men egiteari baino: baina neure sentimenduen gainean galdu dudan nagusigoa, neure egintzen gainean dut atxikiko; atxikiko dut, bai, hartua dut xedea; bizia eman behar baneza ere.

Ondikotz! Ez da oraino urrun gisa horretako borrokarik sekula egin behar ez izanaren uste osoan nintzen garaia. Karia horretara zorionekoa nintzen; sobera loriatua nintzen ausaz. Urguilu hori zeruak dit zigortu, krudel zigortu ere: baina kolpatzen gaituen unean berean ere urrikiz betea baita, oraino gaztiguka ari zait eror nadin baino lehen; eta bi aldiz nintzateke errudun, bal-

din eta zuhurtzia eskasez jarrai baneza, nahiz dagoeneko indar gehiagorik ez dudala badakidan.

Ehun aldiz erran didazu ez zenukeela nahi nire malkoez erositako zorionik. Ah! Ez gaitezen zorionaz gehiago mintza, utzidazu ordea sosegu doi bat berriz hartzen.

Nire galdeari amore emanez, zenbat eskubide gehiago ez ote dituzu irabaziko nire bihotzaren gainean? Eta eskubide horietarik ezin defendatuko naiz, bertutean oinarrituak baitira. Neure esker on guztiak zer nolako bozkarioa emanen didan! Sentimendu zoragarri batez bihotz zimikorik gabe gozatzeko ezintasuna zorko dizut. Egungo egunean, aitzitik, neure sentimenduez, neure pentsamenduez izitua, berdin beldurtzen nau zutaz eta nitaz gogoeta egiteak; zugan pentsatzetik beretik lazten naiz: pentsamendu horri ezin itzur natzaionean, buru egiten diot; ez dut nigandik urruntzen, baina ez dut onartzen.

Ez ote da gu biontzat hobe asalduzko eta antsiatzko egoera hori geldiaraztea? O, zuk, zeure arima betiere sentikorra huts egin duzunean ere bertutearen lagun atxiki duzun horrek,

begirunez hartuko duzu nire egoera dolorezkoa, ez duzu nire erregua apaletsiko! Nahasmendu bortitz horien ondoren etorriko da interes bat eztiagoa baina ez hargatik amoltsutasun gutxiagokoa: orduan, zure on eginengatik sosegu harturik, maiteko dut neure bizitza, eta erranen dut bihotza bozkarioz beterik: sentitzen ari naizen sosegu hau, neure adiskideari zor diot.

Behartzen ez dizkizudan baina arrenka galdatzen dizkizudan gabetasun ttipi batzuei men eginenez, garestiegi ordaindu uste zenuke bada nire oinazeen bukaera? Ah! Baldin zu zorientsu izan zaitezenez, aski balitz nik dohakabe izatea onartzea, ez nuke, otoi, sinets nazakezu, instant batez ere dudatuko... Errudun izatea ordea!... Ez, adiskidea, ez, hobe mila aldiz hil.

Ahalkearen ahalkez jadanik, kontzientziaren ausikien bezperan, bertzeen zein nihauren beldur naiz; ahalke gorritzen naiz lagunartean, eta dardaratzen bakardadean; nire bizitza oinazezkoa baizik ez da orain; zure baietza hartzen ez dudan bitartean sosegurik ez duket. Nire deliberrorik laudagarrienak ez dira aski ni lasaitzeko;

honako hau atzodanik hartua dut, eta haatik malkotan eman dut gaua.

Horra zure adiskidea, zuk maite duzuna, nahasirik eta erreguka, zuri atsedeen eta inozentzia galdezka. Ene Jainko Jauna! Zu gabe, nehoiz gerta zitekeen galde umiliagarri hori zuri egitera behartua? Ez dizut deusik egozten; nihaur aski eta sobera ari naiz sentitzen zeinen zaila den nahitaezko sentimendu bati gogor egitea. Deitorrea ez da marmarra. Eskuzabaltasunez egizu nik halabeharrez egiten dudana; eta zuk sorrarazi dizkidazun sentimendu guztiei, emendatuko diet esker on betikoaren sentimendua. Adio, adio, jauna.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 27an.*

## **XCI. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Zure gutunaz lastua, ez dakit oraino, andrea, nola ihardets niezaiokeen. Dudarik gabe, baldin zure maluraren eta nirearen artean behar bada



hautatu, niri dagokit sakrifikatzea, eta ez dut dudatzen: baina hain interes handiek merezi dute, nire iduriko, ezer baino lehen eztabaidatuak eta argituak izatea; eta eztabaidatzera nola heldu, baldin ez badugu gehiago elkar ez mintzatu ez ikusi behar?

Zer! Sentimendurik eztiene bat eginik gauzkatelarik, beldurkeria lauso bat aski izanen da gu bereizteko, menturaz betiko! Adiskidantza amoltsuak, amodio suharrak alferrik dituzte beren eskubideak galdatuko; haien ahotsak ez dira entzunak izanen: eta zergatik? Zein da bada mehatxatzen zaituen arrisku hertsagarri hori? Ah! Sinets nazazu, gisa horretako beldurrak, eta hain arinki sortuak, badira jadanik, nire ustean, segurantzarako aski arrazoi ahaltsuak.

Zilegi izan bekit zuri hau erratea, berriz ere kausitzen dut hor niri buruz adierazia izan zaizun gaitzerizkoaren zantzua. Ez da zertan dardara eginik gizon onetsiaren ondoan; ez da, batez ere, urrunarazten adiskidantza poxi bat merezi izateko gai jujatu izan dena: gizon arriskutsua izaten da aitzitik beldurra sortu eta hari ihes egi-tera behartzen duena.

Halarik ere, nehor izan ote zaizu nehoiz ni baino begirakorrango eta manukorrango? Dagoe-neko, ikusten duzunez, neurrizkoa dut mintzaira; ez zait jadanik haizu izen arras ezti horiek, nire bihotzak biziki maite dituen horiek, eta isilean etengabe erraten dizkizunak baliatzea. Ez naiz jadanik maitale fidel eta dohakabea, adiskide amoltsu eta sentikor baten kontseiluak eta kontsolamenduak hartzen dituen; akusatua naiz jujearen aitzinean, esklaboa nagusiaren aitzinean. Izate berri horiek betebeharrak dakartzate dudarik gabe; guztiak oro beteko ditudala hitz ematen dizut. Entzun iezadazu, eta baldin kondematzen banauzu, baietsiko dut eta joan egingen naiz. Are gehiago hitz ematen dizut; nahiago duzu aditu gabe jukatzen duen despotismoa? Baduzu zeure baitan bidegabe izateko kemena? Manatu eta obedituko dizut hala ere.

Baina epai hori, edo manu hori, zure ahotik entzun dezadan. Eta zergatik? Erranen didazu haatik. Ah! Galdera hori egiten badidazu, zein gutxi ezagutzen dituzun amodioa eta nire bihotza! Ez ote da bada deus zu bertze behin ikustea? Hara! Etsipena dakarkidazularik arimara,

behako kontsolagarri batek begiratuko du agian fin gaitz egitetik. Uko egin behar badiot azkenik amodioari, adiskidantzari, nahiz diren nire izate bakarra, zeure obra ikusiko duzu bederen, eta zure urrikia geldituko zait: ontarte ttipi hori, baldin merezi ez baneza ere, iruditzen zait aski garesti pagatzera makurtua naizela, eta beraz erdiesten ahalko dudalakoan nago.

Zer! Zeugandik urrundu behar nauzu! On iduri bide zaizu beraz bata bertzearentzat arrotz bihur gaitezen! Zer diot? Hori da zure nahia; eta nire ausentziak zeure sentimenduak aldaraziko ez dizkizula ziurtatzen didazun bitartean, sentimenduok aiseago suntsi ahal izateko baizik ez nauzu partitzera presatzen.

Aipatua didazu dagoeneko sentimenduok esker onaz ordezkatzeari. Halatan ezezagun batek zerbitzurik ttipienaren ordainetan zueganetik jasoko lukeen sentimendua, zure arerioak berak ere zuri kalte egitetik geldituz gero jasoko lukeen bera, horra zer eskaintzen didazun! Eta nahi duzu nire bihotzak hori askiets dezan! Galdetu zeureari: baldin maitalea, baldin adiskidea etorriko balitzaizkizu beren esker ona adierazte-

ra, ez zenieke haserre bizian erranen: «Zoazte hemendik, eskergabeak alaenak?»

Baratzen naiz eta bihozberatasuna eskatzen dizut. Barka ezazu zuk sorrarazten duzun oina-zearen adierazpena: ez dio inolaz ere kalterik egingen nire mendekotasun guztizkoari. Baina nik ere arrenka diotsut, zuhaurk zeureganatutzat dauzkazun sentimendu arras ezti horien ize-nean, ez ni aditzeari ukorik egin; eta, zuk murgilarazi nauzun kezka hilgarriaren errukiagatik bederen, ez gibelarazi une hori. Adio, andrea.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 27an, arratsean.*

## **XCII. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

O, adiskidea! Zure gutunak lazturaz izoztu nau. Cécile... O Jainkoa! Ba ote? Cécilek ez nau jadanik maite. Bai, egia lazgarri hori dakusat zure adiskidantzak inguratu duen estalkiaren tartetik. Kolpe hilgarri hori hartzeko prestatu nahi izan nauzu; eskertzen dizkizut zeure artak, amodioari ordea ezar ote dakioke bortxaz arta-

rik? Lasterka doa interesatzen zaionaren aurretik; ez du bere asturua jakiten, igerri egiten du. Ez dut neureaz duda egiten: mintza zakizkit itzulirik gabe, mintza ahal zakizkidake, eta otoi arren mintza zaitez. Oro gaztiga iezadazu: zerk biztu dituen zure susmoak, zerk baieztatu dituen. Xehetasunik ttipienak baliosak dira. Entseia zaitetz, batez ere, haren hitzak oroitzera. Hitz bat bertze baten ordeztu jarri izanak perpaus osoa alda dezake; hitz berak bi erranahi izaten ditu batzuetan... Tronpatu bide zara agian: ondikotz, saiatzen ari naiz oraino neure burua engainatzen. Zer erran dizu? Liskarrik egiten ote dit? Ez da bederen bere hutsegiteetarik defendatzen? Aldez aurretik behar nuen aldaketa hori ikusi, aspaldi honetan nonahi eta noiznahi kaustitzen dituen eragozpenen karietara. Amodioak ez ohi du ezagutzen horrenbertze behaztopa.

Zein xede behar dut hartu? Zer kontseilatzen didazu? Saiatuko banintz Cécile ikusten? Hori ezinezkoa dea? Ausentzia hain da gauza krudelak, hain da gauza galgarria... eta uko egin dio ni ikusteko bide bati! Ez didazu erraten zein bide zen; baldin arriskutsuegia baldin bazen alabaina,

ondo daki ez dudala sobera arriskatzerik nahi. Baina ezagutzen dut halaber zure zuhurtzia; eta neure zorigaitzerako, ezin egon ninteke hartan sinetsi gabe.

Zer egingen dut orain? Nola izkiriatu Cécileri? Baldin neure susmoak aditzera ematen badizkiot, agian atsekabetuko lukete; eta baldin bidegabeak badira, neure buruari barkatuko nioke Cécile oinazetu izana? Baldin ezkutatzen badizkiot, Cécile tronparaztea da, eta ez dakit harekin disimulatzen.

O! Jakin ahal baleza zenbat sofritzen dudan, nire atsekabeak hunkituko luke. Badakit sentikorra dela; bikaina du bihotza eta haren amodioaren mila froga ditut. Ahalkea soberan, durduza pixka bat, hain da gaztea! Eta amak hain du zorrotz tratatzen! Izkiriatzera noakio; neurritsu izanen naiz; galdatuko diot soil-soilik zuri osoki fida dakizun. Baldin hala eta guztiz ere uko egingen balio, ezin haserretuko da bederen nire galdeaz; eta agian amore emanen du.

Zuri, adiskidea, mila barkamendu eskatzen dizkizut, haren eta nire izenean. Ziur derraizut ohartua zaiola zure arduren balioari, eskertzen

dizkizula orobat. Ez da mesfidantza, ahalkea baizik. Izan zaitez errukiorra; hori baita adiskidantzaaren ezaugarririk ederrena. Zurea arras balio-tsua zait, eta ez dakit nola eskertu nigmatik egiten duzun guztia. Adio, berehala izkiriatzera noakio.

Neure beldur guztiak sumatzen ditut berriz etortzen; nork erran behar zidan nehoiz gostako zitzaidanik Cécileri izkiriatzea! Ondikotz! Atzo oraino, horixe zen nire plazerrik eztena.

Adio, adiskidea; jarraitu nitaz arduratzen, eta anitz deitora nazazu.

*Parisen, 17\*\*ko irailaren 27an.*

## **XCIII. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK CÉCILE VOLANGESI

*(Aurrekoari atxikia.)*

Ezin ezkuta diezazuket zenbatez atsekabetu naizen Valmontgandik jakinik harengan zein fidantzia gutxi izaten jarraitzen duzun. Badakizu adiskidea dudala, hura dela orobat bata bertzeagana hurbilaraz gaitzakeen presuna bakarra: uste nuen dohain horiek askietsiko zenituela;

saminez dakusat tronpatu naizela. Igurika neza-ke bederen zure arrazoiak zuk niri jakinaraztea? Ez dituzu oraino kaunituko hori egitea eragotziko dizuten zailtasun batzuk? Zu gabe haatik ez dezaket asma jokabide horren misterioa. Ez naiz zure maitasunaz susmatzera ausartzen, dudarik gabe halaber zu ez zinateke nirea traditzera ausartuko. Ah! Cécile!...

Egia dea bada uko egin diozula ni ikusteko bide bati? Bide *sinple, eroso eta ziur bati*? Eta horrela maite nauzu! Ausentzia guztiz ere labur batek zeharo aldatu dizkizu sentimenduak. Zergatik ordea ni tronparazi? Zergatik niri erran nitaz amorosturik dirauzula, are gehiago maiteko nauzula? Zeure amak, suntsitu dizularik amodioa, berebat suntsitu dizu xalotasuna? Baldin urriki doi bat utzi badizu bederen, ez dituzu atsekaberik gabe adituko sorrarazten dizkidazun oinaze lazgarriak. Ah! Gutxiago sofrituko nuke hiltzeko!

Erraidazu bada, zure bihotza betiko hertsiz zaita? Erabat ahanzi nauzua? Zure ukoei esker, ez dakit ez nire deitoreak noiz adituko dituzun, ez orobat noiz ihardetsiko diezun. Valmonten



adiskidantzak gure arteko gutun harremana ziurtatu zuen: zuk ordea uko egin diozu; dolugarria iruditzen zitzaizun, nahiago izan duzu bakana izan zedin. Ez, sekula gehiago ez dut sinetsiko amodioan, fede onean. O! Nork sinets dezake, baldin Cécilek tronpatu banau?

Erantzun iezadazu bada: egia dea ez nauzula jadanik maite? Ez, hori ezin liteke; zure irudipen hutsa da; gezur beltzaz ari zatzaizkio zeure bihotzari. Beldur iragankor bat, etsipenezko une bat, amodioak ordea berehala desagertarazi duena; ez dea egia, Cécile? Ah! Dudarik gabe, eta okernabil zu akusatzen. Zeinen zoriontsua nintzatekeen oker egin izanaz! Zeinen laket nukeen zuri desenkusa amoltsuak erakustea, bidegabeke-riazko une hori amodiozko betikotasunaz konpontzea!

Cécile, Cécile, erruki zakizkit! Onar ezazu nikustea, baliakizun guztiak balia itzazu horretarako! Ikus zer dakarren ausentziak! Beldurrak, susmoak, hoztasuna menturaz! Behako bat bakarra, ele bat bakarra eta zoriontsuak izanen gara. Zer ordea! Mintza ote ninteke oraino zorionaz? Galdua dut agian, galdua betiko. Beldurrak

oinazetua, susmo bidegabeen eta egiarik krudenaren artean krudel hertsatua, ezein pentsamendutan ezin bara ninteke; ez dut izaterik gorde, ez bada sofritzeko eta zu maitatzeko. Ah! Cécile! Soilik zuk duzu nire izatearen atxikimendua niri bihurtzeko eskubidea; eta erranen duzun lehen eletik igurikiko dut zorionaren itzulerara edo etsipen eternalaren segurantzara.

*Parisen, 17\*\*ko irailaren 27an.*

## **XCIV. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK DANCENY ZALDUNARI

Ez dut zure gutuna fitsik ere ulertzen, ez bada sortu didan atsekabea. Zer mezutu dizu bada Valmont jaunak, eta zerk sinetsarazi ahal izan dizu ez zintudala jadanik maite? Hala balitz zoriontsua nintzateke agian, zeren segurki oina-ze gutxiago bainituzke; eta arras bortitza da, maite zaitudan bezala maite zaitudalarik, betiere oker nabilela uste duzula ikustea, eta, ni kontsolatu orde, hain zuzen ere zugandik etortzea tristurarik gehiena sortzen didaten atsekabeak.

Uste duzu tronpatzen zaitudala, eta ez dena erraten dizudala! Uste zinez ona duzu bada nigan! Baina baldin gezurtia banintz zuk egozten didazun bezala, zer interes nuke nik horretan? Hain segur, baldin ez bazintut jadanik maite, erratea baizik ez nuke, eta mundu guztiak laudatuko ninduke; baina, ondikotz, ni baino bortitza-goa da; eta batere esker onik erakusten ez didan norbaitentzat izan behar!

Zer egin dizut bada hats gaiztoan egon zaitez-en! Ez naiz ausartu giltza bat hartzera, zeren beldurrez bainintzen ama ohar zekion, eta niri atsekabe gehiago sortuko ote zidan, baita orobat zuri ere nire kausaz; eta, gehiago dena, gaizki egina dela iruditzen zaidalako. Ordea Valmont jauna baizik ez zitzaidan horretaz mintzatu; ezin jakin nezakeen zuk hori bera nahi zenuen ala ez, fitsik ere ez baitzenekien. Orain bai baitakit zuk ere nahi duzula, uko egiten diot giltza hori hartzeari? Bihar bertan hartuko dut; eta ikusiko dugu zer erranik ba ote duzun oraino.

Valmont jauna zenbat ere den zure adiskidea, uste dut maite zaitudala hark maita zaitza-keen bezainbat, gutxienean; eta hala ere hark

du beti arrazoia, eta ni beti oker nabil. Ziur derraizut arras samurtua naizela. Ez zaizu hori batere axola, bai baitakizu berehala sosegatzen naizela: baina orain nola giltza edukiko baitut, nahi dudanean ikusten ahalko zaitut; eta hain segur diotsut ezen horrela jokatzeko duzunean ez dudala nahiko. Nigandik datorkidan atsekabea nahiago dut, zugandik datorkidana baino: zeuk ikus zer egin nahi duzun.

Baldin nahi bazeneza, horrenbertze maiteko genuke elkar! Eta orduan bertzek sortuko lizki-guketen atsekabeak baizik ez genituzke bederen! Hain segur diotsut ezen nire esku balego, nehoiz ez zenukeela nitaz zer deitoraturik: baina sinesten ez banauzu, arras dohakabeak izanen gara beti, eta ez hain zuzen nire erruz. Aurki elkar ikusi ahal izanen dugu, eta ez ahal dugu orduan orain bezala elkar atsekabetzeko okasio gehiagorik izanen!

Baldin aldeaz aurretik jakin izan banu, berehala hartuko nukeen giltza hori; baina, egia erran, zintzo jokatzeko ari nintzela uste nuen. Bada ez nirekin beltzurit, otoi arren. Ez egon triste, eta maita nazazu beti nik maite zaitudan bezainbat;

orduan arras poztuko naiz. Adio, adiskide maitea.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko irailaren 28an.*

## **XCV. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Otoi arren, jauna, egidazu bertzearen ordeztatzeko eman zenidan giltza hura niri berriz emateko ontartea; mundu guztiak hala nahi baitu, behar dut nik ere onartu.

Ez dakit zergatik mezutu diozun Danceny jaunari ez nuela jadanik maite: ez dut uste nehoiz eman dizudanik halakorik pentsatzeko arrazoirik; eta horrek arrunt atsekabetu du, eta orobat atsekabetu nau ni ere. Badakit adiskide zaituela; baina arrazoi horregatik ez duzu hura zer nahi-gabeturik, ezta ni ere. Plazer handia nuke hori horrela ez dela mezutuko bazenio, izkiriaturio diozun lehen okasioan, eta zu halaber horretaz ziur bazina: zeren zuri baitzaizu gehien fidatzen; eta nik, gauza bat erranik, eta sinesten ez didatela, ez dut jakiten orduan zer egin.

Giltzaz den bezanbatean, lasai egon zaitezke; ontsa atxikia dut zeure gutunean kontseilazten zenidan guztia. Nolanahi ere, baldin eskuartearen baduzu oraino, eta aldi berean nahi badidazu eman, hitz ematen dizut arretaz kasu egingen diodala. Baldin bihar afaltzera joaterakoan izan ahal baledi, bertze giltza etzi bazkalorduan emanen nizuke, eta zuk lehenengoaren gisara bihurtuko zenidake. Ez nuke nahi hori guztia luzaz luza dadin, zeren eta arrisku gutxiago bailegoke ama ohar dakion.

Eta bertzenaz, giltza hori izan dezazunean, egingen didazu giltza horrez halaber baliaturik nire gutunak hartzeko ontartea; eta hala, Danceny jaunak usuago duke nire berri. Zinetan dateke orain baino txit erosoagoa; kontua da ordea hasieran horrek guztiak sobera izutzen ninduela: arren otoi barka iezadazu, eta izanen ahal zara aurrerantzean ere iraganean bezain adeitsua nire aldera! Karia horretara ni ere izanen naiz esker oneko.

Ohorez bainaiz, jauna, zure zerbitzari txit apal eta txit esanekoa.

*...tik, 17\*\*ko irailaren 28an.*

## **XCVI. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Egingo nuke ezen, zure abenturaz geroztik, egunean egunean egon zarela nire konplimentuen eta goresmenen zain; dudarik ere ez dut egiten beltzuri doi bat hartu ez duzunik nire isilaldi luzeagatik: zer nahi duzu ordea? Beti uste izan dut ezen emakume bati laudoriorik baizik ezin egin zaiolarik, hobe dela ez adituarena egin eta bertze zerbaitetan aritzea. Halaber eskerrak ematen dizkizut neure aldetik, eta zorionak erra-ten zeuretik. Nahi dizut orobat aitortu, guztiz ere zoriontsu izan zaitezen, oraingoan nire iguriki-mena gainditu duzula. Horren ondoren, ikus dezagun ea nik zurea bete dudan alde z bederen.

Ez natzaizu hain zuzen ere Tourvel andreaz mintzatu nahi; haren urrats sobera geldia gogai-karria zaizu. Afera bururatuak baizik ez zaizkizu laket. Urrats geldiko gertaldiek aspertzen zaituz-te; eta ni, artean dastatu gabea nintzen ustezko gelditasun horietan sentitzen ari naizen plazerra.

Bai, plazer dut emakume zuhur hori ikusirik, irudikaturik, bere buruaren oharkabea, itzulera-rik ez duen bidezidor bati atxikia, eta haren malda bizkor eta arriskutsuak gogoz kontra herrestarazia, eta nire atzetik etortzera behartua. Han, arriskuaz izuturik, nahi luke baratu eta bere buruaz ez daiteke nagusitu. Haren ardurak eta trebeziak ttipiagotzen ahal dizkio urratsak; baina hala eta guztiz ere lerro lerro beharko ditu egin. Batzuetan, arriskua finkatzera ez ausaturik, hersten ditu begiak, eta noragabea, uzten du bere burua nire arduren gerizan. Sarriago, bertze beldur batek eginahalak bizkortzen dizkio: lastura hilgarri horretan, nahi du oraino gibelera egiten saiatu; indarrak ahitzen ditu bitarte labur bat neketan igateko; eta indar magiko batek laster eramaten du berriz debaldetan itzuri nahi izan zaion arrisku horretarik gertuago. Orduan, ni baizik ez bainauka gidari eta euskarri, niri halabeharrezko erorikoaren erantzuterik berriz egiteko asmorik gabe, arrenka datorkit erorikoa gibelarazteko galdez. Otoitz kartsuak, erregu umilak, gizaki hilkorrek, izuaren izuz, Jainkoari eskaintzen dioten hori guztia, nik



dut harengandik hartzen; eta nahi duzu beraz, haren eskariei entzungor, eta hark agertzen didan jaidura nihaurk suntsituz, andre hori amiltzen balia dezadan hark tinko eusteko galdatzen duen boterea! Ah! Utz iezadazu bederen amodioaren eta bertutearen arteko borroka hunkigarri horiei so egoteko astia.

Zer bada! Teatrora korrika eta presaka zaramatzen ikuskari hori bera, zuk han gogotik txalotzen duzuna, errealitatean ez zaizua hain hunkigarria iruditzen? Biziki desiratzen duen zorionaren beldurrez, dagoeneko zorion horri kontra ez eginagatik, hala ere bere burua defendatzen jarraitzen duen arima garbi eta amoltsu baten sentimendu horiek zuk gogobete aditzen dituzu: ez lirateke ezinago baliosak sorrarazi dituenarentzat? Horra haatik, horra emakume zerutiar horrek egunoro eskaintzen dizkidan gozamen zoragarriak; eta gozamen horien eztitasunak dastatzeagatik liskar egiten didazu! Ah! Helduko da garaia, goizegi heldu ere, non emakume hori, bere erorikoan doilortua, ez baita niretzat emakume arrunt bat baizik izanen.

Ahantzten dut ordea, Tourvel andreaz zuri hitz eginik, ez nizula harez hitz egin nahi. Halako nik dakita zer indarrak nauka hari estekatua, etengabe narama harengana, laido egiten badiot ere. Dugun bazter haren irudi arriskutsua; natorren berriz neure baitara sujet alaiago bat mintzoan. Zure ikasleaz ari naiz, egun nirea ere badenaz, eta oraingoan aintzat hartuko ahal nauzu!

Badu egun batzuk, nire debot amoltsu horrek hobeki tratatzen nauenez, eta beraz gogoan gutxiago darabiladanez, ohartua nintzaiola alabaina Volanges ttipi horren edertasunari, eta ohartua nintzaion berebat ezen Dancenyren gisa neska horrez maitemindurik egotea ergelkeria baldin bada, beharbada hura bezain ergelkeria handia litzatekeela nik aldiz ez bilatzea haren gan nire bakardadeak beharrezkoa egiten zidan libertimendurik. Zuzen eta bidezkoa iruditu zitzaidan orobat harekin izan ditudan arduren ordaina hartzea: oroitu nintzen bertzalde neska hori zuk eskaini zenidala, Dancenyk harengana nahirik erakutsi baino lehen; eta iruditu zitzaidan zilegi nuela eskubide batzuk fermuki galdatzea nik gaitzetsi eta baztertu ondoren baizik eskura-

tu ez duen ondasun baten gainean. Neskatxa ttipi horren aurpegiaren ederrak, haren ahoaren freskotasunak, haren haur itxurak, haren molda-kaizkeriak berak gogoeta zuhur horiek indartzen zituzten; ondorio horren arabera jokatzearabaki dut, eta egiteko hori arrakastaz bururatu dut.

Bila zabilta dagoeneko ea zein bidez ordezkatu ote dudan laster lasterra maitale maite hori; ea zein sedukzio komeni ote zaion adin horri, esperientzia horri. Ez duzu horrenbertze eginahalen beharrik, ez baitut ezein ere baliatu. Zuk jukutriaz garaitzen duzun bitartean, zure sexuaren armak trebe erabiliz; ni berriz, zor zaizkion eskubideak gizonari emanetz, aginpidez nagusitua naiz. Harrapakina harrapatzeaz ziur bainintzen, baldin harekin elkar ahal banendi, hari hurbiltzeko ez nuen amarru bat baizik behar, eta baliatu dudanak berak ere ez du ia izen hori merezi.

Dancenyk bere ederrarentzat eman zidan lehen gutunaz baliatu nintzen, eta eder hari bion artean adostua genuen seinaleaz gutunaren gaztigua egin ondoren, hari gutuna emateko trebe ari izan ordez, trebe ari izan nintzen gutu-

na hari emateko biderik ez kausitzeko: sorrarazia nion ezinegon hura nik ere banuelako itxurak egin nituen, eta gaitza eragin ondoren, sendabidea erakutsi nion.

Neskatxa gazte horren gelako ate batek korridore aldera ematen du; baina, bistan denez, amak beretua du horko giltza. Giltzaz jabetu bai-zik ez zegoen. Hura bai egiteko erraza! Ez nuen galdatzen bi orenez giltza nire esku edukitzea baizik, eta neure gain hartzen nuen hura bezalako giltza bat egitea. Gutun bidezko harremanak, solasaldiak, gaueko elkar ikusteak; oro zen orduan eroso eta segura bilakatua: haatik, sinets zenezake? Haur herabeti hura izutu zen eta uko egin zion. Bertze edozein etsia zatekeen; nik ez nuen hor plazer biziago baten okasioa bai-zik ikusi. Uko hori auhendatzeko Dancenyri izkiriatu nion, eta hain bikain ari izan nintzen, non gure txoriburu hori ez baitzen baratu, harik eta bere maitale izutiagandik erdietsi ez zuen arte, bai fermuki galdatu ondoren erdietsi ere, baietz erran ziezaion nire galdeari eta osoki fida zekion nire zuhurtziari.

Gogobetekoa nuen, aitor dizut, rolaz gisa horretan aldatu izana, eta mutil gazte hark egin zezan niretzat haren ustez nik harentzat eginen nuena. Ideia horrek bikoiztu egiten zuen, nire ustean, abentura haren prezioa: beraz, giltza balios hura neure esku izan nuen orduko, harez baliatzeko irrika bizian nintzen, iragan gauean izan zen.

Gazteluan oro lasai zegoela ziurtatu ondoren; argiontzia aldean, eta orenari eta aldarteari zegokion beztiduraz, egin nion lehen ikustaldia zure ikasleari. Dena prestatu nuen (haren bitartez prestatu ere), zaratarik egin gabe sartu ahal izateko. Lo betean zen, haren adinari dagokion lozorroan; hala non haren oheraino heldu nintzen, baina ez zen iratzarri. Hasieran aitzina joateko eta amets baten antzo agertzen saiatzeko tentatua izan nintzen; baina ezustearen eta ezusteak berarekin dakarren zarataren beldur, nahiago izan nuen loti eder hura kontu handiz iratzarri, eta erdietsi nuen alabaina alde aurretik susmatua nion oihua isilaraztea.

Haren hasierako beldurrak lasaitu ondoren, ez bainintzen solas egitera jina, zenbait libertate

hartzera menturatu nintzen. Dudarik gabe ez diote komentu hartan behar bezala irakatsi zer nolako arriskutan sartua egoten den inozentzia herabetia, eta zenbatez ere begiratu behar izaten den ustekabeen harrapatua izatetik: zeren eta haren arreta osoa, haren indar guztiak jarritz eraso aizun bat baizik ez zen musu batetik defendatzeko, babesik gabe utzia baitzuen bertze guztia; nola ez nintzen bada profitatuko! Urratsa aldatu nuen beraz, eta berehala finkatu nintzen. Orduan uste izan nuen galduak ginela biok: neska ttipi hark, izu-ikaraz beterik, onez onean nahi izan zuen oihukatu; beharrik ahotsa negar malkotan itzali zitzaion. Oldarka tira zion dei egiteko lokarriari, baina garaiz heldu nion trebeki besoa.

«Zer egin nahi duzu (erran nion orduan), betiko galdu? Nehor baletor ere, niri zer axola? Nori sinetsaraziko diozu ez naizela hemen zure gogoz? Zuk izan ezik nork eman ote dit hemen sartzeko bidea? Eta zuri esker eskuratu dudan eta zugandik baizik izan ez dezakedan giltza hori zuhaur arduratuko zara zertarako baliatu duzun argitzeaz?» Hitzaldi labur horrek ez oinazea ez

haserre a zion baretu, baina mendetasuna ekarri zuen. Ez dakit hitz ederren dohaina ba ote nuen; egia da bederen ez nuela hizlariari dagokion jarrera. Esku bat bortxazko zereginetan, bertzea amodiozkotan, zein hizlarik egoera horretan iritsi lezake hitz ederraren dohaina? Baldin egoera hori zeure buruari ontsa irudikatzen badiozu, onartuko duzu egokia zela bederen eraso egiteko: nik ordea, ez dut deusik ere ulertzen, eta zuk diozun bezala, emakumerik sinpleenak, egoiliar batek, haur baten gisa narama.

Emakume honek, etsitzearekin batera, sumatu zuen xede bat behar zuela hartu, hautsi-mautsi bat behar zuela nirekin egin. Haren erreguei urrialgaitz gertaturik ni, eskaintzetan behar izan zuen hasi. Uste duzu garesti saldu nuela leku garrantzitsu hura: ez, oro prometatutako nion musu baten truk. Egia da, musua harturik, ez nuela hitza bete: banuen ordea arrazoi garrantzitsurik. Hitzartua genuen musua emana edo hartua ote zen? Tratuan ibiltzearen bortxaz, ados jarri ginen bigarren musu baterako; eta musu hori hartua izanen zela erran genuen. Orduan, haren beso ahalketiak neure soinen inguruan

gidatzen nituelarik, eta neure beso batez maitekiro estutzen, hartu zuen alabaina musu ezti hura; bai ontsa, guztiz bikain hartu ere: halako gisaz finean non amodioak ez zezakeen hobeki egin.

Horrenbertzeko fede onak saririk merezi zuen, beraz berehala eman nion eskatu zidana. Eskuak gibelera egin zuen; baina nik dakita zein asturuz nihurtu gertatu nintzen eskuaren lekuan. Usteko duzu lehia bizian nintzela orduan, gogotik ekinean, ez dea egia? Ez zera! Gelditasunak laketu zaizkit, horra bada. Heltzeko segurantzaz izanez gero, bidaldia zergatik horrenbertze presatu?

Serioski, gogobetekoa nuen okasioaren ahalmenari behin so egotea, eta hantxe aurkitu nuen arrotz laguntza orotarik biluzia. Okasioa haatik amodioarekin behar zen borrokatu, eta amodioak herabetasuna edo ahalkea zituen euskarri, eta horren indargarri batez ere nik sorrarazia nuen eta neska hark guztiz ere bereganatua zuen haserre bizia. Okasioa bakarrik ageri zen; han zen orde, betiere eskainia, betiere present, eta amodioa ez zen han.



Nire oharpenak ziurtatzeko, maltzurki jokaturik ez nuen erabili indarrik hark borroka zezakeen heinean izan ezik. Soil-soilik nire aurkari xarmant hura, nire erraztasunaz neurritz gain baliatuz, nigandik ihes egiteko tenorean gertatzen zenean, beldur harez beraz bararazten nuen, dagoeneko dastatuak bainituen haren ondorio zoriontsuak. Hots bada! Bertze ardurarik gabe, amoros amoltsu hark, bere zinak ahantzurik, men egin zuen hasieran eta onartu zuen azkenik: ez uste lehen une horren ondoren liskarrik eta malkoak aldi berean berriz etorri ez zirenik; ez dakit egiazkoak edo gezurrezkoak ziren: baina beti gertatzen den bezala, baratu ziren, liskar eta malkoei berriz bide ematen ari izan nintzen bezain fite. Finean, ahulkeriatik liskarrera, eta liskarretik ahulkeriara, elkarren aldera gogobeterik baizik ez ginen bereizi, eta gaur gaueko ikustaldirako orobat ados.

Argi azkorria arte ez nintzen gelaratu, akiduraz eta logalez leher gaizto: haatik bata nahiz bertzea sakrifikatu nizkion goiz hartan gosaltzera jaisteko desirari: maite ditut, biziki maite, biharamunetako aurpegierak. Neskati la horrena

ezin irudika zenezake. Hura zen ezinegonaren larria! Hura ibileraren ezina! Begiak betiere apalduak, eta arras handituak eta arras eroriak! Begitarte arras biribil hura hain zuen luzatua! Ez zegoen deus hura baino irrigarriagorik. Eta haren amak, lehen aldiz, interes aski amoltsu bat agertu zion, aldaketa ezinago handi hartaz asaldaturik! Eta orobat lehendakariaren emazteak, harengana dena arta eta ardura! O! Arta horiek maileguz utziak baizik ez dira; helduko da arta horiek berari bihurtu ahal izanen dizkioten eguna, eta egun hori ez da urrun. Adio, adiskide ederra.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 1ean.*

## **XCVII. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK MERTEUILEKO MARKESARI

Ah! Jainko Jauna, hau nahigabea, andrea! Hau atsekabea! Nork kontsolatuko nau maluraldi honetan? Nork kontseilatuko nagoen durduzaldi honetan? Valmont jaun hori... eta Danceny! Ez, Dancenygan pentsatzeak etsipenera nara-

ma... Zuri nola kontatu? Nola erran?... Ez dakit nola. Bihotza mukurutua dut haatik... Norbaiti behar natzaio mintzatu, eta zu zara mintza nakioken presuna bakarra, fidatzera ausartzen naizen bakarra. Hain ona niretzat baitzara! Baina une honetan ez izan ontasunik niretzat; ez baititut merezi: zer erranen nizuke? Ez dut ontasun gehiagorik nahi. Mundu guztiak interes handia agertu du hemen nigana... Atsekabea areagotu didate. Biziki sentitzen nuen ez nuela halakorik merezi! Liskar egidazu aitzitik; bai gogor liskar egin ere, zeren erruduna bainaiz: gero ordea, salba nazazu; baldin kontseilatzeko ontartea egiten ez badidazu, xangrinez hilko naiz.

Jakin ezazu bada... dardaraka dut eskua, ikusten duzun bezala, kasik ezin dut izkiriatu, begitartea sugarretan dut kiskalia... Ah! Ahalke gorritasunez hain zuzen. Hots bada! Ahalkea jasanen dut, hori izanen da nire hobenaren lehen zigorra. Bai, oro erranen dizut.

Jakinen duzu bada Valmont jaunari, orain arte Danceny jaunaren gutunak eman dizkidan arren, egiteko hori bet-betan sobera zaila iruditu zaiola; nire gelako giltza bat eduki nahi izan du.

Segur derraizuket nik ez nuela nahi; baina Dancenyri eman dio izkribuz berri hori, eta Dancenyk orobat nahi izan du; eta ni, berriz, hari zerbait ukatzen diodanean halako pena handiak hartzen nau, batez ere malura handitan sarrarazia duen nire ausentziaz geroztik, non amore eman baitut azkenik. Ez nuen alde zuretik ikusten horrek zekarkidakeen zorigaitza.

Atzo, Valmont jaunak giltza hori baliatu zuen nire gelara etortzeko, lokartua nintzenez; hain nintzen hura han kaustitza igurikatzetik urrun, ezen iratzarri ninduelarik arras izutu baininduen: nola berehala hitz egin baitzidan ordea, ezagutu nuen, eta ez nuen deiadarrik egin; eta bururatu zitzaidan lehenengo ideia izan zen Dancenyren gutun bat niri ekartzera etorria zela agian. Asmo horretarik ezinago urrun zen! Geroxeago, musu eman nahi izan zidan; eta defendatzen nintzen bitartean, egoki den bezala, hain ontsa ari izan zen, non ez bainuen ezta munduko gauza guztiengatik ere nahi... baina, hark musu bat nahi zuen lehen lehenik. Eman behar izan nion, zeren zer egin bertzela? Hainbatez ere saiaturik bainintzen dei egiten, baina ezin izan nuen deitu, eta

horretaz gainera ontsa jakinarazi zidan ezen baldin nehor baletor, jakinen zuela erru guztia nire gain ematen; eta, alabaina, oso erraza zen, giltza horren kariatara. Gero ez zen haatik batere gibelatu. Bertze musu bat nahi izan zuen; eta musu horrek, ez dakit nik zer izan zen, baina osoki durduzatu ninduen; eta gero, arestian baino are okerragoa izan zen O! Konparazione, arras gaitz egina da hori. Finean, gero..., salbue-tsiko nauzu gainerakoa erratetik; baina atseka-betan nago nehor egon litekeen bezainbat.

Neure buruari gehien liskartzen diodana, eta hala ere zuri kontatu beharrean naizena, da bel-dur naizela ahal bezainbat defendatu ez izanaz. Ez dakit nola izan zen: hain segur ere ez dut Val-mont jauna maite, aitzitik; eta une batzuetan haren amoros banintz bezala nengoen... Suma-tuko duzunez, guztiarekin ere betiere ezetz erra-ten nion: banekien ordea erraten ari nintzena ez nuela egiten; eta hori, nire gogoaz bertzerako zer bait balitz bezala zen; eta bertzalde, asaldu bizian nintzen! Baldin defendatzea hain zaila bada beti, trebetasuna eta aztura behar da gero! Valmont jaunak baditu zinez halako mintzatzeko

moldeak, non ez baituzu jakiten zer egin hari erantzuteko: azkenik, sinets zenezake ezen, alde egin zuenean, beltzuritu antzean nintzela, eta gaur gauean berriz jin dadin onartzeko ahulkeriara lerratu nintzela orobat: horretaz dolutzen naiz bertze guztiaz bainoago.

O! Hala eta guztiz ere, hitz ematen dizut ez diodala etortzen utziko. Ez zen oraino jalgi, eta horra non ohartu nintzen huts handi bat egina nuela hari hitza emanik. Geroztik, negarretan eman dut denbora guztia. Orogen gainetik Dancenyk ninduen atsekabetzen! Hura gogoan nerabilen aldi guztietan, malkoak ugaritzen zitzaizkidan ito beharreraino, eta betiere nik hura gogotan... eta orain ere, ikusten duzu horrek zer ondorio ekarri duen; horra nire papera busti-bustia. Ez, ez naiz sekula kontsolatuko, Dancenygatik ez bada ere... Orogen buruan, ezin nuen gehiago, eta haatik ez dut une batez ere lo egin. Eta gaur goizean jaiki naizelarik, neure buruari ispiluan behatu diodalarik, beldurgarri nintzen, hain aldatua bainintzen.

Gure ama ohartu zaio ikusi nauen orduko eta zer gertatzen zitzaidan galdegin dit. Ni negarrez

hasi naiz bertatik. Liskar egitera zihoakidala uste nuen, eta horrek beharbada gutxiago penatuko ninduen: baina, aitzitik. Ezti-eztia mintzatu zait! Ez nuen batere merezi. Gisa horretan ez atsekabetzeko erran dit. Ez zekien zein zen nire atsekabearen kausa. Eriko omen nintzen! Batzuetan hilik egon nahi nuke. Ezin izan diot eutsi. Oldarrean bildu naiz amaren besoetara negar hipaka, eta hari erranez: «Ah! Ama, malura handitan duzu alaba!» Gure ama ezin izan da negar doi bat egitetik gelditu: eta horrek guztiak ez ditu nire atsekabeak areagotu baizik egin: beharrik ez didan galdetu zergatik nintzen horren maluros, zeren ez bainekikeen zer erran.

Otoi arren, andrea, izkiria iezadazu ahal bezain sarri, eta erraidazu zer egin behar dudan, zeren ez baitut deusetan pentsatzeko kuraiarik, eta ez naiz atsekabetu baizik egiten. Egidazu arren zure gutuna Valmont jaunaren bitartez igortzeko ontartea; baina otoi arren, baldin aldi berean izkiriaturko bazenio, ez hari erran nik deusik aipatu dizudanik.

Ohorez bainaiz, andrea, betiere adiskidantzaz beterik, zure zerbitzari txit apal eta txit esanekoa.

Ez naiz gutun hau sinatzera ausartzen.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 1ean.*

## **XCVIII. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK MERTEUILEKO MARKESARI

Baditu egun gutxi batzuk, adiskide xarmanta, zuk egin zenidala kontsolamendu eta kontseilu galdea: egungo egunean, nire txanda da; eta zuk niri egin zenidan galde berbera dagizut nik zuri. Zinez atsekabe handitan naiz, eta badut beldurra jasaten ari naizen xangrinetarik itzurtzeko izari hoberenak ez ote ditudan hartu.

Alaba dut neure kez karen eragile. Partitu nintzenez geroztik beti triste eta xangrinetan ikusten nuen; hori igurikitzen nuen ordea, eta nire ustean behar-beharrezkoa zen zorrotasunaz bortiztu nuen bihotza. Ausentziak, distrakzioek nik benetako grina gisa baino haurtzaroko hutsegite gisa ikusten nuen amodio hura suntsituko



zutelakoan nengoen. Haatik, hemen finkatu naitzenez geroztik deusik irabaztetik urrun, ohartu naiz haur hori malenkonia arriskutsu batean gero eta murgilduagoa dagoela; eta zin-zinez beldur naiz ez ote duen osasuna galduko. Berezi-ki duela zenbait egunetik hona begien bistan ari da aldatzen. Atzo, batez ere, hunkitu ninduen, eta mundu guztia hemen biziki asaldatua zen.

Bada gauza bat nire alaba zenbatez ere hunkitua den are frogatzenago didana, eta da beti agertu izan didan herabetasuna gairiditzeko prest ikusten dudala. Atzo goizean, ea eri zen galdera soila egin nionetik beretik, oldarka erori zen nire besoetara malura handitan zela erranez; eta negar hipaka ari zen. Ezin adieraz diezazuket horrek sortu zidan atsekabea; malkoak bat-batean jin zitzaizkidan begietara eta doi-doia izan nuen jiratzeko astia, ikus ez nintzan. Beharrik zuhurra izan nintzen eta ez nion ezein galderarik egin, eta hura ere ez zen ausartu niri ezer gehiago erratera: baina hala eta guztiz ere argi dago zorigaiztoko grina hori dela nire alaba oinazetan daukana.

Zein xede hartu beraz, horrek irauten badu? Zorigaitza dakarkioket neure alabari? Haren kontra bihurtuko ditut arimaren dohainik baliosenak, sentikortasuna eta jarraitutasuna? Horretarako ote nau bere ama? Eta baldin geure haurren zoriona desirarazten digun sentimendu hagitz natural hori ito baneza; baldin nire ustean aitzitik gure lehen egitekoa, gure egitekorik sakratuena dena ahulkeria baten gisara apalets baneza; baldin haren hautua bortxa baneza, sor litezkeen ondorio galgarriez ez ahal nuke erantzukirik? Alaba makurbidearen eta ondikoaren artean ezartzeko baliatu amak aginpidea!

Adiskidea, ez dut imitatuko anitzetan gaitzetsi izan dudana. Entseiatu ahal izan naiz, dudarik gabe, neure alabarentzat hautu bat egitera; ez nintzaion halatan neure esperientziaz laguntza baizik ematen ari: ez nintzen eskubide bat baliatzen ari, egiteko bat ari nintzen betetzen. Bertze egiteko bat tradituko nuke, aitzitik, neure alabaren asturuaz erabakiko banu, eragozten jakin ez dudana eta ez hark ez nik noraino helduko den eta zenbatez iraunen duen ez dakikegun jaidura baten despit. Ez, ez dut onartuko nire alaba

honako honekin esposatzea maite duelarik hara-ko hura, eta nahiago dut arriskuan jartzea neure aginpidea ezen ez haren bertutea.

Uste dut beraz Gercourt jaunari emana diodan hitza hausteko xede zuhurragoa hartuko dudala. Horretarako arrazoiak aditu berri dituzu; iruditzen zait neure promesei gailendu behar zaizkiela. Are gehiago diot: gauzak daudenean daudela, neure hitza betetzea, zinetan litzateke hitz hori jatea. Zeren eta finean, baldin eta alabari zor badiot bere sekretua ez jakinaraztea Gercourt jaunari, honi zor diot bederen nire isiltasunak sortuko dion ezjakintasunaz neurritz gain ez baliatzea, eta egitea haren alde nire ustez hark jakitun balego egingen lukeen guztia. Zilegi nuke, aitzitik, Gercourt itsuski traditzea, nire fede onari fidaturik denean, eta bigarren ama gisa ni hautaturik ohoratu nauenean, hura tronpatzea bere seme-alaben ama hautatzera doalarik? Hain gogoeta zinezko eta ezin baztertuzkoek erraten ahal diezazukedana baino anitzez gehiago asaldatzen naute.

Gogoeta horiek sorrarazi dizkidaten zorigaitzen beldurrarekin konparatzen dut orduan

neure alaba, haren bihotzak hautatu duen senarrarekin zoriontsu, ez oharturik bere egitekoei, ez bada egitekoak betetzeak dakarkion eztitasunaz; nire suhia gogobeterik berebat eta bere hautuaz, egunoro, bozkarioak eginik; batak zein bertzeak bertzearen zorionean baizik ez kausiturik zorionik, eta bion zorionak bat eginik nirea gehitzeko. Horren etorkizun eztiaren esperantza sakrifikatu behar ote zaie arrazoibide hutsalei? Eta zer dira bada baratzen nauten arrazoibide horiek? Interesaren xedeak soil-soilik. Zer abantaila dakarkio bada nire alabari aberats jaio izanak, baldin hala eta guztiz ere asturuaren esklabo behar badu izan?

Onartzen dut Gercourt jauna nik igurika neza-keena baino senargai hobea dela, menturaz, nire alabarentzat; aitortzen ere dizut biziki lausengatua izan nintzela hark nire alaba hautatu izanaz. Baina azken buruan, Danceny hura bezain etxe onekoa da; ez da hura baino batere eskasagoa dohainez; maitatzeko eta maitatua izateko abantaila du Gercourt jaunaren aldean: ez da aberatsa, egia errateko; baina nire alaba ez ote da aski aberatsa biontzat? Ah! Alabari zergatik

kendu maite duen gizona aberasteko gozamen hain ezta?

Elkar abeniturik egin ordez kalkuluen arabera egiten diren eztei hobarizko deitu horiek, eta non oro hobariaren arabera hitzartua baita alabaina, gustuak eta izaerak salbu, ez ote dira egu-netik egunera usuagoak bilakatzen ari zaizkigun eskandalu horien sorbururik emankorrenak? Nahiago dut erabakia gibelatu: baduket bederen neure alaba aztertzeke astia, ez baitut ezagu-tzen. Badut neure baitan alabari atsekabe ira-gankor bat sorrarazteko kuraia, baldin eta zorian sendoago bat bilduko badu gero: baina alaba etsipen eternalera lerraraztera menturatzea, hori ez dago nire bihotzean.

Horra, adiskide maitea, oinazetan naukaten ideiak, eta zugana kontseilu galdez etorrarazi nautenak. Solasgai zorrotz horiek zure alaitasun atseginaren oso bertzelakoak dira, eta ez dirudi-te zure adinarenak: zure adimena ordea hain zaio aitzinatua! Adiskidantza dukezu bertzalde zuhurtziaren laguntzaile; eta ez dut batere bel-durrik batak zein bertzeak uko egin diezaioten arrenka ari zaien ama honen kezkarri.

Adio, adiskide xarmanta; ez egin sekula  
dudarik nire sentimenduen zintasunaz.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 2an.*

## **XCIX. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Berriz ere gertakari ttipiak, adiskide ederra; baina gertaldiak soil-soilik, batere egintzarik ez. Beraz, har ezazu pazientzia; bai pazientzia handia hartu ere: zeren lehendakariaren emazte hori urraska-urraska dabilen bitartean, zure ikaslea gibelera baitoa, eta hori hainbat okerragoa da. Hots bada! Gogoz baino gogozago libertitzen naiz miseria horiekin. Hain segur ere biziki ontsa ari naiz ohitzen hemen egiten ari naizen egonaldira; eta erran dezaket neure izeba xaharraren gaztelu tristean ez dudala asper unerik izan. Alabaina, ez duta hemen bozkariarik, gabeziarik, esperantzarik, menturarik? Teatro handiago batean badea gehiagorik? Ikuslerik? Hots! Utzi egiten, ez baitira faltako. Ekinean ikusten ez banaute ere, neure egitekoa bururatua diet era-

kutsiko; mirestea eta txalotzea aski dukete. Bai, txalotu eginen naute; zeren azkenik iragar baitezaket neure debot latz horren erorikoa. Gaur arratsean bertutearen agonia ikusi dut. Ahulkeria ezia izanen da haren ordeaz nagusi. Nagusitze horren garaia ez dut uste gure arteko lehen solasaldia baino beranduagoko izanen denik: baina horra non aditzen dizudan harrokeriari espantuka. Garaipena iragartzea, bere burua aldeaz aurretik goratzea! Zaude bada lasai! Xaloa naizela ikus dezazun, neure hondamenaren berri ematetik hasiko naiz.

Egiaz, zure ikaslea neskaxa arras irrigarri bat da! Haur baten gisara tratatu behar litzatekeen haur bat da, eta ontarte handia eginen litzaioke penitentzia baizik ez eginaraziz! Sinetsenezake ezen haren eta nire artean herenegun gertatu zenaren ondoren, atzo goizean adiskidetsu bereizi ginen ondoren; bart gauean hara nahi izan nuelarik itzuli, harekin abenitua nuen bezala, haren atea barnetik hertsia kaustu nuela? Zer diozu horretaz? Batzuetan jasan behar izaten da gisa horretako haurkeriarik bezperan: biharamunean ordeaz! Hori ez dea irrigarria?

Hasieran ez zidan haatik irri eginarazi; nehoiz ez nuen horrenbertze sentitu neure izaeraren nagusigoa. Hain segur ere elkar ikuste hartara plazerrik gabe nindoan, eta soil-soilik gizalegeak behartuta. Nire ohea, hain zuzen behar-beharrezkoa zitzaidana, iruditzen zitzaidan, orduan, bertze nehorena baino desiragarriagoa, eta damuz baizik ez nintzen handik aldaratua. Hala ere oztopo bat izan baino are gehiago kaustu nuenetik beretik, suharturik nintzen hura gaindi nahirik; umiliaturik nintzen, batez ere, haur batek iruzur egin zidalako. Beltzuri gogorrean gelaratu nintzen beraz: eta ez ume ergel horrekin, ez haren aferetan gehiago nahasteko xedeaz, izkiriatu nion, berehala, gaur emateko asmoa nion txartel bat, eta non bere neurri zuzenean balioesten nuen. Baina, dioten bezala, gauak kontseilua dakar; gaur goizean iruditu zait ezen ez izanik hemen jostetarik hautatzerik, horrako hori gorde behar nuela: suntsitu dut beraz txartel zorrotz hori. Horretan gogoeta egin ondoren, harritua naiz hartu izanaz abentura bat finitzeko xedea, heroi andrearen galbidea neure esku izan baino lehen. Nora garamatzan haatik



hastapeneko urratsak! Dohatsua, adiskide ederra, zu bezala, sekula amore ez ematera ohitzen jakin duena! Mendekua gibelatu dut azkenik; Gercourti buruz dituzun xedeengatik egin dut sakrifizio hori.

Orain sumina baretu zaidalarik, ez dut irrigarrikeria baizik ikusten zure ikaslearen jokabidean. Jakin nahi nuke zer irabazi uste duen horrela! Nik berriz ez dut fitsik ulertzen: defendatzeko baizik ez bada, berandu xamar dabilela behar da aitortu. Egunen batean erran beharko dit enigma horren gakoa! Jakiteko irrikan nauka. Soil-soilik akitua zen beharbada? Hori izan liteke egiazki; zeren dudarik gabe ez baitaki oraino ezen amodioaren geziek, Akileren lantzak bezala, beren baitan dakartela egiten dituzten zaurien sendabidea. Ez ordea, egun osoan izan duen muzina ikusirik eginen nuke badela hor damurik... badela hor... zerbait... bertutearen gisakorik... Bertutea! Egoki dagokio bada neska horri bertutea! Ah! Utz biezaio egiazki horretarako jaioa den emakumeari, bertutea edertzen dakien bakarrari, maitaraziko lukeen bakarrari!... Barka, adiskide ederra: baina gaur arratsean berean

gertatua da, Tourvel andrearen eta nire artean, jakinarazi behar dizudan gertaldia, eta badut oraino zirrara doi bat. Neure burua bortxatu beharrean naiz gertaldi horrek eragin didan bihotz hunkitzetik gogoia bertzera; xede horretan lagunduko didalakoan ekina naiz zuri izkiriatzeari. Lehen une horrek baduke zer barkaturik.

Baditu jadanik egun batzuk Tourvel andrea eta biok akort garela geure sentimenduez; eleez baizik ez dugu eztabaidatzen. Betiere *haren adiskidantza* zen, zinez, *nire amodioari* ihardesten ziona: baina abenikozko mintzaira horrek ez zuen gauzen mamia aldatzen; eta gisa horretan gelditu izan bagina ere, menturaz geldiago aitzinatua nintzatekeen, baina ez hala ere segurantz gutxiagoz. Ez zen jadanik ni urruntzeaz ere mintzo, hasieran hori nahi bazuen ere; eta egunoro izaten ditugun solasez den bezanbatean, baldin artoski eskaintzen badiot okasioa, hark ere artoski du baliatzen.

Nola gure elkar ikuste laburrak promenaldia bitartean izaten baitira, egungo egun osoan egin duen eguraldi ezinago txarrak ez zidan deusik

igurikatzen uzten: zinez gaitzitu ere zitzaidan; ez nuen aldez aurretik ikusi eragozpen horrek ekarri behar zidan abantaila.

Ezin promenaturik, bertzeak jokoan hasi dira mahaitik jaiki ahala; eta nola nik gutxi jokatzeko dudak, eta nola ez duten nire beharrik, hartu dut asti hori neure gelara igateko, joko hori noiz finitu zain han egoteko bertze xederik gabe.

Lagunartera berriz nentorrela, emakume xarmant hori kaustu dut bere gelara sartzen, eta, izan zuhurtziagabekeria edo izan ahulkeria, horra non bere boz eziaz erran didan: «Nora zoaz bada? Egongelan ez da nehor.» Ez nuen gehiagorik behar, pentsa dezakezunez, haren gelan sartzeraren entseiatzeko; igurikatzen nuena baino askoz gutxiago aihertu zait. Egia da zuhur jokaturik solasaldia atean hasi dudala, bai axolarik gabe hasi ere; baina gela barnean finkatu garen orduko, egiazko hizpidea ekarri dut, eta *neure amodioaz* hitz egin diot *neure adiskideari*. Haren lehendabiziko erantzuna, izanagatik sinplea, iruditu zait aski adierazgarria: «O! Zera, erran dit, ez gaitezen horretaz hemen mintza»;

eta dardaraka zegoen. Gaixoa emakumea! Hil hurran dakusa bere burua.

Ez zuen haatik izutzeko arrazoirik. Badu zenbait denbora, egunen batean edo bertzean erdiesteko segurantzaz, eta ikusirik emakume hura alferrikako guduetan sobera indar baliatzen, deliberatua nintzela neure indarrak gerortzera, eta hura akiturik noiz errendatuko zitzaidan eginahalik gabe igurikatzen. Ohart zakizkio oraingoan garaipenak erabatekoa izan behar duela, eta ez diodala fitsik zor nahi okasioari. Asmo hori eratu arte, eta lehiaz ari ahal izateko, sobera arriskatu gabe, ez diot beraz amodio hitz hori hain setatsu ukatua errepikatu; aski suhar uste ninduela ziur jakinik, entseiatu naiz doinu amoltsuagoz hari mintzatzen. Uko horrek ez ninduen haserretzen, atsekabetzen ninduen; neure adiskide sentikor horrek ez ote zizkidan kontsolamendu batzuk zor?

Neure burua kontsolatzearekin batera, haren esku bat nirearen baitan gelditu da; gorputz eder hark nire besoa zuen euskarri, eta oso hurbil ginen elkarrengandik. Ohartuko zenion segurki zenbatez, egoera horretan, defentsa ahultzen ari

den heinean, galdeak eta ukoak hurrenez-hurrenagoak izaten diren; nola burua zehartzen den eta behakoak apaltzen, hitzak aldiz, betiere motel erranak, bakanak eta etenak diren. Sintoma balios horiek arimaren men egitea iragartzen dute, hutsik ere egin gabe: baina men egite hori oso bakanetan baizik ez da oraino zentzumene-taraino heldu; uste dut betiere arriskutsua izaten dela halaber urrats nabarmenagirik egiten saiatzea; zeren nork bere buruaren uzte hori ez izanik plazer txit eztirik gabea, ezin jakin norbait egoera horretarik ateratzera nola behartu, nahitaez defentsarako mesedetan datekeen beltzuririk sorrarazi gabe.

Baina, kasu honetan zuhurtzia hanbatenaz premiazkoagoa nuen, zenbatenaz beldurra bainon batez ere bere buruaren uzte horrek nire ameslari amoltsuari halabeharrez sorraraziko zion izuari. Beraz galdatua nion aitormen hori, ez nion bozez egin zezan ere eskatzen; behako bat aski izan zitekeen; behako bat bakarra, eta zoriontsua nintzen.

Adiskide ederra, begi eder horiek nigana ditu alabaina jaso, aho zerutiar horrek erran ere du:

«Hots bada! Bai, nik...» Baina bet-betan behakoa itzali zaio, boza erlastu, eta emakume maitagarri hori nire besoetara erori da. Doi-doia izan dut neure besoetan hartzeko astia, ezen horra non dardarazko indar batez nigandik libratuz, behakoa galdua, eta eskuak zerurantz goratuak, deia-dar egin duen... «Jainkoa... O, Jainko Jauna, salba nazazu»; eta berehala, tximista baino zaluago, belauniko zegoen nigandik hamar urratsera. Ito beharrean aditu dut. Aitzinatu naiz hari laguntza ematera; baina hark, nire esku, haren malkoez bustiak heldurik, batzuetan nire belaunak ere besarkaturik, erran du: «Bai, zu izanen zara, zu izanen zara nire salbatzailea! Zuk ez duzu nire heriotza nahi, utz nazazu; salba nazazu; utz nazazu; Jainkoarren, utz nazazu!» Eta segida gutxiko ele horiek nekez itzuri zaizkio negar malko ugarituen artetik. Bizkitartean heldu nau horren indar handiaz, non ez nindukeen urruntzen utziko; bildurik orduan nire indarrak, besoetan jaso dut. Instant berean negar egitetik gelditu da; ez du hitzik atera; gorputz atal guztiak zurrundu zaizkio, eta ekaitz horren ondotik dardara bortitzetan da hasi.

Biziki hunkitua nintzen, aitor dizut, eta uste dut men eginen niola haren eskariari, zernolako-ek horretara behartu izan ez banindute ere. Gauza segura da hala ere ezen laguntza doi bat eman diodan ondoren, bakarrik utzi dudala hark erregutzen zidan bezala, eta karia horretara boz-karioak egiten ditudala. Dagoeneko kasik jaso dut saria.

Igurikitzen nuen, maitasun aitormena lehen aldiz egin nion egunean bezala, ez zela arratseko lagunartera agertuko. Baina zortzi orenen inguruan, egongelara jaitsi, eta lagunartean soilik jakinarazi du ondoezik egona zela. Begitartea apaldua zuen, boza ahuldua, eta jarrera berariaz egokitua; behakoa ordea ezta zuen, eta usu nigan du finkatu. Hark jokoari uko egin izanak behartu ere naularik haren ordeaz jokatzera, nire ondoan eseri da. Afaldu bitartean, bakarrik gelditu da egongelan. Itzuli garelarik, negar egina zela sumatu uste diot: hori argitzeko, erran diot ezen iruditzen zitzaidala ondoezak minberatua zuela oraino; eta hark adeitasunez ihardetsi dit orduan: «Gaitz hori ez da jin bezain fite joaten!» Nor bere gelara joan garelarik azke-

nik, eskua luzatu diot; eta haren gelako atarian hark indarrez tinkatu du. Egia da iruditu zaidala ezen higidura horrek bazuela zerbait oharkabetik: hainbat hobe ordea; nire nagusigoaren bertze frog bat da.

Eginen nuke orain zoratzen dagoela hein horretara heldu izanaz: xahutu beharrekoak xahutuak dira; gozatzea baizik ez da gelditzen. Menturaz, izkiriatzen ari natzaizun bitartean, asmo ezti hori buruan dabilkio jadanik! Eta, aitzitik, defendatzeko bertze asmoren bat balebilkio ere, ez ote dakigu guk, ontsa jakin ere, zer bilakatzen diren asmo horiek oro? Horra nire galdera, hau luza liteke gure hurrengo elkar ikustea baino areago? Harengandik igurikitzen dut, konparazione, hainbat itxura egite elkar ikuste hori onartu baino lehen, baina hor konpon! Lehen urratsa egin duten orduko, ahalketi latz horiek ba ote dakite baratzen? Horien amodioa zinez leherketa bat izaten da; gogor egiteak indar gehiago ematen die. Nire debot izu hori segika letorkidake, baldin ni baratuko banintz hari segitzetik.



Finean, adiskide ederra, berandu baino lehen joanen naiz zure etxera, emana didazun hitza atxiki dezazun galdatzera. Ez zenuen ahantziko dudarik gabe erdietsi ondoko hitz eman zenidana; desleialtasun hori zure zaldunari buruz? Prest zaudea? Ni berriz nehoiz elkar ezagutu ez bagenu bezain irrikan naiz. Bertzenaz, zu ezagutu izana irrika areagotzeko arrazoi bat da agian:

*Bidezko naiz, eta ez naiz jadanik galai.*

Hori izanen da halaber mendean hartu dudan emakume serio horri egingen diodan lehen desleialtasuna; eta hitz ematen dizut ezen lehen estakuruaz baliatuko naizela hogeita lau orenez haren ondotik urruntzeko. Zigorra izan bekio, hain luzaz zugandik urrun eduki nauelako. Bada-kizua bi hilabetetik gora emanak ditudala abentura honetan? Bai, bi hilabete eta hiru egun; biharko eguna ere kontatzen dut hain segur, zeren abentura hau ez baita ordu arte zinez azkendua izanen. Horrek gogorarazi dit B\*\*\*ko andereñoak hiru hilabete osoz eutsi ziola. Gogo-

betekoa dut ikustea nola egiazko pinpirintasuna bertute latza baino hobeki defendatzen den.

Adio, adiskide ederra; utzi behar zaitut, oso berandu baita. Gutun honek uste baino urrunago eraman nau; baina bihar Parisa gutunak igortzekoa nola naizen, okasioa baliatu nahi izan dut zure adiskidearen poza egun bat lehenago izan dadin orobat zurea.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 2an, gauean.*

## C. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Adiskidea, engainatua izan naiz, traditua, galdua; etsi gaiztoan naiz: Tourvel andrea partitu da. Partitu da, eta ni ezjakitun! Eta ni ez nintzen han partitze horri kontra egiteko, haren saldukeria doilorraraz hari liskar egiteko! Ah! Ez uste partitzen utziko nionik; hemen gelditua zatekeen; bai, hemen gelditua zatekeen, indarkeria baliatu behar izan banu ere. Zer bada! Nire segurantzaren sineskorrean, lasai lokartua nintzen; lo nintzen, eta tximista gainera zait erori. Ez, ez

dezaket partitze hori fitsik uler: uko egin behar zaio emakumeak ezagutzeari.

Atzoko egunaz oroitzen naizelarik! Zer diot? Arratseko solasaz beraz ere oroitzen naizelarik! Behako arras ezti hura, boz arras amoltsu hura! Eta esku hura nireari tinkatua! Eta bitarte hartan, niri ihes egiteko asmotan zen! O emakumeak, emakumeak! Auhena eginen duzue gero, baldin tronpatuak bazarete! Bai ordean, guk baliatzen ditugun zitalkeriak oro zuei ebatsiak dira.

A zer plazerra izanen dudan mendeku harturik! Emakume zital hori berriz aurkituko dut; berriz nagusituko natzaio. Baldin amodioa aski izan badut bide egokiak aurkitzeko, zer ez ote du eginen, mendekuaren laguntzaz? Berriz ikusiko dut emakume hori neure aurrean belauniko, dar-daraka eta malkoz bustia, bere boz engainatzaileaz urriki galdez niri oihuka; eta nik ez dut urrikirik izanen.

Zertan ari da orain? Zer pentsatuko du? Bere buruaz hanpatua da agian tronpatu naudelako; eta bere sexuaren gostuei leial, plazer hori iruditzen zaio eztena. Bertute hain sarri goratuak ahal izan ez duena, jukutriaren senak nekerik

gabe du erdietsi! Burugabea ni! Haren zintzota-sunaz beldur nintzen; haren fede gaiztoaz behar nintzen beldurtu.

Eta neure erresumina irenstera behartua izatea! Ez ausartzea oinaze arin bat baizik erakustera, bihotza herraz betea dudalarik! Nire nagusigoari itzuria zaion emakume mutiri bati berriz ere erregutzero behartua ikustea neure burua! Hein horretaraino behar ote nintzen bada umiliatu? Eta nork umiliatu ni? Emakume herabeti batek, borrokan sekula ari izan gabeko batek. Zer probetxu dakarkidake haren bihotzean egoitza hartu izanak, amodioaren su guztiez hura besarkatu izanak, haren zentzumenen asaldua eldarnioraino eraman izanak; baldin eta bere bazterraldian sosegu harturik, egungo egunean harrotzen ahal baita bere ihesialdiaz ni neure garaipenaz bainoago? Eta jasanen duta? Adiskidea, zuk ez duzu hori uste; zuk ez duzu nitaz horren uste umiliagarririk!

Baina zer halabeharrek nauka emakume horri atxikia? Ez ote ditut bertze ehun neure konplimenduen irrikan? Ez ote zaizkit konplimendu horiei ihardestera lehiatuko? Haietariko ezeinek

balio ez baleza ere honako honek bezainbat, aiztasunaren lilurak, bertze emakumerik mendean hartzearen xarmak, mendean hartze ugari horien loriak, ez ote dute aski plazer ezirik eskaintzen? Zergatik lasterka joan ihes egiten digunaren bila, eta zergatik ezaxolatu gugana jin direnez? Ah! Zergatik?... Ez dakit, baina sentipen hori biziki errotua da nigan.

Egin du betiko nire zorionak, nire atsedanak, non ez dudan erresumin berberaz gorroto eta maite dudan emakume hori hartzen. Ez dut neure asturua jasanen, non ez naizen harenaren jaun eta jabe. Lasai eta gogobeterik orduan ni, nihausk dut, aldiz, emakume hura ni une honetan pairatzen ari naizen ekaitzen mende ikusiko, sorraraziko dizkiot bertze mila gehiago. Esperantzak eta beldurrak, mesfidantzak eta segurantzak, herrak asmatuiko gaitz guztiak, amodioak eskainiriko ontasun guztiak, nahi dut mukuru bete dezaten haren bihotza, nire borondatearen arabera hurrenez hurren etor dakizkion. Aldi hori jinen da... Baina zenbat lan oraino! Zeinen hurbil nintzen atzo, eta zeinen urrun naizen gaur! Emakume horrengana nola hurbildu? Ez naiz ezein

urrats egitera ausartzen; badakit xede bat hartzeko lasaiago egon behar nukeela, eta odolak zainetan dirakit.

Nire oinazea gero eta handiagoa da, hanbatenez batbederak hemen odol hotzean erantzuten baitie gertakari honez, beraren kausaz, ohi ez bezalakotik ageri duen guztiaz... egiten dizkiedan galdera guztiei. Nehork ez daki deus, nehork ez du deusik jakin nahi: doi-doia aipatua zuketena, baldin utzi izan banie bertze zerbaitez mintzatzen. Rosemonde andreak, zeinaren gelarra berri hori jakin orduko presaka joan bainaiz gaur goizean, bere adinari dagokion hoztasunaz ihardetsi dit erranez ezen Tourvel andreak atzo izan zuen ondoezaren berezko ondorioa zela hori; ezen Tourvel andrea eritasun baten beldur zela, eta nahiago izan zuela bere etxean egon: oso gauza sinplea iruditzen zaio hori, hark gauza bera eginen omen zuen, hala erran dit: bi emakume horien artean deus komunik balego bezala! Rosemonde andre hil hurranaren eta nire bizitzari atsegina eta oinazea dakarkion bertze horren artean!

Volanges andreak, nik hasieran estalgile zelako susmoa hartu banion ere, ez dirudi hunkitua, ez bada Tourvel andreak urrats horrez berrari aholkurik eskatu ez izanaz. Bozkariotan naiz, aitor dizut, hark niri kalte egiteko plazerra ez hartu izanaz. Horrek are frogatzenago dit ezen ez dela, ni beldur nintzen heineraino, emakume horren fidantziaren jabe; betiere arerio bat gutxiago da. Zer nolako bozkarioa ez luke hartuko, baldin jakin baleza niri egin didatela ihes! Zenbatez ez zen bere buruaz bete eta hanpatuko, ihesaldi hori bere kontseiluengatik izan balitz! Zenbatez ez zen haren garrantzia areagotuko! Ene Jainkoa! Hari bai nik herra! O! Berriz lotuko natzaio haren alabari; neure gogara eta irudimenera landuko dut: aldi batez hemen geldituko naizela uste dut orobat; egin ahal izan dudana gogoeta doiak xede horretara narama bederen.

Ez duzu uste, alabaina, hain urrats nabarmena egin ondoren, nire eskergabe horrek nire ausentziaren beldur egon behar duela? Baldin jarrai niezaiokeela bururatu bazaio, ez da baratuko niri atea hermetik; eta ez dut nahi baliabide

horretara ohitu dadin nahi, eta hanbatenaz gutxiago nahi dut umiliazio hori jasan. Nahiago dut aitzitik hemen geldituko naizela hari mezutu; arrenka galdatuko ere diot hona berriz itzul dadin; eta nire ausentziaren uste oso-oso dukeenean, haren etxean naiz agertuko: ikusiko dugu elkar ikuste hori nola jasaten duen. Elkar ikuste hori gibelatu beharrean naiz ordea, eragin handiagoa izan dezan, eta oraino ez dakit pazientziarik izanen dudan: egun osoan hogeai aldiz ireki dut ahoa neure zaldien galdea egiteko. Haatik neure buruari nagusituko natzaio; hitz ematen dizut zure erantzuna hemen hartuko dudala; soil-soilik galdatzen dizut, adiskide ederra, zain eduki ez nazazun.

Zer gertatzen den ez jakitea litzateke gehien muzinduko ninduen: baina nire sehiak, Parisen baita hura ere, badu eskubiderik haren gelaria-gana nolabait erraz hurbiltzeko: baliagarria izan dakidake. Manu bat eta dirua igortzen diot. Arren otoi galdatzen dizut on iduri dakizula bata nahiz bertzea gutun honetan sar ditzadan, bai orobat zure sehi baten bidez ardura handiz hari igor diezaiozun ere, nireari emateko manuz. Izari horiek



behar ditut hartu, zeren eta zital horrek bai baitu nik izkiriitzen dizkiodan gutunak sekula ez hartzeko ohitura, gogaikarri zaion zerbait manatzen diodanean; eta orobat ez baitzait iruditzen, oraingoz, mendean hartua duen emakume horrez nik nahi nukeen bezain gogobeterik denik.

Adio, adiskide ederra; baldin ideia zoriontsuren bat, nire urratsa azkartzeko baliabideren bat burura balekizu, mezutu niri. Behin baino gehiagotan sentitu izan dut zeinen baliagarria izan litekeen zure adiskidantza; une honetan orobat ari naiz sentitzen; zeren izkiriatu dizudanez geroztik lasaiago bainaiz; aditzen didan norbaiti mintzatu natzaio bederen, eta ez gaur goizaz geroztik sorgorturik inguruan ditudan automatei. Egiatan, zenbatenaz ikusi, hanbatenaz tentatua naiz uste izateko ezen munduan zu eta biok baizik ez garela zerbait balio dugun bakarrak.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 3an.*

# CI. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK AZOLAN

*bere sehiari.*

*(Aurreko gutunari atxikia)*

Arras ergela behar duk izan, hemendik gaur goizean partitu haizen hori, Tourvel andrea ere partitzera zihoala ez jakiteko; edo, baldin jakin baduk, niri mezutzera ez etortzeko. Zerk balio dik bada nire dirua morroiekin horditzen xahutzeak; nire zerbitzuan eman behar hukeen denbora gelariei gorte egiten emateak, hargatik gertatzen denaz hobeki argitua ez banauk? Horra zertan den beraz hire laxokeria! Gaztigatzen diat orde, baldin zeregin honetan laxokeriarik egiten baduk, hura dukek nire zerbitzura eginiko azkena.

Tourvel andrearen etxean gertatzen den oro jakinarazi behar didak: haren osasuna, ea lo egiten duen; ea tristeturik edo alegera den; ea usu jalgitzen den, eta noren etxera joaten den; ea jenderik hartzen duen etxean, eta nortzuk jiten zaizkion; ea zertan ematen duen denbora, ea beltzuria duen bere gelariekin, bereziki hona

ekarri zuenarekin; ea zer egiten duen bakarrik denean; baldin, irakurtzen duenean, segidan irakurtzen duen, ala irakurketa etenik ametsari emana egoten den; berebat izkiriatzen duenean. Entseia hadi orobat gutunak postara eramaten dizkion sehiaren adiskide egitera. Usu egiok mandatu hori haren ordeztu egiteko eskaintza: eta onar dezanean, igor itzak soilik garrantzirik gabeak iruditzen zaizkianak, eta igorri niri bertzeak, batez ere Volanges andrearentzat direnak, baldin kausituko bahitu.

Molda hadi aldi batez oraino heure Julie horren maitale zoriontsua izateko. Baldin bertze maitalerik badu, hik uste duan bezala, amore emanaraziok biekin egotera; eta ez hadi mindu gero adeitasun guztiz irrigarri baten karietara: hik baino gehiago balio duten bertze anitzen kasuan izanen baihaiz. Baldin hala ere bigarren hori sobera desegoki gerta baledi; baldin hautesmanen bahu, konparazione, egunean zehar hartuegia duela Julie, eta beraz askoz banakago egoten dela etxekoandrearen ondoan, zeinahi bidez bazter ezak, edo liskar hakio bertzela: ez izan ondorioen beldurrik, nik sustengatuko haut.

Oroz gain ez hadi joan etxe horretatik. Jarraikita-sunari esker baita oro ikusten, eta ontsa ikusten. Are gehiago, menturaz haren morroiren bat kale-ra bota balezate, eskain heure burua haren ordezt, dagoeneko nire zerbitzura ez bahintz bezala. Erran, kasu horretan, utzi egin nauala etxe lasai eta antolatuago bat bilatzeko. Entseia hadi finean han onartua izatera. Bitarte horretan orobat izanen haut nire zerbitzura; \*\*\*ko dukesa-ren etxean bezala izanen duk; eta gero, Tourvel andreak orobat sarituko hau.

Baldin aski trebe eta arduratsu bahintz, manu hau aski izan beharko huke; baina trebeta-suna eta ardura ordezkatzeko, dirua igortzen diat. Honekin batera dohakian txartelak, ikusiko duan bezala, nire diruzainagandik hogeita bortz luis jasotzeko baimena ematen dik; zeren ez baitiat dudarik egiten sosik gabe hagoela. Diru kopuru horretarik behar den guztia baliatuko duk Julieri nirekin gutun bidezko harremanetan hasteko deliberoa harrarazteko. Gainerakoa balia-garria dukek morroiei edanarazteko. Egizak kontu, ahal bezainbat, atezainaren gelan edan dezaten, hire etorrerak laket izan dakizkion. Ez

ahantz ordea ez ditudala hire plazerrak ordaindu nahi, hire zerbitzuak baizik.

Ohitu ezak Julie orori beha egotera eta oro mezutzera, bai eta huskeria irudi dakiokena ere. Hobe dik alferrikako hamar perpaus izkiriatzea, perpaus garrantzitsu bat aipatzeke uztea baino; axolarik gabekoa dirudiena usu garrantzizkoa izaten baita. Berehala egon nahi baitut jakitun, baldin interesgarria irudi dakiakkeen zer-bait gerta baledi, bidal ezak Philippe, gutun hau jaso ahala, mandatu zaldiz, ...n finkatzera; han geldituko duk bertze manurik hartu arte; behar izanez gero hark hartuko dik txanda. Ohiko gutu-netarako, posta aski dukek.

Kasu egin gutun hau ez galtzeaz. Egunoro berrirakur ezak, hala deus ahanzi ez zaiala ziurtatzeko, nola oraino atxikia duala segur izateko. Egin ezak finean nire fidantziaz ohoraturik denak egin behar duen guztia. Badakik ezen, baldin hitaz kontent banago, orobat izanen haizela hi nitaz.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 3an.*

## CII. GUTUNA

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

ROSEMONDE ANDREARI

Biziki harritua zaituzket, andrea, zure etxetik laster-lasterra partitua naizela jakinik. Urrats hori hagitz ohi ez bezalakoa irudituko zaizu: baina zure ezustek zer emendio dukeen partitze horren arrazoiak jakiten dituzunean! Irudituko zaizu menturaz ezen horiek zuri erranik ez dudala aski errespetatzen zure adinari premiazkoa zaion lasaitasuna; ezen aldaratzen naizela orobat hainbat arrazoiengatik zor zaizkizun begiramenezko sentimenduetarik? Ah! Andrea, barka: bihotza hertsatua dut ordea; bere atseka-bea adiskide ezti eta orobat zuhur baten altzoan isurtzeko premian da: zu izan ezik nor hauta lezake? Har nazazu zeure alabatzat. Izan itzazu nigana ama baten ontasunak; arrenka dizkizut galdatzen. Baduket ausaz zenbait eskubide zugana ditudan sentimenduen karietara.

Bazen garai bat non sentimendu laudagarri horietara osoki emana, ez baintuen ezagutzen bertze sentimendu hauek, ni orain jasaten ari

naizen asaldu hilgarria arimara dakartelarik, haiek gudukatzeko indarra kendu eta aldi berean gudukatzera behartzen zaituztenak; garai hura non da orain? Ah! Zorigaiztoko bidaldi horrek galdu nau...

Zer erran diezazuket azkenik? Maite dut, bai itsuki maite ere. Ondikotz! Lehen aldiz izkiriatu dudan ele hori, hain sarri galdatua eta nehoiz emana izan ez den ele hori, bizitzaz ordainduko nuke sorrarazi didan hari behin bakarrik adierazi ahal izateko eztitasuna; eta haatik etengabe behar diot ukatu. Nire sentimenduez duda eginen du oraino; zer arranguraturik baduela usteko du. Nire dohakabea! Zergatik ez zaio hain erraza nire bihotzean irakurtzea, nola zaion nire bihotzaren jabe izatea? Bai, gutxiago sofrituko nuke, baldin zenbat sofritzen dudan baleki; baina zuhaurk, nahiz erraten ari natzaizun, urrundarik ere ez zenuke nire sofrimendua sumatuko.

Une batetik bertzera ihes egitera noakio eta atsekabetzera. Oraindik ere nigandik hurbil egon uste duelarik, urrunduak naukake jadanik: egunoro ikusi ohi nauen orenean berean, partitua nau-

kake sekula jin ez den lekuetara, jin dadin ezin utz diezaikedan lekuetara. Prestakizunak oro eginak ditut jadanik; dena prest dago, nire begien aitzinean; begiok ezin pausa ditzaket partitze krudel hori iragarriko ez didan deusen gainean. Oro prest, ni salbu!... Eta zenbatenaz nire bihotzak partitzeari uko egiten dion, hanbatenaz frogatzen dit partitze horri men egiteko premia.

Men eginen diot dudarik gabe, hobe dut hil errudun bizi baino! Dagoeneko, biziki sentitzen dut, errudun baino errudunagoa naiz; neure prestutasuna baizik ez dut salbatu, bertutea desagertua da. Aitor diezazudan, oraino gelditzen zaidan bertute doia, haren eskuzabaltasunari zor diot. Hura ikustearen, aditzearen plazerraz, nigandik hurbil sentitzearen ezintasunaz, hura zorionez bete ahal izateak sortzen zidan zorion are handiagoaz horditua, botererik gabe eta indarrik gabe nintzen; doi-doia gelditzen zitzaidan borrokatzeko boterea eta indarra, deusik ere ez ordea kontra egiteko; neure arriskuak dardaraka nindukan, ezin hari itzuririk. Hots bada! Hark nire atsekabea ikusi du, eta urrikaldu



zait. Nola ez dut maiteko? Bizia baino anitzez ere gehiago zor diot.

Ah! Baldin haren ondoan geldituz gero soilik neure biziaz egon behar banu dardaraka, ez uste harengandik urruntzea nehoiz onartuko nuenik. Hura gabe zer dut bizia, galduz gero ez nintzateke zoriontsuago? Hari eta neure buruari betiko malur egitera kondenatua; auhenik egitera eta hura kontsolatzera ez ausartzera orobat; hala haren, nola neure buruaren kontra egunoro defendatzera; nire ardura guztiaz hura atsekabetzera, ardura horiek guztiak nahi nizkiokeelarik haren zorionari opa. Horrela bizitzea ez dea mila aldiz hiltzea? Horra beraz zein izanen den nire asturua. Jasanen dut haatik, izanen dut aski kuraia. O zuk, amatzat hautatu zaitudan horrek, har ezazu nire zina!

Har ezazu orobat neure ezein egintza ezkutatuko ez dizudalako zina; har ezazu, arren otoi; premiaskoa dudan laguntza gisa eskatzen dizut: hala, oro zuri errateko hitza eman baitizut, betiere zure aurrean nagoela uste izatera ohituko naiz. Zure bertuteak nirea ordezkatuko du. Nehoiz ez dut, dudarik gabe, zure aitzinean ahal-

ke gorritzea onartuko; eta galga ahaltzu horrez neure buruari nagusitua, zugan maiteko dudalarik adiskide bihozberatasunaz betea, neure ahulkeriaren isilmandataria, zugan berebat dut oheratuko ahalketik salbatuko nauen aingeru begiralea.

Zuri galde hori egin behar izatea sobera jasetea da. Fidantzia hanpatu baten ondorio hilgarria! Zergatik ez nau lehenago ikaratu nire baitan sortzen ari zen jaidura horrek? Zergatik harrokeriaz hanturik uste izan dut neure gogara baliatzen edo garaitzen ahalko nuela? Burugabea ni! Ez nuen amodioa kasik ezagutzen! Ah! Ardura gehiagok kontra egin izan banio, ausaz ez zitzaidakeen horrenbertze nagusituko! Ausaz orduan partitze hau ez zatekeen beharrezkoa; edo, xede dolugarri horri men eginik ere, ez nukeen osoki hautsi beharko bakanagoa izatea aski zukeen harreman bat! Oro batera galtzea ordea! Eta sekulako! O adiskidea!... Zer ordea! Izkiriitzen ari natzaizularik ere, desira gaiztoetan galtzen naiz oraino. Ah! Parti nadin, parti nadin, eta nire sakrifizioek ordain bitzate bederen nire gogoaz bertzerako hutsegite horiek.

Adio, adiskide agurgarria; maita nazazu zure alaba banintz bezala, har nazazu alabatzat; eta zaude ziur ezen, nahiz ahula naizen, nahiagoko dudala hil zuk egin duzun hautuaz ezgai bihurtu baino.

*...tik, 17\*\*ko urriaren 3an, goizeko oren batean.*

### **CIII. GUTUNA**

ROSEMONDE ANDREAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Areago atsekabetu nau, nire maite polita, zure partitzeak, partitze horren kausak harritu nauen baino; nire esperientzia luzeak eta zuk sorrarazten didazun interesa aski izan ditut zure bihotza nola zegoen argitzeko; eta baldin oro behar bada erran, ez didazu deus edo ia deus ere erran zure gutunean. Baldin hura izan banu berriemaile bakarra, oraino ez nuke jakinen nor den maite duzun gizona; zeren denbora guztian *hura* aipatuagatik, ez duzu haren izena behin bakarrik ere izkiriatu. Ez nuen horren beharrik; ontsa dakit nor den. Ohartarazten dizut ordea,

zeren eta gogora ekarri baitit horrelakoa izaten dela beti amodioaren estiloa. Ikusten dudanez, iragan aldietan bezalakoa da oraino.

Ez nuen uste nigandik hain urrun diren eta nire adinari hain arrotz zaizkion oroitzapenetara berriz itzuli beharko nuenik. Hargatik, atzodanik, oroitzapen horiek zinez izan ditut gogoetagai, baliagarria izan lekizukeen zerbait kaustitzeko desiraz. Zer egin dezaket ordea, ez bada zu miretsi eta zutaz urrikaltzea? Hartu duzun xede zintzoa goستن dut: izutzen nau ordea, zerен ondorioz ikusten baitut beharrezkoa iruditu zai-zula; eta egoera horretan egonik, oso zaila izaten da geure bihotzak etengabe hurbilarazten gaituen harengandik betiere urrun irautea.

Ez haatik etsi. Deus ezin baitzaio ezinezkoa izan zure arima ederrari; eta egunen batean maluraz fingaitz egin bazeneza (Jainkoak ez dezala nahi!), sinets nazazu, maite polit horrek, atxiki ezazu bederen zeure ahal guztiaz borrokatu izanaren kontsolamendua. Eta, bertzalde, giza zintzotasunak ez dezakeena, zeruko graziak nahi duenean obratzen du. Menturaz haren laguntza-ren bezperan zaude; eta zure bertutea, gudu izu-

garrietan trebatua, garbiagoa eta disdirantagoa  
jalgiko da gudu horietarik. Egun ez duzun indar-  
ra, bihar jasotzea igurika ezazu. Ez ezazu indar  
hori balia haren gainean bermaturik atsedean  
hartzeko, baina zure indar guztiak erabiltzeko  
kuraia hartzeko baizik.

Probidentziari utzirik ezin guduka dezakedan  
arrisku batean zu laguntzeko ardura, neure gain  
hartzeko dut zu ahal bezainbat sustengatu eta  
kontsolatzea. Ez ditut zure penak leunduko, neu-  
retuko ditut ordea. Gisa horretan gogo onez ditut  
zure isilmandatuak hartuko. Sumatzen dut zure  
bihotzak lasaitzeko premia izan behar duela. Nik  
neurea dizut zabaltzen; adinak ez dit oraino adis-  
kidantzari sentikor ez izateko heineraino hoztu.  
Zu hartzeko prest kaosituko duzu beti. Zure  
oinazeen leuntze arin bat baizik ez da izanen,  
baina ez duzu bederen bakarrik negar eginen:  
eta zorigaitzeko amodio horrek, sobera nagusi-  
tua zaizularik, hitz egitera behartzen zaituenean,  
hobe duzu nirekin mintzatu eta ez *harekin*. Horra  
non zu bezala mintzo naizen; eta uste dut gu  
biok ez garela haren izena aipatzera helduko;  
bertzenaz, elkar ulertzen dugu.

Ez dakit zilegi ote zaidan zuri erratea ezen nire ustean zure partitzeak hura biziki hunkitu duela; zuhurragoa litzateke agian harez zuri ez hitz egitea: ez dut maite ordea adiskideak atsekabetzen dituen zuhurtzia hori. Luzaz ez mintzatzera behartua naiz haatik. Neure ikusmenaren ahulak eta neure eskuaren dardarak ez didate gutun luzerik izkiriatzera uzten, nihaurk behar ditudalarik izkiriatu.

Adio bada, maite polit hori; adio, haur maitagarri hori; bai, gogo onez zaitut alabatzat hartzen, zuk bai baituzu ama bati urguilua eta plazerra sortzeko behar den guztia.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 3an.*

## **CIV. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VOLANGES ANDREARI

Egiatan, adiskide on eta maitea, zure gutuna irakurririk doi-doia begiratu ahal izan naiz harroaldi batetik. Zer! Zeure fidantzia osoaz ohortzen nauzu! Kontseilu galdez etorri ere bazatoz nigana! Ah! Arras zoriontsua naiz, baldin oniritzi

hori merezi badut zugandik: baldin ez badiot adiskidantzaren jaidurari soilik zor. Bertzalde, arrazoia zeinahi dela ere, ez da haatik balio gutxiagokoa nire bihotzarentzat; eta oniritzi hori erdietsi izana ez da niretzat hura merezi izaten areago saiatzeko bertze arrazoi bat baizik. Askatasun osoz erratera noakizu bada (zuri aholkurik emateko asmorik gabe ordea) nire pentsaera zein den. Fidagaizten dut, zeren ez baita zurea bezalakoa: baina neure arrazoiak adieraz diezazkizudanean, haztatuko dituzu; eta baldin gaitzets bazenitza, zure iritzia aldeztu aurretik baieztatu dut. Baduket bederen zu baino zuhurragoa naizela ez uste izateko zuhurtzia.

Baldin haatik, behingo honetan soil-soilik, nire iritzia hobetsia gerta baledi, hobeste horren kausa ama baten maitasunezko irudipenetan behar zenuke bilatu. Sentimendu hori laudagarria nola baita, zure baitan behar du. Aise sumatzen ahal baita alabaina tentatzen zaituen asmo horretan! Hala bada, baldin eta batzuetan huts egitea egokitzen bazaizu, sekula ez duzu hutsik egiten, ez bada bertuteen hautuan.

Zuhurtzia da, nire iduriko, hobetsi behar dena, erabakitzen delarik bertzeren asturua, eta batez ere finkatu behar delarik lotura ezin hautsizko eta sakratu batez, nola baita ezkontza. Orduan behar du ama zintzo bezain amoltsu batek, zuk egoki diozun bezala, *bere alaba bere esperientziaz lagundu*. Beraz, horra nire galdera, zer egin dezake hori erdiesteko, ez bada atsegin dena eta komeni dena alabarentzat bereizi?

Ez litzateke bada amaren aginpidea doilortzea, ez litzateke amaren aginpidea deusezte aginpide hori arinkeriazko jaidura baten peko ezartzea, zeren jaidura horrek liluratzeko duen ahalmena haren beldur direnek baizik ez baitute sentitzen, eta desagertzen baita erdeinatua den orduko? Nik, aitor dizut, ez dut sekula sinetsi grina arrunt erakargarri eta ezin aihertuzko horietan, iduri baitu onetsiak direla gure makurkeria guztien estakuru gisa. Ez dezaket uler nola jaidura batek, une batez jaioa eta bertze batez hila gertatu denak, ahalkearen, prestutasunaren eta lañotasunaren hatsapen mudaezinak baino indar gehiago izan dezakeen; eta ez dezaket orobat uler nola ustezko grina batek justifika deza-



keen hatsapen horiek traditzen dituen emakumea, diruaren grinak ebaslea, edo mendekuarenak hiltzailea justifika lezakeen bainoago.

E! Nork erran dezake ez dela sekula borrokatu behar izan? Ni ordea beti saiatu izan naiz neure buruari sinetsarazten ezen kontra egiteko, aski dela kontra egin nahi izatea; eta orain arte bederen, nire esperientziak nire iritzia baieztatu du. Zer litzateke bertutea, bere baitan dakartzan betebeharrak gabe? Haren gurtza gure sakrifizioetan datza, haren saria gure bihotzetan. Egia horiek soil-soilik ez adituarena egiteko interesa dutenek uka ditzakete; zeren eta, zitalduak baitira dagoeneko, liluraldi bat sortzea igurikatzen baitute, beren jokabide gaiztoa arrazoi gaiztoz justifikatzen saiatuz.

Baina beldur hori sor ote lezake haur laño eta herabeti batek, zugandik sortua den eta ahal-kean eta garbitasunean hezia izanak berezkotik zuena indartu baizik ez dion haur batek? Zure alabarentzat umiliagarria dela erranen ere nukeen beldur horri nahi diozu haatik zuhurtziaz prestatua zenion ezkontza abantailatsua sakrifikatu! Asko maite dut Danceny; eta aspaldi hone-

tan, dakizun bezala, gutxitan ikusten dut Ger-court jauna; baina batari diodan adiskidantzak, bertzearen axola gutxiak, ez didate bi hautu horien arteko alde hagitz handia sumatzea eragotzen.

Biak etorki berekoak dira, horretan ados naiz; bata ordea fortunarik gabea da, eta bertzearena hain da munta handikoa, non, etorki gorenekoa izan gabe ere, aski litzatekeen hura noranahi helarazteko. Aitor dizut diruak ez dakarrela zoriona; baina aitortu behar dut halaber zorion-bidea aise errazten duela. Volanges andereñoa, zuk diozun bezala, aski aberatsa da bientzat: hala ere, jasotzekoa duen hiruretan hogeia mila liberako errenta ez da hain munta handiko dirutza Dancenyren izena daramalarik, izen horri egoki dagokiokeen etxea antolatu eta sustengatu behar duelarik. Ez gaude dagoeneko Sévigné andrearen garaian. Luxuak beretua du oro: nahiz gaitzesten dugun, imitatu beharrean gara ordea, eta ezdeuskeriak azkenik beharrezkoa denaz gabetzen gaitu.

Zuk, arrazoi osoz, oso balioesten dituzun dohain pertsonalez den bezanbatean, hain segur

ere alde horretarik Gercourt jaunak ez du zer liskarturik; eta beraren frogantzak eginak ditu. Nahi nuke sinetsi, eta sinesten dut alabaina, ezen Danceny ez dabilkiola gibeletik; baina horretaz hain ziur gaudea? Egia da bere adinaren akatsetarik salbuetsia ageri izan dela orain arte, eta egungo ohiturak gorabehera badaraku-sala orobat lagunarte zintzorako jaidura nabarmen bat beraren alde eta fabore mintzo dena: nork daki ordea ageriko zintzotasun hori ez dion bere fortunaren eskasari zor? Gizon zital edo galdu izateko beldur doi bat izanez gero, hala ere dirua behar izaten da jokalaria edo libertina izateko, eta hutsegiteak maitatzen ahal dira orobat nahiz hutsegiteon gehiegikeriaren beldurrez egon. Danceny ez litzateke azken finean deus hoberik ez dezakeelako egin lagunarte zintzoari atxikia zaion lehena.

Ez dut erraten (Jainkoak ez dezala nahi!) hori guztia uste dudarik Danceny: baina arrisku bat litzateke betiere; eta zer liskar ez zenizkioke zeure buruari eginen, baldin gertakari hori zorionekoa ez balitz! Zer ihardetsiko zenioke alabari, erranen lizukeelarik: «Ama, gaztea nintzen eta

esperientziarik gabea; nire adinean barkagarria den hutsegite baten lilurak hartu ere ninduen: baina zeruak, aldeztu aurretik ikusi baitzuen nire ahulkeria, ama zuhur bat eman zidan, ahulkeria-tik begira eta sustenga nintzan. Zergatik bada, zure zuhurtzia ahanztirik, nire zorigaitza onartu duzu? Nire esku ote zegoen senarrik hautatzea, ez nekielarik deus ezkontzaz? Senarra hautatu nahi izan banu ere, ez zegoen zure esku hautu hari uko egitea? Nechoiz ez dut ordea borondate zoro hori izan. Zuri obeditzeko delibero finkoan, zure hautuaren zain egon naiz begirunez etsia; nechoiz ez naiz urrundu zuri zor nitzun mendetasunetik, eta haatik egungo egunean neure baitan daramat alaba mutirik baizik merezi ez duten atsekabea. Ah! Zure ahuleziak galdu nau...» Beharbada haren errespetuak deitoren horiek itoko lituzke; baina amaren maitasunak hautemanen lizkioke: eta zure alabaren malkoak izanagatik gordekakoak, zure bihotzaren gainean lirateke hala ere isuriak. Non bilatuko duzu orduan kontsolamendua? Amodio ero horretan ausaz, nahiz zeure alaba haren kontra bortiztu

behar zenuen, eta aitzitik zuk haren lilurari men  
egin zenion?

Ez dakit, adiskide maitea, soberazko gaitze-  
rizkoa dudan grina horren kontra; baina beldur-  
garria iruditzen zait, baita ezkontza barnean ere.  
Ez uste gaitzesten dudanik sentimendu onest  
eta ezti batek ezkontideen arteko lotura eder  
dezan, eta lotura horrek bere baitan dakartzan  
betebeharrak hein batean ema ditzan; baina  
sentimendu hori sortzea ez dagokio lotura horri;  
gure bizitza osoko hautua arautzea ez dagokio  
aldi bateko lilura bati. Alabaina, hautatzeko  
behar da konparatu; eta nola konpara, soilik  
xede bat darabilagularik gogoan; xede hori bera  
ezin ezagut dezakegularik, hordikerian eta itsu-  
kerian murgilduak baikaude?

Anitz emakume kaustu ditut, pentsa dezake-  
zunez, gaitz arriskutsu horrek jota; haietariko  
batzuen isilmandatuak entzuna naiz. Haiei adi-  
tuz gero, ezeinek ere ez du izaki betegina ez den  
maitalerik: baina ametsezko betegintzarre  
horiek haien irudimenean baizik ez dira existi-  
tzen. Haien buru beroak ez du atsegintasunik eta  
bertuterik baizik amesten; nor ere nahiago baitu-

te, hura beren gogara apaintzen dute: Jainko baten beztidurak dira, hain sarri eredu erdeinagarri batek jantziak: baina zeinahi dela ere eredu hori, jantzi dute beztidura horiez, eta beren obraren kaltea jasanik, horra non ahuspezturik gurtzen duten.

Edo zure alabak ez du Dancenymaite, edo lilura hori bera ari da jasaten; baldin maitasun hori elkarrekikoa bada, lilura hori biok komun dute. Halatan, elkar ezagutzen ez dutela, elkar ezin ezagut dezaketela jakiteko segurantzara mugatua da bikote hori sekulako elkartzeko zure arrazoia. Baina, erranen didazu, Gercourt jaunak eta nire alabak gehiago ezagutzen dute elkar? Ez, dudarik gabe; baina ez dute bederen elkar neurritz gain baliatzen, soil-soilik daude elkarren ezjakinean. Zer gertatzen da orduan nik zintzotzat ditudan senar-emazteen artean? Batbederak bertzea aztertzen duela, bertzearen arabera behatzen diola bere buruari, berehala bilatu eta aurkitzen duela bere gostuetarik eta borondateetarik zeintzuk utzi behar dituen bazter, elkarren lasaitasunerako. Sakrifizio arin horiek nekerik gabe egiten dira, zeren baitira elkarrekikoak

eta aldeaz aurretik ikusiak: berehala sorrarazten dute elkarrekiko onginahia; eta ohiturak, zeinak bortizten baititu suntsitzen ez dituen jaidura guztiak, emeki emeki dakar adiskidantza ezia, fidantzia amoltsua, estimuari erantsirik osatzen dutenak, nire ustean, ezkontideen zorion sendo zinezkoa.

Amodioaren lilurak eztiagoak izan daitezke; baina nork ez daki halaber gutxiago irauten dutela? Eta zer arrisku ez du sortzen liluren suntsitzea dakarren uneak! Akatsik ttipienek orduan dirudite bitxiak eta ezin jasanezkoak, liluraturik gintuzkan betegintzarrearen ideiarekin duten alde handiagatik. Senar-emazte orok uste du haatik soilik bertzea aldatu dela, eta batbederak balio duela oraino hutsegite une batean bere burua balioetsia zuen bezainbat. Jadanik sentitzen ez duen xarma, harriturik dakusa nola ez dion bertzeari jadanik sorrarazten; umiliaturik da beraz: harrokeria zaurituak espirituak ditu zurmintzen, hutsegiteak areagotzen, beltzuria ekartzen, herra hedarazten; eta plazer burugabeak zorigaitz luzez ordainduak dira azkenik.

Horra, adiskide maitea, solasgai dugun sujetaz pentsatzen dudana; ez dut neure pentsaera defendatzen, adierazten dizut soil-soilik; erabakia zeuri dagokizu. Baina baldin lehengo iritzian badirauzu, egiten dizut arren nire arrazoiak gudukatu dituzketen arrazoiak niri jakinarazteko galdea: gogobeterik naukakezu zugandik argibideak jasotzeaz, eta batez ere zure haur maitearen asturuaz lasaitua izateaz, suhar desiratzen baitut haren zoriona, hala hari diodan adiskidantzagatik, nola zuri sekulako atxikia naukanarengatik.

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 4an.*

## **CV. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK CÉCILE VOLANGESI

Hots bada! Ttipi hori, horra non arrunt beltzuri zauden, arrunt ahalke, eta Valmont jaun hori gizon gaiztoa da, ezta? Nola! Ausardiaz baitzaitu gehien maiteko lukeen emakumearen gisara tratatu! Irakatsi baitizu jakiteko irrikan zeunden huraxe! Egia erran, prozedura horiek barkaezi-



nak dira. Eta zuk, berriz, zeure zintzotasuna zeure maitalearentzat nahi duzu gorde (nork ere ez baitu zintzotasun hori neurriz gain baliatzen); amodiotik atsekabeak baizik ez dituzu laket, eta ez atseginak! Deus hoberik ez, eta zoragarri agertuko zara nobela batean. Grina, zorigaitza, ororen gainetik bertutea, zeinen gauza ederrak! Segizio dirdiratsu horren erdian, aspertzea ere gerta liteke egia erran, saririk ere badakarke ordea!

Beha bada haur gaixoari, zeinen urrikaria den! Biharamunean begiak apal zituen! Eta zer erranen duzu bada, zure maitalearenak dirate-keenean? Eutsi, aingeru eder horrek, ez dituzu beti horrela izanen; gizon guztiak ez dira Valmonten gisarakoak. Eta bertzenaz, begi horiek jasotzera ez jadanik ausartzea! O! Konparazione, arrazoi izan duzu; han irakurriko baitzukeen mundu guztiak zure abentura. Sinets nazazu hala ere, baldin hori hala balitz, gure emakumeek eta orobat gure andereñoek behakoa apalagoa lukete.

Bistan denez, halabeharrez egin behar dizkizudan laudorioak gorabehera, onar dezadan

haatik huts egin duzula zeure maisu lanean; ez baitiozu amari dena erran. Hain ontsa hasia zinen eta! Haren besoetara bildua zinen jadanik, negar hipaka, hura ere negarretan; zeinen ager-raldi hunkigarria! Eta ondikotz burura gabe utzia! Zure ama amoltsuak, pozez zoratzen, eta zure bertuteari laguntzeko, komentuan sartuko zintuzkeen, bizi guztiko; eta han nahi hainbat maiteko zenukeen zeure Danceny, aurkaririk gabe eta bekaturik gabe; han guztiz zeure gogara atsekabetuko zinatekeen; eta, hain segur ere, Valmont ez zen han egonen, zure oinazea plazer gogaikarriz asaldatzen.

Serioski, nehor izan ote daiteke, hamabortz urte paseak izanik, zu zaren bezain haur? Arrazoi osoz diozu ez dituzula nire ontasunak merezi. Zure adiskidea izan nahi nuen haatik: baduzu menturaz adiskideren beharrik zure ama horrekin, eta berak eman nahi dizun senarrarekin! Ez baduzu ordea zeure burua gehiago trebatzen, zer nahi duzu egitea zurekin? Zer iguriki liteke zugandik, baldin neskei adimena dakarkien horrek zeuri aitzitik kendu egiten dizula badirudi?

Zeure baitara etorriarik gogoeta egin ahal bazeneza une batez, berehala ulertuko zenuke bozkariotan egon behar zenukeela, auhen egin ordez. Ahalketia zara ordea, eta hori gaitzitzen zaizu! Hots! Zaude lasai; amodioak sortzen duen ahalkea amodiozko dolorea bezalakoa da: behin baizik ez da jasaten. Geroztik egiten ahal dira oraino ahalke zein dolore itxurak; ez da ordea gehiago ahalkerik zein dolorerik sentitzen. Plazerak han dirau hala ere, eta bada zerbait. Ikusi uste ere dut zure solasalditxo horren bitartez plazerra arras balioets zenezakeela. Hara, fede on pixka bat. *Erraten zenuena egiten* uzten ez zizun *asaldu bizi hura, defendatzea zailtasun handi* bihurtu zizuna, Valmont joan zenean *bel-tzuritu antzean* utzi zintuena, ahalkeak sorrarazia ote zen? Edo plazerrak sorrarazia balitz? Eta haren *mintzatzeko moldeei nola erantzun* ez jakite hori ez letorke haren egiteko eratik? Ah! Neskatxa gaztea, gezurretan ari zara, eta zeure adiskideari erraten diozu gezurra! Hori ez dago ongi. Utz dezagun ordea.

Mundu guztiarentzat plazerra litzatekeena, eta plazer hutsa bertzerik ez agian, zure egoeran

zinez zoriona bihurtua da. Alabaina, amaren maitasunari atxikimendu handia baitiozu eta zeure maitalearen maitale nahi baituzu sekulako iraun, bien artean zaudelarik nola ez duzu ikusten hirugarren bati lotzea dela elkarren kontrako bi xede horiek erdiesteko bide bakarra? Abentura berri horretara emana zabiltzalarik, zure amari irudituko zaio men eginez sakrifikatzen diozula bigun duen jaidura bat, eta zure maitalearen aurrean erdietsiko duzu zeure burua ederki defendatu izanaren ohorea. Zeure amodioa etengabe seguratuko diozun arren, ez dizkiozu azken frogak emanen. Uko horiek, ez baitira dolugarriak zu zauden egoeran, zure bertutearen gainean ditu hark hutsik egin gabe emanen; deitoratuko ditu agian, baina are gehiago maitatuko zaitu, eta, bataren ustean, amodioa sakrifikatu izanaren eta, bertzearenetan, aihertu izanaren merezimendu bikoitza zeureganatzea ez zaizu eskainiak zaizkizun plazerrez gozatzea baizik gostako. O! Zenbat emakumek galdu duen bere izen ona, nahiz artoski gordea zukeen horrelako baliabideez eutsi ahal izan balio!

Proposatzen dizudan xede hau, ez zaizua iruditzen hala zuhurrena, nola eztiena? Badakizu zer irabazi duzun zuk hartu duzun xedeaz? Bada zure amak zure tristuraren areagotze hori maite-minaren areagotzeari egotzi diola, laidotua dela beraz, eta zuri zigorra emateko segurago egotea baizik ez duela igurikitzen. Izkiriatu berri dit; bere ahal guztiak eginen ditu aitormen hori zuhaurengandik lortzeko. Menturaz, hala erran dit, eskainiko ere dizu Danceny senartzat; halatan, mintzatzera nahi zaitu behartu. Eta baldin, amoltsutasun tronpagarri horren lilurari men egini, zeure bihotzaren arabera ihardetsiko bazenio, handik sarri giltzapeturik luzaz, sekulako ausaz, zeure sineskortasun itsua negarretan zenuke deitoratuko.

Zure amak zure aurka baliatu nahi duen jukutria horri, bertze jukutria batez behar diozu buru egin. Has zaitez bada, haren aurrean ez hain triste agertuz, Danceny gogoan gutxiago darabilzula hari sinetsaraztetik. Hanbatenaz errazago sinetsiko du, zenbatenaz hori izaten baita ausentziaren ondorioa; eta hanbatenaz eskerdunago agertuko zaizu, zenbatenaz bere zuhurtziagatik

bozkariotan egoteko okasio bat baitu kaunituko, zeren iradoki baitio baliabide hori. Baina baldin, duda izpi bati atxikia oraino, setaturik balitz hala ere zuri frogak ezartzen, eta jin balekizu ezkontzaz mintzatzeraz, zaude, alaba on baten gisara, guztizko mendetasunean. Azkenaz goiti, zer arriskutzen duzu? Senarraz den bezanbatean, batak balio izaten du bertzeak bezainbat; eta senarrik deserosoena ez da hala ere ama bat bezain gogaikarria izaten.

Zutaz kontent dagoen orduko, amak esposatuko zaitu azkenik; eta orduan, zure urratsetan libroago, zeure gogara baztertzen ahalko duzu Valmont Danceny hartzeko, edo atxikitzen ahalko dituzu biak. Zeren, kasu egiozu, zure Danceny hori atsegina da: baina da gizon suete bat nonahi eta noiznahi edukitzen ahal dena; lasai egon zintezke harekin. Valmontekin arras bertzela da: hura atxikitzeak lan du; eta bazter utziz gero arriskutsua izaten da. Trebezia handia behar da harekin, edo, trebeziarik ezean, maltotasun handia. Baina, halaber, baldin adiskide gisara atxikitzea erdiets ahal bazeneza, hori bai bozkarioa! Berehala goitituko zintuzke modan

dauden gure emakumeen gainetik. Batbederak gisa horretara hartzen baitu sendotasuna munduan, eta ez ahalke gorrituz eta negarrez, moja haiek belauniko bazkaltzera behartzen zintuzte-nean bezala.

Entseiatuko zara bada, baldin zuhurra bazara, Valmontekin onezkoak egitera, haserre bizian egon behar baitu zurekin; eta batbederak jakin behar baitu bere ergelkeriak konpontzen, aitzina zakizkio beldurrik gabe; laster ikasiko baituzu halaber, ezen gizonak aitzinatu ohi zaizkigun arren, gu izaten garela ia beti bigarren urratsak egitera behartuak. Baduzu horretarako estakururik: zeren ez baituzu gutun hau gorde behar; eta fermuki galdatzen dizut Valmonti bihur diezaiozun irakurria dukezun orduko. Ez ahantz gutuna alde zurretik berriz zigilatzeaz. Hasteko, hari buruz eginen duzun urratsaren merezimendua zeure gain utzi behar zaizulako, eta uste ez dezan orobat kontseilatua izan zarenik; eta bertzenaz, zu baizik ez zaitudalako munduan aski adiskide, mintza natzaizun bezala zuri mintzatu ahal izateko.

Adio, aingeru ederra, jarraitu nire kontseiluei, eta mezutu ea onak iruditu zaizkizun.

P. S.- Izan ere, kasik ahantzi zitzaidan... ele bat oraino. Lehia zaitez zeure estiloa gehiago zaintzera. Haur baten gisa izkiriatzeko jarraitzen duzu. Ontsa dakusat nondik datorkizun hori; pentsatzen duzun guztia erraten baituzu, eta ez duzu deusik erraten pentsatzen ez duzunaz. Hori horrela izan daiteke zugandik nigana, ez baitio bata bertzeari deus ere ezkutatu behar: baina mundu guztiari! Zure maitaleari batez ere! Ergel itxuran agertuko zinateke betiere. Ikusten duzu beraz ezen, norbaiti izkiriatzeko diozunean, hari diozula izkiriatzeko eta ez zeure buruari: entseiatu behar zara beraz ez hainbertze zuek pentsatzen duzuna hari erratera, nola hark gehien atsegin duena erratera.

Adio, bihotza: besarkatzen zaitut liskar egin ordez, zuhurragoa izaneko zarelako esperantzan.

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 4an.*



## CVI. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Bikain, bizkonde, eta jo duzun ukaldi horren-gatik kartsuki zaitut maite! Bertzenaz, zure lehen gutunaren ondoren, bigarrena aise igurika zitekeen: beraz ez nau batere harritu; eta oraino erdietsi ez zenituen zeure garaipen horiez harro zinelarik jadanik, garaipen horiei zegokion saria eskatu zenidalarik, eta prest ote nintzen galdetu zenidalarik, nik ontsa nekusan ez nuela presaka ibiltzeko horrenbertze premiarik. Bai, zin dagit, gertaldi amoltsu eta *biziki hunkitu* zintuen haren kontaketa ederra irakurriz, gure zaldungoaren garai ederrenei egoki dagokion zure neurritasuna ikusiz, hogeia aldiz egina naiz neure artean: «Horra huts egindako afera!».

Ezin baitzuen ordea bertze era batera izan. Zer nahi duzu egitea bere burua eman eta hartua ez den emakume gaixo batek? Ala fede, kasu horretan, ohorea bederen behar da salbatu; eta hori da hain zuzen ere lehendakariaren emazte horrek egin duena. Ni bertzalde, bai baitakit hark egin duen urratsak baduela zinez halako eragi-

nik, neure kontura baliatzeko asmotan naiz, okasio doi bat seriosa eskainia zaidan orduko: hitz ematen dut ordea ezen nik begiz jotako gizonak okasioa ez balu zuk baino hobeki baliatuko, hain segur ere uko egin beharko ninduela sekula betiko.

Horra non arras deuseztua zaren, bai bi emakumeren artean deuseztua ere, non bata biharamunetan zen jadanik, eta bertzeak ez baitzuen bertzerik eskatzen! Hots bada! Ustekoz duzu neure burua goratzen ari naizela, eta erraza dela erranen duzu gertakariaren ondotik igertzea; baina zin egin diezazuket gertatu dena igurikatzen nuela. Zeren ez baituzu hain zuzen ere zeure egoerari dagokion dohaina; ikasi duzuna baizik ez dakizu, eta ez duzu deus ere asmatzen. Beraz, egoera ohi dituzun arauetara makurtzen ez zaizun orduko, eta ohiko bidetik jalgi behar duzun orduko, motz gelditzen zara eskolume baten gisara. Finean, haurkeria bat batetik; ahalkearen itzulera bertzetik, egunoro jasaten ez dituzulako aski dituzu harri eta zur gelditzeko eta ez dakizkizu ez aldeztu aurretik begiratzen, ez erremediatzen. Ah! Bizkonde! Bizkonde! Irakas-

ten didazu gizonak beren garaipenagatik ez juja-  
tzen; eta aurki, zutaz erran beharko da: «Behino-  
la kementsua izan zen.» Eta ergelkeriatik ergel-  
keriara ibili ondoren, nigana zatoz! Iduri du ez  
dudala bertze zereginik zure ergelkeriak konpon-  
tzeaz bertzalde. Egiatzki sobera lan nuke.

Zernahi dela ere, bi abentura horietarik,  
batari nire borondatearen kontra lotu zatzaizkio,  
eta ez naiz horretan nahasiko; bertzeaz den  
bezanbatean, adeitasun doi bat erakutsi baitida-  
zu, neure gain hartuko dut. Honekin batera igor-  
tzen dizudan gutuna, lehenik irakurri eta gero  
Volanges ttipiari emanen diozuna, aski eta sobe-  
ra duzu neskatxa hori zugana berriz erakartzeko:  
baina, otoi arren, arta ezazu pixka bat haur hori,  
eta sor dezagun haren bidez, elkar aditurik,  
haren amaren eta Gercourten etsipena. Ez dugu  
izariak bortxatuz zer beldurturik. Argi dakusat  
neskatxa ttipi hori ez dela gehiago izutuko; eta  
hari buruz ditugun xedeak beteak direnetik bere-  
tik, ahal duena beharko du egin.

Arrunt ezaxolatzen naiz neska horrez. Doi bat  
laketua zitzaidan hura neure mendeko azpikari  
bilakatzea bederen, eta bigarren mailako rolak

joka zitzan nire mendean orobat hartzea: bada-  
kusat ordea ez dela horretarako gai; badu hala-  
ko lañotasun ergel bat zuk baliatu duzun senda-  
bideari ere amore eman ez diona, nahiz ez duen  
sendabide horrek sekula huts egiten; eta hori da  
nire ustez emakume batek izan dezakeen erita-  
sunik arriskutsuena. Badarakusa, batez ere, nor-  
tasun ahulezia bat ia beti sendagaitza eta orori  
ihardukitzen zaiona; hala non, neska ttipi hori  
azpijokorako trebatzen ariko ginelarik ere, ez  
genukeen harez emakume erraz bat baizik egi-  
nen. Bada, ez dut deusik ezagutzen erraztasun  
ergel hori bezain arruntik, batbederari eskaina-  
razten baitio bere burua nola eta zergatik jakin  
gabe, soil-soilik erasotzen zaiolako eta buru egi-  
ten ez dakielako. Emakume suerte horiek plazer  
makinak baizik ez dira.

Erranen didazu hori egitea aski dugula, eta  
gure xedeek ez dutela bertze ezeren premiarik.  
Ordu onean! Baina ez dezagun ahantz mundu  
guztia berehala heltzen dela makina horien gide-  
rrak eta motorrak ezagutzera; beraz, honako  
honetaz arriskurik gabe baliatzeko, bizkor behar  
dugu ibili, garaiz gelditu, eta gero berehala hau-

tsi. Egiazki, ez zaigu faltako hura baztertzeko baliabiderik, eta Gercourtek giltzapean sartuko du guk nahi dezagunean. Azkenaz goiti, ezin jadanik dudatuko duenean kukuak makur jo diola, makur jotze hori aski ezaguna eta nabarmena datekeenean, zer axolako zaigu Gercourtek mendeku hartzea, baldin ez badu kontsola-mendurik? Nik senarraz diodana, zuk dudarik gabe amaz duzu pentsatzen; beraz errana eta egina.

Hobetsi dudan eta geldiarazi nauen xede horrek harrarazi dit neskatsa ttipi hori azkar xamar eramateko deliberoa, nire gutunean ikusiko duzun bezala; karia horretara oso garrantzitsua da orobat haren eskuetan arriskuan jar gaitzakeen deusik ere ez uztea, eta otoi kasu emaiizu horri. Horretarik begiratuak garatekeen orduko, ni arduratuko naiz moralaz, gainerakoa zuri dagokizu. Ikusiko bagenu hala ere geroztik lañotasuna zuzendu zaiola, badukegu betiere asmoz aldatzeko astia. Egitekotan gauden hau halabeharrez behar genuen egin, egunen batean edo bertzean: edozein kasutan, gure eginahalak ez dirateke hutsalak.

Badakizua nireak hutsal izateko arriskuan egon direla, eta Gercourten zoria ia nagusitu zaiola nire zuhurtziari? Volanges andrea ez zaio bada une batez ama bati dagokion ahulkeriari makurtu? Ez zion bada alaba Dancenyri eman nahi? Horra zer iragartzen zuen zuk *biharamunean* hauteman zenuen interes amoltsuago hark. Zuhaur zinateke orobat balentria eder horren kausa! Zorionez ama amoltsu horrek gertaturikoa mezutu dit, eta nire erantzunak xede hori hartzeko gogoia kenduko ziolakoan nago. Bertutea hain sarri diot aipatu, eta batez ere hainbertze balaku egin dizkiot, non arrazoi dudala uste izan behar baitu.

Haserre nago gutun horren kopia bat egiteko astia izan ez dudalako, hala nire moralaren zorrotza onbidetsu gerta zekizun. Ikusiko zenukeen nola erdeinatzen ditudan maitale bat izate-raino zitaldu diren emakumeak! Hain baita eroso- rigorista izatea bozez! Bertzeri baizik ez dio horrek kalterik egiten, eta ez gaitu neholaz ere gogaitzen... Eta jakitun naiz berebat dama zintzo horrek izan dituela, bertze edozeinek bezala, bere ahulkeria ttipiak bere gaztaroan, eta ez nin-

tzen batere haserre haren kontzientzia bederen umiliatu izanaz; halatan doi bat kontsolatua nintzen neurearen aurka egiten nizkion lausenguez. Horregatik beretik, gutun berean, Gercourti kalte egin nahiak eman dit hura ahotan goxo hartzeko ausartzia.

Adio, bizkonde; on deritzot zauden lekuan gelditzeko hartu duzun xedeari. Ezein biderik ez dut zure partitzea azkartzeko; bihoakizu ordea gure ikasle komunarekin asperrak uxatzeko gomita. Nitaz den bezanbatean, elkar ikusteko egin didazun dei adeitsua gorabehera, ikusten duzu igurikatu beharrean garela oraino; eta onartuko duzu, dudarik gabe, ez dela nire errua.

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 4an.*

## **CVII. GUTUNA**

AZOLANEK VALMONTEKO BIZKONDEARI

JAUNA,

Berorren manuei jarraiki, Bertrand jaunaren etxean egona naiz, berorren gutuna jaso orduko, eta hark hogeita bortz luisak eman dizkit, bero-

rrek manatu zion bezala. Bi luis gehiago eskatu dizkiot Philipperi emateko, berehala partitzeko erran bainion, berorrek agindu bezala, eta ez baitzuen sosik; baina berorren diruzain jaunak ezezkoa eman dit, erranez ez zuela berorrengandik manu hori hartu. Neure dirutik eman behar izan diot bada eta berorren onberatasunak kontuan izanen didalakoan nago.

Philippe bart arratsean partitu da. Ostatuan berean gelditzea gomendatu diot, hura non kausitu jakin genezan hain segur ere, haren beharra izanez gero.

Gero berehala joan naiz lehendakariaren emaztearen etxera, Julie andereñoa ikustera: baina ez zen etxean, eta La Fleurrekin baizik ez dut hitz egin, honek ordea ez dit deus jakinarazi, heldu denez geroztik bazkalorduetan salbu ez baita egoitzan egon. Laguntzaileak egin dio zeregin guztia, eta berorrek ontsa dakienez ez dut laguntzaile hori ezagutzen. Egungo egunean hasi naiz haatik.

Gaur goizean Julie andereñoaren etxera itzuli naiz, eta gogoia arras bete bide zaio ni ikustearekin batera. Galderak egin dizkiot haren etxeko-



andarearen itzuliaren zergatiaz; baina ez omen daki deus, eta egia erran didala uste dut. Liskar egin diot haren etxekoandrea partitzera zihoala mezutu ez zidalako, eta seguratu dit ez zuela gau hartan berean baizik jakin, etxekoandreari lotarakoak egiten laguntzera joan zenean: hala non gau osoa eman omen zuen prestakizunak egiten, eta neska gaixoak ez omen zuen bi ore-neko loa baizik egin. Etxekoandreaken gelatik ez zen gau hartan goizeko oren bata jo zuen arte jalgi, eta ez zuen etxekoandrea utzi harik eta izkiriartzen hasi zen arte.

Goizean, partitzerakoan, Tourvel andreak gutun bat eman zion jauregiko atezainari. Julie andereñoak ez daki norentzat zen: menturaz berorrentzat zela dio; berorrek, ordea, ez dit horretaz deusik aipatu.

Bidaldi osoa bitartean, andreak kapusai handi bat zeraman aurpegi gainean, eta beraz ez zitzaion deus ikusten: baina Julie andereñoak hain segur ere uste du usu negar egina zela. Bidean ez zuen hitzik atera, eta ez zuen ...n baratu nahi izan, joaterakoan egin zuen bezala; eta hori ez zitzaion Julie andereñoari askorik

laketu, artean gosaldu gabea baitzen. Baina, nik erran diodan bezala, nagusiak dira nagusi.

Heldu zirenean, andrea oheratu zen; baina bi oren baizik ez zituen egin ohean. Iratzarri zelarik, bere atezaina etorrarazi zuen, eta manatu zion ez nehorri uzteko etxean sartzera. Ez zuen garbiketarik egin. Mahaira eseri zen bazkaltzeko; ez zuen ordea salda pittin bat baizik hartu, eta berehala irten zen. Kafea gelara eraman zioten eta Julie andereñoa aldi berean sartu zen. Kausitu zuen bere etxekoandrea idazmahaian papearak aztertzen, eta gutunak zirela ikusi zuen. Eginen nuke berorrenak direla; eta arratsaldean heldu zitzaizkion hiru gutunetarik, bazen bat arratsean oraino begien aitzinean zuena! Ziur naiz hura ere berorrena dela. Zergatik gisa horretan alde egina da haatik? Harriturik nauka! Hargatik, berorrek jakinen du segurki? Eta afera horiek ez dagozkit niri.

Arratsaldean lehendakariaren emaztea liburutegira joan zen, eta han bi liburu hartu eta bere kabinetera eraman zituen: Julie andereñoak hain segur ere dio ordea han barnean ez zuela oren laurden batez ere irakurri, eta gutun hori

irakurri, amets egin eta begitarte eskuari bermaturik egon, bertzerik ez zuela egin. Liburu horiek zeintzuk diren jakitea berorrek atsegin lukeela iruditu zaidanez, eta Julie andereñoak ez baitzekien, manatu dut liburutegira eraman nindezaten, ikusi nahi nuelako estakuruz. Bi liburu-ren hutsunea baizik ez zen han: bata *Pentsa-mendu giristinoen* bigarren liburukia da; eta bertzea *Clarisse* deritzan liburu baten aitzin liburukia. Han dagoen bezala izkiriatu ditut: berorrek jakiten ahal du ausaz zer diren.

Atzo arratsean, andreak ez zuen afaldu; tea baizik ez zuen hartu.

Gaur goizean oso goizetik deitu ditu mirabeak; zaldiak galdatu ditu berehala, eta bederatzia orenak baino lehen Bernardotarren elizantzen, non meza entzun baitu. Kofesatu nahi izan du; baina kofesora kanpoan zuen, eta ez omen da zortzi-hamar bat egunetan itzuliko. Berorri mezutu beharreko berria iruditu zait.

Berehala etxeratu da, gosaldu du, eta gero izkiriatzan hasi da, eta horretan eman du oren bat inguru. Handik sarri izan dut berorren nahirik handiena egiteko parada: nik eraman baititut

gutunak postara. Ez zegoen Volanges andrea-  
rentzat gutunik; baina igortzen dizut bat, lehen-  
dakari jaunari bidalia: huraxe iruditu zait interes-  
garriena. Bazen bertze bat Rosemonde andrea-  
rentzat; baina iruditu zait berorrek nahi duenean  
irakurriko duela, eta igortzera utzi dut. Bertze-  
naz, berorri ororen jakinean egonen da, lehenda-  
kariaren emazteak orobat izkiriitzen baitio.  
Aurrerantzean berorrek nahi lituzkeen gutun  
guztiak izanen ditut; zeren ia beti Julie andere-  
ñoa izaten baita gutunak mirabeei ematen diz-  
kiena, eta seguratu baitit, niri didan adiskidan-  
tzagatik, bai eta berorri dionagatik ere, boronda-  
te onez egingen duela nik nahi dudan guztia.

Uko egin dio berebat eskaini diodan diruari:  
nago ordea berorrek atseginez egingen diola opa-  
ritxoren bat; eta baldin hori bada berorren  
borondatea, eta mandatu horren egitea nire  
esku utz nahi baleza, nik aise nekike hark zer  
atsegin dukeen.

Jaun nagusiak ez ahal du usteko zabar zerbi-  
tzatu diodanik, eta zazpi ahalak egingen ditut  
berorrek egiten dizkidan liskarrak justifikatzeko.  
Baldin lehendakariaren emaztea partitzear zela

jakin ez badut, berorren zerbitzurako dudan lehia du aldiz horren kausa, berorrek joanarazi baininduen goizaldeko hiru orenetan; eta horren kariaz ez nuen, bezperan, Julie andereñoa, ohi bezala, arratsean ikusi, Tournebride-ra joan bainintzen lotara, jauregikoak ez iratzartzearren.

Usu sosik gabe omen nabilelako ere ba omen du berorrek niri zertan liskar eginik, eta derradan hasteko txukun janzteia atsegin dudala, berorrek ikusten ahal duenez; eta janzkerak bat-bederari demaion ohorea behar dela halaber sustengatu; badakit etorkizunerako doi bat aurreztu behar nukeela menturaz; berorren eskuzabaltasunari guztiz atxikia nago ordea, hain nagusi ona baita.

Berorren zerbitzuan segi eta aldi berean Tourvel andrearen zerbitzuan sartzeaz den bezanbatean, berorrek ez ahal dit halakorik eskatuko! Andre dukesaren etxekoa oso desberdina izan baitzen; berorri egon bedi ziur ordea ez dudala morroi beztidurarik jantziko, eta are gutxiago gonazkorik, berorren sehi izateko ohorea izan ondoren. Bertze guztiaz den bezanbatean, berorrek nahi duena eska bekio errespetuz

bezainbat txeraz berorren zerbitzari umila izateko ohorea duen honi.

ROUX AZOLAN, *Sehia.*

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 5ean, gaueko hamaika orenetan.*

## **CVIII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

ROSEMONDE ANDREARI

O, ama barkabera! Anitz esker behar dizkizut eman, hain zure gutunaren beharretan nintzen! Etengabe irakurri eta berrirakurri dut; ezin aldar nintekeen gutunetik. Hari zor dizkiot partitu nintzenez geroztik hain bihotz-mingarriak izan ez zaizkidan une bakarrak. Hain ona baitzara! Zintzotasunak, bertuteak badakite beraz ahulkeria urrikaltzen! Nire malurak gupidesten dituzu! Ah! Ezagut bazenitza... Lazgarriak dira. Amodioaren penak jasana nintzela uste nuen, baina ezin erranezko oinazea, susma ahal izateko sentitu egin behar dena, da nor bere maiteagandik bereizi beharra, betiko bereizi beharra...! Bai,

egungo egunean hertsaturik naukan atsekabea berriz jinen da bihar, etzi, nire bizitza osoan! Ene Jainkoa, hain naiz oraino gaztea, eta hain da luzea sofrimendutan eman beharko dudan denbora!

Nork bere malura sortzea; nork bere eskuez bihotza urratzea; eta ezin jasanezko oinaze horiek sofritzen ari bitartean, une oroz sentitzea ele batez bararazten ahal direla eta ele hori izatea makurkeria bat! Ah! Adiskidea!...

Harengandik urruntzeko xede guztiz ere dolugarri hura hartu nuenean, ausentziak kementa eta indarrak gehituko zizkidala igurikitzen nuen: zenbatez ere nintzen tronpatua! Iduri du aitzitik guztiz suntsitu dizkidala azkenik. Are gogorrago borrokatu behar nintzen, egia da: baina buru egin behar banuen ere, oro ez zen gabezia; hura noizean behin ikusten nuen bederen; hain sarri ere, nire behakoak hari igortzera ez ausartuagatik, harenak sentitzen nituen nigan finkatuak: bai, adiskidea, sentitu egiten nituen, iduri zuen arima berotzen zidatela; eta nire begietarik iragaten ez baziren ere, orobat helitzen zitzaizkidan bihotzeraino. Orain, bakardade

dolorezko honetan, maite ditudan guztiengandik urrundua, neure zorigaitzari buruz buru, nire izate tristearen une guztiek malkoak dituzte izari, eta deusek ez du nire samina gozatzen, ezein kontsolamenduk ez ditu nire sakrifizioak ematen: eta orain arte egin ditudanak ez zaizkit baliatu, ez bada egiteke ditudanak are mingarriagoak gerta dakizkidan.

Atzo oraino, biziki sentitu nuen hori bera. Ekarri zizkidaten gutunen artean, bazen bat harena; nigandik bi urratsera zeudelarik ere, horra non bertzeen artean ezagutu nuen. Nahigabe jaiki nintzen: dardaraka, neure zirrara bizia nekez ezkutaturik; eta egoera hura ez zen plazerrik gabea. Bakarrik gelditu nintzen orduko, ezit-tasun engainagarri hura berehala iraungi zen, eta bertze sakrifizio bat egiteko betebeharra bai-zik ez zidan utzi. Alabaina, zilegi ote zitzaidan irakurtzeko irrika bizian nintzen gutun hura ireki-tzea? Jarraika dabilkidan asturugaitzaren karie-tara, ustez agertzen zaizkidan kontsolamenduek ez naute, aitzitik, are gabetuago egotera baizik behartzen; eta gabezia horiek are krudelagoak



bilakatzen dira Valmont jauna ere gabetua dela jakinik.

Horra bada azkenik, gogoan etengabe darabiladan izena, eta ondo gostarik izkiriatu dudana; karia horretara egin didazun liskar gisako horrek biziki asaldu nau. Sinets ezazu, otoi, ezen gezurrezko ahalke batek ez duela deusik ere aldatu zugar dudan fidantzia; eta zergatik egon behar nuke haren izena aipatzeko beldurrez? Ah! Ahalke gorritzen naiz neure sentimenduez, eta ez sentimendu horiek sortu dituenaz. Ba ote norbait hura baino duinagorik halako zirrara eragiteko! Halarik ere ez dakit izen hori zergatik ez den berez jiten nire lumara; eta oraingo honetan ere, gogoeta behar izan dut egin paperean ezartzeko. Natorren berriz haren-gana.

Jakinazten didazunez, *nire partitzeagatik biziki hunkitua dela* iruditu zaizu. Zer egin du bada? Zer erran? Parisa itzultzea aipatu dua? Asmo horretarik gibelaraz ezazu, otoi, ahal duzun bezainbat. Baldin ontsa jujatu banau, ez zait aiher izanen urrats hori egin izanaz: baina orobat behar du jakin ezin aldatuzko xede bat dela.

Hark zer pentsatzen duen ez jakitea dut oinazetik handienetako bat. Hemen dut oraino haren gutuna..., baina hain segur ere nire iritzi berekoa izanen zara, ez dut ireki behar.

Soilik zuri esker, adiskide bihozbera, egon ninteke harengandik arrunt bereizi gabe. Ez dut zure ontasunez neurritz gain baliatu nahi; ongi bai ongi baitakit zure gutunak ez daitezkeela luzeak izan: ez dizkiozu ordea bi hitz ukatuko zure haurrari; bata haren kemena sustengatzeko, eta bertzea kontsolatzeko. Adio, adiskide agurgarria.

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 5ean.*

## **CIX. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK MERTEUILEKO MARKESARI

Gaurdaino ez diot Valmont jaunari igorri, andrea, zuk ohore handiz izkiriatu zenidan gutuna. Lau egunez atxiki dut, nahiz aurkituko ote zidaten izu-ikaraz nintzen sarri, arta handiz gorde dut ordea; eta atsekabeak hartzara har-

tzen ninduelarik, berrirakurtzeko giltzapetzen nintzen.

Garbi ikusten dut orain niri hain malura handia iruditu zitzaidana ia ez dela malura; eta aitor-tu behar dut plazer handia ematen duela; beraz dagoeneko ia ez naiz nahigabetzen. Soilik Danceny jaunagan pentsatzeak nau batzuetan oraino oinazetzen. Baina anitz dira jadanik Danceny gogoan ez dudan uneak! Ezen Valmont jauna hain baita atsegina!

Baditu bi egun harekin onezkoak egin ditudala: bai aise egin ere; zeren oraino bi hitz ez nizkion erran, eta horra non erran baitzidan ezen zerbait erran behar banion, etorriko zela gauean nire gelara, eta beraz aski izan nuen gogo onez hartuko nuela hari erantzutea. Eta gero, hona etorri zenean, ez zirudien nehoiz deus egin izan ez banio baino haserreago. Ez dit beranduago arte baizik egin liskarrik, bai ezti-eztia egin ere, eta halako eraz... Zuk bezala; hala frogatu dit oso begiko naukala berak ere.

Ez nekike erraten zenbat gauza bitxi eta nehoiz ezin sinetsiko nituzkeenak kontatu zizkidan, batez ere amaz. Plazer handia nuke hori

guztia egia ote den jakinaraziko bazenit. Ondo gauza segura da ordea ezin izan niola irriari eutsi; hala non halako batean karkaraka irri egin bainuen, eta ikara handi batek hartu baikintuen; zeren amak adi baitzezakeen; eta ikustera etorri izan balitz, zer izanen ote zen nitaz? Hartan berean berriz komentura sartuko nindukeen!

Zuhur nola behar baitugu ibili, eta, Valmont jaunak berak erran didan bezala, neholaz ere ez baininduke hark arriskutan jarri nahi, hitzartu dugu hemendik aitzina soilik atea irekitzera etorriko dela, eta haren gelara joanen garela. Han ez dugu deusen beldurrik izanen; atzo izana naiz, eta orain izkiriatzen ari natzaizun bitartean, zain nago Valmont jauna berriz noiz etorriko. Orain, andrea, igurikitzen dut ez didazula liskar gehiagorik eginen.

Zure gutunean bada hala ere gauza bat bizi-ki harritu nauena; esposatzen naizenerako Danceny eta Valmont jaunaz egin didazun gaztigu hori hain zuzen ere. Gogoan dut behin operan nola aitzitik erran zenidan ezen esposatu orduko neure senarra baizik ez nuela maitatzen ahalko, eta Danceny ere beharko nuela ahantzi: bertze-

naz, gaizki ulertu nuen agian, eta nahiago dut hori bertzela izan dadin, zeren orain esposatzeko uneak ez baina hainbertze izutuko. Irrika bizian ere banago, libertate handiagoa izanen baitut; eta orduan Dancenyan baizik ez pentsatzeko moldatu ahal izatea igurikitzen dut. Bada-  
kit harekin baizik ezin nintekeela zinez zoriontsua izan; zeren orain Dancen y gogoan hartzeak etengabe oinazetzen baina eta ez naiz zoriontsua harik eta harengan ez pentsatzea erdiesten dudan arte, oso gauza zaila dena; eta Dancen y berriz gogoan hartzen dudanetik beretik, berehala xangrinatzen naiz berriz.

Kontsolazio doi bat hartzen dut, Dancen y gehiago maiteko nauela seguratzten baitidazu; baina ziur zarea?... O! Bai, ez nauzu engainatu nahiko. Gauza bitxia da haatik nik Dancen y maitatzea eta Valmont jaunak... Baina, zuk diozun bezala, menturaz pozgarria da! Nolanahi ere, ikusiko dugu.

Ez dut sobera ulertu nire idazteko eraz ohar-tarazi didazuna. Iruditzen zait Dancen yri nire gutunak on iruditzen zaizkiola diren bezala. Jabe-tzen naiz haatik ezen ez diodala deusik ere erran

behar Valmont jaunarekin gertatzen ari zaidan guztiaz; beraz ez duzu zertan beldur izanik.

Ama ez zait oraino ezkontzaz mintzatu: ez kezkatu ordea; horretaz mintzatuko zaidalarik, ni harrapatzeko izanen baita, hitz ematen dizut jakinen dudala gezurra erraten.

Adio, adiskide ona; anitz eskertzen dizut, eta hitz ematen dizut ez ditudala sekula ahantziko zuk nigana izan dituzun ontasunak oro. Bukatu beharrean naiz, zeren oren bata inguru baita; hala Valmont jauna luzaro gabe etorriko da.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 10ean.*

## **CX. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

*Zeruko indarrak, arima bat banuen oinazera-ko: emaidazue bat zorionerako!* Saint-Preux amoltsua da, uste dut, horrela mintzo dena. Hari baino banaketa hobea egokiturik niri, bi izate horiek batera ditut atxikiak. Bai, adiskidea, aldi berean naiz arras uros eta arras maluros; eta

nire fidantzia osoa baituzu, neure penen eta plazerren kontaketa bikoitza zor dizut.

Jakizu beraz neure debot eskergabe horrek zorrotz tratatzen nauela oraino. Igorria diot jadanik laugarren gutuna. Oker diot ausaz laugarrena; zeren lehena berriz igorri zidatenean aise sumatu bainuen bertze anitz gehiago ere igorri beharko nituela, eta ez bainuen astia era horretan galdu nahi, deliberatu nuen neure auhenak egia arruntetan biltzea eta datarik ez ezartzea: eta bigarrena igorri nuenez geroztik, gutun bera da betiere joan jinean dabilena; gutunaren azala baizik ez dut aldatu. Baldin nire eder horrek buka baleza ederrek bukatu ohi duten gisa, eta egunen batean hunki baledi, akiduraz bederen, atxikiko du azkenik karta hori, eta baduket orduan jakinaren gainean egoteko parada. Ikusten duzu gutun bidezko harreman mota berri horrekin ezin nintekeela guztiz argitua egon.

Jakina naiz haatik presuna aldakor horrek isilmandatariz aldatu duela; ziurtatua dut bederen ezen, jauregitik partitu zenez geroztik, ezein gutunik ez dela heldu Volanges andrearentzat, Rosemonde xahararentzat heldu direlarik bi;

eta nola hark ez baitigu deusik ere erran, nola ez baitu *bere maite eder hori* jadanik ahotan hartzen, nahiz lehen etengabe aipatzen zuen, ondorioztatu dut beraz hura duela isilmandatuen hartzailea. Badut susmoa ez ote duen iraultza handi hori sortu, batetik nitaz mintzatzeko premiak, eta, bertzetik, Volanges andreak luzaz gaitzetsitako sentimendu baten karietara hari berriz izkiri-atzeak lekarkiokeen ahalke doiak. Beldur naiz aldaketa hori ez ote den nire kalterako izanen: zeren emakumeak zenbatenaz zaharragoak, hanbatenaz bihotz-gogoragoak eta zorrotzagoak baitira. Lehena askoz okerrago mintzatuko zitzaion nitaz; honek ordea anitzez gehiago erranen dio amodioaz; eta emakume ahalketi sentikor hori hainbat gehiago izutzen du sentimenduak presunak baino.

Isileko tratu horri bidea ebakitzea dut, daku-sazunez, jakitun egoteko era bakarra. Neure sehiari manua igorria diot jadanik; eta egunetik egunera zain nago hark manua noiz beteko. Ordu arte, ez dezaket deus egin, asturura ez bada: beraz, baditu zortzi egun, bide ezagun guztiak, nobeletan eta nire oroitzapen gordeetan



bilduriko guztiak, alferretan aztertzen ari naizela; ez dut ezein kausitzen ez abenturaren ingurumariei ez heroi andrearen izaerari komeni zaionik. Ez nuke lanik haren etxean sartzeko, ezta gauez ere, ez are lokarrarazi, eta emakume hori bertze Clarisse bat bilakarazteko: baina bi hila-betez goiti egin ondoren dena arta, dena neke, arrotzak zaizkidan bideetara jotzea! Bertzeren arrastoan eskumakil herrestan ibiltzea, eta loria-rik gabe garaitzea!... Ez, ez ditu izanen *bizioaren plazerrak eta bertutearen ohoreak*. Ez dut aski emakume hori mendean hartzea, bere burua eman diezadan nahi dut. Alta, horretarako behar dut ez soilik haren baitaraino barneratu, bai orobat haren baimenaz hara heldu, kausitu behar dut halaber bakarrik eta niri aditzeko asmotan; oroz gainetik, begiak behar dizkiot hertsia arriskua ikus ez dezan, zeren eta ikus baleza, jakinen baitu gaintitzen edo hiltzen. Ordea zenbatenaz hobeki dakidan zer egin behar dudan, egikera hanbatenaz zailagoa iruditzen zait; eta berriz ere irri eginen didazun arren, aitortzen dizut asaldua gehitzen zaidala horretaz gogoeta egiten dudan heinean.

Zoratuko nintzatekeela uste dut gure ikasle komunak ematen dizkidan zorioneko libertimenduak gabe; hari zor diot eginkizunik izatea oraino eresiak ontzeaz bertzalde.

Sinets zenezake neska ttipi hori hain izaturik zela, non hiru egun luze joan diren zure gutunak ondorio erabatekoa izan duen arte? Horra nola uste faltsu bakar batek naturalezarik onena honda dezakeen!

Azkenean, larunbata zen nire inguruan jiraka eta mihi-motel jin zitzaidanerako; mintzoa haatik hain zuen apala eta ahalkeak zeharo itoa, non ezin uler zitzaiokeen. Baina sortu zion ahalke gorritasunak haren hitzen zentzua asmarazi zidan. Ordu arte, harrotasunari atxikia nintzaion: baina damu hain atseginari amore emanik, hitz eman nahi izan nion gau hartan berean joanen nintzela penitente eder haren bila; eta nire aldetikako ontarte hura egitate hain onari zor zitzaion esker on guztiaz izan zen hartua.

Bistatik nola ez baititut sekula galtzen ez zure asmoak ez neureak, deliberatu dut okasio horretaz baliatzea haur horren balio justua jakiteko, bai eta haren heziketa azkartzeko ere.

Baina zeregin hori libertate handiagoz egiteko, gure elkar ikusteen lekua aldatu beharrean nintzen; zeren zure ikaslearen gela bere amarenetik bereizten duen kabinet sinple bat ezin baitziztaion bere baitako irritsa bere gogara asetzen uzteko bezain segura iruditu. Hitz emana nion bada neure buruari *maleziarik gabe* zarata pixka bat egitea, neskatxa hura izutzen ahalko zuena gerorako egoitza segurago bat hartzera behartzeko heineraino; zeregin horretarik begiratu ninduen.

Neskatxa ttipi hori irriegilea da; eta, haren alaitasunari bide emateko, bururatu zitzaidan burutik pasatzen zitzaizkidan abentura eskandalugarriak oro, gure pausaldietan, hari kontatzea; eta abentura horiek ziztagarriagoak gerta zitezten eta haren arreta areago finka zezaten, haren amari egotzi nizkion guztiak, plazer handia hartzen nuelarik emakume hura bizioz eta irrigarrikeriez halatan apaintzen.

Ez nuen hautu hori arrazoirik gabe egin; bertze ezein arrazoik baino hobeki gogoberotzen zuen eskolume herabeti hura, eta aldi berean haren amagana erdeinurik handiena sorrarazten

nion. Aspaldidanik jabetua naiz ezen bide hori, nahiz ez den neskatxa gazte bat seduzitzeko beti erabili behar, ezinbertzekoa izaten dela, bai usu eragintza handienekoa ere, neska nahi delarik galbidera lerrarazi; zeren ama errespetatzen ez duen neskatzak ez baitu bere burua errespetatuko: egia moral hori hain da nire iduriko baliagarria non atsegin handiz eskaini baitut etsenplu bat arauaren bortizgarri.

Bizkitartean zure ikaslea, ez baitzuen moralean pentsatzen, unetik unera irri karkaraka itozten zen; eta azkenik, halako batean, lehertu beharrean zen. Aise sinetsarazi nion *zarata izugarria* egin zuela. Izu-ikara handitan nintzela itxuratu nuen, eta hura ere aise izutu zen. Ikara hori gogoan hobeki atxiki zezan, ez nion plazerri berriz agertzen utzi, eta bakarrik utzi nuen ohi baino hiru oren lehenago: halatan hitzartu genuen, bereizi ginelarik, biharamunaz geroztik nire gelan ginela elkartuko.

Dagoeneko bi aldiz hartua dut han; eta bitarte labur horretan eskolumea kasik maisua bezain jakintsu bilakatu da. Bai, zinetan, oro diot

irakatsi, baita atsegintasunak ere! Ez ditut zuhurtziazko izariak baizik salbuetsi.

Gau osoa era horretan emanaz, ia egun osoa lotan emateko abantaila dut; eta egungo egunean jauregian den lagunarteak ez baitu deus erakar nazakeenik, egunean zehar doi-doia agertzen naiz oren batez egongelan. Gaurdanik, hartu dut orobat neure gelan jateko xedea, eta ez dut handik jalgitzeko asmorik, ez bada promenaldi ttipiak egiteko. Bitxikeria horiek nire osasunari egotziak dira. Erran dut *lurrinez mukurutua* nintzela; jakinarazi dut halaber sukar poxi bat banuela. Aski dut horretarako boz motel eta itzaliz mintzatzea. Nire aurpegiaren aldaketaz den bezanbatean, fida zakizkio zeure ikasleari. *Amodioak hartuko du ardura hori.*

Dama eskergabe horrengan galduak nituen abantailak nola berreskuratu ametsari emana betetzen dut neure aisia, bai eta haragi irritsaren katixima suerte bat ontzen ere, nire eskolume horrek erabil dezan. Libertitzen naiz oro ele teknikoaz baizik ez izendatzen; eta aldeaz aurretik irri egiten dut beren ezkontzako lehen gauean neskaren eta Gercourten artean horrek sortu

behar duen elkarrizketa interesgarriaz. Mintzaira horrez dakien poxiaz jadanik zein laño baliatzen den ikustea baino gauza atseginagorik ez da! Bururatu ere ez zaio egiten bertze era batera mintza litekeenik. Haur hori zinez da liluragarria! Tolesik gabeko xalotasunaren eta mintzaira lotsagabearen arteko kontrastasun hori ez da hain zuzen ondoriorik gabea; eta, ez dakit zergatik, gauza bitxiak baizik ez ditut laket.

Honako honi sobera emana nago menturaz, zeregin horretan neure denbora eta osasuna arriskatzen baititut: igurikitzen dut ordea eritasun itxuratu hau hein batean baliagarria izanen zaidala egongelako asperretik salbatzeko, bai orobat basa bertutea eta sentikortasun ezitia haatik elkar harturik dauzkan debot latz horren aldera! Ziur naiz gertakari handi horren jakitun dagoela jadanik, eta zer iruditzen zaion jakiteko irrika bizian nago; hanbatenaz gehiago non eginen bainuke ohore hori nahitaez bere buruari diola egotziko. Neure osasunaren egoera emakume horrengan sortuko duen zirrararen arabera moldatuko dut.

Horra non, adiskide ederra, nire aferez nihaur bezain jakitun zauden. Nahi nituzke berri sobera interesgarriak laster izan zuri jakinarazteko; eta sinets nazazu, otoi arren, ezen, neure buruari hitz emana diodan plazerrean, estimu handitan dudala zugandik igurikitzen dudan saria.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 11n.*

## **CXI. GUTUNA**

GERCOURTEKO KONDEAK VOLANGES ANDREARI

Oro lasai bide dago, andrea, herrialde hone-tan; eta zain gaude, egunetik egunera, Frantzia-ra itzultzeko baimena noiz jasoko. Hara joateko eta zurekin eta Volanges andereñoarekin elkar-tuko nauten lokarriak lotzeko betiere dudan lehiaz dudarik eginen ez duzula igurikitzen dut. Halarik ere, \*\*\*ko jaun dukeak, neure lehengu-suak, nori ere dakizunez guztizko onginahia zor baitiot, jakinarazi berri dit Napolira deitua izan dela. Mezutzen dit xedea hartu duela Erromatik iragateko, eta, bidean, Italian oraino ezagutzen ez dituen bazterrak ikusteko. Gonbidatzen nau

sei bat aste edo bi bat hilabeteko bidaldi horretan lagun dezadan. Ez dizut ezkututzen laket nukeela okasio horrez profitatzea; bai baitakit esposatzen naizenetik beretik nekez hartzen ahalko dudala berriz kanpoan izateko astia, zerbitzuak hartaratzen nauenean salbu. Agian komenigarria litzateke orobat eztei horiek negua arte gibelatzea; ordu arte ez baitira ausaz nire ahaide guztiak Parisen bildurik egonen; eta bereziki \*\*\*ko jaun markesa, zeinari zor baitiot zurea izateko esperantza. Arrazoi horiek gorabehera, horri buruz ditudan asmoak guztiz zureen eredurak burutuak izanen dira; eta zeure lehen prestakizunak den gutxienaz ere nahiago bazenitza, prest nago neureak bazter uztera. Soilik galdatzen dizut ahalik lasterrena jakinaraz diezadazun zuk sujet horren karira dituzun asmoak. Hemen igurikiko dut zure erantzuna, eta hark baizik ez du gidatuko nire jokabidea.

Errespetuz naiz, andrea, eta seme bati dagozkion sentimendu guztiez, zure zerbitzaririk apalena, etab.

Gercourteko kondea.  
*Bastian, 17\*\*ko urriaren 10ean.*



## CXII. GUTUNA

ROSEMONDE ANDREAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

*(Soilik diktatua)*

Oraintxe arte ez dut hartu, maite eder horrek, hilaren 11ko zure gutuna, eta han bilduak diren liskar eztiak. Aitor ezazu ezen liskar gehiago egin nahi zenizkidala; eta baldin *nire alaba* zinela gogoratu izan ez bazenu, zinez larderiatuko ninduzula. Arras bidegabean zinatekeen haatik! Nihaurk zuri ihardesteko desirak eta esperantzak ninduen egunez egun gibelatzen, eta ikusten duzu egun oraino neure gelazainaren eskuaz behar naizela baliatu. Zorigaiztoko hezueriak berriz jo nau, oraingoan eskuineko besoan hartu du hobi, eta arras maingu nago. Horra bada zer den, gaztea eta guria nola baitzara, adiskide hain xahar bat edukitzea! Haren ondoezak behar dituzu sofritu.

Nire oinazeek doi bat sosegatzen uzten didaten bezain sarri, zurekin luzaz solastatzea hitz

emana diot neure buruari. Horren goaitan, soilik jakin ezazu hartu ditudala zure bi gutunak; gutunok, ahal izanez gero, zuri dizudan adiskidantza amoltsua areagotuko zuketela; eta sekula ez naizela orobat zure intereserako den orotan bizi-ki esku hartzeaz baratuko.

Nire iloba ere alditxartuxe da, ezein arriskurik gabe ordea eta horregatik zer kezkatu ez dugula; ondoeza arin bat da, eragin handiagoa izan duena, nire iduriko, haren aldar-tean haren osagarrian baino. Ez dugu kasik ikusten.

Haren bazterraldiak eta zure partitzeak ez dute gure lagunartea arraiagoa bilakatzen. Volanges ttipia, batez ere, zure minez da, eta aharrausika egoten da, egun argiak diraueino, ahotik ahora. Baditu bereziki zenbait egun bazkalondo guztietan zeharo lokartzeko ohorea egi-ten digula.

Adio, nire maite eder hori; sekulako naiz zure adiskide arras mina, zure ama, baita zure ahizpa ere, baldin nire adin handiaren karietara hori

zilegi balitzait. Ororen buruan sentimendurik amoltsuenez naukazu atxikia.

*ADÉLAÏDEk sinatua, ROSEMONDE andrearen  
izenean.*

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 14an.*

## **CXIII. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Iruditzen zait zuri gaztigatu beharrean naizela, bizkonde, ezen hasiak direla Parisen zutaz mintzatzen; ezen ohartuak zaizkiola orobat zure ausentziari, eta asmatu dutela jadanik ausentzia horren kausa. Atzo afari aski jendetsu batean egon nintzen; argi eta garbi erran zuten han nobela amodio dohakabe batek herrian atxikia zintuzkala: horra non bozkarioa berehala zen agertu zure balentrien bekaitz diren gizon guztien eta zapuztu dituzun emakume guztien aurpegietan. Baldin sinesten banauzu, ez dituzu erran-merran arriskutsu horiek bortiztera utziko, eta berehala jinen zara zure presentziaz horiek oro suntsitzera.

Egizu kontu ezen behin galtzera uzten baduzu nehor ihardukitzen ez zaizulako ustea, aurki jasanen duzula ezen aiseago zaizkizula alabaina ihardukiko; ezen zeure aurkariak errespetua galduko dizutela orobat, eta zu gudukatzeraz zaizkizula ausartuko: zeren haietarik nork ez baitu bertutea baino indartsuagoa denik uste? Egizu kontu batez ere ezen zure mendean hartutzat harro erakutsi dituzun emakume anitzen artean, hartu ez dituzun horiek guztiak saiatuko direla jendeak haien okerraz argitzen, bertzeak aldiz jendeak tronparaztera entseiatuko direlarik. Azken buruan, igurikatu beharko duzu estima zaitzaten hain zeure balioaz behetik, nola zaituzten zeure balioaz goitik orain arte estimatu.

Zatoz bada, bizkonde, eta ez sakrifika zeure omena haur gutizia bati. Nahi genuen guztia egin duzu Volanges ttipiaz; eta lehendakariaren emazteaz den bezanbatean, ustez ez duzu harenganako lilura aseko hamar lekoara geldituz. Bila joanen zaizula uste duzu? Menturaz ez du jadanik zugarik pentsatzen, edo zu umiliatu izanaz bozkarioak egiteko baizik ez zarabiltza oraino gogoan. Hemen bederen, kausitzen ahal-

ko duzu dirdaitsu berragertzeko okasioren bat, premia baduzu eta; eta zeure abentura irrigarrian tematuko bazina haatik, ez dut uste zeure itzulerak kalte egin diezazukeenik...; aitzitik.

Alabaina, baldin lehendakariaren emazte horrek *biziki maite bazaitu*, zuk anitz erran eta gutxi frogatu didazun bezala, ez duke egungo egunean bertze kontsolaziorik, bertze plazerrik, zutaz mintzatzea, eta zer egiten, zer erraten, zer pentsatzen duzun eta zuri dagokizun gauzarik den mendrena ere jakitea baizik. Miseria horiek balioa hartzen dute, batbederak jasaten dituen gabeziak direla kausa. Aberatsaren mahaitik eroritako ogi apurrak dira horiek: aberatsak erdeinatzen ditu; baina pobreak lehiaz biltzen ditu eta hura du bazka. Hala, lehendakariaren emazte gaixoa apur horiek biltzen ari da orain; eta zenbatenaz gehiago izanen baitu, hanbatenaz gutxiago presatuko da gainerakoaz asebetetzera.

Bertzenaz, badakizunez geroztik nor duen isilmandatari, ez ezazu dudarik egin haren gutun bakoitzak ez dukeenik prediku ttipi bat bederen, eta berebat *haren zintzotasuna berresteko eta*

*haren bertutea bortizteko* egoki irudituko zaion guztia. Zergatik utzi bada defendatzeko baliakizunik batari, eta kalte egin diezazukeenik bertzeari?

Ezen neholaz ere ez naiz zure iritzi berekoa hark isilmandatariz aldatu izanak ekarri bide dizun galeraz. Lehenik, Volanges andreak herra dizu, eta herra adiskidantza baino begi-zorrotzagoa eta antzatsuagoa izaten da beti. Zure izeba xaharraren bertute guztiak ez du instant batez ere bultzatuko bere iloba maiteaz gaitzerratera; bertuteak ere bai baitu ahulkeriarik. Beraz zure beldurrak uste arras faltsu batean oinarrituak dira.

Ez da egia *zenbatenaz emakumeak zaharra-goak, hanbatenaz bihotz-gogorrangoak eta zorrotzagoak direla*. Ia emakume guztiak berrogei urtetik berrogeita hamar urtera bitartean dira hain zuzen ere ahalketi eta garratz bilakatzen, begitartea ximeltzen ikusteaz etsi beharrez, oraino atxiki nahi dituzten nahikunde eta plazerak bazter utzi beharrez. Bitarte luze horren beharretan dira sakrifizio handi hori osorik egite-

ko: baina burutua duten orduko, oro dira bi taldeetan banatzen.

Talde jendetsuena, beretzat begitartea eta gaztetasuna baizik atxiki ez duten emakumeena, laxokeria ergel batera lerratzen da, eta hari atxikia egoten da, ez bada jokoan eta deboziozko zenbait ihardueratan aritzeko; emakume suerte hori aspergarria izaten da betiere, usu liskartia, doi bat zirikatzailea batzuetan, baina oso bakan gaiztoa. Ezin halaber erran daiteke emakume horiek zorrotzak diren edo ez: ez baitute ez ideiarik eta ez izaterik, errepikatzen dute, ulertu gabe eta oharkabean, aditzen duten guztia, eta berez dira ezinago ezdeusak.

Bertze emakume taldea, askoz bakanagoa, baina zinez preziatua, da nortasuna izan dutenen eta beren adimena elikatzeaz ezaxolatu ez diren emakumeena, bertze izate bat sortzen badakitenena izadiak eman dienak huts egin die-nean, eta behinola begitarterako baliatzen zituzten apaindurak orain espirituari ezartzeko xedea hartzen dutenena. Emakume horiek zentzuz arras osasuntsuak izaten dira, eta adimenez aldi berean sendoak, alaiak eta jostariak. Ordezka-

tzen dituzte xarma liluratzailleak ontasun maitagarriaz, bai eta adinean aurrera doazen heinean gero eta xarma gehiago duen alegrantziaz ere: gisa horretan erdiesten dute gazteriagana nola-bait hurbiltzea, beren buruak maitarazirik. Baina orduan, zuk diozun bezala, *bihotz-gogorrak eta zorrotzak* izatetik urrun, bihozberatasunaren ohi-turak, giza ahuleziaz egiten dituzten gogoeta luzeek, eta batez ere gaztaroko oroitzapenek, soilik horiengatik baitira oraino bizitzari atxikiak, erraztasunetik are hurbilago ezarriko lituzkete agian.

Ororen buruan erran diezazukedana da ezen emakume zaharren bila ari izan naizelarik beti, garaiz ohartu bainintzaion haien onespenen baliagarritasunari, haien artean anitz kaustu izan ditudala jaiduraz bezainbat interesaz erakartzen nindutenak. Hor baratzen naiz; zeren orain nola hain fite eta moralitasunaz hain beterik suhartzen baitzara, beldur nintzateke ez ote zinatekeen zeure izeba xaharraz bet-betan amoro-stuko, eta ez ote zenukeen zeure burua harekin batera ehortziko aspaldidanik egoitza hartua duzun hilobi horretan. Natorren bada harira.



Zure eskolume ttipi horrek zugan nire ustez eragin duen liluraldia gorabehera, ez dezaket sinets hura zeure xedeetan deusetarako har dezakezunik. Eskura kausitu duzu, hartu duzu: ordu onean! Ez dezakezu ordea gostukoa izan. Ez dezakezu, egia erran, gozamen erabatekorik ere izan: haren gorputza baizik ez da osoki zurea! Ez naiz haren bihotzaz mintzo, duda egi-ten baitut fitsik ere ardura zaizunik: ordea ez duzu haren burua ere betetzen. Ez dakit ohartu zaren, baina nik badut horren froga hark izkiria-tu didan azken gutunean; igortzen dizut juja dezazun. Ikus ezazu bada zutaz mintzo delarik, *Valmont jaunaz* ari dela betiere; ikus orobat haren ideia guztiek, baita zuk sorrarazi dizkiozu-nak ere, Danceny dutela xede bakarra; eta hari, neskak ez dio jauna deitzen, betiere soilik *Dan-ceny* baizik. Halatan, bertze guztiengandik berei-zia du; eta bere gorputza zuri ematen dizularik ere, harekin baizik ez da kidetzen. Baldin gisa horretako konkista *liluragarria* iruditzen bazaizu, baldin ematen dizkizun plazerrek *atxikia bazai-tuzte*, zinez xaloa zara eta ez batere kontenta-gaitza! Neska hori nahi baduzu gorde, ni ados;

xede hori bat dator nire asmoekin. Iruditzen zait ordea ezen neska horrek ez duela oren laurden bateko nekea ere balio; ezen doi bat nagusitu behar zintzaizkiokeela orobat, eta ez zeniokeela, konparazione, Dancenygana hurbiltzen utzi behar harik eta ahantzixeago dukeen arte.

Zutaz hitz egitetik gelditu baino lehen, nigan etortzeko, erran nahi dizut oraino ezen erabiltzeko asmotan zarela iragarri didazun eritasunaren baliabide hori aski ezaguna eta oso erabilia dela. Zinez, bizkonde, ez duzu asmamen handirik! Ni ere errepikaziora emana naiz batzuetan, ikusiko duzun bezala; saiatzen naiz ordea xehetasunen bitartez salbatzen, eta batez ere erdie-tsi izanak justifikatzen nau. Berriz noa erdiestera entseiatzera, eta bertze abentura bati orobat lotzera. Aitor dut abentura horrek ez dukeela zailtasunaren merezimendua; baina distrakzio bat izanen da bederen, asper-asper eginik bainago.

Nik ahal dakit zergatik, Prévanen abenturaz geroztik, Beller Roche ezin jasanezkoa bihurtua zait. Hanbatenaz aniztu ditu nireganako adeiak, amoltsutasuna, *begirunea*, non ez baitezaket

gehiago paira. Haren sumina jostagarria iruditu zitzaidan hasieran; ematu behar izan nion haatik, zeren egiten utzi izan banio, neure burua arriskutan nukeen: eta ez zegoen hura arrazoirak biltzerik. Hartu dut bada haren amorosago agertzeko asmoa, nire xedea aiseago bete ahal izateko: hark ordean serioski hartu du; eta harrezkerotik haren zoramen eternalak neure onetik ateratzen nau. Nabaritzen dut batez ere nolako fidantzia iraingarria duen nigan, eta nolako segurantzaz behatzen didan sekula betiko harentzat banindu bezala. Zinez nauka umiliaturik. Gogotik apalesten nau bada, baldin ni estekatzeko bezainbat balio duela uste badu! Azkenaldi honetan ez dit bada erran nehoiz ez dudala bera ez den gizonik maitatu? O! Hain zuzen ere, neure zuhurtzia guztia behar izan nuen, hari berehala begiak ez irekitzeko, nor zen hari erranik. Horra, hain segur, jaun bitxia, eskubidea soil-soilik berarentzat nahirik atxiki. Aitor dut lerdena dela eta aski aurpegi ederra duela: baina, asko jota, ez da, azken finean, amodioaren besakari bat baizik. Heldu da azkenik unea, elkarrengandik bereizi behar gara.

Hamabortz egun baditu eginahal horretan ari naizela, eta aldizka baliatu ditut hoztasuna, nahikeria, beltzuria, aharrak; baina gizon tematsu horrek ez du harrapakina erraz uzten: xede bortitzago bat behar dut bada hartu; neure landalde hartara daramat beraz. Etzi joanen gara. Zenbait presuna ezaxolatu eta begi laburren lagunartea baizik ez dugu izanen, eta kasik bakarrik bagina bezainbat libertate izanen dugu. Han, hain du amodiozko eta laztanezko zama handia jasan beharko, hain ontsa biziko gara soilik bata bertzearentzat, non baietz hark nik baino irrika gehiagoz desiratu bidaldi hori finitzea, nahiz bidaldia egiteko bozkariotan den; eta itzul ez badadi nitaz asperturik ni harez naizen bainoago, errazu, on deritzot, ez naizela zu baino jakintsuago.

Bazterraldi gisako horrek nire auzi handiaz serioski arduratzea du estakuru, alabaina neguaren hastapenetan jukatuko baita azkenik. Karia horretara poz-pozik nago; zeren zinez higuinarrria baita batbederaren fortuna osoa gisa horretara airean izatea. Ez uste gertakari horrek kezkatzen nauenik; lehenik arrazoi dut, neure abo-

katu guztiek hori ziurtatzen didate; eta arrazoi ez banu ere, zinez moldakaitza nintzateke bada, baldin ez baneki auzi bat irabazten aurkaritzat ez izaki adin gabeko bi ume kozkor eta haien tutore zaharra baizik! Hain afera garrantzitsu batean ez baita haatik deusez ezaxolatu behar, bi abokatu izanen ditut hain zuzen ere nihaurekin. Bidaldi hori ez zaizua pozgarria iruditzen? Guztiarekin ere, baldin auzia irabaz baneza eta gal baneza Belleroche, ez nuke asti hori alferretsiko.

Orain, bizkonde, asma ezazu nor den haren ondorengoa; ezetz asma. Zer diot ordea! Ez ote dakit nehoiz ez duzula deusik asmatzen? Hots bada, Danceny da. Harriturik zaude, ezta? Zeren azken finean ez bainaiz oraino haurrak heztera behekitua! Mutil horrek ordea merezi du salbuetzia izatea; ez ditu gazteen dohainak baizik, eta ez gazteen arinkeria. Jendartean darakusan neurritasuna egokia da oso susmo oro aldentzeko, eta harekin bakarka egonik barnea zabaltzen dizularik, orduan ez da atseginago baizik gertatzen. Ez uste harekin dagoeneko buruz buru egin dudanik, haren isilmandataria baizik ez naiz orai-

no; baina adiskidantzaren estalki horren azpian, ikusi uste diot nihaurenganako jaidura oso bizi bat, eta sumatzen dut ari zaidala niri ere jaidura handi bat bizten harengana. Deitoragarria litzateke hain adimen bizia eta hain adeitasun handia Volanges ergel ttipi horren ondoan sakrifika-tzea eta aberetzea! Tronpatuko ahal da neska hori maite duela uste izanik: hain baita mutil hori merezitzetik urrun! Ez pentsa haren jeloskor nai-zenik; baina makurkeria doilorra litzateke, eta Danceny nahi dut kalte horretarik salbatu. Otoi, bizkonde, ardura zaitez Dancenyk *bere Cécile*ga-na hurbiltzerik izan ez dezan (halaxe baitu orai-no aztura gaiztoz neska hori izendatzen). Lehe-nengo jaidurak uste baino nagusigo handiagoa izaten du beti eta Dancenyk egun neskatxa hori berriz ikus baleza ez nengoke segurik; nire ausentzia bitartean ikus baleza batez ere. Itzul-tzen naizenean, ni arduratuko naiz guztiaz eta nik hartuko dut ororen erantzukizuna.

Gogoeta egina naiz gazte hori nirekin eraman edo ez: baina sakrifizio hori eskaini diot neure ohiko zuhurtziari; eta bertzalde, beldur nintzate-ke Bellerocheren eta nire artean hark zer edo zer

sumatuko ote, eta etsiak hartuko ninduke gertatzen ari denaz den gutxiena ere jakitera helduko balitz. Haren irudimenari garbi eta zikinik gabe nahi natzaio bederen eskaini; azkenaz goiti zinez haren gai izateko izan beharko nukeen gisara.

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 15ean.*

## **CXIV. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

ROSEMONDE ANDREARI

Adiskide maitea, amore ematen diot neure kezka biziari; eta nahiz ez dakidan ihardesteko tenorean izanen zaren, ezin itzur natzaio zu galdekatzeari. Valmont jaunaren egoerak, zure ustean *arriskurik gabea* omen denak, ez dit ematen zuri eman bide dizun bezainbat segurantzaz. Malenkonía eta munduaren higuina sarri izan ohi dira eritasun larriren baten sintoma aitzindariak; gorputzeko sofrimenduek, arimarenak bezala, bakardadea desirarazten dute; eta maiz beltzuria egozten zaio oinazetan delako urrikaldu baidiz egin behar ez litzaigukeen hari.

Iruditzen zait norbaiti kontseilu galdea egin behar liokeela bederen. Nola, zuhaur eri egonik, ez duzu medikurik zeure ondoan? Nireak, gaur goizean ikusi baitut, eta ez dizut ezkututzen zeharka kontseilu galdatu diodala, uste du ezen, berez biziak diren presunetan, ez dela halako soraiotasun bet-betako horrez sekula ezaxolatu behar; eta, hark orobat erran didanez, ez diote eritasunek sendabideari amore ematen, non ez diren garaiz hartuak izaten. Arras begiko duzun norbait zergatik arrisku horretan ezar?

Nire kezka areagotua da, zeren bai baititu lau egun ez dudala haren berririk jaso. Ene Jainkoa! Ez ote nauzu haren egoeraz engainatzen? Zergatik niri izkiriatzetik bet-betan behar zen gelditu? Baldin ez baledi haren gutunak hari berriz igortzen agertu dudan setaren ondorioa baizik, uste dut lehenago hartuko zuela xede hori. Finean, susmoak ez sinetsiagatik, baditu egun batzuk izaturik naukan tristura halako batek hartua naukela. Ah! Menturaz zorigaitzik handienaren bezperan nago!

Ez zenuke sinetsiko, eta ahalke naiz zuri erranik, zenbatez atsekabetzen nauen hala eta guz-



tiz ere irakurriko ez nituzkeen gutun horiek berak jadanik ez hartzeak. Nitaz arduratua zela-ko segurantz banuen bederen! Eta harengandik zetorkidan zerbait ikusten nuen. Gutun horiek ez nituen irekitzen, baina negar egiten nuen haiei-  
so: nire malkoak eztiagoak eta aiseagoak ziren; eta soilik haiek iraungitzen zidaten, alde-  
z, hona itzuliz geroztik sentitzen dudana herostura. Arren  
otoi, adiskide bihozbera, izkiria iezadazu,  
zuhaurk, ahal dezazun bezain sarri, eta horren  
goaitan, emaidazu egun oroz zeure eta haren  
berri.

Ohartu naiz ezen doi-doia erran dizudala zeu-  
retzat elerik: ezagutzen dituzu ordea nire senti-  
menduak, nire atxikimendu mugarik gabea, zure  
adiskidantza sentikorrari diodan esker on amol-  
tsua; barka iezazkidazu bizi dudana durduzaldia,  
neure atsekabe hilgarriak, menturaz nihaure  
sortu ditudan gaitzen beldurrak eragiten didan  
oinaze lazgarria. Jainko Jauna! Ideia etsipengarri  
horrek darrait eta urratzen dit bihotza; zorigaitz  
hori eskas nuen, eta zorigaitzak oro pairatzeko  
sortua naizela sumatzen dut.

Adio, adiskide maitea, maita nazazu, deitora nazazu. Hartuko ote dut gaur zure gutunik?

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 16an.*

## **CXV. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Ezin asmatuzko gauza da, adiskide ederra, nola elkarrengandik urrundu garen bezain sarri, aise baratzen garen elkar aditzetik. Zure ondoan nintzen bitartean, ez genuen beti sentimendu bakar bat, ikuskera bakar bat baizik; eta zeren, duela hiru bat hilabetez geroztik, ez baitzaitut gehiago ikusten, ez dugu hargatik iritzi bera deusez. Bietarik nor dabil oker? Hain segur zuk ez zenuke erantzunaz dudarik eginen: nik ordea, zuhurragoa edo adeitsuagoa, ez dut erabakitzen. Soil-soilik noa zure gutunari ihardestera, eta neure jokabidea zuri orobat adierazten jarraitzera.

Hasteko, har ezazu nire esker ona niri buruz barreiatu diren erran-merranez eman didazun iritziagatik; baina horrek ez nau oraino arrangu-

ratzen: uste osoan naiz sarri izanen dudala horiek zerekin baratua. Zaude lasai, ez naiz munduan berragertuko, ez bada nehoiz baino ospetsuago eta betiere zure merezidunago.

Igurikitzen dut Volanges ttipiarekin izan dudana abentura bera doi bat balioetsiko didatela, nahiz zuk ustez apalesten duzun: ez ote da bada deus, neskatila gazte bat haren maitale guztiz maitatuari gau batez kentzea, hura balia-tzea gero nahi hainbat eta nirea balitz bezala, eta ezein trabarik gabe; erdiestea orobat haren-gandik ofiziokoak diren neska guztiei eskatzera menturatzen ere ez garen huraxe; eta hori guztia, haren amodio amoltsuari ezein neke eman gabe; neska hori aldakor edo are gutxiago des-leial bihurtu gabe: zeren, alabaina, haren burua ere ez baitut ordea betetzen! Hala non nire guti-zia hori iragana den ondoren, neskatxa hori berriz utziko baitut, nolabait errateko, haren maitalearen besoetan, deusi ohartu ere ez zaio-la. Hain urrats arrunta dea hori? Eta gero, sinets nazazu, nire eskuetarik jalgia den orduko, iraka-tsi dizkiodan oinarrizko arauak ez zaizkio gutxia-go ernalduko; eta iragartzen dut eskolume hera-

beti horrek sarri iritsiko duela bere maisua handizki ohoratzeko heineko gorentasuna.

Baldin haatik molde heroikoa nahiago badute, lehendakariaren emaztea erakutsiko diet, bertute guztien eredu sarri aipatua! Gutarik libertinenek ere errespetatua! Halako gisaz non hari erasotzeko asmoa ere bazter utzia duten! Erakutsiko diet, diot, betebeharrak eta bertuteak ahanztirik, omena eta bi urte zintzotasunezko niri sakrifikaturik, niri laketzeko bozkarioaren atzetik korrika etortzeko, ni maitatzearen bozkarioaz horditzeko, askietsirik hainbat eta hainbat sakrifizioen ordaina hala ere sekula erdietsiko ere ez duen ele batean, behako batean. Are gehiago eginen dut, bazter utziko dut; eta ez dut emakume hori ezagutzen, edo ez dut ordezkorik izanen. Aihertuko zaio kontsolatzeko premiari, plazerraren azturari, mendekuaren desirari bera-ri ere. Azken buruan, niretzat baizik ez date existitu; eta haren ibilera izan laburra edo izan luzea, soilik nik ireki eta hertsia duket hesia. Garaipen hori iritsia dudan orduko, erranen diet neure aurkari-ri: «Horra nire egintza, eta bila ezazue gizaldi honetan gisa bereko bertze etsenplu bat!»

Galdetuko didazu nondik datorkidan egungo egunean fidantzia sobera hori? Zortzi egun badi-tu alabaina neure eder horren isilgordeen jakitun naizela; ez dizkit haren sekretuak erraten, nik ordea ustekabeen dizkiot atzematen. Rosemon-de andreari igorri dizkion bi gutunek aski jakina-razi didate, eta ez ditut bertzeak irakurriko jakin-min hutsez ez bada. Ez dut neholaz ere bertze premiarik, erdiets ahal izateko, emakume horrengana hurbiltzea izan ezik, eta kausituak ditut hurbilbideak. Bertatik bertara ditut baliatu-ko.

Jakinminez zaude, ezta?... Ez ordea, nire asmazioak ez sinetsi izana zigortzeko, ez dituzu jakinen. Zinez merezi zenuke neure fidantzia uka niezazun, abentura honetarako bederen; alabai-na, zuk erdieste honi ezarri diozun sari ez-tia gabe, aipatu ere ez nizuke eginen. Ikusten duzu haserre nagoela. Haatik, zentzatuko zarelako esperantzan, zigor arin horri nahi natzaio atxiki; eta bihozberatasunera berriz etorritz, ahanzten ditut une batez neure xede handiak, zeureez zurekingogoetatzeko.

Landan zaude beraz, sentimendua bezain asper, eta fidelitatea bezain triste! Eta Bellerotche gaixo hori! Ez duzu aski ahanzturaren ura hari edanaraztea, oinaztatzen duzu berebat! Zer moduz dago? Ontsa pairatzen ditua amodioaren goitikak? Arras bozkariatuko nintzateke halatan gertatuko balitz zutaz are amorosago; jakinminez nago zein bide eraginkorragorik baliatzera helduko zinatekeen orduan. Urrikal zaitut, zinez, bide horrez baliatu behar izana. Ez dut behin bainik egin, neure bizitzan, amodioa prozeduraz. Banuen hain segur arrazoi handi bat, zeren \*\*\*ko kondesarekin baitzen; eta hogeia aldiz, haren besoetan, izan nintzen tentatua hari errateko: «Andrea, uko egiten diot galdatzen dudan lekua-ri, eta utz nazazu hartua dudan lekutik joaten.» Halatan, neuretu ditudan emakume guztien artean, hura da gaitzerratea zinez atsegin dudan bakarra.

Zure xede horrez den bezanbatean, irrigarrikeria bitxia iruditzen zait, egia erran; eta arrazoi zenuen ondorengoa nor zen asmatuko ez nuela uste izanik. Zer! Dancenygatik hartzen duzu bada neke hori guztia! E! Adiskide maitea, utz

ezazu bere *Cécile bertutetsua* biziki maitatzen, eta ez zaitez haur jolas horietan tarteko sar. Utzi eskolumeak hezi daitezen *neskameen* ondoan, edo ari izan daitezen egoiliarrekin *hobenik gabe-ko jolas xumeetan*. Zertan arduratu behar zara ez zu hartzen ez zu uzten jakinen duen eta oro zuri eginaraztera behartuko zaituen hasiberri batez? Serioski diotsut, hautu hori gaitzesten dut, eta sekretuan geldi baledi ere, nire aitzinean eta zure kontzientzia baitan umiliatuko zintuzke bederen.

Harengana, diozunez, jaidura handia ari zara hartzen: hara bada, hain segur oker zabilta, eta aurkitu uste ere dut zure okerraren kausa. Belle-rochek sortua dizun higuin hori eskastean jin zaizu, eta Parisek ez baitizu hauturik eskaini, zure ideiak, betiere sobera biziak, kausitu duzun lehenengo xedean pausatu dira. Egizu kontu ordea ezen, itzultzen zarelarik, mila gizonen artean hautatzen ahalko duzula; eta baldin gibelatzeak dakarkeen ihardun ezaren beldur bazara azken finean, nik neure burua dizut eskaintzen zeure aisian liberti zaitezen.

Itzultzen zareneko, nire afera handiak finituak dirateke molde batera edo bertзера; eta hain segur, ez Volanges ttipiak, ez lehendakariaren emazteak berak ere, ez didate orduan gogo aski hartuko non ez naizen zuk nahi hainbat zurea izanen. Ausaz ere, ordurako, berriz utzia duket neska ttipi hori bere maitale zuhurraren eskuetan. Harreman hori gozamen *erakargarri* bat ez denik onartu gabe, zuk zernahi diozula ere, nola deliberatu baitut ezen gorde dezan nitaz bizitza osoko bertze gizon guztiez baino uste goragokoa, alditxartu gabe luzaroan ezin euts diezaiokedan heinean ari naiz harekin; eta une honetatik beretik, familiako aferei zor zaien ardurak baizik ez nau hari atxikitzen...

Ez didazu ulertzen? Hots, bigarren aro baten zain nago neure esperantza berresteko, eta neure xedeak osoki bete ditudala ziurtatzeko. Bai, adiskide ederra, badut nire eskolume horren senarrak oinordekorik gabe hiltzeko arriskurik ez dukeelako lehen zantzua; eta orobat Gercourteko etxeko premua etorkizunean Valmonteko etxeko seme gazteago bat baizik izanen ez dela-koa. Utz nazazu ordea neure gogara finitzen zure



erreguz baizik hasi ez nuen abentura hau. Egizu kontu ezen Danceny aldakor bihurtzen baduzu, bizitasun guztia edekitzen diozula historia honi. Gogoan izan finean ezen, neure burua haren ordeztu zuri eskainiz, badudala, nire iduriko, hobetsia izateko eskubidea.

Horretan hain dut segurantz handia, non ez baitut zure xedeei uko egiteko beldurrik, nihurturik ahalgindurik maitale zuhur horrek bere lehen hautu arras duinari dion jaidura amoltsua areagotzera. Kausiturik bada atzo zure ikaslea bere maitaleari izkiriartzen, eta lehenik hura jalgiazi nuelarik bere zeregin ezititik bertze zeregin are eztiago bati lotzeko, egin nion, gero, bere gutuna ikusteko galdea; eta nola hotza eta hertsatua kausitu bainuen, ohartarazi nion ez zuela bere maitalea gisa horretan kontsolatuko, eta harra-razi nion bertze gutun bat nik diktatua izkiriartze-ko deliberoa, non, haren berritsukeria ahalik hobekiena imitatuz, entseiatu nintzen gazte horren amodioa esperantza ziurrago batez elikat-zer. Neskak hori bozkariotan zen, hala erran zidan, hain ontsa mintzatu izanaz; eta aurrerantzean, ni arduratuko naiz haren gutunez. Zer ez

ote dut egin Danceny horren alde? Aldi berean naukake adiskide, isilmandatari, aurkari eta mai-tale! Oraino, une honetan, zure lotura arrisku-tsuetarik begiratzeko zerbitzua egiten diot; bai, arriskutsuak, dudarik gabe, zeren zu hartu eta zu galtzea bozkariozko une bat erostea baita damuzko eternitate baten truk.

Adio, adiskide ederra; har ezazu Beller Roche ahalik lasterrena aienatzeko kuraia. Utzi bazter Danceny, eta presta zaitez gure lehen harreman hartako plazer zoragarriak berriz kaustu eta niri itzultzera.

P. S.- Har itzazu nire konplimenduak auzi handiaren jujamendu hurbilaren karietara. Arras laket nuke zorioneko gertakari hori nire erresu-mapean gerta dadin.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 19an.*

## **CXVI. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK CÉCILE VOLANGESI

Merteuil andrea gaur goizean partitu da landara; hala, Cécile xarmanta, horra non gabetua

naizen zure ausentzia bitartean gelditzen zitzaidan plazer bakarraz, zure eta neure adiskidearekin zutaz mintzatzeaz. Badu zenbait denbora gisa horretan izendatzeko baimena eman didala; eta zenbatenaz lehiatu naiz baimen horrez baliatzeraz, hanbatenaz iruditu baitzait, gisa horretan, zugana are gehiago hurbiltzen nintzela. Ene Jainkoa! Emakume hori zeinen atsegina den, eta adiskidantzari zer nolako xarma lausengaria ematen dakien! Iduri du sentimendu ezti hori edertzen eta bortizten dela haren baitan, amodioari ukatzen dion guztiaz. Jakinen bazenu zenbat maite zaituen, zenbat gogobetetzen den zutaz mintzatzen ni aditurik... Hori da dudarik gabe hari hain atxikia naukana. Zer bozkarioa soilik zuentzat bientzat bizi ahal izatea, amodioaren gozamenetarik adiskidantzaren eztitasunetara etengabe iragaitea, amodioari zein adiskidantzari neure bizitza osoa eskaintzea, elkarri diozuen atxikimenduaren topaleku nolabait izatea; eta sentitzea beti bataren zorionaz arduratuturik, berdin ari naizela bertzearenaren alde! Maita ezazu, biziki maita, adiskide xarmant horrek, emakume agurgarri hori. Hari diodan

atxikimendua are gehiago balioets ezazu, zeure eginez. Adiskidantzaren xarma dastatu dudanez geroztik, nahi dut zuk orobat goza dezazun. Zurekin batera gozatzen ez ditudan plazerrak, erdizka baizik gozatzen ez ditudala iruditzen zait. Bai, Cécile, zure bihotza nahi nuke senti-mendu ezinago ezti guztiez inguratu; nahi nuke haren higidura bakoitzak jasanaraz diezazun bozkariozko sentipen bat; eta usteko nuke haatik zugandik hartuko nukeen zorionaren zati bat baizik ez nizukeela bihurtzen ahalko.

Asmo xarmangarri horiek zergatik behar dute izan nire irudimenaren ameskeria hutsa, eta errealitateak zergatik ez dit eskaintzen aitzitik dolorezko gabezia lausorik baizik? Zu landalde horretan ikusteko esperantza zuhaurk emanari, ohartu naiz uko egin behar diodala. Ez dut bertze kontsolamendurik, alabaina, ez bada hori ezinezkoa zaizula neure buruari sinetsaraztea. Eta ezaxolatu zara ezin ikusi nauzula niri errateaz, karia horretara nirekin batera atsekabetzeaz! Dagoeneko, bi aldiz, sujet horri buruz egin ditudan deitoreak erantzun gabe gelditu dira. Ah! Cécile! Cécile, zeure arimaren dohain guztiez

maite nauzula uste dut, zure arima ordea ez da kiskalgarria nola baita nirea! Nire esku egon ahal baledi trabak gainditzea! Neure interesez ardura ahal banendi, zureez arduratu ordeztu! Banekike sarri zuri frogatzen ezen amodioak ez duela ezinik.

Ez didazu halaber mezutzen ausentzia krudel hori noiz finituko den: hemen, bederen, menturaz ikusiko zintuzket. Zure behako xarmantek nire arima behekitua bizkortuko lukete; behako horien hunkigarriak sosegua lekarke nire bihotzera, aldian behin sosegaren premian baita. Barka, Cécile; beldur hori ez da susmo. Sinesten dut zure amodioan, zure jarraitasunean. Ah! Zalantzan jarriko banitu, sobera maluros nintzateke. Horrenbertze oztopo ordea! Eta betiere eraberrituak! Adiskidea, triste nago, oso triste. Merteuil andrearen partitze horrek nire malura guztien sentimena berpiztu bide du nigan.

Adio, Cécile; adio, maitea. Egizu kontu zeure maitalea atsekabetan daukazula, eta soilik zuk itzul diezaiokezula zoriona.

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 17an.*

## CXVII. GUTUNA

CÉCILE VOLANGESEK DANCENY ZALDUNARI

*(Valmontek diktatua.)*

Uste duzu beraz, adiskide on horrek, triste egoteko liskartua izateko premian naizela, zu atsekabetan zaudela jakinik? Eta duda egiten duzu zure samin guztiek zeuri bezainbat sofriarazten ez didatenik? Nahita sortzen dizkizudanak ere neuretzen ditut; eta nire saminak zureak baino bortitzagoak dira bidezko eta zuzen ez zarela ikusirik. O! Hori ez dago ongi. Aise ikusten dut zerk haserretzen zaituen; hona etortzeko galdea egin didazun azken bi alditan nik horri ez erantzun izanak: erantzun hori ordea hain aise egin liteke? Uste duzu ez dakidala zuk nahi duzun hori gaizki egina dela? Eta haatik, baldin urrundarik gosta ahala gosta egiten badizut uko, zer gertatuko litzateke bada zu hemen bazina? Eta bertzenaz, zu une batez kontsolatu nahi izateagatik, bizitza osoa atsekabetan emanen nuke.

Hara, zer ezkutaturik ez dut zuretzat: hona nire arrazoiak, zuhaurk juja itzazu. Zuk nahi duzun hori eginen nukeen beharbada, gertatu ez balitz mezutu nizuna, ezen Gercourt jaun hori, gure atsekabe guztien eragile dena, oraino ez dela berehala helduko; eta nola badu zenbait denbora amak askoz adiskidantza gehiago erakusten didala; nola, nik neure aldetik, ahalik gehiena balakatzan baitut; nork daki zer erdiets nezakeen harengandik? Eta baldin zoriontsuak izan bagintezke nik neure buruari deus egotzi ahal izan gabe, ez litzateke hori hobe? Baldin maiz erran didatena sinetsiko banu, gizonak ez dituzte emazteak jadanik hainbertze maite, emazteek esposatu baino lehen sobera maite izan dituztelarik gizonak. Beldur horrek geldiarazten nau gainerako guztiak bainoago. Adiskidea, ez ote zaude nire bihotzaz segur, eta ez ote dukegu betiere astirik?

Entzun, hitz ematen dizut ezen baldin ezin itzur banendi ezagutu baino lehen jada hainbertze herra diodan Gercourt jaun hori esposatzeko zorigaiztotik, deusek ez nauela gehiago geldituko, ahal nukeen bezainbat, bai eta ororen gaine-

tik ere, zurea izatetik. Nola nire kezka bakarra baita zuk ni maitatzea, eta nola zuk ontsa jakin-nen baituzu ezen hutsik egiten badut, ez dela nire errua izanen, ez zait gainerakoa axolako, baldin orain maite nauzun bezainbat maiteko nauzula hitz ematen badidazu. Baina, adiskidea, ordu arte, utz nazazu orain bezala jarraitzen; eta ez gehiago eska ez egiteko arrazoi onak ditudan gauzarik, nahiz zuri hori ukatzeak haserretzen nauen.

Nahi nuke halaber Valmont jaunak ez nintzan hainbertze hertsatu zure izenean; horrek ez baitu ni gehiago xangrinatzeko baizik balio. O! Valmont arras adiskide mina duzu, segur derrai-zut! Zuhaurk eginen zenukeen bezala dagi oro. Baina adio, adiskide maitea; aski berandu hasi naiz zuri izkiriitzen, eta gauaren zati bat eman dut horretan. Ohera noa denbora galdua berres-kuratza. Musu bat, ez niri ordea liskar gehi-go-rik egin.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 18an.*



# CXVIII. GUTUNA

DANCENY ZALDUNAK MERTEUILEKO MARKESARI

Baldin neure egutegiari sinesten badiot, bi egun baizik ez ditu, adiskide maitagarria, nigan-dik urrun zarela; baina neure bihotzari sinesten badiot, baditu bi mende. Alabaina, batbederak bere bihotzari behar dio beti sinetsi; zugandik ikasia dut hori; baduzu beraz itzultzeko tenore, eta zure afera guztiek finitu baino finituagoak egon behar dute. Nola nahi duzu zure auziaz interesik ager dezadan, baldin, irabazi ala gal, gastuak orobat behar baditut nik ordaindu zure urrunaldiaren asperraz? O! Biziki laket nuke zuri liskar egitea! Eta biziki tristea da orobat hain sujet ederrari buruz beltzuria izatea, eta beltzuri hori adierazteko eskubiderik ez izatea!

Ez dea alabaina zinezko desleialkeria, jukutria beltza, zeure adiskidea zugandik urrun uztea, zu gabe ezin bizitzera ohitu duzun ondoren? Alferrik zenuke zeure abokatuei kontseilu galdatzea, ez diote jokabide gaizto horri justifikaziorik kaosituko: eta, bertzalde, jende horiek

arrazoirik baizik ez dute erraten, eta arrazoiak ez dira aski sentimenduei ihardesteko.

Nitaz den bezanbatean, hain sarri erran baitidazu bidaldi hori arrazoiz behar zenuela egin, non arrazoi horrek beltzuri gogorrean bainauka. Ez diot sekula gehiago aditu nahi; are gutxiago zu ahanzteko erraten didalarik. Arrazoi hori hagitz arrazoizkoa da haatik; eta izan ere, ez litzateke zuk uste bezain gauza zaila. Askia nuke soilik, beti zugan pentsatzeko ohitura galtzea, eta deusek ez zintuzke hemen, segur derraizut, nire gogora ekarriko.

Gure emakumerik ederrenak, atseginenak deitzen ditugun horiek, hain dira oraino zugandik urrun, non zure irudi lauso bat baizik ez baitirudite. Uste dut halaber ezen begi trebatuentzat, zenbatenaz zure antzekoak direla uste izan aitzina, hanbatenaz desberdinagoak diruditela gero: dakiten guztia eginagatik, horretan gogotik entseiatuagatik, zu izatea dute betiere eskas, eta horretan datza hain zuzen ere xarma. Ondikotz, egunak hain luzeak direnean, eta batbederak egitekorik ez duenean, ametsari emana egoten da, egiten ditu bere baitan mila dorre eta

gaztelu, sortzen du bere ametsa; irudimena emeki emeki gogoberotzen da: beraren lana nahi du edertu, biltzen du atsegingarri datekeen oro, betegintzarrera heltzen da azkenik; eta han denetik beretik, potretak eredura darama, eta harritzen da ikusirik zugan baizik ez duela pentsatu.

Une honetan berean, hutsegite antzeko xamar batek atsekabeturik nauka. Uste duzu agian zutaz mintzatzeko izkiriatu dizudala? Ez hain zuzen ere: neure gogotik bertzeratzeko dizut izkiriatu. Hamaika gauza banuen zuri errateko, zuhaur hizpide ez zintuztenak, eta, dakizun bezala, biziki interesatzen zaizkidanak; eta gogoia alabaina haietarik zait bertzeratu. Eta noizdanik du bada adiskidantzaren xarmak batbedera amodioaren xarmatik bertzeratzen? Ah! Gertutik beha baniezaio horri, liskar ttipiren bat egin behar nioke menturaz neure buruari! Ixo ordea! Ahantz dezagun hutsegite arin hori berriro egiteko beldurrez; eta egin beza nire adiskideak ere ez adituarena.

Halaber zergatik ez zaude hemen niri ihardesteko, galtzen banaiz ni bide zuzenera erama-

teko; nire Cécilez niri mintzatzeko, hura maitatzean sentitzen dudan bozkarioa niri emendatzeko, ahal baledi, maite dudan hura zure adiskidea delako ideia guztiz ere eziaz? Bai, aitor dut, hark sortzen didan maitasuna are baliosago bilakatu zait, zuk ontasun handiz isilmandatu hori hartu nahi izan didazunez geroztik. Hain maite baitut neure bihotza zuri zabaltzea, zurea neure sentimenduez betetzea, sentimenduok hersturirik gabe zure bihotzean ezartzea! Areago maite ditudala iruditzen zait, zuk haiek biltzeko adeia erakusten didazun heinean; eta gero, behatzen dizut eta egiten dut neure artean: neure bozkario guztia harengan dut gordea.

Ez diezazuket deus berririk erran neure egoeraz. *Harengandik* jaso dudan azken gutunak esperantza areagotzen eta seguratzten dit, baina gibelatzen dit oraino. Haatik haren arrazoiak hain dira amoltsuak eta onestak, non ez gaitzets ez deitora baititzaket. Erran berri dizudana ez didazu menturaz oso ongi ulertuko; baina zergatik ez zaude hemen? Adiskideari, nahiz oro erratzen zaion, ezin ausart oro izkiriatzera. Amodioaren sekretuak hain dira, ororen gainetik, hausko-

rrak non ezin baitira beren asmo onetan fidaturik joatera utz. Baldin noizbehinka jalgitzera uzten badira, ez dira bistatik bederen galdu behar; ikusi behar dira beren egoitza berrian nolabait sartzten. Ah! Zatoz bada, adiskide mai-tagarria; ontsa dakusazu zure itzulera beharrezkoa dela. Aherentzi beraz zauden lekuan atxikitzen zaituzten *mila arrazoiak*, edo irakats ieza dazuzu ez zaren lekuan bizitzen.

Ohorez bainaiz, etab.

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 19an.*

## **CXIX. GUTUNA**

ROSEMONDE ANDREAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Nahiz anitz sofritzen dudan oraino, nire maite eder hori, entseiatzen naiz nihaurk izkiriatzera, interesa duzun horretaz mintza nakizun. Nire iloba misantropiari atxikia zaio oraino. Egunoro norbait bidaltzen dit sarritsu nire berri jakitera; hura ordea ez zait behin bakarrik ere etorri, nahiz erregu hori egin diezaioten manatu dudan:

ez dut beraz Parisen balitz baino gehiago ikusten. Gaur goizean ikusi dut haatik, hura ikustea igurikatzen ez nuen leku batean. Nire kaperan izan da, neure alditxartze oinazetsuaz geroztik lehen aldiz jaitsi bainaiz hara. Gaur jakin dudanez, ba omen ditu lau egun hutsik egin gabe joaten dela hara meza entzutera. Jainkoak nahi dezala ohitura horrek luzaz iraun dezan!

Sartu naizelarik, nigana etorri da, eta maitekiro zorionak erran dizkit nire osagarriak hobera egin izanaren karietara. Nola meza hastera baitzihoan, solasa laburtu dut, gero solasari berriz lotzeko asmoz; baina hark alde egin du ni haren-gana bildu ahal izan baino lehen. Ez dizut erran gabe utziko doi bat aldatua kausitu dudala. Baina, nire maite eder horrek, zure arrazoian fidatu izanaz ez ni damutzera behartu, sobera kezka harturik; eta batez ere zaude ziur nahiagoko nukeela zu atsekabetu, zu tronparazi baino.

Baldin nire ilobak segi baleza nigana darakusan seta gaizto horri loturik, hartuko dut, bizkortzen naizen orduko, hura bere gelan ikusteko deliberoa; eta entseiatuko naiz jokabide bitxi horren kausa baitan barneratzera, non nire ustez

zuk bai baituzu zerikusirik. Jakiten ahal dudana mezutuko dizut. Banoa, hatzak ezin mugiturik: eta bertzenaz, Adélaïdek izkiriatsu dizudala baleki, gau osoan liskar egingen lidake. Adio, nire maite eder hori.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 20an.*

## **CXX. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK AITA ANSELMERI

*(Saint-Honoré karrikako komentuko bernardotarra)*

Ez dut berorren ezagutzaren ohorerik, jauna: badakit ordea Tourvel lehendakariaren emazteak fidantzia osoa duela berorrengan, eta badakit orobat fidantzia hori zeinen zuzenki ezarria den. Uste dut beraz indiskreziorik gabe mintza ahal natzaiola berorren eginbide santuari guztiz ere dagokion zerbitzu arras premiatsu bat erdiesteko, eta non Tourvel andrearen interesa nireari atxikia zaion.

Baditut eskuartean hari dagozkion paper inportanteak, nehoren gomendio ezin jar daitez-

keenak, eta haren eskuetan baizik ezarri nahi eta ezartzen ahal ez ditudanak. Ez dut hura mezutzeko ezein biderik, zeren berorrek agian harengandik jakin dituen baina nire ustez berorri jakinaraztea zilegi ez zaizkidan arrazoi batzuen karietara, hartu baitu nirekin gutun bidez ez ari-tzeko asmoa: egun gogotik behar dut aitortu asmo hori ez dezakedala gaitzets, zeren ez bai-tzituen hark aldeaz aurretik ikusten ahal nihaure ere urrundarik igurikitzen ez nituen gertakariak, eta ezin gerta zitezkeenak gizonenaz gaindikoa direla halabeharrez aitortu behar zaien indar horiengatik izan ez balitz.

Otoi arren, jauna, egin biezat bada, nire deli-bero berriak hari jakinarazi eta niretzat elkar ikuste berezi bat hari galdatzeko ontartea, neure hutsegiteak, aldeaz, bederen kita ahal diezazkio-dan neure desenkusez; eta, azken sakrifiziotzat, orobat haren baitan deusezta ditzadan haren aldera errudun bilakatua ninduen hutsegite edo akatsetik gelditzen diren zantzu bakarrak.

Aldeaz aurretik bekatuak auhendatu ondoren baizik ez naiz ausartuko neure galbide luzazkoen aitortza berorren oinetan ezartzera; eta adiski-



detze are garrantzitsuago eta ondikotz are zaila-  
go batentzat berorren bitartekaritza erregutzera.  
Iguriki nezake, jauna, arta hain premiazko eta  
hain baliosik ukatuko ez didala? Eta zilegi zait  
orobat igurikatzea neure ahulezia sustengatzeko  
ontartea eginen didala, eta nire urratsak bideska  
berri batean barna gidatuko dituela, zeinari  
lotzeko biziki suhar bainaiz, nahiz oraino ezagu-  
tzen ez dudala ahalke gorriturik aitor diodan?

Berorren ihardespenaren zain nauka kitatu  
nahi dudan damuaren egonezinaz, eta, otoi,  
sinets biezat esker onez bezainbat gurtzaz nai-  
zela, berorren zerbitzaririk apalena, etab.

P. S.- Nire baimena du, jauna, baldin komeni-  
garria juja baleza, gutun hau osorik erakusteko  
nire bizitza osoan errespetatzera beharturik iza-  
nen naizen eta, haren arimaren ikusgarri hunki-  
garriaz, nirea bertutera erakartzeko zeruak hare-  
na baliatu duelako beti eta beti ohoratuko dudan  
Tourvel andreari.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 22an.*

# CXXI. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK DANCENY ZALDUNARI

Hartu dut zure gutuna, adiskide sobera gaztea; baina eskerrak eman aurretik, liskar egin behar dizut, eta gaztigatzen dizut ezen zentzatzzen ez bazara, ez duzula nigandik erantzun gehiagorik hartuko. Sinets nazazu eta bazter ezazu bada balakuzko doinu hori, mordoiloa baizik ez baita, amodioaren adierazpena ez denean. Hori ote adiskidantzaren estiloa? Ez, adiskidea, sentimendu bakoitzak badu komeni zaion mintzamoldea; eta bertze batez baliatzea da adierazten den pentsamendua itxuraldatzea. Ontsa dakit gure emakume arruntek ez dutela erraten ahal zaiena deusik ere endelegatzen, baldin ez bazaie, aldez edo moldez, ohiturazko mordoilo horretara itzultzen; baina merezi uste nuen, aitor dizut, haiengandik bereiz nindezazun. Oso haserre nago, eta behar baino gehiago menturaz, hain gaizki jujatu nauzulako.

Ez duzu bada nire gutunean zureak eskas duen hura baizik kausituko, egitasuna eta bakuntasuna. Erranen dizut, konparazione, pla-

zer handia izanen dudala zu ikusirik, eta gaitzitzen zaidala aspertzen nauen jendea baizik ez izatea inguruan, atsegin dudan jendea izan ordez; zuk ordea, horra nola itzultzen duzun perpau hori bera: *Irakats iezadazu zu ez zaren lekuan bizitzen*; hala non zeure maitearen ondolan egonen zarenean, ustez ez zenekike bizitzen nihurtarteko egon gabe. Ondikotz! Eta *ni izatea betiere eskas duten* emakume horien gisara, uste duzu halaber beharbada zure Cécilek ere eskas hori bera duela! Horra beraz nora daraman mintzaira horrek, egungo egunean neurritz gain baliatua denez, konplimentuzko mordoiloaren azpian baita oraino, eta adeitasun hutsa bilakatzen baita orobat, ez baitu «zure zerbitzari apalena» errateak baino sinesgarritasun handiagorik!

Adiskidea, izkiria diezadazunean, egizu zeure pentsatzeko eta sentitzeko era niri errateko, eta ez eguneko lehen nobelan, zu gabe, ontsa edo ez hain ontsa erranak kausituko nituzkeen perpauak niri mezutzeko. Ez ahal zara haserretuko hor erran dizudanagatik, nahiz beltzuri pixka bat sumatuko diozun, ez baitut ukatzen beltzuri nai-

zenik: gaitzetsi dizudan liskar doinu horretarik itzurtzeko, ez dizut erranen zugandik urrun egon beharrak doi bat areagotu duela agian beltzuri hori. Iruditzen zait auzi bat eta bi abokatuk baino gehiago balio duzula azken finean, eta menturaz Beller Roche *adeitsuak* berak ere baino gehiago.

Dakusazunez, nire ausentziaz tristetu ordez, karia horretara bozkarioak behar zenituzke egin; sekula ez bainizun egin hain konplimendu ederririk. Zure etsenplua nagusitua zait nonbait, eta nik ere balakuak nahi dizkizut erran: ez ordea, nahiago dut egiatasunari atxiki; hura baita nire adiskidantza amoltsua, eta hark sortzen didan interesa, ziurtatzen dizun bakarra. Arras ezta da bihotza bertze emakume bati emana dion adiskide gazterik izatea. Ez da hori emakume guztien sistema; bai ordea nirea. Iruditzen zait batbedera plazer gehiagorik emana zaiola batere beldurrik sortzen ez duen sentimendu bati: halatan bilakatu nintzen, aski goizik agian, zure isilmandatari. Baina hain gazteak hautatzen dituzu zeure maitaleak, non lehen aldiz ohartarazi baitidazu zahartzen hasia naizela! Xuxen ari zara jarraitasunezko bide luze bati lotzeko zeure burua

halatan prestaturik, eta bihotz-bihotzez opa dizut jarraikitasun hori elkarrekikoa izan dadin.

Arrazoi osoz egin diezu men *arrazoi amoltsu eta zintzoei*, berebat mezutzen didazunez *zure zoriona gibelatzen dutenei*. Defentsa luzea dute merezimendu bakarra beti kontra egin ez deza-keten emakumeek; eta barkaezina irudituko litzaidake Volanges ttipiaren gisako haur bat ez den bertze norbaitengan, bere amodioa aitor-tzearekin aski gaztigatua izan zaion arrisku bati ihes egiten ez jakitea. Zuek, gizonak, susmorik ere ez diozue hartzen bertuteari, eta hura sakri-fikatu beharrak dakarren nekeari! Baina gogoeta doi bat egin orduko, emakumeak behar du jakin ezen egin duen hutsa zeinahi ere den, ahulkeria bat dukeela zorigaiztorik makurrena; eta ez dezaket uler ezein emakume ustekabeen harra-patua izan litekeenik, izan dezakeelarik une bat horretan gogoeta egiteko.

Ez ezazu ideia hori guduka, zeren hura baita ororen gainetik zuri atxikia naukana. Amodioa-ren arriskuatarik salbatuko nauzu; eta orain arte zu gabe ere jakin badut arrisku horietarik neure burua ontsa defendatzen, karia horretara onar-

tzen dut zure esker onez egotea, eta maiteko zaitut beraz hobeki eta gehiago.

Horrekin guztiarekin, zaldun maitea, otoizten diot Jainkoari beraren santutasunaz eta duintasunaz begira zaitzan.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 22an.*

## **CXXII. GUTUNA**

ROSEMONDE ANDREAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Igurikitzen nuen, haur maitagarria, zure kezka azkenik sosegatu ahal izatea; eta xangrinez ikusten dut aitzitik kezka horiek oraino areago-tzera noala! Har ezazu haatik sosegu; nire iloba ez dago arriskuan: ezin erran ere liteke zinez eridenik. Ordea zerbait harrigarria ari zaio hain segur ere gertatzen. Ez dut deus ere ulertzen; baina jalgi naiz haren gelatik sentimendu tristorazko eta halaber izuzko batez, zeina zuri jakinazteagatik liskar egiten baitiot neure buruari, eta zeina haatik zuri aipatu gabe ezin egon baininteke. Horra zer gertatu den: zaude ziur konta-

keta fidela izanen dela; zeren bertze lauretan hogei urte bizi izanagatik, ezin ahantziko bainuke gertakari triste horrek eragin didan zirrara.

Gaur goizean neure ilobaren gelan izan naiz beraz; izkiriatzen kaustu dut, eta ustez haren lanaren xede ziren anitz paperez inguratua. Hain ari zen bere baitaraturik lanean, non bere gelaren erdian nintzelarik ere, ez baitu burua jiratu nor sartu den jakiteko. Han nintzela sumatu duen orduko, biziki ongi hauteman diot nola altxatzen zen bitartean haren itxura moldatzera entseiatu den, eta hori bera da ausaz harengan arreta gehiago jarrarazi didana. Garbitu gabe eta aurpegia hautseztatu gabe zegoen, egia erran; zurbila eta desegina kaustu dut hala ere, eta aurpegiera batez ere aldatua. Guk hain bizi eta alegera ikusi izan diogun behakoa goibela eta eroria zuen; finean, gure artean errana izan bedi, ez nuke nahi zuk gisa horretan ikus zenezan: zeren itxura arras hunkigarria baitzuen eta guztiz egokia, nire iritzian, amodioaren segadarik arriskutsuenetariko bat den urriki amoltsua orobat sorrarazteko.

Nire oharpenez durduzatua nintzen arren, deusi ohartu izan ez banintzaio bezala hasi naiz solasean. Haren osagarriaz mintzatu natzaio lehenik, eta osagarriaz ontsa zela erran gabe, ez dit haatik gaizki zenik adierazi. Deitoratu dut orduan haren bazterraldia, mania bat zirudiela-koan, eta saiatu naiz neure liskar ttipiari arraitasun doi bat eransten; baina hark soil-soilik ihardetsi dit, doinu sarkor batez: «Bertze hutsegite bat gehiago da, aitor dizut; baina bertzeekin batera konpondua izanen da.» Haren itxurak, haren hitzek bainoago, doi bat itzali du nire arraizia, eta berehala erran diot sobera garrantzi ematen ziola adiskidantzaren liskar soil bati.

Hitz-aspertu bat egin dugu bada. Geroxeago erran didanez afera batek, *bere bizitzako afera-rik handienak*, sarri Parisa joanaraziko du: baina afera hori zer zen asmatzeko beldur nola nintzen, eta gisa horretan hasi izanak nik nahi ez nuen isilmandaturik ekarriko ote zuen beldurrez orobat, ez diot ezein galderik egin, eta soilik ihardetsi diot ezen gehiago libertitzeak on eginen liokeela haren osagarriari. Erran diot orobat ezen, oraingoan, ez niola geldi zedin eskatuko,



diren bezala maite baititut adiskideak; perpaus hain sinple hori aditzetik beretik horra non, nire eskuak tinkatuz, ezin zehatz irudika diezazudan gartsutasunaz erran didan: «Bai, izeba, maita ezazu, arras maita errespetatzen eta maite zaituen iloba; eta, zuk diozun bezala, den bezala maita ezazu. Ez atsekabetu haren bozkarioaz, eta ez kezkaraz, ezein deitorez, sarri gozatzea igurikitzen duen lasaitasun eternala. Berriz erraidazu maite nauzula, barkatzen didazula; bai, barkatuko didazu; ezagutzen dut zure ontasuna: bihozberatasun bera nola iguriki ordea hainbertze laidotu ditudan horiengandik?» Orduan niri buruz makurtu da, haren bozaren doinuak nahigabe salatzen zizkidan oinazezko zantzuak, hala uste dut, niri ezkutuan gordetzeko.

Adieraz diezazukedana baino askoz hunkitua-goa, itsumustuan zutitu naiz; eta nire ilobak dudarik gabe hauteman du nire izua; zeren berehala, bere onera itzuliz, gaineratu baitu: «barka, andrea, nahigabe desbideratzen naiz. Ahantz otoi erran dizkizudanak, eta soil-soilik oroit nire errespetu handiaz. Hutsik egin gabe joanen natzaizu neure errespetuaren eskaintza partitu

baino lehen zuri berriz egitera.» Iruditu zait per-paus horrek ikustaldia finitzera behartzen ninduela; eta alde egin dut, alabaina.

Baina zenbatenaz horretan egin gogoeta, hanbatenaz ezin asma dezaket zer erran nahi izan duen. Zein da afera hori, *bere bizitzako afe-rarik handiena?* Zergatik galdatzen dit barkame-na? Nondik jin zaio haren mintzoari nahigabe itzuri zaion hunkidura? Galdera horiek mila bider eginak dizkiot neure buruari, ezin ordea eran-tzun. Deusik ere ez dut ikusten hor zurekin zeri-kusia dukeenik: haatik, amodioaren begiek adis-kidantzarenek baino hobeki ikusten baitute, ez zaitut nire ilobaren eta nire artean gertatu den ororen jakitun egon gabe utzi nahi izan.

Lau aldiz berrekin diot gutun luze hau izkiria-tzeari, nahiz luzatuko nukeen, jasaten ari naizen akidura gabe. Adio, nire maite eder hori.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 25ean.*

# CXXIII. GUTUNA

AITA ANSELMEK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Hartu dut, jaun bizkondea, zuk ohore handiz igorri didazun gutuna; eta atzo bertan joan nintzen, zure nahia betez, aipatu presunaren etxera. Zuk haren aldera egin nezan galdatu didazun eginkizunaren sujeta eta arrazoiak adierazi nizkion. Aldez aurretik hartua zuen xede zintzoari guztiz atxikia kausitu nuen arren, oroitarazi nio-larik bere ukoaz zure itzulera zorionekoari trabarik ezartzeko, eta orobat probidentziaren erabaki urrikalkorrei, aldez edo molde, uko egiteko arriskuan zela, onartu du zure ikustaldia, baldin azkenekoa bada, eta manatu dit berebat iragar diezazudan ezen etxean izanen dela datorren ortzegunean, hilaren 28an. Baldin egun hori komeni ez bazaizu, arren otoi jakinaraz iezaiozu eta bertze egun bat adieraz. Zure gutuna hartua izanen da.

Nolanahi ere, jaun bizkondea, zilegi izan bekit zuri hertsiki galdatzea arrazoi sendorik ezean gibela ez zaitezen, eta ahalik lasterrena eta ahalik osokiena bil zaitezen erakutsi dizkida-

zun delibero laudagarrietara. Egizu kontu ezen nor ere graziazko uneaz baliatzetik gibelatzen baita, grazia ukatua izan dakion arriskatzen duela; ezen baldin Jainkoaren ontasuna infinitoa bada, ontasun hori justiziak duela haatik arautzen; eta hel daitekeela orobat urrikalmenduzko Jainkoa mendekuzko Jainko bilakatua den unea.

Baldin jarrai bazeneza zeure fidantziaz ni ohoratzen, sinets nazazu otoi ezen nire arta guztiak zeure esku izanen dituzula, zuk hala nahi dezazun orduko: zein ere diren handiak nire zereginak, nire eginkizun sakratuaren betebeharrak betetzea izanen da beti nire aferarik garrantzitsuena, eginkizun horri baitiot bereziki neure burua eskaini; eta neure eginahalak Guztiahal-dunaren bedeinkazioaz joritzen ikusiko ditudan unea izanen da nire bizitzako unerik ederrena. Bekatari ahulak baikara, ez dezakegu deus guharen ahal eskasez! Deika duzun Jainkoak ordea dena ahal dezake; eta berdin zorko diogu Haren ontasunari, zuk Harekin bat egiteko desira etengabea, eta nik, zu bide horretara gidatzeko baliabideak. Haren laguntzaz dut igurikitzen sarri zuri sinetsaraztea ezen soilik erlijio santuak

eman dezakeela, bai mundu honetan ere, gizonen grinen itsutasunean alferretan bilatzen dugun zorion sendo iraunkorra.

Ohorez bainaiz, adeitasunez nola errespetuz, etab.

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 25ean.*

## **CXXIV. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

ROSEMONDE ANDREARI

Atzo jakin nuen berriak sortu didan harridura-  
ren erdian, andrea, ez dut ahanzten berri hori  
arras laketuko zaizula, eta lehiatzen naiz hura  
zuri mezutzera. Valmont jaunak bazterretsiak  
gauzka dagoeneko ni eta bere amodioa; eta soi-  
lik nahi du, bizimolde ongiegileago batez, bere  
gaztaroko akatsak edo hobeki erran hutsegiteak  
konpondu. Gertakari handi hori aita Anselmek  
mezutu dit, harengana jo baitu hemendik aurre-  
ra gida dezan, bai eta antola dezan ere gure  
arteko elkar ikuste bat, zeinaren xede nagusia,  
nire ustez, nire gutunak niri itzultzea baita, orain

arte atxikiak eduki baititu nik aitzitik galdatuak nizkion arren.

Ez dezaket, dudarik gabe, zorioneko aldaketa hori txalotu, eta nihaur berebat bozkariatu baizik egin, baldin, hark dioen bezala, nik zerbaitetan lagundu ahal izan badut. Baina zergatik izan behar nintzen ni baliakizuna, eta ordainetan zergatik behar dut eman neure bizitzako atsedena? Soilik nire zorigaitzaren truk behar zuen Valmont jaunak bozkarioa kausitu? O! Adiskide barkabera, barka iezadazu deitore hori. Badakit ez dago-kidala niri Jainkoaren manuak aztertzea; baina nik etengabe, eta betiere alferrik, neure amodio zorigaiztokoa garaitzeko indarra galdatzen diodan bitartean, hark nasaiki ematen dio galda-tzen ez zionari, eta neure ahuleziari osoki emana uzten nau, laguntzarik gabe.

Ito dezagun ordea murmurika errudun hori. Ez ote dakit grazia gehiago erdiesten duela aita-gandik seme galduak, itzuli delarik, sekula alde egin ez duen semeak baino? Zer kontu eska die-zaiokegu deusik ere zor ez digunari? Eta haren aldera eskubiderik izan ahal bageneza ere, zeintzuk lirатеke nireak? Neure burua goratzen ahal

nuke jadanik Valmonti baizik zor ez diodan zintzotasunagatik? Salbatu nau, eta deitoratzera ausartuko naiz harengatik sofritu behar izateagatik! Ez: neure sofrimenduak maiteko ditut, haren zoriona baldin badute sari. Dudarik gabe hura ere guztion Aitagana itzuli beharrean zen. Hura sortu zuen Jainkoak bere sorkaria behar zuen maite. Ez zuen izaki xarmant hori sortu, gizon gaitzetsi bat baizik izan ez zedin. Niri dago-  
kit neure zuhurtziagabekeria ausartaren atseka-bea neure baitan eramatea; ez nuen bada jakin behar ezen, hura maitatzea zilegi ez nuenez, hura ikustea ez nuela orobat zilegi?

Egia horri sobera luzaz uko egin izanean datza nire hutsegitea edo nire malura. Zu zaitut lekuko, adiskide maite eta duina, sakrifizio horri nola men egin diodan, sakrifizio hori egiteko premiari ohartu natzaion orduko: baina, sakrifizioa osoa izan zedin, Valmont jaunak beretzea zuen eskas. Aitortu behar ote dizut ideia hori dela orain gehien oinazetzen nauena? Urguilu jasanezina, sofritzen ditugun gaitzak sofriarazten ditugun gaitzen bidez ematen dituen! Ah! Garaitu-

ko dut bihotz mutiri hau, ohituko dut umiliazioetara.

Batez ere hori erdiesteko naiz azkenik makurtu Valmont jaunaren ikustaldi zorigaitze-koa datorren ortzegunean hartzera. Orduan, adituko diot erraten harentzat ez naizela jadanik deus, harengan sortua nuen zirrara ahul eta iragankorra arras ezabatua dela! Haren behakoak ikusiko ditut nigan finkatuak, zirrararik gabe, nire behakoa agerian uzteko beldurak begiak makurraraziko dizkidan bitartean. Nire galde behin eta berriz errepikatuei hain luzaz ukatu zizkion gutunak berak, ezaxolakeriaz dizkit emanen; jadanik interesatzen ez zaizkion objektu alferrikakoen gisara emanen dizkit; eta nire esku dardaratiek, gordailu ahalkegarri hori harturik, esku tinko eta lasai batek emana dela sentituko dute! Azkenik, urruntzen ikusiko dut... sekula betiko urruntzen, eta nire behakoek, hari jarraiki, ez dituzte harenak niganantz jiratzen ikusiko!

Honenbertze umiliazio niretzat gordeak izatea! Ah! Baliagarria gerta dakidan bederen, halatan neure ahulkeriaren sentimendua barneratua zaidalarik. Bai, hark jadanik gorde nahi ez dituen



gutun horiek, nik artoski ditut atxikiko. Gutunok egunoro irakurtzeko ahalkeriara dut neure burua behartuko, nire malkoek gutunon azken aztar-nak ezabatuko dituzten arte; eta erreko ditut harenak, arima usteldu didan pozo arriskutsuaz kutsatuak bailiran. O! Zer da bada amodioa, baldin behartzen bagaitu hark sortu dizkigun arriskuak berak doluz auhendatzera; baldin batez ere amodioa bera sentitzeko beldurrez eduki baikaitzake, nahiz amodiorik ez dugun jadanik sorrazten! Ihes egin diezaiogun grina hilgarri horri, ez baitu ahalkearen eta zoritxarraren arteko hautua baizik uzten, eta sarri biak elkartzen baititu, eta zuhurtziak ordezkak beza bederen bertutea.

Ortzegun hori zeinen urrun den! Aineza sakrifizio mingarri hori orain berean burutara eraman, eta batera ahantz sakrifizio horren nola kausa hala sujeta! Ikustaldi horrek gogaitzen nau; damu dut promesa hori egina. Hots! Zergatik duke ni berriz ikusteko premia? Egungo egunean zer gara bata bertzearentzat? Baldin laidotu banau, barkatu diot. Goresmenak igortzen ere dizkiot bere okerrak konpondu nahi dituelako;

laudatzen dut. Are gehiago eginen dut, hark dagiena eginen dut nik ere; eta hutsegite berak liluratua, haren etsenpluak gidatuko nau. Baina nigandik ihes egiteko xedea baldin badu, zergatik hasi ni bilatzetik? Gutarik bakoitzarentzat ez ote da premia-koena bertzea ahanzte-  
a? Ah! Dударik gabe, eta hori duket hemendik aurrera neure ardura bakarra.

Zure baimenaz, adiskide maitagarria, zure ondora naiz joanen zeregin zail hori betetzera. Baldin laguntzaren beharretan banago, kontsolamenduaren beharretan ausaz, ez ditut zugandik baizik jaso nahi. Soilik zuk dakizu nire bihotzari aditzen eta mintzatzen. Zure adiskidantza balio-sak nire izate guztia beteko du. Deus ez zait zaila irudituko zuk ontarte handiz eman bide dizkida-zun artak neuretzeko. Zorko dizkizut lasaitasu-na, zoriona, bertutea; eta nigana dituzun ontasu-nen emaitza ni duin bilakatzea izanen da.

Gutun honetan anitz desbideratu naizelakoan nago; hala uste dut behintzat zuri izkiriatzerako-an etengabe sentitu dudan durduzagatik. Baldin ahalke gorritu beharko nindukeen sentimendurik kausi bazeneza gutun honetan, zeure adiskidan-

tza barkaberaz estal ezazu. Hari nagokio osoki.  
Zuri ez dizut gordean utzi nahi neure bihotzaren  
ezein higidurarik.

Adio, adiskide agurgarria. Igurikitzen dut  
egun gutxi barru zuri iragartzea zure etxera hel-  
duko naizen eguna.

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 25ean.*

# LAUGARREN PARTEA

## CXXV. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Horra hor beraz garaitua, kontra egiten ahal-ko zidala pentsatzera ausartua zen emakume hagitz bikain hori! Bai, adiskidea, nirea da, osoki nirea; eta atzodanik, ez du jadanik deusik niri emateko.

Hain nago oraino zorionaz mukuru betea, non ezin baitut zorion hori ederretsi, harriturik nauka ordea sentitu dudan xarma ezezagunak. Egia ote beraz bertuteak emakume baten balioa areagotzen duela, haren ahulkeriaren unean berean ere? Bazter dezagun ordea haur uste hori atso ipuinen ondoan. Lehen garaipenak ez ote du ia beti ontsa edo gaizki itxuratutako aihertzerik aurkitzen? Eta nehon aurkitu ote dut aipatzen ari naizen xarma hori? Ez da haatik amodioarena ere; zeren azken finean, baldin izan badut noiz-bait grina koldar horren antza dukeen ahuleziaz-

ko unerik emakume horrengana, jakin izan dut beti garaitzen eta neure oinarrizko arauetara berriz etortzen. Atzoko gertaldiak nik uste baino urrunxeago eraman baninduen ere, eta hala dela uste dut; sorrarazten ari nintzen durduza eta horditasuna nihaure ere, instant batez, sentitu banituen ere, egun iraungia litzateke lilura iragankor hori; eta xarma horrek haatik bere izanetan dirau. Plazer aski ezia ere banukeen, aitor dizut, lilura horri men eginez, baldin doi bat kezkatuko ez banindu. Sentimendu gogoz kontrako eta ezezagun batek mendean hartu ote nau, neure adinean, eskolume baten gisara? Ez: lehen buruan, sentimendu hori guduka dezadan eta sakon azter.

Bertzenaz, sumatu dut agian sentimendu horren kausa! Ideia hori atsegin dut bederen, eta egia izan dadin nahi nuke.

Gaurdaino maitalearen rola eta eginbeharrak betez atxiki nauten emakume saldoan, ez dut oraino ezein kausitu ez zuenik, gutienean, bere burua emateko nik hura hartaratzeko nuen bezainbat gogorik; ohitu ere nintzen bidearen erdia baizik egiten ez zutenei *herabeti* deitzera,

kontra jarriarik, alabaina, egin dituzten lehen aitzinamenduak defentsa kilikagarri batez erdizka baizik estaltzen ez dituzten bertze anitzei.

Hemen, aitzitik, neure kontrako gaitzerizko bat kaustu dut hasieratik, emakume higuingarri baina begi zorrotz baten kontseilu eta argibideetan geroztik funtsatua; kaustu dut halaber azken muturrerainoko ahalke berezko bat herabetasun argitu batek bortiztua; bertutearekiko atxikimendua orobat, erlijioak gidatua, eta dagoeneko bi urtez garaile izana, eta azkenik, urrats nabarmenak, arrazoi horiek guztiek eragindakoa eta guztiek oro nire jazarraldietarik itzurtzeko xedea baizik ez zutenak.

Ez da beraz, nire bertze abenturetan bezala, errendatze gutxi edo asko abantailatsu soil bat, profitatzen errazagoa izaten dena nor bere buruaz harrotzeko baliagarria den baino; erabateko garaipena da, gudaldi lazgarri batez erdietsia, eta guda lan jakintsuz deliberatua. Ez da beraz harrigarria nihauri baizik zor ez diodan erdieste hori are baliosagoa izatea niretzat; eta neure garaipenean sentitu dudan plazerraren emendioa, oraindik ere sentitzen ari naizena, ez

da loriazko sentimenduaren zirrara ezia baizik. Maite dut ikusteko modu hori, mendeen hartua dukedan esklaboaren beharretan nolabait ere nengokeela pentsatzeko umiliaziotik salbatzen bainau; bai orobat nire zorionaren betetasuna soilik neure baitan ez dudala pentsatzetik ere, eta nire indar guztiaz bertze norbaitez gozatzeko ahalmena halako edo halako emakumeren esku, soil-soilik bertze baten esku, legokeela pentsatzetik berebat.

Gogoeta zentzudun horiek gidatuko dute nire jokabidea okasio garrantzitsu honetan; eta egon zaitezke ziur ezen ez dudala neure burua estekatzeko utziko, lotura berri horiek neure gogara eta borondatera beti hausten ahalko ez ditudan heineraino. Baina hausturaz hitz egiten ari natzaizu dagoeneko; eta ez dakizu oraindik zein bidez erdietsi dudan eskubide hori; irakur ezazu bada, eta ikus zer nolako arriskutan dagoen zintzotasuna, saiatzen delarik eromena laguntzen. Hain artoski ditut neure hitzak eta emakume horrek eman dizkidan erantzunak aztertu, non batzuk zein bertzeak gogobeteko zaituen zehaztasunaz errendatuko dizkizudala uste baitut.

Honekin batera doazkizun bi gutunen kopiatan ikusiko duzu zein bitarteko hautatu nuen neure eder horrengana hurbiltzeko, eta ikusiko duzu orobat presuna santu hori zer nolako lehiaz ari izan den gu biok biltzeko. Erran behar dizut oraino, ohi bezala bidean harturiko gutun batean jakin nuenez, ezen abandonatua izatearen beldur eta umiliazio ttipiak doi bat nahasi zutela debot latz horren ahalkeria; eta zentzuzkoak ez izanagatik halarik ere interesgarriak ziren sentimendu eta ideiez bete ziotela burua eta bihotza. Jakin beharreko aurrekari horien ondoren, horra non atzo, ortzeguna, hilak 28, emakume eskergabe horrek aldeztu aurretik ezarri eta emaniko egunean, haren etxean aurkeztu nintzen esklabo herabeti eta damutuaren gisara, garaile koroa-dun gisara jalgitzeko handik.

Arratsaldeko sei orenak ziren preso eder haren etxera heldu nintzenean, zeren itzuliazenez geroztik haren atea itxita egon baitzen mundu guztiarentzat. Nire etorrera iragarri zutenean, zutitzen saiatu zen; baina haren belaun dardaratiek ez zioten utzi egoera hartan gelditzen: berehala eseri zen berriz. Etxean sarrarazi



ninduen mirabeak gelan zerbitzuren bat egin behar izan zuenez, emakume hark ezinegonak hartua zirudien. Bitarte hura ohiko konplimentuekin bete genuen. Baina une ezin baliosago haietarik batere denborarik ez galtzeko, arreta handiz ari nintzen aretoa aztertzen; eta harrezkero begiz jo nuen neure garaipenaren jokalekua. Erosoagoren bat hauta nezakeen: zeren, gela hartan berean, bai baitzen aulki otomano bat. Ohartu nintzaion ordea senarraren potret bat parez pare zuela; eta beldur izan nuen, aitor dizut, hain emakume bitxiarekin, halabeharrez bazter hartara behako soil bat igortze hutsak ez ote zidan bet-betan suntsituko hain artoski eginiko lanaren emaitza. Azkenik, bakarrik gelditu ginen eta hizpideari lotu nintzaion.

Hitz gutxitan adierazi ondoren aita Anselmek nire ikustaldiaren arrazoien berri eman bide ziola, arranguratu nintzen jasana nintzen tratu zorrotzaz; eta bereziki nabarmendu nuen hark erakutsi zidan *erdeinua*. Bere burua defendatu zuen, nik iguriki bezala; eta, zuk ere iguriki zenezakeen bezala, sorrarazia nion mesfidantzan eta izuan funtsatu nuen erdeinu haren froga, bai

orobat ondoren gertatua zen eskandaluzko ihesaldian, nire gutunei ihardesteko ukoan, gutunak hartzeko ukoan, etab. Aise erraza zatekeen justifikazio bat egiten hasi zenez, solasa eten behar niola iruditu zitzaidan; eta manera zakar hori barka ziezadan, balaku batez estali nuen berehala. «Baldin hain xarma ugariek», erantzun nion beraz, «egin badute zirrara hain sakona nire bihotza baitan, ez da arinagoa izan bertute hain ugariek egin dutena nire arima baitan. Zugana hurbiltzeko desirak liluratua, ausartu nintzen dudarik gabe zure duin nintzela sinestera. Ez dizut liskarrik egiten zuk bertzela jujatu izanagatik; baina egin dudan hutsegiteagatik zigorretan dut neure burua.» Durduzak dakarren isiltasunari atxikia baitzitzaien, jarraitu nuen: «Nahi dut, andrea, neure burua zure aitzinean justifikatu, edo egotzi bide dizkidazun hobenen barkazioa zugandik erdietsi; lasaitasun pixka batez fini ahal izan ditzadan bederen, zuk edertzeari uko egin diozunez geroztik niretzat dagoeneko baliorik ez duten egunak.»

Orduan ihardestera entseiatu zen haatik. «Neure betebeharrak ez zidan uzten...» eta

betebeharrak eskatzen zuen gezurra bukatzeko zailtasunak ez zion perpausa finitzen utzi. Doinurik ez tienaz ekin nion bada: «Egia dea beraz nigandik joan zinela ihesi?» — «Partitu beharrean nintzen». — «Eta zugandik urruntzen nauzu?» — «Hala behar du». — «Eta betiko?» — «Behar-beharrezkoa dut.» Ez dizut erran beharrik ezen, elkarriketa labur hura bitartean, debot amoltsu haren boza hertsatua zela, eta haren begiak ez zirela niganaino goratzen.

Gertaldi goibel hura doi bat bizitu behar nuela iruditut zitzaidan; beraz, hisi iduri bat egini, zutitu eta erran nion orduan: «Zure fermutasunak neure fermutasun osoa bihurtzen dit. Hots bada! Bai, andrea, elkarrengandik bereiziko gara, zuk uste baino areago bereizi ere: eta zeure gogara bozkariatuko zara zeure obraz.» Liskar doinu horrez doi bat harritua, ihardetsi nahi izan zidan. «Hartu duzun deliberoa...,» erran zuen. — «Ez da nire etsipenaren ondorioa baizik» erantzun nion oldarturik. «Maluros izan nadin nahi izan duzu; zeure nahiaz baino areago erdietsi duzula frogatuko dizut.» — «Zoriontsua izan zaitez nahi dut», ihardetsi zidan. Eta

haren ahotsaren doinua aski zirrara bortitza iragartzen hasia zen. Beraz, haren belaunetara eroriz, eta ezagutzen didazun doinu dramatikoaz, deiadar egin nuen: «Ah! Emakume krudela, ba ote niretzat zuk zeureganatu ez duzun zorionik? Non kausi bada zugandik urrun? Ah! Sekula ez! Sekula ez!» Aitor dizut ezen neure burua hein hartaraino emanek, arras bermatua nintzela malkoen laguntzan: baina izan jarrera desego-kiagatik, izan soilik agian orotan jarria nuen arre-ta neketsu eta jarraikorraren ondorioagatik, ez nezakeen negar egin.

Zorionez gogoratu zitzaidan ezen emakume bat mendean hartzeko ezein baliabide berdin dela on; eta aski zela orobat urrats handi batez hura harritzea, zirrara barnera zekion sakon eta nire fabore. Izuaz ordezkatu nuen bada eskas zitzaidan sentikortasuna; eta horretarako, soilik bozaren doinua aldatuz, eta jarrera berari eutsiz, gaineratu nuen: «Bai, zure oinetan zin dagit, zu hartu edo hil.» Azken hitz horiek erratean, gure behakoek buruz buru egin zuten. Ez dakit presu-na herabeti hark zer ikusi zuen edo zer ikusi uste izan zuen nireetan, baina izu itxuran zutitu zen,

eta beso artetik itzuri zitzaidan. Egia da ez nuela deusik egin hura atxikitzeke: zeren anitzetan hautemana bainuen biziroegi eramandiko gertaldi etsipenezkoak irrigarri gertatzen zirela luzeegiak izanez gero, edo ez zutela baliakizun zinez trajikorik baizik uzten eta baliatzetik hagitz urrun nintzenak. Haatik, nigandik aldaratzen zitzaidalarik, doinu apal eta beldurgarritz, baina hark entzun ziezadakeen moduan, gaineratu nuen: «Hots bada! Heriotza!»

Zutitu nintzen orduan; eta une batez isiltasuna gorderik, igorri nizkion, oharkabeen bezala, behako basak eta noragabeak, hargatik erneak eta oharkorrak zirenak. Jarrera kili-kolo, arnasa goratua, gihar guztiak uzkur, besoak dardaraka, eta erdi jasoak, orok aski frogatzen zidan ondorioa nik sortu nahi nuen bezalakoa zela; baina, nola amodioan ez baita deusik finitzen hurbiletik ez bada, eta nola artean elkarrengandik aski urrun baikin, lehenik behar nintzaion hurbildu. Hori erdiesteko ahalik lasterrena egin nituen lasaitzen ari nintzelako itxurak, bortxazko egoera haren ondorioak baretzeko guztiz jarrera ego-

kia baitzen, eta ez baitzuen egoera hark sortua zuen zirrara gutxitzen.

Hona aldarte batetik bertzerako iragaitea: «Arras maluros naiz. Zure zorionarentzat nahi izan dut bizi, eta zoriona dizut durduzatu. Zazpi ahalak egin ditut sosegu har dezazun, eta hala ere sosegua durduzatzen dizut.» Gero, jarreraz neurritsu, baina hertsatua: «Barka, andrea; grin-en ekaitzetara gutxi ohitua, gaizki menderatzen ditut haren higidurak. Baldin grina horiei men eginik huts egin badut, egizu kontu bederen azkeneko aldiz dela. Ah! Sosega zaitez, sosega zaitez, arren otoi.» Eta mintzaldi luze hori bitartean sorgor ari nintzaion hurbiltzen. «Sosega nadin nahi baduzu», erantzun zidan emakume eder haserretu hark, «zaude zuhaur ere sosegatuago.» — «Ongi da! Bai, hitz ematen dizut», erran nion. Erantsi nuen boz ahulagoaz: «Baldin handia bada eginahala, ez du bederen luzaz iraunen.» Baina, ihardetsi nion berehala, zentzua galdua iduri, «zure gutunak bihurtzera etorri naiz, ez dea egia? Egidazu, arren, gutunok hartzeko ontartea. Sakrifizio dolugarri hori dut oraino eginkizun: ez niri deusik ere utz kuraia

ahul diezadakeenik.» Eta bilduma preziatu hura nire sakelatik atereaz: «Hona», erran nion, «zure adiskidantzaren ziurtamenen gordailu engainagarria! Bizitzari atxikia nindukan, har ezazu berriz. Zuhaurk eman ezazu beraz zugandik sekulako bereizi behar nauen seinalea.»

Orduan maitale beldurti hark osoki men egin zion bere kezka amoltsuari. «Baina, Valmont jauna, zer duzu, eta zer erran nahi izan duzu? Egun egiten ari zaren urratsa ez dea borondatezkoa? Ez dea zure gogoeta propioen fruitua? Eta ez dira gogoeta horiek nik betebeharrez hartu dudan xede behar-beharrezkoa onetsarazi dizutenak? — «Hots bada!», erantzun nion, «xede horrek erabaki du nirea.» — «Eta zein da?» — «Zugandik urrundurik, nire penei bukaera eman diezaiekeen bakarra.» — «Erantzun iezadazu ordea, zein da?» Orduan, neure besoetan estutu nuen, batere defendatzen ez zelarik; eta egokitasunaren ahanzte horren karietara haren zirra-zenbatez bortitza eta ahaltsua zen jujaturik: «Emakume maitagarria,» erran nion gogobetetasunaren arriskura lerraturik, «susmatu ere ez diozu egiten sorrarazten duzun amodioari; ez

duzu sekula jakinen zenbateraino izan zaren arras maitatua, eta sentimendu hori zenbateraino nuen bizitza bera baino maiteago! Izan bitez zure egun guztiak bozkarioz eta soseguz beteak; izan bitez niri edeki didazun zorion guztiaz edertuak! Eskaintza egiazko hori ordain ezazu bederen damukizun batez, malko batez; eta sinets ezazu ezen nire azken sakrifizioa ez dela bihotz-mingarriena izanen. Adio.»

Horrela mintzatzen nintzaion bitartean, haren bihotza indarrez taupadaka sentitzen nuen; haren begitartearen aldaketari so nengoen; ikusten nuen, batez ere, malkotan hats-bahi, haatik bakan eta lazki baizik isurtzen ez bazitzaizkion ere. Ez nuen ordu arte hartu urruntze irudi bat egiteko xedea; baina indarrez atxikitzen ninduelarik, kartsuki erran zidan: — «Ez, entzun iezadazu.» — «Utz nazazu», erantzun nion. — «Entzun diezadazun nahi dut.» — «Zugandik urrundu beharrean naiz, nahitaez!» — «Ez!» oihukatu zuen... Azken hitz hori erratearekin, oldartu zitzaidan edo hobeki errateko alditxartua erori zen nire besoetara. Duda egiten bainuen oraino hain erdieste zoriontsuaz, izu handi baten



irudia egin nuen; baina izutzen nintzelarik ere, gidatu edo eraman nuen neure loria eremu gisa aldezturik hautatua nuen lekurantz; eta alabaina ez zen baitaratu mendean hartua eta bere garaile zoriontsuari emana izan ez zen arte.

Honaino, adiskide ederra, laketuko zaizun metodo garbitasun bat kaosituko duzu nigan, hala uste dut; eta, ikusiko duzunez, ez naiz batera aldentu gerla honen benetako hatsapenetarik, bertze gerlaren oso antzekoa baita, hain sarri ohartarazi dugunez. Juha nazazu beraz Turenne edo Frederik bezala. Borrokatzera dut behartu borroka geroko luzatu baizik nahi ez zuen etsaia; jakintza handiko guda lanen bitartez atxiki dut guda lekua eta xedapenak hautatzeko eskubidea; jakin dut etsaiari segurantzaz sorrarazten, gibelera egiten ari zenean aiseago atzeman nezan; jakin dut segurantzaren ondoren izua sortzen, borrokari ekin baino lehen; ez dut deus utzi benturara, ez bada erdietsiz gero abantaila handia nukeela pentsatuz, eta kukuak makur joz gero bertze baliabiderik banuelako segurantzaz; azkenaz goiti, ez diot ekin harik eta gibelatzea ziurtatua nuen arte, aldezturik

konkistatua nuen guztia halatan estal eta gorde bainezakeen. Hori da, nire ustean, egin daitekeen guztia; baina badut orain beldurra ez ote naizen bigundu Anibal Capuako plazerretan bezala. Horra zer gertatu zen gero.

Banekien hain gertakari handia ez zela ohiko malko eta etsipenik gabea izanen; eta hasieran emakume hura ikusi banuen ere doi bat nahasia-go, eta halako bildutasun bati emana, herabetiaren egoerari egotzi nizkion bata nahiz bertzea: beraz, nire ustean tokian tokiko aldaera txikiak ziren horiei kontu egin gabe, kontsolazioen bide handiari jarraiki nintzaion, uste osoa bainuen sentipenek sentimendua lagunduko zutela, hala izaten baita beti, eta egintza batek bakarrak mintzaldi guztiak baino gehiago eginen zuela, nahiz mintzaldiez ez nintzen ezaxolatua. Kausitu nuen ordea kontra egite bat arras ikaragarria, ez hainbertze haren gehiegiagatik nola agertu zuen itxuragatik baizik.

Irudika ezazu emakume bat eserita, gogortasunean geldia, eta begitartea aldagaitz; iduri duela ez dezakeela pentsa, adi, uler; haren begi tinko-tinkoetarik aski malko jarraikiak eginahalik

gabe isurtzen zaizkiola. Hala zegoen Tourvel andrea, nire mintzaldia bitartean; baina baldin entseiatzen banintzen haren arreta niganantz erakartzera fereku batez, denik eta keinurik xaloenaz, ustezko soraiotasun haren ondoren berehala zetorkion izua, hats-bahia, hotzikarak, negar-zotinak, eta tarteka oihu batzuk, ez ordea hitz ebakirik.

Krisi horiek anitzetan jin ziren, eta gero eta bortitzagoak beti; azkena hain izan zen oldar handikoa, non bihotza arras erori baitzitzaidan, eta une batez beldur izan nintzen alferrikako garaipen bat erdietsi izanaz. Ohiko egia arrunte-tara jo nuen; eta egia anitz horien artean hona-ko hau zegoen: «Eta zoriontsu egin nauzulako zaude etsi etsia?» Ele hori aditzearekin, emaku-me maitagarri hura nigana jiratu zen; eta haren aurpegiak, adia doi bat galdua bazuen ere, berriz hartu zuen berezko itxura zerutiarra. «Zoriontsu egin zaitut», erran zidan. Igerriko zenion nire erantzunari. «Zoriontsua zara beraz?» Neure baietza areago segurtatu nion. «Eta nigatik zoriontsua!» Laudorioak eta ele goxoak erantsi nituen. Hitz egiten ari nintzen bitartean, gorputz

atal guztiak lasaitu zitzaizkion; berriz eseri zen guri-guria, bere besaulkiaren gainean bermatua; eta hartzera ausartua nintzen haren esku bat nire mende utzirik, erran zidan: «Ari naiz sumatzen ideia horrek kontsolatzen eta lasaitzen nauela.»

Pentsa dezakezu bideari halatan berriz lotua nintzelarik, ez nuela bidea gehiago utziko; hura zen zinez bide ona, eta menturaz bakarra. Beraz bigarren ez erdiesten saiatu nahi izan nuenean, halako kontra egite bat jasan nuen hasieran, eta arestian gertatu zenak begirakor ninduen bihurtu: baina nire zorionaren ideia hori bera lagungarri baliaturik, sarri sentitu nituen ideia haren ondorio onuratsuak: «Arrazoi duzu», erran zidan presuna amoltsu hark; «ez dezaket neure bizitza gehiago paira, non ez duen balioko zu zoriontsu egiteko. Neure burua oso-osorik eskaintzen diot eginbide horri: hemendik aurrera zuri guztiz emana edukiko nauzu, eta ez duzu nigandik jasanen ez ukorik, ez damurik.» Xalotasun laño edo ezin bikainago horrez eman zizkidan bere burua eta bere xarmak, eta hala emendatu zuen nire zoriona hark ere beretuz. Horditasuna era-

batekoa izan zen eta elkarrekikoa; eta, lehen aldiz, nireak plazerrak baino areago iraun zuen. Ez nintzen haren besoetarik atera, haren aurrean belauniko erori eta neure amodio eternala zin egiteko baizik; eta, oro behar baita aitortu, erraten niona pentsatzen nuen. Finean, elkarrengandik bereiziak ginen ondoren ere, haren irudia etengabe nerabilan gogoan, eta eginalahak behar izan nituen egin arreta bertze zerbaitetan jartzeko.

Ah! Zergatik ez zaude hemen, ekintzaren xarma sariarenarekin orekan bederen jartzeko? Baina ez dut deus galduko zain egoteagatik, ez dea egia? Eta igurikitzen dut ikusi ahal izatea, gu bion artean hitzartu bezala, neure azken gutunean proposatu nizun abeniko zoriontsua. Ikusten duzunez, gogotik ekina naiz, eta, hitz eman nizun bezala, nire aferak zuri neure denbora pixka bat eskaini ahal izateko bezain aitzinatuak dirateke. Azkar aiena bada Beller Roche astun hori eta bazter utz Danceny melenga hori, nitaz baizik ez arduratzeko. Baina zer ari zara bada landalde horretan, ihardesten ere ez baitidazu? Badakizu gogotik eginen nizukeela liskar? Bozka-

rioak bihozberatasuna dakar ordea. Eta bertze-  
naz ez dut ahanzten ezen zeure amorantegai  
ugarien ordezt hartzen nauzularik berriz, men  
egin behar diedala, berriro, zure gutizia ttipiei.  
Gogora ezazu haatik maitale berriak ez duela  
adiskide zaharraren ezein eskubide galdu nahi.

Adio, bertze ordut bezala... *Bai, adio, ainge-  
rua! Amodioaren musu guztiak igortzen ditinat.*

P.S.— Badakizu, presondegian hilabete egin  
ondoren, Prévan gudarostea uztera behartua  
izan dela? Egungo egunean hori du Paris osoak  
albiste. Egia erran, horra egin ez duen hutsegite  
bategatik krudel zigortua, eta horra zure garai-  
pena erabatekoa!

*Parisen, 17\*\*ko urriaren 29an.*

## **CXXVI. GUTUNA**

ROSEMONDE ANDREAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Lehenago erantzunen nizukeen, haur maita-  
garria, baldin neure azken gutunaren nekeak ez  
balizkit oinazeak bihurtu, beraz egun horietan

guztietan besoa baliatu ezinik egon naiz. Ondo presatua nintzen neure ilobaz eman zenizkidan berri onak zuri eskertzeko, bai eta neure zorionik egiazkoenak zuri errateko ere. Zinetan onartu beharra dago probidentziaren ukaldi bat izan dela hori, zeren, bata ukituz, bertzea ere salbatu baitu. Bai, adiskide maite ederra, Jainkoak, zu neurtzea baitzuen xede bakarra, lagundu zaitu indarrak ahituak zenituen unean; eta zure marmario ttipia gorabehera, esker-erakutsirik zor diozula uste dut. Ez uste ohartzen ez naizenik ezen nahiagoko zenuela delibero hori lehenik zeuri burura zekizun, eta Valmontena ez zedin izan zurearen segida baizik; iduri du orobat, gizabidez, gisa horretan gure sexuaren eskubi-deak hobeki gordeak ziratekeela, eta ez dugu ezeinik galdu nahi! Baina zer dira zertzelada arin horiek, bete diren xede garrantzitsuen ondoan? Itsasoan galtzetik salbatu dena ikusten ote dugu baliabideak ezin hautatu izana deitoratzen?

Laster ikusiko duzu, alaba maitea, nola bel-durrez zauzkaten atsekabeak berez arinduko zaizkizun; eta betiko eta osorik iraun behar bale-zate ere, orobat ikusiko zenuke makurkeriaren

bihotz zimikoak eta nor bere buruaren erdeinua baino pairakorragoak diratekeela. Ustez alferrik nukeen orain mintzo natzaizun bezain zorrotz zuri lehenago mintzatzea: amodioa da sentimendu bat bere buruaren jabea, zuhurtziak saihets dezakeena, baina garaitzen ez lekikeena; eta, behin sortuz gero, hiltzen ez dena, berez edo esperantzaren erabateko galeraz ez bada. Azken kasu hori da, hura baita zure egoera, neure iritzia zuri librok i errateko kuraia eta eskubidea bihurtzen didana. Krudela da etsipenak jo duen eria izutzea, kontsolazioak eta sendabideak baidzik ez baititu merezi: baina zuhurra da eriondoari jasan berri dituen arriskuez argitzea, hala ohar dakion beharrezkoa duen zuhurtziari, eta men egin diezaien oraino premiazkoak zaizkiokeen kontseiluei.

Zeure medikutzat hautatu bainauzu, gisa horretan natzaizu mintzo, eta gisa horretan erraten ezen orain sentitzen dituzun ezerosotasun arin horiek, eta ausaz zerbait erremedio galdatzen dutenak, ez direla haatik deus, dagoeneko sendabidean duzun eritasun izugarriarekin konparatuz gero. Adiskide gisa ondoren, emakume



zentzudun eta bertutetsu baten adiskide gisa, zilegi izan bekit eranstea ezen liluraturik zintuzkan grina hori, berez hain zorigaiztokoa dena, are zorigaiztokoago zela oraino haren xedea zela kausa. Hari buruz erran didatena sinetsiz gero, nire iloba, aitor dizudanez, agian ahulkeriaz ere maite dudana, eta bere baitan alabaina anitz dohain laudagarri eta anitz atsegintasun biltzen dituen, ez da arriskurik gabea emakumeentzat, ezta hutsegiterik gabea ere haien aldera, eta berdin lehiatzen da emakumeak seduzitzera eta galtzera. Uste osoan naiz zuk konbertituko zenukeela. Nehork ez du, dudarik gabe, egiteko horretarako zuk baino merezimendu gehiagorik: baina karia horretara bertze hainbat eta hainbat emakume harrotu izan baita, nahiz gero haatik esperantza galdu duten, non nahiago baitut izan ez zaitezen baliakizun horretara behartua.

Orain egizu kontu, adiskide maite ederra, ezen jasan behar zenituzkeen peril guztien orde, izanen duzula Valmonten itzulera zorionekoaren kausa nagusia izatearen poza, zure kontzientziaren atsedenez eta zure lasaitasunaz bertalde. Nik, neure aldetik, ez dut dudarik egi-

ten ezen itzulera hori hein handi batean ez denik zure aihertze kementsuaren obra, eta zure alde-tikako ahulkeria une batek ez zuenik halaber nire iloba betiko galaraziko. Nahiago dut horrela pentsatu, eta nahi zintuzket ikusi gisa berean pentsatzen; halatan kaunituko dituzu zuk zeure lehen kontsolazioak, eta nik, zu gehiago maitatzeko arrazoi berriak.

Egun gutxi barru hemen igurikitzen zaitut, alaba maitagarria, iragarri didazun bezala. Zatoz, galdu zenituen leku berberetan lasaitasuna eta zoriona berreskuratzerantz; zatoz batez ere hari eman zenion hitza guztiz ere zorionean atxiki izanaz, eta haren eta zure duin ez zen deusik ez egin izanaz zeure ama amoltsuarekin batera bozkarioak egitera!

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 30ean.*

## **CXXVII. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Baldin ez badiot, bizkonde, 19ko zure gutunari ihardetsi, ez da astirik izan ez dudalako; soil-

soilik da beltzuria sortu didalako, eta zentzurik aurkitu ez diodalako. Iruditu zait beraz ez neza-keela ahanztea baino deus hoberik egin; baina berriz aipatzen didazunez, han adieraziak diren ideiei atxikia iduri duzunez, eta nire isiltasuna oneste gisa hartzen duzunez, argi eta garbi behar dizut erran neure iritzia.

Batzuetan nahikatu ahal izan dut agian haren oso bat nik bakarrik ordezkatzeari; baina sekula ez zait komeni izan andre multzo horretako kide izatea. Bazenekiela uste nuen. Orain bederen nahitaez jakitun baitzaude, aise sumatuko duzu zenbatez ere zure proposamena irrigarria zaidan iruditu. Nork, nik! Jaidura bat sakrifikatu nik, eta jaidura berri bat gainera, zurekin ari izateko? Eta nola ari izateko? Nire txandaren zain, esklabo manakor baten gisara, *jaun goren* horren ontarte ezin bikainagoak noiz hartuko. Konparazione, Tourvel andre *maitagarri*, *zerutiarrak* soilik sentiarazi dizun *xarma ezezagun horretarik* une batez bertzeratzen zarelarik, edo *Cécile hunkigarri horrek* zutaz arras gogobete gordetzea nahi duzun uste ezin hobe hori arriskuan jartzeko bel-dur zaudelarik: nigana jaitsirik orduan, plazerren

bila jinen zara, nahiz plazer horiek zinez ez diratekeen hain biziak, ondoriorik gabeak lirateke ordea; eta zure ontarte baliosak, izanagatik bakan samarrak, nire zorionak bertzenaz askiet-siko ditu!

Baiki, aberatsa zara zeure buruaren iritzi onez: ni ordea ustez ez naiz aberatsa xalotasunez; zeren neure buruari behatuagatik, ez deza- ket hein horretaraino behekitua ikus. Nire akats bat da beharbada; baina aldeaz aurretik gaztigatzen dizut bertze anitz baditudala oraino.

Badut batez ere akats bat, zeina baita uste izatea ezen Danceny *eskolome*, *melenga* hori, nitaz baizik ez arduratua, lehen grina bat niri sakrifikaturik, sakrifizio hori merezimendutzat hartu gabe, grina hori asean izan ere dadin baino lehen, eta ni maitaturik azkenik bere adinari dagokion gisara, zu baino eragintza gehiagoz ari izan litekeela nire zorionaren eta nire plazerren alde lanean, nahiz dituen hogei urte. Zilegi izan bekit halaber zuri erratea ezen, hari laguntzaile bat ematea gutiziatuko banu, ez zinatekeela zu izanen, oraingoz bederen.

Eta zergatik, galdetuko didazu? Baina haste-ko baliteke ezein arrazoirik ez egotea: zeren hobetsiko zintuzkeen gutiziak berdin salbuets baitzaitzake. Nahi dizut haatik, adeitasunagatik, neure iritzia arrazoitu. Sakrifizio gehiegi egin behar zenizkidakeela iruditzen zait; eta ni izan ninteke, karia horretara halabeharrez igurikiko zenukeen esker ona zuri erakutsi ordez, oraino sakrifiziorik zor zenidakeela uste izateko gauza! Ikusten duzunez, bata bertzeagandik halatan gure pentsaera dela kausa hain urrunduak, neholaz ere ezin gintezke elkargana hurbil; eta badut beldurra anitz denbora ez ote dudan beharko, arras denbora luzea, sentimenduz aldatu baino lehen. Zentzatua naizen orduko, hitz ematen dizut zuri mezutzea. Ordu arte, sinets nazazu, egin bertze antolamendurik, eta gorde zeure musuak, nori hobeki eman anitz baitituzu!...

*Adio, bertze orduz bezala, diozu? Bertze orduz ordea, nitaz axolatuagoa zinela iruditzen zait; ez nindukezun hirugarren mailako roletara arras baztertuko; eta batez ere nire baiaren zain egonen zinatekeen, nik zuri baietz erran izanaz*

ziur egon baino lehen. On irudituko zaizu beraz bertze orduz bezala adio erran ordeztu, egungo egunean bezala erran diezazudan adio.

Zure zerbitzaria, bizkonde jauna.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko urriaren 31n.*

## **CXXVIII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

ROSEMONDE ANDREARI

Atzo arte ez dut hartu, andrea, zure erantzun berantiarra. Bertatik hilko ninduen, neure izatearen jabe banintz oraino: bertze norbait du ordeztu izate horrek jaun eta jabe, eta bertze hori Valmont jauna da. Ikusten duzu ez diezudala deusik gordetzen. Baldin zure adiskidantza jadanik merezi ez dudala pentsatu behar baduzu, beldur gutxiago diot zure adiskidantza galtzeari hura engainatzeari baino. Erran diezazukedan guztia da ezen Valmont jaunak jarri naularik bere heriotzaren eta bere zorionaren artean, azken xede hori hartzea deliberatu dudala. Ez naiz

horretaz harrotzen, eztaneure burua akusatzen ere: soil-soilik diot gertatu dena.

Aise sumatuko duzu, horren ondoren, zer nolako zirrara egin behar izan didan zure gutunak, eta han bilduak diren egia zorrotzek. Ez uste haatik damurik sorrarazi ahal izan didanik, ezta sentimenduz nahiz jokabidez nehoiz aldaraz nazakeenik ere. Ez pentsa une krudelik bizi ez dudanik: baina bihotza arras erdiratua dudanean, neure oinazeak ezin jadanik jasateaz beldur naizenean, egiten dut neure artean: Valmont zoriontsua da, eta oro desagertzen da ideia horren aitzinean, edo hobeki erran ideia horrek oro plazer du bihurtzen.

Zure ilobari diot beraz neure burua eskaini; beregatik naiz galdu. Hura dut orain neure pentsamenduen, neure sentimenduen, neure egin-tzen ardatz bakarra. Nire bizitza haren zorionari beharrezkoa izanen zaion bitartean, baliosa izanen zait, eta zorionekoa irudituko zait halaber. Baldin egunen batean hark bertzerik uste baleza..., ez du nigandik ez kexurik ez liskarrik adituko. Ausartu naiz dagoeneko une hilgarri horri begi ematera eta neure xedea hartua dut.

Ikusten duzu orain zein eragin gutxi izan dezakeen nigan Valmont jaunak egunen batean galduko naudelako zuk bide duzun beldurrak: zeren ni galdu nahi izan baino lehen, gelditua dateke bada ni maitatzetik; eta zer egingen didate orduan adituko ez ditudan liskar alferrikakoe? Hura baizik ez duket juje. Harentzat baizik ez bainaiz biziko, harengan hartuko du nire oroimenak atsedeen; eta aski justifikatua nuke neure burua, baldin maite nuela aitortzera behartua bada.

Nire bihotzean irakurri berri duzu, andrea. Nahiago izan dut zuri egia erranez zure estimua galdu izanaren malura, gezurraren doilorrak zure estimuaren ezgai bilakatu izanarena baino. Fidantzia oso hori zor uste nien iraganean nigan izan dituzun ontasunei. Bertze hitz bat gehiago errateak susma ahal liezazuke ontasun horiei oraino atxikia izateko urguiluak hartua naukala, nahiz aitzitik neure buruarekin zuzen eta bidezko naizen ontasun horiek atxiki nahiari uko egingez.



Errespetuz naiz, andrea, zure zerbitzari arras apal eta arras esanekoa.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 1ean.*

## **CXXIX. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Erraidazu bada, adiskide ederra, nondik dator zure azken gutunean nagusi den doinu latz eta trufazko hori? Zein da bada ustez ezjakinean egin dudan eta hainbertzeraino haserretu zaituen makurkeria hori? Iduri izan dut, hala egozten didazu, zure baimenari atxikia zugandik baimenik erdietsi baino lehen: uste nuen ordea mundu guztiarentzat harrokeria lirudikeena, sekula ez zitekeela, zugandik nigana, fidantzia gisa baizik har: eta sentimendu horrek noizdanik dakarkio kaltea adiskidantzari edo amodioari? Esperantza elkarturik desirari, makurtu baizik ez naiz egin bila ari garen zorionetik betiere ahalik hurbilena jarrarazten gaituen bultzada berezkoari; eta zuk harrokeriaren ondoriotzat hartu duzu

nire lehiaren ondorioa baizik ez zena. Badakit, ondo jakin ere, ohiturak, kasu horretan, errespetuzko duda bat ezarria duela: zuk ere badakizu ordea ez dela molde bat, protokolo hutsa baizik; eta zilegi zitzaidan, nire ustean, begiramenezko izari zehatz horiek gure artean jadanik beharrezkoak ez zirela uste izatea.

Iruditzen zait orobat ezen urrats zinezko eta libro hori, aspaldiko harreman batean funtsatua delarik, amodioa hain sarri ilauntzen duen bala-ku geza baino askoz hobea dela. Bertzenaz, manera horri ematen diodan balioa ez datorkit ausaz hark gogora dakarkidan zorionari ematen diodan baliotik baizik: baina horregatik beretik, areago deitoratuko nuke zuk bertzerik ulertu izana.

Horra beraz nihauren baitan kausitu dudan hutsegite bakarra: zeren ezin pentsa baitezaket serioski uste izan duzunik badenik munduan zu baino hobea irudi dakidakeen emakumerik; eta are gutxiago pentsa dezaket zuk itxurak eginik sinetsi uste duzun bezainbat gaitzetsi zaituda-

nik. Sujet horren karietara erraten didazu zeure buruari behatu diozula, eta ez duzula zeure burua hein horretaraino behekitua kaustu. Ados nago, eta horrek ez du zure ispilua fidela dela baizik frogatzen. Baina ez zenukeen aiseago eta bidezkiago ondorioz uste izan beharko nik ez nuela hain segur zutaz halakorik pentsatu?

Alferrik nabil ideia bitxi horri kausarik bilatzen. Iruditzen zait haatik zilegi dudala pentsatzea ezen nik bertze emakumeei egin dizkiedan laudorioetan duela horrek nolarebait kausa. Ondorio hori ateratzen dut bederen, Tourvel andreaz edo Volanges ttipiaz hitz egiten didazularik nik baliatu ditudan *maitagarri*, *zerutiar*, *hunkigarri* izenondoak zuk niri irri doinuz errepikatu izanetik. Ez dakizu ordea hain sarri gogoe-tatuak baino oharkabea hautatuak izaten diren hitz horiek gehiago dagozkiola batbederak hitz egiten ari denean bizi duen egoerari, presuna jakin bati zaion jaidurari baino? Eta baldin, batak nahiz bertzeak biziki hunkitua nindukaten unean berean, ez bazintudan hala ere gutxiago desira-

tzen; baldin nabarmen hobesten bazintudan bi emakume horien gainetik, zeren azkenik bertze bien kaltetan baizik ez nintekeen gure lehen harremanari berriz lotu, ez dut uste horrek hain liskarbide handirik ekar dezakeenik.

Ez zait zailagoa izanen doi bat harritu bide zaituen *xarma ezezaguna* justifikatzea: zeren lehenik ezezaguna izateak ez baitu erran nahi bortitzagoa denik. O! Nork gaindi litzake hala betiere berri nola betiere bizi bihurtzen soilik zuk dakizkizun plazer zoragarriak? Soilik erran nahi izan dut plazer hura nik oraino dastatu gabeko-en motakoa zela; baina ezein baliorik emateko asmorik gabe; eta erran nuen gero, eta egungo egunean berriz errepikatzen dut, ezen, zeinahi ere den, jakinen dudala gudukatzen eta garaitzen. Horretan are gehiago ahaleginduko naiz oraino, baldin eginahal arin horretan zure ome-nezko eskaintza bat ikus badezaket.

Cécile ttipiaz den bezanbatean, alferrikakoa iruditzen zait zuri hartaz mintzatzea. Ez zenuen ahantziko haur hori zure eskariz hartu nuela

neure gomendio, eta ez dut zure baimena baizik igurikitzen hura aienatzeko. Haren lañotasunari eta freskotasunari ohartu ahal izan natzaio; hun-kingarria ere iruditu ahal izan zait instant batez, zeren eta, gutxi edo asko, doi bat ederresten baitio beti nork bere obrari: baina hain segur, ez du aski trinkotasunik ezein alderditan nehoren arreta deusik erakartzeko.

Orain, adiskide ederra, zure justiziari nago, zuk nire aldera izan zenituen lehen ontasunei nago; adiskidantza luze eta beteginari, geroztik gure loturak tinkatu dituen fidantzia osoari: merezi izan dut nirekin baliatu duzun doinu zorrotza? Baina zeinen aise eman ahalko didazu zorrotasun horren ordaina zuk nahi dezazunean! Erran soilik ele bat, eta ikusiko duzu ea xarma guztiek eta atxikimendu guztiek hemen geldiaraziko nauten, ez egun batez, ezta minutu batez ere. Ziztu bizian joanen naiz zure oinetara eta zure besoetara, eta mila bider eta mila moldez frogatuko dizut zu zarela, zu izanen zarela betiko, nire bihotzeko egiazko erregina.

Adio, adiskide ederra; arras ezinegonik igurikitzen dut zure erantzuna.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 3an.*

## **CXXX. GUTUNA**

ROSEMONDE ANDREAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Eta zergatik, maite eder horrek, ez duzu nire alaba izaten segitu nahi? Zergatik iragartzen bide didazu gure arteko gutun bidezko harreman oro haustera doala? Egiantza ororen kontra gertatzen ari zena ez asmatzeagatik zigortu nahi nauzulako ote? Edo nahita atsekabetu zaitudalako susmoa hartzen didazu? Ez, aski eta sobera ezagutzen dut zure bihotza, nireaz halakorik pentsatzen duzunik uste izateko. Beraz, zure gutunak eman didan pena askoz gutxiago dago-kit niri zuhauri baino!

O, adiskide gaztea! Dolorez diotsut; maitatua izateko sobera gai zara orde, beraz maitasunak eginen ahal zaitu noizbait zoriontsu! Zer! Zein emakume zinez fin eta sentikorrak ez du zorigai-

tza kausitu hain zorion handia prometatzen zion sentimendu horretan berean! Gizonek ba ote dakite beretua duten emakumea estimatzen?

Ez uste anitz gizon ez denik jokabidez zintzoa eta maitasunean jarraikia: baina, horien beren artean ere, zein gutxik dakien haatik gure bihotzarekin batera joaten! Ez uste, maite eder horrek, haien amodioa gurearen antzekoa denik. Horditasun bera sentitzen dute; anitzetan ere askoz suharragoak izaten dira: baina ez dute ezagutzen ezinegon urduria, arreta atsegina, gugan arta ezti eta jarraikiak sortzen dituen, maite den gizona xede bakar beti. Gizonak sentitzen duen zorionaz gozatzen du, eta emakumeak, berriz, gizonari sorrarazten dionaz. Bere-zitasun hain funtsezko eta hain bakan ohartarazi horrek eragin arras nabarmena du haatik gizonaren zein emakumearen jokabide osoan. Bataren plazerra desirak asetzea da, bertzearena desirak sorraraztea batez ere. Norbaiti laket gertatzea ez da gizonarentzat erdiesteko baliabide bat baizik; emakumearentzat berriz huraxe da erdiestea. Eta eder agertu nahia, emakumeei hain sarri egotzia, ez da sentitzeko molde horrez

neurritz gain baliatzea baizik, eta beraz errealitate frogatzen duena. Amodioak bereizgarri huts duen jaidura hori azkenik, gizonen baitan ez da lehentasun bat baizik, balio duena, gehienez ere, bertze maitagai batek agian ahuldu baina suntsituko ez lukeen plazerra areagotzeko; emakumeen baitan aitzitik sentimendu sakon bat delarik, eta ez soilik iraungitzen die ezein desira arrotz, ordea ez die, naturaleza baino bortitzagoa baita, eta haren nagusigoari itzurtzen baitzaio, higuina eta nazka baizik sentitzen uzten, ustez irritsa sortu behar lukeen unean berean.

Eta ez uste gero egia orokor horien kontra salbuespenak, izan urri edo anitz, eta aipa litezkeenak, arrakastaz erakuts litezkeenik! Jendeen ahotsa dute salbuespen horiek berme, eta ahots horrek, soilik gizonentzat, bereizi du desleialtasuna aldakortasunetik: gizonak abantailetan hartzen dutelarik bereizkuntza hori, umiliagarria gerta behar lekiekeelarik; eta gure sexuarentzat nehork ez duelarik sekula beretu, non ez diren gure sexuari ahalkea dakarkioten emakume zital horiek, baliabide oro on iruditzen zaienak, haien



apalkeriaren sentimendu deitoragarritik salbatzen ahalko dituelakoan.

Uste izan dut, maite eder horrek, gogoeta horien bidez baliagarria litzaizukeela buru egin ahal izatea amodioak gure irudimenaz beti eta beti neurriz gain baliaturik sortzen dituen zorion betegin baten ametsezko ideiei: esperantza engainagarria, batbedera atxikia zaiona haatik, nahiz halabeharrez abandonatu behar duen, eta hura galtzeak xangrin dagoeneko sobera egiazkoak, grina bizi batetik ezin bereiziak, ernatzen eta ugaritzen dituen! Zure malurak leuntzeko edo gutxitzeko eginkizuna da une honetan bete nahi dudana, bete dezakedan bakarra. Erremedio-rik gabeko gaitzetan, kontseiluak sendabidea-  
rentzat baizik ezin daitezke izan. Soilik galdatzen dizut oroit dezazun ezen eri bati urrikaltzea ez dela eria kondematzea. E! Nor gara gu elkar gaitzesten ibiltzeko? Utz diezaiogun jujatzeko esku-bidea bihotzetan irakurtzen duen bakarrari; eta zilegi izan bekit sinestea ezen haren aita begietan bertute saldo batek irabaz dezakeela ahulkeria baten barkamena.

Baina, otoi arren, adiskide maitea, begira zaitetz indarra iragartzen duten bainoago erabateko etsipena iragartzen duten oldarrezko delibero horietarik: ez ahantz ezen zure izatearen jabe-goa bertze bati emanetz, zure hitzak baliatzearen, izate horretarik aldeztu aurretik bazutenaz eta hura galdatzetik sekula geldituko ez direnaz ez ditzakezula haatik zure adiskideak gabetu.

Adio, alaba maitea; har ezazu noizbehinka gogoan zure ama amoltsua eta sinets nazazu zu izanen zarela betiko, eta ororen gainetik, haren gogoeta maiteenen xedea.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko azaroaren 4an.*

## **CXXXI. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Beharrik, bizkonde, oraingo honetan aurrekoan baino kontentago naiz zutaz; baina egun, mintza gaitezen onez onean, eta igurikitzen dut zuri sinetsaraztea ezen desiratzen bide duzun abeniko hori zinez erokeria hutsa litzatekeela hala zuretzat nola niretzat.

Ez duzu oraino sumatu ezen plazerra, bi sexuen arteko bat egitearen arrazoi bakarra alabaina, ez dela haatik aski haien artean harremanik finkatzeko? Eta ez duzu orobat sumatu ezen plazerrak desira elkarren hurbilarazlea baldin badu aurretik, plazerraren ondoren nahitaez datorrela higuin elkarren aienatzailea? Izadiaren lege bat da, soilik amodioak alda dezakeena; eta badugu amodiorik nahi dugunean? Haatik, amodioaren beharretan gara beti: eta hori zinez litzateke arras gogaikarria, baldin konturatu ez bagina ezen zorionez aski dela amodioa alde batean existitzea. Zailtasuna zailtasun erdi bilakatua da halatan, eta askorik galdu behar izan gabe ere; alabaina, batak maitatzeko zorionaz gozatzen du, bertzeak laket izatekoaz, egia erran ez bertzea bezain bizia, baina engainatzeko plazerra juntatzen zaiona, oreka eginez; eta oro konpondua.

Baina erraidazu, bizkonde, gu biotarik nor arduratuko da bertzea engainatzeaz? Ezagutuko duzu jokoan ari zirela elkarri antzeman zioten bi zital haien historia: ez dugu deusik eginen, elkarri erran zioten, ordain ditzagun kartak erdi

bana; eta jokia utzi zuten. Jarrai diezaiozun, sinets nazazu, etsenplu zuhur horri, eta ez deza-  
gun elkarrekin gal elkarrengandik bereizirik  
arras ongi balia dezakegun denbora.

Froga diezazudan oraingoan zure interesek  
neurek bezainbat harrarazi didatela delibero  
hori, eta ez naizela ari ez beltzuriaz, ez gutiziaz,  
ez dizut gure artean adosturiko saria ukatzen:  
biziki ontsa dakit, bertzenaz, gau bakar batez  
aski eta sobera moldatuko garela; eta ez dut oro-  
bat dudarik egiten ezen jakinen dugula gau hori  
hainbat edertzen, non damuz baizik ez dugun  
finitzen ikusiko. Baina ez dezagun ahantz damu  
hori beharrezkoa zaiola zorionari; eta gure lilura  
zein ere den ezia, ez dezagun uste iraunkorra  
izan litekeenik.

Ikusten duzu ni ari naizela neure hitza bete-  
tzen, nahiz zuk ez duzun kitorik egin nirekin;  
zeren hartua behar nukeen jadanik ahalketi  
zerutiar horren lehen gutuna; eta hargatik, dela  
atxiki nahi duzulako oraino, dela agian sinetsa-  
zi nahi didazun baino gutxiago interesatzen zai-  
zun tratu baten baldintzak ahantzi dituzulako, ez  
dut deus jaso, deusik ere ez. Haatik, edo tronpa-

tzen naiz, edo debot amoltsu horrek anitz behar du izkiriatu: zertan ari ote da bertzela bakarrik denean? Ez du hain segur aisiara biltzeko bezain zentzu onik. Banituzke beraz, nahi izanez gero, liskar ttipi batzuk zuri egiteko; beude ordea isilean, neure azken gutunean menturaz izan nuen beltzuri doiaren ordainetan.

Orain, bizkonde, zuri eskari bat egitea baizik ez zait gelditzen eta eskari hori zuretzat da niretzat bezainbat: hots, gibela ezazu doi bat ausaz nik zuk bezainbat desiratzen dudana, zeren uste baitut ni hirira itzuli arte behar dela tenore hori atzeratu. Batetik, hemen ez genduke behar bezainbat libertate; eta, bertzetik, arriskutan nengoke nolarebait: zeren ez nuke jeltosia poxi baten eskas baizik Belleroche triste hori nigana areago erakartzeko, nahiz den hari batetik zintzilik. Ahotik birrikak boteaz daukat ni maitatzeko; hainbertzeraino non egungo egunean etengabe egiten dizkiodan ferekuak maleziazkoak baitira zuhurtziazkoak bezainbat. Baina, aldi berean, ikusten duzu ez nizukeela halatan sakrifizio handirik eginen! Elkarrekiko desleialtasun baten xarma are ziztagarriagoa izanen da.

Badakizu batzuetan dolutzen zaidala baliabide horietara makurtu beharra? Elkar maite genuen garaietan, maitasuna zela uste baitut, zoriontsua nintzen; eta zu, bizkonde?... Baina ezin itzul litekeen zorion batean zergatik oraino aritu? Ez, zuk zernahi erran ere, itzulera hori ezinezkoa da. Hasteko, egiten ahal ez zenizkidan edo egin nahiko ez zenizkidan sakrifizioak eskatuko nizkizuke, eta agian ez nituzke mereziko; eta bertzenaz, nola atxikiko zintuzket? O! Ez, ez, horretan ez dut pentsatu ere egin nahi; eta une honetan zuri izkiriartzen kaositzen dudan plazer-rra gorabehera, nahiago dut zugandik berehala aldaratu.

Adio, bizkonde.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko azaroaren 6an.*

## **CXXXII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

ROSEMONDE ANDREARI

Zuk nigana dituzun ontasunak nigan barneraturik, andrea, guztiz men egingen nieke, baldin

gelditu ez banindu, nolabait, ontasun horiek onartuz gero profanatzeko beldurrak. Zergatik, ikusten ditudalarik hain zoragarriak, aldi berean behar dut sentitu ez naizela haiek hartzeko duin? Ah! Ausartuko natzaizu bederen nire esker ona zuri adieraztera; miretsiko dut, oroz gain, bertutearen bihozberatasun hori, ez baititu gure ahulkeriak ezagutzen haiek urrikaltzeko ez bada, eta atxiki baitu haren xarma ahaltsuaz nagusigo hain ezti eta bortitza bihotzen gainean, bai halaber amodioaren xarmaren ondoan ere.

Baina merezi dezaket oraino nire zorionak askiesten ez duen adiskidantzarik? Gauza bera diot zure kontseiluez, badakit zenbat balio duten eta ezin jarrai nieke. Eta nola ez sinets erabateko zorionean, baldin une honetan ari banaiz sentitzen? Bai, baldin gizonak zuk erran bezalakoak badira, ihes egin behar zaie, gorrotagarriak dira; baina Valmont hain da haien antza izatetik urrun! Baldin haiek bezala grinaren oldar hori badu, zuk suharra deitzen diozuna, haren finta-sunaren sobera zenbatez ez ote zaion gainditzten! O, adiskidea! Nire atsekabeak zeureganatuko dituzula diostazu, goza ezazu bada nire

zorionaz; amodioari zor diot, eta amodio horren xedeak zenbatez areagotzen duen amodioaren beraren balioa! Agian ahulkeriaz maite duzu, hala diozu, zeure iloba? Ah! Nik bezala ezagut bazeneza! Nik itsu-itsuan maite dut, eta hark merezi baino askoz gutxiago hala ere. Egin ahal izan ditu hutsegite batzuk dudarik gabe, hark aitortua du; baina egiazko maitasuna nork eza-gutu du nehoiz hark bezala? Zer gehiago erran diezazuket? Sentitzen du maitasuna sorrarazten duen bezala.

Usteko duzu *gure irudimenaz beti neurriz gain baliatzen den ametsezko horietako ideia bat* dela hori; baina kasu honetan, zergatik bilakatu ote da Valmont amoltsuago, arduratsuago, zer erdietsirik ez duen ondoren? Aitortuko dizut ezen lehen kausitzen niola gogoetatsu bere baitaratzeko halako itxura, bakan baizik uzten ez zuena, eta usu ninderamana, nahigabe, hari buruz emanak zizkidaten uste faltsu eta krudeletara. Baina bere bihotzaren bultzadei hersturarik gabe men egin ahal diezaiekeenez geroztik, iduri du nirearen desira guztiak asmatzen dituela. Nork daki ez ote garen bata bertzearentzat jaio!



Haren zorionerako beharrezkoa izateko zoriona ez ote zen niretzat gordea! Ah! Ez bada lilura baizik, hil nadin bada lilura hori fini baino lehen. Ez ordea; nahi dut bizi Valmont maitatzeko, Valmont gurtzeko. Zergatik geldituko litzateke ni maitatzetik? Bertze zein emakume bihurtuko luke ni baino zoriontsuago? Eta, nihaur sentitzen ari naizenez, bertzeari sorrarazten zaion zorion hori da loturarik bortitzena, egiazko lotura bakarra. Bai, sentimendu zoragarri hori da amodioa goratzen duena, nolarebait arazten duena, eta arima amoltsu eta eskuzabal bat, nola baita Valmontena, merezi izateko gai egiten zaituena.

Adio, adiskide maite, agurgarri, bihozbera. Alferrik nahi nizuke luzaroago idatzi; hona bada Valmontek etortzea hitz eman didan orena, eta bertze ezein ideiak ihes egiten dit. Barka! Baina zuk nire zoriona nahi duzu, eta une honetan nire zoriona hain da handia non doi-doia naizen sentitzeko ere gauza.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 7an.*

# CXXXIII. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Zeintzuk dira bada, adiskide ederra, zure ustez eginen ez nituzkeen sakrifizio horiek, nahiz zuri atsegin ematea luketen sari? Emaidazu soilik haien berri, eta baldin sakrifizio horiek zuri eskaintzeaz dudatzen badut, uzten dizut begirunezko eskaintza horri uko egiten. E! Nola jua-tzen nauzu duela zenbait denboraz geroztik, baldin, zure bihozberatasunean berean ere, duda egiten baituzu nire sentimenduez edo nire indarraz? Egin nahi ez nituzkeen edo egiten ahal ez nituzkeen sakrifizioak! Beraz, amorostzat, mende-an hartutzat naukazu? Eta erdietsi izanari eman diodan balioa, presunari atxiki ote diodan susmoa hartzen didazu? Ah! Jainkoari eskerrak, ez naiz oraino hein horretaraino behekitua, eta neure burua eskaintzen dizut zuri hori frogatze-ko. Bai, frogatuko dizut, Tourvel andrearen bizkar frogatu ere. Hain segur, horren ondoren, ez zaizu duda izpirik geldituko.

Hainbat denbora eskaini ahal izan diot, hala uste dut, neure hitza hari eman gabe, bakan

kausitzen den motakoa izateko merezimendua gutxienez baduen emakume bati. Beharbada abentura hori sasoi mortuan sortu izanak areago lerrarazi nau halaber haren baitara; eta egungo egunean oraino, ur-laster handia doi-doia hasia delarik berriz, ez da harritzekoa abentura horrek ni ia osoki hartua izana. Egizu kontu ordea ezen doi-doia egin dituela zortzi egun hiru hilabeteko eginahalez gozatzen dudala. Hain sarri luzaroago gelditu izan naiz askoz gutxiago balio eta hainbertze gusta izan ez zitzaizkidan aferatan!... Eta zuk ez duzu sekula ezein ondoriorik atara nire kontra.

Eta bertzenaz, egiten ari naizen eginahalen benetako kausa nahi duzu jakin? Hona bada. Emakume hori berez da herabetia; hasieran, etengabe dudatzen zuen bere zorionaz, eta duda hori aski zuen bere zoriona durduzatzeko: hala non doi-doia hasia naizen hauteman ahal izaten noraino heltzen den nire ahalmena alor horretan. Jakiteko irrikan nintzen gauza bat da haatik; eta horrelako okasiorik ez da uste bezain errazki kau- sitzen.

Lehenik, anitz emakumerentzat, plazerra plazerrak izaten da beti eta hori baizik ez da sekula; eta emakume horien ondoan, zeinahi ere dela edergarri jartzen diguten dohaina, ez gara mezulariak baizik izaten, mandatari soilak, merezimendu osoa ihardunari zor diotenak, eta, haien artean, gehien egiten duena izaten da beti hobekien egiten duena.

Bertze emakume suerte batean, egungo egunean ausaz ugarienean, maitalearen omenak, maitalea aurkari bati edeki izanaren plazerrak, bertze batek maitalea aldiz edekiko ote dion beldurak, horiek guztiek hartuak dituzte emakumeak: guk badugu naski zerikusirik, gutxi edo asko, gozatzen ari diren zorion gisako horretan; zorion hori ordean atxikiagoa zaio zernolakoei presunari baino. Gure bidez datorkie, eta ez gugandik.

Kausitu beharrean nintzen beraz, oharrez eta arretaz ari so egon ahal izateko, emakume fin eta sentikor bat, zeregin bakarra amodioa zukeena, eta, amodioan berean ere, bere maitalea baizik ikusiko ez zuena; emakume bat, zirrarabete bihotzetik jalgiko zitzaiona zentzumenera

heltzeko, ohiko bidetik joan ordeztu; emakume bat, ikusi dudana konparazio (eta ez naiz lehen egunaz ari) plazerretik dena negar ateratzen, eta geroxeago bere arimari ihardesten zion ele batean irritsa berriz kaustitzen. Azkenaz goiti, emakume horrek behar zuen halaber berezko xalotasuna, dagoeneko gaindiezina izaten dena haren peko egotearen ohituraz, eta bere bihotzeko ezein sentimendu disimulatzen utziko ez ziona. Eta, onartuko duzunez, gisa horretako emakumeak bakanak izaten dira; eta sinets dezaket ezen, emakume hau izan ezik, ez nuela gisa horretako emakumerik sekula kaustituko.

Ez litzateke bada harrigarria emakume horrek bertze ezeinek baino luzaroago ni atxikitzea, eta baldin haren baitan egin nahi dudana emakume hori zoriontsu, ezinago zoriontsu, egin dezadan eskatzen badu, zergatik zorion horri egin uko, batez ere baliagarria zaidalarik, gaitzesgarria gertatu ordeztu? Baina adimena ihar-dunean izateak, bihotza esklabo dela erran nahi ote? Ez, dudarik gabe. Halaber, abentura hau ukorik egin gabe arras balioetsi izanak ez dit eragotziko bertze abenturatan ibiltzea, edo hau

bera ere abentura atseginagoen truk sakrifika-  
tzea.

Libro naiz, halako gisaz non ez naizen hala  
ere Volanges ttipiaz ezaxolatu, nahiz ez naukan  
hari batere atxikia. Bere amak hirira ekarriko du  
hiru egun barru; eta nik, atzodanik, jakin dut  
harekin komunikatzeko bideak ziurtatzen: diru  
pixka bat atezainari eta ele goxo batzuk gelazai-  
nari eta horra auzia bideratua. Uler dezakezu  
Dancenik horren baliabide sinplerik ez asmatu  
izana? Erran bezate gero amodioak asmotsu  
bihurtzea dakarrela! Aberetzen du aitzitik men-  
dean hartua duena. Eta, nik amodiotik defendat-  
zen jakin ez! Ah! Zaude lasai. Dagoeneko, egun  
gutxi barru, bertze zirrara batez ahultzera noa,  
erdibituz, sentitu dudan zirrara agian sobera  
bizia; eta erdibitze bakarra ez bada aski, aniztu-  
ko ditut.

Prest izanen naiz orobat egoiliar gazte hori  
bere maitale zuhurrari bihurtzeko, zuri komeni-  
garria irudituko zaizun orduko. Ez dut uste niri  
hori eragozteko arrazoirik baduzunik jadanik; eta  
nik gogo onez egingen diot zerbitzu nabarmen

hori Danceny gaixoari. Hainbertze ere zor diot, zinez, egin dizkidan zerbitzu guztien truk. Kezka bizian da orain Volanges andrearen etxean hartuko ote duten jakinminez; lasaitzen dut ahal bezainbat, seguraturik hari ezen, nola edo hala, ahal dudan bezain sarri zoriontsu egingen dudala; eta horren goaitan, nigan du oraino utzia bere gutunen ardura, *bere Cécile* heltzen denean berriz nahi baitu gutun bidezko harremanetan harekin hasi. Sei gutun eman dizkit dagoeneko, eta emanen dizkit oraino bertze bat edo bi egun zoriontsua baino lehen. Mutil horrek ez bide du anitz zereginik!

Utz dezagun ordea haur bikote hori, eta gatozen geurera; mintza ahal izan nadin soil-soilik zure gutunak eman didan esperantza arras eztiatz. Bai, atxikiko nauzu dudarik gabe, eta ez dizut barkatuko duda egin izana. Nehoiz utzi ote diot zugana jarraikia izateari? Gure loturak lasai-tuak izan dira, ez hautsiak; gure arteko haustura ustezko hura ez zen gure irudimenaren hutsegite bat baizik izan: gure sentimenduak, gure inte-

resak, ez dira hargatik gutxiago lotuak gelditu. Etsia itzuli den bidariaren antzo, hark bezala onartuko dut ezen zoriona utzi nuela esperantzaren bila joateko, eta d'Harcourt-ek bezala erranen dut:

*Zenbatenaz arrotz nituen ikusi, hanbatenaz  
neure aberria nuen maitatu.*

Ez ezazu beraz gehiago guduka nigana zakartzan ideia edo are gehiago sentimendua; eta, gure ibilera anitzetan plazerrak oro dastatu ondoren, dugun goza behinola sentitu genuen eta orain are zoragarriagoa irudituko zaigun plazerra ezin haietariko ezeinekin konpara litekeela sentitzeko bozkarioaz!

Adio, adiskide xarmanta. Onartzen dut zure itzuleraren zain egotea: baina itzulera hori azkar ezazu, eta ez ahanztu zenbatez ere naukan irrikan.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 8an.*



## CXXXIV. GUTUNA

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Egiazki, bizkonde, haurrak bezalakoa zara, ezin haien aitzinean deusik erran, eta ezin deusik erakutsi berehala hartu nahi izaten ez dutenik! Ideia sinple bat bururatu zait, hartan baratu nahi ez dudalako gaztigua ere egiten dizut, eta hala eta guztiz ere, aipatzen dizudanetik beretik, neurriz gain baliatzen duzu, nire arreta hara erakartzeko; ni hari atxikitzeke, gogoia bertzeratu nahi dudanean; eta zure desira zoroak nire gogoa-aren kontra neretzera, nolarebait, behartzeko. Eskuzabala ote da zure partetik zuhurtziaren zama guztia niri bakar-bakarrik jasatera utzi izana? Berriz diotsut, bai are sarriago errepikatu ere neure artean, proposatzen didazun abenikoa zinetan da ezinezkoa. Une honetan erakusten didazun eskuzabaltasun guztiaz lotuko bazintzaizkio ere abeniko horri, zer uste duzu, nihaur ere ez naizela adeitsu, eta onartuko nukeela zure zorionari kalterik lekarkiokeen sakrifiziorik?

Beraz, egia ote, bizkonde, Tourvel andreari atxikia zauzkan sentimendua iruditu bat baizik

ez izatea zuretzat? Amodioa da, edo ez da amodiorik nehoiz existitu bertzela: ehun moldez duzu ukatzen; mila moldez ordea frogatzen. Zer da bada, konparazione, zeure buruagana (zeren niri egia erraten didazula uste baitut) baliatzen duzun itzurbide hori, zeinak erranarazten baitizu ezen emakume hori zuri atxikia gordetzeko desira ezin ezkuta ezin guduka duzuna, hari so egiteko gogoa dela? Ez ote dute erranen ez duzula nehoiz bertze ezein emakumerik zoriontsu, arras zoriontsu bilakatu? Ah! Duda egiten baduzu, oroimen ahulekoa zara! Ez ordea, ez da hori. Soil-soilki zure bihotza neurritz gain ari da zure adimenaz baliatzen, eta arrazoi txarrak erranarazten dizkio: ni ordea, arras axolatua bainaiz nire burua ez tronpatzera, ez naiz hain kontenta erraza.

Hala beraz, zure ustean niretzat higuinagarririk ziratekeen ele guztiak arta handiz kenarazi dizkizun zure adeitasunari oharturik, ikusi dut hargatik ezen, ausaz zuhauren oharkabea, ez zarela ideia berei gutxiago atxikia. Alabaina, ez da jadanik Tourvel andre maitagarri zerutiarra, *emakume harrigarri, emakume fin eta sentikor*

bat da, halatan bertze guztiak salbuetsarazten dizkizuna; *emakume bakan* eta *antzekorik ezin kausi litekeen* gisarako bat da finean. Gauza bera diot *bortitzena* ez den xarma ezezagun horrez. Hots bada! Hala biz: baina xarma hori ez baituzu orain arte sekula kausitu, pentsa liteke etorkizunean ere ez duzula gehiago kausituko, eta eginen zenuke beraz ezinbertzeko galera. Baldin horiek, bizkonde, amodioaren sintoma ziurrak ez badira, ezin kausi liteke ezein sintomarik.

Zaude ziur, oraingoan, beltzuririk gabe mintzo natzaizula. Ez gehiago beltzuritzea hitz emana diot neure buruari; ongi baino hobeki ohartu natzaio beltzuria segada arriskutsu bihur zitekeela. Sinets nazazu, adiskide baizik ez gaitzen izan, gauden adiskide. Soilik emaizkidazu eskerrak neure burua defendatzen erakutsi dudak kuraiagatik: bai, kuraiagatik; zeren batzuetan kuraia behar izaten baita, makurra dela sumatzen den xede bat ez hartzeko ere.

Neure iritzira arrazoibidez ekarri nahi zaitudalako noa hain zuzen ere hertsiki eskatuko nizkizukeen eta egiten ahalko ez zenizkidakeen

sakrifizioez egiten didazun galderari ihardestera. Nahita baliatzen dut *hertsiki eskatu* hitza, zeren eta ziur bainaiz alabaina ezen, bertatik bertara, hertsiegia naizela irudituko zaizula: hainbat hobe ordea! Zure ukoagatik samurtu beharrean, eskerrak dizkizut bihurtuko. Hara, ez dut zurekin itxurak egiten ibili nahi, menturaz premia banu-keen arren.

Hertsiki eskatuko nizuke bada, horra krudel-keria! ezen Tourvel andre bakan harrigarri hori aurrerantzean emakume arrunt bat baizik izan ez dadin zuretzat, den bezalako emakume bat soil-soilik: zeren ez gaitezen tronpa; bertzeengan ikusi uste dugun xarma hori, gudan baizik ez baita existitzen; eta maite den izakia soilik amodioak baitu guztiz edertzen. Hor eskatzen dizudana, denik eta ezinezkoena izanik ere, ausaz eginahal guztiaz prometatuko zenidake, baita zin eginen ere halaber; baina, aitor dizut, ez dizut alferrikako mintzaldirik sinetsiko. Zure jokabide osoak baizik ez ninduke bilduko.

Bada gehiago oraino, gutziatsua nintzateke. Bost axolako litzaidake Cécile ttipiaren sakrifizioa, zuk gogo txit onez eskainia. Aitzitik zerbitzu

neketsu hori egiten segizenezan eskatuko nizu-  
ke, nik bertze manurik eman arte; dela halatan  
neure nagusigoa neurriz gain baliatzea laket  
nukeelako; dela, bihozberatasun gehiagoz eta  
bidezkiago jokaturik, zure sentimenduak neure  
esku izatea aski nukeelako, zure plazerrak  
zapuztu behar izan gabe. Zernahi dela ere, obe-  
ditua izan nahi nuke; eta nire manuak hagitz  
zorrotzak lirатеke!

Orduan hain segur zuri eskerrak bihurtzera  
behartua sentituko nintzateke; nork daki? agian  
zuri saririk ematera ere behartua. Segur aski,  
konparazione, ezin jadanik jasanen nukeen  
ausentzia hori laburtuko nuke. Azkenik, bizkon-  
de, berriz ikusiko zintuzket, eta... zer gisatan iku-  
siko?... Gogoan izanen duzu ordea ezen honako  
hau ez dela solasaldi bat baizik, ezinezko asmo  
baten kontaketa soil bat, eta hori ez dut nik  
bakarrik ahortzi nahi...

Badakizu neure auziak doi bat kezkatua nau-  
kala? Azkenean xehe-xehea jakin nahi izan dut  
nire baliakizunak zeintzuk ziren; neure aboka-  
tuek lege batzuk, eta batez ere *aginpide* anitz,  
haiek hala diote, dizkidate aipatzen: baina nik ez

dut horrenbertze arrazoi eta justizia ikusten. Kasik dolutua zait abenikoa errefusatu izana. Sosegatzen naiz haatik pentsaturik prokuradorea trebea dela, abokatua hitz etorri handikoa, eta auzilaria ederra. Baldin hiru bide horiek baliagarriak ez balira, aferen urratsa oro aldatu beharko nuke, eta orduan zertan litzateke antzinako ohituren errespetua?

Egungo egunean auzi hori da hemen atxikia naukan gauza bakarra. Bellerocherena finitua da: auzia kitorik, gastua ordaindurik. Kexu da gaur arratseko dantzaldiaz; zereginik ez duenaren kexua alta! Hirira itzultzen naizelarik, bere libertate osoa bihurtuko diot. Sakrifizio dolugarri hori dagiot, eta sakrifizio hori hari eskuzabala iruditu izana dut kontsolazio.

Adio, bizkonde, izkiria iezadazu sarri: zure plazerren kontaketa xehea duket, aldezu bederen, jasaten ari naizen asperraren ordaina.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko azaroaren 11n.*

# CXXXV. GUTUNA

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

ROSEMONDE ANDREARI

Entseiatzen naiz zuri izkiriatzera, nahiz ez dakidan oraino izkiriatzeko ahalko dizudan. Ah! Jainkoa, pentsatzetik beretik bozkarioaren soberania nuela neure azken gutunean behaztopa! Etsipenaren soberania dut egun hertsagarri: soilik hark dit oinazeak sentitzeko indarra uzten, eta adierazteko behar dudana edekitzen.

Valmontek... Valmontek ez nau jadanik maite, ez nau sekula maitatu. Amodioa ez da horrela joaten. Tronpatzen nau, traditzen, laidotzen. Bil litezkeen zorigaitzak eta umiliazioak oro ari naiz sentitzen, eta harengandik datozkit.

Eta ez uste gero susmo huts bat denik: hain nintzen susmorik izatetik urrun! Dudak ezin bozkaria nazake. Ikusi egin dut: zer erraten ahal lidake bere burua zuritzeko?... Zer axola zaio ordea! Entseiurik ere ez du eginen... Dohakabea! Zer eginen diote hire liskarrek eta hire malkoek! Ez zagon gero hitaz arduratua!...

Egia da beraz sakrifikatu nauela, saldu ere nauela... eta nori?... Izaki zital bati... Zer diot ordea? Ah! Hura erdeinatzeko eskubidea ere galdu dut. Hark ni baino betebehar gutxiago traditu ditu, ez da ni bezain kulpadun. O! Atsekabea zeinen dolugarria den, kontzientziaren ausikien gainean bermatua delarik! Ari naiz sentitzen oinazeen sobera. Adio, adiskide maitea; bilakatu izanagatik ni zure urrikiaren denik eta ezgaiena, urrikiko nauzu hala ere, baldin zenbat sofritzen ari naizen hauteman ahal bazeneza.

Neure gutuna berrirakurri dut, eta ohartu naiz deusen berririk ez diezazukeela eman; entseiatuko naiz beraz gertakizun krudel hori zuri kontatzeko kuraia hartzera. Atzo izan zen; itzuli nintzenez geroztik hura zen etxetik kanpo afaldu behar nuen lehen aldia. Valmont ikustaldia egitera jin zitzaidan bortz orenetan; nehoiz ez zitzaidan hain amoltsua irudit. Jakinarazi zidan ez zuela gogoko jalgitzeko nuen xedea, eta pentsa dezakezunez berehala hartu nuen etxean gelditzekoa. Haatik, bi oren barru, eta bet-betan, nabarmen aldatu zuen jarreraz eta doinuz. Ez dakit laketu ahal ez zitzaion zerbait itzuri ote



zitzaidan; zernahi dela ere, handik gutxira, nigandik aldaratzera behartzen zuen afera batez oroitze irudi bat egin zuen, eta joan zen: ez ordea niri damu txit biziak erakutsi gabe, samurrak iruditu zitzaizkidanak, eta orduan egiazkoak zirela uste izan nituenak.

Baitaratua nintzelarik, komenigarriagoa iruditu zitzaidan hasierako nire eginbeharrez ez eza-xolatzea, eginbehar horiek betetzeko astia banuenez. Garbiketa finitu, eta karrozara igo nintzen. Ondikotz, karrozazainak operaren aurretik iraganarazi ninduen, eta irteeraren zurrunbiloan gertatu nintzen; Valmonten karrozari ohartu nion nigandik lau urrats aitzinago, eta nirearen ondoko lerroan. Bet-betan bihotza taupadaka zitzaidan hasi, ez ordea beldurrez; eta nire karrozak aitzina egin zezan, bertze ideiarik ez nerabilan gogoan. Horren ordezt, harenak gibelera behar izan zuen egin, eta nirearen ondoan egokitu zen. Berehala aitzinatu nintzen: hura harridura nirea kausiturik haren ondoan emagaldu bat, gisa horretan aski ezaguna zena! Gibelatu nintzen, pentsa dezakezun bezala, eta niretzat hura aski gertakari bihotz-erdiragarria

zen dagoeneko: baina ondo gustarik sinetsiko baduzu ere, horra non neska hura bera, isilmandatu gorrotagarri batek ustez nire berri eman baitzion, ez zen karrozako leihatilatik aldaratu, ezta abarrots betean irri-karkaraka ni behatzetik gelditu ere.

Hain nintzen ezdeustua gelditu, non haatik afaritara joan behar nuen etxera gida nindezaten utzi nuen: han gelditzea ordea ezinezkoa izan zitzaidan; kordea galtzeko zorian sentitzen nintzen une oroz, eta batez ere malkoei ezin eutsi nien.

Etixeratu nintzelarik, Valmont jaunari izkiriatu nion, eta bertatik igorri nion neure gutuna; ez zen etxean. Heriozko egoera horretarik nahi bainuen zernahi gustarik ere jalgi, edo hura sekulako berretsi, berriz igorri nuen gutuna, Valmonten zain egon zitezen manaturik: baina nire sehia gauerdia baino lehen itzuli zen, erranik ezen karrozazainak, itzuli baitzen hura ere, erran omen ziola ezen bere nagusia ez zela gau hartan etxeratuko. Iruditu zait ez nuela gaur goizean bertze zereginik, nire gutunak hari berriz galdatu, eta nire etxera gehiago jin ez dadin otoiztea

baizik. Eman ditut alabaina horretarako behar ziren manuak; baina dudarik gabe, alferrikakoak ziren. Eguerdi inguru da; ez da oraino etorri, eta ez dut harengandik ezein elerik hartu.

Orain, adiskide maitea, ez dut deusik gehiago zuri errateko: jakitun zaude beraz, eta nire bihotzaren ezagutzaile. Zure adiskidantza sentikorra luzaroan oraino ez atsekabetzea dut neure esperantza bakarra.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 15ean.*

## **CXXXVI. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

VALMONTEKO BIZKONDEARI

Dударик gabe, jauna, atzo gertatu zenaren ondoren, ez duzu gehiago igurikiko nire etxean har zaitzadan, eta dudarik gabe ez duzu halaber askorik desiratzen! Txartel honen xedea ez da beraz hainbertze gehiago jin ez zaitezen zuri otoiztea, nola baita sekula existitu behar ez ziren gutunak zuri berriz eskatzea; eta, baldin une batez gutun horiek interesgarriak iruditu bazaiz-

kizu, sorrarazia zenuen itsumenaren froga gisa, orain haiez arras ezaxolatua izanen zara zeren itsutasun hori iraungia baita, eta ez baitute suntsitu duzun sentimendu bat baizik adierazten.

Ezagutzen eta aitortzen dut huts egin dudala zugan ezarririk ni baino lehen hainbat eta hainbat emakumeri kalte egin dion fidantzia bera; karia horretara ez dut neure burua baizik akusatzten: ez nuen uste ordea erdeinura eta laidora makurraraz nindezazun merezi nuenik. Uste nuen ezen oro zuri sakrifikaturik, eta bertzeren eta nihauren estimuaren eskubideak soilik zuretzat galdurik, jendeek baino zorrotzago juja ez nindezazun iguriki nezakeela haatik, zeren jendeen iritziak emakume ahula eta emakume galdua bereizten baititu oraino, bitarte ezinago handi batez. Mundu guztiarenak lirатеkeen hutsegite horiek dira aipatzen dizkizudan baka-rak. Amodioarenak isilean gorde ditut; zure bihotzak ez lioke nireari ulertuko. Adio, jauna.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 15ean.*

# CXXXVII. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEARI

Oraintxe eman didate, andrea, zure gutuna; irakurri ahala lastu naiz, eta doi-doia utzi dit hari ihardesteko indarra. Zer nolako uste izugarria duzu bada nitaz! Ah! Dudarik gabe, baditut akatsak; eta halako moldekoak, non bizi naizen egu-netan ez baitizkiot neure buruari barkatuko, zuk zeure bihozberatasunaz estal bazenitza ere. Baina zuk egozten dizkidazun horiek zenbatez ere egon diren beti nire arimatik urrun! Nork, nik! Nik zu umiliatu! Nik zu doilortu! Nahiz maite zaitudan bezainbat errespetatu nik zu; nahiz zeure duin jujatu nauzun unea arte ez nik harrotasuna ezagutu. Itxurek tronpatu zaituzte; eta aitor dizut nire kontra egon zitezkeela; bada itxura horiei buru egiteko zer ere behar baita ordea, ez ote zenuen zeure bihotza baitan? Eta bihotza ez ote zaizu irauli nireaz zer deitoraturik bazukeela pentsatzetik beretik? Sinetsi diozu haatik! Beraz, ez soil-soilik uste izan duzu eldarnio izugarri horretara makurtzeko gauza nintze-

la, beldurra izan duzu berebat nigana dituzun ontasunek arriskutan jarri ote zintuzten. Ah! Baldin amodioak hein horretaraino apaldu zaituela uste baduzu, nihaur ere arrunt doilorra naiz bada zuretzat?

Idea horrek eragiten didan sentimendu dolo-rezkoak hertsatua, hura gaitzestera galtzen dut hura suntsitzera baliatu behar nukeen denbora. Oro aitortuko dizut; bertze burutazio batek baratzten nau oraino. Berriro kontatu behar ote dizkizut suntsitu nahi nituzkeen egintzak, eta bizi naitzeno barkamen galdez edukiko nauen une bateko hutsegite batean jarri behar ote dugu hala zuk nola nik arreta, nahiz oraino hutsegite horren kausa ezin asmatu nabilen, eta haren oroitzapenak orobat eraginen didan umiliazioa eta etsipena sekula betiko? Ah! Baldin, neure burua akusaturik, zure sumina biztu behar badut, ez duzu bederen zeure mendekua urrun bilatu beharko; aski izanen duzu nire kontzientziaren ausikien mende ni uztea.

Haatik, nork sinetsiko luke? Gertakizun horrek zugana sentitzen dudana xarma ahalguztiduna du kausa nagusia. Xarma horrek berak

luzaroegi ahantzarazi zidan afera garrantzitsu bat, ezin gibela zitekeena. Beranduegi aldaratu nintzen zugandik, eta bilatzen ari nintzen presuna ez nuen kausicu. Operan aurkituko nuelakoan nintzen eta urrats hura orobat izan zen probetxurik gabea. Émilie, zeina han kausicu nuen, zeina ezagutu bainuen bai zu bai amodioa eza gutzetik urrun nintzen garai batean, Émilie karrozarik gabe zegoen, eta galdu zidan eraman nezala bere etxera, handik lau urratsera. Onartu nuen, ezein ondoriorik ekarriko ez zidalakoan. Baina orduan zu kausicu zintudan; eta berehala sentitu nuen halabeharrez errudun jujatuko ninduzula.

Zu higuintzeko edo zu atsekabetzeko beldurrak hain du nigan indar handia, non berehala hauteman ahal zitekeen eta berehala hautemana izan zen. Aitor dizut orobat beldur horren beraren eraginez entseiatu nintzela emakume horri arrenka harraraztera ez agertzeko deliberoa; adeitasunaren begiramen hori amodioaren kontrakoa gertatu zen. Gisa horretako emakume guztiak bezala, indarrez beretua duen nagusigoaz, neurriz gain baliatu ezean, segur ez egotera

ohitua, Émilie ondo begiratu zen hain okasio nabarmena ihes egiten uztetik. Zenbatenaz nire asaldua gehitzen ikustenago, hanbatenaz bere burua agertzero entseiatzenago; eta haren alaitasun eroak, zu xede zintuzkala zuk une batez uste ahal izateak ahalke gorriturik naukanak, nire atsekabe krudelaren zirrara zuen kausa, eta hura bera nire errespetuak eta nire amodioak sortua zen.

Horraino, dudarik gabe, dohakabeagoa naiz erruduna baino; eta *mundu guztiarenak lirakeen hutsegite horiek, aipatzen dizkidazun bakar horiek*, ez daitezke nire gainean ezar, zeren hutsegite horiek ez baitira existitzen. Amodioarenak ordea alferrik isildu dituzu: ez ditut zuk bezala isilean gordeko; interes sobera handi batek behartzen nau neure isiltasuna haustera.

Ez uste, neure buruaren ezin ulertuzko galtze horren nahasmenduan, oinaze min bat sentitu gabe gogora ekartzen ahal dudarik oroitza pen hura. Hutsegite horiek barneratuak zaizkidalarik, onartuko dut damu hori neure baitan eramatea, edo zain egonen naiz denborak, neure amoltsutasun eternalak eta damuak barkamena noiz



emango. Nola isil ninteko ordea, oraino errateko dizudana zure adeitasunari dagokionean?

Ez uste nire hutsegitea barkatzeko edo gutxitzeko itzurbide baten bila ari naizenik; erruduna naizela aitortzen dut. Baina ez dut aitortzen, ez dut sekula aitortuko hutsegite umiliagarri hori amodioaren hutsegitetzat har ahal litekeenik. E! Zer dukete berdinik berehala ahalkea eta damua dakarren zentzumenen ezusteko batek, nork bere buruaren une bateko ahanzturak, eta arima fin batean baizik sor ez daitekeen eta soilik estimuaren gainean berma daitekeen sentimendu garbi batek, zeinak azken-azkenik zoriona baitu fruitu! Ah! Amodioa ez horrela profana. Begira zaitez batez ere zeure burua profanatzetik, nehoiz ezin nahas litezkeen gauzak ikuspegi berean biltzetik. Utz itzazu emakume zital eta zarpailduak beren gogoaz bertzera sortzen ahal zaien aurkakotasunaren beldurrez, eta jelsia orobat krudel eta umiliagarri baten oinazeak jasanez: zuk, ordea, ken begiak zure behakoak zikinduko lituzketen izaki horietarik: eta Jainko Jauna bezain aratz baitzara, laidoa haren gisara zigor ezazu, sentitu ere gabe.

Zein zigor ezarriko didazu ordea, orain sentitzen ari naizen oinazea baino mingarriagoa izan litekeenik? Zu higuindu izanaren damuarekin, zu atsekabetu izanaren etsipenarekin, zure gai ez naizelako uste etsipengarriarekin pareka litekeenik? Zigorrari emana zara! Eta ni, kontsolazio eske nator: ez ordea kontsolazioak merezi ditudalako; behar ditudalako, eta soilik zugandik jindakizkidakeelako baizik.

Baldin, bet-betan, nire eta zure maitasuna ahantzirik, eta nire zoriona dagoeneko gaitzetsirik, oinaze eternal batera lerrarazi nahi banauzu aitzitik, zilegi duzu: jo; baina baldin, bihozberatasunari edo sentikortasunari emanago, gogoan bazenitu oraino sentimendu arras amoltsu, gure bihotzen elkargarri haiek; arimaren irrits hura, betiere berpiztua eta betiere biziago sentitua; gutarik bakoitzak bertzeari zor zizkion egun hain ezti, zorionez hain bete haiek; amodioaren ontasun haiek guztiak, soilik amodioak emanak! Nahiagoko duzu agian zeure ahalmena ontasun horiek berpizteko ezen ez suntsitzeko baliatu. Finean zer erran niezazuke? Oro galdu dut, bai neure erruz galdu ere; baina zure ongi-eginen

bitartez oro berreskura dezaket. Erabakia zuri dagokizu orain. Soilik hitz bat gehiago erranen dizut. Atzo oraino, zin egiten zenidan nire zoriona ziurra zela, zure esku zegokeen heinean! Ah! Andrea, egungo egunean etsipen eternalera makurraraziko nauzu?

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 15ean.*

## **CXXXVIII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Berriz diotsut, adiskide ederra: ez, ez naiz amoros; eta zernolakoek rol hori jokatzera behartu izana ez da nire errua. Onar ezazu bertzerik gabe, eta zatoz; berehala duzu zuhaurk ikusiko zenbatez ere mintzo natzaizun egiaz. Neure frogantzak atzo egin nituen, eta gaur gertatuko denak ezin suntsi litzake.

Herabeti amoltsu horren etxean nintzen bada, eta hain zuzen ere bertze ezein zereginik gabe: zeren Volanges ttipiak, bere egoera gorabehera, V\*\*\* andrearen dantzaldi goiztiarrean eman behar baitzuen gau osoa. Hasieran aisiak

egonaldi hura luzatzea desirarazi zidan; eta, karia horretara, sakrifizio ttipi bat galdatua ere nuen; baina onartua izan zen orduko, horra non zuk setatsu ikusi uste didazun, edo bederen egozten didazun amodio horren ideiak neure buruari hitz emana nion plazerra durduzatu zuen; hala non bertze desirarik ez nuen, ideia hori gezur beltz hutsa zela neure buruari seguratu eta zuri sinetsaraztea izan ezik.

Xede bortitz bat hartu nuen beraz; eta aski estakuru arin bat eman ez han utzi nuen neure eder hura, dena harridura, eta are atsekabetuago dudarik gabe. Ni ordea lasai-lasai joan nintzen operara Émilieren bila; eta hark kontu eman diezazuke nola, gaur goizean goizik elkarrengandik bereizi garen arte, ezein kezka ez dituen gure plazerrak asaldatu.

Aski kezkabide ederra banuen haatik, neure ezaxolakeria guztizkoak kezkatik begiratu ez baldin banindu: zeren jakinen duzu ezen doi-doia lau etxeko tarte nuela ni nengoen etxetik operara, eta Émilie karrozan neramalarik, debot latz horrena nirearekin zehatz lerrokatu zela, eta ustekabeko eragozpen batek ia oren laurden

erdi batez bata bertzearen ondoan utzi gintuela. Eguerdian bezalatsu argi zegoen, eta ez zegoen ihes egiteko biderik.

Bada gehiago haatik; bururatu zitzaidan Émilieri erratea hura zela gutuneko emakumea. (Oroituko duzu agian harako erokeria hura, Émilie idazmahai baliatu nuenekoa.) Émiliek ez baitzuen ahortzi, eta irriari emana baita, ez zen baratu harik eta *bertute hura*, hala deitzen zion, guztiz bere gogara aztertu ez zuen arte, bai irrikarikailaz zalapartaka beltzuria sortzeko moduan aztertu ere.

Bada oraino gehiago; emakume jeloskor hark ez zidan bada, arratsetik beretik, gutun bat etxera igorri? Ez nintzen etxean: baina, setaren setaz, bigarren aldiz igorri zidan, ni etorri arte zain egoteko manaturik haren sehiari. Nik ordea, Émilieren etxean gelditzea deliberatu nuenez geroztik, karroza etxera bidalia nuen, gaur goizean bila etortzeko manua bertzerik gabe emanik neure karrozazainari: eta nire etxera heldu zelarik, mezulari amoros hura kausitu baitzuen, bururatu ez zitzaion bada gau osoan ez nintzela etxeratuko soil-soilki hari erratea. Ohartuko

zenion albiste horren ondorioari, eta sumatuko duzunez, itzuli nintzenean horra non kanpora aurtikia izana nintzen, egoera hark bere baitan zekarren duintasun guztiaz.

Beraz abentura hori, zure ustean azkengabea dena, gaur goizean finitua zatekeen, ikusten duzun bezala; baldin finitu ez bada, ez da, zuk usteko duzun bezala, abentura horretan jarraitzea ardura zaidalako: ez ordea, baina ez zait, batetik, abandona nazaten egokia iruditu; eta, bertzetik, sakrifizio horren ohorea zuretzat nahi izan dut gorde.

Txartel zorrotz horri sentimenduzko karta luze batez ihardetsi diot beraz; arrazoi luzeak eman dizkiot, eta amodioaren gainean bermatu dut neure ardura guztia, arrazoi horiek on iduri dakizkion. Erdietsi dut dagoeneko. Bertze txartel bat jaso dut, zorrotz-zorrotza hori ere, eta haustura eternala berresten duena, egoki den bezala; ez du haatik doinu berbera. Oroz gain, ez nau berriz ikusi nahi: hartu duen xede hori lau aldiz iragarria zait erabateko erabakitasunaz. Deliberatu dut beraz astirik galdu gabe haren etxean agertzea. Sehia bidalia dut dagoeneko, atezaina-

ren kargu har dezan; eta bertatik bertara, nihaurren joanen naiz barkamena hartzera: zeren gisa horretako hutsegiteetan, bakarra baita erabateko barkamena erdiesteko era, eta ez daiteke batbedera aurrean dela baizik irits.

Adio, adiskide xarmanta; lasterka noa gertara handi horretan entseiatzera.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 15ean.*

## **CXXXIX. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

ROSEMONDE ANDREARI

Zenbatez ere egiten diodan liskar neure buruari, adiskide sentikorra, neure atsekabe iragankorrez sobera eta goizegi zuri mintzatu izanaz! Orain nire kausaz zaude atsekabetan; nigandik datozkizun xangrin horiek bere izanean diraute oraino, eta ni, aldiz, zoriontsua naiz. Bai, oro ahanztzia dago, barkatua; erran dezagun hobeki, oro konpondua izan da. Oinazezko eta larridurazko egoera horren ondoren, lasaitasuna

eta atsegintasunak etorri dira. O, nire bihotzaren bozkarioa zuri nola adierazi! Valmont errugabea da; ezin errudun izan horren maitasun handiaz. Samin handiz liskartzen nizkion hutsegite larri laidogarri haiek, ez ziren hark eginak, eta baldin, puntu bakar batean, bihozberatasunaren beharretan egon banaiz, ez ote nuen nik ere bidegabekeriarik barkakizun?

Ez dizkizut xeheki kontatuko Valmont justifikatzen duten egintzak edo arrazoiak; adimenak berak ere ez lituzke agian behar bezala hautesmanen: arrazoi edo egintza horiek sentitzea bihotzari baizik ez dagokio. Baldin hala ere ahula naizela uste bazeneza, zure iritzia ekarriko dut neurearen berme. Gizonentzat, zuhaurk diozunez, desleialtasuna ez baita aldakortasuna.

Ez uste ez dakidanik ezen bereizkuntza horrek, gehienen usteak alferrik zilegitzen badu ere, adeitasunari min gutxiago ematen ez dionik: baina nireak ba ote luke zer deitoraturik, Valmontena anitzez gehiago ari delarik sofritzen? Nik ahanzten dudana hutsegite hori bera, ez uste



hark bere buruari barkatzen dionik edo hartaz kontsolatzen denik; eta, haatik, haren amodioaren eta nire zorionaren soberaniaz zenbatez ez ote du hutsegite arin hori konpondu!

Edo nire zoriona handiagoa da, edo hobeki sentitzen dut haren balioa, galdu izanaren beldur egon naizenez geroztik: baina erran diezazuket hala ere ezen, baldin eta jasan berri ditudan bezain xangrin guztiz krudelak berriz paira ahal banitza, ez nukeela usteko geroztik dastatudan bozkariozko emendioa garestiegi ordaindua nukeenik. O, ama amoltsua, liskar egiozu zeure alaba adeitasunik gabeari behar baino lehen zuri mintzatuz atsekabetu zaituelako; liskar egiozu maitatzetik baratu behar ez zuen hura ausartegi jujatu eta gezurrez gaitzerran duelako; baina zuhurtziarik gabea dela aitortzen diozularik ere, ikus ezazu zorientsu, eta emenda ezazu haren zoriona zuk ere zeure eginez.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 16an, gauean.*

# CXL. GUTUNA

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Nola liteke, adiskide ederra, zugandik erantzunik ez hartzea? Nire azken gutunak haatik erantzun bat merezi zuela uste dut; eta duela hiru egun hartua behar banuen ere, zain nago oraino! Beltzuri nago bederen; beraz ez natzaizu neure afera handiez mintzatuko.

Adiskidetzeak erabateko ondorioa izan duela; liskarren eta mesfidantzaren ordeztu, ez dituela ezintasun berriak baizik sortu; nire xalotasun goganbehartuari zor zaizkion desenkusak eta ordainbideak egungo egunean nik hartzen ditudala; horrez guztiaz ez dizut hitzik erranen: eta bart gaueko gertakari ustekabeagatik izan ez balitz, ez nizuke izkiriaturko. Baina gertakari hori zure ikasleari baitagokio, eta hain segur ere ez baita izanen zuri horren berri emateko tenorean, ni naiz eginkizun horrez arduraturko.

Asmatuko dituzun edo asmatuko ez dituzun arrazoen kariatara, badu dagoeneko bizpahiru egun Tourvel andreaz ezaxolatua naizela, eta arrazoi horiek ez baitzuten indarrik Volanges tti-

piagan, sarriago joaten nintzen haren ondora. Atezain adeitsuari esker, ez nuen ezein behaztoparik gainditu behar: eta zure ikasleak eta biok bizimolde eroso eta ondo antolatu bat generaman. Ohiturak ordean ezaxolakeria dakar: lehen egunetan nehoiz ez ginen aski zuhurak geure segurantzarako, sarraila atzean ere dardaraz ginen. Atzo, gure zabarkeria ezin sinetsizkoak mezutu behar dizudan istripua eragin zuen; eta baldin niretzat ez bazen izualdi bat baizik izan, neskabila ttipi hori garestiago ari da ordaintzen.

Ez ginen lotan, baina irritsak dakarren atsedinari emanak ginen, eta horra non aditzen dugun gelako atea deblauki zabaltzen. Hartzen dut berehala ezpata, hala neure burua nola gu bion ikaslea defendatzeko; aitzinatzen naiz eta ez dut nehor ikusten: baina atea zabalik zegoen alabaina. Argia bagenuenez, bila ari izan nintzen, eta ez nuen arimarik kaustu. Orduan oroitutut nintzen ezen ohiko izariak ahortzi genituela; eta ate soilik bultzatua, edo gaizki itxia, dudarik gabe berez ireki zen.

Neure lagun ahalketi haren lagunartera bildurik hari sosegu ematera, ez nuen jadanik

ohean kausitu; ohearen eta hormaren artean gordea edo eroria zen: nolanahi ere, etzanik zegoen kordea galdurik, eta gorputz dardara aski bortitzak izan ezik, bertze higidurarik ez eginenez. Egizu kontu zenbatez ere asaldu nintzen! Erdietsi nuen hala ere neskatile hura ohera berriz eramatea, bai eta kordera ekartzea ere; baina min hartua zuen erorikoan, eta ondorioak luzaro gabe sentitu zituen.

Giltzurrintetako oinazeak, sabeleko min handiak, are zalantza gutxiagoko sintomek berehala argitu ninduten haren egoeraz: baina horren berri hari emateko, aldezturik zein egoeratan zegoen erran behar izan nion; zeren susmorik ere ez baitzion hartzen. Menturaz nehor ez da nehoiz, neska hori arte, inozentziari hain atxikia egon, inozentzia galtzeko behar zen guztia biziki ontsa eginez! O! Neska horrek ez du gogoeta eginez denborarik galtzen!

Baina anitz ari zen galtzen nahigabetan, eta nik banekien xede bat behar nuela hartu. Beraz harekin adostu nuen ezen berehala joanen nintzela medikuaren eta zirujauaren etxera, eta bila joanen zitzaizkiela gaiztigaturik, oro jakinaraziko

niela berebat, sekretua atxikiko zutela hitz emanarazirik; berak, aldiz, gelaria deituko zuela; isilmandatu eginen ziola edo ez ziola eginen, nahi zuen bezala; baina laguntza galdea eginen zuela, eta batez ere Volanges andrea iratzarrezaten debekatuko: ama kezkatzeko beldurrez den alaba baten arta adeitsu eta berezkoaz.

Nire bi mandatuak eta nire bi aitortzak ahalik lasterrena egin nituen, eta gero etxera joan nintzen, eta oraino ez naiz handik jalgi; baina zirujaua, lehenagotik ezagutzen bainuen, eguerdian jin zait eriaeren egoeraren berri ematera. Ez nintzen tronpatua; baina igurikitzen du hark etxe hartan nehor deusi ohartuko ez zaiola, baldin ez bada istripurik gertatzen. Gelaria sekretuaren jakitun dago; medikuak izen bat eman dio eritasunari; eta afera hau bertze mila bezala konponduko da, non jendeen hizpidera ekartzea aurrerago baliagarria izanen ez zaigun.

Baina ezein interes komunik ba ote da zure eta nire artean? Zure isiltasunak dudaraziko ninduke; ez nuke sinetsiko, baldin neure nahi biziak esperantzari atxikitzeko baliabide guztiak bilartziko ez balizkit.

Adio, adiskide ederra; musu bat zuretzat,  
herraren herraz.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 21ean.*

## **CXLI. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Ene Jainkoa, bizkonde, zeinen gogaikarria zaidan zure seta! Zer axola zaizu nire isiltasuna? Baldin isiltasuna gordetzen badut, uste duzu eskas zaizkidala neure burua defendatzeko arrazoiak? Ah! Jainkoari hala nahi dakiola! Ez ordea, arrazoi horiek zuri erratea gusta zaidalako nago isilik.

Erraidazu egia; zeure burua engainatzen duzu, edo ni tronpatu nahian zabilta? Zure erranen eta zure eginen artean dagoen aldeak ez dit bi sentimendu horien hautua baizik uzten: zein da egiazkoa? Zer nahi duzu beraz nik zuri erratea, nihaiek zer pentsatu ez dakidalarik?

Iduri du lehendakariaren emaztearekin izan duzun azken gertaldiaren karietara merezimendu handitan duzula zeure burua; baina zer frogatu

tzen du bada horrek zure sistemaren alde, edo nirearen kontra? Hain segur ere nehoiz ez dizut erran emakume hori hainbertze maite duzunik, non ez duzun engainatuko, non ez dituzun atseginak edo errazak iduri lekizkizukeen okasio guztiak baliatuko; ez nuen dudatzen berdin izanen ez litzaizukeenik asetzea bertzeren batekin, lehen etorri berriarekin, are soilik emakume horrek sorrarazi zizkizun desirak ere; eta ez naiz harritzen, uka ezin zaizun espiritu libertin baten karietara, behin asmoz egin dezazun, bertze mila aldiz okasioz egin duzuna. Nork ez daki munduko gauzarik usuena dela hori, zuen guztien ohitura, gaizkiletik gizon *arrunteneraino*? Egungo egunean hori egitetik begiratzan dena nobelako heroitzat daukate, eta ez da hori, nire ustean, egozten dizudan akatsa.

Baina nik erran dudana, nik uste izan dudana, oraino uste dudana da ez duzula lehendakariaren emaztea gutxiago maite; ez, egia erran, amodio arras garbi eta arras amoltsuz, bai ordea zuk izan dezakezun amodioaz; konparazione, atsegintasunik edo dohainik gabeko emakumea atsegingarri edo dohatu kausiarazten duenaz;

hura goimailara jaso, eta bertze guztiak bigarren mailan jartzen dituenaz; emakume horri oraino atxikia zauzkanaz, nahiz laidotzen duzun; nire ustean sultan batek sultanaren emazte begikoenari buruz senti dezakeenaren gisarakoaz, nahiz amodio horrek ez dion eragotziko maiz nahiago izatea odaliska soil bat. Konparazio hori hanbatenaz bidezkoagoa iruditzen zait, non zu, hura bezala, nehoiz ez baitzara emakume baten ez maitale, ez adiskide; baina betiere haren tirano edo haren esklabo. Beraz, segur baino segurago naiz ezen arras umiliatu, arras behehitu zarela maitasunezko xede eder horrekin onezkoak egiteko! Eta erdietsi izanaz sobera bozkariaturik, barkamena iristeko tenorea heldua dela uste duzunik beretik, bazter uzten nauzu *gertakari handi hori* dela kausa.

Zure azken gutunean berean ere, ez baldin badidazu emakume hori baizik aipatzen, da *zeure afera handiez* deusik erran nahi ez didazulako; afera horiek hain garrantzitsuak iruditzen zaizkizu, non sujet hori isilean gordetzea niretzat zigorra izan litekeela iruditzen baitzaizu. Eta zuk bertze emakume bat deliberatuki hobetsi izana-



ren mila frogatzen horien ondoren, lasai galdetzen didazu *interes komunikatzailea ote den zure eta nire artean?* Kasu otoi, bizkonde! Noizbait erantzuten badizut, nire erantzuna ezin ezeztatuzkoa izanen da; eta ni une honetan erantzuteko beldurrez egotea, sobera erratea da menturaz. Ez dut beraz horretaz gehiago mintzatu nahi.

Historia bat kontatuko dizut, ez dezaket bertzerik egin. Ez duzu agian historia hori irakurtzeko edo hari kasu eman eta ontsa ulertzeko astirik izanen? Libro duzu. Ez da, okerrenera jota ere, historia galdu bat baizik izanen.

Nire ezagun bat setatu zen, zu bezala, ohore handirik egiten ez zion emakume batekin. Bazuen, aldizka, abentura horrek, goiz edo berandu, kalte egingen ziola sentitzeko aski zentzu on: baina nahiz ahalke gorritzen zen, ez zuen abentura harekikoak egiteko kuraiarik. Haren durduza hanbatenaz zen handiagoa, non adiskideen aurrean arrunt libro zelakoan hantustetua baitzen; eta non jakitun baitzen batbedera irrigarriago bilakatzen dela beti, bere burua defendatzen duen heinean. Gisa horretan bizi zen, ergelkeriak egitetik gelditu gabe, eta *ez da nire errua*

gero erratetik gelditu gabe. Gizon horrek bazuen andre bat txit adiskidea, gizon hura une batez jendaurrean hordi egoera hartan erakusteko eta haren ahalkea halatan ezin ezabatuzko bihurtzeko tentatua izan zena; baina hargatik, eskuzabailagoa baitzen gaiztoa bainoago, edo ausaz bertze ezein arrazoiengatik, azken baliabide bat baliatzera nahi izan zen entseiatu, zer gerta ere, bere adiskideak bezala *ez da nire errua* errateko tenorean egoteko. Helarazi zion bada, bertze iritzirik gabe, segidan doakizun gutuna, bere gaitzerako balia ahal zezakeen sendabide baten gisara.

«Orotaz aspertzen gaitun, aingeru hori, izadiaren lege bat dun; ez dun nire errua.»

«Beraz baldin egungo egunean asperturik banago duela lau hilabete hilgarritz geroztik osoki hartua eduki nauen abentura batez, ez dun nire errua.»

«Baldin, konparazione, izan baldin badut hainbat amodio nola hik bertute, eta hain segur ere sobera erratea izanen dun, ez dun harrigarria bata fini izana bertzea finitzearekin batera. Ez dun nire errua.»

«Ondorioz, badun zenbait denbora engainatu haudala: baina hire amoltsutasun gupidagabeak nolarebait horretara behartzen nindinan! Ez dun nire errua.»

«Egungo egunean, itsu-itsuan maite dudan emakume batek hi sakrifikatzea eskatzen zidan. Ez dun nire errua.»

«Bazekinat okasio ederra dela hitza jan iza-naz espantua egiteko: baina izadiak gizonei jarraikitasuna baizik eman ez badie, emakumeei eman dielarik seta, ez dun nire errua.»

«Sinets nazan, bertze maitale bat hauta ezan, nik bertze amorante bat hartu dudan beza-la. Kontseilu hori ona dun, hagitz ona; gaitzesten badun, ez dun nire errua.»

«Adio, aingeru hori, plazerrez haut hartu, dolurik gabe haut uzten: ausaz higana naun itzu-liko. Hala zoan mundua. Ez dun nire errua.»

Ez da, bizkonde, azken saio horren ondorioa, eta geroztik gertatu zena, zuri errateko unea: baina hitz ematen dizut neure lehen gutunean erranen dizudala. Han kausituko duzu orobat hitzarmena berritzeko zure proposamenari egi-

nen diodan *ultimatum*-a. Ordu arte, adio bertzerik gabe...

Izan ere, har ezazu nire esker ona Volanges ttipiaz eman dizkidazun xehetasunengatik; ezteien biharamuneko gorde beharreko artikulubat da, gaitzerranen kazetan argitaratzeko. Horren goaitan, har itzazu nire doluminak zure oinordekoaren galeragatik. Gabon, bizkonde.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko azaroaren 24an.*

## **CXLII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Alafede, adiskide ederra, ez dakit gaizki irakurri edo gaizki ulertu dudan hala zure gutuna, nola han kontatzen didazun historia, bai eta haren baitan zegoen gutun eredua ere. Erraten ahal dizut ordea azken hori ohi ez bezalakoa irudituzaidala eta egokia ondoriorik sortzeko: beraz soil-soilki kopia, eta are soilkiago diot lehendakariaren emazte zerutiar horri igorri. Ez dut astirik galdu, zeren eskutitz ezti hori bart gauean bidalia izan baita. Hala nahiago izan dut,

lehenik atzo izkiriaturko niola hitz eman niolako; eta pentsatu dudalako orobat gau osoa ez dukeela aski, bere baitara biltzeko eta *gertakari handi horrez* gogoeta egiteko, esapide horren kariatara egin behar badidazu ere bigarrenez listar.

Igurikitzen nuen neure maitearen ihardespena gaur goizean zuri igorri ahal izatea: baina eguerdi inguru da, eta ez dut fitsik hartu oraino. Hiru orenak arte igurikiko dut; eta baldin ez badut orduan berririk, nihaur joanen naiz berri bila; zeren, adeitasunaren alorrean, lehen urratsa egitea baita gehien gostatzen dena.

Orain, pentsa dezakezunez, irrika bizian naiz emakume bat, behar izanez gero, sakrifikatzen ez jakin izanaz guztiz ere susmotan hartua izan den zure ezagun horren historia azkenik nola bukatzen den jakiteko. Ez ote da zentzatu? Eta haren adiskide eskuzabalak ez ote dio barkatu?

Orobat nago zure *ultimatum*-a hartzeko irrikan: zuk adeitasun handiz erran bezala! Azken urrats horri oraino amodiorik ikusten ote diozun jakiteko irrikan batez ere. Ah! Dudarik gabe, bada bai amodiorik, eta anitz gainera! Norentzat

ordea? Hala ere, ez dut fitsik baliarazi nahi, eta oro igurikatzen dut zure ontasunetarik.

Adio, adiskide xarmanta; ez dut gutun hau bi orenak arte hertsiko, haren erantzun urratua honekin batera igortzen ahalko dizudalako esperantzan.

*Arratsaldeko bi oren t'erdietan.*

Deusik ere ez oraino, ordua biziki berantes-ten dut; ez dut bertze ezein elerik eransteko astirik; baina oraingoan, berriz uko eginen diezu amodioaren musurik eztienei?

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 27an.*

## **CXLIII. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK

ROSEMONDE ANDREARI

Urratua da, andrea, nire zorionaren lilura irudikatua zuen oihala. Zorigaiztoko egiak argitzen nau, eta ez dit uzten herio segur eta hurbil bat baizik ikusten, ahalkearen eta kontzientziaren

ausikien arteko heriobidean. Bide horri lotuko natzaio... Maiteko ditut neure oinazeak, baldin bizitza laburtuko badidate. Atzo hartu nuen gutuna igortzen dizut; ez diot ezein gogoetarik erantsiko, gutunak bere baitan dakartza. Deitoratzeko tenorea iragana da, sofritzea baizik ez da gelditzen. Ez nago urrikiaren beharretan, indarrarenetan baizik.

Har ezazu, andrea, eginen dudan adio bakarra, eta bete ezazu nire azken erregua; utz nazazu neure benturara, ahanzt nazazu guztiz, ez nazazu gehiago lurraren gainean irudika. Malurak badu zedarri bat, non adiskidantzak berak sofrimenduak areagotzen dizkigun eta ez dituen sendatzen ahal. Zauriak hilgarriak direlarik, ezein laguntza bihozgabea bilakatzen da. Etsipena ez bertze ezein sentimendu arrotza zait. Deus ez zait komenigarriago nola neure ahalkea biltzera noan gau iluna. Neure hobenak han ditut negarretan auhendatuko, baldin egin badezaket oraino negarrik! Zeren, atzodanik, ez baitut malkorik isuri. Nire bihotz zimela malkoz gabetua da.

Adio, andrea. Ez erantzun. Gutun krudel honen gainean egina dut bertze ezeinik sekula gehiago ez hartzeko zina.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 27an.*

## **CXLIV. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Atzo, adiskide ederra, arratsaldeko hiru oretan, berriak berantesten nituenez, emakume eder abandonatu horren etxera joan nintzen; jalgi zela erran zidaten. Ez nuen, perpaus horretan, ni etxean ez hartzeko uko bat baizik ikusi, zeinak ez baininduen ez beltzuritu, ez harritu; eta joan egin nintzen, urrats hark emakume gutiz adeitsu hura niri ohore handiz hitz bat erantzutera estekatuko zuelako uste osoan. Bedera-tzi orenak inguruan, erantzun hura hartzeko gogoak neure etxean berariaz sar-jalgi bat eginarazi zidan, baina ez nuen fitsik kaustu. Isiltasun horrek harriturik nindukan, ez bainuen igurikatzen, eta manatu nion neure sehiari joan zedila berri galde, presuna sentikor hura hilik ala hil



hurrena zen jakitera. Azkenik, etxeratu nintzelarik, jakinarazi zidan Tourvel andrea goizeko hamaika orenetan jalgia zela alabaina, gelaria lagun; ...ko komentura eraman zezaten manatu zuela, eta arratseko zazpi orenetan igorri zituela karroza eta mirabeak, etxean igurika ez zezaten erranarazirik. Hain segur ere, egokia du araura biltze hori. Komentua du alarguntsa batek egiazko aterbe; eta baldin jarrai baleza hain delibero laudagarriari atxikia, emakume horri dagoeneko zor dizkiodan esker on guztiei emendatuko diet abentura honek dukeen ospearena.

Errana nizun, duela zenbait denbora, ezen zure kezkak gorabehera, ez nintzela munduaren agertokian leinuru berri batez dirdiran baizik agertuko. Betoz bada kritikari zorrotz horiek, nobeletako amodio dohakabera makurtu izana akusatzek ninduten horiek; egin ditzatela haur-tura lasterrago eta dirdiratsuagoak: ez ordea, hobeki ari bitez; betoz kontsolatzaile gisa, bidea egina dute. Hots bada! Bentura daitezela soil-soilik nik osorik egin dudana bidean barna; eta haietarik batek garaipenik ttipiena erdietsi baleza, lehenengo lekua utziko diot. Baina guztiek

orok sentituko dute ezen, artoski aritzen naizelarik, ezabaezina dela uzten dudan zirrara. Ah! Dударик gabe, honako hau gisa horretakoa izanen da; eta neure bertze garaipenak oro ezdeustzat nituzke, baldin noizbait eduki behar baneza emakume horren aldera aurkari hobetsirik.

Hartu duen xede horrek neure buruari diodan maitasuna lausengatu du, aitor dizut: baina haserre nago zeren nigandik hainbertzeraino aldentzeko bezainbat indar kausitu baitu bere baitan. Gu bion artean izanen da beraz bertze oztoporik nik ezarritakoez bertzalde! Zer! Baldin harengana hurbildu nahiko banu, hark agian ez luke nahiko; zer diot? Ez luke agian desiratuko, ez luke agian zorionik gorena halatan iritsi nahiko! Hori dea bada maitatzea? Zer uste duzu, adiskide ederra, hori pairatu behar dudala? Ezin ninteke saia, konparazione, eta neure hobe beharrez, emakume hori onezkoak egiteko aukera betiere desiratu bezain igurikia aztertzeko heinera eramaten? Urrats hori egitera entseia ninteke hari garrantzirik eman gabe, eta, beraz, zuri itzalik egin dakizun gabe. Aitzitik! Elkar adi-turik eginen genukeen entseiu soil bat litzateke;

eta baldin erdiets baneza ere, ez litzateke atsegina iruditu bide zaizun sakrifizio bat zure gogara berritzeko baliabide bat baizik. Orain, adiskide ederra, saria jasotzea gelditzen zait, eta irrika bizian naukazu zu noiz etorriko. Zatoz bada laster berriz zeure maitaleagana, zeure plazerretara, zeure adiskideengana eta abenturen uhinera.

Volanges ttipiarena ezin hobeki joan da. Atzo, kezkaren kezkaz ezin geldirik egon nintekeenez, Volanges andrearen etxeraino joan nintzen, neure ibilera anitzetan. Zure ikaslea egongelan kaustu nuen jadanik, eriazen beztiduraz oraino, baina eriondo betean, eta nehoiz baino hagitz lirainago eta interesgarriago. Zuek emakumeok, antzeko egoeran, hilabete oso bat eginen zenuketen kadera luzean etzanik: alafede, biba andereñoak! Honako honek egiaz osoki sendatua zen jakiteko gogoia eman dit.

Orobat erran behar dizut ezen zure Dancen *sentikortua* kasik zoratu beharrean zuela neska ttipiaren istripu horrek. Hasieran xangrinez; egun bozkarioz. *Bere Cécile* eri zen! Pentsa dezakezunez, halako nahigabeak aise galarazten du burua. Egunean hiru aldiz norbait igortzen

zuen haren berri jakitera, eta egun bat bakarra ere ez zen iragaten Danceny bera han agertu gabe; azkenaz goiti galdatu zuen, amari izkiriatu zion karta eder batean, hain presuna maitea sendabidean zelako zorionak erratera joateko baimena, eta Volanges andreak baietz erran dio: beraz han kausitu nuen gizon gazte hura iraganean bezala finkatua, ez hain etxekotua ordea, haizu ez bailitzaion.

Harengandik ditut xehetasun horiek jakin; zeren harekin batera jalgi bainaiz, eta mintzara-zi baitut. Susmorik ez zenioke hartuko ikustaldi horrek eragin dion ondorioari. Halako arraizia, halako desira, halako gainezkaldi ezin adierazizkoak. Nik, higidura handiak maite ditudan honek, burua arras galarazi diot, oso egun gutxi barru bere eder hori are hurbilagotik ikusteko helme-  
nean ezarriko dudala seguratzuz Dancenyri.

Alabaina, deliberatua naiz neska mutilari bihurtzera, nire esperientzia bururatua den orduko. Zuri nahi natzaizu osoki eskaini; eta bertzenaz, merezi luke zure ikaslea nire ikasle ere izan ledin, senarra baizik ez engainatzeko? Bere maitalea eta batez ere bere lehen maitalea tronpa-

tzea, horra lan hagitz bikaina! Zeren nitaz den bezanbatean, ez baitiot neure buruari amodio hitza erran izanaz zer liskarturik.

Adio, adiskide ederra; zatoz bada ahalik lasterrena nigan duzun nagusigoaz gozatzeraz, nagusigo horren begirunezko eskaintza hartzeraz eta niri saria ordaintzeraz.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 28an.*

## **CXLV. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Serioski, bizkonde, lehendakariaren emaztea utzi duzu? Harentzat egin nizun gutuna igorri diozu? Zinez xarmanta zara; eta mukuru bete duzu nire esperantza! Onez onean dizut aitor ezen garaipen horrek orain arte lortu ahal izan ditudan guztiak bainoago lausengatzen nauela. Emakume hori arras goersten dudala irudituko zaizu ausaz, ez du aspaldi apalesten nuelarik; ez zera: ez baitut hura abantailatu; zu baizik: horra zer gauza jostagarria eta zinez zoragarria.

Bai, bizkonde, anitz maite zenuen Tourvel andrea, eta maite duzu oraino ere; ero baten gisara zenuen maite: baina karia horretara zu ahalkerazirik libertitzen nintzelako, ausardiaz didazu sakrifikatu. Mila sakrifikatuko zenituzkeen, trufa bat jasan baino lehenago. Nora garamatzan haatik harrokeriak! Jakintsuak arrazoi du, erraten duelarik harrokeria dela zorionaren etsaia.

Non zinateke orain, maltzurkeria soil bat egin nahi izan ez banizu? Ez naiz ordea nehor tronpatzeko gauza, ondo dakizunez; eta, etsipenera eta komentuan sartzera behartuko baninduzu ere, arrisku horretara benturatzen naiz, eta men dagiot neure garaileari.

Baldin errendatzen banaiz haatik, ahulkeria hutsagatik da: zeren eta nahi izanez gero, zenbat jukutria egin nitzake oraino! Eta mereziko zenituzke menturaz? Miretsirik nauka, konparazione, zeinen maltzurki edo zeinen baldarki proposatzen didazun ezti-eztia utz diezazudan lehendakariaren emaztearekiko harremanari berriz lotzen. Haustura horren merezimendua zuretzat gorde eta gozamenaren plazerrak ez

galtzea txit komeniko litzaizuke, ezta? Eta nola beraz ustez sakrifizioa den hori zuretzat dagoe-neko ez bailitzateke sakrifizio, neure gogara berritzea eskaintzen didazu! Antolamendu horrez, debot zerutiar horrek usteko luke bera baizik ez dela zure bihotzaren hautu bakarra, eta ni aldiz harro nintzateke aurkari hobetsia nintzatekeelako; bi-biak engainatuak izanen ginатеke, zu ordea pozik, eta gainerakoak zer axola dio?

Deitoragarria da, asmoak egiteko dohain handia duzun arren, hain dohain gutxi izatea asmoak betetzeko; eta gogoetatu gabeko urrats bakar batez, gehien desiratzen duzuna erdieste-ko behaztopa garaiezin bat zuk zeure buruari ezarri izana.

Zer! Harreman horri berriz lotzeko xedetan zinen, eta nire gutuna izkiriatu ahal izan duzu! Arras moldakaitza naizela uste izan duzu beraz! Ah! Sinets nazazu, bizkonde, emakume batek bertze baten bihotzean jotzen duelarik, oso bakan huts egiten du gune sentikorrena kausitzetik, eta zauria sendaezina izaten da. Emakume hau jotzen nuen bitartean, edo hobeki erran zure ukaldiak gidatzen nituen bitartean, ez dut

ahantzi ezen emakume hori neure aurkaria zela, ezen zuri une batez ni baino desiragarriagoa iruditu zaizula, eta azken finean, haren azpian nauzula ezarri. Baldin mendekuan tronpatu banaiz, onartuko dut hoben hori bizkarreratzea. Beraz, on iduritzen zait baliabide guztiak baliatzera entseia zaitezten: gomendatu ere egiten dizut, eta hitz ematen berebat ez naizela zure garaipenaz haserretuko, baldin garaipenik erdiets baze-neza. Hain nago sujet horren karietara lasai, non ez dudan gehiago aipatu nahi. Mintza gaitezten bertze zerbaitez.

Konparazione, Volanges ttipiaren osasunaz. Itzultzen naizenean albiste onak erranen dizkida-zu hari buruz, ez dea egia? Arras gogara entzuenen nituzke. Horren ondoren, zuri dagokizu deliberatzea zer komeni zaizun gehiago, neska ttipi hori bere maitaleari bihurtzea, edo Valmondarren adar berri bat Gercourten izenaz sortzera bigarren aldiz entseiatzea. Ideia hori aski irrigarria iruditu zait, eta hautua uzten dizudalarik ere, otoi ez har haatik azken xederik, horretaz elkarrekin mintzatu baino lehen. Ez da sobera gibelatzea, zeren eta berandu gabe Parisen izanen



bainaiz. Ez diezazuket egun zehatza erran; baina ez ezazu dudarik egin ezen, heldu orduko, lehen lehenik zuri dizudala jakinaraziko.

Adio, bizkonde; nire aharrak, nire maltzurke-riak eta nire liskarrak gorabehera, betiere anitz zaitut maite, eta nire maitasunaren frogantza zuri egiteko ari naiz prestatzen. Ikusi arte, adiskidea.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko azaroaren 29an.*

## **CXLVI. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK DANCENY ZALDUNARI

Azkenean, banoa, adiskide gaztea, eta bihar arratsean Pa-risen izanen naiz berriz. Lekualda-tzeak dakartzan eragozpen guztien erdian, ez dut nehor hartuko. Haatik, ezein isilmandatu presakako nahi badidazu egin, arau orokorretik salbuetsiko zaitut; zu baizik ez zaitut ordea salbuetsiko: beraz, gorde eza-zu otoi nire itzulera-ren sekretua. Valmont bera ez da jakitun egonen.

Erran izan balidate, duela zenbait denbora, sarri nire fidantzia osoaren jabe izanen zinela, ez nukeen sinetsiko. Baina zure fidantziak nirea du ekarri. Tentatua naiz sinesteko baliatu izan duzula trebezia, ausaz sedukzioa ere. Oker handia litzateke bederen! Bertzenaz, orain ez litzateke arriskutsua; baduzu hain segur bertze egin-kizunik! Heroi andrea agertokian delarik, ez da ardurarik izaten isilmandatariaz.

Beraz, erdietsi dituzun garaitia berriak niri jakinarazteko astirik ere ez duzu izan. Zeure Cécile urrun zenuenean, egunak ez ziren aski luzeak zure auhen eztiak aditzeko bezain. Oihartzunari erranen zenizkiokeen, baldin ni han egon ez banintz auhen horiek aditzeko. Geroztik hura eri izan delarik, berriz ohoratu ere nauzu zeure kezken kontakizunaz; norbait behar zenuen horiek errateko. Orain ordea maite duzun hura Parisen delarik, sasaira jina, eta batez ere noiz-behinka ikusten duzularik, orotarako aski zaizu, eta hala zure adiskideak ez dira jadanik deus zuretzat.

Ez natzaizu karia horretara liskarrean ari; zure hogeitaz urteek dute hobena. Alzibiaderen

garaitik zuganaino, ez ote dakigu gaztejendeak ez duela adiskidantza xangrinetan baizik ezagutu? Batzuetan bozkarioak zentzugabe bihurtzen ditu gazteak, sekula ez ordea fidakor. Sokratek bezala erranen dut: *Atsegin dut adiskideak maluros direlarik nigana jin daitezen*; baina filosofoa zen heinean, ez zituen adiskideak berantesten jiten ez zitzaizkionean. Horretan ez naiz hura bezain zuhurra, eta emakume baten ahulezia osoaz sentitu dut zure isiltasuna.

Ez uste gero zorrotza naizenik; hori baizik ez nuen behar! Gabezia horiei ohartarazten didan sentimenduak berak kuraiatz dizkit gabeziok jasanarazten, nire adiskideen bozkarioaren frogado edo kausa direnean. Ez naiz beraz bihar gauean zure gainean kontatzera ausartzen, non ez zaituen amodioak libro eta zereginik gabe uzten, eta debeku duzu sakrifiziorik den mendrena niri egitea.

Adio, zalduna; jai zinez ederra litzateke niretzat zu berriz ikustea: jinen zarea?

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko azaroaren 29an.*

# CXLVII. GUTUNA

VOLANGES ANDREAK ROSEMONDE ANDREARI

Hain segur ere ni bezainbat atsekabetuko zara, adiskide duina, Tourvel andrea zein egoeratan dagoen jakinik; atzodanik eri da: eritasunak hain du biziro kolpatu, eta hain sintoma larriak da agertu, non zinez asalatu bainaiz.

Sukar kiskalgarria, nahasdura bortitz eta kasik jarraikia, egarri aseezina, horra nabari zaion guztia. Medikuek diote ezin deus iragar dezaketela oraino; eta sendabidea hainbat zaila-goia izanen da, non eriak setaz baitu errefusatzeko ezein erremedio suertea: hainbertzeraino non odola ateratzeko indarrez eutsi behar izan dioten; eta geroztik ere indarra bertze bi aldiz baliatu behar izan dute lotura berrezartzeko, bere nahasduran kendu nahi baitu betiere.

Zuk ikusi baituzu, nik bezala, indarrez hain eskas, hain herabeti eta hain ezti, uler dezakezu lau presunek doi-doia atxiki dezaketela, eta denik eta azalpenik txikiena eman nahi izanez gero hari, ezin adierazizko haserre biziak hartzen dutela? Nire ustean, badut beldurra eldar-

niao baino zerbait gehiago ez ote den, eta ez ote zaion zinez burutik egin.

Beldur hori areago gehitu du herenegun gertatu zenak.

Egun horretan, goizeko hamaika orenak inguruan ...ko komentura heldu zen, gelaria lagun. Nola etxe horretan hezia izan baita, eta batzuetan han sar-jalgi bat egiteko ohitura baitu, ohi bezala abegi egin zioten, eta mundu guztiari lasai eta osasuntsu zegoela iruditu zitzaion. Bi oren inguru barru, galdegin zuen ea egoiliar garaian erabili zuen gela hutsik zen, eta baietz erantzun ziotelarik, mojaburuak eta bertze moja batzuek gelara lagun egin zioten. Orduantxe erran zuen sekula utzi behar ez zuen gela hartan egoitza hartzera etorria zela; eta gaineratu zuen *hilotz* baizik ez zela jalgiko handik: horiek izan ziren haren hitzak.

Hasieran ez zuten jakin zer erran: baina lehen harridura iraganik, jakinarazi zioten ezen emazte zen heinean baimen berezirik gabe hura han hartzea ez zutela zilegi. Arrazoi hori eta bertze mila alferrikakoak izan ziren; eta harrezkero, setatu zen ez jalgitzera ez soilik komentutik, bai

orobat bere gelatik ere. Azkenean, arratseko zazpi orenetan, amore eman zuten, eta gaua han egin zezan onartu. Haren zalgurdia eta sehiak etxera igorri zituzten, eta biharamuneko utzi zuten xede baten hartzea.

Segurtatu didatenez, arrats osoan itxura edo egonmoldea galdua eta nahasia izatetik urrun, bata zein bertzea egokia eta lasaia omen zituen; eta soil-soilik lauzpabortz aldiz lotu omen zitzaion ametsari hain sakon, non ez baitzezaketen hari hitz eginez handik jalgiazez; eta, aldi bakoitzean, bere onera etorri baino lehen, eramaten zituen bi eskuak bekokira, indarrez her-tsatzen zuela irudi: hala non han zegoen moja batek ea buruko minik zuen galdegin ziolarik, hark erantzun aurretik fermuki begi eman zion, eta erran baitzion azkenik: «Ez dut hor gaitzik!» Geroxeago, bakarrik utz zezatela galdatu zuen, bai otoiztu ere ez egiteko aurrerantzean galdera gehiagorik.

Denak joan ziren, gelaria salbu, zorionez gela berean lo egin behar baitzuen, bertze leku baten eskasez.

Neska horrek kontatu duenari jarraiki, haren etxekoandrea lasai samar egon zen gaueko hamaika orenak arte. Oheratu nahi zuela erran zuen orduan: baina, soineko guztiak erantzi baino lehen, gelan barna ibiltzen hasi zen, eginahal bizian eta sarri keinuak eginez. Julie, egunean zehar gertatuaren lekuko izana baitzen, ez zen ausartu deus erratera, eta ordu bete inguru zain egon zen isilik. Azkenean, Tourvel andreak bi aldiz segidan dei egin zion; doi-doia izan zuen etxekoandreagana iristeko astia, eta horra non besoetan zitzaion erori, erranez: «Ezin dut gehiago.» Amore emanik utzi zuen Juliek bere ohera eraman zezan, baina ez zuen deusik hartu nahi izan, ezta Julie laguntza eske joan zedin nahi izan ere. Soil-soilik ura jarrarazi zuen bere ondolan, eta ohera zedin manatu zion Julieri.

Honek segurki dio ezen goizaldeko bi orenak arte lo hartu gabe egon zela, eta, bitarte horretan, ez zuela ez higidurarik, ez auhenik aditu. Baina bortz orenetan etxekoandrearen solasak iratzarri omen zuen, mintzo ozen eta bortitzaz; eta orduan deusen beharrik ba ote zuen galdeturik, eta ez baitzuen erantzunik jaso, argia hartu

eta Tourvel andrearen ohera joan omen zen, hark ordea ez zuen ezagutu; baina solas segidarik gabeko haiek bet-betan eten eta oihu min bat egin zuen: «Utz nazatela bakarrik, utz nazatela ilunbeetan; ilunbeak zaizkit niri komeni.» Nihaurk atzo hauteman nuenez, perpaus hori sarri errepikatzen du.

Azkenik, Juliekin jalgitzeko eta jende eta laguntza bila joateko baliatu zuen manu gisako hura: batari nahiz bertzeari ordea Tourvel andreak uko egin zien, geroztik hain sarri jin zaizkion haserreaz eta nahasduraz.

Horrek guztiak halako durduza zuen komentuan sortu, non atzo goizeko zazpi orenetan mojaburuak deliberatu baitzuen nire bila norbait igortzea... Artean egunak ez zuen argitu. Berehala joan nintzen. Han nintzela jakinarazi ziotelarik Tourvel andreari, irudi zuen kordea etorri zitzaiola, eta erantzun zuen: «Ah! Bai, sar dadi-la.» Baina ohera hurbildu nintzaionean, fermuki begia eman zidan, nire eskua biziro hartu, tinkatu, eta boz ozen baina ilunaz erran zidan: «Sine-tsi ez zintudalako nago hil hurran.» Berehala,



begiak estaliz, bere solasik sarriena errepikatu zuen: «Utz nazatela bakarrik, etab.»; eta kordea arrunt galdu zuen.

Erran zizkidan ele horien eta eldarnioan itzuri zitzaizkion bertze batzuen karietara, beldur naiz eritasun krudel horrek kausa are krudelago bat ez ote duen. Errespeta ditzagun ordea gure adiskidearen sekretuak, eta haren malura deitoratzera dugun etsi.

Atzoko egun osoa orobat izan zen ekaitztsua, nahasialdi izugarrietan eta ahuleziazko lozorreetan emana, eta azken horietan du soilik atsedenez bait hartzen eta ematen. Arratseko bederatzi orenak arte ez naiz haren oheburutik aldaratu, eta gaur goizean hara itzuliko naiz egun osoko. Ez dut hain segur ere neure adiskide dohakabea abandonatuko: hain da lazarria ordea artak eta laguntzak oro ukatzeko darakusan seta.

Bart gaueko berriak igortzen dizkizut, berriki hartu baititut, eta, ikusiko duzunez, ez dira bate-re kontsolagarriak. Nihaur arduratuko naiz berri guztiak oro zuri zehatz igortzeaz.

Adio, adiskide duina, eriañana noa. Goraintziak nire alabaren partetik, beharrik ia sendatua baita.

*Parisen, 17\*\*ko azaroaren 29an.*

## **CXLVIII. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK MERTEUILEKO MARKESARI

O, zu, nire maitea! O, hi, biziki maite haudan hori! O, zu, nire zorionaren haste izan zaren hori! O, hi, zorion hori mukuru bete dunan hori! Adiskide sentikorra, maitale amoltsua, hire oinazearen oroitzapena zergatik zetorkidan sentitzen ari naizen atsegina asaldatzera? Ah! Andrea, har ezazu sosegu, adiskidantzak dizu galdatzen. O, adiskidea, izan hadi zoriontsu, amodioaren erregua dun.

Hots! Zein liskar duzu bada zeure buruari egiteko? Sinets nazazu, zure adeitasuna zutaz neurritz gain baliatu da. Hark zuri sortzen dizkizun damuak, niri egozten dizkidan okerrak, berdin dira lilurazkoak; eta bihotz bihotzez sentitzen dut gu bion artean ez dela amodioaz bertze

seduzitzailerik egon. Ez beldurrik izan beraz eragiten ditunan sentimenduei men egiteaz, sorrazten ditunan su guztiei heure baitan barnatzen uzteaz. Zer! Beranduago argituak izan garelako, gure bihotzak ez lirateke bada hain garbiak? Ez, dudarik gabe. Sedukzioa izaten da aitzitik, ez baitu beti asmo finkoz baizik jokatzeko, urratsa eta baliabideak antolatzen ahal dituen, eta gertakizunak aldeztu aurretik urrundik ikusten ahal dituen. Baina egiazko amodioak ez du halatan meditatzen eta gogartzen uzten: sentimenduen bidez geure pentsamenduetarik digu gogoan bertzeratzen; haren nagusigoa sekula ez da ezezaguna denean bezain handia; eta itzailean eta isiltasunean gaitu orobat ezin sumatuzkoak eta ezin hautsizkoak diren loturez inguratzen.

Hala non atzo bertan, zure itzuleran pentsatzeak sortzen zidan zirrararen bizia gorabehera, zu ikusirik sentitu nuen plazer ezinago handia gorabehera, uste izan nuen hargatik adiskidantza lasaia baizik ez nuela deika eta gidari: edo are gehiago, neure bihotzeko sentimendu ezteie osoki emana, deus gutxi ari izan nintzen haien

jatorria edo kausa argitzen. Ni bezala ari hintzen hi ere, adiskide amoltsua, gure arimak amoltsutasunaren zirrara eztieta lerraraziak zituen lilura halabeharrezko hura, ezagutu ere gabe, sentitzen: eta bi-biok ez dinagu amodioa ezagutu, harik eta Jainko horrek murgilduak gintuzkan horditasun horretarik jalgi garen arte.

Baina horrek berak gaitin justifikatzen, ezen ez kondenatzen. Ez, hik ez dun adiskidantza traditu, eta nik ez dinat hire fidantzia neurritz gain sobera baliatu. Gu biok, egia dun, ez jakitun geundenan geure sentimenduez; baina lilura hura soil-soilik sentitu egiten geninan, hura sorraraztera entseiatu gabe. Ah! Karia horretara auhen egin beharrean, hark sorrarazi digun bozkarioan baizik ez dezagun pentsa; eta liskar bidegabeez bozkario hori asaldu ordez, dugun emenda fidantziaren eta segurantzaren xarmaz. O, adiskidea! Esperantza hori zeinen atxikia zaion nire bihotzari! Bai, hemendik aitzina beldur orotik libro, eta osoki emana amodioari, nirekin batera atxikiko ditun nire desirak, nire gainezkal-diak, nire zentzumenen eldarnioa, nire arimaren

horditasuna; eta bertze irrits batek seinalatuko din gure egun dohatsuetako une bakoitza.

Adio, biziki maite haudan hori! Gaur arratsean ikusiko haut, bakarrik kausituko ote haut orde? Ez naun ausartzen hori igurikatzera. Ah! Hik ez dun hori nik bezainbat desiratzen.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 1ean.*

## **CXLIX. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK ROSEMONDE ANDREARI

Atzo, ia egun osoan, iguriki izan nuen, adiskide duina, gure eri maitearen osasunaz berri hobeak zuri eman ahal izatea: baina atzo arratsaz geroztik esperantza hori suntsitua da, eta galdu izanaren damua baizik ez zait gelditzen. Eriaren egoera aitzina bezain larria bilakatu du, non ez duen gaiztatu, gertakari iduriz axola gutxiko baina izan dituen ondorioengatik arras krudel batek.

Ez nukeen bet-betako iraultza hura fitsik ere ulertuko, baldin atzo hartu izan ez banu gure adiskide dohakabearen isilmandatu osoa. Nola

ez baitit jakin gabe utzi zuk ere baduzula haren zorigaitz guztien berri, ageriki mintza ahal natzaizu haren egoera tristeaz.

Atzo goizean, komentura heldu nintzenean, erran zidaten bazituela hiru oren baino gehiago eria lo zela; eta haren loa hain zen sakona eta lasaia non une batez beldur izan bainintzen loerian ez ote zen. Geroago iratzarri zen eta berak ireki zituen oheko oihalak. Harritua iduri behatu zigun guztioi; eta harengana joateko zutitu bainintzen, ezagutu ninduen, neure izenaz deitu, eta hurbil nenkion otoiztu ninduen. Ez zidan utzi ezein galderarik egiteko astirik, eta galdegin zidan ea non zen, ea zer egiten genuen guk han, ea eri zen, eta ea zergatik ez zegoen bere etxean. Hasieran bertze eldarnio bat zela uste izan nuen, aurrekoa baino lasaiagoa soil-soilik: ohartu nintzen ordea aski ongi ulertzen zituela nire erantzunak. Kordera etorria zen alabaina, ez ordea oroimenera.

Xeheki galdekatu ninduen komentuan zegonez geroztik gertatu zitzaion guztiaz, nahiz hara jin izanaz ez zen oroitzen. Zehatz ihardetsi nion, soilik sobera izi zezakeena aipatu gabe: eta nik

aldiz galdegin niolarik ea zer moduz zegoen, ihardetsi zidan une hartan ez zuela minik; baina loa bitartean oinazetan egona zela eta akitua zela. Sosegatzera eta gutxi hitz egitera premiatsu nuen; gero oheko oihalak aldeztu hertsitu nizekion, erdi irekirik utziz, eta haren ohe ondoan nintzen eseri. Aldi berean, salda eskaini zioten, hartu eta ona iruditu zitzaion.

Gisa horretan gelditu zen oren erdi inguru, eta bitarte hartan bertze solasik ez zuen, eman nizekion artak niri eskertzeko izan ezik; eta esker onak zuzen ezagutzen diozun atsegintasunaz eta graziaz eman zizkidan. Gero isil-isila egon zen aldi batez, halako batean hautsi zuelarik isiltasuna: «Ah, bai! Oroitu naiz hona jira izanaz», eta berehala heia goratu hasi zen oinazetan: «Adiskidea, adiskidea, urrikal zaitzait; horra nire malurak oro berriz jira.» Orduan hari buruz aitzinatu bainintzen, hartu zidan eskua, eta burua eskuan bermaturik gaineratu zuen: «Jainko Jauna! Ezin hil ninteke bada?» Haren begitarteak, haren hitzek bainoago, malkoak isurtzeraino ninduen hunkitu; nire bozari oharu zitzaion, eta erran zidan: «Urrikaltzen zaitzait! Ah! Jira bazene-

za!...» Eta gero solasa etenik: «Egizu bakarrik utz gaitzaten, eta oro erranen dizut.»

Hala nola ohartarazi dizudala uste baitut, banituen dagoeneko susmoak isilmandatu horren sujetaz; eta aldez aurretik nekusanez luzea eta tristea izan behar zuen solasaldi hura gure adiskide dohakabearen egoerarentzat kaltegarria izan ote zitekeen beldurrez, uko egin nion hasieran isilmandatu hari, atsedena beharretan zelako estakuruz: baina setatu zitzaidanez, men egin nien haren eske fermuei. Bakarrik gelditu ginen orduko, zu dagoeneko haren-gandik jakina zaren guztia jakinarazi zidan, eta arrazoi horregatik ez dizut errepikatuko.

Azkenik, sakrifikatua izan zen modu krudelaz mintzo zitzaidalarik, erantsi zuen: «Segur baino segurago nintzen hiltzeaz eta hiltzeko kuraia banuen; baina maluraz eta ahalkez bizirik irautea, ez, hori ezin dut.» Entseiatu nintzen bihotz eroraldi edo hobeki erran etsipen hura erlijioaren armez gudukatzera, harentzat ordu arte hain indar handikoak izan baitziren; berehala sumatu nuen ordea ez nuela hain eginbide gailenetarako aski indarrik eta proposatu nion aita Anselme



deitzea, bai baitakit osoki fida zaiola. Onartu zuen eta irrika bizian zela irudi ere zuen hura noiz etorriko. Aita Anselmeren bila joan ziren alabaina, eta berehala jin zen. Luzaz egon zen eria- rekin, eta jalgi eta erran zuen ezen medikuak beraren iritzi berekoak baldin baziren, bere ustean elizakoen ematea gibela zitekeela; eta erran zuen berebat biharamunean jinen zela.

Arratsaldeko hiru orenak inguru ziren, eta bortz orenak arte gure adiskidea lasai samar egon zen: halako gisaz non guztiok esperantzari berriz atxikiak baikinen. Ondikotz, orduan gutun bat ekarri zioten. Eman nahi izan ziotelarik, ezei- nik ere ez zuela hartu nahi ihardetsi zuen hasie- ran eta nehork ez zuen deus gehiagorik erran. Baina une horrez geroztik, nahasiagoa zirudien. Handik berehala, galdegin zuen ea nondik zeto- rren gutun hura. Zigilatu gabea zen: Nork ekarri zuen? Nehork ez zekien; nondik igorria zen? Tor- nulariei nehork ez zien deusik erran. Gero isilik egon zen aldi batez; eta berehala berriz hasi zen solasean, baina segidarik gabeko solas haiek soil-soilik jakinarazi ziguten eldarnioa berriz jina zela.

Hala ere, bitarte batean lasai egon zen oraino, harik eta azkenik beretzat ekarria zuten gutuna eman ziezaioten eskatu zuen arte. Begia eman zionetik beretik, oihukatu zuen: «Harena! Jainko Jauna!» eta gero ozen baina hertsatuki: «Eraman ezazue, eramán ezazue.» Bertatik oheko oihalak zituen hertsarazi, eta nehor hurbil zekion debekatu: baina ia berehala haren ondorra joan behar izan genuen. Nahasdurak sekula baino indar gehiagoz jo zuen, eta aldi berean gorputz dardara zinez ikaragarriek hartu zuten. Makur horiek ez ziren arratsalde osoan desageratu; eta gaur goizeko albisteak jakinarazi dit gaua orobat izan dela ekaitztsua. Finean, halakoa du egoera non harriturik naizen harenak dagoeneko ez egin izanaz, eta ez dizut ezkutatzén esperantzaz doi bat baizik ez zaidala gelditzen.

Nago gutun zorigaiztoko hori Valmont jaunarena dela; baina ausart ahal daiteke hari oraino deusik erratera? Barka, adiskide maitea, ezein gogoeta debeku dut: baina arras krudela da ordu arte guztiz zoriontsua izana zen eta zoriontsua

izateko guztiz ere gai zen emakume bat hiltzen ikustea.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 2an.*

## **CL. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK MERTEUILEKO MARKESARI

Hi ikusteko bozkarioaren aiduru, adiskide amoltsua, hiri izkiriatzeko plazerrera emana naun; eta higan pentsaturik ematzen dinat higandik urrun egoteak sortzen didan tristura. Nire sentimenduak hiri irudikatzea, hireak oroitzea, zinezko gozamina dun nire bihotzarentzat; eta gozamen horri esker gabeziazko aldi honek berak neure amodioarentzat mila ontarte arras balios eskaintzen zizkidan oraino. Haatik, baldin sinetsi behar bahaut, ez dinat higandik erantzun gehiagorik hartuko: gutun hau bera azkena izanen dun; eta gabetuak izanen gaitun hire ustean arriskutsua den eta *premiatzkoa ez dugun* harreman batez. Hain segur ere sinetsiko haut, horretan setaturik bahago: zeren hik zer nahi izan dezaken, arrazoi horregatik beretik nik ere nahi

izanen ez dudarik? Baina delibero fermua haraitzin, ez ote didan horretaz elkarrekin solas egiteko baimena emanen?

Arriskuez den bezanbatean, deliberoa soilik hirea dun: ez zezakenat deus kalkula, eta nahi dinat berriz otoiztu kontu eman iezaion heure segurantzari, zeren ezin lasai egon ninteken hi kezkaturik bahago. Hori dela eta, ez gaitun gu biok soilik bat, hi baihaiz gu biok.

Ez dun gauza bera *premi*az den bezanbatean; horretan ez zezakenagu pentsamendu bera baizik izan; eta baldin iritzi desberdinekoak bagara, ez dun agian elkarri azalpenak ematearen edo elkar aditzearen eskasez baizik. Horra beraz sentitu uste dudana.

Dударик gabe, gutun batek ez zirudin *premi*azkoa, libroki elkar ikus dezakegarik. Zer erranen liken, ele batek, behako batek, edo isiltasunak berak ehun aldiz hobeki adieraziko ez lukeenik? Hori hain zaidan egia iruditzen, non elkarri gehiago ez izkiriatzeaz hitz egin hidanan unean, ideia hori aise lerratu baitzitzaidan ari-mara; agian gogaikarria izan zitzaionan, ez zionan batere eraginik egin ordea. Hala nola hire

bihotzean musu bat eman nahirik, kausitzen dudalarik xingola bat edo gasa bat, soil-soilik baztertzen baitinat, eta ez dinat hargatik oztopo bat denik uste.

Baina geroztik, elkarrengandik bereizi gaitun; eta hi neure aurrean ez haudanez geroztik, gutunaren ideia hori berriz jin zaidan oinazetzera. Zergatik, egin dinat neure artean, bertze gabezia horren emendioa? Zer! Elkarrengandik urrun gaudelako, ez ote dugu deusik elkarri errateko? Demagun ezen, zernolakoak gure alde izanik, elkarrekin egiten dugula egun oso bat; solasean eman behar ote dugu denbora, gozamenetan eman orde? Bai, gozamenetan, adiskide amoltsua; zeren hire ondoan, atsedeen uneek berek gozamen zoragarri bat ematen baitute. Finean, denbora zein ere den labur edo luze, berezi behar gaitun azkenik, eta gero, hain gauden bakarrik! Orduan izaten ditun gutunak arras baliosak; irakurri ezean, egoten ahal dun gutunari so... Ah! Dudarik gabe, egoten ahal dun gutun bati so gutuna irakurri gabe, hala nola uste baitut gauean izanen dudala oraino plazerrik hire potreta ukiturik...

Hire potreta erran dinat? Gutun bat arimaren potreta dun ordea. Ez din, irudi hotz baten gisara, amodiotik hain urrun den gelditasuna; bide ematen zien gure higidura guztiei: aldizka bizitasuna din hartzen, aldizka gozamen, aldizka atse-den... Hire sentimenduak oro hain dira niretzat baliosak! Sentimenduok biltzeko baliabide bat didan edekiko?

Segurki ote dakin bada niri izkiriatzeko premiak sekula ez hauela oinazetuko? Baldin bakar-dadean, hire bihotza hedatzen edo hertsatzen bada, baldin bozkariozko bultzada bat arimarai-no barneratzen bazain, baldin hire gogoaz ber-tzerako halako tristura batek une batez arima durduzatzen badin; ez ote dun bada adiskidea baitan isuriko heure bozkarioa edo heure malura? Izanen dun beraz hark beretuko ez duen sen-timendurik? Sentimendu hori heuregandik urrun-tzera utziko dun, ametsari emana eta bakarti? Adiskidea... Adiskide amoltsua! Baina deliberoa hiri dagokin. Soil-soilik nahi izan dinat eztabaida-tu, eta ez ordea hi seduzitu; arrazoiak baizik ez ditinat eman, sinesten ere dinat arrenka ariz gero indar gehiago nukeela. Entseiatuko naun

bada, hik hala nahi dunanez gero, ez atsekabetzera; ahaleginduko naun hik izkiriaturko hidaa-kena neure buruari nik erratera; baina horra, hik nik baino hobeki erranen huke; eta batez ere nik plazer gehiago niken hiri aditurik.

Adio, adiskide xarmanta; hurbil dinat azkenik ikusi ahalko haudan orena: fite uzten haut, are lasterrago higana biltzeko.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 3an.*

## **CLI. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Dudarik gabe, markesa, ez duzu usteko hain esperientzia gutxikoa naizenik, eta ez duzu beraz pentsatuko ezen, gaur arratsean, elkar ikuste kuttun horretan, zu ustekabea kausitu izanaren eta orobat Danceny zure etxera erama-na zuen *halabehar harrigarriaren* karietara tron-parazi ahal izan naizunik! Ez hain zuzen zeure hazpegi trebatuek lasaitasunaren eta sosegua-ren aurpegiera ezin hobeki irudikatzen jakin ez zutelako, ezta noizik behin asalduari edo damua-

ri itzurtzen zaizkion ezein perpausez zeure burua traditu duzulako ere. Aitor ere dizut ezen zeure behako maltsoak ezinago bikain baliatu zaizkizula; eta baldin jakin izan balute sinetsarazten aditzera ematen dakiten bezain ontsa, ez nukeela orobat, denik eta susmorik ttipiena hartzetik edo gordetzetik urrun, instant batez dudatuko *hirugarren desagoki horrek* sortzen zizun atsekabe ezinago handiaz. Baina, hain dohain handiak alferretan ez baliatzeko, zeure buruari hitz emana zenion garaitia erdiesteko, sorrarazi nahi zenuen lilura bizteko azkenik, alde z aurretik behar zenukeen zeure maitale hasiberri hori ardura gehiagoz hezi.

Ikasleak hezten hasia zarenez, irakats iezaiezu trufarik ttipienaz ez ahalke gorritzen eta harritzen: irakats berebat ez hain bizi- ukatzen, emakume bakar bati, bertze emakume guztiei arras moldakaizkiro defendatuz onartzen dizkieten gauza berberak. Irakats iezaiezu berebat beren maitalearen laudorioa aditzen ikasten, ordainetan hari goresmenak egitera behartuak izan daitezen gabe; eta baldin lagunartean zuri so egoteko baimena ematen badiezu, alde



aurretik jakin bezate bederen estaltzen jabe bati legokiokkeen behako aise hautemangarri hori, amodiozko behakoarekin arras moldakaizkiro baitute nahasten. Orduan jendaurreko zeure ari-keta horietan aurkezten ahalko dituzu, haien jokabideak haien irakasle jakintsuari kalte egin dakion gabe; eta nihaurk, zure ospea goratzen lagundu izanaz sobera bozkariatsua, hitz ematen dizut ikastetxe berri horren ikaskizunak egin eta argitaratuko ditudala.

Baina bizkitartean harriturik naiz, aitor dizut, ni izateaz zuk eskolume baten gisara tratatzera ausartu zarena. O! Bertze edozein emakumez zeinen bizkor mendekatua nintzatekeen! Zeinen plazer handia hartuko nukeen! Eta plazer horrek zeinen aise gaindituko zukeen hark ustez galara-zia zidana! Bai, soilik zu zarelako nahiago deza-ket konponbidea ezen ez mendekua; eta ez uste dudarik ttipienak, zalantzarik ttipienak, baratzen nauenik; oro dakit.

Lau egun baditu Parisen zarela; eta egun bakoitzean Danceny ikusi duzu, eta hura baizik ez duzu ikusi. Gaur bertan zeure atea hertsirik zenuen oraino; eta zure atezainari soil-soilik

zurearen heineko segurantzaz falta izan zaio, ni zueganaino heltzera ez uzteko. Haatik ez nuen dudatu behar, hala mezutu zenidan, ni izanen nintzela lehena zure itzuleraren berri jakiten; oraino zer egunerako zehatz erraten ahal ez zenidan itzulera horren berri, nahiz partitzera zindoazen egunaren bezperan izkiriatsu zenidan. Egintza horiek ukatuko dituzu, edo desentzuzkeraz entseiatuko zara? Bata nahiz bertzea orobat dira ezinkizun; eta haatik neure buruaren jabe nago! Zure nagusigoa ikus hor; baina sinets nazazu, hura jasan izana askiatsirik, ez gehiago neurritz gain balia. Guk biok elkar ezagutzen dugu, markesa; hitz hori aski izan behar zenuke.

Erran didazu bihar kanpoan izanen zarela egun osoan? Beharrik, baldin egiazki kanpoan bazara; eta egizu kontu jakinen dudala. Baina azken finean, arratsean itzuliko zara; eta gure onezkoak egite zailerako ez dugu aski denbora izanen biharamuna arte. Jakinaraziezadazu beraz non egingen ditugun, zure etxean edo *han* geure hoben ugarien ordainak. Batez ere, kitto Danceny. Zeure buru gaiztoa haren irudiaz betea zenuen; eta ni egon ninteke zure irudime-

naren eldarnio horrez jeloskortu gabe: baina egizu kontu ezen liluraldi bat baizik ez zena, hobespen nabarmen bilakatuko litzatekeela hemendik aitzina. Ez dut uste umiliazio horretarako egina naizenik, eta ez dut igurikitzen umiliazio hori zugandik hartzerik.

Uste osoan naiz halaber ezen sakrifizio hori ez zaizula sakrifizioa irudituko. Baina zerbait gostako balitzaizu ere, iruditzen zait nik aski etsenplu eder bat eman dizudala! Iruditzen zait berebat negatik baizik existitzen ez den eta une honetan berean agian amodioz eta damuz hiltzen ari den emakume sentikor eta eder batek balio dezakeela eskolume gazte batek baino gehiago, nork ere, hala nahi baduzu, ez baitu ez gorpuzkera ederraren ez adimen biziaren eskasik, baina ez du oraino ez usantzarik ez sendotasunik.

Adio, markesa; fitsik ere ez diotsut zugana ditudan sentimenduez. Neure bihotzean ez miaztea da une honetan egin dezakedan guztia. Erantzunaren zain naukazu. Kasu eman erantzunari, kasu emaiouzu ezen zeure erantzunaren bidez zenbatenaz aiseago ahantzaraziko baitida-

zu egin didazun laidoa, hanbatenaz zure uko batek, luzamendu soil batek, ezin ezabatuzko erroz sustraituko lukeela nire bihotzean.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 3an, gauean.*

## **CLII. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Kasu eman bada, bizkonde, eta ez ezazu gehiago bortxa nire herabetasun guztizkoa! Nola nahi duzu paira dezadan zure sumina biztu izanaren uste lehargarria, eta batez ere nola nahi duzu zure mendekuaren beldurrak mendean har ez nazan? Hanbatenaz non, dakizun bezala, baldin zuk belzkeria bat eginen bazenit, ezinen bainizuke itzuli. Alferrik nuke hitz egitea, zure biziera berdin litzateke dirdaitsua eta lasaia. Izan ere, zeren beldur zinateke? Partitzera behartua izateaz, baldin astirik emanen balizute. Baina atzerrian ez dea hemen bezala bizitzen? Eta azken finean, non ere Frantziako Auzitegiak finkatua zinatekeen lekuan lasai utziko baitzintu, garaipenen lekua aldatzea baizik ez litzateke zuretzat.

Arrazoi moral horiez zure odol hotza zuri berriz bihurtzen saiatu ondoren, gatozen berriz geure aferetara.

Badakizu, bizkonde, zergatik ez naizen sekula berriz ezkondu? Ez hain segur ere aski senargai abantailatsu kaustu izanaren eskasez; da soil-soilik nehork izan ez dezan nire egintzak gaitzesteko eskubiderik. Ez da halaber neure borondatea gehiago egin ahal ez izateaz beldurrez nagoelako, zeren azken finean betiere egingen bainuke; baina nire borondatea egin izanaz nehork nitaz deitoratzeko eskubidea izateak berak gogaituko ninduke; zeren azken finean neure plazerrera baizik ez bainuke tronpatu nahi, eta ez premiagatik. Eta nehon ikus litekeen gutunik senar baten gisarakoena horra non zuk didazun izkiriatu! Neure hutsegiteak eta zure ontasunak, ez didazu hor bertzerik aipatzen! Baina nola egin dakioke huts deusik ere zor ez zaionari? Ez nekike hori asmatzen!

Dugun ikus; zer kexakizun dituzu? Danceny nire etxean aurkitu duzu, eta horrek gogaitu zaitu? Beharrik: baina zer ondorio atera ahal izan duzu hortik? Edo izan zela asturuz, nik erran

nizun bezala, edo izan zela nire borondatez, nik erran ez nizun bezala. Lehenengo kasuan, zure gutuna bidegabea da; bigarrenean, irrigarria: berdin zenuke ez izkiriatzea! Jeloskor zaude ordea, eta jelosia ez da arrazoizalea. Hots bada! Arrazoiak nik ditut zure orde z emanen.

Edo baduzu aurkaririk, edo ez duzu. Baldin aurkaririk bazeneza, begiko behar zara gertatu hobetsia izateko; baldin ez bazeneza, are begikoago behar duzu izan ezeinik ez izateko. Kasu guztietan, berbera da jokabidea: beraz, zergatik zeure burua oinazetu? Zergatik, batez ere, ni oinazetu? Ez ote dakizu jadanik gizonik atseginena izaten? Eta ez zaude dagoeneko garaipena erdiesteaz ziur? Hara bada, bizkonde, zeure buruaren kalte ari zara. Baina ez da hori; zera, erran nahi baita, nik ez dudala zure iritzian horrenbertze ahaleginik merezi. Ez dituzu nire ontasunak nahi, hainbat nola nahi baituzu nire nagusigoaz neurritz gain baliatu. Hara, eskergabea zara. Hori bai, nire ustez, sentimendua! Eta doi bat segi baneza, gutun hau arras amoltsu bihur liteke; baina ez duzu merezi.

Ez duzu are merezi nik neure burua zuritzea. Zure susmoen zigor, atxiki eginen dituzu: hala itzuli nintzen egunaz, nola Dancenyren ikustal-diez ez dizut fitsik erranen. Biziki ahalegindu zara jakitun egoteko, ez dea egia? Hots bada! Deusik aitzinatu zarea? Zeregin horretan plazer handia hartu izana opa dizut! Nitaz den bezan-batean, ez du horrek nirea gutxitu.

Zure gutun mehatxugarriari ihardets diezaio-kedan guztia da ez duela izan ez niri laket izate-ko dohaina, ez ni beldurtzeko indarra; eta orobat erran dezaket ezin gutxiago prest naukazula oraingoz zure eskariak onartzeko.

Egia erran, egungo egunean agertzen zaren gisara zu onartzea, litzateke zurekin zinez des-leial izatea. Ez bailitzateke nire maitale ohiarekin berriz harremanetan hastea; litzateke bertze bat hartzea, eta harako hark bezainbat urrundarik ere balio ez duena. Ez dut lehen maitale hura hainbertzeraino ahortzi, neure burua gisa horretan tronpatzeko. Nik maite nuen Valmont hura xarmanta zen. Orobat nahi dut aitortu ezen ez dudala hura baino gizon atseginagorik kaunitu.

Ah! Otoi, bizkonde, berriz kausi bazeneza, ekariezadazu; hari beti eginen diot abegi on.

Egiozu haatik gaztigu ezen, ezein kasutan, ez litzatekeela ez gaurko ez etziko izanen. Haren *Menechme*-ak kalte pixka bat egin dio; eta sobe-ra lehiatuz gero tronpatu beldur nintzateke; edo bertzela, menturaz Dancenryri emana diot bi egun horietan neure etxean hartzeko hitza? Eta zure gutunak irakatsi dit ez zarela zu txantxetan ibiltzen, nehork hitza janez gero. Ikusten duzu beraz behar duzula iguriki.

Zuri zer axola ordea? Aurkariari mendeku hartuko diozu haatik. Ez dio hark zure maitaleari, zuk harenari egin diozuna baino deus okerragorik eginen, eta azken finean emakume batek ez ote du bertze batek bezainbat balio? Horiek dira zure oinarritzko arauak. *Emakume amoltsu eta sentikor hura, zugatik baizik existituko ez litzatekeena eta azkenik amodioz eta damuz hila litzatekeena* ez litzateke lehen gutiziari, une batez trufa eginen ote dizuten beldurrari orobat sakrifikatua izanen; eta nahi duzu bertzeok beltzuri gaitezen? Ah! Hori ez da bidezkoa.



Adio, bizkonde; izan zaitez berriz gizon atsegina. Hara, xarmangarri nahi zaitut, ez dut bertzerik galdatzen; eta horretaz segurik naizen orduko, frogatuko dizudala hitz ematen dizut. Egiazki, sobera ona naiz.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 4an.*

### **CLIII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI

Berehala ihardesten diot zure gutunari, eta argi izatera entseiatuko naiz; zurekin ez baita erraza, hartua duzularik ez ulertzeko xedea.

Ez genuen solasaldi luzeen beharrik jakiteko ezen batbederak bertzea galarazteko behar duen guztia bere esku izaki, interes berbera dugula elkarri begirunea erakusteko: ez da hori hain zuzen ere gure solaspidea. Baina nork bere burua galtzeko xede bortitzaren eta orain arte egon garen bezala elkarturik jarraitzeko, eta gure lehen harremanari berriz loturik are elkartuago egoteko xede dudarik gabe hobearen artean, bi xede horien artean, diot, bertze mila

har litezke. Ez zen beraz irrigarria zuri erratea, ezta orobat egun zuri errepikatzea ere, ezen, gaurdanik, zure maitalea edo zure etsaia izanen naizela.

Ontsa dakit hautu horrek gogaitzen zaituela, eta hinki-hanka ibiltzea gehiago komeniko litzazukeela; eta badakit halaber nehoiz ez duzula maite izan baietzaren eta ezetzaren artean gisa horretan ezarria izatea: baina jakin behar zenuke halaber ez diezazukedala zirkulu estu horretarik jalgitzera utz, nihaur engainatua izateko arriskurik gabe; eta aldeztu aurretik sumatua behar duzu ez dudala engaina nazaten jasanen. Orain zuri dagokizu deliberatzea: hautua utz diezazuket baina ezin ezbaian egon ninteke.

Soil-soilik aldeztu aurretik jakinarazten dizut ezen ez zarela nitaz neurritz gain baliatuko zeure argudioez, direla on edo direla txar; ezen berebat ez nauczula are liluratuko zure ukoa apaintzeko xedez eginiko zenbait balakuz, eta ezen heldua dela, azkenik, egiaren unea. Zuri etsenplu ematea baizik ez dut galdatzen; eta atseginez diotsut bakea eta batasuna ditudala nahiago:

baina bata zein bertzea behar badira hautsi, eskubidea eta baliabideak baditudala uste dut.

Orobat diotsut beraz ezen denik eta behaztoparik ttipiena ezartzen badidazu, behaztopa hori gerlarako deitzat zin-zinez dudala hartuko: ikusten duzunez galdatzen dizudan erantzunak ez du perpaus luze ederren beharrik. Aski dira bi hitz.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 4an.*

MERTEUILEKO MARKESAREN ERANTZUNA  
*gutun beraren azpian izkiriatura*

Hots bada! Gerla.

## **CLIV. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK ROSEMONDE ANDREARI

Albisteeek nik baino hobeki ematen dizute, adiskide ederra, gure eriaeren oinazezko egoeraren berri. Hura artatzera osoki emana bainago, ez dut zuri izkiriatzeko astirik hartzen, non ez den bertze gertakizunik eritasunaz bertzalde. Hona bada bat, hain segur ere igurikatzen ez nuena. Valmont jaunagandik hartu dudan gutun bat da, nahikatu baitu ni hautatzea isilmandata-

ri, bai orobat bitarteko Tourvel andrearen aldera, eta halaber erantsi baitio nire gutunari bertze gutun bat harentzat. Bata itzuli diot bertzearen erantzunarekin batera. Helarazten dizut azken hau, eta uste dut bat etorriko zarela nirekin ezen hark eskatzen zidanetik ez nezakeela egin eta ez nuela egiten ahal deusik. Egin nahi izanagatik ere, gure adiskide dohakabea ez zatekeen niri aditzeko egoeran. Haren eldarnioa jarraikia da. Zer diozu ordea Valmont jaunaren etsipenaz? Hasteko, sinesgarria ote da, edo mundu guztia nahi ote du bukaera arte tronpatu? Baldin oraingo honetan egiaz mintzo bada, aise erran deza-ke bere malura hark berak sortua dela. Ez dut uste nire erantzunak plazer handirik emanen dionik: aitor dezadan ordea ezen zorigaiztoko gertakari honetaz zenbat ere nagoen jakitunago, haren egilearen kontra are naizela sumintzena-go.

Adio, adiskide maitea; banoa hartzara eriari neure arta tristeak eskaintzera, niretzat baitira are tristeagoak bihurtuak, onerako diratekeela ikusteko kasik esperantzarik ezean. Ezagutzen dituzu zugana ditudan sentimenduak.

## **CLV. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK DANCENY ZALDUNARI

Bi aldiz izana naiz zure etxean, zaldun maittea: baina maitalearen rola utzi eta gizon amodioaz dohatuarena hartu duzunez geroztik, nehork ez zaitzake nehon kausi, egoki den bezala. Zure gelazainak erran dit haatik arratsean itzuliko zarela etxera; zure zain egoteko manua omen du orobat: nik ordea, jakina bainaiz zeintzuk diren zure asmoak, ongi baino hobeki ulertu dut ez zarela une batez baizik etxeratuko, okasioari egoki dagozkion beztidurak janzteko, eta berehala joanen zarela zeure garaile ibilertan berriz ibiltzera. Zorionak, bihoazkizu ezinbertzean nire txaloak: baina agian, gaur gauean, ibilera horien norabidea aldatzeko tentatua izan zintezke. Zeure aferen erdia bertzerik ez dakizu oraino; bertze erdia behar zaizu jakinarazi, eta gero, zuk hautatuko duzu. Har ezazu bada nire gutuna irakurtzeko astia. Ez zaitu zeure plazerre-

tarik zehartuko, ez baitu bertze xederik, aitzitik, plazer horien arteko hautua zuri eskaintzea baizik.

Nitaz guztiz fida izan bazina, zuhaurk erran izan bazenizkit zeure sekretu guztiak eta ez soilik sumatzera utzi didazuna, garaiz nengokeen jakitun; eta zure urratsa ez luke egun nire eginalak oztopatuko, trebeago ari izana litzatekeelako. Gauden lekutik gaitezen ordea abia. Hartzen duzun xedea zeinahi ere den, izanagatik zuretzat kalte bertze norbaiti bozkarioa lekarkioke betiere.

Gaur arratsean norbait ikustera zoaz, ez dea egia? Biziki maite duzun emakume xarmant bat? Zeren eta zure adinean, zein emakume ez da biziki maite, lehen zortzi egunetan bederen! Gertalekuak zure plazerrak ditu gehituko. Etxe ttipi zoragarri *zuretzat baizik baliatua izan ez den* batek irritsa behar du edertu libertatearen xarmaz, eta misterioarenaz. Oro prest dago: norbait zain duzu: eta harengana biltzeko irrika bizian zaude! Horra guk biok dakiguna, nahiz zuk ez didazun fitsik erran. Orain, hona zuk ez dakizuna, eta nik erran behar dizudana.

Parisa itzuli nintzenez geroztik, zu Volanges andereñoagana hurrantzeko bideez arduratu izan naiz, eman nizun hitza betez; eta horretaz mintzatu nintzaizun azken aldian ere zure erantzunek, bai orobat zure gainezkaldiek, zure bozkarioaren alde ari nintzela aditzera eman zidaten. Zeregin aski zail horretan ez nezakeen nik bakarrik erdiets: baina baliabideak prestatu ondoren, gainerakoa zure maitale gaztearen arduraren gomendio utzi nuen. Kausitu du hark, bere amodioari esker, nire esperientziari itzuria zitzaion baliakizunik: finean zorigaitz zuretzat zeren erdietsi baitu. Baditu bi egun, gaur arratsaldean erran didanez, oztopo guztiak gaindituak direla, eta zure bozkarioa zuk duzu orain zeure esku.

Baditu orobat bi egun zure maitale gaztea irrika gorrian dela berri hori berak zuri noiz emango, eta nahiz ama ez den etxean, hartua izanen zinen; baina agertu bat ere ez diozu egin! Eta dena erran behar badizut, iruditu zait neskatxa ttipi hori beltzuri samar zela, arrazoiz edo gutiziaz, zuk erakusten diozun lehia gutxiaren karietara. Kausitu du, azkenik, ni harengana

helarazteko baliabidea ere, eta hitz emanarazi dit ahalik lasterrena emanen nizula honekin batera igortzen dizudan gutuna. Hain du lehia sutsua agertu, non egingen nuke elkar ikuste bat proposatua zaizula hor gaur gauerako. Zernahi dela ere, ohoreagatik eta adiskidantzagatik hitz eman diot eskutitz ezti hori gaur bertan hartuko zenuela, eta neure hitza ez dezaket jan eta ez dut jan nahi.

Orain, gazte, nola jokatu duzu? Pinpirintasunaren eta amodioaren artean, plazerraren eta zorionaren artean ezarria, zer hautatu duzu? Baldin orain dela hiru hilabeteko Dancenyri, soil-soilik duela zortzi egunekoari, mintzatuko banintzaio, segurik nengoke haren bihotzaz, orobat haren urratsez: baina egungo eguneko Danceny emakoi, menturazale eta, ohi denez, doi bat gaiztatuak nahiago ote du neska gazte arrunt ahalketi bat, zeinak bere fabore ez baitu edertasuna, inozentzia eta amodioa baizik, emakume guztiz ohitu eta trebatu baten atsegintasunak baino?

Nitaz den bezanbatean, adiskide maitea, iruditzen zait ezen, nahiz oinarrizko arau berriei



atxikia zaren, eta hein batean neureak ere badi-rela aitor dizut, zernolakoek maitale gaztea hautatzeko deliberoa harraraziko zidatela. Hasteko, bertze emakume bat gehiago da, eta berritasun bat da halaber, eta horrez gainera zeure ardura guztien fruitua galtzeko beldurrez behar zenuke egon, baldin fruitua biltzeaz ezaxolatuko bazina; zeren azken finean, alde horretarik, zinez okasio galdua litzateke, eta okasio hori ez ohi da beti itzultzen, batez ere lehenengo ahulkeria izan delarik: sarri, kasu horretan, garaitiarik ederrena eragozteko ez da behar izaten beltzuri une bat edo susmo jeloskor bat baizik, edo are gutxiago oraino. Noizik behin bertute ito hurrana abarrei tinko atxikitzen zaio; eta salburik den orduko, ondo begiratzen du bere burua, eta ez da jadanik ustekabeen atzeman erraza.

Bertze aldetik, aitzitik, zer arriskatzen duzu? Harreman hausterik ez behinik behin; liskarren bat gehienez ere, zeinaren ondoren ardura pixka batez erosten baita onezkoak egin izanaren plazerra. Jadanik errendatua zaizun emakumeak har ote dezake bertze xederik bihozberatasuna ez denik? Zorrotz jokaturik zer irabaziko luke?

Haren plazerrak galtzea, haren loriaren probe-txurik gabe.

Baldin, uste dudan bezala, hartzen baduzu amodioaren xedea, zeina berebat arrazoiarena dela uste baitut, huts egindako elkar ikustearen karietara ez desenkusatzeari iruditzen zait jokabide zuhurra; utz ezazu soil-soilik iguriki zaitzaten: baldin benturatzen bazara arrazoirik ematera, emakume hori entseiatuko da agian arrazoi hori ziurtatzera. Emakumeek jakinmin handia izaten dute eta setatsuak izaten dira; oro argitan jar liteke: ni izan berri naiz, dakizun bezala, horren etsenplu. Baldin emakume horri esperantzarik uzten badiozu ordea, nola harrokeria izanen baitu esperantzaren lagun, ez du esperantzarik galduko harik eta berri galdatzeko tenore egokia aspaldi iragana den arte: bihar izanen duzu beraz harengana joaterik utzi ez dizun behaztopa gaindiezinen bat kausitzeko tenorea; eri zinatekeen, hilik behar izanez gero, edo berdin etsiarazi zaituen bertze zernahi behaztopa, eta oro konpondua izanen da.

Bertzenaz, hartuko duzun deliberoa zernahi ere den, otoi arren jakinaraziezadazu; eta ez

baitut horretan interesik, betiere ongi jokatu  
duzula irudituko zait. Adio, adiskide maitea.

Ezin nagoke zuri halaber erran gabe ezen  
Tourvel andrea arras dolutzen zaidala; ezen etsi  
etsirik nagoela harengandik bereizirik egon  
beharrez; ezen neure bizitzaren erdiaz ordaindu-  
ko nukeela bertze erdia hari eskaintzeko zoriona.  
Ah! Sinets nazazu, soilik amodioak gaitu zorion-  
tsu egiten.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 5ean.*

## **CLVI. GUTUNA**

CÉCILE VOLANGESEK DANCENY ZALDUNARI  
*(Aurrekoari atxikia)*

Zergatik, adiskide maitea, ez zaitut jadanik  
ikusten, zu ikustea izanagatik nire nahi bakarra?  
Ez duzua elkar ikusteko nik bezainbat gogo? Ah!  
Oso triste nago orain! Guztiz bereizirik ginenean  
baino tristeago. Bertzeek sorrarazten zidaten  
xangrina, egungo egunean zuk didazu sorraraz-  
ten, eta hori are dolutzenago zait.

Baditu egun batzuk ama etxetik kanpo dabilela, ondo dakizunez; eta igurikitzen nuen libertatezko tenore horrez baliatzera entseiatuko zinela: ez duzu ordea nigan pentsatu ere egiten; o, nire dohakabea! Hain sarri erraten zenidanzuk ni baino gutxiago maite zintudala nik zu! Banekien aitzitik zela, eta hona hemen froga! Ni ikustera etorri izan bazina, hain segur elkar ikusiko genukeen: ni ez bainaiz zu bezalakoa; elkar gaitzakeena baizik ez darabilt gogoan. Merezi zenuke nik zuri fitsik ez erratea elkar ikusi ahal izateko ondo gostarik egin ditudan urrats guztiez: baina sobera maite zaitut, eta zu ikusteko hain nago irrika bizian, non ezin geldi ninteke hori dena zuri erratetik. Eta bertzenaz, gero ikusiko dugu ea benetan maite nauzun.

Hain ontsa ari izan naiz non atezaina geure alde baitugu, eta hitz eman baitit ezen etorriko zaren bakoitzean, sartzen utziko zaituela, ikusi ez bazintu bezala: eta guztiz fida ahal gakizkioke, arrunt gizon prestua baita. Aski duzu beraz etxe barnean ikus ez zaitzaten kasu ematea; eta hori aise egiten ahal duzu, gauez baizik ez etorritz, batere arriskurik ez dukegunean. Konpara-

zione, ama egunoro jalgitzen denez geroztik, hamaika orenetan oheratzen da gauero; anitz denbora bagenuke beraz.

Atezainak erran dit ezen etorri nahi duzularik, aski omen duzula haren leihoan jotzea, atean jo orde, eta berehala irekiko omen dizula; eta gero aise kausituko duzu harmaila ttipia; eta argirik ezin eramanen baituzu aldean, nik erdi zabalik utziko dut neure gelako atea, doi bat bederen argituko baitzaitu. Kasu emaiizu eta ez egin zaratarik; batez ere amaren gelako ate ttipiaren ondotik iragaiterakoan. Nire gelariarenaz den bezanbatean, berdin zaio, zeren hitz eman baitit ez dela iratzarriko; txit neska ona da hura ere! Eta alde egiteko, berdin berdin egingen duzu. Orain, ikusiko dugu ea etorriko zaren.

Ene Jainkoa, zuri izkiriatzean nire bihotzeko taupadak zergatik dira arras bortitzak? Zorigaitzen bat datorkit edo zu ikusteko esperantzak durduzatzen nau gisa horretan? Badakit ordea nehoiz ez zaitudala hainbertze maitatu, eta nehoiz ez dudala izan maite zaitudala zuri errateko hain gogo bizirik. Zatoz bada, adiskidea, adiskide maitea; ainiezazuket ehun aldiz errepi-

ka maite zaitudala, biziki zaitudala maite, eta zu izan ezik ez dudala nehor maiteko!

Kausitu dut Valmont jaunari zerbait erran behar niola jakinarazteko bidea; eta bihar jinen da segurki, hura adiskide ona baita, eta otoiztuko diot nire gutuna berehala eman diezazun. Beraz, bihar gauean zain edukiko nauzu, eta jinen zara, hutsik egin gabe, baldin ez baduzu zeure Cécile arras dohakabetu nahi.

Adio, adiskide maitea; musu bat bihotz-bihotzez.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 4an, gauean.*

## **CLVII. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Ez dudarik izan, bizkonde maitea, ez nire bihotzaz, ez nire jokabideaz: nola aihertu nire Cécileren nahi bati? Ah! Hura baita maite dudan emakume bakarra, beti maiteko dudan emakume bakarra! Haren lañotasunak, haren eztitasunak nigan sortua duten lilura hain da handia non deusek ez baitu sekula ezabatuko, nahiz ahulke-

riaz lilura horrez ezaxolatu ahal izan naizen. Bertze abentura batean sartua nintzelarik, demagun oharkabea, Cécileren oroitzapena sarri jin zait neure plazerrik eztiak durduzatzera; eta nire bihotzak ez dio menturaz hari desleial nintzaion unean berean baino goresmenezko eskaintza egiazkoagorik egin. Hala ere, adiskidea, ez diezaiozun begirunea gal, eta isilpean ditzagun gorde nire hutsegiteak; ez Cécile engainatzeko, atsekaberik har ez dezan baizik. Cécileren zoriona da hain zuzen ere nire nahirik sutsuena; neure buruari nehoiz ez nioke barkatuko hark malkoz ordaindu beharko lukeen hutsegiterik.

Badakit merezi ditudala zuk nire oinarritzko arau berriak deitzen diezun horien bizkar egin dizkidazun irriak: baina otoi sinets nazazu, une honetan ez nau jokabide horrek gidatzen; eta hartua dut bihartik aurrera hori frogatzeko deliberoa. Neure hobena aitortzera joanen naiz zoraldi hori sortu eta beretu duen emakumeagana; erranen diot: «Irakurri nire bihotzean; adiskidantzarik eztiak du zuretzat; adiskidantzari elkartua zaion desira hain da amodioaren antzekoa!... Gu biok tronpatu egin gara; baina okerrik

egin ahal izan dudan arren, ez naiz fede gaiztoz jokatzeko gauza.» Ezagutzen dut neure adiskidea; zintzoa da bihozbera bezain; ez soilik ontzat hartuko du nire jokabidea, barkatu ere egingen dit. Bere buruari usu egiten zion hark liskar adiskidantza traditu zuelako; haren adeitasunak usu itotzen zuen haren amodioa: ni baino zintzoagoa baita, nire ariman du bortiztuko ni ausardiaren ausardiaz haren ariman itotzera entseiatzen nintzen beldur baliagarria. Hari zorko diot hobea izatea, zuri zorko dizudan bezala zoriontsuagoa izatea. O, adiskideok, har ezazue biok nire esker ona. Zoriona zuei zor dizuedala pentsatzeak balioa gehitzen dio nire esker onari.

Adio, bizkonde maitea. Sobera zoriontsu naizen arren, zure penak gogoan ditut, eta nigan barneratuak. Ezin zuri baliagarri izan! Tourvel andreak bere larrian dirau beraz? Eri etsia omen da. Ene Jainkoa, nola urriki zaitudan! Aileza osasuna eta bihozberatasuna aldi berean berriz har, betiko egin zaitzan zoriontsu! Horra adiskidantza nahi; zilegi izan bekit amodioak nahi horiek beteko dituela igurikatzea.



Luzaroago egonen nintzateke zurekin solasean; orenak hertsaturik nauka ordean, eta agian Cécile zain duket dagoeneko.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 5ean.*

## **CLVIII. GUTUNA**

VALMONTEKO BIZKONDEAK MERTEUILEKO MARKESARI  
*(Iratzarri ondoren)*

Beraz, markesa, zer moduz zaude bart gaueko plazerren ondoren? Ez zaude doi bat akitua? Onar ezazu bada Danceny xarmanta dela! Mutil horrek miragarriak egiten ditu. Ez zenuen haren-gandik halakorik igurikatzen, ez dea egia? Hots, izan nadin bidezko neure buruarekin, haren gisako aurkari batek merezi zuen ni hari sakrifikatua izatea. Serioski, dohain onez betea dago! Baina oroz gainetik amodioz, jarraikitasunez, eta adeltasunez gainezka dago! Ah! Egunen batean maiteko bazaitu bere Cécile maite duen bezala, ez zenuke orduan ezein aurkariren beldurrez egon beharko: bart gauean frogatu dizu hori. Agian bertze emakume batek kendu ahal izanen dizu

une batez, pinpirintasunaren indarrez; gazteek ez dute jakiten zurikeria kilikagarriei uko egiten: baina bere maitearen ele bat bakarra aski dute, ikusten duzunez, lilura hori aienatzeko; beraz arras zoriontsua izateko ez zaizu haren maitea izatea baizik falta.

Ez zara hain segur tronpatuko; antze handia duzu, ez da beraz zertan beldurrik izan. Hala ere, elkartzen gaituen adiskidantza, nire partetik hain baita benetakoa nola baita zuretik onartua, izan da bartko froga zuri opatzeko desira biztu didana; froga hori nire eginahalaren ondorioa izan da; ongi heldu da: ez eskerrik eman ordea; ez da deus: ezinago erraza izan baita.

Izan ere, zer gostatu zait? Sakrifizio ttipi bat, eta trebetasun doi bat. Makurtu naiz haren maitalearen ontarteak gazte horrekin banatzera: nik bezainbat eskubide bazuen haatik; eta niri bost axola! Neskak gazte horrek izkiriatu dion gutuna, nik diktatu nion; soil-soilik denbora irabazteko, bai baikenuen zeregin hobeagorik. Gutun horri atxiki nion gutuna, o! ez zen deus, ia deus ere; adiskidantzaren gogoeta batzuk ziren maitale berriaren hautua gidatzeko: baina egiazki

alferrikakoak ziren; egia behar da erran, mutil horrek ez du une batez ere dudatu.

Eta bertzalde, mutil hori hain da xaloa, non gaur zure etxera joanen baita zuri dena kontatzera; eta kontakizun horrek plazer handia emanen dizu segurki! Erranen dizu: *Irakurri nire bihotzean*; halaxe mezutu dit: eta ikusten duzunez, horrek dena konpontzen du. Haren bihotzean hark nahi duena irakurtzeaz gainera, agian irakurriko ahal duzu halaber ezen maitale arras gazteek badutela arriskurik, eta hobe dela orobat nire adiskide izatea, nire etsai izatea baino.

Adio, markesa; lehen okasioa arte.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 6an.*

## **CLIX. GUTUNA**

MERTEUILEKO MARKESAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

*(Txartela)*

Ez zait laket jokabide makurrei trufa makurak gehitzea; ez dira horiek ez nire manierak, ez nire jaidurak. Norbaitez arrangura naizenean, ez diot iseka egiten; zerbait hobe egiten dut: men-

dekatzen naiz. Une honetan zeure buruarekin arras kontent bazara ere, ez ahantz ez litzatekeela zeure burua aldez aurretik goretsi duzun lehen aldia; bai halaber zuk bakarrik goretsi ere, zeure buruaren laudoriotan zinen instant berean itzuria litzaizukeen garaipen baten esperantzan. Adio.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 6an.*

## **CLX. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK ROSEMONDE ANDREARI

Gure adiskide dohakabearen gelatik izkiriatzen dizut, eta haren egoerak berdintsu dirau. Gaur arratsaldean lau mediku bilduko dira beren iritzia emateko. Ondikotz, dakizun bezala, hori sarriago izaten da arriskuaren froga bat, eria sendatzeko baliabide bat baino.

Iduri du hala ere bart gauean eriak kordea doi bat berreskuratu duela. Gelariak gaur goizean jakinarazi didanez, etxekoandreak dei egin zion gauerdia inguruan; harekin bakarka egon nahi omen zuen, eta gutun aski luze bat diktatu

zion. Juliek orobat erran duenez, gutunaren azala prestatzen ari zelarik, Tourvel andrea nahasturak jo zuen berriz: halako gisaz non neska horrek ez baitzuen jakin gutuna nori igorri. Harritu naiz hasieran gutuna bera aski ez izatea nori igorri jakiteko: baina hark ihardetsi baitit huts egiteko beldur zela, eta etxekoandreak haatik gutuna berehala igortzeko gomendioa eman ziola, neure gain hartu dut paket hori irekitzeko ardura.

Han kausitua naiz igortzen dizudan izkribua, zeina alabaina ez baita nehorentzat, izanagatik sobera jenderentzat. Uste dut haatik gure adiskide dohakabeak lehenik Valmont jaunari nahi izan diola izkiriatu, baina oharkabean men egin diola bere ideien desordenuari. Zernahi ere den, iruditu zait gutun hori ez zitzaiola nehoi eman behar. Zuri igortzen dizut, zeren nik erran diezazukedan baino hobeki ikusiko baituzu hor zeintzuk diren gure eriak gogoan darabiltzan pentsamenduak. Gisa horretan biziki hunkitua jarraituko dueino, batere esperantzarik ez duket. Gorputza nekez zuzperten da, gogoak sosegurik ez duenean.

Adio, adiskide maite eta duina. Zorionekoa zu nik begien aurrean etengabe dudan ikuskari tristetik urrundua zarelako.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 6an.*

## **CLXI. GUTUNA**

TOURVEL LEHENDAKARIAREN EMAZTEAK ...RI

*(Hark diktatua eta haren gelariak izkiriatur)*

Izaki krudel eta gaiztoa, sekula ez haiz niri esesteaz nekatuko? Ni oinazetu, behekitu, doi-lortu izana ez ote duk aski, hilobiko bakea ere nahi didak kendu? Zer! Itsuskeriak neure burua ehorztera behartu nauen egoitza ilunbetsu honetan, atsekabeak pausurik gabeak ote, esperantzaz ezezaguna ote? Ez dut galdatzen merezi ez dudan barkamenik: kexurik gabe sofritzeko, aski duket sofrimenduek nire indarrak ez gaintitzea. Ez bihurtu ordea nire sofrikarioak pairagaitz. Oinazetan uzten naualarik, edeki iezadak ontasun galduen oroitzapen krudela. Kendu baitizkidak, ez nire begien aurrean berriz irudika haien irudi hondoragarria. Lañoa ninduan eta lasai bizi

ninduan: hi ikustearekin lasaitasuna galdu nian; hiri aditzearekin gaizkile ninduan bihurtu. Nire hutsegiteen hutsegilea haizen hori, ba ote duk hutsegiteok zigortzeko eskubiderik?

Non dituk maite ninduten adiskideak, non? Nire zorigaitzak aienatu dizkik. Ezein ere ez duk ausartzen nigana hurbiltzera. Hertsatua nauk, eta laguntzarik gabe uzten naitek! Hiltzen ari nauk, eta nehor ez duk ari nigatik negarrez. Kontsolamendu oro ukatua zaidak. Urrikia baratua duk gaizkilea amiltzen ari den leizearen ertzetan. Kontzientziaren ausikiek urratua zeukatek, eta haren oihuak ez dituk entzunak!

Eta hi, laidotu haudan hori; hik, hire estimuaz oinazeak areagotzen dizkidaana; finean mendekatzeko eskubidea atxikia daukaan bakarra, zer ari haiz nigandik urrun? Hator emakume desleial bat zigortzera. Sofri ditzadan behingoz merezi ditudan hildurak. Hire mendekura makurtua nindukek jadanik: ez diat ordea neure ahalkea hiri aitortzeko kuraiarik izan. Ez hain zuzen itzalgaizka ibiltzeagatik, errespetuagatik baizik. Gutun honek emanen ahal dik bederen nire damuaren berri! Zeruak bere gomendio hartu dik hire

auzia: hura ari duk hik ezagutu ez duan laido batez mendekatzen. Hark trabatu zidak mihia eta neurtarazi zizkidak hitzak; zigortu nahi zuen hutsegite bat hik barkatuko ote hidaan beldurrez baitzen. Hark itzurarazi naik hire bihozberatasu-netik, haren justiziari min emanen ziolakoan.

Mendekari bihozgabea baita, galdu nauenaren beraren peko utzi naik. Harentzat eta haren-gatik ari nauk aldi berean sofritzen. Harengandik nahi diat ihes egin, alferretan, jarraika ari zidak; hor zagok; etengabe hertsatzen naik. Baina hain duk bere buruaren desberdin! Haren begiek ez ditek jadanik herra eta erdeinua baizik adierazten. Haren ahoak ez dik iraina eta erasia baizik erraten. Haren besoek ni urratzeko baizik ez naitetek inguratzen. Nork salbatuko naik haren sumin basatik?

Zer ordea? Hura duk... Ez nauk tronpatzen; huraxe duk berriz ikusten ari naizena. O! Adiskide atsegina! Har nazak heure besoetan; gorde nazak heure altzoan: bai, hi haiz, egiazki hi haiz! Zein lilura galgarriren kariaz ez ote haut ezagutu? Zenbatez ere sofritu dudan hire ausentzian! Elkarrengandik ez gaitezen gehiago bereiz,



sekula ez gaitezen bereiz! Utz nazak hats hartzen. Senti ezak nire bihotza, nola ari den taupadaka! O! Ez jadanik beldurrez, amodioaren zirraraz eziaz baizik. Zergatik errefusatzen dituk nire fereku amoltsuak? Bihur niganantz heure beharko eztiak! Zeintzuk dira haustera entseiatua haizen lotura horiek? Norentzat ari haiz heriozko tresna hori prestatzen? Nork alda litzake halatan hire hazpegiak? Zer ari haiz? Utz nazak: dardaraka ari nauk! Jainkoa! Mistro hori berriz! Adiskideok, ez ni abandona. Hari ihes egitera gonbidatzen ninduzuenok, lagundu hura gudukatzen; eta zu, bihozberagoa baitzara, neure oinazeak gutxituko zenizkidala hitz ematen zenidan horrek, zatoz bada nire ondora. Non zaudete zuek biok? Baldin zuek berriz ikustea ez bazait zilegi, erantzun bederen gutun honi; jakin dezadan maite nauzuela oraino.

Utz nazak bada, krudel horrek! Bertze zein suminek akuilatzen hau? Beldurrez hago senti-mendu ezti bat arimaraino barneratuko ote zaidan? Oinazeak areagotzen dizkidak: hiri herra izatera behartzen nauk. O! Zeinen dolugarria den herra! Nola herdoiltzen duen bihotz herra-

tsua! Zergatik esesten didazu? Ba ote duzu oraino deusik niri errateko? Ez ote nauzu ezindu, hala zuri aditzeko, nola zuri ihardesteko? Ez deusik iguriki nigandik. Adio, jauna.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 5ean.*

## **CLXII. GUTUNA**

DANCENY ZALDUNAK VALMONTEKO BIZKONDEARI

Jakina naiz, jauna, nirekin izan duzun jokabidea nolakoa izan den. Badakit halaber ezen, ni itsuski engainatu izana ez askietsirik, beldurrik ez duzula karia horretara harrotzeko, zeure buruaz arras bozkariatzeko. Ikusi dut zure saldukeriaren froga, zure eskuz izkiriatura. Aitor dizut bihotza hautsi didala, eta ahalke poxi bat ere sentitu dudala zure gehiegikeria higuigarri horretan nihaurk, zuri itsuki fidaturik, horrenbertze lagundu izanaz; ez nago haatik abantaila ahalkegarri horren bekaitzez: soil-soilik nago abantaila hori nire gainean osoki atxikiko duzun jakiteko irrikan. Jakinen dut baldin, igurikitzen dudan bezala, bihar, goizeko zortzi orenen eta

bederatzi orenen artean, Vincennes basoaren  
atean, Saint-Mandéko herrian, agertuko bazina.  
Ni arduratuko naiz zugandik hartu behar ditudan  
argitasunetarako behar den guztia han prestatu-  
rik izateaz.

DANCENY ZALDUNA

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 6an, gauean.*

## **CLXIII. GUTUNA**

BERTRAND JAUNAK ROSEMONDE ANDREARI

ANDREA,

Damuz beterik betetzen dut ankerki goibel-  
duko zaituen berri bat zuri emateko eginkizun  
tristeia. Lehenik otoi arren makur zaitez batbede-  
rak zugan hain sarri miretsi izan duen eraman  
handi errukitsura, hura baita geure ondikozko  
bizitzan erein ditugun nahigabeak jasanarazten  
dizkigun bakarra.

Zure iloba jaunak... Ala Jainkoa! Honenber-  
tzeraino behar ote dut dama arras agurgarri bat  
atsekabetu! Ondikotz zure iloba jaunak fin gaitz  
egin du Danceny jaun zaldunarekin gaur goizean

buruz buru egin gudian. Fisksik ere ez dakit haien arteko liskarbideaz: baina iduri du jaun bizkondearen sakelari kaustu eta ohorez igortzen dizudan txartelaren arabera, iduri du, diot, ez dela bera izan jazarlea. Eta zeruak nahi izan du hark egin zezan fin gaitz!

Jaun bizkondearen etxean nengoen haren zain, bere egoitzara ekarri duten orenean berean. Egizu kontu nola lastu naizen, ikusirik haren bi sehi zekartela zure iloba jauna, gorputz osoa odolatan blai. Bi ezpata ukaldi zituen gorputzean, eta arrunt ahuldua zekarten jadanik. Danceny jauna ere han zen, negarrez hura ere. Ah! Dudarik gabe, negar egin beharko du: alferrik du ordean negar malkoak isurtzea, egin duen gaitzak dagoeneko erremediorik ez duenean.

Nitaz den bezanbatean, ez nengoen neure buruaren jabe; eta naizen gutxia naizela ere, jakinarazi diot hargatik neure pentsaera. Baina horra non jaun bizkondea zin-zinez handi agertu den. Isiltzeko manatu dit; eta heldu dio eskua bere hiltzaile zuen gizon hari berari, adiskide deitu dio, besarkatu du gu guztion aurrean, eta

erran digu: «Manatzen dizuet izan dezazuen jaun honentzat gizon galai eta bipilari zor zaizkion begirune guztiak.» Emanarazi dio orobat, nire aitzinean, paper sorta aski lodi bat, nik ezagutzen ez nuena, nahiz jakin badakidan garrantzi handikoa zela harentzat. Nahi izan du gero utz genitzan une batez bakarrik. Bitartean sehiak berehala nituen igorriak arimako zein gorputzeko laguntza bila: baina, ondikotz! gaitzak ez zuen erremediorik. Oren erdi baino gutxiago barru, galdua zuen jaun bizkondeak konortea. Oliadura baizik ezin izan du hartu; eta zeremonia doi-doia finiturik azken hatsa eman du.

Jainko Jauna! Jaio berritan hartu nuelarik neure besoetan etxe txit goren bateko berme eder hura, aldeztu aurretik ikus ahal nezakeen neure besoetan zenduko zela, eta haren heriotza beharko nuela deitoratu? Heriotza hain goiztiar eta hain ondikozkoa! Negar malkoak gogoz kontra zaizkit isurtzen; barkamena eskatzen dizut, andrea, nire oinazeak zureekin gisa horretan nahastera ausartzeagatik: baina egoera nolakoa izan, bihotza eta sentikortasuna izaten baita halakoa; eta arras eskergabea nintzateke, ez

banu bizitza osoan auhendatuko nigana hainbertze ontasun izan dituen eta bere fidantzia osoaz ohoratu izan nauen nagusia.

Bihar, hilotza eraman ondoren, oro zigilaraziko dut; ardura guztiak nire gain uzten ahal dituzu. Jakitun zaude, andrea, ezen zorigaiztoko gertakari horrekin ordaingoa finitua dela, eta zeure deliberoak halatan libro har ditzakezula. Zernahitan lagun ahal badiezazuket, mezutu otoi arren zeure manuak: arretaz eta arduraz zehatz beteko baititut.

Errespeturik handienaz naiz, andrea, zure zerbitzaririk apalena, etab.

BERTRAND

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 7an.*

## **CLXIV. GUTUNA**

ROSEMONDE ANDREAK BERTRAND JAUNARI

Orain berean hartu dut zure gutuna, Bertrand maitea, eta hark jakinarazi dit neure iloba dohakabeari kalte eragin dion gertakari lazgarria. Bai, dudarik gabe izanen dut manurik zuri emateko;

eta soilik haiengatik ardura ahal naiteke nire bihozmin heriogarria ez den bertze zerbaitez.

Igorri didazun Danceny jaunaren txartelak argi eta garbi frogatzen du borroka hark sortua izan dela, eta nire xedea da auzitara eraman dezazun berehala, eta nire izenean. Bere etsaia-ri, bere hiltzaileari barkaturik, nire ilobak amore eman ahal izan dio bere eskuzabaltasun natura-lari; nik ordea aldi berean behar ditut mendeka-tu haren heriotza, gizadia eta erlijioa. Ez dugu legeen zorrozatasuna nehoiz aski akuilatuko orai-no gure azturak usteltzen dituen basakeria hon-dar horren kontra; eta ez dut uste kasu honetan laidoen barkamena manatua zaigunik. Iguriki-tzen dut beraz afera hau segituko duzula gai zarela badakidan eta nire ilobaren oroitzapenari zor diozun lehia eta bizkortasun guztiaz.

Har ezazu, lehen lehenik, \*\*\*ko jaun lehenda-karia nire izenean ikustera joateko ardura, eta mintza zakizkio. Ez diot izkiriaturik, neure oina-zeari guztiz amore emateko presatua bainaiz. Desenkusa zaitetz nire izenean eta emaiozu gutun honen berri.

Adio, Bertrand maitea; goresmenak zuri eta eskerrak zure onberatasunagatik, zuri nago bizi-tza osoko.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko abenduaren 8an.*

## **CLXV. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK ROSEMONDE ANDREARI

Badakit jakitun zaudela, adiskide maite eta duina, egin berri duzun galeraz; ezagutzen nuen Valmont jaunari diozun amoltsutasuna, eta zinez neure egiten dut zuk orain sentitu behar duzun atsekabea. Arras dolaturik naiz zu dagoeneko sentitzen ari zaren nahigabeei bertze bat gehiago gehitu beharraz: baina ondikotz! gure adiskide dohakabeari malkoak baizik ez diezazkiokezu jadanik eskain. Galdua dugu, atzo, gaueko hamaika orenetan. Haren halabeharrari lotua zaion eta iduriz gizonen zuhurtzia orori trufa egiten dion zoriaz, Valmont jauna hilez geroztik hark bizirik iraun duen bitarte labur hori aski izan du haren heriotzaren berri jakiteko; eta, gure adiskideak berak erran duen bezala, haren malu-



ren zama azpian fin gaitz ez egin ahal izateko orobat harik eta maluren neurria mukurutua zen arte.

Jakina zara, alabaina, azken bi egunak guztiz kordea galdurik eman zituela; eta atzo goizean berean ere, medikua heldu zenean, eta haren ohera hurbildu ginelarik, ez gintuen ezagutu ez bata ez bertzea, eta harengandik ez genuen erdietsi ahal izan ez elerik, ez imintziorik den mendrena ere. Hots bada! Supazterrera bildu ginen orduko, eta medikuak Valmont jaunaren heriotzaren gertakari tristea jakinarazten zidan bitartean, emakume dohakabe horri kordea berriz etorri zitzaion, dela iraultza hori naturak soilik sortu zuelako, dela *Valmont jauna* eta *heriotza* hitzen errepikazioen eraginez, oroitara-zi ahal izan baitizkiote eriarri aspaldi honetan buruan zerabiltzan ideia bakarrak.

Zernahi ere den, oheko oihalak itsumustuan ireki zituen eta oihukatu zuen: «Zer! Zer diozu? Valmont jauna hil dea?» Tronpatua zela sinetsa-raziko niola uste izan nuen, eta gaizki aditu zuela segurtatu nion hasieran: baina gisa horretan bil-dua izatetik urrun, medikuari hertsiki galdetu

zion has zezala berriz kontakizun krudel hura; eta asmo hura hari kentzera entseiatu nahi izan nintzenez, deitu ninduen eta ahapetik erran zidan: «Zergatik nahi nauzu engainatu? Niretzat ez ote zen dagoeneko hila?» Amore eman behar izan genuen beraz.

Gure adiskide dohakabeak itxura aski lasaiaz entzun zuen hasieran, baina berehala, medikuari solasa eten zion, erranez: «Aski, aski dut.» Oheko oihalak herstea eskatu zuen berehala eta medikuak eman nahi izan zizkiolarik orduan haren egoerari dagozkion artak, hurbiltzera ere ez zion utzi.

Medikua jalgi zen orduko, bidali zituen gisa berean begiraleak eta gelaria; eta bakarrik gelditu ginenean, ohean belauniko jartzen lagun niezaiola eta euts niezaiola otoiztu ninduen. Isilik eman zuen zerbait denbora, eta ez zuen bertze keinurik egin, sarri isurtzen zitzaizkion malkoez bertzalde. Azkenean, eskuak bilduz eta zerura buruz igoz, boz ahul baina kartsuz erran zuen: «Jainko ahalguztiduna, men dagiot zeure justiziari: barkatu ordea Valmonti. Nire malurak, merezi ditudala aitortzen dudan arren, ez dakiz-

kion liskarbide gerta, eta zure miserikordia dut bedeinkatuko!» Zilegi izan bekit, adiskide maite eta duina, oinazeak areagotu eta larrituko dizkizula badakidan sujet horrez xehetasunetan sartzea, zeren eta ez baitut dudarik egiten Tourvel andrearen otoitz horrek ez duenik haatik kontsolamendu handia ekarriko zure arimara.

Ele bakan horiek erran ondoren, gure adiskidea berriz erori zen nire besoetara; eta ohean berriz etzan zen orduko, horra non ahuleziak jo zuen, luzaz jo ere, baina ohiko sendabideei amore eman zion haatik. Kordea etorri zitzaion orduko, galdegin zidan igor nezala norbait aita Anselmeren bila, eta erran zuen gero: «Hura dut orain behar dudan mediku bakarra; badakit nahi-gabeak aurki bukatuko zaizkidala.» Kexu zen arras hertsatua zelako, eta nekez hitz egin zezakeen.

Handik gutxira, emanarazi zidan kutxa txiki bat gelariaren bitartez, zeina igortzen baitizut, zeinak hark erran didanez haren paperak omen ditu gordeak, eta zeina manatu baitit hilik den orduko berehala zuri helaraztea. Mintzatu zitzaidan gero zutaz eta hari diozun adiskidantzaz,

egoerak uzten zion heinean, eta arras hunkiturik.

Aita Anselme lau orenen inguruan heldu zen, eta ordu bete inguru eman zuen Tourvel andreakin bakarka. Sartu ginelarik, eriaren begitartea lasai eta bare zegoen: baina aise ikus zitekeen aita Anselme anitz negar egina zela. Elizako azken zeremoniarako gelditu zen. Ikuskari hori, hain baita betiere hunkigarria eta dolugarria, are hunkigarriagoa eta dolugarriagoa bihurtua zuen eriaren eraman handi lasaiaren eta negarrez urturik haren ondoan zegoen kofesor agurgarriaren oinaze sakonaren arteko alde nabarmenak. Zirrara handia hartu genuen guztiok; eta mundu guztiak negartzen zuen huraxe izan zen negar egin ez zuen bakarra.

Gainerakoan eguna ohiko otoitzetan eman genuen, soil-soilik eriaren ahulezia sarritakoak etenik. Azkenik, gaueko hamaika orenen inguruan, Tourvel andrea hertsatuago eta larriago zegoela iruditu zitzaidan. Eskua luzatu nuen haren besoaren bila; nire eskua hartzeko adina indar izan zuen oraino, eta bere bihotzaren gainean ezarri zuen. Taupadarik ez nuen jadanik

sumatzen; eta izan ere, gure adiskide dohaka-bea une hartan berean zendu zen.

Oroitzen duzu, adiskide maitea, ez du oraindik urte bat, gure etxean azkenekoz egin zenuen egonaldian, elkarrekin solasean ari ginelarik gure irudiko zoriona hein batean ziurtatua zuten zenbait presunez, nola gogobeterik ohartu gintzaizkion egun malurak eta heriotza aldi berean deitoratzen dizkiogun emakume horren beraren asturuari? Hainbertze bertute, dohain goresgarri eta atsegintasun; izaera hain ezti eta hain xumea; oso maite zuen senar bat, hark ere bizi-ki maite zuena; lagunarte bat hari arras laketzitzaiona, eta hura halaber ezin maiteago zuena; edertasuna, gaztetasuna eta fortuna; abantaila horiek guztiak zuhurtziagabekeria bakar batez galduak! O, probidentzia! Zure nahiak behar dira dudarik gabe bete; zenbatez ere diren ordeak ulertezinak! Baratzten naiz, zure tristura gehitu beldur naiz, nireari amore emanaz.

Uzten zaitut eta banoa neure alaba ikustera, alditxartuxe da eta. Gaur goizean jakin duelarik nigandik bi presuna ezagunen heriotza hain goiztiarra, ondoezak jo du, eta oherarazi dut. Nago

haatik ezbehar arin horrek ez duela segidarik izanen. Adin horretan, ez da oraino atsekaberik hartzeko ohiturarik izaten, eta biziagoa eta bortitzagoa izaten da atsekabeen zirrara. Sentikortasun bizi hori dohain goresgarria da dudarik gabe; baina egunoro ikusten dugun guztiak zenbatez ere irakasten digun dohain horri beldur izaten! Adio, adiskide maite eta duina.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 9an.*

## **CLXVI. GUTUNA**

BERTRAND JAUNAK ROSEMONDE ANDREARI

ANDREA,

Ohore handiz mezutu dizkidazun manuen ondorioz, \*\*\*ko jaun lehendakaria ikustera joateko ohorea izan dut, eta zure gutunaren berri eman diot, bai aldeaz aurretik gaztigatu ere ezen, zure nahiak betez, deusik ere ez dudala eginen haren kontseiluz ez bada. Legegizon agurgarri horrek gaztigatu dit ohartaraz diezazudala ezen Danceny jaun zaldunaren kontra ezartzeko asmoz zabiltzan salaketa horrek gisa berean

konprometatuko lukeela zure iloba jaunaren omena, eta auzitegiaren erabakiak halabeharrez beztuko lukeela orobat haren ohorea, malura handia litzatekeena dudarik gabe. Haren iritzian, ongi begiratu behar zara beraz ezein urrats egitetik; eta urratsik eginez gero, egin behar lirateke aitzitik sobera eskandalu sortua duen zorigaiztoko abentura horren berri aginteak jakin ez dezan saiatzeko.

Ohar horiek zuhurtziaz beteak iruditu zaizkit, eta deliberatu dut zure manu berrien zain egoeta.

Erregutzen dizut otoi arren, andrea, manu horiek jakinaraztearekin batera, igor diezadazun ele bat zeure osagarriaren egoeraz, arrunt izutua bainaukate hainbertze atsekabek eragin liezazkiokeen ondorio tristeez. Barkatuko ahal didazu nire atxikimenduari eta eginahalari zor zaion libertate hori!

Errespetuz naiz, andrea, zure, etab.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 10ean.*

# CLXVII. GUTUNA

GUTUN IZENGABEA DANCENY JAUN ZALDUNARI

JAUNA,

Ohore handiz gaztigatzen dizut ezen gaur goizean, auzitegian, jaun akusatzaileak Valmonteko jaun bizkondearekin azken egun hauetan izan duzun aferaz mintzatu direla, eta beldur izatekoa dela berebat agintariak ez ote zaituzten auzitara eramanen. Iruditu zait gaztigu hau baliagarri izan zekizukeela, dela babesak har ahal izan dezazun, ondorio gogaikarri horiek baratze-ko; dela, babesik erdietsi ezean, zuhauren segurantza berma ahal izan dezazun.

Baldin uzten badidazu zuri kontseilu bat ematen, uste dut hobe duzula jendaurrean duela egun batzuk hona agertu izan zaren baino gutxiago agertzea bolada batean. Nahiz gisa horretako aferak jendeak bihozberatasunez hartzen dituzten, legeari haatik errespetua zor zaio beti.

Zuhurtziazko izari hori hanbatenaz da beharrezkoagoa, non jakina bainaiz Rosemonde delako andre batek, zeina erran didatenez Valmont



jaunaren izeba baita, auzia jarri nahi omen dizula; eta orduan ez liokete akusatzaileek emakume horri auzi galde hori ukatzen ahalko. Komenigarria litzaizuke agian andre horrekin mintzatu ahal izatea.

Arrazoi partikularren kariatara ez dezaket gutun hau sina. Baina uste osoan naiz ezen, nork igortzen dizun ez jakinagatik, gutun hau diktatu duen sentimendua hargatik aintzat duzula hartuko.

Ohorez bainaiz, etab.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 10ean.*

## **CLXVIII. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK ROSEMONDE ANDREARI

Erran-merran aski bitxi eta higuingarriak ari dira hemen barreiatzen, adiskide maite eta duina, Merteuil andrearen bizkar. Hain segur, ez ditut urrundarik ere sinesten, eta egingo nuke gezur beltz izugarri bat baizik ez direla: sobera dakit ordea gaiztakeriak, baita egiantzekotasun handirik ez dutenak ere, zenbatez indartzen eta

bizkortzen diren, eta zenbatez ere den orobat ezabagaitz uzten duten zirrara; beraz honako hauek arras kezkatzen naute, nahiz aise suntsitzen ahal direla iruditzen zaidan. Nahi nuke, oroz gainetik, tenorez eta gehiago barreiatu baino lehen baratuak izan ahal daitezen. Baina ez nuen atzo arte jakin, beranduegi alabaina, hedatzen hasi baizik ez diren izugarrikeria horien berri; eta gaur goizean igorri dudalarik sehi bat Merteuil andrearen etxera, hura landaldera partitu berri zen bi eguneko egonaldi bat egitera. Ez didate erran ahal izan noren etxera joana den. Ordezko gelariak erran didanez, nirekin mintzatzera etorrazai baitut, bere etxekoandreak soilik eman dio hurrengo ortzeguneari haren zain egoteko manua; eta hemen utzi dituen sehietarik ezeinek ez zekien gehiagorik. Nihaurk ere ez dut sumatzen Merteuil andrea non egon daitekeen; ez naiz oroitzen landaldean hain berandu gelditzen den haren ezein ezagunez.

Zernahi ere den, zuk ematen ahalko didazu, hala igurikitzen dut, baliagarria izan ahal dakion argitasunik, hura etorri bitartean, zeren eta kontu ikaragarri horiek Valmont jaunaren herio-

tzaren zernolakoetan funtsatuak baitira, eta baldin egia badira, zu ustez jakitun egonen zara, edo bederen aise galdatzen ahalko duzu haien berri, eta hori egin dezazun dizut otoi arren eskatzen. Horra beraz zertan diren argitara eman dituzten horiek, edo, hobeki erran, oraingoz behintzat murmurikatzen hasi baizik ez baina segurki luze gabe eskandalu handia sortuko duten horiek.

Valmont jaunak eta Danceny zaldunak izan zuten liskarra Merteuil andreak sortua omen da beraz, orobat engainatzen baitzituen bi-biak; bi aurkariak halaber lehenik borrokan hasi omen dira, ia beti gertatzen den bezala, eta borroka bukatu arte ez omen dira argibidetan hasi; argibide horiek egiazko adiskidetzea ekarri omen dute; eta Danceny zaldunak osoki ezagut zezan Merteuil andrea, eta bere burua halaber osoki zuri zezan, Valmont jaunak gehitu omen die bere eleei gutun parrasta bat, emakume horrek eta berak egunean-egunean elkarri izkiriatsuak zizkioten gutun multzo bat osatzen zutenak, eta non Merteuil andreak kontatzen omen baititu

bere buruaz, eta estilorik libroenean, gertaerarik eskandalugarrienak.

Diote orobat ezen Dancenyk, hasierako sumi-naldian, eman dizkiola gutun horiek ikusi nahi zituen orori, eta egungo egunean, Parisen barna hedatuak omen direla. Bi gutun badira bereziki aipatuak: batean Merteuil andreak egiten omen du bere bizitzaren eta bere oinarritzko arauen historia, eta izugarrikeriez mukuru betea omen da; bertzeak arras zuritzen omen du Prévan jauna, zeinaren historia oroituko baituzu, zeren frogatzen baitu ez omen zela aitzitik Merteuil andrearen aitzinamendu nabarmenei makurtu baizik egin, eta elkar ikuste hura harekin adostua omen zuela.

Zorionez baditut arrazoi arras bortitzak salaketa horiek gezurrezkoak bezain higuingarriak direla uste izateko. Hasteko, guk biok badakigu Valmont jauna ez zela segur aski Merteuil andreaz arduratua, eta guztiz ere sinestekoa da Danceny ez zela emakume horrez hura baino arduratuago; halatan, aski frogatua iruditzen zait Merteuil andrea ezin izan daitekeela ez lis-

kar horren kausa, ezta eragilea ere. Ez dut hala-ber ulertzen Merteuil andreak zein interes izan zezakeen, Prévan jauna eta bera ustez elkar adituak baitziren, sortu behar zuen eskandaluagatik beragatik gogaikarria baizik ezin izan zitekeen gertaldi bat eragitera, eta berarentzat oso arriskutsua gerta ahal zitekeena, gisa horretan ezin adiskidetuzko arerio bat eginen baitzuen, bere sekretuaren zati baten jakinaren gainean zegoen gizon bat hain zuzen, aldi hartan jarraitzaile asko zituen. Hala ere, ohartarazi behar da nola, abentura horrez geroztik, Prévanen alde ez den aditu hitzik, eta nola hark ezein erreklamaziorik ez duen orobat egin.

Gogoeta horiek ninderamateke egun barreiatuak diren erran-merranak hark sortuak direla susmatzera, eta uste izatera orobat belzkeria horiek bere burua galdutzat duen eta bide horrez bederen dudak sorraraztea eta agian libertimendu baliagarri bat sortzea igurikitzen duen gizon baten herrak eta mendekuak asmatuak direla. Baina gaiztakeria horiek nondik ere

baitatoz, suntsitzea da orain premiazkoena. Bere kabuz desagertuko lirateke, baldin, uste izatekoa den bezala, Valmont eta Danceny jaunak beren afera zorigaiztokoaren ondoren elkarrekin mintzatu izan ez balira, eta bata bertzeari ezein paperik eman izan ez balio.

Egintza horiek ziurtatzeko ezinegonak bultzaturik, sehi bat igorri dut gaur goizean Danceny jaunaren etxera; Parisetik kanpo da hura ere. Haren sehiak nire mirabeari erran diotenez, bart gauean partitua da, atzo hartu zuen gaztigu baten karietara, eta ezin jakin omen daiteke non finkatua den. Bere aferaren ondorioen beldur bide da. Beraz zugandik baizik ez ditzaket jakin, adiskide maite eta duina, interesatzen zaizkidan xehetasun horiek, Merteuil andreari guztiz ere premiazkoak gerta dakizkiokeenak. Bihoakizu berriz ahalik lasterrena helaraziko dizkidazulako erregua.

*P.S.—* Nire alabaren ondoezak ez du ezein segidarik izan; goraintziak haren partetik.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 11n.*

## CLXIX. GUTUNA

DANCENY ZALDUNAK ROSEMONDE ANDREARI

ANDREA,

Aski bitxia irudituko zaizu agian gaur egiten ari naizen urratsa: baina, otoi arren, jujatu baino lehen entzun iezadazu, eta ez ezazu ez ausardia-rik ez ausarkeriarik ikus errespetua eta fidantzia baizik ez den lekuan. Ez dizkiot neure buruari ezkutatzen zuri egin dizkizudan hutsegiteak; eta ez nioke neure buruari sekula barkatuko zuk une batez pentsa ahal izan zenezan hutsegiteok saihestu ahal izan nituela. Zin-zinez sinets nazu halaber, andrea, ezen erantzukietarik salbuetzia naizen arren, ez naizela damuetarik salbuetzia; eta egiaz eta benaz halaber erran dezaket ezen sortu dizkizudan atsekabe horiek zerikusi handia dutela ni sentitzen ari naizenekin. Zuri seguratzera ausartu naizen sentimendu horiek sinesteko, aski izan behar zenuke zeure buruarekin bidezko izatea, eta jakitea orobat ezen, nahiz zuk ni ezagutzeko ohorea ez dudan, nik badudala haatik zu ezagutzekoa.

Hargatik, zure xangrinak eta nire malurak eragin dituen asturugaitza auhendatzen ari naitzelarik, nahi naute beldurrarazi ari omen zarela-ko, zure mendeku goseari osoki emana, hura asetzeko bitartekoen bila, are legeen zorroztasu-nean ere.

Utz nazazu lehenik sujet horrez den bezanbatean zuri ohartarazten ezen zeure oinazeak nahasirik zauzkala, zeren puntu horri buruz dudan interesa Valmont jaunarenari hertsiki lotua baita, eta hura ere tarteko gertatuko bailit-zateke zuk nire kontra sorrarazia zenukeen kon-denazioan. Uste dut bada, andrea, zure partetik iguriki ahal nezakeela laguntzarik jasotzea tra-bak kausitzea bainoago, zorigaiztoko gertakari hori isiltasunean bildua geldi dadin hartzera behartua egon nintekeen deliberoetan.

Baina kidegoaz halatan baliatu nahi izana, errudunari eta errugabeari berdin komeni zaio-na, nire begiruneak ez dezake askiets: auzilari gisa zu nahirik baztertu, jujetzat zaitut hartzen. Errespetatzen ditugun presunen estimua sobera baliosa da eta ez dut beraz defendatu gabe



zurea ken diezadaten utziko, eta eduki uste ditut defendatzeko baliabideak.

Alabaina, baldin onartzen baduzu mendekua zilegia dela, hobeki erran, amodioan, adiskidantzan eta, batez ere, fidantzian traditua izan denari mendekua zor zaiola; baldin hori onartzen baduzu, nire hutsegiteak desagertuak dirateke zuretzat. Ez sinetsi nire hitzak, irakur ezazu ordea, kuraia baldin baduzu, zure eskuetan ezartzen dudan gutun multzoa. Jatorrizko gutunak hain dira ugariak non ustez pentsa bailiteke kopiatuak baizik ez direnak egiazkoak direla. Bertzenaz, paper horiek, ohorez zuri igortzen dizkizudanak bezala, Valmont jaunagandik bera-gandik hartu nituen. Ez dut fitsik gehitu, eta ez ditut neuretu argitaratzea bidezko iruditu zaizki-dan bi gutun baizik.

Bata beharrezkoa zen nire eta Valmont jaunaren mendeku komuna asetzeko; biok baike-nuen mendekatzeko eskubidea, eta hark bera-riaz eman baitzidan ardura hori. Horrez gainera, uste izan dut gizarteari zerbitzu egitea zela den bezala agerraraztea Merteuil andrea izatez den bezain emakume zinez arriskutsu bat, hura

baita, ikusi ahal izanen duzun bezala, Valmont jaunaren eta nire artean gertatu den guztiaren benetako kausa, kausa bakarra.

Halaber bidezkitasunezko sentimendu batek eraman nau bigarrena argitaratzera kasik ezagutzen ez dudan Prévan jaunaren jokabidea zuritzeko, ez baitzuen nehola ere merezi jasan berri duen tratamendu zorrotza, ezta jendeen jujamenduen zorrotasuna ere, askoz beldurgarriagoa dena, eta harrezkero Prévan jauna haren peko auhenka eduki duena, bere burua defendatzeko deusik izan gabe.

Ez duzu beraz bi gutun horien kopia baizik kausituko, jatorrizko gutunak nik gorde behar baititut. Gainerako guztiaz den bezanbatean, ez dut uste esku seguragoetan jar nezakeenik suntsitua ez izatea agian axola zaidan baina neurriz gain baliatzeak ahalke gorrituko nindukeen gordailurik. Paper horiek zure gomendio utzirik, uste dut, andrea, gutun horietan zerikusia duten presunak zerbitzen ditudala paper horiek presuna horiei berei emanaz bezain ongi; eta begiratzen ditut orobat nigandik jasotzeak eta dudarik gabe ororentzat isilean gorde nahiko dituzten abentu-

ren berri badudala jakiteak sor liezaiekeen asal-  
dutik.

Sujet horren kariatara uste dut gaztigatu  
behar dizudala ezen gutun honi atxikia doan  
gutun bilduma askoz bilduma lodiago baten  
parte bat baizik ez dela, Valmont jaunak nire  
aurrean aterea, eta zigiluak kendu ondoren zuk  
kausituko duzuna nihaurk ikusi dudan honako  
izenburuaz: *Merteuileko markesak eta Valmon-  
teko bizkondeak elkarri kitatu gabekoak*. Horri  
buruz har ezazu zeure zuhurtziak kontseilatuko  
dizun xedea.

Errespetuz naiz, andrea, etab.

P.S.— Eman dizkidaten iritzi batzuek, eta nire  
adiskideen kontseiluek, Parisetik bolada batez  
lekutzeko deliberoa harrarazi didate: baina nire  
bazterraldiaren lekua, mundu guztiarentzat  
sekretuan gordea izan dena, zuretzat ez da  
sekretua izanen. Baldin erantzun batez ohora-  
tzen banauzu, erantzun hori otoi arren igor  
ezazu ...ko komandante egoitzara, P...ren bidez,  
eta \*\*\*ko komandantearen izena kartazalean

ezar. Haren etxetik baitizut ohore handiz izkiriatzen.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 12an.*

## **CLXX. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK ROSEMONDE ANDREARI

Ustekabetik ustekabera, eta nahigabetik nahigabera nabil, adiskide maitea. Ama behar da izan atzo goiz osoan zenbat sofritu nuen jakin ahal izateko; eta nire kezkarik krudelenak geroztik ematuak izan diren arren, badut oraino bihozmin handi bat, noiz bukatuko den alde z aurretik ikus ez dezakedana.

Atzo, goizeko hamar orenen inguruan, alaba oraino ez ikusi izanaz harritua, neure gelaria igorri nuen berandutze hori zergatik izan zitekeen jakitera. Berehala etorri zen ikara bizian, eta are ikaratu ninduen ni, nire alaba bere gelan ez zela niri iragarririk; eta orobat erranez haren gelariak ez zuela egunsentiaz geroztik nehon kausitu. Egizu kontu nolako egoeran nintzen! Sehi guztiak etorrarazi nituen, eta batez ere atezaina:

denek zin egin zidaten deus ez zekitela eta ezin deusik erran ziezadaketela gertakari horrez. Alabaren gelara joan nintzen berehala. Hango nahaspilak jakinarazi zidan neure alaba ustez ez zela goizean goiz arte jalgi: baina horretaz bertalde ez nuen ezein argitasunik han kausicu. Miatu nituen haren armairuak, miatu nuen haren idazmahaia; oro bere lekuan aurkitu nuen, baita haren soineko guztiak ere, kalera joateko jantzi zuen gona salbu. Ez zuen gelan zeukan diru poxia ere hartu.

Nola atzo arte ez baitzuen jakin Merteuil andreaz erraten ari diren guztia, eta hari hain dio atxikimendu handia, non afalondo osoan ez baitu negarra baizik egin; nola gogoan bainuen halaber ezen nire alabak ez zekiela Merteuil andrea landaldean zenik, bururatu zitzaidan lehen gauza izan zen bere adiskidea ikusi nahi izan zuela, eta ergelki bakarrik joana zela. Baina denboraren iragaitean nire alaba ez etorri izanak kezka guztiak berretu zizkidan. Unetik unera are nahigabetuago nintzen, eta jakinminez irrika bizian nintzen arren, ez nintzen ausartzen ezein albisteren galdea egitera, gero agian mundu

guztiari gorde ahal izan nahiko nion urratsa eskandalubide gerta zedin beldurrez. Ez, bizitza osoan ez dut hainbertze sofritu!

Azkenik, bi orenak jo zutelarik, nire alabaren gutun bat eta ...ko komentuko mojaburuaren bertze gutun bat aldi berean hartu nituen. Nire alabaren gutunak soil-soilik zioen moja sartzeko zuen bokazioari gogor eginen niolako beldurra izan zuela, eta ez zela bokazio hori niri jakinaraztera ausartu: gainerakoak desenkusak baizik ez ziren xede hura nire baimenik gabe hartu zuelako, eta orobat zioen ez nuela segurki xede hura gaitzetsiko, baldin haren arrazoiak jakin banitza, nahiz haatik ziostan ez egiteko arren arrazoi horien galderik.

Mojaburuak mezutzen zidan ezen neska gazte bat bakarrik heltzen ikusirik, uko egin ziola hasieran hura han hartzeari; baina galdekatu zuelarik, eta nor zen jakinik, uste izan zuela niri zerbitzu egiten zidala, lehen lehenik ostatu eman ez nire alabari, bertze ibileratan ibil ez zedin, ustez deliberatua zuen bezala. Mojaburuak, nire alaba nigana berriz ekartzera arrazoi den bezala eskainirik, baldin nik ekar zezala galdatzen

banion, gomitatzen ninduen, haren egoerari jarraiki, hark arras deliberatua deitzen dion bokazio bati ez aihertzera; erraten zidan berebat ezin izan zidala lehenago mezutu deusik, asko gusta izan zitzaiolako nire alaba niri izkiriatzera behartzea, haren xedea baitzen nora bazterrera-tua zen nehork jakin ez zezan. Hain da gauza krudela seme-alaben desarrazoia!

Berehala joan nintzen komentu horretara; eta mojaburua ikusi ondoren, alaba ikustea galdatu nuen; ondo gostarik baizik ez zen etorri, eta dardara bizian. Mojen aurrean mintzatu nintzaion eta bakarrik nintzaion mintzatu; eta malko anitzen artean atera ahal izan nion gauza bakarra izan zen komentuan baizik ezin zitekeela izan zorientzua; hartu nuen komentuan gelditzera hari uzteko xedea, baina egon gabe oraino, hark galdatzen zuen bezala, mojabaien mailan. Beldur naiz Tourvel andrearen eta Valmont jaunaren heriotzak ez ote duten eragin biziagia izan buru gazte horretan. Handia izanik ere bokazio erlijiosoari diodan errespetua, ez dezaket nahigaberik gabe, eta are beldurrik gabe, neure

alaba erlijioan sartzen ikus. Uste dut aski bete-behar badugula dagoeneko, geure buruari bete-behar berririk sortu gabe; eta uste dut orobat adin horretan ez dugula jakiten zer komeni zai-gun.

Nire kezka areagotua du Gercourt jaunaren etorrera hurran-hurranak; hain ezkontza abantailatsua beharko dut bada hautsi? Nola egin bada seme-alabak zoriontsu, baldin nahi izatea eta zeregin horretan artoski ahalegintzea ez bada aski? Biziki eskertuko nizuke nire lekuan egonez gero zuk zer egingen zenukeen erranen bazenit; ez dezaket ezein xede hartzea delibera; ez dezaket suma bertzeren asturua erabakitzea baino deus izugarriagorik, eta berdin izutzen nau juje bat bezain zorrotz eta ama bat bezain ahul okasio honetan jokatzeari.

Etengabe egiten diot liskar neure buruari zure malurak gehitu izanaz, nireez zuri mintzaturik; baina ezagutzen dut zure bihotza: bertzeei eman zeniezaiekeen kontsolamendua izanen da



zuretzat har zenezakeen kontsolamendurik handiena.

Adio, adiskide maite eta duina: ezinegonik naukazu zeure bi erantzunen zain.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 13an.*

## **CLXXI. GUTUNA**

ROSEMONDE ANDREAK DANCENY ZALDUNARI

Jakinarazi didazunaren ondoren, jauna, negar egin eta isildu, bertzerik ezin da egin. Batbedera dolutzen da bizirik jarraitzeaz, gisa horretako lazkeriak jakiten dituelarik; ahalke gorritzen da emakume izateaz, horrelako gehiegikeriak egiteko gauza den emakume bat ikusirik.

Gogo onez onartuko dut, jauna, niri dagokidanez, gertakari triste horiekin zerikusia dukeen eta haiei segida eman diezaiekeen oro isiltasunean eta ahanzturan uztea. Nahi dut orobat gertakari horiek ez diezazuten sekula bertze xangri-nik zuri sor, nire ilobaren gainean hartua duzun zorigaiztoko abantailak bere baitan ezin bereizirik dakartzan xangrinez bertzalde. Nire ilobaren

hutsegite, nik halabeharrez aitortu behar ditudanak gorabehera, hura galdu izanaz sekula kontsolatuko ez naizela sentitzen dut: baina nire malura eternala izanen da neure buruari zutaz den bezanbatean zilegituko diodan mendeku bakarra; zure bihotzari dagokio mendeku horren hedadura estimatzea.

Baldin uzten badidazu neure adinean egiten zurean egiten ez den gogoeta bat, erranen dizut ezen batbedera argitua baledi bere egiazko zorionaz, ez lukeela sekula bilatuko legeek eta erlijioak manatu mugez haraindi.

Egon zaitezke segur fidelki eta gogo onez gordeko dudala zuk fidatu didazun gordailua; egiten dizut ordea gordailu hori nehoi ez emateko baimenaren galdea, ezta zuri ere, jauna, non ez zaizun zeure burua zuritzeko beharrezkoa gertatuko. Zilegi izan bekit uste izatea ezen ez diozula erregu horri uko eginen eta dagoeneko ulertuko zenuela batbederak sarri duela auhendatzen mendekurik bidezkoenari ere men egin izana.

Ez naiz gelditzen zuri galdeak egitetik, uste osoa baitut zure eskuzabaltasunean eta zure

adeitasunean; eskuzabaltasun eta adeitasun horren gai litzateke Volanges andereñoaren gutunak ere nire eskuetan jartzea, ustez zuk gorde baitituzu, eta dudarik gabe dagoeneko ez baitzaizkizu interesatzen. Badakit neska gazte horrek hutsegin handiak dituela zure kontra: baina ez dut uste hari zigorra emateko asmorik duzunik; eta zeure buruari zor diozun errespetuagatik ez bada ere, ez duzu horrenbertze maite izan duzun emakumea laidotuko. Ez dut beraz erantsi beharrik ezen alabak merezi ez duen begirunea zor zaiola bederen amari, emakume agurgarri horri, zeinaren aldera ez baitzaude gauza anitz konpontzeko premiarik gabe: zeren azken finean, zein ere baita batbederak bere buruari sorrarazi nahi dion lilura sentimenduz ustez fina izan nahiaren estakuruan, bihotz oraino onest eta laño bat seduzitzera entseiatzen den lehena horregatik beretik bihurtzen da bihotz horren ustelduraren lehen eragilea, eta sekula betiko beharko du izan usteldura horrek dakartzan gehiegikerien eta nahasmenduen erantzulea.

Ez harritu, jauna, ni zuri hain zorrotz mintzatu izanaz; zorroztasun hori baita zuri dizudan estimu osoaz eman diezazukedan frogarik handiena. Are eskubide gehiago zeureganatuko dituzu oraino, amore emanik, nik nahi bezala, sekretua segurki gordetzeari, zeren sekretu hori argitara ateratzeak zuhauri egingen bailizuke kalte, eta heriotza lekarke zuk dagoeneko zauritua duzun ama baten bihotzera. Azkenik, jauna, zerbitzu hori nahi diot egin neure adiskideari; eta zuk kontsolamendu hori ukatuko bazenit, galdatako nizuke alde z aurretik gogoeta dezazun ezen hori dela utzi didazun kontsolamendu bakarra.

Ohorez bainaiz, etab.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko abenduaren 15ean.*

## **CLXXII. GUTUNA**

ROSEMONDE ANDREAK VOLANGES ANDREARI

Baldin, adiskide maitea, zuk galdatu dizkidadun argibide Merteuil andreari dagozkionak Parisetik etorerrarazi behar izan banitu eta handik etorri zain egon behar izan banu, oraino ezinen niz-

kizuke eman; eta dudarik gabe, ez nuke dudazko eta ziurtasunik gabeko argibiderik baizik hartuko: heldu zaizkit ordea igurikitzen ez nituen, ezin iguriki nitzakeen argibide batzuk; eta horiek ez dute sobera ziurtasun baizik. O, adiskidea, emakume horrek zenbatez ere zaituen tronpatu!

Higuin dut lazkeria mukuru horren ezein xehetasunetan sartzea; baina zernahi ere dela erran-merranek diotena, zaude ziur oso urrun direla oraino egiatik. Igurikitzen dut, adiskide maitea, nire hitzari sinesteko bezainbat ezagutzen nauzula, eta ez duzula nigandik ezein frogarik galdatuko. Aski izan bekizu jakitea anitz frogabada, eta froga horiek esku artean ditudala une honetan.

Ez dizut pena ezinago handi bat gabe erregu berbera egiten zuk galdatu didazun kontseiluaz, Volanges andereñoari dagokionaz. Gomendatzen dizut hark darakusan bokazioari ukorik ez egitea. Ezein arrazoik ez dezake hain segur erlijioan sartzera behartzea zilegitu, batbedera izan ez delarik bokazio horretara deitua; baina batzuetan Jainkoaren deia hartu izana zorion handia izaten da; eta ikusten duzu zeure alabak

berak diotsula ezen bokazio hori ez zenukeela gaitzetsiko, baldin haren arrazoiak jakin bazenitza. Gure sentimenduak sorrarazten dizkigun hark gure jakintza alferrikakoak baino hobeki daki zer komeni zaion batbederari; eta, maiz, haren zorroztasunaren egintza dirudiena izaten da aitzitik haren urrikiaren egintza.

Beraz, hona nire iritzia, nahiz badakidan atsekabetuko zaituela, eta horregatik beretik sinetsi behar didazu iritzi hori ez dizudala anitz gogoeta egin gabe ematen: utz ezazu Volanges andereñoa komentuan, hori baita hark egin duen hautua; bihotz emaiozu, aihertu bainoago, hartu bide duen xedean; eta xede hori bete bitartean, ezbairik gabe hauts ezazu deliberatua zenuen ezkontza.

Adiskidantzaren betebeharrak mingarri horiek bete ondoren, eta ezein kontsolamendurik gehitu ezinik, soil-soilik gelditzen zait ontarte bat zuri galdatzea, adiskide ederra, eta da ez nazazula sekula gehiago galdeka gertakari triste horiekin zerikusia dukeen deusi buruz: utz ditzagun gertakariok komeni zaien ahanzturan; eta alferrikako argitasun dolugarriarik bilatu gabe, egin die-

zaiegun men Probidentziaren asmoei, eta dugun sinets haren xedeen jakindurian, ulertzen uzten ez dizkigularik ere. Adio, adiskide maitea.

*...ko gaztelutik, 17\*\*ko abenduaren 15ean.*

## **CLXXIII. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK ROSEMONDE ANDREARI

O! Adiskidea! Zeinen oihal izugarrian biltzen duzun nire alabaren asturua! Eta oihal hori altxatzen saiatuko naizen beldur dirudizu! Zer ezkutatzen dit bada, zuk barnatzera utzi dizkidazun susmo lazgarriek bainoago dolu dezakeenik ama baten bihotza? Zure adiskidantza, zure bihozberatasuna zenbatenaz ezagutzen dudana, hanbatenaz dira nire oinazeak areagotuak: hogeia aldiz, atzodanik, nahi izan dut duda krudel horretarik jaldi, eta begirunerik eta itzulingururik gabe jakinaren gainean jar nazazun zuri galdetu; eta aldi bakoitzean izu-ikaraz egin dut dardara, zuri galdetik ez egiteko egin didazun erreguan pentsaturik. Hartu dut, azkenik, esperantza doi bat uzten didan xede bat; eta zure adiskidantzagan-

dik igurikitzen dut ez diozula uko eginen nire nahiari: zeina baita ihardets diezadazun ea gutxi gora behera ulertu dudan zuk erran behar zenidan guztia; eta ez ezazula orobat beldurrik izan ama baten bihozberatasunak estal dezakeen eta ezin konponduzkoa ez den oro niri jakinarazteko. Baldin nire malurek izari hori mukurutzen badute, orduan onartuko dut isiltasuna izan dadin emanen didazun argibide bakarra: hona beraz dagoeneko badakidana, eta noraino hel daitezkeen nire beldurrak.

Nire alabak zerbait jaidura erakutsi zuen Danceny zaldunaren alde, eta ni jakina nintzen jaidura hura heldua zela harengandik gutunak hartzeko heineraino, bai eta hari erantzuteraino ere; baina uste nuen erdietsia nuela haur baten hutsegite horrek ezein ondorio arriskutsurik izan zezan eragoztearaz: gaur, ororen beldur bainaiz, onartzen dut balitekeela nire alaba nire zaintzari itzuria izana, eta beldur naiz nire alabak, seduziturik, ez ote dituen haren nahasdurak mukurutu.

Gogoan ditut oraino beldur hori indar dezaket zernolako batzuk. Mezutu dizut nola nire ala-



bari ondoeza egin zitzaion Valmont jaunari gertatu zitzaion zorigaitzaren berri jakin zuenean; beharbada sentiberatasun hark Danceny jaunak borroka hartan jasan zituen arriskuen ideian zuen sorburua. Geroztik hainbertze negar egina delarik Merteuil andreaz erraten zuten guztia jakinik, nik adiskidantzaren oinazea zela uste nuena ez zen agian jelsiaren edo bere maitaleari desleial iritzi izanaren dolua baizik. Haren azken urratsa bera ere, nire ustez, arrazoi berberaz azal liteke. Sarri Jainkoaren deia aditu uste izaten da, nork bere burua gizonen kontra oldartua sentitzeagatik soilik. Azken buruan, zuri ere jakinarazi dizkizuten gertakari horiek egia direla uste izanik, askietsi ahal izan dituzu, dudarik gabe, niri eman didazun kontseilu zorrotza zilegitzeko.

Haatik, hori horrela balitz, gaitzetsirik nire alaba, hura bokazio lilurazko eta iragankor baten hildura eta arriskueta rik salbatzeko baliabide guztiak baliatzera entseiatzea zorko niola usteko nuke hala ere. Baldin Danceny jaunak ez badu sentimendu onest oro galdu, ez dio uko egingen berak baizik sortu ez zuen hutsegite bat konpon-

tzeari, eta azken buruansinets dezaket nire alabaren ezkontza aski abantailatsua dela haren gogoia eta haren familiarena ere betetzeko.

Horra, adiskide maite eta duina, gelditzen zaidan esperantza bakarra; lehia zaitez hura baieztara, baldin ahal bazeneza. Sumatuko duzu zenbatez ere nahi dudan erantzun diezadazu, eta zure isiltasuna zein ukaldi latza litzatekeen niretzat.

Gutun hau herstera nindoalarik, nire ezagun bat ni ikustera etorri da, eta kontatu dit Merteuil andreak herenegun pairatu behar izan zuen gertaldi krudela. Azken egunotan ez baitut nehor ikusi, ez dut fitsik jakin gertakari horretaz; hona bada kontakizuna, han egona zen lekuko bategandik jaso dudan bezala.

Heldurik landaldetik, herenegun, ortzegunez, Merteuil andreak Italiar Komediarara eramanez, zela manatu zuen, han palko bat baitu; bakarrik zen, eta, arras harrigarria iruditu behar izan zitzaiona, ezein gizon ez zitzaion hara bildu ikus-kari osoa bitartean. Handik jaigirik, sartu zen, ohi duen bezala, areto ttipian, jendez jadanik mukurru betean; berehala marmarra goratu zen, hari

ordea ustez ez zitzaion iruditu bera zenik marmarraren xedea. Leku huts bat hauteman zuen eserleku batean, eta han esertzera joan zen; baina bertatik han eserita zeuden emakume guztiak aho batez bezala zutitu ziren, eta bakar bakarrik utzi zuten han. Ororen sumina adierazten zuen urrats nabarmen hark gizon guztien txaloa jaso zuen, eta areagotu zituen marmarrak, diotenez, oihuak eta zalaparta sorrazteraino.

Haren umiliazioari deusik falta ez zekion, haren zoritxarrak nahikatu zuen Prévan jauna, haren abenturaz geroztik nehon agertu ez zena, une hartan berean sar zedin areto ttipian. Hari ohartu zitzaizkion orduko, mundu guztiak, gizon eta emakume, inguratu zuen eta txalotu; eta ohartu zen nola inguruan zeuzkan jendeek eramaten zuten, nolabait errateagatik, Merteuil andrearen aitzinera. Diotenez emakume hori deus ez ikusi ez aditzeko itxurari atxikia zen, eta aurpegiera ez omen zitzaion aldatu! Baina hori gehiegikeriak erratea iruditzen zait. Zernahi dela ere, Merteuil andrearentzat zinez laidogarria zen egoera hark haren zalgurdia iragarri zuten arte

iraun omen zuen; eta bazihoalarik, eskandaluzko oihuak areago ziren gehitu. Izugarria da emakume horren ahaidea izan beharra. Gau hartan berean, Prévan jaunari abegi arras ona egin zioten bere guda taldetik han gertatu ziren ofizialek, eta nehork ez du dudarik egiten sarri bihurtuko ez diotenik bere lanbidea eta maila.

Xehetasun horiek kontatu dizkidan presunak berak erran didanez, Merteuil andreak sukar handia hartu zuen, eta hasieran uste izan zuten jasana zuen egoera bortitz haren ondorioa zela; baina atzodanik jakin denez baztanga beltzak jo omen du, eta iduriz oso larriki. Egiazki, nire ustean, harentzat zorionekoa litzateke hiltzea. Erraten dute berebat gertakari horiek guztiek agian kalte handia egingen diotela jujatu hurrana den eta irabazi ahal izateko, ustez, laguntza handia beharko duen haren auziari.

Adio, adiskide maite eta duina. Argi dakusat horretan guztian gaiztoen zigorra; baina ez dut ezein kontsolamendurik kaustzen kaltea hartu duten dohakabeentzat.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 18an.*

## CLXXIV. GUTUNA

DANCENY ZALDUNAK ROSEMONDE ANDREARI

Arrazoi duzu, andrea, eta hain segur ez dizut deusik ukatuko nire esku dagokeenik, eta zuk zerbait balioetsia dukezunik. Ohore handiz igortzen dizudan paketea Volanges andereñoaren gutun guztiak bilduak dira. Baldin irakurtzen badituzu, ez duzu agian harridurarik gabe ikusiko horrenbertze lañotasun eta horrenbertze bilaukeria elkar litezkeenik. Hori da, bederen, gehien hunkitu nauena gutun horiek azken aldiz irakurri berri ditudalarik.

Baina, batez ere, batbedera begira ahal liteke Merteuil andrearen kontrako suminik bizienez, gogoan hartzen duelarik zer nolako plazer izugarriaz artoski arduratu den hainbertzeko inozentzia eta xalotasunaz neurriz gain baliatzera?

Ez, ez naiz jadanik amoro. Ez dut deusik gorde hain bidegabeki tratatua izan den sentimendu batetik; eta ez da amodioa Volanges andereñoaren jokabidea zuritza entseiatzera naramana. Baina haatik, bihotz hain laño hori,

izaera hain ezti eta erraz hori, ez lirateke aisea-  
go ongira emanak, gaizkira lerraraziak izan diren  
baino? Zein neska gazte, komentutik jalgirik, ohi-  
turarik gabe eta kasik ideiarik gabe, eta ez daka-  
rrelarik mundura, halakoetan ia beti gertatzen  
den bezala, ongiaren eta gaizkiaren ezjakin ber-  
din bat baizik; zein neska gazte, diot, aiher ahal  
zitzaiokeen gisa horretako jukutria errudunei?  
Ah! Bihozbera izateko, aski da gogoetatzea gure  
sentimenduen adeitasunaren edo gaiztotasuna-  
ren aukera ikaragarrian, eta gogoetatzea orobat  
aukera hori gugandik bereiz dauden zenbat zer-  
nolakoen mende dagoen. Zuzen eta bidezkoa  
zara beraz nirekin, andrea, uste izanik ezen  
Volanges andereñoaren hutsegiteek, nik biziki  
sentitu ditudanak, ez didatela ezein mendeku  
goserik bizten. Askia eta sobera baita hura maita-  
tzeari uko egin beharra! Sobera gostako litzaida-  
ke hari herra izatea.

Ez dut ezein gogoetarik behar izan hari dago-  
kion guztia, eta berebat kaltea lekarkiokeena,  
mundu guztiarentzat sekula betiko ezkutuan  
geldi dadin nahi izateko. Baldin iruditu bazaizu  
aldi batez gibelatu naizela zuk karia horretara

dituzun nahiak betetzetik, uste dut gibelatze horren arrazoia zuri ezkutuan gorde gabe eduki ahal dezadala; aldeaz aurretik nahi nuen segurik egon nire zorigaiztoko aferaren ondorioez sekula gehiago kezkarazia ez izateaz. Zure bihozberatasuna galdatzen nuen garai hartan, bihozberatasun hori erdiesteko eskubiderik ere banuela uste izatera ausartzen nintzen garai hartan, beldurrez nengokeen bihozberatasun hori nolarebait amore emanaz erosten nuela iduri izateaz; eta, neure arrazoiaren araztasunaz segur izan naizelarik, izan dut, aitor dizut, zuk araztasun horrez dudarik egin ahal izan ez zenezan desiratzeko urguilua. Zuk sorrarazten didazun gurtzak, zure estimuari diodan atxikimenduak, barkatuko ahal dit begirune agian sentikorreki hori!

Sentimendu horrek berak galdarazten dit, azken ontarte gisa, arren otoi jakinaraz diezadazun ea zure iritzian bete ote ditudan murgildua izan naizen zorigaiztoko zernolakoek behartu ahal izan dizkidaten betebeharrak guztiak. Puntu horri buruz lasai nagokeen orduko, neure xedea hartua dut; Maltara partituko naiz: hara joanen naiz, dagoeneko hain gaiztea naizen arren zer

deitoraturik anitz eman didan mundutik bereizi-ko nauten erlijiozko zinak atseginez egitera eta betetzera; hara joanen naiz azkenik horrenbertze laztura metatuen irudia, zeru arrotz baten pean, galtzen saiatzera, laztura horien oroitzapenak ez bailuke nire arima tristetu eta ximeldu baizik eginen.

Errespetuz naiz, andrea, zure zerbitzaririk apalena, etab.

*Parisen, 17\*\*ko abenduaren 26an.*

## **CLXXV. GUTUNA**

VOLANGES ANDREAK ROSEMONDE ANDREARI

Merteuil andrearen halabeharra bete bide da azkenik, adiskide maite eta duina, eta halakoa da non haren etsairik amorratuenak zalantzan baitaude andre horrek merezi duen haserre biziaren eta sorrarazten duen urrikiaren artean. Arrazoi nuen erran nuenean menturaz zorion handia zatekeela harentzat baztanga beltzaz hiltzea. Sendatu zaio, egia da, baina aurpegia lazki desitxuratua du; eta bereziki galdu du begi bat.



Sumatuko zenuen ez dudala berriz ikusi: erran didate ordea itxura zinez izugarria omen zuela.

\*\*\*ko jaun markesak, ez baitu itsuskeria bat errateko aukera galtzen, Merteuil andreaz ari zelarik, erran zuen atzo ezen eritasunak andre hura irauli zuela, eta orain arima aurpegian duela: zoritxarrez adierazte hori mundu guztiari zuzena iruditu zitzaion.

Bertze gertakari batek gehitu ditu haren malurak eta hutsegiteak. Haren auzia herenegun jujatu zuten, eta aho batez du galdu. Auzi kostuak, kalte eta damuak, ondasunen bihurtzea, adinik gabeak izendatu dituzte ororen hartzaile: halako gisaz non auzi horretan hitz emana ez zegoen haren diru guztia gastuak ordaintzeko behar izan baitute, sobera ere, baliatu.

Berri hori jakin eta berehala, nahiz eri zen oraino, Merteuil andreak prestakizunak egin zituen, eta bakarrik partitu zen gauez eta posta-ko orgaz. Haren sehiek gaur diote haietarik nehork ez zuela bere etxekoandrearekin joan nahi izan. Holandako bidea hartu omen du.

Partitze horrek bertze guztiak baino kalapita handiagoa sorrarazi du; zeren eraman baititu

bere diamanteak, balio handikoak, eta bere senarraren ondareari zegozkionak; bere zilarrak, bere bitxiak; eraman ahal izan duen guztia azken batean; eta gibelean utzi baitu berebat 50.000 libera inguruko zorra. Porrot zinez erabatekoa da.

Familia bihar biltzekoa da hartzekodunekin abeniko bat egitera entseiatzeko. Nahiz ahaide hurbila ez naizen, joateko eskaintza egin dut: baina ez naiz bilkura horretan izanen, zeremonia are tristeago batera joan beharrez. Nire alabak bihar hartuko ditu mojavai jantziak. Ez ahal duzu ahantziko, adiskide maitea, egiten ari naizen sakrifizio hori egitera neure burua behartua ikusteko, ez dudala bertze arrazoirik, non ez baita nigana gorde duzun isiltasuna!

Danceny jauna Parisetik joana da, baditu hamabortz bat egun. Maltara omen doa, eta han finkatzeko asmoa omen du. Menturaz garaiz ginateke oraino hura hemen atxikitzeko?... Adiskidea!... Nire alaba zinez erruduna da beraz?... Dudarik gabe barkatuko diozu ama bati ondo gostarik baizik ez men egitea ziurtasun izugarri horri.

Zein asturugaitz ihaurri da nire inguruan duela zenbait denboraz geroztik, eta kolpatu nau neure xederik maiteenetan! Nire alabagan, eta nire adiskideagan!

Nor egon liteke izutu gabe pentsaturik harreman arriskutsu batek bakarrak ekar ditzakeen maluretan! Eta zein atsekabe ez lirateke saihestuko aldezturik gogoeta eginik! Zein emakumez ez lioke ihes eginen seduktore baten lehen proposamenari? Zein amak ikus ahal lezake, dardaraka hasi gabe, bera ez den norbait bere alabari mintzatzen? Baina gogoeta berankor horiek sekula ez dira gertatu beharrekoak gertatu arte heltzen; eta egiazki garrantzitsuenetako bat, bai halaber agian sarriena onartua izaten dena, itorri eta baliatu gaberik da gelditzen gure segidari gabeko ohituren zurrumbiloan.

Adio, adiskide maite eta duina; une honetan ari naiz sentitzen gure arrazoia zein eskasa den gure maluretarik aldezturik begiratzeko, eta zenbatez eskasagoa oraino malura horietan kontsolatzeko.

*Parisen, 17\*\*ko urtarrilaren 14an.*